


emen ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**Alemanetik euskaratutako haur-
eta gazte-literatura: zuzeneko
nahiz zeharkako itzulpenen
azterketa corpus baten bidez.**

NAROA ZUBILLAGA GOMEZ

Tesi zuzendaria: IBON URIBARRI ZENEKORTA

Vitoria-Gasteizen, 2013ko apirilean

ISBN: 978-84-9860-867-0

Eskerrak

Ikerketa-lan hau egiteko bidean ez naiz, ez, bakarrik egon. Lana gorpuzten joan den heinean, jende askoren laguntza jaso dut, eta ez nuke haienganako nire esker ona adierazi gabe gelditu nahi.

Nire eskerrik beroenak, lehenik eta behin, Ibon Uribarriri, doktorego-tesi hau egitasmo baino ez zen unetik hasita laguntzeko prest agertu baita beti. Zalantzarik gabe, egin dion jarraipen arretatsuaren emaitza ere bada lan hau.

Eskerrik asko, baita ere, departamentuko lankide guztiei, emandako aholku eta animoengatik. Josu eta Raqueli, emandako ikuspegiagatik eta azken unean egindako iruzkinengatik. Eskerrik asko, bereziki, Zuriñeri, lanaren fase desberdinetan izan dugun lankidetzagatik. Eta eskerrik beroenak, baita ere, Elizabeteri, bere laguntzarik eta pazientziarik gabe oraindik ere ordenagailuarekin alferreko borrokan nengokeelako.

Euskal argitaletxeetako editoreei, zenbaitetan behin eta berriz jarri bainaiz beraiekin harremanetan, falta nituen datuak betetzeko, corpora osatzen duten testuen bertsio digitala eskatzeko etab. Eskerrik asko, beraz, Antxiñe Mendizabali, Mari Eli Ituarteri, Inazio Mujikari eta Iñaki Aldekoari.

Alexi, alemanaren ñabardurak ulertzen lagundu didalako; baina, bestela ere, emandako laguntza eta animoengatik, *herzlichen Dank*.

Aita ta Amai, ta Ainarai; beti hor, beti zor.

Aurkibide nagusia

SARRERA	17
1 ITZULPENGINTZA ETA ITZULPEN IKASKETAK	25
1.1. Ikuspegi historikoa	25
1.2. Polisistemen teoria.....	30
1.2.1 Literatur polisistemako osagaiak	33
1.2.2 Itzulitako literatura literatur polisisteman	35
1.3. DTS – itzulpen ikasketa deskribatzaileak, ikerketarako oinarri metodologikoa	37
1.3.1 DTS – itzulpen ikasketa deskribatzaileak	38
1.3.2 Itzulpen-arauak	41
1.3.3 Itzulpen-legeak.....	44
1.4. Touryren ostekoak.....	50
1.5. Hizkuntza gutxituak	54
1.5.1 Hizkuntza gutxituaren definizioaz.....	54
1.5.2 Aurrekariak.....	57
1.5.3 Itzulpen-jarduerak hizkuntza gutxituei ekartzen dienaz.....	59
1.5.4 Euskara, hizkuntza gutxitua.....	63
1.6. Zeharkako itzulpena	68
1.6.1 Aurrekariak.....	69
1.6.2 Zeharkako itzulpenak eta hizkuntza gutxituak.....	74
1.6.3 Zeharka itzultzeko arrazoiak.....	79
1.6.4 Zeharkakotasuna ulertzeko modu desberdinak eta muga lausoak	82
2 HAUR ETA GAZTE LITERATURA	89
2.1. Haur- eta gazte-literaturaren sorrera.....	90
2.2. HGLaren komunikazio sistema.....	96

2.2.1	HGLko komunikazioaren izaera asimetrikoa	100
2.2.2	HGLaren ekintza-sistemak	102
2.3.	HGLaren polisistema	104
2.4.	HGLa, sistema biren partaide	106
2.5.	HGLaren estatusa	107
2.6.	HGL-sistemen arteko trukea	112
2.7.	Multimedia eskaintza: HGLaren lotura ikus-entzunezkoekin	116
2.8.	Hizkuntza	122
2.8.1	Zer da gazte-hizkera?	124
2.8.2	Euskal gazte-hizkera?	128
2.8.3	Ahozkoa vs. idatzia.....	133
2.8.4	HGL-lanen idazkera	136
3	HGLa XEDE KULTURAN ETA SORBURU KULTURAN.....	143
3.1.	Euskal haur- eta gazte-literatura	143
3.1.1	Bilakaera historikoa	143
3.1.2	Euskal HGL-sistema	170
3.2.	Haur- eta gazte-literatura alemana	188
3.2.1	Bilakaera historikoa	188
3.2.2	HGL alemanaren polisistema	225
4	HGLa ETA ITZULPENGINTZA.....	249
4.1.	<i>Translation Studies</i> eta HGLa uztartzeko bidea	250
4.2.	Shavit, aitzindaria	255
4.3.	Oittinenen ekarpena: elkarriketa HGLaren itzulpenean.....	260
4.4.	O'Sullivan eta itzultzaile inplizitua.....	267
4.5.	HGLaren itzulpena hizkuntza gutxituetan.....	277
4.5.1	Aurrekariak.....	277
4.5.2	HGLaren itzulpenaren funtzioak.....	283
4.5.3	HGLaren itzulpena hizkuntza gutxituetara	287
5	METODOLOGIA	299
5.1.	Oinarriak	299
5.1.1	Corpusgintza itzulpen ikerketan	304
5.2.	Emandako pausoak	310
6	KATALOGOA.....	317
6.1.	Katalogoa osatzea	317
6.2.	Katalogoaren deskribapena.....	326
6.2.1	Itzulitako egile alemanak	327
6.2.2	Argitalpen kopuruaren bilakaera	334

6.2.3	Jatorrizko argitalpenen eta xede-argitalpenen arteko jauzia	343
6.2.4	Itzultzaileak.....	345
6.2.5	Zeharka/Zuzenean itzulitako lanak.....	358
7	CORPUSA	367
7.1.	Katalogotik corpusera	367
7.1.1	Zuzenean itzulitakoak.....	371
7.1.2	Zeharka itzulitakoak.....	376
7.2.	Corpusa osatzea	383
7.3.	Corpusa ustiatzeko erreminta.....	389
8	PARATESTUEN ETA MAKROTESTUAREN AZTERKETA	395
8.1.	Paratestuak	395
8.1.1	Paratestuen azterketa.....	400
8.2.	Testu azterketa makro mailan.....	414
9	MIKROTESTUAREN AZTERKETA.....	431
9.1.	Isekak eta madarikazioak	431
9.1.1	Aurrekariak.....	432
9.1.2	Metodologia.....	437
9.1.3	Mikrotestuaren azterketa: corpuseko isekak eta madarikazioak.....	450
9.1.4	Ondorioak	499
9.2.	Partikulak.....	501
9.2.1	Alemanezko partikulak.....	502
9.2.2	Moduzko partikulak.....	506
9.2.3	Aurrekariak.....	510
9.2.4	Metodologia.....	515
9.2.5	Mikrotestuaren azterketa: <i>ja</i> partikula	524
9.2.6	Mikrotestuaren azterketa: <i>eben/halt</i>	546
9.2.7	Ondorioak	562
10	AZKEN ONDORIOAK	565
	BIBLIOGRAFIA	575



Irudien aurkibidea

Irudia 1. Holmesen eskema.	28
Irudia 2. Touryren lerroa.	42
Irudia 3. Neulanden eskema.	128
Irudia 4. Boothen eskema.....	269
Irudia 5. Chatmanen eskema.....	269
Irudia 6. Schiaviren eskema.....	271
Irudia 7. O'Sullivanen eskema.	273
Irudia 8. FileMakerPro11 datu-basearen itxura, daturik gabe.....	319
Irudia 9. FileMaker Pro11 datu-basearen itxura, datuak beteta.....	322
Irudia 10. Datu-baseko fitxa baten irudia.	323
Irudia 11. Katalogoko lanak, luzeraren arabera.	327
Irudia 12. Euskarara itzulitako egile alemanak.	328
Irudia 13. Egileei itzuli zaien lan kopurua.	331
Irudia 14. Itzulitako egile alemanak, garaiaren arabera.	333
Irudia 15. Argitalpen kopurua, berrargitalpen eta guzti, kronologia-ardatzean.....	335
Irudia 16. Argitalpen kopurua, berrargitalpenak kontuan hartu gabe, kronologia-ardatzean.	340
Irudia 17. Jatorrizko lanen argitalpen-urteen eta itzulpenen argitalpen-urteen arteko aldea.	343
Irudia 18. Itzultzaileak, bakoitzak itzuli duen lan kopuruaren arabera.....	346
Irudia 19. Itzultzaileak, lan kopuruaren arabera taldekatuak.	347
Irudia 20. 80ko hamarkadan aritu diren itzultzaileak.	351
Irudia 21. 90eko hamarkadan aritu diren itzultzaileak.	352
Irudia 22. 2000-2011 bitartean aritu diren itzultzaileak.....	353
Irudia 23. Zuzenean eta zeharka itzulitako lanak.	360

Irudia 24. Zuzenean eta zeharka itzultzen duten itzultzaileen kopurua.	361
Irudia 25. Zuzenean eta zeharka itzuli den lan kopuruaren bilakaera.	362
Irudia 26. Testu baten adibidea, eskaneatu ostean eta <i>garbitufix</i> programatik pasatu eta birpasatu ondoren.....	385
Irudia 27. Etiketatutako testu baten irudia XML formatuan.	387
Irudia 28. Etiketatutako testu hirukotea moldaketa batzuk egin eta gero, jatorrizkoarekin parez pare bat etor daitezen.....	388
Irudia 29. Datu-basea.....	389
Irudia 30. Bilatzailea.	392
Irudia 31. Jatorrizko izenburua agertzeari buruzko grafikoa.	402
Irudia 32. Azaleko irudiari buruzko grafikoa.....	406
Irudia 33. Alemanetik itzuli dela esplizitatzeari buruzko datuak.	407
Irudia 34. Corpuseko hitz kopurua.	420
Irudia 35. Zeharkako itzulpenetako hitz kopurua.	421
Irudia 36. Corpuseko esaldi kopurua.....	423
Irudia 37. Zeharkako itzulpenetako esaldi kopurua.....	424
Irudia 38. Esaldi kopurua zuzeneko itzulpenetan.	426
Irudia 39. Corpuseko paragrafo kopurua.....	427
Irudia 40. Zeharkako itzulpenetako paragrafo kopurua.....	428
Irudia 41. Bilaketan erauzitako isekak eta madarikazioak sailkatzeko erabilitako taula.....	439
Irudia 42. Iseka motak.	443
Irudia 43. Iseka deskribatzaileak zuzeneko itzulpenetan.	451
Irudia 44. Iseka deskribatzaileak zeharkako itzulpenetan.	455
Irudia 45. Iseka pertsonalak zuzeneko itzulpenetan.....	461
Irudia 46. Iseka pertsonalak zeharkako itzulpenetan.	464
Irudia 47. Madarikazioak zuzeneko itzulpenetan.....	469
Irudia 48. Madarikazioak zeharkako itzulpenetan.	471
Irudia 49. Iseka-erroen maiztasuna agertzen duen grafikoa.	474
Irudia 50. <i>Hexe</i> hitza corpuseko testuetan.	476
Irudia 51. Euskararen Corpus Estatistikoak <i>inozo</i> hitzaren erabilerari buruz emandako informazioa.....	483
Irudia 52. Moduzko partikulen agerpena gure corpusean.	517
Irudia 53. <i>Ja</i> partikularen agerpen kopurua corpuseko testuetan.....	518
Irudia 54. <i>Eben/halt</i> partikulen agerpen kopurua corpuseko testuetan.....	521
Irudia 55. <i>Ja</i> eta <i>eben/halt</i> partikulei buruzko emaitzak jasotzeko erabili dugun taula.....	523

Irudia 56. <i>Ja</i> motak.....	530
Irudia 57. <i>Ja</i> itzultzeko estrategia motak.....	531
Irudia 58. <i>Ja</i> partikula itzultzeko erabilitako prozedurak <i>ja</i> motaren arabera.....	542
Irudia 59. <i>Ja</i> partikula zuzeneko itzulpenetan.....	543
Irudia 60. <i>Ja</i> partikula zeharkako itzulpenetan.....	543
Irudia 61. <i>Eben</i> partikula itzultzeko estrategiak, gure corpusaren arabera.....	550
Irudia 62. <i>Eben</i> itzultzeko estrategiak zuzeneko itzulpenetan.....	557
Irudia 63. <i>Eben</i> itzultzeko estrategiak zeharkako itzulpenetan.....	557

Taulen aurkibidea



Taula 1 Corpusa osatzen duten lanak.....	382
Taula 2. Corpuseko hitz kopurua.....	390
Taula 3. Epitestuen taula.....	411
Taula 4. Corpuseko lanen atal kopurua.....	415
Taula 5. Hitz kopuruen arteko aldea. Adibide bat.....	422
Taula 6. Paragrafo kopuruen arteko aldea. Adibide bat.....	426
Taula 7. Iseka deskribatzaileak zuzenean. Mantentzea.....	451
Taula 8. Iseka deskribatzaileak zuzenean. Eufemizatzea.....	452
Taula 9. Iseka deskribatzaileak zuzenean. Desagerraraztea.....	453
Taula 10. Iseka deskribatzaileak zuzenean. Ezabatzea.....	454
Taula 11. Iseka deskribatzaileak zeharka. Mantentzea.....	455
Taula 12. Iseka deskribatzaileak. Eufemizatzea.....	457
Taula 13. Iseka deskribatzaileak zeharka. Desagerraraztea.....	458
Taula 14. Iseka deskribatzaileak zeharka. Ezabaketa.....	459
Taula 15. Iseka pertsonalak zuzenean. Mantentzea.....	461
Taula 16. Iseka pertsonalak zuzenean. Eufemizatzea.....	462
Taula 17. Iseka pertsonalak zuzenean. Ezabatzea.....	463
Taula 18. Iseka pertsonalak zuzenean. Disfemizatzea.....	463
Taula 19. Iseka pertsonalak zeharka. Eufemizatzea.....	465
Taula 20. Iseka pertsonalak zeharka. Mantentzea.....	467
Taula 21. Iseka pertsonalak zeharka. Desagerraraztea.....	467
Taula 22. Madarikazioak zuzenean. Eufemizatzea.....	469
Taula 23. Madarikazioak zuzenean. Mantentzea.....	470
Taula 24. Madarikazioak zuzenean. Desagerraraztea.....	470
Taula 25. Madarikazioak zuzenean. Ezabaketa.....	470
Taula 26. Madarikazioak zeharka. Mantentzea.....	471

Taula 27. Madarikazioak zeharka. Eufemizatzea	472
Taula 28. Madarikazioak zeharka. Ezabaketa.....	472
Taula 29. Madarikazioak zeharka. Desagerraraztea	473
Taula 30. <i>Dumm</i> hitzaren baliokideak.....	477
Taula 31. <i>Blöd</i> hitzaren baliokideak.....	479
Taula 32. <i>Dumm</i> eta <i>blöd</i> gaztelaniaz.....	485
Taula 33. Isekak eta madarikazioak. Interferentzia zeharkako itzulpenetan (1).	487
Taula 34. Isekak eta madarikazioak. Interferentzia zeharkako itzulpenetan (2).	488
Taula 35. Isekak eta madarikazioak. Interferentzia zeharkako itzulpenetan (3).	489
Taula 36. Isekak eta madarikazioak. Interferentzia zeharkako itzulpenetan (4).	490
Taula 37. Isekak eta madarikazioak. Interferentzia posibleak zuzeneko itzulpenetan (1).	493
Taula 38. Isekak eta madarikazioak. Interferentzia posibleak zuzeneko itzulpenetan (2).	496
Taula 39. <i>Ja</i> itzultzeko estrategiak. Jaso gabe.....	532
Taula 40. Interferentzia posiblea <i>jaren</i> zuzeneko itzulpenean.	534
Taula 41. <i>Ja</i> itzultzeko estrategiak. Kausala.	536
Taula 42. <i>Ja</i> itzultzeko estrategiak. Adizlaguna.....	537
Taula 43. <i>Ja</i> itzultzeko estrategiak. Ezezkoa.....	537
Taula 44. <i>Ja</i> itzultzeko estrategiak. Partikula.	538
Taula 45. <i>Ja</i> itzultzeko estrategiak. Lokailua.....	538
Taula 46. <i>Ja</i> itzultzeko estrategiak. Esapidea.	539
Taula 47. <i>Ja</i> itzultzeko estrategiak. Galdera.	539
Taula 48. <i>Ja</i> itzultzeko estrategiak. Aditza indartzea.....	540
Taula 49. <i>Ja</i> itzultzeko estrategiak. Juntagailua.	540
Taula 50. Zubi-bertsioaren eragina <i>ja</i> jasotzerakoan (1).	544
Taula 51. Zubi-bertsioaren eragina <i>ja</i> jasotzerakoan (2).	544
Taula 52. Zubi-bertsioaren eragina <i>ja</i> jasotzerakoan (3).	545
Taula 53. <i>Eben</i> partikula moten adibideak.	548
Taula 54. <i>Eben</i> itzultzeko estrategiak. Jaso gabe.....	550
Taula 55. Interferentzia posiblea <i>ebenen</i> zuzeneko itzulpenean.....	552
Taula 56. <i>Behar</i> aditzlaguntzailea geroaldian, <i>eben</i> itzultzeko beharrik izan gabe ere.	554

Taula 57. <i>Eben</i> itzultzeko estrategiak. Esapideak.	554
Taula 58. <i>Eben</i> itzultzeko estrategiak. Partikula.	555
Taula 59. <i>Eben</i> itzultzeko estrategiak. Lokailua.	555
Taula 60. <i>Eben</i> itzultzeko estrategiak. Kausala.	555
Taula 61. <i>Eben</i> itzultzeko estrategiak. Ezezkoa.	556
Taula 62. <i>Eben</i> partikularen itzulpenak aztertuz aurkitutako zenbait interferentzia.	558
Taula 63. <i>Halt</i> partikularen itzulpena aztertzean sumatutako interferentzia zeharkakoetan.	560
Taula 64. <i>Halt</i> partikularen itzulpena aztertzean sumatutako interferentzia zuzenekoetan.	561

Laburdurak

LIBURUEN LABURDURAK

Behean zerrendatutakoak jatorrizkoak dira. Itzulpenak identifikatzeko, -eu (euskara), -es (gaztelania) edo -ga (galegoa) gehitu dizkiegu jatorrizkoen laburdurei.

28LG	<i>Achtundzwanzig Lachgeschichten</i>
35M	<i>Der 35. Mai</i>
AUB	<i>Anton und die Blätter</i>
DAK	<i>Das Austauschkind</i>
DASH	<i>Die Abenteuer der schwarzen Hand</i>
DDL	<i>Das doppelte Löttchen</i>
DGM	<i>Das Gauklermärchen</i>
DGS	<i>Die Geschichte von Herrn Sommer</i>
DKG	<i>Das kleine Gespenst</i>
DKH	<i>Die kleine Hexe</i>
DKT	<i>Die Konferenz der Tiere</i>
DOA	<i>Die Omama im Apfelbaum</i>
DPS	<i>Das Piratenschwein</i>
DSG	<i>Das Schlossgespenst</i>
ED	<i>Emil und die Detektiven</i>
EL	<i>Einfach nur Liebe</i>
FR	<i>Fränze</i>
FSWS	<i>Feuerschuh und Windsandale</i>

GNZ	<i>Gute Nacht, Zuckerpüppchen</i>
HLJ	<i>Hexe Lilli auf dem Jagd nach dem verlorenen Schatz</i>
JJJ	<i>Jokel, Jula und Jericho</i>
KHM	<i>Kinder- und Hausmärchen</i>
KND	<i>Konrad, oder das Kind aus der Konservenbüchse</i>
LD	<i>Lena aus dem Dach</i>
LOS	<i>Liebe Oma deine Susi</i>
PA	<i>Pünktchen und Anton</i>
SK	<i>Schokolowsky, der Truffelhund</i>
STP	<i>Der Struwelpeter</i>
VKM	<i>Vom kleinen Maulwurf, der wissen wollte, wer ihm auf den Kopf gemacht hat.</i>
WDL	<i>Was ist das für ein Lärm?</i>
WFKD	<i>Die Wilden Fussballkerle: Deniz, die Lokomotive</i>
WO	<i>Die Wolke</i>
WSM	<i>Wie schmeckt der Mond?</i>

Sarrera

Eskuartean duzun lan hau ez da goizetik gauera sortu; hondorago du abiapuntua: itzulpengintza ikasketak egin eta itzultzen aritua da lan honen egilea, besteak beste, baita haur- eta gazte-literatura alemana itzultzen ere. Hala, Ende, Funke edota Masannek bezalako autoreak euskarara itzultzeak hainbat kezka eta eztabaidagai sortzen du, beste itzultzaileei ere hainbat aldiz entzundakoak: zer bereizgarri ditu haur- eta gazte-literaturaren itzulpenak? Gaztetxoentzat itzultzeak zer esan nahi du? Eta euskarara itzultzeak? Nola itzuli hau edo beste hura alemanetik euskarara? Afizioaren nahiz ofizioaren bidean sortutako galdera eta interesguneek bultzatu dute, beraz, lan hau. Ezin ahaztu, ordea, ikerketa-lan akademiko baten aurrean gaudela. Haur- eta gazte-literaturaren euskal itzulpena oraindik ere asko ikertu ez den arloa da, eta ikerketa-lan honek beste ekarpen bat egin nahi dio euskal literatur ekoizpenaren atal esanguratsu hori hobeto ezagutzeko ahaleginari.

Jakin dakigunez, Euskal Herrian ezinbestekoa izan da eta da, gaur egun ere, itzulpena: bertako literatur sistema garatu eta

indartzeko, baina, era berean, ezinbestekoa izan da egoera diglosiko larrian zen hizkuntza bultzatu, normalizatu eta garatzeko.

Zehaztu behar dugu, baina, prozesu horren gakoa haur- eta gazte-literatura izan dela (aurrerantzean, HGL), hainbat hizkuntza-komunitate diglosikoetan gertatu den moduan. HGLa gizarte bateko hartzaile txiki eta gazteenei dago bideratuta, hau da, etorkizuneko hartzaileei. Horrenbestez, egoera diglosikoa bizi duen hizkuntza batentzat ezinbestekoa da hizkuntza-erabiltzaile gisa bide luzea duten horien hizkuntza-heziketa bermatzea. Itzulpen-jarduerak lan horretan laguntzen du, bertako sorkuntzarekin betetzen ez diren hutsuneak betetz, kanpoko ereduetara irekiz, eta, jakina, hizkuntzaren garapena bultzatuz.

Itzulpen-jarduera ikertu beharraz ohartuta, eta kontuan hartuta HGLak euskal literaturan duen pisua, Lopez Gasenik euskaratutako HGLa hartu zuen aztergai 2000. urtean aurkeztu zuen tesian. Ordutik hona, euskaratutako HGLa aztertzen duen lan akademiko gutxi egin da; funtsean, 2004an Lopez Gaseniren zuzendaritzapean Gomez Zubiak egindakoa, Grimm anaien itzulpenak eta egokitzapenak aztertu baitzituen. Lan horretan alemanetik euskarara egindako itzulpenak aztertzen dira, baina egile bikote batera mugatzen da. Ez dago, ordea, euskarara beste hizkuntza jakin batetik itzulitako HGLaren azterketa orokorrik, ezta, noski, alemanetik ere.

Izan ere, alemanezko produkzioa erreferente izan da nazioarteko HGL-sisteman, eta euskal HGL-sisteman ere pisu berezia izan du berak. Gaur egun ere, ezinbestean kontuan hartzen

den literatur sistema dugu, eta, HGL-lanen inportaziorako bestelako herrialdeak nagusitu badira ere, alemanetik euskaratutako HGL kopurua adierazgarria da oraindik orain. Are aipagarriagoa dena: alemanetik gehien euskaratzen den generoa dugu HGLa. Alemana-euskara itzulpen konbinazioan, beraz, ezinbestean aztertu beharrekoa da HGLa.

Horiek, beraz, ikerlan honen aztergai nagusiak, izenburutik bertatik ondoriozta daitezkeenak: HGLaren itzulpena eta alemana-euskara hizkuntza-konbinazioa. Alemanetik euskarara itzuli den HGLaren ikuspegi orokor eta aldi berean zehatza lortu nahi genuen: alemanetik euskarara zenbat HGL-lan itzuli diren, zein egile eta noiz itzuli diren jakin nahi genuen, baina, aldi berean, baita itzulpen horiek nola egin diren ere. Izan ere, lan honen ardatzetako bat zeharkakotasunarena da. Gauza jakina da zeharkako itzulpenak pisu handia izan duela euskaratze lanetan; hau da, abiapuntu gisa sorburu-hizkuntzako bertsioa hartu beharrean, askotan hartu da ordurako argitaratua zegoen gaztelaniazko bertsioa. Aipatu dugun egoera diglosikoaren adierazle dugu zeharkako itzulpen-jarduera, eta boterea duen hizkuntzarekiko morrontzaren seinale ere bada.

Hala eta guztiz ere, apenas egon da, artean, zeharkako itzulpen-jarduera maila akademikoan aztertu duen lanik. Elizabete Manterolak (2012) aztertu du gaia euskaratik egin diren Atxagaren itzulpenetan, eta Aiora Jakak (2012) ere ukitu du gaia. Dena den, hutsune horrek berak are larriagotzen du zeharkako itzulpena berariaz aztertzekeo premia. Zeharkako itzulpena eta horrek zer eragin duen gure hizkuntzan ez da berariaz aztertu: beharrezkotzat jo ez delako, beharbada; gaztelaniarekin dugun mendekotasunezko

harremana lausotu nahian, akaso. Nolanahi den, datuak jakinda, eta eraginak aztertuta, gehiago jakingo dugu euskararen eta gaztelaniaren arteko elkarreaginari buruz. Hizkuntzalaritzan aztertzen diren gaiak dira *codeswitching*a edota elkarren ondoan eta nahastuta bizi diren hizkuntzen arteko harremana, baina literaturak eta itzulpengintzak topo egiten duten plazara atera nahi izan dugu guk gaia. Azken batean, itzulpengintza ikasketek ekarpen interesgarria egin diezaiokete itzulpengintza hain presente dagoen literatur sistema baten ezagutzari.

Touryk ezarritako ikasketa deskribatzaileei jarraiki egin dugu lan hau, eta hark proposatutako bi itzulpen-legeei erreparatu nahi izan diegu: estandarizazioaren legeari eta interferentziaren legeari, hain zuzen ere. Hala, estandarizazioaren legeak dio itzulpen-jardueraren ondorioz xede-hizkuntza lausotu egiten dela, estandarizatu, eta ez direla sorburu-bertsioaren koska guztiak maila berean jasotzen. Interferentziaren legeak dio, bestalde, saihestezina dela xede-testuak jatorrizkoaren arrastoak jasotzea. O'Sullivanek bere teorizazioan itzultzaile implizituaren ahotsa deitzen dio interferentzia horri.

Euskarak bizi duen egoera kontuan hartuta eta euskal itzultzaileen larrian jarrita, ordea, Touryk aipatzen duen interferentziaren legeari ñabardura garrantzitsu bat gehitu nahi izan diogu gure ikerketan: gurean, jatorrizkoaren interferentzia ez ezik, zubi-hizkuntzaren interferentzia hartu behar dugu kontuan; eta zubi-hizkuntzaren interferentzia ez da, soilik, zeharkako itzulpenetara mugatzen: alemanetik euskarara ustez zuzenean itzuli den kasuetan ere gaztelaniaren interferentzia kontuan hartzekoa dela iruditzen zaigu; interferentzia hori itzultzailearen

buruan dagoelako, ez beharbada beti maila berean, baina, nolana den, ikertzea eta neurtzea merezia duen fenomeno da: itzultzeko jardunean, zein aldapatan hartzen ditugun makuluak, noiz zaizkigun lagungarri.

Helburua, beraz, HGLaren itzulpenean sakontzea da, alemanetik euskararako konbinazioan, Touryk aipatzen dituen estandarizazioaren eta interferentziaren legeei erreparatuz, baina, batez ere, gurean zeharkakotasunak duen presentziaz eta pisuaz jabetuta: ustez zuzenean itzultzen denean ere gaztelaniaren interferentzia izan izaten du itzultzaileak, eta, beraz, jatorrizkoaren interferentzia ez ezik —bizi garen hizkuntza-komunitatean bizi garenez—, gaztelaniaren interferentzia hartu behar dugu kontuan. Interferentzia diglosikoaz ariko ginateke, beraz.

Hamar ataletan banatu dugu lana. Sarrera honexen ostean, itzulpengintzari eta itzulpen ikasketei zuzendutako atalari ekin diogu. Atal horretan, beraz, diziplina gazte baina bizi horretan kokatu dugu gure ikerketa. Arreta berezia eskaini diegu Even-Zoharren polisistemen teoriari eta Touryren metodologia deskribatzaileari. Horretaz gain, hizkuntza gutxituen itzulpen-jarduerak betetzen duen funtzioa aztertu dugu, eta zeharkako itzulpenaren gaia ere jorratu dugu.

Bigarren atala HGLari eskaini diogu. HGLaren ezaugarriak deskribatu ditugu eta, ondoren, hirugarren atalean, sakon aztertu ditugu eskuartean ditugun bi HGL-sistemak, euskal eta aleman HGL-sistemak.

Lehenengo hiru ataletako ideiak laugarren atalean bateratu ditugu, HGLaren itzulpenari buruzko teoria nagusienei erreparatu

baitiegu bertan. Era berean, hizkuntza gutxituetan HGLaren itzulpenak betetzen duen funtzioan sakontzen saiatu gara.

Bosgarren atalean, erabilitako metodologia orokorrari buruz aritu gara. Azterketa deskribatzaile osoa egiten saiatu gara: alemanetik itzulitako euskal HGLaren katalogoa osatu dugu batetik, eta, ondoren, testu mailako azterketak egiteko asmoz, corpus hirueleduna sortu dugu, zeharkako itzulpenen kasuan zubi-hizkuntza gisa erabilitako lanak ere hartu ditugulako, eta digitala osatu dugu corpora, aurrerantzean ere kontsultagai izateko moduan. Horregatik, etorkizunean ere ustiatzen jarraitu ahalko ditugun erremintak osatu ditugunez (katalogoa eta corpora), berariaz azaldu nahi izan dugu eman ditugun urrats metodologikoen garrantzia.

Seigarren atalean, ikerlanaren aurreneko habea izan den katalogoa deskribatu dugu: zenbat HGL-lan itzuli den alemanetik euskarara, zein egile, zein itzultzaile aritu diren lan horretan, zenbat itzuli den zuzenean eta zenbat zeharka etab.

Katalogotik ateratako ondorioetan oinarrituta, corpora osatu duten lanak aukeratu ditugu. Aukeraketa-irizpideak eta corpora osatzeko eman ditugun urratsak deskribatu ditugu zazpigarren atalean.

Zortzigarren atalean, berriz, paratestuen eta makrotestuaren azterketak egin ditugu. Paratestuei erreparatu diegu lehenik eta, ondoren, corpuseko testu-masak eskaintzen dizkigun datuak aztertu ditugu.

Bederatzigarren atalean, mikroazterketari heldu diogu. HGLaren itzulpenaz ari garelarik, HGLko hizkuntzaren

adierazgarri diren iseken eta madarikazioen itzulpena aztertu nahi izan dugu batetik, eta, bestetik, aleman hizkuntzak hain berezkoak dituen moduzko partikulen itzulpena aztertzeko saio bat egin nahi izan dugu. Biak, isekak eta madarikazioak nahiz moduzko partikulak, elkarrizketatan maiz agertzen diren osagaiak dira, eta HGLaren itzulpenean lortu nahi den hizkera fikzionatuaren adibide.

Hamargarren atalean, azkenik, ikerlan honetatik ateratako ondorio nagusiak azaldu ditugu.

Lan honen bitartez ekarpen bat egin nahi izan diogu euskal itzulpengintzaren ikerketari. Ondorengo aipuan Zabaletak dioen moduan, euskararen legami izan da itzulpengintza, baina ezinbestekoa iruditzen zaigu gaiaren inguruko ikerketak egitea, legamia zein abiaduran eta nola eragiten ari den ikusteko, eta horrek gure hizkuntzan, euskararen, uzten dituen eraginak baloratzeko:

Itzultzaileak asmatu egin behar du. Hizkuntzaren alor guztietan. Eta hori bilaka daiteke aurki euskararen beraren legami, baldin asmatzeko orduan euskararen jatorrizko indarrari eusten bazaio. Bestela, berriz, kutsaduraren ate bihur daiteke, zenbait kasutan ikus daitekeen bezala (Biguri, K. eta Zabaleta, J., 1990: 19)

Literatura kultur sistemaren adarretako bat izanik, eta itzulpengintzak leiho moduan funtzionatzen duenez —kanpokoaz bertakoa aireberrituz eta bertakoa kanpora erakutsiz—, sinetsita gaude nork bere kultura hobeto ezagutzeko gakoa direla itzulpen ikasketak. Hala, HGLaren itzulpenean edo alemana-euskara konbinazioan sakontzeaz harago, euskal kulturaren

funtzionamendua hobeto ulertzen lagunduko digun ekarpen bat egiten ahalegindu gara.

Itzulpengintza eta itzulpen ikasketak

HGLaren itzulpena denez gure ikergaia, itzulpenaren arloari helduko diogu aurreneko atal honetan. Itzulpen ikasketak jakintza-arlo gaztea da, eta horren historia laburra birpasatuz hasiko gara. Arreta berezia eskainiko diegu Even-Zoharren polisistemen teoriari eta, bereziki, Touryk ezarritako metodologia deskribatzaileari, azken horrena izan baita gure lanean gidari izan dugun ikuspegia. Era berean, hizkuntza gutxituek itzulpengintzarekin duten harremana aztertuko dugu, eta, horri lotuta, zeharkako itzulpen-jarduna, gure ikerketan bereziki sakon aztertu nahi dugun itzulpen mota denez.

1.1. IKUSPEGI HISTORIKOA

Itzulpengintza jarduera gisa oso antzinatik datorren praktika baldin bada ere, diziplina gisa XX. mendeko bigarren erdian hasi zen garatzen. Hain zuzen ere, Bigarren Mundu Gerra ondoren hasiko dira itzulpengintza eta interpretazioa geroz eta pisu handiagoa hartzen, nazioarteko era guztietako harremanak ugaritu

egingo direlako; hala, jakintza-arloaren inguruko teorizazio nahiz ikerketak geroz eta ugariagoak izango dira pixkanaka. Politika mailako harremanak areagotzeaz gain, arlo askotan gertatuko dira aldaketak: ordura arteko geldialdi eta itxialdiarekin amaitu eta garapen bide berriak zabalduko dira; merkataritza-harremanak ugarituko dira eta teknologiak ere aurrera egingo du; hizkuntzalaritzan ere aurrerapausoak emango dira zientzia mailako trataera lortzeko. Garai horretan etorriko dira, esaterako, Chomsky bezalako pentsalari generatibisten ekarpenak. Halere, hizkuntzalariak itzulpengintza aztertzen hasiko diren horretan, kodeen arteko harremanak aztertzeraz mugatuko dira; hizkuntza-gertakariak baino ez dituzte aztertuko, beste ezer kontuan hartu gabe, hizkuntzak isolatutako kodeak balira bezala. Horren adibide dugu, adibidez, Roman Jakobson hizkuntzalaria: “Jakobson underestimates the interpretive nature of translation, the fact that recoding is an active rewording that doesn’t simply transmit the foreign message, but transforms it” (Venuti, 2004: 113).

Itzulpengintzak ez zuen inolako autonomiarik jakintza gisa: ez zegoen gaia lantzen zuen aldizkaririk, ez itzulpengintza departamenturik inongo unibertsitatetan. Salbuespen gisa, itzulpen-eskolak zeuden. Pixkanaka, ordea, ikerketa-lan bakanak agertzen hasiko dira. Hasiera batean, hizkuntzalaritzaren ikuspegitik helduko diote ikertzaileek gaiari; Catforden kasua da, hizkuntzen arteko baliokidetasuna aztertzeraz mugatuko baita. Ondoren, Nida eta Taberren lanak agertuko dira: baliokidetzan oinarritzen badira ere, baliokidetzaren dinamikoa da aztertzen dutena, hau da, hartzailera bideratutakoa. Bi ikertzaile horiek egindako bidea beste ikertzaile askoren akuilu izango da, eta, hala,

itzulpengintzako ikerketa-gune edo eskola batzuk sortuko dira. Aurrenekoetariko bat Leipzigekeko eskola izango da; bertan Otto Kadek eta Albert Neubertek hartu zuten parte. Garai hartan oraindik ere helburu nagusia itzultzaileak trebatzea zenez, ikuspegi arauemailea zuten, baina, hala ere, ordura arteko hizkuntzalariak ez bezala, baliokidetzaren gai klasikoaz haratago, pixkanaka testu motetara, hartzailera eta pragmatikara bideratuko dute arreta.

Leipzigekeko eskolaren ostean, Heidelbergkoa nabarmenduko da, Reiss eta Vermeer direlarik bertako ordezkari nagusiak. Skopos teoria mamitu eta zabalduko dute 70eko hamarkadan. Aurreko hamarkadarekin alderatuta, bi ikertzaile hauek ez dira hizkuntza-gertakarietan edo kodeetan oinarrituko, testuetan baizik: testuak, betiere, une eta egoera jakin batean sortutako kultur gertakari diren neurrian:


El modelo alemán que nos ocupa o teoría del skopos supone, entre otras cosas, una reacción contra las teorías lingüísticas de los años sesenta, teorías que tuvieron mucho que ver en que los traductólogos de la época vieran la traducción como una ciencia (Moya, 2004: 88).

Gainera, teoria horrek iraultza handi bat ekarri zuen: ordura arte sorburu-testua zen erdigunea, eta azterketa guztiak itzulpenek jatorrizkoa egokiro islatzen ote zuten neurtzera mugatzen ziren; Skopos teoriarekin batera, ordea, itzulpen-lanaren helburua eta itzulpenaren hartzailea kokatuko dira erdigunean.

Baina, itzulpengintza jakintza-arlo gisa aztertzekeo ibilbide horretan, J.S. Holmes-ek emango du urrats erabakigarria, berak emango baitio *Translation Studies* edo Itzulpen Ikasketak izena

itzulpengintzaren jakintza-arloari *The name and nature of translation studies* lanean (1972).

Poesiaren itzulpenetik zetorren Holmes, eta marko baten gabezia sumatzen zuelako proposatu zuen ondorengo eskema. Beste jakintza askotan egiten den antolaera eman nahi izan zion itzulpengintzari ere, hau da, alde teorikoa eta aplikatua bereizi. Hala, eskema honen bidez lortuko du itzulpengintzak jakintza gisa behar zuen autonomia. Hermansek, esaterako, arloaren independentzia-aldarrikapen gisa hartzen du Holmesen eskema: “Holmes’s ‘Name and Nature’ constitutes translation studies’s declaration of independence” (Hermans, 1999: 30).



Irudia 1. Holmesen eskema.

Bi adar nagusitan banatu zuen Holmesek jakintza-arloa: adar teorikoa, batetik, eta aplikatua, bestetik.

Adar teorikoa, ordea, bi modutara landu daiteke: modu erabat teorikoan ala modu deskribatzailean. Erabat teorikoa den alderdia oro har edota gaika teoriza daiteke (arazo jakin bati dagokionez, testu-motari dagokionez etab.). Modu deskribatzaileak, berriz, fenomenoak deskribatzen ditu, eta hiru aukera definitu zituen Holmesek: produktua behatuta egin liteke, itzulpen-prozesuari erreparatuta edota itzulpenek betetzen duten funtzioa kontuan hartuta.

Adar aplikatuak itzulpengintza praktikara aplikatuta sortzen diren eremuak aztertzen ditu: hiztegegintza, itzultzaileen prestakuntza-materialak etab.

Hiru adarrak, teorikoa, deskribatzailea eta aplikatua, elkarreragileak dira, eta etengabeko elkarrizketa batean daude. Esate baterako, adar deskribatzailetik ateratako ondorioekin eraikitzen dira teoriak edo garatzen dira itzultzaileak behar dituen tresneriak.

Holmesek egindako lana izango dute abiapuntu Itamar Even-Zohar eta Gideon Toury teoriagileek ere.

Biak ere formalismo errusiarrean oinarritutako teoriagileak dira, eta xede-testura eta hizkuntzara bideratzen dute arreta akademikoa (*target-oriented*). Even-Zoharrek polisistemen teoria eratu zuen eta Touryk DTS – itzulpen ikasketa deskribatzaileetarako oinarriak ezarri (Holmesen eskemako adar deskribatzailea). Haiek ezarritako oinarriak ezinbestekoak bihurtu dira itzulpen arloko ikerketetan:

Polsystem theory proves to be a decisive advance in translation research. The literature on equivalence formulates linguistic

and textual models and often prescribes a specific translation practice (pragmatic, functional, communicative). The target orientation, in contrast, focuses on actual translations and submits them to detailed description and explanation (Venuti, 2004: 149-150).

Gure lanerako ezinbestekoak izan direnez, xeheago aztertu ditugu Even-Zoharrek eraturako polisistemen teoria eta Touryk ezarritako itzulpen ikasketa deskribatzaileetarako oinarriak.

Ondoren etorriko dira, Even-Zoharren eta Touryren ekarpenen ostan, bestelako eskolak eta izen garrantzitsuak itzulpenaren teoriagintzan: 80 eta 90eko hamarkadetan manipulazioaren eskola sortuko da, eta *cultural turn* edo kulturarako bira delakoa gertatuko da itzulpen ikasketetan. Joera horiek direla eta, itzulpengintza, hizkuntzaren eremuan kokatu beharrean, kulturaren eremuan kokatuko da. Ikerketak egiteko, kulturei eta kulturen arteko harremenei erreparatuko zaie, harreman horiek dinamikoak direlako, aldagarriak, unean uneko botere-harremanen araberakoak. Hala, diziplinartekotasuna bultzatuko dute teoriagileek, “and this brings a renewed functionalism to translation theory, a concern with the social effects of translation and their ethical and political consequences” (Venuti, 2004: 325). Joera berri horien artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, Susan Bassnett, André Lefevere edota Theo Hermans. Toury eta Even-Zoharrek jorratutako teorien ahulguneak kritikatu dituzte, eta, horregatik, pixka bat xeheago azaldu ditugu 1.4 atalean.

1.2. POLISISTEMEN TEORIA

Polisistemen teoria Itamar Even-Zoharrek 70eko hamarkadan eginiko hausnarketa batzuen ondorioz jaio zen. Formalismo

errusiarrean oinarritutako teoria da, eta teoriaren funts nagusia da ideiak lotuta daudela beren artean: *relational thinking* deitzen dio Even-Zoharrek (Even-Zohar, 2010: 38). Ikuspegi hori abiapuntu izanik, kultura sistema gisa aztertu behar da, heterogeneoak diren baina beren artean amaraun batean bezala elkar lotuak dauden parametro sorta gisa (ibid.).

Polisistema etengabeko elkarreraginean dabilzan sistemen (kultur sistemaren, sistema ekonomikoaren, politikoaren, sozialaren eta kidekoen) sistema da. Kultura bera ere polisistema bat da, eta polisistema horretako sistemetako bat da literatura.

Heterogeneoa eta dinamikoa dela, horiek polisistemaren ezaugarri nagusiak. Aztergai bat (literatura) ez da zerbait estatikoa, eta beraren inguruan gertatzen diren fenomenoak ez dira halabeharrez gertatzen. Esate baterako, literaturako elementu guztiak sistema baten barnean daude, eta, sistema hori, polisistemaren barruan beste sistemekiko duen funtzioaren arabera definitzen da.

Literatura itzuliari dagokionez, xede-polisistema behatuz hasiko ginasteke aztertzen. Gure kasuan, euskal literatur polisistema dugu (eta bertan HGL-sistemak betetzen duen tokia); baina horren baitan aleman jatorriko lanak daudenez, horrek garamatza alemanezko literatur polisistema (eta bertan HGL-sistemak betetzen duen tokia) kontuan hartzera. Ezin esan daiteke, bide batez, polisistema biak baliokideak direnik, ibilbide eta ezaugarri oso bestelakoak baitituzte (ikus 3. atala). Ordea, beste behin gogorarazi nahi genuke gure ikerketan ez garela bi polisistemen arteko harreman soilera mugatu; izan ere, euskal

HGL-sistema aztertzen hasi eta HGL-sistema alemana aztertzen jarraituta, tartean bestelako fenomeno batekin egin dugu topo: zeharka egindako itzulpenak. Ondorioz, gaztelaniaz idatzitako literaturaren presentzia eta hark duen eragina ere hartu ditugu kontuan. Laburbilduz, hizkuntza eta sistema bikotea baino, hirukotea hartu dugu gure ikerketa egiteko: euskarazko xedebertsioak, sorburu-bertsio alemanak, eta zeharkako gaztelaniazko bertsioak.

Bestalde, sistemaren barruko ordenamenduari eta dinamikari dagokionez, elementuak sistemako erdigunean edo periferian egon daitezke. Batzuetan erdigunetik periferiara pasatzen dira edo, alderantziz, periferiatik erdigunera. Edo, are, ondoko sistemako erdigune/periferiara pasatzen dira. Mugimendu horiek transferentziak dira (Even-Zohar, 2010: 44).

Literatur kritika tradizionalak erdiguneko sistema baino ez dute hartu ontzat (hain zuzen ere, erdigunean edo zentroan dagoelako), beren buruei galdetu gabe zergatik ote dagoen erdigunean. Gauza jakina baita, zerbaitek erdigunean egoteko beste zerbaitek periferian egon behar duela, eta, beraz, erdigunean dagoenak baldintzatzen duela periferian dagoena, eta alderantziz.

Polisistemen teoriak, beraz, sistema dinamiko gisa hartzen du literatura, eta transferentziak sistemen arteko elkarreraginaren ondorio gisa baino ez ditu aztertzen, ez halaberrez gertatutako fenomeno gisa.

Hain zuzen ere, elkarreragin horregatik da horren garrantzitsua polisistema bakoitzeko periferiako sistemak ere aztertzea. Gainera, periferiak edo elementu ez-kanonikoek eragiten

dituzte aldaketak erdigunean edo elementu kanonikoetan, bazterrekoa izan ohi delako erdiguneko arauetara desafioa jo ohi diona, eta horri esker garatzen da, gainera, sistema osoa:

The normative repertoires of any activity would very likely stagnate after a certain time if not for competition from non-normative challengers. Under the pressures from the latter, the normative repertoires may not be able to remain unchanged. This guarantees the evolution of the “system,” which, paradoxical as it may sound, is the only means of its preservation (Even-Zohar, 2010: 46).

Teoriak dio HGLa periferiako sistemetako bat dela (Shavit, 1986: 111-113), bazterrekoa, alegia. Zehaztu beharko genuke, dena den, estatusari dagokionez dela bazterrekoa HGLa, salmenta eta ekoizpen datuetara dagokienez erdigunean kokatzen baita sistema askotan (hezkuntza-sistemarekin duen loturaren ondorio); Euskal literatur sisteman ere nabarmena da HGLak duen pisua: 2007an beherakada bat izan zuen, baina ordutik mantendu egin dela dirudi, eta 2009an 417 ale plazaratu ziren (euskaraz urte hartan plazaratu ziren liburu guztien % 26,7); berrargitalpenak ere kontuan hartuta, “gaur egun merkatuan dauden euskarazko liburu guztien artean hirutik bat HGLkoa da” (Etxaniz eta Lopez Gaseni, 2011: 56). HGL generoaren barruan, baina, HGL itzulia da guk aztergai duguna, eta itzulpenak beste ordenamendu edo mailaketa bat eragiten du sisteman (ikusi 1.2.2 atala).

1.2.1 *Literatur polisistemako osagaiak*

Literatur polisistema osatzen duten elementuek, funtsean, Jakobsonen 60ko hamarkadan osatutako komunikazioaren eskema dute oinarri. Eskema horretan komunikazio-egoerako elementu

guztiak hartu ziren kontuan elkarren arteko eraginean, eta horregatik bihurtu zen polisistemen teoriaren abiapuntu. Hauek dira eskemako elementuak:

Ekoizlea. Bakarra edo bat baino gehiago izan daitezke, asko aritzen baitira talde-lanean (marrazkilariekin, egokitzailleekin edota idazle gehiagorekin batera). Egindako lana gizarteak eta merkatuak eskatzen duenaren arabera ekoizten dute.

Kontsumitzaileak. Literatura kontsumitzen dutenen taldea. Ez genuke *hartzaile* terminoarekin nahastu beharko, batez ere HGLaz ari garenean, kasu horretan hartzaile bat baino gehiago egon ohi baita (irakasleak, gurasoak etab.), eta haurrak *azken* kontsumitzaileak izan ohi dira.

Instituzioa. Literatur jarduera mantentzeaz arduratzen diren agente guztiak sartzen dira hemen (ekoizleetako batzuk, argitaletxeak, komunikabideak etab.).

Merkatua. Produktua saldu eta erostearekin zerikusia dutenek osatzen dute honako talde hau.

Errepertorioa. Produktua ekoizteko erabiltzen den kodea da, ekoizleak zein kontsumitzaileek ezagutu beharrekoa, elkar ulertu nahi badute; beraz, bi taldeek ezagutzen dituzten arau eta konbentzioak dira, idazteko modu eta ereduak. Ekoiztako lanek osatzen dute, pixkanaka-pixkanaka, hizkuntza bateko errepertorioa. Horregatik, hizkuntza gaztea denean, edo behar besteko bilakaerarik ez duenean, beste hizkuntzetako errepertoria jotzen da, eta interferentzia gertatzen da (Even-Zohar, 2010: 19). Banakakoek hasiera batean egindako sorkuntza

gizarte bateko ohitura bihurtzen denean sortzen da erreperitorioa, eta, hala, ukaezina da itzultzaileak erreperitoriogile direnik.

Produktua. Ekoitzitako zeinu-multzoa eta zeinu horiek identifikatzen duten errealitate-ereduak dira produktua.

Elementuetako bakoitzak euskal HGLan eta HGL alemanean hartzen dituen zehaztasunak 3.1.2 eta 3.2.2 ataletan aztertu ditugu, hurrenez hurren, eta 4.4 atalean azalduko dugu zer forma hartzen duen Jakobsonen komunikazio-eskemak HGL itzulian.

1.2.2 *Itzulitako literatura literatur polisisteman*

Polisistemaren teoriaren arabera, itzulpenak zeresan handikoak izan daitezke sistema baten eraikuntzan; historiak erakutsi duenez, itzulpenek dinamikotasuna eragin dute hainbat sistematan, transferentziaren bidez sistemetako erreperitorioa osatzen laguntzen dutelako (Even-Zohar, 2010: 70). Esan genezake, beraz, literatura itzulia polisistemako sistematik aktiboena izan daitekeela.

Erdigunean nahiz periferian egon daiteke itzulpena, baina erdigunean baldin badago, honako arrazoi hauek ematen ditu Even-Zoharrek (2010: 73-74):

- Literatura gaztea delako oraindik, eta, beraz, xede-literaturak bestelako polisistematik hartzeko beharra dauka bere polisistema osatzeko.
- Xede-literatura gaztea ez, baina ahula eta periferiakoa delako. Hala, hutsuneak ondoko polisistematik hartutako literaturaz betetzen ditu.
- Xede-literatura nolabaiteko krisian dagoelako. Halakoetan, xede-literatura berriz ere indartzen denean, periferiara itzultzen da itzulitako literatura.

Kontuan izan behar da, bestalde, literatura bera taldetan bereizi edo estratifikatu daitekeen moduan, itzulitako literaturarekin ere gauza bera gerta daitekeela: itzulitako literatura mota bat periferian gera daiteke eta bestea erdigunean. Euskal Herrian, esaterako, kopuruek diote itzulpena gehiago bultzatzen dela HGLan helduen literaturan baino: 2003an % 52koa izan zen itzulpenaren portzentajea HGLan, eta, helduen literaturan, berriz, % 23,8koa (Torrealdai, 2005: 32-35). Even-Zoharrek dioenaren arabera, erabat normala da euskal HGLa bezalako sistema ahul batean itzulpenak nagusi izatea. Kontrara, helduen literaturan itzulpenarekiko halako erresistentzia bat sumatzen da. Bertako literatur sorkuntza bultzatu eta kanonizatu nahiak izan lezake, beharbada, helburu ideologikorik: "Azken batean, literatur lan kanonizatuak izango dira nazio baten literaturaren ordezkariak, eta beraz, literatura nazional gisa ezagutzen dugunaren osagai garrantzitsuenak" (Alonso, 2010: 140).

Teoriaren arabera, literatura itzulia erdigunean kokatzen baldin bada, itzultzaileek eredu berriak ezartzen dituzte xede-errepertorioan. Hau da, sorburu-testuari hainbeste begiratu gabe, onargarritasunaren alde egiten dute, xede-hizkuntzako errepertorioa aberastea helburu. Literatura itzulia periferian kokatuz gero, berriz, itzultzaileek ez dute onargarritasunaren aldeko halako joerarik erakusten, eta gehiago egiten dute sorburu-testuarekiko fideltasunaren alde. Ikuskizun dago hipotesi horiek gure kasuan ere bermatuko diren.

Gurean HGL itzuliak dituen ezaugarriak 3.1.2 atalean aztertu ditugu sakonago, baina dagoeneko aurreratu dugun moduan, HGL itzulia erdigunean kokatzen da kopuruei dagokionez: % 75ekoa

izatera iritsi da garai batzuetan, XX. mendeko azken hamabost urteetan, berriz, % 65 inguruan kokatu da (Etxaniz eta Lopez Gaseni, 2011: 139); gogora dezagun, Torrealdairen datuen arabera, % 52koa izan zela 2003an HGL itzuliaren portzentajea. Datuek diotenari erreparatuta, euskal HGL itzulia erdiguneko sistema da, baina, prestigioari dagokionez, bazterrekoa dela esan behar dugu. Hezkuntza mailan, esaterako, argi dago itzulpenak erabat bazterrean utzi izan direla. Hala diote ikastetxeetan lantzen den euskal literaturari buruzko datuek: euskal sorkuntza da bultzatzen dena, eta, irakurtzeko bidaltzen diren lanen artean apenas dagoen itzulpenik: “irakasgaia bideratuta dago literatura nazionala transmititu eta irakurtzera, eta, ondorioz, euskaraz sortutako liburueta mugatzen dira irakurketarik gehienak” (Alonso, 2010: 137).

1.3. DTS – ITZULPEN IKASKETA DESKRIBATZAILEAK, IKERKETARAKO OINARRI METODOLOGIKOA

Gure lanean erabiliko dugun metodologia Touryk defendatutako itzulpen ikasketa deskribatzaileek (aurrerantzean, DTS) ezarritakoari jarraiki zaio. Horretarako, beraz, DTSren nondik norakoak azalduko ditugu labur-labur.

Gogoratu behar dugu J.S. Holmesek 1972an Kopenhagen-en egindako Hizkuntzalaritza Aplikatuko III. Nazioarteko Kongresuan eman zela izena itzulpen ikasketei, *The Name and Nature of Translation Studies* artikuluan, hain zuzen ere.

Holmesek aurkeztutako eskeman oinarriturik, Touryk *In Search of a Theory of Translation* idatzi zuen 1980an eta, bertan,

itzulpengintzako alorrean ikerketak burutzeko kontuan hartu behar diren hainbat kontzeptu teoriko ezarri zituen, Holmesek 1972an egindako eskematik adar deskribatzailea oinarri hartuta. Laurogeiko hamarkadan kaleratutako liburu hartaz geroztik, ordea, *Descriptive Translation Studies and Beyond* kaleratu zuen 1995ean, aurreko liburuaren jarraipena baino, haren ordezkotzat hartzen duena egileak berak: “[...] books of this kind should only be taken as interim reports of ongoing projects, which entails rapid dating.” (Toury, 1995: 4)¹.

Gideon Toury Holmesen eskemako adar deskribatzailean oinarritu zen. Izan ere, adar deskribatzailea da nola itzulpen-teoriaren nola itzulpengintza aplikatuaren erdigune eta ardatza: “Descriptive studies will be taken as a focal point and pivot, both as an activity and a scientific branch” (Toury, 1995: 10).

Horrela, bada, Toury-ek egindako ekarpena da, hain zuzen, itzulpen ikerketa deskribatzaileak bideratzeko metodologia azaldu izana. Azalpen horretan, gainera, itzulpen-arauak definitu zituen, eta, arauetatik harago, lege bi aurkeztu zituen.

1.3.1 DTS – itzulpen ikasketa deskribatzaileak

Itzulpen ikasketa deskribatzaileak itzulpen ikasketen hiru adarretako bat dira. Hiru adarrak, Holmesek esandakoa gogora ekarrita, elkarreraginean daude: “the relation is a dialectical one, with each of the three branches supplying materials for the other

¹ Gure lanaren azken orrazketa egiten ari ginela jakin dugu lan horren edizio eguneratu eta osatua egin berri duela Toury-ek, baina ez dugu kontsultatzeko aukerarik izan.

two and making use of the findings which they in turn provide it” (Holmes, 1988: 183).

Harreman dialektiko horretan, DTSk datuen behaketa du oinarri, baina datuek enpirikoak behar dute izan, eta ez aurreiritzi edo espekulazioak. Erabilgarriak eta aberasgarriak izan daitezkeen datu enpirikoak bildu eta behatuta, itzulpengintzari benetako ekarpena egin dakioke, egiatan egiten dena aztertzen delako, eta azterketa horretan oinarrituta ateratzen direlako arauak. Horregatik da beharrezkoa itzulpenak aztertuko dituzten ikertzaileak egotea, betiere DTSko irizpideen arabera lan egingo dutenak —datu enpirikoak bilduz—, geroago, teoriak eta aplikazioak eraikitzeko.

Hala, DTSko ikertzaileak itzultzaileek ekoizitakoa ikertzen du, betiere kontuan hartuta itzulpenak kultur gertakizunak direla, itzultzaile profesional edo ez hain profesional batek egoera jakin batean egindakoak.

Hori da, hain zuzen, Touryk azpimarratzen duen puntuetako bat, alegia, itzulpen guztiak direla sortzen ikusi dituen kulturaren emaitza, eta, beraz, ikerketa egitean xede-kultura izan behar da beti gogoan: “[...] it was by virtue of such a methodological starting point that this approach to the study of translations and translating in their immediate context earned the nickname of ‘target-oriented’” (Toury, 1995: 24). Beraz, itzulpenak xede-ingurune baldintza jakin batzuetan sortzen diren kultur gertakizunak direnez, sortzen ikusi dituen testuingurua aztertu behar da aurren-aurrenik.

Ondorioz, eta betiere testuingurua kontuan hartuta, lan egiteko modu hau defendatzen du Touryk DTSrako:

Hipotesia — Behaketa enpirikoa — Egiaztapena

Ikertzailearen abiapuntua hipotesiek izan behar dute. Ordea, hipotesiaren kontzeptua orokortu egiten du Touryk, eta xede-kulturan sortzen diren itzulpenen izaera bera ere zalantzan jarri behar dela dio: *assumed translation* terminoa darabil, ustezko itzulpena. Hasiera-hasieratik xede-kulturak itzulpen moduan aurkezten duena hartu behar da azterketaren abiapuntutzat, baina testu horren itzulpen-izaera behin-behineko hipotesia izango da beti, azterketak berak esango baitu benetan itzulpen bat den eta nolako itzulpena den. Izan ere, itzulpenak izan beharrean egokitzapenak izan daitezke, edo itzulpen gisa aurkezten diren sorburu-lanak. Gure ikerketan ikusiko dugu, adibidez, ez dela erraza definitzea zer den zeharka itzultzea eta zer ez, eta katalogoko nahiz corpuseko lanen azterketatik ere hori bera ondorioztatuko dugu, alegia, hasieran modu jakin batera sailkatzen dugun lan hori *ustezko* zuzeneko edo zeharkako itzulpen gisa identifikatu behar dela, eta ikerketa zehatzak ematen diola, ematekotan, argitasun gehiago hasierako hipotesiari: “Assumed translations would thus constitute the most obvious first candidates for study. Moreover, they should be submitted to study *under that assumption*” (Toury, 1995: 36)

Itzulpen Ikerketa Deskribatzaileak bideratzeko pausoak lerro zuzen batean irudikatu baditugu ere, prozesu jarraikia dela esan behar da, joan-etorriko zirkulu bat, behaketa enpirikoaren bitartez

ateratako ondorioak hipotesi edo galdera berrien akuilu bihurtzen direlako, eta beraz, ikergai berrien abiapuntu.

Behaketa enpirikoa egiteko aski arrazoitutako corpus baten erabilera aldarrikatzen du Touryk:

Needless to say, one assumed translation, or even one pair of texts, would not constitute a proper corpus of study, if the intention is indeed to expose the culturally determined interdependencies of function, process and product, not even for that one translation (Toury, 1995: 38).

Itzulpengintzako ikerketek izan duten bilakaerari erreparatuta, argi dago corpusgintza nagusitu dela ondorio fidagarriak ateratzeko bide gisa. Izan ere, ondorio sendo batzuk atera ahal izateko behar diren datu enpirikoak lortzeko, funtsezkoa da dagoeneko eginda dauden itzulpenez osatutako lagin aski zabal bat edukitzea. Hala, eta itzulpen ikasketentzat corpusgintzak duen garrantziaz ohartuta, guk ere corpus batean oinarritu dugu lan hau. Dena den, bosgarren atalean jardungo dugu luze eta zabal corpusgintzari buruz, oro har, eta gure ikerketarako osatu dugun corpusaz, zehatzago.

1.3.2 Itzulpen-arauak

Touryk jorratutako DTS metodologiaren arabera, datu enpirikoetan oinarrituta egindako behaketaren bitartez erregulartasunak bilatzea da helburua, erregulartasunek ematen digutelako xede-kulturan indarrean dauden itzulpen-arauen berri, hau da, itzultzaileen jokaera komun orokor jakin batzuen berri. Arau horiek ez dute, beraz, asmo arauemailerik: kultura bateko itzulpen-jardueraren deskribapen sistematiko baten emaitza dira.

Ez dira itzultzaileari aldez aurretik bere lana egiteko ezartzen zaizkion arauak, baizik eta hark egindako lana deskribatuz ondoren jarduera horri buruz lortzen diren ondorio orokortuak. Ikertzaileak kontuan hartu behar dituen arauen bereizketa bat egiten du, eta hiru arau hauek definitzen ditu:

Hasierako araua (*initial norm*). Itzultzaileak lanean hasi aurretik hartzen duen jarrerari dagokio, hots, sorburu-kulturaren araei lotuko zaien ala xede-kulturako araei. Hala, sorburu-testuko arauetik atxikipenak adieraziko luke itzultzaileak egokitasuna duela helburu, eta, alderantziz, xede-testuko arauetik atxikipenak agerian utziko luke itzultzaileak testuaren onargarritasuna duela helburu (Toury, 1995: 56-57). Beraz, egokitasun/onargarritasun kontzeptuek eraikitzen duten lerroaren arabera azter daitezke itzulpenak. Hona hemen lerro horren irudikapena:

ST

XT

Egokitasuna**Onargarritasuna**

Irudia 2. Touryren lerroa.

Itzultzaileek lerro horretan jarduten dute, batzuetan mutur batetik gertuago bestetik baino.

Aldez aurreko arauak (*preliminary norms*). Aldez aurreko arauen artean bi motakoak bereizten ditu Touryk: batetik, itzulpen-politikarekin zerikusia duten erabakiak daude, hau da, une jakin

batean eta gizarte-egoera jakin batean zer eta nola itzuliko den erabakitzen duten arauak; bestetik, berriz, zeharkakotasunarekin lotutako erabakiak, alegia, jatorrizkotik zuzenean itzultzen den ala ez, zein zubi-hizkuntza erabiltzen den batik bat, zein kasutan hobesten den zuzeneko itzulpena eta zein kasutan jotzen den zeharkako itzulpena.

Jarduerazko arauak (*operational norms*). Itzulpen-prozesuan itzultzaileak betetzen dituen arauak dira. Jarduerazko arauak, halaber, bi motatakoak izan daitezke: matrizialak ala linguistiko-testualak. Arau matrizialek testuaren makroegituraren ingurukoak dira, eta testuaren egitura nahiz antolaketa erabakitzen dute. Arau linguistiko-testualak, berriz, testuaren mikroegituraz arduratzen dira, testu mailako erabakiez, alegia.

Beraz, arau horien arabera, itzultzaileak egokitasunaren ala onargarritasunaren aldeko jarrera hartu duen ondoriozta daiteke. Itzulpena gizarte-jarduera denez, xede-gizartean indarrean dauden jokabideen arabera gauzatuko da. Hala, egokitasunari lehentasunik ematen ez zaion sistema batean, bultzatzen eta lehenesten direnak zeharkako itzulpenak dira; alderantziz, zeharkakotasuna begi onez ikusten ez duen sistemak gehiago jotzen du egokitasunera hasierako arauan (Toury, 1995: 60). Honen arabera, baliteke euskal HGL itzuliaren sisteman desberdintasun horiek ere sumatzea: zeharkako itzulpenek gehiago jotzen dutela onargarritasunera eta zuzenekoek, aldiz, egokitasunera. Ikusi beharko da Touryren emaitza horiek gurean ere errepikatzen diren ala ez. Era berean, intentsitatearen arabera ere bereizten ditu arauak: batzuk *lehen mailakoak* dira, itzulpen guztiek betetzen dituztenak; beste batzuk *bigarren mailakoak*, hain orokorrak ez direnak; eta, azkenik,

joerazkoak leudeke, itzulpen batzuetan ageri diren eta sintoma edo zantzu gisa funtzionatzen duten arauak, baina ez direnak, inondik ere, orokorrak.

Beraz, DTS metodologiaren bidez, itzulpen gisa aurkezten diren testuak aztertu, datuak atera, erregulartasunak identifikatu eta arauak ondorioztatzea proposatzen du Touryk, gainerakoan, bi testuen arteko baliokidetzaz aztertzea baino ez delako. Arauak aztertuta, beraz, baliokidetzaz-maila jakin hori nola sortu den ondoriozta daiteke:

The apparent contradiction between any traditional concept of equivalence and the limited model into which a translation has just been claimed to be moulded can only be resolved by postulating that it is norms that determine the (type and extent of) equivalence manifested by actual translations (Toury, 1995: 61).

1.3.3 *Itzulpen-legeak*

Izenburuak berak agerian uzten duenez (*Descriptive Translation Studies and Beyond*) harago doa Toury bere teoriarik. Hainbat azterketatan oinarrituta, aurkitutako erregulartasun eta arauetatik, lege bi ondorioztatzen ditu Touryk.

Egile israeldarraren ustez, DTSk ez du errealitate jakin baten behaketara mugatu behar, baizik eta errealitate hori gertatzeko bete behar diren baldintzak edo aldagaiak ere deskribatu behar ditu. Hala, aldagai edo faktoreak zenbat eta gehiago zehaztu, orduan eta osoagoak izango dira ikertzaileak egiten dituen deskribapenak edo azalpenak, eta, noizbait, deskribapen edo azalpen hori aurreikuspen bihurtu liteke: X eta Y aldagaiak tartean badaude askotan gertatzen da Z.

Aurreikuspen balioa duten horiek dira Touryk *lege* deitzen dituenak; hau da, hainbat behaketa eta azterketatan oinarrituta, behin eta berriz errepikatzen diren baldintzek osatutako egitateak. Lege horiek, jakina, baieztatu edo errefusatu egin daitezke:

Incidentally, it would also make it possible to explain the occasional *failure* of a prediction, by entailing the option of searching for variables which have presumably remained unknown, or changing the respective positions and relationships of [some of] those which have been known all along; in other words, by continuing to perform the helical movement (Toury, 1995: 267).

Touryk aipatzen duen helize-mugimenduaren arabera, teoria bat etengabe taxutu eta orraz daiteke, eta asmo horrexekin proposatzen ditu Touryk bi lege, ikertzaileek baieztatu, errefusatu edota bestela formulatuko dituztelako esperantzaz:

Unfortunately, the little deliberate effort invested so far in the establishment of such laws will not enable me to do much more than present two of them in their raw form and trace parts of their conditionalization (Toury, 1995: 267).

Estandarizazioaren legea. Lege honek dio itzulpenek hizkuntza lauagoa erabiltzera jotzen dutela. Hori ondo azaltzeko, errepertorio-osagaia (*repertoreme*) eta testu-osagaia (*texteme*) terminoak erabiltzen ditu Touryk. Errepertorio-osagai bat da gizarte batek errotuta duen zeinu-multzoa edo kodifikazioa, eta errepertorio-osagai horietako batek testu jakin batean funtzio jakin bat betetzen duenean, testu-osagai bihurtzen da. Lege honek dioenez, sorburu-testuak testu-osagaiak dakartza berekin, baina itzulpenean xede-hizkuntzako errepertorio-osagai bihurtzen dira, eta ez xede-hizkuntzako testu-osagai. Touryk modu horretan

azaldu nahi duena da xede-testuko elementuak ez direla sorburu-testukoak bezain errotuak egoten:

the disintegration of the patterns exhibited by a source text is hardly ever reparable in full [...] This is one of many reasons why translations so often manifest greater standardization than their sources: in practice, decomposed textual patterns are normally reconstructed to a lesser extent than is initially possible (Toury, 1995: 268).

Kontuan hartu behar da, hala ere, badirela hainbat faktore aldagarri xede-hizkuntzaren lausotzea edo estandarizatzea areagotu, edo, kontrara, gutxiagotzen dutenak, hala nola itzultzailearen trebakuntza, edo hizkuntza-gaitasuna. Era berean, eta Even-Zoharren polisistemen teoriarekin lotuta, xede-sistema bazterrekoa ala erdigunekoa izateak badu eraginik: zenbat eta bazterrekoagoa izan xede-sistema, orduan eta gehiago baliatuko ditu itzulpenak aurrez ezarrita zeuden eredu eta erreperitorioak (Toury, 1995: 271). Hori hala baldin bada, xede-sistemaren kokapena ezagututa ondoriozta genezake itzulpenek estandarizaziorako joera eduki lezaketela; eta, alderantziz, estandarizaziorako joera sumatuz gero, xede-sistema bazterrekoa dela pentsa genezake. Hori ere ikuskizun dago gurean bere horretan betetzen den.

Interferentziaren legea. Touryk proposatzen duen bigarren legea interferentziarena da. Interferentzia berez gertatzen omen da itzulpen-prozesu guztietan, lehenetsitako aukera bat balitz bezala:

This general formulation implies that interference is a kind of *default*, so that the establishment of an interference-free output (or even of an output where interference has been relegated to

less disturbing domains) necessitates special conditions and/or special efforts on the translator's part (Toury, 1995: 275).

Interferentzia saihestu ezina dela dio Touryk, itzulpena adimen-ariketa bat delako, eta buruan gertatzen den transferentzia-ariketan beti gertatzen delako, maila handiagoan ala baxuagoan, sorburu-hizkuntzak bere *arrastoa* uztea xede-hizkuntzan. Bestalde, interferentzia onartzea ala ez onartzea sorburu-hizkuntzak duen izen onaren eta boterearen araberkoa dela dio Touryk. Alegia, zenbat eta boteretsuagoa edo nagusiagoa hizkuntza/kultura, orduan eta gogotsuago onartzen du haren interferentzia xede-hizkuntzak/kulturak.

Sorburu-hizkuntzak xede-hizkuntzan uzten duen interferentziaz dihardu Touryk, baina, zeharkako itzulpenen kasuan, tartean zubi-bertsioak daudenez gero, interferentzia bikoitzaz hitz egin behar dugu: ez da soilik jatorrizkoak xede-testu batean eduki dezakeen interferentzia, baizik eta xede-testu horrek zubi-bertsio gisa jokatzen duenean, beste xede-testu batean izan dezakeen interferentzia. Esan bezala, kasu horretan *interferentzia bikoitzaz* ariko ginateke.

Dena dela, uste baino egoera konplexuagoarekin egin dugu topo gurean. Izan ere, zuzenean itzultzeak ez du esan nahi itzultzaileak zubi-bertsioak kontsultatu ez dituenik, gehienetan euskarazkoak baino lehenago argitaratuak izan baitira horiek, eta, beraz, ez da baztertzekoa horien interferentzia sumatu ahal izatea. Horretaz gain, ezin ahaz dezakegu euskal itzultzaileak ez direla elebakarrak. Jakina, itzultzaileak badira, nekez izango dira elebakarrak, baina, esan nahi duguna da gaztelaniaz ere badakitela, eta hizkuntza-errealitate diglosiko batean bizi direla, non hainbat

erreferentzia errotuagoak dauden gaztelaniaz. Gaztelaniaren interferentzia, beraz, kanpotik etor liteke (testuetatik), edozein itzultzailearen burutik ere (egoera diglosikoa dela medio) eta, are, baita kanpotik ere, lanerako tresneria eta produktu asko gaztelaniaz diseinatuak baitaude, hiztegiak etab. (interferentzia instrumentala, beraz). Interferentzia bikoitz jakin horri *interferentzia diglosiko* izena eman nahi diogu. Gurea bezalako errealitateek bizi duten interferentzia mota delakoan gaude, hizkuntza gutxituek bizi dutena, alegia. Hala, Touryren legeari erantsi nahi geniokeen berrikuntza edo oharra da gurea.

Egia esan, egin duen azterketaren batean (4.5.3 atalean ikusiko dugu *Das Schlaraffenland* testuaren inguruan egin zuen azterketa), interferentzia bikoitza izan daitekeena aurkitzen du Touryk: Bailikek hebreerara itzultzen/moldatzen du Tom Freuden alemanezko testua, baina Touryk errusieraren interferentzia nabarmenak sumatzen dizkio. Esan bezala, gure ustez *interferentzia bikoitza* litzateke hori. Interferentzia, bere horretan, sorburu-testu alemanak hebreerazko xede-testuan utzitako eragina litzateke, baina tartean zubi gisa funtzionatu duen bertsio bat sumatzen bada, itzulpen prozesua bi pausotan eman da, eta, beraz, interferentzia bikoitza litzateke hori guretzat. Ordea, eta aurrerago ere ikusiko dugun moduan, euskarak gaztelaniatik jasotzen duena *interferentzia diglosikoa* litzateke guretzat, ondoan duen hizkuntza boteretsutik jasotzen duen interferentzia mota baita. Ñabardura horiek egin nahi izan dizkiogu Touryren interferentziaren legeari, uste baitugu Touryk berak aurkitu aurkitzen dituela interferentzia mota desberdinak (*Das Schlaraffenland* ipuinaren kasuan bezala),

baina badirudi teorizatzeko orduan ez dituela ñabardura horiek kontuan hartzen.

Touryk berak, hala ere, egiten du zenbait ohartarazpen interferentziaren legea dela eta: interferentzia onartzen den garaietan itzultzaileek horretarako joera handiagoa erakuts lezakete, eta, alderantziz, interferentziarekiko aurkakotasuna sumatzen den garaietan erresistentzia hori bere egin ohi dute profesionalek ere; erresistentzia horrek, aldi berean, bestelakoak aktibatzen ditu: garbizalekeria edo zentsura mekanismoak, kasu (Toury, 1995: 278). Itzultzailea ez den kanpoko eragile baten eskutik etor litezke neurri zuzentzaile horiek, baina, askotan, itzultzaileak berak barneratuta izaten duen jarrera da interferentzia ahalik eta gehien saihestearena: “Censorship can also be activated during the act of translation itself though, in as much as the translator has *internalized* the norms pertinent to the culture, and uses them as a constant monitoring device” (Toury, 1995: 278).

Hori guztia horrela izanik, hipotesi moduan har genezake balitekeela Touryk aipatzen dituen bi mekanismo horiek, garbizale eta zentsuratzzaile jokatzearena, gure corpusean ere sumatzea: zeharkako itzulpenetan, baina baita zuzeneko itzulpenetan ere. Izan ere, gerta liteke, gaztelaniaren interferentziari erresistentzia jartzeagatik, zuzeneko itzulpenetan ere hizkuntza bereziki garbia erabiltzeko joerarekin topo egitea.

Dena den, Touryk berak ondorioztatzen duenez, ikerketa zehatzen bitartez egiaztatu beharrekoa da hori guztia, bai bailiteke genero edo testu mota bakoitzerako lege biek desberdin jokatzeko. Azken finean, literatur sistemak estratifikatuta daude (Even-Zohar,

2010: 44). Ikusiko dugu gure ikerketak zer ekarpen egiten duen puntu horretan.

1.4. TOURYREN OSTEKOAK

DTS edo itzulpen ikasketa deskribatzaileak 60ko hamarkadan hasi ziren sortzen, 70eko hamarkadan garatzen, 80koan zabaltzen, eta, sendotu, 90ko hamarkadan sendotu ziren. Esan dugun moduan, hainbat dira metodologia deskribatzailearen arabera egin diren lanak azken urte hauetan. Aitzitik, ezin aipatu gabe utzi zenbait ikertzaile kritiko agertu dela Even-Zoharrek eta Touryrek hasitako eta jarraitutako bidearekin, eta, hala, DTStik abiatuta baina bestelako ikuspuntuak aldarrikatuz (itzulpen-legearen ideia baztertuz, zenbait arazo metodologiko salatuz, etab.), korronte berriak sortu dira.

Korronte horietako bat dugu manipulazioaren eskola. Susan Bassnett hasi zen itzulpen ikasketetan ideologiaren faktorea kontuan hartzen eta, ildo beretik abiatuta, André Lefevere bihurtu da eskola horren bultzatzaile nagusia. Lefevereren ustez, DTStik kontuan hartzen dituen faktoreez gain (sorburu-testua eta itzulpena, itzulpenak sortzen diren garaia eta giroa, itzulpen-arauak etab.), ideologia eta poetika ere hartu behar dira kontuan, nola garaiari dagozkion ideologia eta poetika, hala itzultzaileak berak dituen ideologia eta poetika. Horretaz gain, dagokion garaian dagokion botereak itzultzaileengan eta itzulpenetan nola eragiten duen kontuan har dadin aldarrikatzen dute. Itzulpen oro manipulatu bat dela defendatzen dute, itzulpena berridazketa bat den heinean.

Basnettek eta Lefeverek alderdi ideologikoari erreparatzen badiote, Theo Hermans gehiago lerratzen da kulturaren soziologiara. Toury eta Even-Zoharrekin kritiko agertzen zaigu Hermans, zehazki *Translation in Systems. Descriptive and System-oriented Approaches Explained* (1999) lanean. Hermansek dioenez, Toury erabat mugatu da itzulpenen behaketara, ez omen du arauen alderdi teorikoan sakontzen eta deskribapen hutsean gelditzen da. Hermansek, oster, ikuspegi zabalago bat aldarrikatzen du itzulpenen azterketarako, testuek definitzen dutelako itzultzaileak gizartearen aurrean hartu duen jarrera: “The basic premise is that translation, as a communicative act, constitutes a form of social behaviour” (Hermans, 1999: 80).

Hermansek dioten moduan: “Translators never ‘just translate’” (Hermans, 1999: 96). Toury-rik sorburu-testuaren eta xede-testuaren baliokidetasuna aztertzen duela dio, baina ez duela bestelako faktore sozialetan sakontzen arauak eta legeak proposatzerakoan. Hala, sorburu-testuaren lehentasun metodologikoa ez omen da absolutua eta STaren eta XTaren arteko harremana ez omen da askotan hain nabarmena (Hermans, 1999: 96).

Even-Zoharri ere antzekoa aurpegiratzen dio Hermansek: polisistemen teoriak kontuan hartzen du sistemek gizarteetan funtzionatzen dutela, baina, Hermansen ustez, arreta gutxi eskaintzen die gizarteko eta politikako botere-harremenei edota talde eragile gisa jokatzeko duten erakunde- eta gizarte-talde jakinei (Hermans, 1999: 118). Polisistemen teoria bikoiztasunera mugatzen dela dio (eta ideia oso interesgarria izango da guretzat ere):

To the extent that translation research inspired by polysystem theory operates with mutually exclusive terms (something is either canonized or non-canonized, centre or periphery, source or target, etc.) it remains blind to all those ambivalent, hybrid, unstable, mobile, overlapping and collapsed elements that escape binary classification (Hermans, 1999: 119).

Horrela, Basnetek eta Lefeverek ideologiaren faktorea azpimarratzen dute batez ere, eta berridazketaren kontzeptu orokorragoarekin lotzen dute itzulpena (*rewriting*). Bestalde, Theo Hermansek aldarrikatzen duen korrante soziala Pierre Bourdieuren eta Niklas Luhmannen lanetan oinarritzen da.

Hatim eta Mason ikertzaileak ere hizkuntzaren alderdi soziala hartzen dute kontuan, kasu honetan Firth hizkuntzalariaren lanetan oinarrituta. Bourdieuren teoriak Austin filosofoak definitutako Hizketa Ekintzaren Teoria (*Speech Act Theory*) osatzen du. Teoria horrek dio zorioneko baldintzak (*felicity conditions*) gertatu behar direla hizkuntzaren alderdi performatiboak komunikazio arrakastatsua lor dezan, baina ez zen horren argibiderik ematen. Hala, Bourdieuk ere baldintza horien garrantziaz ohartarazi zuen, baina, aldi berean, komunikazio-ekintzak gizarte testuinguru batean kokatu beharra azpimarratu zuen, hau da, hizlari baten jardunak duen eragina hizlari horrek bere gizartean duen kokapenak zehaztuko du. Ideia hori itzulpenari aplikatuta, itzultzaileak bere gizartean duen kokapenaren arabera itzuliko du. Hatim eta Masonek ere itzultzaileak eta hizkuntzak dituzten botereari eta estatusari begiratzen diote, horren arabera zehazten delako itzultzeko modua: "The translator, who stands between two independent social structures, has to be sensitive to what constitutes the

sanctioned norm –or deviation from the norm– in any source text” (Hatim eta Mason, 1992: 86-89).

Bestalde, Derridaren dekonstrukzioak eragin handia izan du azken aldiko itzulpen-teoria postkolonialetan eta feministetan. Derridak defendatzen duenez, guztia da itzulpena, baita jatorrizkoak diren lanak ere, lehendik genituen lanen erreferentzietatik sortutako lanak baitira. Ez da, beraz, jatorrizkorik existitzen, ezta jatorrizko egilerik ere, sorburu-testuak esan nahi ote zuena ez baitago zehazterik, jatorrizkoa irakurle bakoitzak berregiten duenez.

Feministek dekonstrukzioaren ideiei jarraitzen diete, baina testuen atzean botere patriarkala dagoela erakusteko. Mugimendu hau 80ko hamarkadan hasi zen Kanadan, baina 90eko hamarkadan sendotu zen. Feminismoaren jarraitzaileek joskera estandarrarekin eta ohiko literatur generoekin bukatu nahi dute, eta, horren ordez, hizkuntza berri bat lortu nahi dute, emakumea hizkuntzan eta testuan ikusgarri bihurtu nahian. Batetik, emakumezko egileen emakumezko ahotsa itzulpen *desegokiek* ezaba ez dezaten, eta, bestetik, itzulpenaren ulermen sortzailea aplikatuz emakumearen irudi jakin batzuk aldarrikatzeko. Alde horretatik, ikuspegi arauemaile bat berreskuratzen dutela esan daiteke.

Beraz, eta bistan denez, hainbat teoria sortu dira oraindik egonkortu ez den jakintza-arlo gazte honen baitan, eta baliteke, Hermansek dioen moduan, itzulpen ikasketek eta, DTSk bereziki, definitze-saio bat behar izatea:

The discipline generally, but the descriptive school in particular, urgently needs to take account of developments in

some of the more vigorous intellectual and social movements of our time, including gender studies, poststructuralism, postcolonial and cultural studies, and the new interdisciplinarity invading the human sciences. [...] It needs to be a self-reflexive, provisional theorizing which is prepared to be awkward and experimental, and is more alert than translation studies have traditionally been to the wealth of ideas in neighbouring disciplines (Hermans, 1999: 159-160).

1.5. HIZKUNTZA GUTXITUAK

1.5.1 *Hizkuntza gutxituaren definizioaz*

Beste hainbat terminorekin gertatzen den moduan, ez dirudi erraza denik hizkuntza gutxitua zer den definitzea.

O'Conellek Helen Ó Murchú, Europako Hizkuntza Gutxituen Bulegoko presidentearen iritzia hartzen du kontuan bere lanean (O'Connell, 2003: 36-37). Murchú berak *minority language*, *regional language* edo *lesser used language* aipatzen omen ditu gehien erabiltzen diren termino gisa, eta bost multzotan sailkatzen ditu Europako hizkuntza gutxituak:

- Europar Batasuneko lan hizkuntzak izan ez arren, hizkuntza nazional direnak, adibidez, irlandera.
- Europar Batasunaren barruan, estaturik gabeko hizkuntzak, adibidez, bretoiera.
- Estatu batean edo gehiagotan bizi direnen hizkuntzak, adibidez, katalanera.
- Estatu batean gehiengoak baina, beste batean, gutxiengoak hitz egiten dituzten hizkuntzak, adibidez, alemana.
- Eskualdekoak ez diren eta hitz egiten diren estatuko inongo eremurekin identifikatzen ez diren hizkuntzak, adibidez, yiddish.

Hizkuntza gutxitu edo gutxi erabilia izateko egoera eta modu asko dago, beraz.

Lawrence Venutik gutxiengoan esparruan egiten den itzulpengintzari bideratutako lan monografiko bat prestatu zuen (*Translation and Minority*, "The Translator" bildumako 4. liburukia, alegia), eta bertan dioenez, gutxitua izateak mendeko jarrera bat edukitzea esan nahi du:

I understand 'minority' to mean a cultural or political position that is subordinate, whether the social context that so defines it is local, national or global. This position is occupied by languages and literatures that lack prestige or authority, the non-standard and the non-canonical, what is not spoken or read much by a hegemonic culture (Venuti, 1998: 135).

Egoera jakin bat definitzeko, kontrakoarekiko alderaketa behar izaten da, eta, hala, aberats izateko pobreek egon behar duten modu berean, hizkuntza gutxitua ez da bere horretan bakarrik existitzen, menderatzaile den hizkuntza baten edo batzuen ondoan baizik. Venutik kolonialismoaren ondorioz menderatuta eta gutxituta gelditutako hizkuntzez dihardu. Branchadell eta Westek, ordea, botere-harreman desorekatuez hitz egiten dute. Alegia, botere-harreman desorekatuen ondorioz bihurtzen dira hizkuntza batzuk menderatzaile, eta, beraz, beste batzuk menderatu edo gutxitu. Botere-harreman desorekatu horiek, gainera, ez dira, nahitaez, prozesu kolonizatzaile baten ondorio: "[...] Subordination might be due to colonialism, but this is not necessarily so: as the Catalan case shows, cultural and political subordination does not always coincide with a colonial situation" (Branchadell eta West, 2004: 7). Branchadell eta Westek katalanaren

kasuari erreparatzen diote beren liburuan, baina, jakina, katalanari buruz esandakoak berdin balio lezake euskarari buruz ari garenean.

Ildo berean, Michael Croninek hizkuntza gutxituen egoera dinamikoa dela azpimarratzen du: “[...] the concept of ‘minority’ with respect to language is dynamic rather than static. ‘Minority’ is the expression of a relation, not an essence. The relation can assume two forms: diachronic and spatial” (Cronin, 2003: 144). Diakroniak gertaera historikoei erreparatzen die, nola eragin duten gertaera jakin batzuek bi hizkuntzen arteko asimetrian. Croninek irlandeararen kasua baliatzen du adibide gisa, Tudorren boterearekin batera galdu baitzuen indarra hizkuntza gaelikoak.

Gutxituta egotea izaerazkoa ez dela baizik eta bestelako arrazoiek sortutako harreman-egoera baten ondorio dela onartuta, Croninek hiru faktore aipatzen ditu (Cronin, 2004: 145-146), hizkuntza gutxituak baldintzatzen dituztenak:

- Faktore ekonomikoak, politikoak, sozialak eta historikoak.
- Hizkuntzak emankorrak ala hartzaileak diren. Croninek bi multzotan sailkatzen ditu hizkuntzak: xede-hizkuntza intentsiboak (*target-language intensive*) eta sorburu-hizkuntza intentsiboak (*source-language intensive*): “An SL intensive language would be almost any minority language, where translations are largely from other source languages that enjoy majority status.” (Cronin, 2004: 145-146). Euskara, beraz, sorburu-hizkuntza intentsiboa litzateke, itzulpen hartzailea delako, emalea baino.
- Hirugarren faktore gisa, itzulpengintzak hartzen duen pisua aipatzen du Croninek. Izan ere, hizkuntza gutxituentzat itzulpengintza ezinbesteko jarduera da hizkuntzaren biziraupenerako. Are, itzulpenak hartzen duen nagusitasunak

eragina du hizkuntza gutxituaren erabiltzaileek beren hizkuntzarekiko duten sentipenean.

Hain zuzen ere, itzulpengintza jarduera periferikoa bada ere, esan behar dugu, hizkuntza gutxituei gagozkienean, erdiguneko jarduera izatera irits daitekeela, hizkuntza horretan betetzera irits litekeen funtzio bultzatzaileagatik, hain zuzen ere.

Gure kasuan ere halaxe gertatzen da, itzulpenak zeresan handia izan baitu eta du euskarak hizkuntza gisa izan duen normalizazio-prozesuan. Eta, dagoeneko aipatu dugun moduan, euskal HGLan ere, erdiguneko jarduera da itzulpena. Laburbilduz, kultura ahul bateko bazterreko genero baten erdigunean dago itzulpena gure kasuan.

1.5.2 *Aurrekariak*

HGL-sistema desberdinetan itzulpenak duen presentzia asko aldatzen da: esate baterako, Britainia Handian eta Ameriketako Estatu Batuetan, ekoizpenaren % 3 baino ez da itzulpena; Finlandian, berriz, itzulpenaren portzentajea % 70ekoa da; Italian % 50ekoa eta Herbehereetan % 33koa (O'Sullivan, 2000: 163). Garbi dago ingeles hizkuntzadun herrialdeak ez direla itzulpen-hartzaileak, emaileak baizik. Gure kasuan, bizi dugun egoera aintzat hartuta, hizkuntza gutxitua dugu euskara, eta ikusi dugu itzulpen-jarduerak pisu handia duela.

Horregatik da are harrigarriagoa zehazki hizkuntza gutxituetan egiten den itzulpen-jarduerari eskaini zaion arreta txikia: "The silence is all the more surprising in that minority-language cultures are translation cultures par excellence" (Cronin, 1998: 147).

Kritiko ageri zaigu Cronin, eta kexu da Europako herrien eta kulturen arteko asimetriari eta botere-harreman desberdinei eskaini izan zaien arreta txikiaz. Egin diren ikerketa gehienak hizkuntza boteretsuen arteko itzulpenari dagozkie, eta horrek Europa homogeen eta ahistoriko baten irudi ez-erreal bat ematen omen du. Itzulpen-estrategia konbentzional eta estandar batzuei buruz hitz egiten da gehienetan, eta ez zaie hizkuntza gutxituen itzulpenean sor daitezkeen desberdintasunei erreparatzen: “we are presented with the ahistorical, essentialist concept of ‘Europe’ with its implicitly homogeneous translation strategies” (Cronin, 2003: 140).

Croninek oso interesgarri irizten dio hizkuntza gutxituetan egiten den itzulpen-jarduerari buruz hausnartzeari, modu horretan hizkuntza batek bestetik zenbat xurgatzen duen edo, alderantziz, bata besteari zenbat ematen dion neur daitekeelako eta horren inguruan hausnartu (Cronin, 2003: 141).

Venuti ere bat dator Croninekin itzulpen-jarduera jakin honi eskaini beharreko arretari dagokionean, ohikotasunetik aldentzen den jarduera izanik, aldaera eta arau berritzaileak sor daitezkeelako itzulpen ikasketetan: “Minorities bring unpredictable variations to constants and standards in the study of translating” (Venuti, 1998:143).

Gurera etorrita, Zabaletak berak ere ikerketak eragin lezakeen ekarpen berritzailea aipatzen du:

Horrez gainera, dudarik ez dago hedadura txiki eta ertaineko hizkuntzetako itzulpenaren analisiak ekarpen handiak eta are garrantzi handikoak egin ditzakeela traduktologiarako. Hain zuzen ere, definizioz hizkuntza gehiago dira hedadura txikia

edo ertaina dutenak, hedadura handikoak baino, eta horrenbestez itzulpen modu edo itzulpen egoera desberdin gehiago daude mota horretako hizkuntzei dagozkienak hedadura handiko hizkuntzei dagozkienak baino (Zabaleta, 1991: 18).

1.5.3 Itzulpen-jarduerak hizkuntza gutxituei ekartzen dienaz

Itzulpen-jarduera alde biko jarduera izan daiteke hizkuntza gutxituentzat: onuragarria eta arriskutsua aldi berean. Teorigileen iritzietan ere, jarrera biak suma daitezke.

Batetik, hizkuntza gutxituetara itzultzea kultura hori bultzatzeko modu bat da. Hala dio Venutik: "Translating in minor languages is often a calculated political move designed to preserve them, to enhance their expressive capacities, and to stimulate cultural development" (Venuti, 1998: 138). Azken batean, itzulpenaren bitartez, hizkuntza gutxituaren ikusgarritasuna areagotzen da, nolabait, eta hori hizkuntza bera bultzatzeko nahiarekin dago estuki lotua.

Hizkuntza-aniztasunari dagokionean, hizkuntza eta jarrera menderatzaileen kontra egiteko balio dezake itzulpen-jarduerak hizkuntza gutxituentzat (Branchadell eta West, 2004: 9). Linguistikoaz edo komunikatiboaz harago, beraz, itzulpenak bestelako funtzioak ere betetzen ditu hizkuntza gutxituen kasuan (Uribarri, 2011a).

Croninek dioenez, hizkuntza gutxituetan egiten den itzulpen-jarduerak bi funtzio betetzen ditu: funtzio pragmatikoa dago batetik, hiztunen hizkuntza-eskubideak bermatze aldera egiten

delako, dokumentu ofizialak itzuliz, esate baterako; eta, bestetik, itzulpenen funtzio estetikoak legoke (Cronin, 2003: 147).

Marta Garcíak Croninek aipatzen dituen bi funtzioei egiten die erreferentzia, eta baita itzulpengintzako bestelako adituek aipatzen dituzten funtzioei ere. Esate baterako, Shavitek arrazoi politikoak aipatu izan ditu HGL alemana hebreerara itzultzeko. Garcíak, berriz, bestelako funtzio edo funts bat ikusten dio hizkuntza gutxituetan egiten den itzulpen-jarduerari: hizkuntza bultzatzeko mekanismo gisa jarduten du, eta Even-Zoharrek eta Touryk beren azken lanetan lantzen duten *kultur plangintza* terminoa darabil:

In other words, translation is no longer an underlying element of communication, but an essential tool in the process of language recovery or preservation, and therefore it is more likely to be studied in relation to language and culture planning than translation between major languages (Carcía, 2004: 111).

Izan ere, itzulpen ikasketetako ikerketak kultur plangintzarekin lotzen dituzte Touryk eta Even-Zoharrek, *Culture Plannig and Translation* (in press) lanean lehenak, eta *Papers in culture research* lan zabaleko *The making of culture* (2010) atalean bigarrenak. Kulturak ezarri eta sendotzeko prozesuan itzulpengintzak duen egitekoa azpimarratzen dute biek.

Garcíak gogorarazten du, gainera, ukipenean dauden hizkuntzen kasuan, itzulpenak funtzio komunikatiboa balu, ez liratekeela hizkuntza gutxitura dagoeneko beste hizkuntzara itzulita dauden lanak itzuliko. Alegia, hizkuntza gutxituen kasuan, bestelakoa da itzulpenak betetzen duen funtzioa, hizkuntza-plangintzari eta hizkuntzak bizi duen egoera eta estatusari hertsiki lotua.

Hala eta guztiz ere, eta funtzioak funtzio, itzulpenak hizkuntza gutxituan bestelako eragin bat ere utz dezake, sorburu-hizkuntzaren interferentzia, alegia.

Croninek aldebat jotzen du auzia: hizkuntza menderatzaileari atak zabal-zabalik ireki eta bestetasun oro hartzeko jarrera har liteke, baina horrek hizkuntza gutxituaren nolabaiteko moldatzea eta eraldatzea lekarke:

[...] then the language into which they translate becomes less and less recognizable as a separate linguistic entity capable of future development and becomes instead a pallid imitation of the source language in *translatorese* (Cronin, 2003: 147).

Ezein motako interferentziari atak ixten bazaizkio, berriz, itzulpengintzak ez du xede-hizkuntza eraberritzeko funtziorik betetzen.

Auzi hori hasiera-hasieratik egon da euskal itzulpengintzaren alorrean. Hizkuntza orok duen kezka da: zenbateraino eragiten dion hizkuntza menderatzaileak; baina kezka hori areagoa da hizkuntza gutxituen kasuan, berez ahula den hizkuntza izaera galtzearen eta desagertzearen beldur baita, bestearekiko morrontza dela eta.

Croninek dioenez (1998: 148-149), ezinbestekoa da itzulpengintzak hizkuntza gutxituetan uzten duen eragina neurtzea eta ikertzea, itzulpena ez baita beti eta nahitaez onuragarria. Hala, desberdindu beharra dago: asimilazioa bultzatzen duen itzulpena (*translation-as-assimilation*) eta aniztasuna bultzatzen duena (*translation-as-diversification*). Gerta daiteke, autoitzulpenaren bitartez, hizkuntza gutxitu bateko

hiztunak asimilatuak gertatzea; edo, alderantziz, itzulpen-jarduera zentzudunen bidez, beren hizkuntza gorde eta, are, garatzea. Horretarako, ordea, hizkuntza gutxituetan egiten den itzulpen-jarduerari arreta eskaini behar zaio, hizkuntzaren beraren bilakaeran zerikusi zuzena duelako.

Hizkuntza menderatzailearen morrontza erabatekoan erortzeko arriskua ere hor dago. Ondoan duen hizkuntza menderatzailearen interferentzia gehiegizkoa ez jasotzea izan ohi da hizkuntza gutxituen kezketako bat: "Minority languages that are under pressure from powerful major languages can succumb at lexical and syntactic levels so that over time they become mirror-images of the dominant language" (Cronin, 1998: 147). Hala, gainerakoan itzulpengintzan egin ohi den betiko hausnarketaz harago (itzulpen leiala / ez leiala), itzulpen-estrategiei erreparatu behar zaie, hizkuntza batek bestetik jasotzen dituen kalko eta maileguen inguruan hausnartzeko.

Gurean ere, euskararen kasuan, gaztelaniaren interferentziarekiko kezka hori egon da betidanik. Zentzu horretan, euskararen kasuan gertatu den garbizalekeria aipatzen du Zabaletak. Aitortzen duenez, egoera normalizatua bizi duten hizkuntzatan baino sarriago gertatzen da hizkuntza gutxituetan itzultzaileak pedagogiarako joera izatea. Alegia, itzulpenak berez izan behar duen funtzio komunikatiboaz harago, hizkuntza *garbia* eta *zuzena* ezartzea izan ohi da lehenetsua, hizkuntza menderatzailearen interferentziatik urruntzearen. Touryk emandako interferentziaren legean aurreikusten den ideia bera da, hain zuzen ere. Euskararen kasuan hori nabarmena izan dela aipatzen du Zabaletak:

Hala, esan daiteke euskarazko literaturan izan den garbizalekeriazko joerak —itzulpenean ia beste inon gertatzen ez dena—, ez duela komunikazio asmorik, euskal irakurlegoari egokitzen ez zaiolako; edo ñabardura gehiagoz esanda, garbizalekeria komunikazio eginkizuna galerazten duen gertaera dela, zenbat eta garbizaleagoa, orduan eta galeraztenago. [...] Baina izan daiteke hizkuntzari berari dagokion pedagogiazko asmoa, garbizalekeriaren kasuan den bezala (Zabaleta, 1991: 27).

Zabaletak gurean sumatzen duena, azken batean, hizkuntza-eredu jakin bat irakasteko nahia da: gaztelaniaren interferentziatik urruntzen den eredia baina, aldi berean, irakurlearekiko komunikazioa errazten ez duena. Antzeko zerbait identifikatu du ETBn gaztetxoentzako programazioan erabiltzen den itzulpen moldea aztertu ondoren Barambonesek (Barambones, 2009). Pentsa liteke, beraz, interferentziaren legeak ondorio hori uzten duela gurean.

1.5.4 Euskara, hizkuntza gutxitua

Euskararen jatorriak eta izaera isolatuak mundu osoko hizkuntzalariak kitzikatu ditu. Oraindik orain, ez dakigu nondik datorren euskara; badakigu, baina, ez dela Europako bi hizkuntza-talde nagusiren partaide. Izan ere, batetik, hizkuntza indoeuroparrak dauzkagu, eta talde horretakoak dira hizkuntza germanikoak (alemana, ingelesa, daniera eta suediera), hizkuntza helenikoak (greziera), hizkuntza erromanikoak (espainiera, frantsesa, portugesa, italiara, okzitaniera, katalanera, galegoa eta errumaniera), baltikoko hizkuntzak (letoniera, lituaniera, albaniera eta armeniera) eta hizkuntza zeltikoak (bretoiera, eskoziera, galesa

eta Irlandako gaelikoa). Bestalde, hizkuntza fino-ugrioak dauzkagu, hala nola hungariera, estoniera, suomia eta laponiera.

Bi talde horietan sartzen ez den hizkuntza bakarra dugu euskara, eta horregatik esaten da irla-hizkuntza dela, edo isolatutakoa. Horrek ez du esan nahi, jakina, bakanduta egon denik, etengabeko harremanean egon baita, eta dago, inguruko hizkuntzekin.

Esan bezala, jatorri ezezaguneko hizkuntza izanik, mundu zabaleko hizkuntzalari askoren arreta piztu du euskarak; hizkuntzalari alemanen artean bereziki hedatu zen jakinmina; besteak beste, Humboldték ere ikertu zuen euskararen kasua. Ahaidetasun-teoriak ere nahi beste sortu dira, emaitza behin betikorik eman ez badute ere.

Denbora luzez indarrean egon den teoretako bat euskoiberismoarena da. Teoria horren arabera, euskara litzateke latina iritsi aurretik iberiar penintsula osoan hitz egiten zen hizkuntza. Teoria hori defendatu zuen, hain zuzen ere, Humboldték, eta, aurrerago, Schuhardtek ere tesi bera defendatu zuen. Hizkuntzalariak ez ziren izan XX. mendera arte iberieraz zeuden idazkiak deszifratzeko gai, eta uste zuten euskararekin harreman zuzena izan zezaketela. Deszifratzea lortu zenean, ordea, garbi gelditu zen iberierak ez duela euskararekin zer ikusirik. Gerhard Bahr hizkuntzalariak ere Humboldtén euskoiberismoaren teoria gezurtatu zuen, eta, gaur egun, garai batean zuen funtsa galdu du.

Egon dira, baina, bestelako teoriak. Esate baterako, euskara amazigerarekin lotzen dutenak, euskarak hizkuntza kamitiko-

semitikoekin harremana izango zuelakoan. Teoria honek esan nahiko luke euskara Afrikako hizkuntzetatik eratorri dela.

Indar berezia hartu zuen bestelako teoria batek zioenez, euskara kaukasiar hizkuntzekin legoke lotuta, hala nola georgierarekin. Euskararen hain bereizgarri den ergatiboa hizkuntza kaukasiarrek ere bai baitute.

Nolanahi den, gaur gaurkoz ez dago datu fidagarririk euskara munduko inongo hizkuntzekin lotzeko. Hainbat saio egin dira bateko eta besteko hizkuntzarekin lotzeko, baina, hiztegi mailako kointzidentziak askotan gertatzen badira ere, ez da hizkuntzen arteko erregulartasun seriorik inon aurkitu.

Esan liteke, beraz, noizbait galdutako enbor (familia) bateko adar (hizkuntza) dugula euskara. Euskal hizkuntzalariak aitzineuskara deituriko protohizkuntza berreraikitze lanetan dabilta, Koldo Mitxelenak hasi zuen bidetik, hain zuzen. Helburua, azken batean, euskarari ahaideak bilatzea baino, hizkuntzaren ezagutza sakontzea da.

Horiek horrela, ahaiderik ezagutzen ez zaion arren, euskarak mendeetan zehar bizirautea lortu du. Urteen poderioz euskararen hedadura nabarmen murriztu da, eta, gaur egun, 800.000 bat dira euskaldunak. Zazpi lurraldetan hitz egiten bada ere, hiru egitura administratibok eta bi estatuk arautzen dute, eta, jakina, lurralde bakoitzaren egoera soziolinguistikoa oso desberdina da bata bestetik.

Euskal Autonomia Erkidegoan (Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban) euskara ofiziala da gaztelaniarekin batera. Horrek ez du

esan nahi, jakina, biztanle guztiak elebidunak direnik. EUSTATek² 2012ko uztailan kaleratutako V. mapa soziolinguistikoaren arabera, EAEn, elebidunen kopurua % 59,7koa da 16-24 adin-tartean. Horrek, jakina, hezkuntza-ereduekin dauka zerikusia, EAEn hiru hezkuntza-eredu baitaude unibertsitatera iritsi aurretik: A eredia, gaztelania hutsean ematen dena, euskara izanik ikasgai gisa; B eredia, non ikasgaien erdia gaztelaniaz eta beste erdia euskaraz ematen baiten; eta D eredia, euskara hutsean ematen dena, gaztelania ikasgai gisa edukiz. 2007-2008 ikasturteari dagozkion datuak aztertuta, D eredian ikasleen % 56 matrikulatu zen, B eredian % 23,2 eta, A eredian, % 20,9. Gainera, urtetik urtera ematen diren datuen jarraipena eginez gero, nabarmen ikusten da jendeak geroz eta gehiago egiten duela D ereduaren alde.

Nafarroako Foru Erkidegoan bestelakoa da egoera. Hiru eremutan dago banatuta lurraldea: eremu euskalduna (iparraldekoa), mistoa (erdialdekoa) eta erdalduna (hegoaldekoa), eta banaketa horren arabera da ofiziala euskara. Hau da, eremu euskaldunean baino ez da guztiz ofiziala euskara.

Ipar Euskal Herriko hiru probintzietan, ordea, euskarak ez du ofizialtasunik, eta Seaska izeneko ikastolen sarearen baitan ikastolak egon badiren arren, euskararen ezagutzak eta erabilerak nabarmen egin du atzera Iparraldean.

Hala eta guztiz ere, aipatu berri ditugun horiek ezagutzari dagozkion datuak dira. Ezagutzak, ordea, ez du erabilera bermatzen, eta, hain zuzen ere, ondorio honetara iritsi dira

²http://www.kulturklik.euskadi.net/wp-content/uploads/2012/07/Euskal_Herria_inkesta_soziolinguistikoa_2011.pdf

hizkuntza-plangintzan lan egin dutenak: lan handia egin da euskararen ezagutza bermatzeko, baina ez hainbeste erabilera bultzatzeko.

1.5.4.1 Euskararen erabilera

Euskararen V. inkesta soziolinguistikoaren arabera, 16 urtetik gorako EAEko biztanleen artean, % 20k euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean, % 15ek gaztelania erabiltzen du nagusiki eta % 65ek ez du euskararik erabiltzen.

Euskararen erabilera igo egin da zerbitzuetan, lanean, seme-alabekin eta lagunekin, baina ez etxean (betiere 16 urtetik gorakoak kontuan hartuta, etxean euskara erabiltzen zutenak % 17,3 ziren 1991n eta % 17,1, berriz, 2011n). Hala, inkestaren emaitzen arabera, “azken 15 urteotan, euskararen erabilerak behera egin du oro har”.

Bestalde, 35 urtetik gorako elebidunen artean, euskararen erabilera handiagoa da gaur egun duela 20 urte baino (duela 20 urte egin zen lehen inkesta soziolinguistikoa), baina, gazte elebidunen artean, berriz, erabilera jaitsi egin da 20 urteko tartea kontuan hartuta; dena den, 10 urteko tartea kontuan hartuta, hau da, 2001 urtetik hona, euskara gehiago erabiltzeko joera nabari omen da baita gazteen artean ere. Joera-aldaketa hori, hala ere, ez da gertatu Nafarroan.

Datu horiek euskararen erabilerari erreferentzia egiten badiote ere, ez da ezer esaten euskara erabiltzen duten gazteen hizkeraz. Bada, hala ere, gazte euskaldunen hizkera berariaz aztertu zuen lan bat: Imanol Esnaolak 1999an kaleratutako lana da, eta, bertan, gazte euskaldunen artean erabiltzen den hizkuntza eredia aztertzen du egileak. Esnaolak ondorioztatzen duenez, gaztelaniak

presentzia nabarmena du gazteen hizkeran. Hain zuzen ere, “gazte hauen diskurtsoari ‘gazte’ kutsua ematen dioten elementuak erdal jatorrikoak dira nagusiki” (Esnaola, 1999: 31). Gaztelania dute gazteek gazte-hizkeraren edo hizkera informalaren harrobitzat, eta, beraz, gazte euskaldunek euren artean egiten dutena halako hizkuntza-nahaste bat izaten da maiz.

Euskara normalizatzeko eta euskara batua sortzeko bide luzean, euskara noranahiko bihurtzeko ahaleginak egin ziren batik bat. Ahalegin horren beharra zuen, inondik ere, hizkuntzak. Baina 1960az geroko ahalegin guztiak gorabehera, eta gaztetxoek euskararen ezagutza eduki bazeukaten ere, lagunartean erdaraz aritzen zirela ikusi zen, eta horren arrazoiak aztertzeari eta konponbideak bilatzeari ekin zitzaion (Zuazo, 2005: 207).

Orain gutxi, euskal ahozketasuna sakonago aztertzeko eta, are, bultzatzeko beharraz jabetuta, Mintzola bezalako ekimenak sortu dira. Mintzola Fundazioak euskarazko ahozketasuna aztertzea du helburu. Ikerketa bultzatu eta prestakuntza eskaintzeaz gain, *ahoa bete hots* jardunaldiak antolatzen dituzte urtero, euskarazko ahozketasunaren inguruan lanean ari diren adituak elkartu nahian.

Gainerakoan, herritarren artean eta, bereziki, gazteen artean badira euskara bultzatzeko ekimenak, betiere udalerrri bakoitzeko Euskara Departamentuak bultzatuta, edo ikastetxeek bultzatuta (gazte-hizkeraren gaia 2.8 atalean landuko dugu sakonago).

1.6. ZEHARKAKO ITZULPENA

Atal honetan zeharkako itzulpenari eskainiko diogu arreta. Gaiaren inguruan ikertu eta idatzi dena azalduko dugu, eta

zeharkako itzulpenak hizkuntza gutxituekin duen lotura aipatu. Amaieran, 1.6.4. atalean, zeharkakotasunaren kontzeptua hain argia ere ez dela ikusiko dugu, edo, gutxienez, hainbat ñabardura har ditzakeela. Hori izango da, besteak beste, gure lanaren bidez aztertu nahi duguna.

1.6.1 Aurrekariak

Euskarara egindako itzulpenak aztertzen ditugun ikerketa honetan, bereizgarritzat jotzen dugu euskara hizkuntza gutxitua izatea. Izan ere, hizkuntzen arteko harremanen testuinguruan, ez da gauza bera hizkuntza boteretsu batera/batetik itzultzea ala hizkuntza gutxitu batera/batetik egitea. Ikusi dugun moduan, ordea, gaiari ez zaio arreta handiegirik eskaini.

Gauza bera esan daiteke zubi-hizkuntzaren erabilerari dagokionean: zeresan handiko gaia izanagatik ere, gutxi dira fenomenoari eskaini zaizkion lerroak. Eman zaion arreta txiki horrek berak erakusten du, bestalde, baztertu edo mespretxatzen den fenomeno dela. Hala, ikuspegi kanonikoa erabili da, oro har, itzulpengintzari buruzko lanak egiterakoan, hau da, STaren eta XTaren arteko harremanera mugatu dira. Gure lanean, ordea, konplexuagoa den errealitate batekin egin dugu topo, eta berori aztertzen saiatu gara. Baina, esan bezala, lan akademiko gutxik erreparatu dio zeharkako itzulpen-jardunari, eta gabezia hori bera bada, berez, datu bat.

Aldi berean, zeharkako itzulpena berariaz aztertu duen lan gutxi egonda ere, azken urte hauetan asko aipatu dira hizkuntzen eta kulturen arteko botere-harremanak itzulpen ikasketetan (Lefevereren manipulazioaren eskola edota Bourdieu eta Luhmann

gidari hartzen dituen ikuspegi soziologikoa), eta, azken batean, zeharka itzultzearena estuki lotua dago eztabaida horiekin. Horrek agian salatzen du ideologia eta botere kontuak itzulpen ikasketen jardueran ere kontuan hartzeko faktoreak direla. Martin Ringmar-ek Europa iparraldeko herrialdeen arteko itzulpen-harremanak aztertu ditu, eta zeharkako itzulpenen inguruko artikuluan adierazten duenez, gaiak ez du interes akademikorik piztu, nahiz gaurkotasun eta pisu handikoa izan (Ringmar, 2006: 1).

Akademikoen artean sorrarazi duen arreta eskasaz gain, iritzi publikoak ere baztertu edo mespretxatu egiten du zeharkako itzulpena, baztertu beharreko praktika bat balitz bezala. Horren aurrean, Touryk defendatzen duenez, zeharkako itzulpena ez da fenomeno txartzat hartu behar, orduan ikuspegi arauemailerara lerratuko baikinake. Ikerketa-gai den fenomeno bat izanik, kultur sistemari buruzko ezagutza sakonagoa emango digun jarduera gisa hartu behar da. Izan ere, ikerketa deskribatzaileak ematen du sistema baten barruan gertatzen diren fenomenoak ulertzeko behar den informazioa:

I would go so far as to argue that no *historically* oriented study of a culture where indirect translation was practiced with any regularity can afford to ignore this phenomenon and fail to examine what it stands for. This is in fact how mediated translations as texts, and the practices which give rise to them, should be approached, along with whatever changes may have occurred in them: not as an issue in itself, but as a **uncture where systemic relationships and historically determined norms intersect and correlate**. It is an approach designed to establish precisely those norms in their interrelationships (Toury, 1995: 130).

Izan ere, zeharkako itzulpenarena ohikoa izan da kultura askotan. Gogoratu besterik ez dago, XVIII. mendean literatur lan kanoniko asko frantsesezko zubi-bertsioen bidez jaso ziren orain nagusi diren hainbat hizkuntzatan (von Stackelberg, 1984: 8). Gaur egun, ingelesak hartu du munduko hizkuntza izateko zeregina, eta haren bidez jasotzen ditugu literatura txikiagoetan idatzitakoak. Hala ere, eta hedadura txikiagoko kulturetara etorrira, zubi-hizkuntzaren erabilera oso ohikoa izan den –eta, oraindik ere, ohikoa den– fenomeno da. Horregatik da gure ikerketaren ardatzetako bat. Gauza jakina denez, euskarara egindako itzulpen askoren kasuan, ez da jatorrizko sorburu-testua erabili, zubi-hizkuntza baizik (gaztelaniazkoa, gehienetan).

Zubi-hizkuntza erabiltzeko ohitura dagoela ikertzaile eta aditu askok aipatzen duen kontua da. Nazioartean zeharkakotasunaren gai orokorra aztertu duten lanei erreparatzen badiegu, Jürgen von Stackelberg-ek *Übersetzung aus zweiter Hand* izeneko lana argitaratu zuen 1984an, eta bertan XIV. mendetik XVIII. mendera arte Europan hainbat literatur lan itzultzeko egindako zeharkako bideak aztertzen ditu.

Bestalde, Göttingenen egindako nazioarteko kongresuko emaitzetan jaso zen, aurreneko aldiz eta modu sistematikoan, gaiaren inguruan hainbat adituk aztertutakoa (*Göttinger Beiträge zur Internationale Übersetzungsforschung*, 1991). Harald Kittel-ek eta Armin Frank-ek editatutako argitalpenak zeharkako itzulpena hizpide duten hiru artikulu jasotzen ditu.

Gainerakoan, Toruyk VII. atala eskaintzen dio fenomenoari 1995eko *Descriptive Translation Studies and Beyond* bere lanean.

Hebreerak bere literatur sistema osatu eta garatzeko egin duen ibilbidea hartzen du hizpide, hasieran alemanaren bitartekaritza eta, ondoren, ingelesarena baliatu baitzen.

Denboran aurrerago etorrira, Cay Dollerup (2000) eta Martin Ringmar (2006 eta 2008) ditugu gaia jorratu dutenak.

Gaur egun, hala ere, zeharkako itzulpenaz hitz egiten denean, nolabait urrun samar gelditzen diren hizkuntzetatik itzultzeko egiten den prozesuaz hitz egiten da. Xu Jianzhong-ek, esaterako, aztertu du zeharkako itzulpenaren gaia: txineratik beste hizkuntzetara edo beste hizkuntzetatik txinerara itzultzeaz dihardu. Maialen Marinek ere (2008) txineratik itzultzeko egiten den zeharkako bidea aztertzen du bere artikuluan.

Horiek ere zeharkako itzulpenaren adibide dira, jakina. Ezin dugu ahaztu, ordea, euskararen kasuak badituela bere ñabardurak. Izan ere, hizkuntza gutxitua dugu euskara, eta, zentzu horretan, gaztelaniatik egiten den zeharkako itzulpenak zeharkakotasun diglosikoa du oinarri.

Gainerakoan, Euskal Herriko Unibertsitatean, lehenik Aiora Jakak eta ondoren Elizabete Manterolak aipatu dute gaia beren doktorego-tesietan. Joseba Sarrionandiak itzultzaile gisa egindako lanen atzean suma daitekeen itzulpen-teoria aztertu zuen Jakak 2011n defendatutako tesian. Jakak lan horretan ondorioztatu zuenez, Sarrionandiak zubi-hizkuntzak erabili zituen hainbat testuren itzulpena burutzeko, orotara 50 sorburu-hizkuntzatak lanak itzuli baitzituen, baina, Sarrionandiak berak Hasier Etxeberria literatur adituari behin aitortu zionez, euskaraz, espainolez, portugesez, ingelesez eta frantsesez irakurtzen omen

du (Jaka, 2012: 283). Sarrionandiak, baina, oso kasu bakanetan aitortzen du zubi-testu bat baliatu duenik. Manterolak, bestalde, euskal literaturaren itzulpena aztertu du, eta, ikerketak erakusten duenez, euskal literatura beste hizkuntzetara itzultzeko errealitatea konplexutasun handikoa da. Manterolak itzulpen mota hauek identifikatu ditu: zuzenean egindako itzulpenak, zeharka egindakoak eta, gainera, gaztelaniara egiten diren itzulpenetan, kolaborazioa eta autoitzulpena. Euskal literatura gaztelania ez den beste hizkuntzatarara itzultzerakoan ia gehienetan itzultzen da zeharka, gaztelania zubi-hizkuntza gisa hartuta, eta horregatik landu du berariaz zeharkakotasunaren gaia: “Kasu horietan, bitarteko bertzio hori bihurtzen da itzulpenerako iturri, eta jatorrizkotzat hartzen da, euskarazkoa ezkutuan utziz” (Manterola, 2012: 153). Beraz, Manterolak ere zeharkako itzulpenaren fenomenoarekin egin du topo —fenomeno ohikoa, gainera— guk aztertu dugunaren kontrako itzulpen-norabidean.

Gauzak horrela, eta zeharkako itzulpenak euskararen kasuan izan duen pisuaz jabetuta, ezinbestekoa deritzogu fenomeno arretaz aztertzeari. Edozein modutan, gaia uste baino korapilatsuagoa da, eta tentuz ibili beharra dago terminologia kontuetan, 1.6.4 atalean ikusiko dugun moduan. Izan ere, zuri eta beltz, bi kategoria zehatz erabilia ezin zaio erantzun errealitateari, zuzeneko eta zeharkako itzulpenen arteko muga lausoa baita, ikusiko dugunez. Izan ere, euskaldunon kasuan, zeharkakotasuna eta interferentzia saihestezinak izan daitezkeela hartu behar dugu kontuan: itzultzaile bakoitzaren buruan gertatzen diren fenomenoak izan daitezke; baita lan-tresna asko gaztelaniaz

pentsatuta egoteagatik sortzen direnak ere. Zubi-hizkuntzarena, beraz, gai konplexua da, eta aztertu beharrekoa.

1.6.2 *Zeharkako itzulpenak eta hizkuntza gutxituak*

Zeharkako itzulpena zuzenki dago lotuta hizkuntzen/kulturen arteko botere-asimetriarekin, hizkuntza gutxituak onargarritasuna lehenesten baitu, eta, halako kasuetan, ohikoak izaten dira zeharkako itzulpenak.

Graeberrek, esaterako, ingelesetik alemanera itzultzeko erabilitako bitartekaritza frantsesa aipatzen du. XVIII. mendearen amaiera arte oso normala izan omen zen fenomeno hori, baina 1730erako hainbat ahots hasiak omen ziren zubi-hizkuntzaren erabileraren onura zalantzan jartzen (Graeber in Kittel eta Frank, 1991: 6).

Hala, 4 jarrera desberdintzen ditu XVIII. mendeko itzultzaile alemanen artean, frantsesezko bitarteko bertsioekiko morrontzari dagokionean:

- Hasieran aitortu egiten zen frantsesetik itzultzen zela, nahiz eta jatorrizko lana ingelesa izan.
- Ondoren, hizkuntza bietan trebezia lortutako itzultzaileak bertsio biak erabiltzen hasi ziren (ingelesezkoa nahiz frantsesezkoa), von Stackelbergekek itzulpen eklektikoak deiturikoak:

Deviations in French versions being for the most part considerable, the German translator finds himself in the possession of two rather divergent texts – and he can seldom resist the temptation to select from both of them for his own work (Graeber in Kittel eta Frank, 1991: 8).

- Ondorengo urrats batean, itzultzaileek ez zuten aitortzen frantsesetik itzultzen zutenik, nahiz eta, azterketa testual sakona eginez, zalantzarik ez egon zeharka itzuli zela.
- Azken fasean, zuzenean itzultzen hasi ziren, eta hala aitortzen zuten.

Graeberrek alemanera egindako itzulpenen bilakaera hori deskribatzen du, seguru asko, hizkuntza batek une bakoitzean duen boterea eta estatusarekin zerikusia duena.

Hizkuntza gisa izan duen bilakaeragatik, hebreerarena askotan aipatzen den kasu bat da. Zeharkako itzulpenari eskaintzen dion atalean, hebreeraz idatziriko literatur-sistemaren sorrera eta bultzada hartzen du adibidetzat Touryk (1995: 7. atala). Hizkuntza modernoagoez inguratuta, hebreerak denbora laburrean pauso erabakigarriak eman behar izan zituen, hizkuntzari behar besteko bultzada eman nahi bazion. Hala, itzulpenak ezinbesteko bihurtu ziren hebreeraren sisteman, sormenarekin ez baitzen aski sistema elikatzeko.

Sortze prozesu horretan, itzulpen-jarduerak xede-hizkuntzari eta xede-kulturari erreparatu zion guztiz. Hau da, xede-kulturaren onargarritasuna lehenetsi zen, eta ez hainbeste sorburu-testuarekiko fidelitasuna. Zuzenean ala zeharka itzultzeak, beraz, ez zuen berebiziko garrantzirik, gakoa xede-kultura zelako. Are, itzulpenak ez zuen, jarduera gisa, halako aitortzarik merezi, eta jatorrizko egilearen izena ez zen sarritan azalean ageri, edota ez zen jatorrizko izenburuari buruzko daturik ematen. Touryk dioenez, “under such circumstances tolerance of indirect translations seems almost self-explanatory” (Toury, 1995: 133).

Hebreerazko sistema sustatze nahi horretan, Touryk azaltzen duen egoeraren paralelotzat har genezake, neurri batean, euskarazko euskal literaturarekin gertatutakoa. Izan ere, Francoren diktaduraren ostean eta euskal kultura elikatzeke sortu zen beharraren aurrean, itzulpenak ezinbestekoak bihurtu ziren, eta zeharkako bidea erruz erabili zen egoera hartan.

Touryk arreta berezia eskaintzen dio hebreerara egindako itzulpenetan sorburu-testuak zein izan ziren jakiteari, sorburu-hizkuntzaren eragina jasotzen duelako xede-hizkuntzak eta xede-kulturak. Hizkuntza mailan ez ezik, esan genezake bitarteko kultura bera ere gerturatzen dela xede-kulturara (Domínguez, 2008: 178). Izan ere, zeharka itzultzen denean ez da desberdin itzultzen; itzulpen-prozesua berbera da, “la diferencia se encuentra sobre todo en cuestiones de imágenes, de relación entre culturas y polisistemas” (Domínguez, 2008: 178). Hasieran Alemaniako sistematik edan zuen hebreerak, nahiz eta testuak, jatorriz, bestelako sistemakoak izan. Ondoren sistema errusiarretik, eta, azkenik, sistema ingelesetik. Gertaera historikoei erreparatu behar zaie sorburu-sistemari dagozkion aldaketa horiek ulertzeko. Hala ere, kontuan hartu behar dugu sorburu-sistema beste sistemetako lanen bitartekari zela askotan, beste hizkuntzetatik itzuli ahal izateko zubi-hizkuntza gisa jarduten zuela, alegia. Hori da, hain zuzen ere, Euskal Herrian gaztelaniak itzulpenean bete izan duen papera: batzuetan sorburu-hizkuntza gisa erabili da sorburu-lana ere gaztelaniaz idatzita zegoelako, baina beste askotan zubi-hizkuntza gisa jokatu du.

Alemanetik hebreerara egindako itzulpenekin jarraituz, alemanetik euskarara egindako itzulpenen egoerarekin pareka dezakeguna dio Touryk:

With regard to the translation of German texts, a further complication arises: due to the lack of a suitable German-Hebrew dictionary, in terms of both volume and quality, many translators resort to a combination of German-English and English-Hebrew dictionaries. This practice gives birth to a kind of mediated 'islands' in translations which, as a whole, were made directly from the originals (Toury, 1995: 146).

Euskaraz ez da, orain gutxi arte, aleman-euskara hiztegirik egon, eta kontsulta guztiak alemana-gaztelania-euskara katean egingo zirela pentsatu behar dugu. Horrek, jakina, bitarteko sistemaren interferentzia instrumentala sortzen du.

Bestalde, bada harreman edo logika bat hizkuntza bazterrekoa ala erdigunekoa den eta zeharka itzultzeko fenomenoaren artean. Ringmarrek dio, zeharka itzultzen den kasuetan, zubi-hizkuntza hizkuntza menderatzailea izan ohi dela, eta ez bazterrekoa (Ringmar, 2006: 12). Eta Touryk hebreeraren adibidea ematen duenean ere argi ikus daiteke hori, zubi-hizkuntzak beti izan baitira hizkuntza menderatzaileak. Euskararen kasuan, inguruko hizkuntza menderatzailea da zubi-hizkuntza nagusia, gaztelania, alegia.

Hizkuntza gutxituek itzulpenaren beharra dute beren burua munduko literatur sistemara zabaltzeko: hizkuntza menderatzaileen beharra dute ikusgarritasuna lortzeko. Menderatzailetzat hartzen diren hizkuntzek ere behar dute

itzulpena, nahiz beste neurri batean; ingelesaren beharra dute, funtsean:

This means that, in today's world, translations into English tend to be (relatively) few and marginalised in the Anglo-American cultural context, but at the same time English translations are used, more often than other translations, as mediators in ITr. And even in cases of direct translation previous translations into English often serve as indicators that this particular work/writer is worth translating (Ringmar, 2006: 12).

Ringmarren ustez, zeharkako itzulpenaren beharra izateak berak erakusten du gutxitua dela hizkuntza, bitartekari lanak egingo dituen hizkuntza menderatzailearen beharra duelako:

Die Unterscheidung zentral – peripher impliziert nicht nur, dass die Übersetzungsrichtung aus dem Zentrum zur Peripherie geht (eher als umgekehrt), sondern auch, dass die Peripherien über das Zentrum kommunizieren; entweder durch indirekte Übersetzungen oder, bei direkter Übersetzung, indem die Rezeption der Peripherien abhängig von der des Zentrums bleibt (Ringmar, 2008: 3).

Dirudienez, hizkuntza bateko polisistema zenbat eta garatuago eta osatuago, orduan eta gutxiago jotzen da zeharkako itzulpena. Estatuko hizkuntzen artean egiten den HGLaren itzulpenaren inguruko tesia aurkeztu zuen Mónica Domínguezek 2008an Santiagoko Unibertsitatean, eta hark ere Ringamarrek esandakoak baieztatzen ditu galegora egindako HGLaren itzulpenei dagokienean:

Hay que tener en cuenta que la autoestima colectiva de los gallegos al principio de los años ochenta era baja, en general, y por tanto lo importante era realizar las traducciones para normalizar la lengua (Domínguez, 2008: 181).

Polisistema galegoa garatu ahala, eskakizunak ere zorrotzu eta ugaritu egin omen ziren eta, funtsean, polisistema espainolarekiko autonomia irabazi zuen:

Hoy en día, el deseo de independizarse de la cultura castellana hace que se creen las condiciones necesarias para facilitar las traducciones directas: se crean diccionarios bilingües, se funda la Facultad de Traducción e Interpretación de la Universidad de Vigo, donde se forman traductores de varias lenguas al gallego etc. (Domínguez, 2008: 181-182).

Hizkuntza gutxituen garatzea eta haztea zuzenki lotua dago, beraz, zeharkako itzulpenen bidez sortzen den morrontza horrekin:

Si la literatura marginal “implanta” la traducción de cierta obra antes que el polisistema adyacente está favoreciendo su propia independencia, su prestigio y un índice de ventas mayor. Incluso puede ganarse lectores que solían recurrir a la otra lengua para acercarse a las traducciones (Domínguez, 2008: 186).

Gurean ere nabaritzen dira norako horretan doazen ekimenak: Atxaga bere azken lanak gaztelania, galego eta katalanera aldi berean itzultzen ahalegindu da, eta argitaratzaile batzuk egin dituzte atzerriko lanen itzulpen bikoitzak, euskarara eta gaztelaniara; baina, oraingoz, salbuespenak dira euskal literatur sisteman.

1.6.3 *Zeharka itzultzeko arrazoiak*

Bistan denez, itzulpenak zuzenean egin beharrean zeharka egitea ez da halabeharrez gertatzen den zerbait; une eta baldintza jakin batzuetan gertatzen denez, une eta baldintza horiek eragile

ere badira. Ringmarrek honako faktore edo erregularitasun hauek aipatzen ditu kontuan hartu beharreko ideia gisa:

- Araua onargarritasuna denean egiten da zeharkako itzulpena (jatorrizkoarekiko leialtasuna ez baita horren garrantzitsua).
- Beren artean distantzia handia dagoen hizkuntzen artean egiten da zeharkako itzulpena.
- Sorburu-hizkuntza nahiz xede-hizkuntza, biak ere hizkuntza gutxituak diren kasuetan egiten da.
- Zeharka itzultzen den kasuetan ez zaio sorburu-hizkuntzako egile jakin batean espezializatzeari hainbesteko garrantzia ematen.

Idea horiez gain, bere ustez gizarte batean zeharka itzultzeko egon litezkeen arrazoiak aipatzen ditu (Ringmar, 2006: 6):

- Zubi-hizkuntzaren prestigioa (XVII eta XVIII. mendeetan frantsesarekin gertatu moduan, adibidez).
- Sorburu-bertsioa ezin eskuratzea.
- Sorburu-hizkuntza ez ezagutzea.
- Zubi-hizkuntza menderatzen duen argialetxeak itzultzen dena kontrolatu nahi izateagatik bultzatzen dezake zeharkako itzulpena (Ringmarrek dio horixe zela Sobietar Batasuneko hainbat hizkuntzetara itzultzeko errusierazko zubi-bertsioa ezartzeko arrazoiak).

Ringmarrek aipatzen dituen arrazoietatik, badirudi sorburu-hizkuntza ez menderatzearena dela ohikoena den arrazoiak. Hala eta guztiz ere, eta gure ikerketari dagokionean, ezin dugu ahaztu alemana, gaur egun, oso zabaldua dagoen atzerriko hizkuntza dugula, eta, hala eta guztiz ere, badirudi, kopurua asko gutxitu bada ere, oraindik ere egiten dela zeharkako itzulpena. Ringmarrek dio argialetxeen erantzukizuna dela hori, ohiko lan egiteko modu

eta arauak ez hautsi nahia, eta, era berean, kostuak gutxitu nahia (Ringman, 2006: 6-7).

Xu Jianzhongen arabera (2003), zeharkako itzulpena, nahiz eta gutxituko den, ez da sekulan guztiz desagertuko. Jianzhongek nahiago du zeharka itzultzea ez itzultzea baino, itzulpenaren onurak lehenesten dituelako beste ezeren gainera. Zeharkakoan informazioa galtzen dela aitortzen du, baina, hala eta guztiz ere, ez du jarduera gisa deitoratzen. Zeharkakoa zuzeneko itzulpenaren ordezkotzat har litekeela dio, eta zuzenean itzultzeko modua dagoenean, berriz itzul daitekeela lana (Jianzhong, 2003: 200).

Marinek Touryren ikuspegi deskribatzailea darabil bere artikuluan, eta, horren ondorioz, zeharkako itzulpena gaixotasun gisa hartu beharrean, sindromearen ikuspuntua baliatuz, zeharkako itzulpenak sortzen diren giroa zehatz-mehatz ulertzeko ahalegina egiten du, argitaletxe eta itzultzaileekin hitz eginez. Elkarrizketa horietatik, honako ondorio hauek ateratzen ditu, zeharka itzultzeko arrazoiei dagokienez:

- Merkatuaren presioa (denbora; zenbat eta denbora gehiago itxaron, orduan eta diru-galera handiagoa).
- Espezialista gabezia.
- Mesfidantza (argitaletxeek nahiago dute zubi-argitaletxeen aholkuari jarraitu; eta nahiago dute, baita ere, betidanik lan egin duten itzultzaileekin lan egin).

Katalogoaren deskribapena egiterakoan, gurean zeharka itzultzen jarraitzeko egon litezkeen arrazoen inguruan hausnartuko dugu. Edozein modutan, Gasenik dioenez, "arazoa da, askotan, behin baino gehiagotan aipatu dugun estatus apala dela medio, argitaletxeek ez diotela itzultzaileari jatorrizko testua

helarazten, baizik eta testuaren gaztelaniazko bertsioa” (Lopez Gaseni, 2011: 148).

1.6.4 *Zeharkakotasuna ulertzeko modu desberdinak eta muga lausoak*

Esan bezala, zeharkako itzulpenaren inguruan ikerketa gutxi egon da, baina, aipatu, askok aipatu duten fenomeno da, uneren batean edo bestean hizkuntza gehienek ezagutu duten jarduera delako.

Ringmarrek zeharkako itzulpenaren fenomenoaren izendatzeko erabili diren 8 termino zerrendatzen ditu, hala nola: *indirect translation, relay translation, chain translation, double translation, secondary translation, Weiterübersetzung, Übersetzung aus zweiter Hand, mediated translation* (Ringmar, 2006: 2). Gehien erabilitako terminoa *indirect translation* edo zeharkako itzulpena da; jarraian, *relay translation* da gehien zabaldu den terminoa.

Alemanez gaiaren inguruan idatzitako ikerketatan, adibidez, *Übersetzung aus zweiter Hand* [bigarren eskuko itzulpena] edota *Weiterübersetzung* [itzulpen jarraitua] terminoak aurkitzen ditugu, baina ez dirudi jarraitzaile askorik izan dituztenik.

Cay Dollerup dugu *relay itzulpena* terminoaren defendatzailea. Dollerupen ustez, *zeharkako itzulpen* terminoa erabili beharko litzateke soilik bitarteko itzulpen horrek publikorik ez duenean; hau da, komunikazioa gauzatze hutsagatik baliatzen denean bitarteko edo zubi-bertsioa. Auzitegietan egiten den interpretazio-lana jartzen du Dollerupek adibidetzat: interpreteak ulertzen ez duen hizkuntza hitz egiten badu hizlariak, interpretearen lan-hizkuntzara interpretatuko duen beste interprete bat egongo da,

baina bitarteko interprete horren ekoizpena ez du inork kontsumituko (bigarren interpreteak izan ezik, haren sorburu-hizkuntza bihurtu baita aurreneko interpreteak kontatzen diona). Bestelako batzarretan, ordea, askotan egiten da hizkuntza batera baino gehiagorako interpretazioa, baina, hain zuzen ere, badirelako hizkuntza horietarako guztietarako entzuleak. Interpretazioan *relay* deitu izan zaio horri aspalditik, eta Dollerupek *relay itzulpena* terminoa proposatzen du itzulpenerako ere. Izan ere, bitarteko bertsioa argitaratutako lana izaten da, irakurleen kontsumorako dagoen lan bat:

[...]; the defining feature is that the intermediary translation has an audience, that is consumers, of its own. Unlike the renditions rightfully termed *indirect* above, these intermediary realisations do not exist in a vacuum or in an ephemeral interval between the original and the target language version under discussion (Dollerup, 2000: 19).

Dollerupek gogorarazten duenez, *relay* itzulpenarena oso fenomeno zabaldua da, eta Bibliaren itzulpenak egiteko erabilitako bitarteko hizkuntzak aipatzen ditu, edo Grimm anaien ipuinak ingelesezko bertsioaren bidez iritsi direla hainbat hizkuntzatarara. Izan ere, Dollerupek aitortzen duenez,

This procedure [relay translation] is used extensively in the publication and translation of children's literature and of illustrated textbooks. It is –to the best of my knowledge– largely overlooked in comparative philological translation studies (Dollerup, 2000: 22).

Hala ere, *relay* kontzeptuak badu pasibotasun ukitu bat, berrigorpena izan nahi baitu, eta agian horregatik ez da izendapen egokiena hori ere. Bestalde, gehien erabilitako terminoa zeharkako

itzulpenarena da, Touryk berak atal bat eskaintzen baitio, zazpigarrena, *Translation Studies and beyond* (1995) bere lanean. Esan behar da, hala ere, Toury bera ere ez dela termino bakar baten aldeko apustu argia egitera ausartzen. Honela dio aipatu ataleko aurreneko oin-oharrean: “The activity itself will be called *mediated, intermediate, second-hand* or *indirect*, interchangeably” (Toury, 1995: 129).

Bada, bestalde, Dollerupek aipatzen duen eta bereziki interesgarria iruditzen zaigun termino bat: *support translation*. Domínguezek *traducción supeditada* erabiltzen du. Laguntza gisa baliatzen den bertsioa da. Ulertzen duen beste hizkuntza batera egindako bertsio bat eskura izanik, pentsatzekoa da itzultzaile askok erabiliko duela kontsulta gisa. Horrek ez du esan nahi jatorrizkotik itzultzen ari ez denik, baina beste hizkuntza batera egindako itzulpena kontsulta-gai izanik, baliteke xede-testuan haren eragina ere sumatzea, interferentzia testualaren beste adibide bat, alegia. Mugak ez dira, inondik ere argiak, eta testuen azterketa zehatzak frogatuko luke, azken batean, kontsultarako erabili den bertsioa laguntza gisa baliatu den ala, bestela, azkenerako itzultzailearen sorburu-bercio bihurtu den.

Bestalde, eta zeharkako itzulpenaren fenomenoari lotuta, Maialen Marinek interesgarria iruditzen zaigun beste termino bat aipatzen du: zeharkako itzulpen mozorrotuak (Marín, 2008). Zeharka itzuliak izan arren, hala direnik aitortzen ez den testuetarako erabiltzen du Marinek termino hori. Kasu hipotetikoetarako Touryk erabiltzen duen terminologia erabilita, *assumed direct translation* genituzke kasuok, ustezko zuzeneko itzulpenak, alegia. Txinerazko testuen itzulpena aztertzen duen

egile honen ustean, zeharka egin dela ezkutatu nahi izateak erakusten du zeharkako itzulpena gaixotasun gisa hartzen dela. Domínguezek ere garatzen du, bere lanean, Marinek aipatzen duen terminologiaren antzekoa: zeharka itzuli dela aitortzen duten itzulpenei *traducción indirecta manifiesta* deitzen die, ageriko zeharkako itzulpenak; aldiz, sorburu-lanaren erreferentzia mantendu arren, bitarteko hizkuntza baten bidez zeharka egiten diren itzulpenei *traducción indirecta encubierta* deitzen die, ezkutuko zeharkako itzulpenak.

Terminoak termino, azken ikerketa akademikoetan (Jakarenean 2011n, Manterolarenean 2012an) nagusitu ere berau nagusitu dela dirudenez, guk ere *zeharkako itzulpen* terminoari eutsiko diogu zubi-hizkuntza bat erabiliz egiten diren itzulpenentzat.

Zuzeneko eta zeharkako itzulpenen arteko aldeak aztertu nahi ditugun honetan, jakitun gara gure katalogoan/corpusean *mozorrotutako* zeharkako itzulpenak egon daitezkeela, edo, zubi-hizkuntza –laguntza soila baino– sorburu-bertsio gisa erabili duten itzulpenak egon daitezkeela. Horregatik abiatuko gara hipotesi hutsetik, eta Touryk proposatutako terminoaz baliatuta, esango dugu guztiak hartu behar ditugula hipotetikotzat, balizko zuzeneko itzulpenak (*assumed direct translations*) nahiz balizko zeharkako itzulpenak (*assumed indirect translations*). Jaso ahal izan dugun informazioaren arabera erabaki dugu itzulpenak zuzenean ala zeharka egin diren, baina ondorengo azterketek erakutsiko digute hasieran jasotako datuak zuzenak diren ala kontrakorik pentsatzeko motiborik baden.

Atal honetan garatutakoak laburbilduz, itzulpengintzak urtetako bilakaera behar izan du jakintza autonomo gisa hezur-mamitzeko, eta, bilakaera horretan, mugarri bihurtu diren teoriak osatu zituzten Even-Zoharrek eta Touryk.

Even-Zoharrek osatutako polisistemen teoria hartu dugu ardatz, baina berezitasun batekin: gurean, itzulpenetako jatorrizko hizkuntza/kultura bi hartu behar ditugu kontuan, hainbat itzulpen gaztelaniatik abiatuta egin direlako, eta, bertatik abiatuta egin ez badira ere, gaztelaniak gurean duen eragina eztabaidaezina delako.

Bestetik, Touryk jorratutako DTS – itzupen ikaskesta deskribatzaileen metodoari jarraitu diogu: ustezko itzulpenak hartu ditugu oinarri (ustez zuzenean eta ustez zeharka itzuli direnak), aztertu eta erregularitasunak bilatzen saiatu gara. Era berean, Touryk ezarritako bi itzulpen-legeei erreparatu diegu: estandarizazioaren legeari eta interferentziaren legeari, gure corpuseko azterketan biak sumatu ditugunez.

Euskara hizkuntza gutxitua izateak badu zerikusirik honetan guztian, itzulpena jarduera indartsua delako, eta, beraz, hizkuntzaren bilakaeran eragiten duelako: hizkuntzaren garapenerako bide izan daiteke, baina, aldi berean, Touryk aipatzen dituen estandarizaziorako eta interferentziarako bide. Horregatik neurtu nahi izan ditugu gure ikerketan bi lege horiek.

Horretarako, alemanetik zuzenean eta gaztelaniatik zeharka itzulitako testuak bereizi ditugu. Zehaztu behar da, hala ere, ustez zuzenean itzuli diren testuek ere zubi-hizkuntza kontsultatu ahal izan dutela, eta, nolana den, zubi-hizkuntzarekiko (gaztelaniarekiko) ukipena, eta, beraz, haren interferentzia uneoro

dutela itzultzaile guztiek (funtsean, euskal herritar guztiek).
Interferentzia hori aztertzen saiatuko gara testuetan.

Haur- eta gazte- literatura

Haur- eta gazte-literaturaren sorreraz eta izaeraz hitz egiteko nahitezkoa dirudi *haur* eta *gazte* kontzeptuen jatorriaz jardutea, ezinbesteko urratsa baita, giza talde jakin bati zuzendutako literatura-sistema bat sortzeko, talde jakin hori badela aitortzea.

Haur literatura soilik sor daiteke haurra izaera propioa duen izaki gisa hartzen den momentutik, ez geroko gizon edo emakume gisa hartzetik. Hau esaten dugu, badirelako diotenak haur literatura, ahozko forman adierazita, bazela literatura bera sortu zen garaietatik hasita. Baina horrela pentsatzean, nahastu egiten dira ipuin miresgarrien sustrai historikoak eta haur literatura (Zubeldia, 2011: 187).

Haur kontzeptua oinarritzkoa da HGLaren sorrera ulertzeko (2.1. atala), haren inguruan sortzen den komunikazio-sistemaren ezaugarriez jabetzeko (2.2. atala), HGLari literatur genero gisa ematen zaion estatusa ezagutzeko (2.5. atala) eta baita garai bakoitzeko HGLaren ezaugarrietan sakontzeko ere (2.6. atala).

2.1. HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN SORRERA

HGLaren sorrera ulertzeko, *haur* eta *gazte* kontzeptuak noiz sortzen hasi ziren ulertu behar da aurrena, kontzeptu horien bilakaerak ekarri baitzuen HGLaren sistema pixkanaka sortzea.

Izan ere, haurrak ez dira beti guk gaur egun ulertzen ditugun moduan ulertuak izan. *Haur* kontzeptuaren sorrera gertaera eta aldaketa historiko jakin batzuekin dago lotuta, herrialde eta leku guztietan nahitaez kronologia berean jazo ez zirenak. Erdi Aroan hilkortasun-tasak oso handiak izaten ziren, pertsonak jaio eta, heldutasunera iritsi gabe, hil egiten ziren asko haurtzaroan, eta beren giza-bilakaerari ez zitzaion arretarik ematen, hezkuntzari berari ematen ez zitzaion bezala; beraz, ez zen haurrik, eta ez zen uste behar bereziko adinik zegoenik ere, ez baitzen haurren eta helduen arteko desberdintasunik egiten. Haurrak tamaina txikiagoko helduak ziren, nonbait.

XVII. mendetik aurrera, ordea, hilkortasun-tasak jaitsi egingo dira eta Errenazimenduko ideia berriek gizakiaren ikuspegi desberdin bat ekarriko dute. Haurra badela aitortuko da. Hain zuzen ere, Jainkotik hurbil dagoen izaki gisa ikusiko da, helduen mundura iritsi ez den izaki inozente gisa, eta helduen begien aurrean zerbait dibertigarria eta xarmangarria bezala agertuko da. Hala, *haur-literatura* egiten hasiko dira XVII. mendean, baina ez da *haurrentzako literatura* izango, haurrak gaitzat hartuta helduak dibertitzea izango delako hasierako kontakizunen xedea.

Testuaren hartzailean desberdintzen dira, hain justu, XVII. mendeko HGLa eta XVIII.ekoa, ondoren xeheago azaldu duguna.

Shavit-ek garai eta herrialde desberdinetan argitaratutako ipuin beraren bertsioak aztertu zituen bere lanean (Shavit, 1986), garai bakoitzean egondako berezitasunez jabetzeko. Esate baterako, *Txanogorritxo* ipuinaren bertsioak hartu zituen: XVII. mendean Perrault-ek idatzitako bertsioa eta XIX. mendean Grimm anaiek idatzitakoa. Shaviten ustez, begibistakoak dira aldeak: Perrault-en idatzian satira eta ironia nabarmenak dira; helduei zuzendutako ezaugarriak biak ere. Grimm anaiek XIX. mendean idatzitako bertsioan, berriz, askoz nabarmenagoa da haurrak direla hartzaile, testuak funtzio hezitzailea baitauka eta haurrentzat bideratuago omen dago (nahiz eta, gauza jakina den, Grimm anaien aurreneko bertsioak ez zeuden, gure egungo ikuspegitik ikusita, hurrei hain bideratuak)³.

Izan ere, XVIII. mendean, haurraren beharrak hezkuntzarekin lotuko dira gehiago, eta haur eta gazteak hezteko helburu garbia duten liburuak ugaritu egingo dira nabarmen. Kontuan hartu behar da garai hartara arte irakurtzen ez zekien pertsona asko zegoela, eta, beraz, gizartean irakurmena zabaltzarekin batera, hezkuntza ere zabalduz joango da, eta, horrekin, liburuak. Baina,

³ Perraultek 1695ean argitaratu zuen *Txanogorritxo*, eta, bertan, otsoak Txanogorritxo jaten duenean amaitzen da kontakizuna. Grimm anaien lehen bertsioan (1812), ipuinak amaiera ona du, ehiztariak otsoa akabatzen baitu ondoren. Dollerupen ustez, Perraulten bertsioak helburu moralizatzailea du, baina ez da gurasoek edo hezitzaileek hamar urte baino gutxiagoko haur bati irakurriko lioketen ipuina. Grimm anaien bertsioan, berriz, heldu bat denez salbatzailea (ehiztaria) publiko zabalago bati dago bideratua (Dollerup, 2003: 83). Dena den, Dollerupek artikulu berean dioenez, Grimm anaien ipuinak asko aldatu ziren 1825eko argitalpenean, Taylor eta Jardine itzultzaileek ingelesera egindako itzulpenak izan zuten arrakasta ikusita. Izan ere, itzulpen hura ilustrazioekin batera zetorren eta horrek inspiratu egin zuen Wilhelm Grimm haurrentzat egokituagoa zen 50 ipuineko hautaketa bat argitaratzera. Bertsio horren 1833ko edizioak eragin zuen ipuinen gorakada Europan (Dollerup, 2000: 84).

gainerakoan ere, gizartean hainbat aldaketa gertatu zen mende horretan bertan: gizarte-talde burgesaren gorakada gertatu zen, industria-iraultzak bultzatuta; merkataritza indartu zen, eta, liburuak, elizaren kontrolpean egondako objektu izatetik, merkataritza-gai izatera pasatuko dira, irabaziak eragin ditzaketen salgaiak. Bestetik, hezkuntzan ikuspegi-aldaketa bat gertatu zen: Rousseau eta Locke-ren garaia izango da (3.2.1.2 atalean zehatzago). Ordura arte, haurrak zentzatu beharra zen lehenetsua. XVIII. mendean, ordea, eskola moralista zabalduko da puritanoaren gainetik, eta, beraz, haurrak *tabula rasa* direla pentsatuko da, hutsik eta zuri daudela, alegia, eta helduen betebeharra dela horiek heztea eta bide onetik eramatea (Shavit, 1986: 139).

Ondorioz, erlijio-liburuaz haratago, beste hiru eredu ere sortuko dira haurrei zuzendutako testuak idazterako garaian:

- Testu moralizatzaileak, Rousseau-ren ideien arabekoak. Testu mota hauetan elkarrizketak dira nagusi, eta figura heldu batek bide ona zein den erakusten dio haurrari edo adin txikikoari.
- Testu-liburuak, moralaren arabera hezteaz gain, eskolako betiko testu-liburu aspergarriak erakargarriago bihurtzea helburu zutenak.
- Animalia-istorioak edo fabulak. Testu-eredu honen aitzindari Locke izan genuen. Pertsonaiak beti dira animaliak, eta beren arteko bizipen eta solasaldien bitartez haurrari bide zuzena erakustea izaten zuten helburu. Amaieran ikaskizun bat edukitzen zuten, xedea irakastea zenez.

Haur- eta gazte-literaturarena, beraz, hezkuntza-beharrek sorrarazitako sistema izan zen. Hasiera batean sistema homogeneoa zen, baina, geroago, gizartean eta, bereziki,

hezkuntzaren arloan gertatutako ikuspegi-aldaketek eraginda, eredu desberdinak sortu eta heterogeneo bihurtzen hasi zen, estratifikatzen:

As a result, the canonized system lost its homogeneous nature and became heterogeneous (moral stories, animal stories, instructive stories, primers, readers). Eventually, it became stratified and subject to competition and struggle between the various models (Shavit, 1986: 145).

Hain zuzen ere, XVIII. mendean kokatzen du Shavitek sistemaren estratifikatzea, *chapbook* delakoan sorrerarekin batera. *Chapbook* izenekoak helduentzat idatzitako testu moldatuak ziren, txiroei eta behe-mailako jendeari bideratutakoak. Ohiko liburuak baino laburragoak ziren (16-24 orrialde ingurukoak) eta merkeagoak ere bai. Helduentzako literatura hori haurrek ere bereganatu zuten, artean ez baitzegoen HGL-lan gehiegi (zegoen gutxia hezkuntza-sistemari oso lotua, lehen azaldu dugun moduan). Aberatsak zein pobreak izanik ere, haurrek *chapbook*ak kontsumitzen zituztela ikusita, HGLaren sistema zabaldu egin zen, argitaletxeek diru-iturri bat ikusi baitzuten: liburu dibertigarriak behar ziren, baina garaiko hezkuntza-ideiekin bat zetozenak. Elizak ere, bere aldetik, erlijio-liburuen ekoizpena areagotu zuen, *chapbook*en arrakastaz eta zabalkundeaz ohartuta.

Sortutako aukera horretaz ohartu zenetako bat John Newbery izan zen. Hezkuntza-sistemak begi onez ikusten zituen *chapbook*ak kaleratzeari ekin zion Londresen irekitako dendan, eta, hala, "HGL argitaratuz arrakasta lortu zuen lehen editorea" izan zen (Lopez Gaseni, 2000: 22).

Horrela gertatu zen, beraz, HGL-sistema homogeenaren estratifikazioa: erdigunean hezkuntzak begi onez ikusitako liburuak, erlijio-kutsudunak eta haurra heztea helburu zutenak, eta, bazterrean, *chapbook* ez kanonikoak. Ondoren, gizartean gertatutako aldaketak gorabehera, ludikotasunak pisua hartu zuen, testu moralizatzaileak bazterrean pasatu ziren, eta *chapbook*ak eta ondoren horien ordeko gisa funtzionatu zuten komikiek etab. hartu zuten erdigunea (Shavit, 1986: 176).

Ikusi dugunez, hezkuntza beharrei hertsiki lotuta sortu zen HGLa (Shavit, 1986: 135-136), eta Euskal Herrian ere fenomeno bera gertatu zen, alegia, HGLa didaktismoaren eskutik sortu zen, eta abiapuntu hartatik aurrera garatu. Zehazki, Bizenta Mogelek 1804an argitaratutako Esoporen alegietan oinarritutako itzulpena (*Ipui onac*) hartzen da aurreneko euskal HGL-lan gisa (Etxaniz, 1997: 27). Bistan denez, ordea, Europan baino mende bat beranduago piztu zen Euskal Herrian HGL-lanak kaleratzeko ekimena⁴.

Dena den, XIX. mende hasieran euskal HGLko aurreneko lanak agertzen hasi baziren ere, ikastolen sorrerak eman zion batez ere bultzada eta indarra HGL-sistemaren garapenari. Jakina, ikastolen sorreraz gain, hezkuntzaren eta kulturaren munduan hartutako bestelako erabakiek ere izan zuten zerikusia (Euskaltzaindiaren sorrera, euskararen legea etab.); guztiak ere,

⁴ Beldarrainek euskarara ekarritako alegia klasikoak aztertu zituen 2010ean aurkeztu zuen tesian, eta, bertan, alegiak euskal letretara beranduxe etorri zirela aitortzen badu ere, inguruko literaturatan generoa noiz iritsi zen kontuan hartuta, Mogeldarren lana hain berandukoa ez dela defendatzen du (Beldarrain, 2010: 122). Izan ere, gaskoieraz 1776an idatzi ziren alegiak; Samaniego arabarrak 1781ean argitaratu zituen gaztelaniaz; okzitanieraz 1792an argitaratu ziren etab.

azken batean, euskarazko hezkuntza eta bizimodua bermatze aldera hartutako erabakiak ziren. Berandutxo sortu ziren ikastolak (1900 inguruan aurrenekoak) eta horrek arrazoitzen du, hein batean, euskal HGL-sistema sortu eta garatzeko garaian egon den atzerapena (gai hau sakonago aztertu dugu 3.1.1 atalean).

Haur kontzeptuaz aritu gara orain arte, haren bilakaera izan baitzen generoa sortzen hasteko abiapuntu, baina ezin aipatu gabe utzi *gazte* edo *nerabe* kontzeptuak *haur* kontzeptua baino geroago sortuko direla, hezkuntza-sistema bera garatu eta helduaran sartzeko jauzia berandutu ahala. Zubeldiaren arabera, gizarte post-industrialean gertatu diren prozesu batzuen ondorioz sortu zen gazte-literatura, nerabezaroa bizitzako etapa bat dela onartzearekin batera (Zubeldia, 2011: 190).

Zein adin-talde hartu behar den gazte gisa, irakurmena lantzeko egiten den adin-sailkapena kontuan hartuta zehaz daiteke, garapen psikologikoa oinarritzat hartuta, edota herrialde desberdinetan indarrean dauden irakaskuntza-sistemek zein adin jotzen duten egoki ikasle bat gaztetzat hartzeko. Oro har, 12 urtetik 16-17 urtera bitarteko tartea hartu izan da gaztarotzat (Zubeldia, 2011: 191). Jakina denez, nerabezaroa ez da, askorentzat, garairik errazena, eta Zubeldiak esaten digunez, kritiko batzuek nerabazaroko interesak zehazteko dauden zailtasunez ohartarazten dute, aro horretako zaletasunen esparrua oso zabala denez.

Estu edo zabal, kontzeptu horien inguruan sortu zen sistema, eta, orain, sistema horren ezaugarriak aztertuko ditugu xeheki.

2.2. HGLaren KOMUNIKAZIO SISTEMA

HGLa da hartzaile gisa haur edota gazteak dituen komunikazio literarioa (Ewers, 2009: 9). Eztabaidagarria izan daiteke zerk bereizten duen komunikazio literarioa beste komunikazio motetatik (zientifikotik edo eguneroko komunikaziotik, adibidez), baina ez da gure asmoa sakontasun horietan sartzea. Dena den, Ewerek berak arreta eskaintzen dion xehetasun bat azpimarratu nahi genuke guk ere: komunikazio literario esatean ez gara soilik fikzioaz ari, kontuan hartu behar baitira, besteak beste, ez-fikzioa, irudi-liburuak edota gaur egun hain ezinbestekoak bihurtu diren ikus-entzunezko HGL-produktuak.

Edozein komunikazio-sistemarekin egiten den moduan, igorlea, mezua eta hartzailea zein diren zehaztuz hasi beharko genuke, HGLko komunikazioaren bereizgarri diren ezaugarriez jabetzeko.

Lehenik eta behin, komunikazioak xede duen hartzailea (*addressee*) eta komunikazioaren azken hartzailea (*receiver*) terminoak bereizi behar dira. Teorian, HGLko komunikazioaz ari bagara, azken hartzaile nahiz xede-hartzaile soil-soilik haur eta gazteak dituzten produktuak lirateke: “We can only talk of it [children’s literary communication] in this way when the message(s) they receive are actually messages addressed to children and young people” (Ewers, 2009: 10).

Askotan gertatzen da, ordea, aurreikusi ez den hartzaileak jasotzea mezua. Hori pentsaezina litzateke aurrez aurreko ahozko komunikazioan, baina fenomeno normala da komunikazio

literarioan, baita HGLan ere: igorleak hala nahi izan ez arren, haur eta gazteak izaten dira askotan mezuaren hartzaile; alegia, igorleak mezua hasiera batean haur eta gazteei bideratzen ez badie ere, horiek askotan jasotzen dute euren bideratu gabeko mezua (Stephen King idazlearen lanak helduei bideratuta daude, baina gazte askok irakurtzen dituzte). Gerta daiteke, bestalde, mezuaren igorlea lehen igorlea izatea, baina, gerta daiteke, bestalde, mezuaren igorleak lehen igorle gisa ez jardutea, baizik eta, esaterako, bigarren igorle gisa⁵ (editoreak, liburuzainak, irakasleak etab.). Kasu horretan, bigarren igorleak lehen igorlearen mezua errespetatzen du batzuetan (testua zein hartzaileari dagoen bideratua, adibidez) baina, beste batzuetan, lehen igorleak aurreikusi gabeko hartzaile motari bideratzen dio mezua, igorle gisa parte hartze aktiboa edukiz.

Lehen/bigarren igorleak bideratutako mezua jasotzen duen hartzailearen eskema horretan, hainbat egoera bereizten ditu Ewerek HGLko komunikazioan, HGLaren komunikazio-eskema definitzea horren erraza ere ez dela erakusteko, hala nola:

- Bigarren igorleak ez du mezuan inolako aldaketarik egiten, baina lehen igorleak aurreikusten ez zuen hartzaileari bideratzen dio testua (liburuzain, irakasle edo gurasoek HGLarenak ez diren testuak haur eta gazteei gomendatzen dizkietenean). Orduan *haur eta gazteei gomendatutako irakurketez* ariko ginateke.

⁵ Ewerek *resender* hitza erabiltzen du igorlearen eta hartzailearen artean bitartekari gisa diharduen bigarren igorlea izendatzeko: "They are thus feeding messages into a communication process for a second or later time. In doing this, they can behave in different ways: They may pass the message on in unaltered form, but they could also send the message on only after they have altered it in some way." (Ewers, 2009: 11)

- Bigarren igorleak ez du mezuan inolako aldaketarik egiten baina, aurreko egoeran gertatu moduan, lehen igorleak aurreikusten ez zuen hartzaileari bideratzen zaio mezua. Dena den, oraingoan, eskura eman beharrean, edo gomendio moduan bideratu beharrean, argitaletxe eta banatzaileek berariaz haur eta gazteei bideratutako argitalpenetan zabaltzen dute mezua. Egoera honetan *haur eta gazteei bideratutako argitalpenez* hitz egingo genuke.
- Bigarren igorleak, komunikazioan parte hartuta, haur eta gazteei bideratzen die mezua, beharrezko aldaketak eginez. Egoera honetan *haur eta gazteei bideratutako edizioaz* ariko ginateke (haurrentzat egokituak izan diren lanak: On Kixote, Gulliver etab.).
- Azkenik, ezin aipatu gabe utzi hasiera-hasieratik haur eta gazteei bideratuta dagoen komunikazioa, lehen igorleak mezua berariaz modu horretan sortu eta bideratzen duena. Kasu horretan *haur eta gazteei bideratutako idazketaz* ariko gara.

HGLaren ikerketa askok azken egoera hori baino ez du kontuan hartzen, alegia, hasiera-hasieratik haur eta gazteei bideratuta sortu eta argitaratu den sorburu-testua. Hori, ordea, irizpide oso mugatua da, goian azaldutako hausnarketaren ostean garbi gelditu baita haur eta gazteek hainbat egoeratan jasotzen dituztela mezuak, askotan, ez berariaz eurentzat sortuak izan direlako.

Horren harira, bi kontzeptu bereizten ditu Ewerek: *Kinder- und Jugendlektüre* (ingelesez *actual children's reading*; euskaraz, haur eta gazteek irakurtzen dutena), eta termino horrekin ulertu nahi da haur eta gazteek berez irakurtzen dutena (kontuan hartu gabe eurei zuzendua izan den, ala ez); eta *intentionalen Kinder- und Jugendliteratur* (ingelesez, *intended children's reading*; euskaraz, haur eta gazteei bideratutako irakurgaiak), eta, bigarren termino horren

bidez, haur eta gazteei zuzendutako materialari egingo genioke erreferentzia, kontuan hartu gabe haurrek irakurtzen duten ala ez (Ewers, 2009: 19).

Hala, HGL deitzen dugun horretan zein lan sartzen diren eta zein ez erabakitzea zailtasun bat izan liteke, batez ere Ewersek aipatzen duen xede-hartzailearen eta azken hartzailearen bereizkuntzagatik. Izan ere, HGLtzat jotzen ez diren hainbat lan haur eta gazteen gustukoak bihur litezke, eta, alderantziz, printzipioz haur eta gazteei bideratuta dauden lanak helduen gustuko izan (*Amaigabeko istorioa, Harry Potter* edo gisa horretako fantasiako liburuak, esaterako).

Bestalde, corpusaren sailkapen zehatzagotan sar gintezke: haur eta gazteei bideratutako literatura maila onean kontsumitzen bada, HGLaren eskaintza arrakastatsuz hitz egin genezake, eta, apenas kontsumitzen bada, HGLaren eskaintza ez arrakastatsuz. Era berean, haur eta gazteei bideratuta egon ez arren, haur eta gazteek kontsumitzen duten literaturaz ari garela, onartutako eta debekatutako lanen artean ere bereiz genezake. Bereizketekin jarraituz gero, adin-tartearen arabera ere egiten da bereizketa, baita generoka ere (lehen irakurgaiak, irudi-liburuak, abentura-liburuak, fantasiakoak etab.).

Ikusi dugun moduan, HGLaren mugak lausoak dira: nola erabaki zer den eta zer ez den HGLa? Definizio bat emateko egon diren saioak aztertuta, Lopez Gasenik bi joera nabarmentzen ditu (Lopez Gaseni, 2000: 33):

Batetik, batez ere hasieran nagusitutako jarrera arauemaileak dauzkagu eta, jarrera horien arabera, haur eta gazteentzat idatzia

dena baino ez da HGLa. Horren arabera, haur eta gazteentzat pentsatua eta idatzia izan ez den lan bat, gehienbat haur eta gazteek irakurri eta kontsumitzen badute ere, ez litzateke HGLa.

Bestetik, ordea, azkenaldi honetan nagusitu diren jarrera deskribatzaileak dauzkagu eta, horien arabera, haur eta gazteek irakurtzen duten guztia da HGLa. Aldez aurretik mugak ezartzen hasi baino, haur eta gazteek osatzen duten gizarte-taldeak zer irakurtzen duen neurtu eta aztertu ostean esan daiteke zer den, hain zuzen ere, haur- eta gazte-literatura (Lopez Gaseni, 2000: 33).

Azken jarrera deskribatzaile hori da, hain zuzen, Touryk ere bultzatzen duena, alegia: egiten dena bildu, deskribatu eta aztertu, eta horren arabera ondorioak atera.

Gure katalogoa osatzerakoan, datu-base eta argitaletxeetan HGL moduan sailkatuta dauden horiek hartu ditugu guk ere HGL-lan gisa, eta ez gara hasi katalogazio horren barne nahiz kanpo gelditutako lanen izaera zalantzan jartzen. Hala ere, eztabaida hori guztia aipatzeko modukoa iruditu zaigu, guk ere uste baitugu kategorizazio zurrinak ez direla aski errealitatea deskribatzeko (kasu honetan, HGLa zer den erabakitzeko), eta errealitateko datuak interpretatuta baino ezin direla atera ondorioak.

2.2.1 *HGLko komunikazioaren izaera asimetrikoa*

Komunikazioaren asimetria da HGL-sistemaren ezaugarri erabakigarrienetako bat. Helduak topatzen ditugu komunikazio-sistemaren maila guztietan, sorkuntzan (egileak), zabalkundean (argitaletxeak) nahiz transmisioan (eskolak, HGL-kritikariak, liburuzainak). Horietan guztietan beti dago heldua haur edo gazteen aurrean. Jakina, haur eta gazteak, gainerakoan, ez dira

beren kasa literatur sistemara iristeko gauza; egoera asimetriko horrek, ordea, komunikazio-sistema osoari eragiten dio.

Hasteko, helduek haur eta gazteen gaitasunera egokitu behar dute. Adin bakoitzari dagokion ulermen eta adierazpen maila menderatu behar dute hartzaileengana iristeko, komunikazio-sistema asimetriko horretan nagusi den distantzia gainditzeko (O'Sullivan, 2000: 17). Gaiari dagokionez, hizkuntzari dagokionez, estiloari dagokionez... helduak haurraren pentsatuz egiten du lan. Gainera, helduak *hartzaile ezkutu* gisa egoten dira askotan. Izan ere, HGL-sistemak, literatur sistemari ez ezik, hezkuntza-sistemari ere erantzuten dionez, helduen igurikpenak ere ase behar ditu, haien onspena behar baitu haurren onspenaz gain (baliteke haurren onspena baino lehen, helduen onspena behar izatea). O'Sullivanek hartzaile anitzaren kontzeptua aipatzen du (*Mehrfachadressiertheit*)⁶, komunikazio sistema asimetriko horren ondorio (O'Sullivan, 2000: 124).

Hain zuzen ere, gaur egun HGLaren ikerketan puri-purian den gaia HGLaren beraren ezaugarri hori da, alegia, idazleek publiko zabal eta ez-mugatu batentzat idazten dutela: *crossover literature*, mugarik gabeko literatura. Sandra Becketten ustez, HGLaren sorreratik sumatu zen fenomeno hori (helduak zeudelako

⁶ Zohar Shavitek *dual audience* [hartzaile bikoitza] terminoa darabil (1986) helduei nahiz haurrei zuzenduta dauden testu anbibalenteak definitzeko. O'Sullivanek nahiago du, ordea, hartzaile anitzaren terminoa erabili, Shaviten terminoarekin irakurle-rolak, heldua/haurra, bitasun soilera mugatzen direlako: "Einher geht mit dem Konzept der doppelten Adressiertheit die Gefahr, daß über die Reduzierung, die derartigen systematisierenden Konzepten ohnehin eigen ist, hinaus durch die Dichotomie 'Erwachsene/Kind als Adressaten' die mögliche Vielfalt von Leserrollen im kinderliterarischen Kommunikationsprozeß keine angemessene Beachtung findet" (O'Sullivan, 2000: 123).

komunikazio-prozesu osoan zehar), baina gaur egun ere inoiz baino indartsuago dago fenomeno, eta 90eko hamarkadan Siruela argitaletxe espainiarrak sortutako *Las Tres Edades* bilduma ematen du adibide moduan, adin guztietako hartzaleei bideratutako liburuak eskaintzen baitituzte: "The shift away from age as a defining category seems to be one of the markers of the post-postmodern age that is being ushered in with the new millenium" (Beckett, 1999: 18).

Esan bezala, hartzale anitzeko generoa dugunez, eta helduak komunikazio-sistemaren katebegi gehienetan daudenez, horrek guztiak eragin bat du azken produktuan.

Die die Kinderliteratur beherrschende Asymmetrie hat Konsequenzen nicht nur für die Diskussion des Status der Kinderliteratur innerhalb des literarischen Polysystems, sie beeinflusst auch sämtliche Aspekte des Transfers von Kinderliteratur über Sprachgrenzen (O'Sullivan, 2000: 119).

2.2.2 HGLaren ekintza-sistemak

HGLaren polisistemaren eraketaren inguruan teorizatzen hasi baino lehen, Ewerek egiten duen bereizketa bati bideratu nahi genioke arreta, komunikazio-sistemako elementuen eta polisistemaren arteko trantsizio moduan. Izan ere, igorlea, mezua eta hartzailetik haratago, eta funtzio horiek banako batek nahiz giza talde oso batek bete ditzakeenez, ekoizpena, banaketa eta harrera bereizten ditu ekintza-funtzio gisa.

Hala, HGLaren komunikazio-sistemako funtzioak bereizten ditu Ewerek. Hortik aurrera, HGL-sistema bakoitzean aztertzekoa litzateke nork betetzen dituen funtzio horiek. Izan ere, herrialde edo errealitate bakoitzean egoera desberdina izango da akaso

(gerta liteke erakunde edo giza talde bakar batek bi funtzio hartzea bere gain, adibidez). Funtsean, baina, edozein komunikazio-sisteman gertatzen den moduan, HGLa ere ekintza-sistemen sistema bat baino ez da.

Normalean, pertsona, talde edo instituzio batek baino gehiagok betetzen dute funtzioetako bakoitza (HGLaren mezua elizak bidal dezake, estatuak, erakunde pribatuek, enpresek etab.). Beraz, ekintza-sistema asko dago funtzioetako bakoitza betetzeko.

Honako hauek lirateke ekintza-sistema motak (Ewers, 2009: 55):

- Ekoizpen-sistemak: testuen sorkuntza; testuen itzulpena; testuetako ilustrazioak egitea; HGL-hedabideen ekoizpena; egileak, itzultzaileak eta ilustratzaileak bultzatzeko ekintzak (sariak etab).
- Banaketa-sistemak: HGL-merkatua; liburutegien banaketa-sistemak; eskolen banaketa-sistema.
- Ebaluazio-sistemak (ofizialak eta ez ofizialak): liburutegien ebaluazio-sistemak; estatuaren ebaluazio-sistema; ebaluazio-sistema pedagogikoa; bestelako ebaluazio-sistemak (liburu onenen zerrenda, adibidez); HGLaren kritika; eskolen ebaluazio-sistema.
- Biltegitratze-sistemak: liburutegiak; kultur etxeak; eskolak.
- Kontsumo-sistemak: haurrak beren kasa; familia; aisialdi-taldeak; eskola; helduek egiten duten HGLaren irakurketa (baita helburu akademikoetarako bada ere).

Lehen esan dugun moduan, baliteke sistema horietako bakoitzari pertsona edo instituzio propio bat ez egokitzea. Esate baterako, banaketa- eta ebaluazio-sistemak elkartuta ageri ohi dira askotan (liburutegiek bideratzen duten ekintza-sisteman, esaterako), eta ekoizpen-sistema ebaluazio-sistema ez ofizialarekin

batera ageri ohi da (sailkapen bat egiten dutelako, zer argitaratu eta zer ez). Ekintza-sistemen banaketa hori Alemanian Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean gertatutako bilakaera behatuta ondorioztatu zuen Ewerek.

2.3. HGLaren POLISISTEMA

Ewerek definitutako ekintza-sistemek, indibidualki jokatzen badute ere, koordinaziorako edo adostasunerako joera izan ohi dute, nola ekintza-sistema bakoitzaren barnean nola gainerako ekintza-sistemekin. Hau da, elkarreragina dago (Even-Zoharrek aipatzen duen dinamikotasuna, azken batean).

Ekintza-sistema horien artean beti egoten da hasieran edo abiapuntu gisa jokatzen duen ekintza-sistema bat (ekoizpen-sistema), eta beste bat amaiera aldean (kontsumo-sistema). Horretaz gain, ordea, eta aurreko puntuan zerrendatu ditugun ekintza-sistemen elkargune gisa, funtzio bateratzailea duen ekintza-sistema bat egon ohi da, hau da, ekoizpen-, banaketa-, balorazio- eta kontsumo-sistemak irizpide bateratzaile beraren arabera funtzionarazteaz arduratzen den ekintza-sistema: “the integrative function is usually performed by a public forum specific to the system, usually in publication media, but sometimes also by institutions” (Ewers, 2009: 92).

Beraz, ekintza-sistema horiek, elkarreragin handiago edo txikiagoan, zirkulu bat osatzen dute. Zirkulu horretako sistemen arteko harremana nolabait arautua egoten bada, eta, harreman horiek dentsitate eta iraunkortasun jakin batekin eta irizpide beraren arabera gertatzen badira, orduan HGLaren polisistemaz mintza gaitezke:

The individual systems join with one another by committing themselves to an overarching action logic and at the same time promise to bring their own inner action logics into agreement with this, or to co-ordinate them with it. In other words, they form a second-degree system, a kind of 'polysystem' (Ewers, 2009: 96).

Esan behar da gerta daitekeela ekintza-sistemetako batek adostasun horri ez jarraitzea edo elkarreragin horretan ez parte hartzea, polisistematik kanpo gelditu nahi izatea. Hori kontsumoari dagokion ekintza-sistemekin gertatu ohi da batez ere: kontsumitzaileek polisistemaren asmo adostuarekin bat ez datorren kontsumoa egin ohi dute.

Bestalde, gerta daiteke gizarte berean HGLaren polisistema bat baino gehiago egotea, eleaniztasunagatik (eta orduan polisistemen arteko mugak hizkuntzek ezarriko edo gutxienez baldintzatuko lituzkete) edo eskualde-sentipen bat egoteagatik (polisistemen mugak herrialdeko eskualde-mugekin bat etorriko lirateke). Gerta daiteke, baita ere, ezaugarri sozial edo erlijioso bereziki indartsu baten arabera sortzea aparteko sistema bat (erlijio jakin batean berariaz sortzen diren HGLko liburuen inguruan, adibidez).

Azken kasu horretan, hau da, muga sozial eta erlijioso zenbaitzuen arabera finkatzen denean polisistema, ez da, normalean, beste HGL polisistemekiko harremanik edo loturik izaten, polisistema horretako helburuak eta ikuspegia oso bestelakoak izaten direlako. Eleaniztasunagatik edo eskualde-sentipen indartsuagatik sortutako polisistemen kasuan, berriz, beste HGL polisistemekiko lotura eta harremana egon ohi da, eta nolabaiteko adostasun bat ere egon daiteke beraien artean.

Gure errealiterara etorrira, garbi dago euskaraz idatzitako HGL-sistemaz gain, gaztelaniaz idatzitako HGL-sistema dugula. Bi sistemen artean harremana dagoela bai, baina eztabaidagarria da nolakoa den bi sistemen arteko harreman hori: zein punturaino den euskal HGL-sistema beregina; hau da, gaztelaniazko HGL-sistemaren mendeko den, txikiagoa eta ahulagoa izan arren elkarren ondoan bizi diren bestelako mendekotasunik sortu gabe etab.

Polisistemaren eraketan, baina, lehen aipatu dugun moduan, ezinbestekoa da ekintza-sistemen arteko lotunea egotea, eta askotan gertatzen da ekintza-sistemetako batek hartzea rol hori, alegia, ekintza-sistema jakin batek HGLaren komunikazioari buruz duen ikuspegia (bere ekintza- eta ebaluazio-irizpideak, arauak, nolabait esatearren) ezartzea gainerako ekintza-sistemen gain. Ewersen ustetan ebaluazio-sistemek hartu ohi dute rol hori, liburutegi-sistemak, esaterako (Ewers, 2009: 97).

2.4. HGLa, SISTEMA BIREN PARTAIDE

Literatura orokorrarekin alderatuta, HGLaren ezaugarrietako bat da literatur sisteman nahiz hezkuntza-sisteman hartzen duela parte, sortu ere bi sistema horien bilakaeratik sortu baitzen. Horrek esan nahi du, ekintza-sistemetako bakoitzean (Ewersek erabiltzen duen terminologiaz baliatuta) literatur munduko nahiz hezkuntza munduko eragileek hartzen dutela parte.

Horrek izugarri eragiten dio HGL-sistemari: besteak beste hezkuntza-helburuak bete behar dituen literatura izanik, HGLko egileek ez dute inoiz helduen literaturako egileek bezain besteko miresmenaz gozatu, beren egitekoak maila artistiko nahikorik

emango ez balu bezala (HGLaren estatusa 2.5. atalean jorratu dugu berariaz). Miresmenaz gozatzen ez badute ere, azpimarratu nahi genuke euskal literatur sisteman HGLak duen pisu bereziak helduen literaturako egile asko erakartzen dituela.

Egileen izen onaz edo ez hain onaz gain, ordea, produktuaren beraren gaineko eragina ere nabaria da, literatur sistemako konbentzioei nahiz hezkuntza-konbentzioei jarraitu behar zaielako; horren adibide izan daitezke Grimm anaien ipuinak: hasiera batean literatura zuten helburu nagusi baina, azkenean, hainbatetan moldatu behar izan zituzten testuak garaiko hezkuntza-eskakizunen arabera (O'Sullivan, 2000: 113).

Sortze-lanetan bezainbat sumatzen dira egokitzapen horiek itzultitako lanetan, HGLko itzultzaileek ere hezkuntza-sistemaren eraginpean egiten baitute lan, onartua dagoenaren eta ez dagoenaren mugen baitan. Gure kasuan, euskarak hizkuntza gisa duen garapena hartu behar dugu kontuan (berreskurapen eta normalizazio-prozesua), itzultzaileek hartzen dituzten jarreraren eta erabakien argigarri.

2.5. HGLaren ESTATUSA

HGLak duen estatusa ezberdina da kasu bakoitzean, gizarte eta kultura bakoitzean une jakin batean HGLari eta, oro har, haurtzaroari ematen zaion balioaren arabera (O'Sullivan, 2000: 129).

Badira, hala ere, kontuan hartzeko faktore unibertsal batzuk. Esate baterako, literatur polisistemaren barruan HGLak betetzen duen kokapena bera erabakigarria da generoaren estatuserako,

polisistemako gainerako sistemek hartzen duten kokapenak eraginda (Shavit, 1986: 34). Bi sistemaren parte izateak ere eragiten dio HGLaren estatusari: irizpide literarioek pedagogikoekin egiten dute topo, eta horrek sistema gisa duen estatusari eragiten dio. Hain zuzen ere, egileek askotan sortzen dituzte HGLko lanak helduengan ere pentsatuz. Alde batetik, sistema pedagogiko horren eskakizunekin betetzeagatik, baina, bestalde, uste dutelako helduengana iritsita literatura serioago bat egiten dutela. Horrela sortzen dira, bide batez, testu antibalenteak (Shavit, 1986: 63).

Bestalde, azken hartzaileek (haurrek) ez dute, zuzenean, HGLaren estatusan eragiten; normalean ez zaie interesatzen ez HGLko egilea ez haren literatur maila. Ewarsek aipatzen du haur-literatura *Gebrauchsliteratur* dela (urtebetzerako opari gisa erabilia, gurasoek ozen irakurtzekoa, haurrek irakurtzen ikastekoa etab.), eta, estatusa igo nahi bada, gehiago bultzatu behar direla HGLaren balioak.

O'Sullivanek hiru faktore bereizten ditu kultura bateko HGLaren irudian, eta, beraz, estatusan nabarmen eragiten dutenak. Izan ere, HGL bakoitzak duen irudia nazioarteko elkartrukera igarotzen da ondoren itzulpenaren bitartez (O'Sullivan, 2000: 147):

Haurtzaroaren irudikapena. European ilustrazio garaian eta erromantikoen mugimendutik sortutako haur-iruditik sortu zen haur-literatura (O'Sullivan, 2000: 147-148). Zehazki kultura bakoitzean garatu den haur-irudia aztertu beharko litzatekeela badio ere, O'Sullivanek Hazard eta Wolfenstein adituek egindako hausnarketak aipatzen ditu, adieraziz, kultura latindarrean

haurtzarora helduarorako bidea dela, eta, beraz, ideia horretatik sortutako literatura aurrera begirakoa dela, hezitzailea edo prestatzailea, nolabait esatearren (*Pinocchio* etab.); kultura anglosaxoian, berriz, haurtzarora bera da helburua, eta ideia horretatik abiatuta lortutako literatura mota atzera begirakoa da, nostalgikoagoa (*Alice lurralde miresgarrian*, *Peter Pan*, Walt Disney-ren mundua etab.).

Alemanian erromantikoekin gertatu omen zen aldaketa, hain zuzen ere, XVIII. mendean atzera begira jarri baitziren, ikuspegi nostalgikoarekin galdutako paradisuari begira (haurtzarora). O'Sullivanen ustez irudikapen hori nagusitu da Europa hegoalde osoan ere.

Egileek egiten dituzten haurtzaroko bizipenak. Kultura jakin bateko HGLko idazleek beren haurtzaroz daukaten oroitzapena erabakigarria da generoak hartzen duen irudirako: "Der Rekurs auf die eigenen Kindheitserfahrungen ist, auch wenn er nicht unmittelbar zur Produktion von Kinderliteratur führt, wichtig für allgemeine Einstellung zur Kindheit" (O'Sullivan, 2000: 151). O'Sullivanek Ingalaterrako kasua jartzen du adibidetzat, belaunaldi jakin bateko haurrek barnetegiko arau estu eta zorrotzen arabera ikasi baitzuten beren sentipenak gordetzen eta, beraz, ohikoa izan da idazle askok galdutako haurtzarolari buruz idaztea, nolabait, barruan gordetako sentipenak azaleratzeko (haurrei bideratuta baino, helduei bideratutako literatura eginez). *Winnie the Poo* kontakizuna ere aipatzen du, A. A. Milne egileak txikitan anaiarekin naturan jolasean pasatako garairean oroitzapena baita nonbait.

HGLak hartzen duen funtzioa. HGLak kultura jakin batean eta garai jakin batean hartzen duen funtzioa erabakigarria da HGLak kultura eta garai horretan hartuko duen estatusarentzat. O'Sullivanek hainbat adibide ematen ditu hori ilustratzeko: sistema pedagogikoarekin zuzenki lotua dagoenez, HGLak ideia berriak edo zaharrak bultzatzeko balio dezake, batez ere, aldaketa-egoera batean aurkitzen den nazio batean. Turkian, esaterako, halako aurkaritza bat omen dago lan klasikoen alde egiten dutenen eta modernoek alde egiten dutenen artean, eta ez soilik sortze-lanei dagokienez; gauza bera gertatzen da itzulpenekin:

Im Kampf der Erziehungskonzeptionen spielt die übersetzte Kinderliteratur eine wichtige Rolle: die kritischen Modernisierer wollen Reformen durch eine moderne, 'aufgeklärte' Kinderliteratur eingeleitet sehen – sie messen den Übersetzungen aus der deutschen Kinderliteratur (...) aufgrund des kritischen Potentials einen sehr hohen Status bei. Die Fundamentalisten hingegen kämpfen gegen eine Überfremdung durch Übersetzungen von Klassikern, die über 80 % der ins Türkische übersetzten Literatur ausmachen (O'Sullivan, 2000: 153).

Israelen, bestalde, XX. mendean sortutako estatuaren aldeko baloreak bultzatzeko tresna bihurtu zen hebreerazko HGLa, besteak beste, herritarrei hizkuntza irakasteko (Ben Ari, 1992: 225). Euskal Herrian bertan ere, HGL berri bat eratu zen XX. mendearen hasieran, 1876an foruak galdu ostean ideia nazionalistak indartu baitziren. Hala, ideia abertzaleak transmititzen zituzten lanak idatzi ziren, baina, Etxaniz eta Lopez Gasenik azpimarratzen dutenez, sistema bat sortu nahi izateaz gain eta ideologia jakin bat transmititzeaz gain, hizkuntza bera zen

hainbat kasutan xedea, euskara irakastea, alegia (Etxaniz eta Lopez Gaseni, 2011: 14).

Bestalde, Alemaniako Errepublika Federalean hirurogeiko hamarkadan autoritate eta indar ororen kontra gertatutako kultur mugimenduan HGLak presentzia eta pisua irabazi zuen, estatus handiko hainbat idazle haurrei zuzendu zitzaielako (besteak beste, Heinrich Böll); hainbat ideia zabaltzeko baliatu zuten HGLa, baina, era berean, estatusa ere irabazi zuen generoak, mugimendu berritzaileen bidez hainbat argitaletxe berri sortu eta lanen literatur maila ere asko igo baitzen.

Ideiak plazaratzeko funtzioari loturik, O'Sullivanek gogorarazten du Alemaniako Errepublika Demokratikoan jendartean adierazten ez ziren hainbat ideien plaza izan zela HGLa, helduen literaturak baino kontrol gutxiago izaten zuelako. Hala, Wolf Spillner autoreak, esaterako, *Gänse überm Reiberberg* liburuaren bidez lortu zuen argitaratzea, ipuin moduan, kazetaritza-artikulu moduan atzera bota ziotena: naturgune babestu baten aldeko aldarria interes ekonomikoen kontra (O'Sullivan, 2000: 157).

Herrialde baten literatur maila hobetzeko funtzioa ere bete dezake HGLak eta horrek herrialde horretako HGL-sistemaren estatusa igoarazten du. Hori gertatu zen Alemanian ilustrazioko autoreekin (Campe, Weiße eta Salzmann-ekin), aurrena, eta erromantizismoko autoreekin hurrena (Tieck, Clemens Brentano eta, batez ere, E.T.A. Hoffmann-ekin); XIX. mendetik aurrera, ordea, literatur kalitateak beherakada bat jasango du eta "diese Geringschätzung der spezifischen Kinderliteratur in Deutschland

korreliert mit dem Verlust an internationalem Status der deutschen Kinderliteratur" (O'Sullivan, 2000: 158). Jarraian ikusiko dugun moduan, HGL-sistema baten estatusa erabakigarria da sistemen arteko elkartrukea zehazteko orduan.

2.6. HGL SISTEMEN ARTEKO TRUKEA

HGLaren nazioarteko harremanaz hausnartzen hasita, hasiera-hasieratik esan behar da ez dagoela kulturen arteko harreman orekatu bat, harreman horiek arrazoi historiko, geografiko, kultural eta ekonomikoek zehazten baitituzte.

O'Sullivanek Klingberg-ek bereizitako eremu geografikoak aipatzen ditu. Izan ere, azken horrek harremanetarako eremu geografikoak daudela defendatu zuen: mendebala (ingeleza, alemana, frantsesa, holandesa eta eskandinabiar hizkuntzak nagusi); ekialdea (hizkuntza eslabiarrak, bereziki errusiera, ungariera eta alemana –Alemania ekialdea–); azkenik, Ameriketako Estatu Batuak mendebalarekin batera parekatzen zuen.

Aurreko ikuspegiak hutsune nabarmenak dituen arren (gaztelaniaren eremua ez da agertzen, Asia osoa ez da agertzen), egia da liburuaren merkaturuan besteen gainetik nagusitu den eremu geografikoa AEB eta Europako ipar-mendebala dela, zalantzarik gabe (O'Sullivan, 2000: 160). Horrek, jakina, ekonomiaren eta politikaren bilakaerarekin du zerikusia; eta Indonesiaren kasua aipatzen du O'Sullivanek, deskolonizazioaren ostean Japoniak okupatu baitzuen, eta bertako HGLra egindako itzulpenetan Europa mendebaldeko hizkuntzetatik egindakoak izan baitziren

nagusi, eta ez Txinatik edo ekialdeko bestelako hizkuntzetatik egindakoak.

Japoniako kasua bera adierazgarria da: 70eko hamarkadaren amaieran HGL itzuliaren % 59 amerikar jatorrikoa zen, % 32,5 europar jatorrikoa eta % 7,8 baino ez asiar jatorrikoa. Mendebaldearen aldeko joera nabarmena da, beraz. Joera horren arrazoibidea Meiji garaian herrialdeak hasitako modernizazioan aurki genezake beharbada, garai hartan Japoniak bizkarra eman baitzion Txinari eta goraka zetorren mendebaldea hartu zuen eredu; Fukuzawak idatzitako *Datsua ron* [Asiatik bereizi] testua dugu garai hartan askok desio zuten aldaketaren adibide (Uribarri, 2011b). Kontua da, ordea, AEBk Japoniako HGLan duen eragina nabarmena dela, baina ezin dugula alderantzizkoa esan, Japoniako HGLa apenas esportatzen baita:

Heutzutage sind nur wenige japanische Bücher übersetzt, aber ich muß dabei feststellen, wie sehr es die Lektoren westlicher Verlage vermeiden, ihre Leser mit fremden Elementen zu konfrontieren, weil sie glauben, ihnen die Bücher damit verständlicher zu machen (Matsuoka in O'Sullivan, 2000: 161).

Egoera ekonomikoa ez da, O'Sullivanen ustez, HGL-sistemen harremanetarako erabakigarria kasu guztietan (Japoniaren kasuak erakusten duenez), baina, hala ere, elkartrukearen atzean beti omen daude argudio ekonomikoak (O'Sullivan, 2000: 161). Suediaren kasua ere aipatzen du adibide moduan: XIX. mendera arte, Suediak Alemaniako HGLtik edan zuen asko, baina, Ingalaterraren industrializazioarekin batera, herrialde horrekiko harreman ekonomikoak sendotu egin ziren; komunikabideak eta garraioa azkartu ahala, bi herrialdeen arteko harremana estutu

egin zen eta Ingalaterra bihurtu zen, batez ere, Suediako egur-industriaren bezero nagusi. Frantzia eta Alemaniarekin harreman hori izaten jarraitu omen zuen, baina denborarekin Ingalaterraren nagusitasuna erabatekoa bihurtu omen zen.

O'Sullivanek nolabait arauemaile edo gidari den AEB/Europako ipar-mendebalde eremuan bertan itzulpen kopuruan izugarritzko aldeak daudela nabarmentzen du. Esate baterako, AEBn itzulpenen portzentajea % 1 edo 2koa da, Erresuma Batuan % 3 ingurukoa, Finlandian, berriz, % 70ekoa eta Alemanian % 40tik gorakoa (O'Sullivan, 2000: 163-164). Ingelesera itzultitako HGLa aztertzen duen azken lanean, Latheyk ere datu berak ematen ditu: Erresuma Batuan azken hamarkadotan itzultitako HGL-portzentajea % 2-3 bitartekoa da. Latheyk, hala ere, HGL ingelesak nazioarteko HGLarekiko duen zorra aitortzen du: "the impact of some of the early translations on child readers and on English-language children's literature —medieval romances, the Arabian Nights, Perrault's, or Grimms' tales for example— has been immense" (Lathey, 2010: 10).

O'Sullivanek bi faktore erabakigarri aipatzen ditu HGL-sistema batek nagusiki beste sistemetatik itzultzera jo dezan:

- HGLaren egoera: sistema eraikitzen edo osatze bidean den herrialdetan izaten da itzulpen-portzentajea altuen (Finlandian tradizio idatzia oso gaztea da; hebreeraz ere, dena sortu behar zenez, asko itzuli zen: 1961ean 700 lan). Aipatu nahi genuke, hala ere, faktore honek ez duela beti horrela funtzionatzen, Alemaniako kasuari erreparatzea baino ez baitago: bertako HGL-sistema ez dago eraikitze fasean, baina, hala eta guztiz ere, 2011ko itzulpen portzentajea % 22,9koa

izan zen, 1.886 izenburu 8.225 lanetatik (Börsenverein des Deutschen Buchhandels, 2012).

- Premia-egoera bereziak: esate baterako, Mundu Gerraren ostean, nazio eta kulturen arteko elkar ulertzea sustatu nahi izateak itzulpenen kopurua igo zuen.

Hizkuntza jakin batetik itzultzeko faktore gisa, berriz, honako hauek aipatzen ditu (O'Sullivan, 2000: 166-169):

- HGLaren garapena. Honek zerikusi zuzena du hizkuntza horretako herrialdeak bizi duen garapen ekonomikoarekin, bertako hezkuntzaren mailarekin eta alfabetatze mailarekin.
- Xede-kulturan sorburu-hizkuntza menderatzen duten itzultzaile eta editoreak egotea. Horrela azal genezake zergatik itzultzen den ingelesetik japonierara hainbeste, baina ez alderantziz. Gure kasuan, oso gutxi ziren oraintsu arte alemanetik euskarara eta euskaratik alemanera itzul zezaketen pertsonak. Dena den, argudio hau tentuz ulertu beharrekoa da, gizarte batean bestelako arazoak egon daitezkeelako batez ere hizkuntza jakin batzuk ikastera bultzatzeko joeraren atzean.
- Nazioarteko harreman-zirkuituak edo bloke politikoak. Lehen ere aipatu moduan, bilakaera historikoaren eraginez, eremu geografikoak sortu dira, eta harremanak horren arabera eraiki. Herrialdeen arteko harremanak politikak zehaztu ditu, baina harreman ekonomiko eta, azken batean, kulturalak ere horren arabera eraiki dira (mendebala/ekialdea).
- Erlijio-eragileek ere zeresana izan dute, katolikoek eta protestanteen arteko talka erlijiosoaz harago, banaketa horrek kultura eta gizarte jakin batek moralaren eta baloreen inguruan duen ikusmoldea zehazten duelako, eta horren arabera aukeratzen delako zein egile itzuli eta zein ez (Europa hegoaldean katolikoak; iparraldean protestanteak).
- Herrialdeen arteko harremana. Alemanetik hebreerara ez zen jatorriz alemanez idatzitako ia ezer itzuli 1940 eta 1980 artean;

gaur egun, ordea, harremana oso bestelakoa da. Beste hainbat lan itzultzeko zubi-bertsio gisa, ordea, luzaroan erabili du hebreerak alemana, eta, beraz, zeharkako harreman hori beti egon da.

- Itzulpenak sustatzeko politikak. O'Sullivanek Belgikako, Herbeheretako eta Israelgo kasuak aipatzen ditu, horietan programa ugari dagoelako berariaz itzulpena sustatzeko (O'Sullivan, 2000: 168). Ziur asko ez dira maila berekoak izango, baina Euskal Herrian ere badira dirulaguntzak eta programak, nola euskarara itzultzeko nola euskaratik beste hizkuntzetara itzultzeko; laguntza horiek zenbatekoak diren eta zein irizpideren arabera banatzen diren, hizkuntza-politikaren arabera da, eta unean-unean hartzen den kultur politikak badu eraginik zer eta nola hartzen edo kanporatzen den.

Garbi dago, beraz, HGLaren trukea ez dela, inolaz ere, parekidea nazio guztien artean, faktore politiko, historiko eta ekonomikoak medio.

2.7. MULTIMEDIA ESKAINTZA: HGLaren LOTURA IKUS ENTZUNEZKOEKIN

Ukaezina da ikus-entzunezko teknologien aroan bizi garela. Teknologia berriek bizimodua aldarazi digute halaberrez, eta HGLaren arloa ez da eragin horretatik kanpo gelditu. Are, aldaketa eta berrikuntza edozein dela ere, txikienean munduan nabarmendu ohi da aurren-aurrenik; txikienean dira, beraz, gizartean gertatzen diren berrikuntzak hartzen eta onartzen aurrenak.

HGLari buruzko edozein ikerketa egitean ezinbestean aipatu behar dugu literaturak ikus-entzunezkoekin duen harremana. Liburuak baino ez zeuden garaiak aspaldian gelditu ziren atzean eta, gaur egun, haurrek, irratiaz eta telebistaz gain, ordenagailua

eta Internet dauzkate. Nahitaezkoa zaigu, beraz, komunikabide horiek HGLan duten eraginari erreparatzea, gaur egungo errealitatearekin bat datorren ikuspegia izan dezagun.

Ewersen ustean (Ewers, 2006: 297-311), haur eta gazteek eskaintza multimediala daukate, edozein delarik ere hasiera batean sortzen den lehen produktua, formatu guztietako eskaintza egitea aurreikusten baita gaur egungo merkatuan. *Medienverbundangebote* moduan definitzen du Ewersek, alegia, komunikabideei lotuta dagoen eskaintza. Horrela, *Star Wars* produktua, esaterako, filme moduan ikus daiteke, liburu moduan irakurri, soinu-banda CDan entzun, ordenagailuan jolastu, Interneten hainbat jardueratan parte hartu eta zaletuen klubeko partaide bihurtzeko aukera ere ematen du.

Produktuaren merkaturatzea, beraz, ez da formatu bakar batera mugatzen, eta hartzaileek ere ez dute formatu horietako bakar bat aukeratzeko; alderantziz, ia denak kontsumitzen dituzte, ia-ia produktuan aditu bihurtu arte.

Horren adibide nabarmena dugu, esaterako, *Harry Potter*ena. Zaletuek ez dituzte soilik liburuak irakurri, CDan ere entzun dute liburua, eta, istorioa goitik behera ezagutzen badute ere, irakurri eta entzundakoaz gain, filmak ere ikusi dituzte.

Produktuaren harrera biderkatu egin dela dio Ewersek eta, hala, *transmedialak* dira edukiak:

Alle medialen Gestaltungen gelten ihnen als Wiedergaben *ein und desselben* Stoffs bzw. Inhalts, als Reproduktionen von Narrationen also, die an sich weder Bucherzählungen, noch Hörerzählungen, noch Film- oder Comicgeschichten, sondern transmediale Geschichten sind, die allen ihren Wiedergaben in

den diversen Medien gewissermaßen vorgelagert sind (Ewers, 2006: 298-299).

Bistan denez, sortutako produktuetako bakoitza (liburua, filma, CDa etab.) ez da autonomoa, gainerako produktuei kateatuta sortu da, eta, beraz, baloratu ere modu horretan baloratu beharko litzateke, ez produktu bakar moduan.

Ewerek *Harry Potter* en filmak sortutako kritika azpimarratzen du, filma literatur lanetik gutxiegi aldendu izana kritikatu baitzuten. Nolabait, literatur lanetatik sortutako filmei produktu aske moduan jokatzeari eskatzen zaie, zinemako artelanari dagozkion irizpideak betetzea. Bestela gertatzen da, ordea, telebista edo zinemako produktuetatik liburuak ateratzen direnean (*Star Wars*, *Buffy*, *Gute Zeiten Schlechte Zeiten* etab.): ikus-entzunezkoetatik sortutako liburuek ikus-entzunezkoek ezarritako estilo, formatu eta edukiei jarraitu behar diete, eta ez dira literatur lan serio gisa hartzen (Ewers, 2006: 300).

Produktu transmedialen beste ezaugarri bat da segida bati zabalik gelditzeko joera izan ohi dutela. Hala, ohikoak dira, gaur egun, trilogiak. Pertsonaia nagusiak egon ohi badira ere, istorioak ez dira pertsonaia nagusian bakarrik oinarritzen, gainerakoek ere beren pisua izan ohi dute, pertsonaia nagusiaren sokak gehiago ematen ez badu, besteenetatik tira egiteko. Ewerek dio (2006: 303), garai bateko epopeien antzeko produktuak sortu direla, luzeak eta korapilatsuak, baina hartzailerek ondo jarrai ditzaketanak, hain zuzen ere, istorioa komunikatzeko era multimedialagatik (istorioa hainbat formatutan ageri delako era berean). Gainera, hartzailerek eurek ere izan ohi dute istorioaren norabidean parte hartzeko aukera (Interneteko gune eta foroen bidez).

Orain arte esan den moduan, eskaintza multimediala egiten denean, produktuetako bakoitza gainerako eskaintzetan pentsatuta sortzen da hasiera-hasieratik. Horrenbestez, jatorrizkotasun ideiak beste zentzu bat hartzen du eskaintza multimedialean. Dena den, produktu guztiek ez dute, noski, pisu bera eta, alde horretatik, produktuetako bakoitzak rol edo zeregin bat duela esan daiteke.

Batetik, produktu edo bertsio gidaria dago, hau da, gainerako eskaintza multimedialaren abiapuntu gisa jokatzeko duen filma, telebista-seriea edo liburua, gainerako bertsioen gidari. Bertsio gidariak, gainera, nolabaiteko pisua hartzen du merkaturatze estrategian, gainerako produktuak bertsio gidaritik atereak direla nabarmendu ohi baita (*Harry Potteren* kasuan liburutik datorrela filma). Merkaturatze-estrategian, gainera, denbora-tarte bat utzi ohi da, nahiz eta tarte hori handiagoa izan ohi den liburutik filma aurkezten den kasuan, liburuak arrakasta lortu arte denbora gehiago behar delako; alderantziz, telebista-serie arrakastatsu batetik, liburua berehala ateratu ohi da (ikus-entzunezkoaren arrakasta lehenbailehen aprobeztatzearren, denbora luzea utziz gero, jendeak ez baitu liburuan interesik izango).

Bestetik, produktuaren harrerari erreparatuta, produktua ezagutzeko balio izan duen bertsioaz hitz egin dezakegu, hau da, harrera-bertsioa izan denaz.

Harry Potteren kasuan, eta adin-tarte jakin bateko haurrentzat, liburua izan da harrera-bertsioa, liburua irakurrita ezagutu dutelako produktua, eta horren arabera baloratu dituzte gainerako bertsioak (filma, CDa, ordenagailuko jolasa etab.). Adin-tarte gazteago batentzat, ordea, filma izan da harrera-bertsioa, hau da,

liburua irakurri baino lehen (bertsio gidaria), horren ostean ateratako bertsioa kontsumitu dute. Azken hartzaile horien kasuan, beraz, bertsio gidaria eta harrera-bertsioa ez datoz bat eta, kasu horretan, filmak, harrera-bertsioa izanik, bertsio gidaria jan du.

Izan ere, bertsio gidariak eta harrera-bertsioak ez dute zertan bat etorri, eta *Harry Potteren* adibidearekin jarraitzen du Ewerek: lehenik liburua irakurri duenak irudimena erabili behar du testuak dauzkan hutsune horiek betetzeko (batez ere pertsonaien itxura fisikoa etab. irudikatzeko). Filma ikusten duenak, ordea, egina dauka lan hori, eta bestelako hutsuneak (edukiari dagozkion xehetasunak) liburua irakurrita beteko ditu.

Ikus-entzunezkoak nagusi diren mundu honetan, pantailara ekarritako irudi eta soinuak errazago barneratzen ditugu eta, Ewerek dioenez, multimediala den produktu batean harrera-bertsioa liburua izan bada ere, baliteke denbora batera, filma ikusi ondoren eta irudiak duen botereari esker, harrera-bertsioaren rola filmak hartzea:

Die Film- bzw. Fernsehversionen eines Medienverbundangebots, so ließe sich daraus folgen, haben gewissermaßen ein “natürliches” Anrecht auf die Rolle des Leitmediums in rezeptiver Hinsicht dank der ungleich größeren prägenden Macht ihrer Bildlichkeit (Ewers, 2006: 306-307).

Hainbatek uste du, harrera-bertsio moduan telebistako edo zinemako produktua hartzen bada ere, horrek liburura iristen laguntzen diela hainbat haur eta gazteri. Bestelako usteak ere badira, alegia, ikus-entzunezkoak harresi moduko bat eraiki diola liburuari.

2010eko Frankfurtoko Azokaren irekiera-ekitaldian horren guztiaren inguruan aritu ziren azokako lehendakaria eta Cornelia Funke HGLko egilea. Gogoratu behar da Funkek bere azken liburua (*Reckless*) film-zuzendariarekin batera sortu duela, lankidetzan, egileak berak aitortu moduan; hala, liburuak eragin omen dio filmari eta baita alderantziz ere, filmak liburuari. Bai Funkek bai Boos azokako lehendakariak ez zuten uste ikus-entzunezkoek edo iraultza digitalak liburuaren desagerpena ekarriko duenik, baizik eta, besterik gabe, bestelako egoerak sortuko direla esan zuten. Istorioak eta hitzak ez omen dira sekula desagertuko, eta hori omen da literatura.

Baliteke hala izatea, baina Euskal Herriko merkatuan kontuak bestelakoak direla gogoratu behar genuke. Izan ere, liburu euskarriko literatura, bai, itzultzen da, baina ikus-entzunezko produktuak nahiz liburuaren inguruan sortutuako guztia gehienetan ez. Horren ondorioz, liburua euskaraz izan arren, gainerako produktu guztiak gaztelaniaz jasotzen ditu liburua euskaraz irakurri duen haurrak. Beraz, baliteke –Funkek eta Boosek esan bezala– eskaintza multimedialak betiko liburuari kalterik ez egitea, baina egoera diglosikoan dauden hizkuntzen kasuan, bestelakoa da egoera, eta hizkuntza boteretsuan egiten den eskaintza multimedialak bai eragin diezaioke kalterik hizkuntza gutxituan ateratako liburuari⁷. Hala, hizkia irudiaren mende

⁷ Pérez López de Herediak *Harry Potteren* adibidea darabil artikulu batean: *Harry Potteren* liburuak guztiak euskaratu dira, eta aurreneko filma ere bikoiztu da euskarara, baina bestelako produktu guztiak gaztelaniaz kontsumitu ditu euskal haur (eta ez hain haur) elebidunak, eta, gainera, denboran lehenago kontsumitu ditu. Pérez López de Herediak dio produktua bultzatzeko gaztelaniaz egindako publizitateak mesede egingo ziola euskarazko produktuari ere, baina aldi berean

egoteak literatur sistemen arteko harremana baldintzatzen du, Euskal Herriaren kasuan, ahultasunak eta mendekotasunak indartuz.

2.8. HIZKUNTZA

Beste ezaugarrien artean, erabilitako hizkuntzak eta idazteko moldeak ere desberdintzen du HGLa literatura orokorretik. Jakina, ez dago orokortzerik, eta azterketa xehe batek kasuan kasu aztertzea eskatuko luke. Izan ere, HGLaren barruan genero eta maila desberdinak dauzkagu, eta hizkuntza aldetik ere desberdintasunak ageri dira, haur txikiei zuzendutako liburuetan, irudi-liburuetan, abentura-liburuetan edo gaztetxoei zuzendutako liburuetan, kasu batzuk aipatzearen. Era berean, kultura bakoitzak bere estilo eta hizkuntza garatzen du, betiere bizi duen garaiak eta errealitateak eraginda. Euskararen kasuan, esaterako, duela 50 urte ez zegoen euskara baturik ere, eta idazteko modua bera ere asko garatu da ordudanik.

Dena den, hizkuntzari dagokionez HGLak oro har azaltzen dituen berezitasunak aipatuko ditugu labur-labur.

Klingberg-ek dioenez, badira HGLan helduen literaturan baino sarriago edo nabarmenago agertzen diren hizkuntza-ezaugarriak, besteak beste, hitz jolasak, dialektoen erabilera edo hizkuntza ez-estandarraren erabilera:

There are some types of language which will appear more often in children's books than in most other literature, viz. children's language, spelling difficulties on the part of one of the

characters, and word-play. Some observations on the translation of dialect and other non-standard source language are also presented (Klingberg, 1986: 13).

Klingbergek HGL-lan batzuen itzulpenak aztertu zituen, eta batez ere erreferentzia kulturalen itzulpenari erreparatu zion, hori izanik itzulpenean arazo gehien sortzen dituen kontua. Hala, janaria eta horren inguruko kultura eta fikziozko izen bereziak aipatzen ditu HGLan gehien erabiltzen diren kultur erreferentzia gisa.

O'Sullivan ere HGLko lanen itzulpenean oinarritzen da bere ondorioak ateratzeko eta hizkuntzari dagozkion puntu hauek aipatzen ditu: hizkuntza-sormena (hitz-jokoak etab.), errepikapenak, ironia edo umorea, madarikazio edo biraoak, hizkera-erregistro desberdinak eta haur- edo gazte-hizkera (O'Sullivan, 2000: 209-217).

Beraz, Klingbergek aipatutakoak eta O'Sullivanek aipatutakoak kontuan hartuta, honela laburbilduko genuke HGLaren bereizgarri den hizkuntza eta idazkera:

- Kultur erreferentziak (bereziki janari izenak, fikziozko izen bereziak eta folklore/ohiturei egiten zaizkien erreferentziak).
- Umorea (hitz-jokoak, txistek etab.).
- Hizkuntza mota desberdinak agertzea: haur-hizkera nahiz helduen hizkera jasoa, bakoitza bere ezaugarriekin (haur hizkeran: errepikapenak, gaizki ahoskatu edo adierazitakoak, isekak eta madarikazioak etab. Helduen hizkeran: hiztegi maila altuagoa etab.).

Egia da erreferentzia kulturalak oso ohikoak direla HGLan eta, bereziki, fikziozko izenak. Gauza bera gertatzen da umorea eta ironiarekin: HGLan helduen literaturan baino sarriago erabiltzen

dira, seguru aski. Hala eta guztiz ere, helduen literaturan ere ohikoak izan daitezkeen ezaugarriak direlakoan gaude (erreferentzia kulturei dagokienez, fikziozko izen bereziak ez, baina, gainerakoan, kultur erreferentziekin edozein lanetan egiten du topo itzultzaileak). Horregatik, lan honetan gazte-hizkerari edo hizkera ez-formalari erreparatu nahi izan diogu, beste generoei baino, batez ere HGL generoari dagokiolakoan. Gainera, euskalgintzan nagusitu den kezketako bat da, hain zuzen, erregistro ez-formala sortzeko beharra eta gaztelaniak erregistro horretan duen interferentzia neurtzeko eta ebaluatzeko beharra. Azterketa hori guztia bederatzigarren atalean sakondu dugu.

2.8.1 Zer da gazte-hizkera?

Gazte-hizkera alemanaren azterketan, Eva Neuland eta Jannis Androutsopoulos dira nabarmentzen diren izenak. Aurrenekoak gazte-hizkera oro har aztertzen du; bigarrenak, berriz, Alemaniako gazte-hizkera aztertu zuen, eta, are, gai horri buruzko tesia ere egin zuen (*Deutsche Jugendsprache. Untersuchungen zu ihren Strukturen und Funktionen*, 1998). Edozein modutan, bi adituek eurek esan zigitenez, ez daukate zehazki HGLan erabiltzen den gazte-hizkera aztertzen duen inongo lanen berri⁸. Euskaraz ere, urratu gabe dago bidea.

⁸ HGLan erabiltzen den gazte-hizkera aztertzen duen lanen inguruan galdetuta, horrela erantzun zigun Neulandek berak 2011ko abuztuaren 15ean bidalitako mezu pribatu batean: "Sie sprechen ein sehr schwieriges Thema an, das die Forschung noch nicht hinreichend berücksichtigt hat." Alegia, gai zaila dela, ikerketak ez baitio, artean, arretarik eskaini. Androutsopolousek ere gauza bera erantzun zigun.

Ondorioz, are erakargarriagoa egin zaigu ikergaia; gaiaren inguruko lan akademikoen gabezia hori bera arrazoi bat gehiago izan dugu lanari ekiteko.

Esan dugun moduan, Androutsopoulusek gazte-hizkera alemana aztertu zuen 1998an egindako tesian. Hainbat mailatan egin zuen azterketa: hitz osaerari dagokionean, fraseologismoak, joskera-ereduak, hiztegia, diskurtsoari dagozkion ezaugarriak eta maileguak. Corpus gisa, gazteei zuzendutako aldizkari merkeak hartu zituen, merkaturatzen ez direnak, baina gazteen artean zabaltzen direnak: *Fanzine* deritzatenak. Ikerketa horretan, gazte-hizkera alemanaren deskribapen zabala egiten du, eta ondorioztatzen du gazte-hizkera bigarren mailako aldaera dela: lehenengo mailako aldaera pertsona bakoitzak bizitzaren hasieran bereganatzen duena da, eta aldaera horren gainean eta bigarren mailako aldaera gisa osatzen da, gaztaroan, gazte-hizkera. Hala, bigarren mailako aldaera hori hiztunaren jatorri soziokulturalaren arabera da (Androutsopoulos, 1998: 592).

Neulandek dioenez (Neuland, 2007), hizkera ez-formala (alemanez *Umgangssprache*) hizkera estandarraren eta dialektoen arteko zubi gisa hartua izan da: bien zeharbide bat balitz bezala, alegia. Hala, gazte-hizkeraz hitz egiterakoan, hizkera ez-formalaz ari garela ulertzen du askok.

Neulanden ustez, ordea, gazte-hizkera hizkera ez-formal gisa etiketatzea ez da aski. Gazteen ahotatik bildutako hainbat adibide aurkeztu ondoren, berezko berezitasunak dituen hizkera dela defendatzen du, hizkera berezitua dela, alegia:

Einige Beispiele sind höchst fach- und adressatenspezifisch, setzen bestimmte Kenntnisse und gemeinsame Vorerfahrungen voraus und sind gerade nicht allgemein verständlich. [...] finden sich [...] auch viele gruppenspezifische Sprachmerkmale, wie z.B. die Interjektionen, Lautmalereien und Wortspiele, Anredeformen und typologisierende Bezeichnungen sowie Anspielungen (Neuland, 2007: 135-136).

Izan ere, hartzaile jakin bati zuzendutako hizkera da gaztearena, eta, beraz, edonork ulertzen ez dituen ezaugarri berezi batzuen arabera taxututakoa.

Hala, hizkera estandarraz eta haren aldaerez hitz egiten du Neulandek. Izan ere, badira, hainbat faktorek eraginda, estandarretik bereizi eta bere horretan aldaerak osatzen dituzten hizkerak: aldaera diakronikoak daude (denboraren joanak sortzen dituenak); aldaera diatopikoak (banaketa geografikoak sortzen dituenak); aldaera diastratikoak edo soziolektoak (gizarte-talde desberdinen arabera sortuak); eta aldaera diafasikoak (egoera edo eremu desberdinen arabera sortutakoak).

Ez dago argi zein eta zenbat bereizgarri diren beharrezkoak hizkera bati aldaera maila aitortu ahal izateko. Nolanahi ere, aldaera diastratiko gisa hartzen du askok gazte-hizkera, hau da, soziolekto bat balitz bezala.

Neulandek, ordea, zalantzan jartzen du hori, ez baitago argi zein adin-talde hartzen duen *gazte-hizkera* delakoak. Ez da, gainera, talde homogeen bat, ezaugarri komun batzuk dituenak. Mugak lausoak dira, alegia:

Andererseits sind manche Auffälligkeiten auch nicht spezifisch für den Sprachgebrauch Jugendlicher, sondern auch in anderen Gruppen von Sprachbenutzern anzutreffen. Und zuletzt

werden diese Merkmale nicht immer unter allen Bedingungen von Jugendlichen angewendet, sondern variieren stark je nach Situation (Neuland, 2007: 137).

Horrela, beraz, aldaera anitz dituen hizkera azpi-estandarra da Neulandentzat gazte-hizkera. Hau da, hizkera bat da, baina hainbat aldaera dituena, eta eragiten dioten faktoreen arabera aldatzen dena.


Neulandek hiru faktore azpimarratzen ditu bereziki eraginkorrak direnak gazte-hizkeran:

- Sexu-banaketa: mutilen artean edo nesken artean desberdin hitz egiten da.
- Azpi-kultura bateko parte izatea: hip-hop mugimenduak, adibidez, berezkoa duen moduan eragiten dio gazte-hizkerari.
- Komunikabideen eragina: gazteei zuzendutako aldizkariak, Internetek etab. modu jakin batean eragiten diote gazte-hizkerari.

Berezko estiloa eta ezaugarriak ditu gazte-hizkerak, eta, hainbat faktoreen arabera, aldaera asko har ditzake. Hain zuzen ere, gainerako hizkeretatik bereizteko hartzen dira ezaugarri horiek:

Wir selbst haben Sprachstile Jugendlicher als Ausdrucksformen jugendlicher Lebensstile bestimmt mit der besonderen Funktion sozialer Distinktion, d.h. der Abgrenzung gegenüber der Außenwelt Erwachsener und der Identifikation in den Innenräumen jugendlicher Lebenswelten (Neuland, 2007: 140).

Neulanden ustez, etengabe elkar elikatzen duten bi koderen arteko harreman gisa ikusi behar da gazte-hizkeraren eta hizkera estandarraren arteko harremana.



Irudia 3. Neulanden eskema.

Gazte-hizkerak deseraiki egiten du, nolabait esatearren, hizkera estandarra (adiera eta hitz-elkarketa berriak sortuz, adibidez), baina, aldi berean, hizkera estandarrak gazte-hizkeraren hainbat aldaera onartu eta bere egiten ditu: “So sind mittlerweile z.B. die Ausdrücke ätzend, cool, geil, abfahren, anmachen, Macker, Prolo, Torte, Zoff als jugendsprachlich in die großen Wörterbücher der Gegenwartssprache aufgenommen” (Neuland, 2007: 144).

2.8.2 *Euskal gazte-hizkera?*

Neulandek aipatzen duen elkar-elikatze hori (hizkera informalak formala elikatzen duela, eta alderantziz), ez dago, euskarari dagokionean, inondik ere sakon azterturik. Are, gazte-hizkerari buruz apenas dagoen erreferentzia-lanik euskaraz, nahiz eta gaiari buruzko kezka aspaldidanik oso presente egon gizartean. Alabaina, gaztelania eta frantsesa bezalako hizkuntza menderatzaileen artean egonik, kezka nagusia gehiago egon da bi hizkuntza horiek euskararengan eduki lezaketen eragina neurtzera bideratuta, *codeswitching* delako fenomenoaz aztertzeraz, alegia. Hau da, soziolinguistikaren arlotik heldu zaio gaiari.

Neulandek aipatzen zuenez, alemanaren kasuan, hizkera estandarretik elikatzen da gazte-hizkera (deseraiki egiten baitu), eta, aldi berean, hizkera estandarrak onartu egiten ditu,

denborarekin, gazte-hizkeran sortutako hainbat adierazpide. Adibide gisa Kirsten Boiek 1992an kaleratu zuen *Ich ganz cool* liburua har dezakegu: Alemanian hautsak harrotu zituen argitalpena izan zen, tabuak hautsi zituena. Izan ere, ordura arte beste inongo liburutan ez bezala jaso zuen Boiek gazteen ahozkotasuna HGLko liburu batean: joskera eta gramatika okerrak, ingelesetik hartutako hainbat hitz etab. Kontuan hartu behar da Alemanian egon badagoela kezka ingelesak gazte alemanengan duen eraginaren inguruan (egia esan, ez soilik gazteengan duen eraginagatik. Bastian Sick-en *Der Dativ ist dem Genitiv sein Tod* liburua gogoratu besterik ez dago, bertan iradokitzen baita ingelesaren eraginez ari dela alemanezko genitiboaren erabilera gutxitzen), baina, edozein modutan, aipatu dugun liburuaren bidez, hautsi egin ziren HGLko lanek erabili behar duten hizkuntzari buruzko legeak, nolabait esatearren. Euskaraz ez dugu, artean, Boiek kaleratu zuen lanaren pareko izan daitekeenik, eta, egoera horretan, helburua litzateke pixkanaka Neulandek deskribatzen duen elkar-elikatze horretara iristea. Izan ere, eta ziur asko gure hizkuntzak bizi duen egoera diglosikoaren eraginez, bestelakoak dira argitu beharrekoak: gazte euskaldunek apenas deseraikitzen dute euskara estandarra eta sortzen dute euskal gazte-hizkerarik. Horren ordez, inguruko hizkuntzetatik hartzen dituzte behar dituzten baliabideak, eta, beharbada horregatik, euskara estandarrak ez du onartzen euskal gazteen artean sortutako gazte-hizkerarik. Puntu hori funtsezkoa da ulertzeko zergatik jotzen dugun hain urrunekotzat itzulpenetan, edo baita sortze-lanetan ere, erabiltzen den gazte-hizkera.

Kike Amonarrizek euskara kolokialaren ezaugarri hauexek ematen ditu (Amonarriz, 2005: 12): euskara eta erdara(k) nahasten dira; euskarazko zatietan, euskara batua eta euskalkiak nahasten dira; herri bakoitzean, kontsensuzko forma berriak sortu dira, aditzetan batez ere; eta, nahasketa horretan, ingurune soziolinguistikoak markatzen du osagai bakoitzaren proportzioa: zenbat batutik, zenbat euskalkitik, edo zenbat erdaretatik.

Euskara nahasia izatea da, beraz, euskarazko hizkera kolokiala edo gazte-hizkeraren ezaugarri nagusia. Eta ondorio hori bera atera zuen Imanol Esnaolak gaiaren inguruan landutako aurreneko lanetariko batean (*Gazte euskaldunen arteko hizkera hemen eta orain*, 1997). Esnaolak egindako lanaren helburua "...lagunarteko gazte euskaldunen diskurtsoa aztertu eta 'gazte' kutsua ematen dioten elementuen hizkuntz jatorria argitzea izango da" (Esnaola, 1997: 10). Izan ere, euskal gazteek jasotzen duten kultur eredia nagusiki atzerrian eta erdaraz eraikia da. Horren urrutira joan gabe, etengabeko ukipenean ditugun hizkuntza menderatzaileetan euskaraz baino produktu gehiago ekoizten dira gazteentzat. Horrek, jakina, izugarri baldintzatzen du gazteek beren erregistrorako hautatzen duten hizkuntza. Ezin aipatu gabe utzi, gainera, ikus-entzunezkoen aroan bizi garela, baita haur eta gazteei zuzentzen zaizkien produktuei dagokienean ere (lehenago Ewersen hitz batzuen arabera jaso dugunez); idatziak, beraz, galdu du indarra, baina, gainera, ikus-entzunezkoen merkatuan eskaintzen diren produktuen hizkuntzen presentzia are desorekatuagoa da.

Euskararen normalizazio-prozesuari erreparatuta, erregistro jaso duen euskara formala edukitzea izan da helburu, eta

euskara ikastetxeetan zabaltzea. Ordea, hezkuntza honek hizkuntz eredu bakarra, normatiboa, bultzatzen du (Esnaola, 1997: 11).

Esnaolaren ustez, euskara betidanik izan da lagunartean eta etxeko giroan erabilitako hizkuntza, baina, egoera diglosikotik noranahiko hizkuntza bihurtzeko ahalegin horretan, ez dira erregistroak behar beste landu: “Alegia, batasun prozesu horretan hizkera edo hizkuntz eredu bakoitzaren erabilera-eremua ez zehazteak nahasmena ekarri du eta horrekin batera lagun arteko eta familiako hizkuntza ereduaren balio gutxitzea” (Esnaola, 1997: 12). Euskarak, beste edozein hizkuntzak bezala, edozer gauza esateko balio baitu, baina ez da gauza guztietarako erabiltzen. “Euskaraz dena esan daiteke, baina ez da dena esaten”, dio Amonarrizek (2005: 15):

Eten sakona gertatu da belaunaldien artean. Frankismoaren ondoren, euskara desagertu egin zen gure hiri nagusietako kaleetatik, eta horrek ekarri du, kaleko hizkerari dagozkion hainbat hitz, esamolde eta kontzeptu modu bizian transmititu ez izana. Gaur egungo gazteek erabiltzen duten euskara ez da herri euskaldunetako helduek erabiltzen zutena, eta maiz, euskarak berezko duen hainbat baliabide “zaharkitua” gertatzen zaio hiritar gazte euskaldunari, berauek baztertu eta ondoko hizkuntza menperatzailera jotzen dutelarik. Joera hauek oso nabarmenak dira, lokuzioetan, hizkuntzaren erabilera ludikoetan, sexu hizkeran, etab. (Amonarriz, 2005: 15)

Esnaolak ere gauza bera ondorioztatu zuen bere lanean: gazte euskaldunek erdarazko ereduari heldu behar izan diotela lagunarteko diskurtsoa eraikitzeko. Lagunarteko diskurtsoaren ezaugarria da eredu formaletik bereiztea, helduen mundutik

bereizi eta talde nortasuna eratzea. Prozesu horri, baina, ez dirudi behar beste arreta eskaini diogunik.

Amonarrizek hizkuntza egokitasunaren alde egiten du gazteek beren artean hizkuntza sor dezaten bultzatzeko (2005: 16-17). Euskararen Aholku Batzordeak 2004an hiru maila bereizi zituen hizkuntza kalitatea neurtzeko, hala nola zuzentasuna (arauen araberakoa), jatorritasuna (senarekin edo usadioarekin lotuta dagoena) eta egokitasuna (bere xederako egokia den hizkuntza)⁹. Hizkuntza-normalizazioan, hizkuntzaren irakaskuntza eta sustapena egokitasunaren ikuspegitik lantzeak ezinbestekoa dirudi gaur egun, hizkuntzaren balio instrumentala eta erabilgarritasuna hobetzeko, hizkuntzaren ezagupena sakontzeko, motibazioa lantzeko, erdararekiko mendekotasuna murrizteko eta erabilera esparruak nahiz erreferentzia-mundu partekatuak sortzeko (Amonarriz, 2005: 17). Hala, haur eta gazteei zuzenduriko eduki, zerbitzu eta produktu euskaldunen eskaintza ugaltzea aldarrikatzen du Amonarrizek:

Hizkuntzen etorkizuna, lurraldetasunean ez ezik, beren eskuragarritasunean jokatuko baita (hiztunek eskura izango dituzten eduki, produktu eta zerbitzuetan), eta ez hainbeste beren indar sinbolikoan (Amonarriz, 2005: 14).

Amonarrizen hausnarketa lotuta dago, azken batean, lehen aipatu dugun HGLaren eskaintza multimedialarekin, euskara motz gelditzen baita eskaintza zabal horretan, eta presentzia mugatu horrek eragin egiten dio, ezinbestean, hizkuntzaren garapenari.

⁹http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/euskararen_kalitatea_eu.pdf

Horrez gain, hala ere, produktu horietan erabiltzen den euskara-eredua ere kontuan hartzekoa da.

Hutsune hori dagoenez, Amonarriek berak hainbat ekimen bideratu ditu gazteen artean euskarazko gazte-hizkera ez formala sustatze aldera (telebista-saioak, liburuak etab). Bestalde, 2008tik aurrera, Mintzola Fundazioa dabil Euskal Herrian lanean, euskarazko ahozkoasunean ikerketa bultzatu eta gai horren inguruko adituen bilgune izateko asmoz.

Ekimen horiek guztiak zerbaitegatik sortu dira. Esanolak berak bere ikerketan ondorioztatu zuenez, gazte euskaldunek gaztelaniara edo erdaretara jotzen dute beren erregistroa osatzeko, eta ez zaio hainbeste eragiten euskal sormenari. Pentsa liteke, beraz, HGLko lanek beren pertsonaiengan darabilten hizkuntza askotan ez dela izango egiantzekoa edo hurbila euskal gazteentzat. Egoera horren ondorioa da, orain arte behin baino gehiagotan esan dugun moduan, distantzia handi samar bat sortzen dela liburuko gazte-hizkeraren eta errealitateko gazte-hizkeraren artean.

2.8.3 *Ahozkoa vs. idatzia*

Honaino iritsita, hizkuntza idatziaren arrotasunaz hausnartu behar dugu ezinbestean. Hain zuzen ere, orain arte esandakoak gehiago egiten zion erreferentzia ahozko jardunari, hizketari, baina, gauza jakina denez, idatzia ez da inoiz ahozkoaren isla osoa izango. Izan ere, idatzia eta ahozkoa, testuinguru desberdinetan sortzen dira, eta Larringanek eta Idiazabalek baieztatzen dutenez, “hitz egitea ez da idatziz mintzatzea”:

Kazetariak eta estilo zuzena erabiltzen dutenean ez dituzte normalean ahozko hizkeran erabilitako elementu asko eta asko

jasotzen. Eta idazkeraren oinarriak menperatzen dituzten idazleek, badakite ezinbestekoa dela hiztunak esandakoa apaintzea edo hiztunak esan ez dituen elementuekin hornitzea, esan duen hori, besterik gabe, ondo ulertu ahal izateko (Larringan eta Idiazabal, 2008: 30).

Azken urte hauetan, hainbat lan argitaratu dira HGLaren ikerketan ahozketasun itxuratuari buruz (Espainiako estatuak finantzaturako ikerketa-talde bat ere bada, *Translating fictional dialogue, literary texts and multimodal texts*, TRADIF, eta 2008tik hona 8 argitalpen atera dituzte gaiaren inguruan). Ahozko elkarrizketatan egoten diren elipsiak, zalantzak, errepikapenak, hitz makuluak, dialektoak eta horrelakoak idatziz nola jasotzen diren aztertzen du taldeak; alegia, nola fikzionatzen den ahozko jarduna testuetan.

Marrerok eta Garciak 4 maila bereizten dituzte testuen artean, ahozketasun graduaren arabera (Marrero eta García, 2008: 124): idatzia izan ez balitz bezala esateko idatzia izan den testua (antzerkirako moldaturako testuak); esateko idatzia izan den testua (hitzaldi baterako prestatua); nahitaez mintzatua izan behar ez duen moduan idatzitako testua (elkarrizketa asko duen liburu bat); eta, azkenik, idatzia izan balitz bezala irakurtzeko moduan esana (transkribatua izateko moduan irakurtzen den gutun bat). Marrerok eta Garciak *Desio izeneko tranbiaren* bi bertsiok konparatzen dituzte, bata antzeztua izateko itzulia, eta bestea irakurtzeko itzulia. Antzeztua izatekoak ahozketasunari dagozkion ezaugarri gehiago dauzka irakurtzekoa den testuak baino, hala nola hitz gutxiago, elipsi gehiago edota esamolde *arruntagoak*.

Euskarazko HGLan inoiz baino ozenago entzuten dira testu idatzietan ahozketasunaren alde egin behar dela diotenen iritziak.

Juan Kruz Igerabide izan zen gaia lantzen aurrenetarikoa (*Bularretik mintzora: haurra, ahozkoasuna eta literatura*; Erein, 1993); haurrari ahots gora irakurtzearen garrantziaz eta testuak modu horretan irakurtzeko moduan idazteko beharraz idatzi zuen Igerabidek. Hala ere, HGLaren arloko profesionalek behar horren premiaz ohartarazten jarraitzen dute: Behinola aldizkariaren 24. alean, Pello Añorga ipuin kontalariak HGLko testu idatziak ahozkoasunera hurbiltzeko beharraz hitz egiten du:

[...] liburua ez dago prestatua ahots gora irakurria izan dadin; edo, beste hitzetan esateko: ez dauka landuta ahozkoasuna. Eta nire iritziz, ahozkoasuna lantzen badugu, era hurbilagoan iritsiko gara haurrengana, eta hobeto komunikatuko. Zergatik? Bada, haurrak ahozkotik gertuago bizi direlako idatzizkotik baino (Añorga, 2011: 22).

Artikulu berean dioenez, gaur egun euskaraz sortutako HGLa ari da, nabarmen, ahozkoasun hori gehiago jasotzen; adibide gisa, Atxagaren *Txitoen istorioa*, Igerabideren *Jonas eta hozkailu beldurtia* eta Zubizarretaren *Urrezko giltza* jartzen ditu:

Gauzak horrela, gaur egungo literatura idatzian, ez da batere harritzekoa, ahozko estilistikan ezagunak diren hainbat baliabide aurkitzea. Hala nola: estilo zuzena, esaldi errepikapenak, paralelismoak, harridura-markak, isiluneak, elipsiak, hitz indargarriak, enfatizazioak... Puntuazioa bera ere, eta zer esanik ez sintaxia, gero eta gehiago hurbildu da gorputzaren arnasara, gramatikaren arau estura baino (Añorga, 2011: 25-26).

Nolanahi den, idatzian ahozkoasunaren ezaugarriak bultzatu nahi badira ere, idatzizko testu bat ez da sekulan ahozkoaren erabateko isla izango. Horrenbestez, aztergai dugun generoa gazteenei bideratuta egon arren, jakin badakigu testuek ez dutela

% 100 ahozko jarduna erreproduzituko. HGLan erabiltzen diren ahozkotasunezko elementuen itzulpena aztertzen du García de Torok, eta itzulpenean estandarizaziora jo dela aurkitzea aurreikusten badu ere, artikuluaeren amaieran aitortzen duenez, “la traducción parte ya de un texto estandarizado” (García de Toro, 2000: 170). Euskararen kasuan, gainera, kontuan hartzen badugu gazteek euren artean erdararako joera erakusten dutela, erraz aurreikus dezakegu euskarazko HGLak ez duela gazteen kaleko jarduna % 100 islatuko, testu idatzia kalekoa ez den bestelako erregistro batean idazten baita, eta, batez ere, ez duelako kaleko euskara-gaztelania jardun nahasia erakutsiko.

Horri lotuta, aurreikus genezake gazteen kaleko jardun nahasia ez erakustez gainera, euskal HGLak gazte-hizkera eredu jakin bat transmititzen duela. Gogoratu behar dugu, gainera, HGLak eskola-sistemari erantzuteko betebeharra duela aski sarritan. Beraz, baliteke, hizkuntzaren aldetik, hizkuntza-zuzentasuna bultzatu nahia egotea (errealitatearekiko dagoen distantzia kontuan hartuta, askok zuzenkeriatzat hartzen dutena).

Azken finean, euskarak oraindik dituen ahulguneen ondorioetako batzuk zein diren erakusten digu honek guztiak. Ondorio zehatzagoak ateratzeko, berariaz ikusiko dugu zein den HGLan erabiltzen den hizkuntza-eredua.

2.8.4 HGL-lanen idazkera

Generoari buruzko ezaugarrietan aipatu dugun moduan, HGLaren bereizgarrietako bat hartzailea bera da (hartzaile bikoitza izatea). Haur eta gazteei bideratuta dauden liburuek nabarmen egokitzen dituzte beren edukiak, askotan helburu hezitzaileak

daudelarik tartean. Baina, edukiak ez ezik, HGLko liburuak idazteko erabiltzen den hizkuntzak berak ere baditu bere bereizgarriak. Etorkizuneko irakurleei bideratutako lanak izanik, hartzailearen irakurmena, eta, oro har, hizkuntza-maila hartzen dute kontuan.

Izan ere, dagokion mailatik urrunegi gelditzen zaion liburu bat irakurtzen duen haurrak litekeena da irakurzaletasuna galtzea, edo konplexuegi zaion liburu hori bukatzeko adore handirik behintzat ez du izango. Bestalde, HGLaren bidez hizkuntza egoki eta zuzena transmititzeko beharra sumatzen da; eta, horrela, edukiekin gertatzen zen moduan, gehiegizko pedagogian erortzeko arriskua ere egon ohi da: alegia, hizkuntza *garbia* transmititu nahi horretan, zuzenkeriatik gertuegi eta errealtatetik urrunegi gelditzen den hizkuntza erabiltzea.

Bernhard Engelenek alemanez idatzitako HGLaren hizkuntza aztertu du bere lanean (*Zur Sprache des Kinder- und Jugendbuchs*, 2005). Orain arte gazte-hizkeraz aritu gara, baina Engelenen lanak HGL idatziaren ezaugarriak aztertzen ditu. Hala ere, hizkuntzaren pedagogiatik heltzen dio Engelenek bere ikerketari, eta haur eta gazteek zein hizkuntza-eredu jasotzen duten aztertzea du helburu, horrek beren irakurmenean eta hizkuntza-gaitasunean nola eragiten duen ikusteko. Esaldien batez besteko luzerari, mendeko perpausen maiztasunari, perpaus barruko sintagmen luzerari eta hitzen batez besteko luzerari erreparatzen dio, horiek direlako erabakigarriak testu baten konplexutasuna erabakitzeke orduan (Engelen, 2005: 108).

Engelene 8-12 urte bitartekoentzat gomendatzen diren 5 liburu hartzen ditu, eta esaldi-luzerari nahiz hitz-luzerari dagozkien datuak ematen ditu. Guztiek dituzte, batez beste, 10 hitzeko esaldiak eta 1,6 silaba inguruko hitzak.

Esaldien eta hitzen luzeraz gain, ordea, bestelakoei ere erreparatzen die (mendeko perpausen erabilerari etab.), eta, ondorioztatzen duenez, joskera erraza erabiltzeko joera dute HGLko liburuek. Hala, kritiko ageri da Engelen, *errazkeriak* hizkuntza-gaitasunaren bilakaera kaltetzen duelakoan:

Das Ergebnis ist vollkommen negativ: Es befindet sich hier kaum ein Nebensatz 2. Grades, kein nennenswertes komplexes Attribut, keine nennenswerte Nominalisierung [...], sogut wie keine indirekte Rede, kaum eine schwierige Infinitivkonstruktion, kaum ein Satz in Passiv usw. Stattdessen begegnen uns überall sehr simple Satzkonstruktionen, fast alle im Aktiv, massenweise direkte Rede und kurze, gut überschaubare Abschnitte. Die Lektüre ist dem Kind eben denkbar einfach gemacht (Engelen, 2005: 113).

Ikerketa honetan guri ez zaigu Engelenen ikuspegi didaktikoa hainbeste interesatzen, alegia, HGLko lanek zein hizkuntza-eredu erabili beharko luketen gazteek beren hizkuntza-gaitasuna eta irakurmena gara dezaten, baina egileak HGL alemanaren ezaugarri nagusiak aipatzen ditu eta, horiek bai, hemen behean jarri ditugu:

- Ahots aktiboa pasiboaren aldean.
- Adierazpide zuzena, zeharkakoa beharrian.
- Esaldi motzak, luzeak beharrian.
- Erraz osatutako esaldiak, modu konplexuan osatutakoak beharrian.
- Erlatibozko esaldiak, esaldi atributibo konplexu bat beharrian.

- Mendeko perpaus bat edo esaldi nagusi bat baino gehiago, nominalizazio konplexu bat beharrean.

Ikerketaren zati nagusia joskera aztertzeraz bideratzen badu ere, lexikoaz ere hitz egiten du labur Engelenek. Dioenez, alemanez idatzitako HGLan erabilitako hiztegia murrizta da. Hautatutako liburuen aurreneko 10.000 hitzak aztertzen ditu lehenik, eta aurreneko 25.000 ondoren. Lagin horretan baliatutako hitz (edo, hobe esanda, hitz-erro) desberdinen kopurua zenbatzen du. Emaitzek erakusten dutenez, helduentzako literaturan baino askoz hiztegi murriztagoa erabiltzen da HGLan. Aurreneko 10.000 hitzak kontuan hartuta, % 38ko desberdintasuna dago HGLaren eta helduentzako literaturaren artean; aurreneko 25.000 hitzei erreparatuta % 45ekoa da aldea.

Horretaz gain, Engelenek zenbait hitz jakinen erabilera errepikatuaz ohartarazten du: “Bei allen Wortfeldern, die ich mir unter diesem Gesichtspunkt angeschaut habe, wurden von den Kinderbuchautoren ein oder zwei Wörter extrem häufig verwendet und die anderen so gut wie gar nicht” (Engelen, 2005b: 192).

Bestalde, jatorri alemanekoak ez diren hitzak ez erabiltzeko joera sumatzen du Engelenek, baita haurrek ziur asko erabiltzen dituztenak ere: *rational*, *irrational*, *riskieren*, *risikolos*, *Provokation* etab. Adierazgarria iruditu zaigu joera hori, pentsa baitaiteke helburu pedagogikoak eraginda bultzatutako zerbait dela: bereziki jatorri alemanekoak diren hitzak erabiltzea bultzatzeko nahia, alegia. Horrek euskararen kasuan gauza bertsua sumatuko ote den pentsatzeraz garrantzitsua, hau da, euskara jatorreko hitzak bultzatzeko joerarik sumatuko ote den.

Euskaraz, guk dakigula, ez da, artean, euskal HGL idatziaren hizkuntza-ereduari buruzko azterketarik egin. Salbuespen modura, ETBren haur-programazioaren barruan egiten den ikus-entzunezkoen itzulpenaren azterketa daukagu, Josu Barambonesek egin eta 2009an doktore-tesi gisa aurkeztua (Barambones, 2010; horretaz gain, 2012an atera zituen *Lenguas minoritarias y traducción: la traducción audiovisual en euskera* eta *Mapping the Dubbing Scene, Audiovisual Translation in Basque Television*). Azterketa hartan, ingelesetik euskaratutako marrazki bizidunak aztertu zituen Barambonesek, eta euskaraz sortutako produktuak erakusten zuen hizkuntza motarekin alderatu. HGLa ez den arren, lan hartatik ateratako ondorioak irizpide gisa balia genitzake, haur eta gazteei bideratutako produktuetan erabiltzen den hizkuntza-eredua dela eta (Barambones, 2010: 538-539):

- Maila fonetikoan, testu guztiek Euskaltzaindiak aginduriko arauak betetzen dituzte, nahiz eta euskaraz sortutako produktuek ahozkoasunetik gertuago gelditzen diren ezaugarri gehiago hartzen dituzten.
- Hiztegi mailan, erregistro jasoaz ohartarazten du Barambonesek, eta haur eta gazteen hizkerako esapide gutxi. Hala, euskaraz sortutakoak (*Karramarro uharteak*) esamolde gehiago erabiltzen ditu eta adierazkorragoak, oro har.
- Maila morfologikoan ere, erregistro altuko aditzak sumatzen dira (trinkoak), nahiz eta hitanoaren erabilera ere egiten den (gehiago jatorriz euskaraz sortutakoan).
- Maila sintaktikoan, jatorrian euskaraz sortutako testuak maila baxuagoko esaldi motak ageri ditu, baita elipsi gehiago ere. Euskarara itzultitako testuek esaldi menderatu gehiago ageri dituzte, ahozko jardunarekin guztiz bat ez datorrena.

Esan bezala, Barambonesek egindako azterketa ikus-entzunezko produktuetan oinarritu zen, beraz, ez da, hain justu, guk behar dugun informazio mota, baina, hala eta guztiz ere, atera dezakegun ondorio interesgarrietako bat da euskara batuaren arauak betetzeko ahalegina sumatzen dela, hau da, ahozkotasunetik urruntzen direla produktuak: “In this respect, it can be said that dubbed texts tend to exhibit a fair amount of features that are characteristic of written discourse” (Barambones, 2010: 165). Bestetik, itzulpenek ez dutela gazteen hizkera islatzen, erregistroa formaltzen dela, alegia (Barambones, 2010: 466). Ondorioz, euskaraz sorturiko produktuak bestelako freskotasun bat ageri omen du.

Orain arte esandakoak kontuan hartu ondoren, uste baino konplexuagoa den egoeraren aurrean gaude HGLaren itzulpenari dagokionean: gazte-hizkera egon badagoenik inork ez du ukatzen, baina errealitateak erakusten duenaren eta haur eta gazteei bideratutako testu idatziek islatzen dutenaren arteko distantzia handi samarra da; gazteenei bideratutako testuak modu ulerterrazean idatzi ohi dira, oro har, baina euskaraz erregistroaren gorako joera suma daiteke hainbatetan (berriz ere, euskararen egoera soziolinguistikoaren ondorioetako bat)¹⁰.

¹⁰ Baliteke erregistroaren gorakada nabarmenago eta errazago gertatzea hizkuntza gutxituetan, baina, salbuespen gisa, Lorezok eta Pereirak ematen duten adibidea: Lowryren *The Giver* (1993) gazteentzako eleberria itzuli behar zuen Lorezok berak ingelesetik galegora. Gaztelaniara 1996an itzuli zen Everest argitaletxean, eta Lorezoren itzulpena galegora 1997an plazaratu zen. Bi bertsioren azterketa eginda, bi ikertzaileek ondorioztatu dute gaztelaniazko bertsioren erregistroa oso altua dela, batez ere, liburuko 8 urteko pertsonaia bati dagokionean: “la edad de la niña -8 años parece no haber sido tenido en cuenta por la traductora al español, cuyas elecciones léxicas resultan impropias en este estadio inicial de desenvolvimiento lingüístico” (Lorenzo eta Pereira, 2000: 136). Galegora egindako itzulpenean gehiago hartu omen

Laburbilduz, HGLaren sorrera hertsiki lotua dago haur eta gazte kontzeptuen bilakaerarekin, hau da, hezkuntza-sistemaren bilakaerarekin. HGLko komunikazioa, izan ere, asimetrikoa da: hezkuntza-sistemari lotuta sortu eta garatu delako, eta, beraz, helduen presentzia eta eragina nabarmena delako sistemaren ia osotasunean. Asimetria horrek orobat eragiten dio generoan erabiltzen den hizkuntzari, produktuak hezkuntzaren eta helduen galbahetik pasatzen direlako; baliteke, gainera, galbahe hori are nabarmenagoa izatea euskararen kasuan, hizkuntza-normalizazioa ez baita aspaldiko zerbait, eta gaztelaniaren eragina kontuan hartzekoa delako euskal HGLrako eraiki behar den gazte-hizkeraren eredurako. Hala, konplexua da euskal HGL-lanetako elkarrizketa fikzionatua eraikitzeko ahalegina.

zen kontuan erregistroaren egokitasuna. Gaztelaniazko bertsioa lehendik egina egoteak lagunduko zuen, bertsio horretan desegoki itzultitakoak identifikatzeko garaian: 1.6.4. atalean ikusi ditugun *support translation* eta *traducción asistida* terminoek azaltzen duten egoeraren adibide da, azken batean.

HGLa xede- kulturan eta sorburu-kulturan

Atal honetan bi literatur sistema deskribatuko ditugu ahalik eta zehatzen: itzulpenak sortzen eta barneratzen dituen sistema, euskal HGLa, eta itzulpen-lanen jatorrizko sistema, HGL alemana. Sistema bakoitzaren ahalik eta irudirik zehatzena lortzearen, bilakaera historikoaren errepassoa egingo dugu aurrena, eta, ondoren, gehiago arduratuko gara gaur egun sistema bakoitzak ezagun dituen ezaugarriez: sistemaren osaera, sistemak bizi duen egoera nahiz estatusa eta sistema bakoitzean HGLaren inguruan egiten den ikerketa.

3.1. EUSKAL HAUR ETA GAZTE LITERATURA

3.1.1 *Bilakaera historikoa*

Euskal HGLaren historiaren bilakaera deskribatzeko Xabier Etxaniz Erleren lanean oinarritu gara (*Euskal Haur eta Gazte*

Literaturaren Historia, 1997). Izan ere, hastapenetatik gaur egun arteko euskal HGLaren ekoizpena birpasatzen du lan horrek, nazioarteko HGLaren historiarekin parekatuz eta gertakari historiko nagusien datuekin gurutzatuz. Dena den, garaien arteko banaketa egiterakoan, ez dugu guztiz errespetatu Etxanizek bere lanean egiten duen banaketa. Izan ere, hiru garai nagusitan desberdintzen ditu hark: hasieratik 1940 arte; 1940tik 1980 arte; eta 1980tik 1996 arte.

Orokorregiak direlakoan, eta, batez ere, aurreneko garaian (hasieratik 1940 urte bitartekoan) haustura edo eten bat eragin zuen gertakari bat egon zela iritzita (foruen galera 1876an), beste garai bat desberdindu dugu. Gauza bera gertatu zaigu 1940-1980 garaiarekin ere: zabalegia delakoan, bitan banatu dugu, 1940-1960 bitartekoa bat, eta 1960-1980 bitartekoa bestea.

Azken batean, Lopez Gasenik bere tesian (2000) erabilitako banaketa bera da. Egokia delakoan gaude, mugarri izandako gertakariak ere nabarmentzen direlako, eta, beraz, honelaxe gelditu zaigu banaketa: hasieratik 1900 arte (foruen galerak eragindako nazionalismoa hasi arte); 1900tik 1940 arte (Gerra Zibilaren ostean Frankismoa ezartzen den arte); 1940tik 1960 arte (Frankismoan jarraitu arren ere, erregimenaren nolabaiteko zabaltze bat gertatzen den arte); 1960tik 1980 arte (euskal literaturgintzaren ekoizpenean gorakada hasten den arte); eta 1980tik gaur egun arte.

3.1.1.1 Hasieratik 1940. urtera arte

Etxanizen ustez, Bizenta Mogelek 1804an argitaratu zuen *Ipui onac* itzulpena da aurreneko euskal HGL-lana, Esoporen alegien itzulpen bat (Etxaniz, 1997: 12). Gure ustez, adierazgarri da lehen

euskal HGL-lantzat hartzen den hori, hain zuzen ere, itzulpen bat izatea, itzulpengintzak hasiera-hasieratik euskal HGL-sisteman izan duen pisuaren adierazke baita.

Kontuan hartu behar da, hala ere, beste hizkuntzatan ibilbide luzea zutela egina ordura arte, eta, horregatik, nazioarteko HGLan mugarri izandako lanak zerrendatzen ditu Etxanizek bere lanean, euskal HGLaren hasiera atzeratuaren erakusgarri.

Idatzizko literaturari bultzada eman dioten gertakari historikoei erreparatuz hasten da; zehazki, 1455ean Gutenberg-ek inprenta asmatu zueneko azpimarratzen du, asmakuntza harexek eragin baitzuen aurreneko irakurle-iraultza (Etxaniz, 1997: 11). Kontuan hartu behar da ahozko tradizioetik jasotako lanak eta monasterioetan kopiatzen ziren liburuak (erlijiosoak) izan zirela irakurgai bakarrak ordura arte; Gutenbergen inprentaren ostean, ordea, gai eta kantitate aldetik gertatu zen hazkundera. Ordea, beste bi mende beharko dira aurreneko HGL-lanak ikusteko. Etxanizek AEBetan 1641 eta 1645 urteen artean argitaratutakoa jotzen du aurreneko HGL-lantzat: John Cotton-ek idatzitako *Milk for babes* (katixima bat). Etxanizen ustez, hala ere, 1658an Alemanian argitaratutako lanak ekarri zuen berrikuntzarik handiena: Comeniusek idatzitako *Orbis sensualium pictus* (latina ikasteko liburua, ilustrazioekin). “Comeniusek lan honek izugarrizko garrantzia du, haurrentzako liburu batean ilustrazioari ematen dion trataeragatik” (Etxaniz, 1997: 12). Alemaniako HGLaren historia erreparatuko dugu 3.2 atalean, eta bertan aztertuko ditugu liburu honekikoak sakonago. Ondoren alegiak etorriko dira, esaterako, La Fontainek 1668an ateratako *Fables* liburua. Alegien iturria Indian kokatu behar da: Indiatik arabiarrek ekarri zituzten

Europara, eta, hala, Greziako Esopo izango da, K.a VI. mendean, alegien maisu. Alegiez gain, ahozko tradizioa idatziz jaso zituztenen lanak dira nabarmentzekoak: Charles Perrault-ek 1697an argitaratutako *Les Contes de ma Mere L'Oye* eta Italian Giambattista Basilek 1634an ateratako *Pentamerone* bilduma.

Dena den, bi liburu nabarmentzen ditu garai hartakoak Etxanizek: bata, 1719koa, Daniel Dafoe-ren *Robinson Crusoe* (gizakiaren nagusitasuna aldarrikatzen duen lana) eta, bestea, 1726koa Jonathan Swift-en *Gulliver-en bidaiak* (garaiko gizartearen satira). Aldi berean, John Newberyk aurreneko haur-liburudenda ireki zuen Londresen, eta hala sortu ziren *chapbook*ak. Gogora dezagun huraxe izan zela, Shaviten ustez, HGL-sistemaren bilakaerarako abiapuntua (Shavit, 1986: 158).

Garaiko didaktismoaren joerei jarraiki, XVIII. mendearen amaieran Felix Maria Samaniegok eta Tomas de Iriartek alegia-liburu bana idatzi zituzten gaztelaniaz. Samaniegok Peñaforida kondearen enkarguz atera zuen liburua 1781ean eta, Iriartek, Floridablancak eskatuta, 1782an. Iriartek, gainera, Camperen *Robinson der Jüngere* lana itzuli zuen gaztelaniara. Gogoratu behar dugu Camperen liburuak arrakasta handia lortu zuela Europa osoan, eta litekeena dela sasoi hartan egindako itzulpen robinsondar askok Camperen bertsioa hartu izana abiapuntutzat.

Samaniegok eta Iriartek gaztelaniaz idatzi zuten. Beraz, 1804 arte itxaron behar da aurreneko euskarazko lehen liburu didaktiko-literarioa izateko. Etxanizek 1803an Juan Bautista Aguirre asteasuarrak kaleratutako haurrentzako liburu bat ere aipatzen du (*Confesioco eta Comunioco Sacramentuen gañean*

Eracusaldia, lenvicico Comunionaco prestatu bear diran Aurrentzat, eta bidez Cristau acientzat ere bai), eta liburu hori Bizenta Mogelena baino urte bete lehenago kaleratu zen, baina ikuspuntu literarioa kontuan hartuta, aurreneko euskarazko HGLtzat Bizenta Mogelen *Ipui onac* hartzen du Etxanizek (Etxaniz, 1997: 27), Esoporen alegietan oinarritutako itzulpena. Etxanizek esaten digunez, “Bizenta Mogel ez zen itzulpenera mugatu, eta zenbait ipuinetan bere iritzia ere ematen du alegien helburu didaktikoa eta morala ageriago utziz, eta bere helburua argiago plazaratuz” (Etxaniz, 1997: 28). Beldarrainek berariaz aztertu zituen alegia klasikoen itzulpenak bere tesian (Beldarrain, 2010), eta hark ere Bizenta Mogelek aske itzuli zuela dio, “emaitza onargarria izan zedin hartzailatzat hartu zituenen artean: nekazariak eta gazteak” (Beldarrain, 2010: 139). Herri-hizkera erabili omen zuen, nahiz eta neologismoak sortzeko eta sinonimoak emateko joera ere erakutsi zuen. Hain zuzen ere, itzulpen-estrategia gisa erabiliko da gerora ere neologismoak eta sinonimoak emateko joera hori (Grimm anaien ipuinen lehen itzulpenetan sumatu dugu). Hizkuntza-normalizazioaren beharrarekin zuzenki lotuta dagoen estrategia da.

Europara begiratuta, XIX. mendearen hasiera honetan, Grimm anaiek beren *Kinder und Hausmärchen* liburua idatziko dute (1812-1815). Danimarkan, H. Christian Andersenek lehen aldiz landuko du heriotzaren gaia bere lanetan, poetikotasun eta literaturtasun handiz. Horrela, mugimendu nazionalistak ari ziren nabarmentzen eta, pixkanaka, HGLa garatzen. Bien bitartean, Euskal Herian erlijio eta morala irakastea zen helburua. Izan ere, Bizenta Mogelek egindako aurreneko itzulpen horretaz gain, Agustin Paskual

Iturriaga hernaniarrak egindako lan pedagogikoak dauzkagu. Iturriaga Hernaniko eskolan aritu zen irakasle, eta nabarmentzekoa da 1842an egin zuen itzulpena: *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado, dialecto guipuzcoano*. Iturriagak itzultitako alegiez gain, Archuk 1848an zubereraz argitaratutako La Fontaineren alegiak dauzkagu, edo, lau urte beranduago, lehen haur gramatika: *Uskara eta Franzez Gramatika, uskalherrietako haurrentzat eguina*. Bestalde, 1858an Duvoisinek *Laborantzako liburua, edo bi aita semeren solasak laborantzaren gainean* atera zuen, eta Juan Jose Mogelek *Baseerritaar nequezaleentzaco escolia* 1816an. Etxanizek dioenez,

Badirudi haurra presente zegoela euskal letretan, baina era berean haur liburu guztiak helburu didaktiko batekin zeuden eginak; XX. mendea arte itxaron behar izan zuen euskal haurrak literatur liburuak irakurtzen hasteko (Etxaniz, 1997: 38).

Izan ere, bien bitartean, erromantizismotik errealismora pasatu ziren Ingalaterran, eta hortik naturalismora eta *nonsensera* (dibertsioa helburu). Dickens-ek *Oliver Twist* kaleratu zuen 1837/39an (errealismoa) eta L. Carroll-ek *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* 1862an. Alemanian, garai berean, *Max und Moritz* idatzi zuen 1865ean komikiaren aitzindaritzat hartzen den Wilhelm Busch-ek.

Garai hartan egin da ustez alemanetik euskarara egin den lehen itzulpena: Schmid-en *Genovefa. Eine der schönsten und rührendsten Geschichten des Alterthums, neu erzählt für alle guten Menschen, besonders für Mütter und ihre Kinder*, 1810ean sortua. Gregorio Arruek 1868an euskaratu zuen (*Bravanteco Genovevaren bicitz arrigarri miragarria, Cristobal Schmid-ec eguiñ eta eusquerara*

itzulia), 1850ean kaleratutako gaztelaniazko bertsiotik seguruenik (Uribarri, 2006: 120)¹¹.

Bestalde, Euskal Herrian 1876an foruak galdu izanak antzinako tradizio eta ohiturekiko mina sortu zuen (Etxaniz, 1997: 52), eta testuinguru horretan idatzi zuen Antero Apaolazak 1890ean *Patxiko Txerren* nobela laburra. Truebaren *Cuentos de color de rosa* nobela hartu zuen oinarri Apaolazak; izan ere, itzulpena baino, jatorrizkoan oinarritutako euskarazko bertsiotia da. Testuinguru berean aterako du 1897an Sabino Aranak *Umiaren lenengo aizkidia. Bizkaiko euzkeraz irakurtzen ikasteko* izeneko gramatika. Liburu horretan balio eta ohitura zaharrak berreskuratzea aldarrikatzen du Aranak, eta ideia nazionalistak bultzatzen ditu. Hala, erabilitako hizkuntzan ere nabaritutako da eragina, garbizaletasunaren aldeko apustua egingo baitu; eta apustu bera egingo du garaiko hainbat euskal idazleek ere. Etxanizek azaltzen digunez,

Garbizaletasunak testuei aparteko zailtasuna eman bazien ere, haur liburuetan ez zen hain nabarmena izango hau, eta izatekotan hiztegi laguntzailea dutelarik eman zen. Hala ere, Aranaren ideologiaren ondorioz, euskal letretan ugaritze bat eman zen, baita haurrentzako eta gazteentzako liburuetan ere (Etxaniz, 1997: 57).

¹¹ Arrueren itzulpena ez dugu, hala ere, gure katalogoan sartu, zalantzak ditugulako HGL-lantzat har ote daitekeen. Badirudi Schmiden jatorrizkoa bai hartzen dela HGLtzat, baina euskarazkoari dagokionez, ez dago hain argi: Etxanizek ez du bere lanean aipatzen, eta irizpide horri eutsi diogu katalogoan sartu ala ez erabakitze orduan. Hala ere, ikuspegi deskribatzailea izanik, sartu beharrekoa litzateke akaso. Arrueren itzulpena, 1868ko lehen argitalpenaz geroztik, 1885ean, 1890ean, 1905ean eta 1960an berragitaratu zen. Beraz, arrakastasua izan zen.

Foruen galera eragin handiko gertakaria izango da euskal literaturan, horren haritik sortutako ideia nazionalisten eraginez euskal HGL berri bat sortu zelako XX. mendeko lehen urteetan, orduko eta lehenagoko obra unibertsaletatik aldentuta, bai gaien eta bai tekniken aldetik (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 13).

3.1.1.2 1900-1940

Ikusitakoak ikusita, literaturgintzari buruz ari garelarik, XX. mendearen hasiera arte itxaron behar da modernitateaz hitz egiteko: “1936ko gerra aurretik hitz egin daiteke modernitateaz euskal idazle batzuen lana komentatzerakoan” (Etxaniz, 1997: 62). Aldizkariak pisu handia izango dute, idazleen lanak argitaratzen zituztelako. Hala, 1897an Euskalzale eta Ibaizabal aldizkariak sortu ziren, eta Txomin Agirre, Kirikiño eta Urruzuno bezalakoek hartu zuten parte haietan. Dozenaren bat aldizkari sortu zen garai hartan. Bestalde, 1918an euskal kultura eta euskara bultzatzea helburu zuten bi erakunde sortu ziren: Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia. Horretaz gain, aurreneko ikastolak ere hasi ziren sortzen.

Etxanizen ustetan, horrek guztiak ez zuen bat-bateko eraginik izan euskal literaturan, baina, ordura arteko ohiko gaien ondoan, lehen gai modernoak agertzen hasi ziren. Dena den, kantitatean gertatu zen aldaketa azpimarratzen du Etxanizek:

Lehenengo ikastolak, haurraren heziketa, sentimendu nazionalistaren eta erlijiosoaren apologia, argitaletxe batzuen sorrera, eta azkenik, kanpoko lan ezagunen itzulpengintza izan ziren aukera zabala agertzearen arrazoia ia-ia ez zegoen haur liburugintzan (Etxaniz, 1997: 63).

Aipatu behar da, hala ere, Euskal Herrian gai nagusiak erlijioa eta sentimendu nazionalista zirela, eta horiek ez zetozeela bat, hain justu, nazioartean sortzen ari ziren lanen izaerekin: 1902an Beatrix Potter-en *The tale of Peter Rabbit* Ingalaterran, 1911n James Barrieren *Peter Pan eta Wendy* Eskozian; eta, horren urrutira joan gabe, aipatzekoa da Katalunian *En Patufet* haurrentzako aldizkaria sortu zutela 1904an, haurrei bideratutako kalitatezko aldizkaria.

Euskal Herrian, bien bitartean, euskararekiko eta lege zaharrekiko maitasuna helarazi nahi zuten lanak argitaratu ziren. Kristautasunak zuen pisua oso handia zen, eta, beraz, erlijioa irakastea helburu zuten lan asko aterako dira haurrentzat: Arrandiagaren *Umiak Autortuten eta Jaunartuten* 1911n, Gorostiagaren *Josu-Kristo'ren bizitza* 1931n edo P. Lafitteren *Jesu-Kristoren bizitza* 1934an.

Abertzaletasuna piztea helburu zuten lanen artean, berriz, honako hauek dira aipagarriak: J. Gauzekitzen *Margariteren ames ixukarra* 1914an, Bilbon sortu berria zen Grijelmo argitaletxean (bertan Sabino Aranaren ideien apologia egiten da); Bitor Garitaonandiaren *Ipuin laburrak umetxoentzat* 1922an; eta Tene Mujikaren *Nekane edo Neskuntzaren babesa* urte berean, 1922an (haurrentzat euskaraz egindako aurreneko antzerkia).

Euskal letretan garai honetan agertutako eta aipatzeak merezi duen beste liburua bat Evaristo Bustintza Kirikiñoren *Abarrak* da, 1918an argitaratua. European beste hainbat autorerekin gertatu moduan, liburu hori ere helduentzat egina izan zen berez, baina euskal haur eta gazteek bereganatu zuten.

Kontuan hartu behar da, bestalde, Lehen Mundu Gerraren garaian gaudela. Euskal Herrian hazkunde ekonomiko handia gertatuko da, eta are handiagoa Mundu Gerraren ostean. Etxanizi irakurtzen diogun moduan, “mundu tradizionala bere ideien eta bere izaeraren defentsan atera zen” (Etxaniz, 1997: 84).

Testuinguru horretan ulertu behar da Gregorio Mujikak 1927an kaleratutako lana: *Pernando Amezketarra*. Ildo berean, herri-ipuinak eta folklorea jasotzea helburu duten lanak aterako dira: 1929an *Dar-Dar-Dar* eta Erramun Maruriren *Txomin Arlote*; iparraldean, Jean Barbier-ek *Ixtorio mixterio* ipuin-bilduma atera zuen 1931n, eta Mayi Ariztiak *Amattoaren Uzta* 1934an.

Herri-ipuinen ondoan, helburu didaktikoa zutenak sortu ziren: alegiei dagokienez, Oxobi aipa genezake, 1926an atera baitzuen *Alegiak* izeneko lana; 1923an G. Mujikaren *Zurtasun Gogoa* daukagu; 1925ean Lertxundiren *Gauzen ikaskizunak*; eta 1929an Zamarriparen *Anayak gara*.

Testu-liburuei dagokienean, Ixaka Lopez-Mendizabal tolosarra aipatu behar dugu. Ikastolako hurrek euskaraz sortutako materiala behar zutela ikusita atera zuen, 1920an, *Umeraren laguna*, euskaraz irakurtzen ikasteko liburu bat. Baina, zalantzarik gabe, Lopez-Mendizabalen libururik ezagunena 1925ekoa da: *Xabiartxo*, hau ere euskaraz irakurtzen ikasteko.

Itzulpenei dagokienean, hasierako garai honetan, “sorkuntzan gertatzen den bezala, herri ipuinak, helburu hezitzailea dutenak edo nekazari giroko kontuak, umoretsuak, izan ziren euskaratuak” (Etxaniz, 1997: 104). Etxanizek, hala ere, O. Wilderen ipuinak eta

Tormes'ko itsu-mutila sailkapen horretatik kanpo uzten ditu, bataren poetikotasunagatik eta bestearen pikareskagatik.

Garai honetako hurrengo itzulpena, berriz, alemanezko lan batena dugu; hain zuzen ere, G. Manterolak 1929an egindakoa Christoph Schmiden ipuinena¹². Schmidek jatorrizkoa Alemanian argitaratu eta mende bat beranduago jasoko dugu geurean.

Orixek, bestalde, 1929an itzuli zuen gaztelaniatik *Tormes'ko itsu-mutila*. Pikareska generoari dagokion lana da, non mutiko baten abenturak kontatzen diren. Zalantzan ere jar liteke liburua bera HGL-lan har daitekeen ere, horrexegatik egin behar izan baitzituen Orixek egindako aldaketa guztiak. Izan ere, itzulpenaren ikuspegitik interes handiko lana dugu Orixerena, “askorentzat euskal letrek beren lehenengo laurehun urtetan eman duten idazle garrantzitsuena” baita (Etxaniz, 1997: 108). Itzulpenaren ikuspegitik interesgarria dela diogu, erabateko askatasunez jokatu zuelako; hainbeste, *Tormes'ko itsu-mutila* argitalpen elebidun batean eman baitzuen, eta, azken atalean, euskarazko itzulpena egin ondoren, euskarazko bertsioaren arabera berridatzi baitzuen jatorrizkoa¹³.

Urte berean atera ziren, 1929an, Grimm anaien ipuinei egindako bi itzulpen: Larrakoetxeak egindakoa bata (50 ipuinekoa), eta J. Altunak egindakoa bestea, 14 ipuinekin. Biak bizkaieraz egin ziren. Ikusten dugun moduan, beraz, alemanetik batere itzulpenik

¹² Esan bezala, Arruek 1868an egin zuen Schmiden Genovevaren itzulpena.

¹³ Jakak dioenez, Orixeren itzulpengintzak zerikusi gutxi zuen literaturarekin: “Idazten edota itzultzen zituen testuen helburua ez zen batere literarioa; lotuago zegoen hezkuntzarekin eta moralarekin, batetik, eta euskara jaso baten lanketarekin, bestetik” (Jaka, 2011: 211).

ez edukitzetik, urte berean (1929an) hiru edukitzera pasa ginen. Uste dugu HGL alemanak izandako oihartzunaren isla dela hori.

Garai honetan argitaratutako beste itzulpena 1932an Otxuluak egindakoa da: *Bertoldaren maltzulkeri zurrak eta Bertoldinen txaldankeri barregarriak*, Cesare Croce italiarrarena. Handik bi urtera, 1934an, Iñaki Goenagak Schiller-en *Wilhelm Tell* itzuli eta Yakintza aldizkarian argitaratu zuen 7 emanalditan.

Hasiera honetan, ekoizpenarekin gertatu zen modu berean, itzulpenak ere ez ziren asko izan “baina lehen urratsen xedea da sistema literarioa finkatzea, ahaztu gabe hainbat kasutan xedea ‘hizkuntza’ bera dela” (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 16)¹⁴.

Gerra Zibilaren aurreko garaia da hau, Espainiako HGLaren ekoizpenak loraldia bizi du eta Europan ere lan aurrerakoiak kaleratuko dira (Kästnerren lanak Alemanian, komikigintza Frantzia etab.). Euskal Herrian, berriz, “haur eta gazte literaturarako oinarriak eraikitzeke prozesua hasi bazen ere, kanpoko errealitateari so eginez gero, pobrezia handia nabaritzen da euskal letretan” (Etxaniz, 1997: 120). Izan ere, didaktismoa eta erlijioaren irakaspena ziren gurean nagusi.

Ondoren, Espainiako Gerra Zibilak (1936-1939) galera handiak eragin zituen gizarte mailan eta maila materialean, baina, horrez gainera, “euskara erabiltzea debekatzea izan zen aldi hartako

¹⁴ “Asmo hori [euskara bultzatzea] itzulpen gehienetan ageri da, eta horrekin batera, bestelako bi asmo ere sumatzen dira, bata, literatura unibertsaleko obrarik garrantzitsuenak eramatea euskara eta euskal kultura aldera, eta bestea, funtzio hezitzailea, zenbait obratan nabari dena, esaterako, Cristoph Schmid alemaniarraren ipuinak, non asmo hori besteen gainetik nabarmentzen den” (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 16).

ezaugarriak nabarmenena” (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 17). Lopez Gasenik eta Etxanizek esaten digutenez, 1948 arte ez zen argitaratu euskarazko obrarik umeei zuzenduta; eta estreinakoak erlijio liburuak izan omen ziren.

Haur eta gazte literaturan oso lan gutxi izan arren, gerorako oinarriak eraikitzen ari ziren une berean frankismoak basamortu bilakatu zuen euskal kultura, liburugintza. Hala ere, haur eta gazte liburuen produkzioa ez zen inoiz eten frankismoaren ondorengo booma arte (Etxaniz, 1997: 122).

3.1.1.3 1940-1960

Hegoaldean, Gerra Zibilak (1936-1939) eta horren ondoren Frankismoak eragindako garai iluna sufritu zuten; Iparraldean, berriz, nabariak izan ziren Bigarren Mundu Gerraren (1939-1945) ondorioak. “[...] euskal literaturak bizi izan duen garai ilunenetako bati ekin zitzaion 1940an. Garai iluna diogu, ez lanen kalitate ezagatik, liburuak idazteko eta ondoren plazaratzeko zeuden zailtasunengatik baizik” (Etxaniz, 1997: 123).

Garai hau, beraz, atzerapauso ikaragarria izan zen kulturarentzat, oro har. Etxanizek esaten digunez, Iparraldetik eta atzeritik etorriko dira argitalpenak (Argentina eta Guatemalatik, batez ere). Ematen dituen datuen arabera, 1939-1961 bitartean Katalunian HGLko 159 liburu argitaratu baziren ere, Euskal Herrian 15 besterik ez ziren argitaratu. Mundu zabalean ere gauzak ez zeuden askoz hobeto: Bigarren Mundu Gerra zela eta, Europan produkzioaren gutxitze bat gertatu zen, eta AEBetan landu zen batez ere HGLa.

Beraz, XX. mendearen hasierako joerei jarraituz, euskaraz sortuko diren liburuen artean liburu erlijiosoak dauzkagu batez

ere: 1948an *Iesu Aurraren bizitza* idatzi zuen M. Lekuonak (hegoaldean gerra ostean haurrentzat kaleratu zen lehen lana); 1949an *Haurren Eliz Liburutxoa*; 1950ean Nemesio Etxanizek *Kristau-ikasbidea bertsotan*; 1954an *Nire lehen Katichima*; 1956an *Haurren lehen Katichima*; 1958an *Kristau ikasbidea* etab. Nazionalkatolizismoak horrelako gaietara mugatzen zuen euskararen onargarritasuna, eta, hala ere, Schmid-en *Genoveva* lan klasiko ezin katolikoagoaren itzulpena debekatu egin zuten hasiera batean, ziur asko literatur lanak *dialektoetara* itzultzeko zegoen debekuaren harira (Uribarri, 2013).

Bestalde, R.M. Azkuek 1942an kaleratutako bilduma da nabarmena: *Euskalerrriaren Yakintza*. Azkuek helburu etnografikoz egindako bilduma da, herri-ipuinak eta folklorea biltzen dituen. Guztira 241 ipuin edo kontakizun biltzen dira, eta egia bada ere 500 orriko lan hori ez dela, zehazki, HGLan sartzen, geroago etorriko diren HGL-lanen oinarri bihurtu zen. Horregatik nabarmentzen du Etxanizek ere, ezer euskaraz argitaratzeko garai zaila izanagatik ere, mende eta erdi lehenago Grimm anaiek egindako lanarekin pareka zitekeena egin zuelako Azkuek (Etxaniz, 1997: 131).

Iparraldean, 40-60ko hamarkadetan argitaratuko den bakarra Jules Moulier Oxobik ateratako *Haur elhe haurrentzat* haurrentzat prestatutako poema-liburua izango da.

Espanian 1943ko zentsura-araudi zorrotza egongo da indarrean 1964 arte, zer argitara zitekeen eta zer ez zehazten zuena, eta horrek asko mugatuko du ezer argitaratzeko aukera. Hala,

Gai aldetik, tratamendu aldetik, atzera egin zuen literatur lanak. XIX. mendera itzuli zelarik. Gerra aurretik egindako aurrerapenak deuseztaturik geratu ziren; literaturaren erabilera hezitzaile-ideologikora bueltatu zen, instrumentalizaziora (Etxaniz, 1997: 135).

Europar, ordea, bestelako bilakaera izango du HGLak, 1945ean Astrid Lindgren suediarrek *Pippi Kaltzaluze* argitaratuko baitu¹⁵.

Hego Euskal Herrian, berriz, zaila zen ezer argitaratzea, eta argitaratzekotan erbestetik egiten zen. Adibidez, 1948an *Leoi-kume* atera zuen Orixek Parisen, Euskal Gobernuak hala eskatuta. Testua, ilustrazioa nahiz enkuadernaketa zainduak zituen argitalpena izan zen, eta euskarazko haur-liburugintzan zegoen hutsunea bete zuen nolabait. Aurrerago, *Mamutxak* izeneko liburua ere, Frantzia lortuko du 1962an argitaratzea, Madrilgo zentsurak, itzulpena zela eta, ukatuko egingo baitio argitaratzeko baimena. Izan ere, esan dugun moduan, oso lan gutxi argitaratu zen garai honetan euskaraz.

¹⁵ Liburua fantasiaren eta errealitatearen arteko nahasketa da, eta inkonformismoaren ideiak helarazten dituenez, HGL garaikidearen aurrekaritzat hartzen da. Euskarara 1995ean argitaratu zen Lindgrenen liburua, baina gaztelaniatik abiatuta. Katalanez ere gaztelaniatik abiatuta itzuli zuten, baina 1982an. Gaztelaniazko itzulpena 1962an argitaratu zen, baina ingelesezko bertsioetik abiatuta egin zen, eta ez zuzenean suedieratik. Zeharkakotasun bikoitz baten aurrean geundeke, beraz: "Bei der katalanischen und baskischen Ausgabe kommt es jeweils zu einer doppelten mittelbaren Übersetzung, orientieren sie sich doch an der spanischen, die wiederum über die britische auf den schwedischen Ausgangstext zurückgeht, mithin einer Art übersetzerischem Dreischritt" (Surmatz, 2005: 417). Adibide interesgarri iruditzen zaigu, aurreneko atalean aipatu ditugun bi zeharkakotasunak agertzen baitira prozesu honetan: batetik, gaztelaniazko bertsioak egindako zeharkako itzulpena (ingelesezko zubi-bertsioa erabilita), eta, bestetik, euskarara itzultzean egondako zeharkakotasun diglosikoa (zubi-bertsioa gaztelania delako).

Hala, itzulpenean ere nabaritu zen lan kopuruaren jaitsiera. Dena den, egin ziren itzulpenen artean nabarmentzeko bat Bingen Ametzagak itzulitako *Platero ta biok* dugu, 1953an argitaratua, baina, hura ere, erbestean, Montevideon.

Gerra osteko zapalketa 1952an zertxobait arindu zela aprobetxatuta, 1951n Katalunian *L'Infanntiel* aldizkaria sortuko da, eta 52an Zarauzko Itxaropena argitaletxean Kuliska sailari eman zitzaion hasiera Plazido Muxikak egindako *Noni eta Mani* Svensson-en liburuaren itzulpenarekin (erlijioa irakasteko liburua), eta, handik urte batzuetara, Muxikak berak Franz Weisser-en *Mendiko Argia* atera zuen sail berean. Esan behar da, Zarauzko Itxaropenak aipatu bildumari ekiteak berebiziko garrantzia izan zuela, hurrengo bi hamarkadetan euskaraz argitaraturiko lan gehienak kaleratzeko bidea eman baitzuen. Itxura denez, Espaniako propagandako arduradunak Zarautzen egiten zituen oporrak, eta arduradun horri harrera ona egin zitzaiolako eta hura konbentzitzea lortu zutelako argitaratu ahal izan zituen Itxaropenak, garai hartan, hainbat itzulpen (Uribarri, 2013).

1953an Yon Etxaidek *Purra Purra* umore-liburua argitaratuko du, eta, nolabait, gerra aurreko Fernando Amezketarraren ildo berari jarraituko dio.

1958an Jose Antonio Loidik *Amabost egun Urgain'en* aterako du. Hori izango da lehen euskal nobela poliziakoa. Euskaltzaindiak antolatutako lehiaketan aipamen berezia irabazi zuen nobelak; izan ere, 50. hamarkadan euskal kultura bultzatzearen hasi zen halako sariak antolatzen Euskaltzaindia. Etxanizek dioenez, nobela horrek euskal HGLan errotuta zeuden topikoak hausteko balio izan zuen.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da umorea eta istorio barregarriak zirela nagusi Euskal Herrian. Horrela, aurretik atera zuen *Purra Purra* liburuaren haritik, *Pernando Plaentxitarra* atera zuen 57an Yon Etxaidek. Beste bi umore liburu ere aterako dira 59an: Felix Bilbaoren *Ipuin barreka* eta Juan San Martinen *Zirikadak*.

Aipagarria da haurrentzat euskaraz idatziko den aurreneko aldizkaria 1959an sortuko duela Felipe de Murietak. *Umeen deia* izenburupean atera zen, eta 7 urtez iraun zuen. Dena den, Etxanizek esaten digunez, aurreneko aldizkari hark ez zuen berrikuntzarik ekarri euskal haur-liburugintzara, ez baitzen idazle berriak edo ilustratzaileak trebatzeko edo beren lanak plazaratzen hasteko plataforma bihurtu. Are gehiago, euskara eta erlijioa lotu zituen berriro ere Murietak (Etxaniz, 1997: 163).

3.1.1.4 1960-1980

60ko hamarkadan askatasun apur bat gehiago lortu zen estatu espainolean. Mundu mailako egoera ekonomikoak gora egin zuen, eta, besteak beste, pedagogian gertatzen ari ziren berrikuntzen eraginez, Euskal Herrian ere gero eta presentzia handiagoa lortu zuen HGLak. Horretan eragin nabarmena izango du 1962an *dialektoetara* egindako itzulpenen debeku orokorra amaitzeak. Hego Euskal Herrian ikastolak hasi ziren sortzen, nahiz eta, onartuak baldin baziren ere, ez ziren legeztatuak izan. Nolanahi ere, ez zeukaten material didaktikorik batere, eta horrek euskaraz sortzera bultzatu zuen hezkuntzan lan egiten zuen jendea.

Etxanizek esaten digunez, gai aldetik aurrerapen txikiak izan ziren HGLan. Kantitateari dagokionez, berriz, haurrentzako liburuak geroz eta gehiago hasi ziren sortzen: 60ko hamarkadan

oraindik ere banaka batzuk argitaratu ziren, baina 70eko hamarkadan nabarmena izan zen HGLaren ugaritzea, estatu espainolekoaren parekoa.

Etxanizek azpimarratzen dituen garai honetako euskal lanak honako hauek dira: batetik, 1962an Joxe Migel Barandiaranek ateratako *El mundo en la mente popular vasca* herri-ipuinen bilduma. Azkuek egindako bildumarekin bezala, Barandiaranek lan hau ez zuela haurrentzat egin dio Etxanizek, baina, gerora, lan honetatik abiatuta osatu direla hainbat ipuin; Grimm anaiek ikerketa filologikoa zena HGL bihurtu zen moduan, Barandiaranen lan etnografikoa ere HGL bihurtu omen da (Etxaniz, 1997: 168). Bestetik, Julene Azpeitia zumaiarraren lanak: *Amandriaren altzoan* herri-ipuinak, 1954ko Euskaltzaindiaren lehiaketa batean bigarren gelditzeagatik 1961ean kaleratua, eta, aurrerago, *Zuentzat*, 1974an plazaratua. Gainerakoan, Minaberry izango da, garai honetan, haurrentzat idatzi zuen idazle garrantzitsuenetako bat: 1963an aterako du *Itchulingo anderea* eta, 1965ean, *Xoria kantari*. Aitzindari izandako beste egile bat Jean Etchepare Landerretche izan zen. Haren lanik aipagarriena 1963an ateratako *Mendekoste gereziak eta beste* ipuin-bilduma.

Itzulpenei dagokienean, EDILI argitaletxe donostiarrak 12 ipuin klasiko argitaratu zituen 1962-64 bitartean, Yon Oñatibiak euskaratuta, besteak beste, Grimm anaien kontakizunak. Ipuinen aldaerak izango dira, haurrentzat egindako egokitzapenak, alegia. Bestalde, Juan Anjel Etxeberriak Perrault-en ipuin ezagunak itzuli zituen 1965ean, eta, 1969an, Hans Christian Andersenak. Aipatzekoa da, baita ere, M. Ugaldek, euskal literaturarekiko zuen kezka zela eta, 1966an kaleratu zuen lana, *Umeentzako kontuak*,

berak idatzitako 3 ipuinek eta 6 itzulpen edo egokitapenek osatua; lan horrek haurrengan euskara bultzatzeko helburua zuen. Bestalde, 1968an Plazido Mujikak Weiser-en *Mendiko argia* itzuliko du, eta horrek frogatzen du jesuiten zirkuitu bat egon zela, Mujikak berak Svensson jesuitaren *Noni eta Mani* ere itzuli baitzuen 1952an.

Esan dugun moduan, Gerra Zibilaren osteko aldaketa gertatuko da garai honetan, baina, zehaztu beharra dago, Euskal Herrian astiro etorriko dela aldaketa. Katalunian, esaterako, Gerra Zibilak bere eragina utzi bazuen ere, ez zen gurean bezalako atzerapausorik gertatu. Etxanizek ematen dituen datuen arabera, 1939 baino lehen 2.221 liburu zeuden haurrentzat argitaratuak, eta 1960an gertatu zen benetako aldaketa (gurean 80an gertatuko dena). Hala, 60ko hamarkadan HGLko aldizkariak sortu ziren eta, 1963an, HGLko adituak elkartuko dituen La Galera argitaletxea. Gurean, 80ko hamarkada arte ez da sortuko La Galera bezalako argitaletxe aurrerakoirik (Erein eta Elkar). Aipatzekoa da, halaber, La Galerak estatuko beste hizkuntzatan ere argitaratuko duela; hala, 1966an Oyalzabal saila hasiko da euskaraz.

Hego Euskal Herrian, 1967an N. Etxanizek *Lur Berri billa* aterako du. Genero asko landuko ditu bertan, batez ere poesia eta kanta, eta, ondorioz, korrante berriak ekarri zituen euskal HGLra. Hala ere, Euskal Herrian umoreak eta egoera barregarriek jarraituko dute nagusi, zerbait entretenigarria egin eta irakurlea harrapatu nahi zelako. Horren adibide, 60ko hamarkada amaieran, *Oto ta pototo. Irripar egizu*. Umorezkoak ez ezik, baserri giroa islatzen duten lanak aterako dira oraindik ere, 1972an Etxaburuk ateratako *Txolintxu*, esaterako.

Umorea, baserri giroa, herri ipuinak... etengabe errepikatzen diren elementuak ditugu gure haur eta gazte literaturan. Haurren mundura hurbiltzeko modu egokiena izango delakoan edo, ipuin, giro, horiexek erabiltzen dituzte idazleek, helburu estetikoari baino gehiago irakurgai ezari erantzutea edo horrelako testuen bidez beren ideiak islatzea bilatzen dutelarik (Etxaniz, 1997: 193).

1965-1970 bitartean aldaketak gertatu ziren euskal gizartean: *Ez dok amairu* sortuko da (1966), *Zeruko argia* (1963) eta *Jakin* (1977) aldizkariak, euskara batua sortuko da, alfabetatze-prozesuari ekingo zaio, ikastolak sortuko dira, Durangoko euskal liburuaren eta diskoen azoka etab. Dena den, bereziki erabakigarria Euskaltzaindiak Arantzazun 1968an egindako bilera izango da.

Beraz, argitaletxe asko eta asko sortuko da urte hauetan: 68an SGEP, 69an Lur eta Etor (ondoren Gero izena hartuko du, eta, gero, Erein), 71n *Jakin*, 72an *Iker*, 73an *Elkar*, 74an *Kardaberaz*, 75ean *Kriselu* etab. Gainera, HGLko sailak ere sortu ziren, hala nola Mensajero argitaletxearen *Kimu saila*, edota 1973an eta 1974an *Cinsa* argitaletxean ateratako haurrentzako liburuak (hainbat kasutan haurrek eurek ilustratuak).

Bestalde, garai honetako lan aipagarrienetako bat *Amaia* izango da, Gero argitaletxeko *Kimu* sailean argitaratua eta 1975ean Iñaki Azkunek eta J.M^a Arrietak gaztelaniatik itzulita (jatorrizkoa Navarro Villosladak idatzi zuen, 1879an). Nobela historiko bat da, Euskal Herriaren irudi erromantiko bat emanez herri kontzientzia sortzea duena helburu.

1975ean Frankismoa amaituta, izugarrizko zabaltzea gertatu zen: 79an elebitasun dekretua atera zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat bihurtu zen euskara;

ikastoletako matrikulazioak izugarri egin zuen gora, eta, ondorioz, asko igo zen euskaraz idatzitako material-eskaera. Bertako argitaletxeek 80ko hamarkadan erantzun ahal izan zioten bat-bateko eskaera horri, baina, bitartean, kanpoko argitaletxeek edo normalean euskaraz aritzen ez zirenek ere erantzun behar izan zuten, eta kanpoko lan asko itzultzen hasi ziren. Hala, Maves Bilboko argitaletxeak (normalean gaztelaniaz aritzen zenak) Loto sorta atera zuen, klasikoen itzulpenekin, eta, 78an, Mirari sorta atera zuen.

Komikigintzan ere lehen pausoak emango dira 70ean: Iruñeko Etorkizuna argitaletxea hasiko da horretan, baita Etor argitaletxea ere. Mensajerok, esaterako, *Tintin* argitaratuko du. Hurrei bideratutako aurreneko euskarazko aldizkariak ere garai honetan sortu ziren: 78an Ipurbeltz eta 79an Kili-kili (azken hori 1966an sortu zen lehen aldiz, baina sortu eta berehala debekatu zuten; 79an kaleratu zuten berriro).

Sorkuntzan gorakada bat ezagutuko bada ere, garai honetako ezaugarri nagusietako bat itzulpena izango da. Izan ere, itzulpenen bidez geureganatu ditugu hainbat korronte aurrerakoi. Hala, Cinsa argitaletxean *Gazteriaren Literatur Altxorra* bilduma aterako da 74an (Bernardo Atxagak *Robinson Crusoe* itzuli zuen, Mendigurenek *Heidi*); Mensajerok Kimu bilduma atera zuen 76an (aurreneko itzulpena, Schiller-en *Gillen Tell*, Setienek egina); Hordago argitaletxeak Tximista saila atera zuen 1979an eta, hor ere, hainbat itzulpen lan argitaratu ziren 1981ean itxi zen arte.

Itzulpenez gain, ikastoletarako euskarazko materiala sortzen jarraitu zen: 74an *Haur kantarien birlorak* atera zuten Zarauzko

ikastolan irakasle zebiltzan Lertxundik, Ormazabalek eta Elexpuruk; 75ean Iriondok *Asto baten maura* umorezko ipuina; 74an Albisuk *20 ipui eta... antzerkitxo bat ikastolarako*.

Garai honetako argitalpenek duten ezaugarri esanguratsu bat hiztegitxoen erabilera da: testuen ulermena bermatzeko orrialdean bertan edota atzealdean emandako sinonimoak. Kontuan hartu behar da euskalgintzan denbora laburrean pauso handiak eman baziren ere, euskararen normalizazioa hastapenetan baino ez zegoela, pertsona asko euskaraz alfabetatu gabeak baitziren; euskaraz idazterako garaian konbentzioak falta ziren, eta irakurleek konbentzio horiek ezagutzea. Hiztegiaren erabilerak, beraz, agerian uzten du 80ko hamarkadan normalizatu gabeko hizkuntza zela euskara.

3.1.1.5 1980tik gaur egun arte

Aldaketa handien garaia izango da honako hau. Etxanizek berak ematen dituen datuen arabera, 1974an 27.000koa izango da haurren matrikulazio kopurua, baina, 1980an, 65.000koa izango da (Etxaniz, 1997: 243). Beraz, ikastoletako haur-matrikulazioaren igoera nabarmena izango da, baina, gainera, gogoratu behar dugu elebitasunaren legea sortua zela, eta horrek esan nahi zuen EAEko haur guztiek ikasi behar zutela euskara, maila batean edo bestean. Argitaletxeak lan handia egiten hasi ziren, eta Eusko Jaurlaritza dirulaguntzak ematen.

1980az geroztik Elkar eta Erein argitaletxeek HGLa bultzatu zuten, eta egun ere horretan dihardute. Erein argitaletxeak, gainera, 1979an Ipurbeltz aldizkaria sortu zuen, haurrentzako aldizkaria. Bi argitaletxe horietan hasiko dira lanean, besteak beste,

B. Atxaga, M. Landa, A. Lertxundi eta J. Ormazabal. Argitaletxe gisa, Elkar eta Erein ezinbestekoak izan ziren euskal HGLan, kanpoko argitaletxeak itzulpen soila egitera mugatzen baitziren, eta beste hauek bertako produkzioa bultzatu zuten bereziki (Etxaniz, 1997: 150).

Urte hauetan, beraz, nabarmena izango da aurrerapena, euskal HGLa inguruko sistemen pare jarriko baita, ez liburu kopuruari dagokionez, edo kanpora esportatutako kopuruari dagokionez, baizik eta literatur mailari dagokionez: HGL duina eta kalitatezkoa eskaintzeko esfortzu handia egingo da, estilo berriak landuz etab. "Aldaketa kuantitatiboak baina batik bat kualitatiboak gertatu baitziren" (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 25).

Hala ere, HGLaren ekoizpen kopuruak berak ere nabarmen egin zuen gora. Etxanizek dioenez, 60ko hamarkadan 40 liburu inguru atera ziren, 1980. urtean 77 eta 1984an 145. Beraz, 1980ko datutik 1984korako jauziari erreparatuta, lau urtean bikoiztu egin zen ekoizpena. Igoera horrek ez du inoiz parekorik izan Euskal Herrian:

Gutxi edo ezer gutxi, hots, liburu dozena bakan batzuk argitaratzetik urtean 300 bat obra argitaratzera igaro zen; eta euskarazko liburuen produkzioan hazkunde horrek urtez urte iraun zuen. [...] XXI. mendean, berriz, 350-400 liburu argitaratu izan dira urtero, gorabehera txikiekin, baina produkzioa liburu kopuru horietan mantenduz (Etxaniz, 2011: 24).

Jorratuko diren gaietara dagokienean, fantasia eta errealismoa dira azpimarratzekoak narratibaren barruan. Hala ere, bi genero zabal horien barnean, hainbat gairen araberrako sailkapena egin daiteke.

Fantasiaren alorrean, esaterako, jarraitu egingo da herri-
ipuinak ekoizten, nahiz eta kanpoko klasikoak ere ekarriko diren
(1990ean, adibidez, Grimm-en ipuinak argitaratuko ditu Gero
argitaletxeak). Argitaletxeek liburuxkak aterako dituzte herri-
ipuekin (Anayak Sagutxu saila 80an, Elkarrek Txalupa 83an,
Ereinek Titare magikoa 88an etab.). Euskal Herriko ipuekin
egindako bilduma dugu, esaterako, 80-83 bitartean J. M^a
Satrustegik ateratako Oinarri saila; argitaratzailea Gipuzkoako
Ikastolen Elkartea izango da, ikastolen beharrei erantzuteko
egindako bilduma delako. Elkarrek Axut saila hasi zuen 80an,
Barandiaranek bildutako ipuinetan oinarrituta, eta 82an Sorgin
saila, helburu berarekin baina irakurle helduago batzuentzat.
Ereinek, bere aldetik, *Euskal Leiendak* izeneko 5 liburu kaleratu
zituen 88an.

Bestalde, fantasiaren barruan baina errealismo fantastikoa
jorratzeko, kanpoko erreferentzietatik edango du euskal HGLak.
Hain zuzen ere, “euskal haur literatur modernoaren hasierak
errealismo fantastikotik etorri ziren 80ko hamarkadan” (Etxaniz,
1997: 258). Hala, errealismo fantastikoa lantzen hasiko diren
egileak ditugu A. Lertxundi (81ean *Tristeak kontsolatzeko makina* eta
82an *Gizon kabalen piurak*) eta B. Atxaga (*Nikolasaren abenturak eta
kalenturak* eta *Ramuntxo detektibea* 80an, eta, 82an, *Chuck Aranberri
dentista baten etxean*). Kanpotik ekarritakoen artean dauzkagu: G.
Rodari (*Tarta hegalaria*, 88an), M. Ende (*Momo*, 88an) eta R. Dahl
(*Matilda*, 93an).

Fantasiaren alorrean, zientzia fikzioa izango da euskaraz
gutxien landuko dena. Jules Verne-aren nobelen itzulpenak izango
ditugu, eta bertako sorkuntzako zerbait edukitzeko 90 arte itxaron

beharko da, orduan argitaratuko baitu Jesus Mari Olaizola Txilikuk 2.061: *antzinako kronikak*, eta 92an *Shangai Tom espazioko zaindaria* Joanes Urkixok. Dena den, ez dira lan sinesgarriak izango, eta, gainera, zientifikotasun gutxikoak dira (Etxaniz, 1997: 264). Beraz, itzulpenen bitartez sartuko da zientzia fikzioaren generoa: 91ean, Gudrun Pausewang-en *Hodeia* edota, 98an, Rodariren *Tarta hegalaria*.

Narratibaren barruko bigarren joera zabalean, errealismoan, honako gai hauek bereizten ditu Etxanizek bere lanean:

Abentura. Itzulpenen bitartez ekarritako generoa. Elkar argitaletxeak 79an hasi zuen Itzul saila Jules Verne-aren nobela batekin, eta Literatura Unibertsala sailean klasiko batzuen itzulpen zainduak argitaratu ziren: 91ean, esaterako, Stevenson-en *Altxor uhartea*. Bertako ekoizpena ere egongo da, esate baterako, 82an Elkarren Perkax sailean argitaratuko du I. Zubeldiak *Euskaldun bat martena*, edo 94an Aingeru Epaltzak *Lur zabaletan*.

50eko hamarkadan, Enid Blyton-en eraginez, lagun-taldeek bizitako abenturak ugarituko dira. Erich Kästner-ek 1928an hasi zuen dagoeneko genero hori *Emilio eta detektibeak* eleberriarekin eta gerora ere 88an S.E. Hinton-en *Errebeldeak* aterako da etab., baina bertako ekoizpenean 83arte itxaron beharko da, A. Sarriegik *Kabri* kaleratzen duen arte. Liburu horretatik aurrera ugarituko dira euskaraz sortutako lagun-taldeen abenturei buruzko liburuak.

Umorea. Euskal HGLan garai guztietan egon da umorea (irakurle gazteak irabaztearren), baina ipuin eta gertakari xelebreen bitartez kontatu izan da beti, esate baterako, 84an argitaratutako *Pottoko*, P. Añorgarena. Itzulpenen artean ezagunenak, Goscinn-

ren *Nikolas txikiren abenturak*, edota 95ean itzulitako R. Dahl-en *Atzekoz aurrera hitz egiten zuen apaiza*.

Nobela istorikoa. 80ko hamarkadan gutxi landu zen gaia. J. M^a Arrietak *Landetaratuak* atera zuen 85ean, eta Mendigurenek *Iparragirre* biografia 81ean.

Nobela poliziakoa. A. Lertxundiren *Madame Kontxexi-Uribe Brigada & Detektibe* da aipagarrienetakoa.

Errealismo kritikoa. Genero honetan egindako sorkuntzak jarriko du euskal HGLa kanpoko sistemen parera. 1982an *Txan fantasma* idatzi zuen M. Landak, bakardadeaz, helduekiko harremanen zailtasunaz, ulertezintasunaz etab., Ch. Nöstlinger edo Kataluniako Mercé Company-k egindako ildo psikologiko beretik. Beraz, liburu horrek haustura eragin zuen euskal HGLan. Modernismoa ekarri zuen, eta hainbat izango dira gai hori landuko duten idazleak; hala ere, M. Landak idatziko du gehien barne-arazoei buruz.

Barne-arazoen gaia da errealismoaren barnean gehien landutakoa, baina euskarara –M. Landaren sorkuntza aitzindaria salbuetsita– batez ere HGL alemaneko itzulpenen bidez ekarri dugu: Peter Härtling-en *Txirbel* (83), Günther Feustel-en *Nino suerte bila* (83), Wölfel eta Hetmannen *Soro berdeak, soro grisak* eta *Futboleko botak*, Rutgersen *Argi galdua* (89), Sue Townsenden *Adrian moleren egunkari ezkutua* (92).

Gainerakoan, desmilitarizazioaren gaia ukitu da zenbait sortze-lanetan, Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* lanean (91), esaterako. Hala ere, nagusienetako bat arlo honetan Rodariren *Tarta hegalaria* da. Ekologiari dagokionez, 81ean Mercé Canelaren

Norena da basoa? aipatu behar da, Xabier Monasterioren *Ipuin naturalak*, 91ean Gudrun Pausewang-en *Hodeia*, edo 93an Agustin Fernandez Paz-en *Lore erradiaktiboak*.

Familiaren gaia ere itzulpenen bidez landu da euskaraz; dibortzioaren gaia, esate baterako: 92an Kästner-en *Lotte eta Luisa* argitaratu zen, 94an Margaret West-en *Aitaren bila*, baina, batez ere, 92an Nöstlinger-en *Konrad edo kontserba poto batetik atera zen haurra*. Azken liburu horrek, eta, oro har, egileak, hankaz gora jarri zuen familia-egitura tradizionala. Alemanetik itzulita iritsi zaizkigu, baita ere, haurren eta aiton-amonen arteko harremanak jorratzen dituzten liburuak: 90ean Nöstlingerren *Amona maite zure Susik*, 83an Härtlingen *Amona* eta 90ean Achim Brögerren *Amona eta biok*. Bertako sorkuntzari dagokionez, Gasenik 93an argitaratu zuen *Jaun agurgarria*.

Pobreziaren gaia landu dituzten liburuen artean, 84an Atxagak argitaratutako *Bi letter* eta 94an P. Zubizarretak idatzitako *Eztia eta ozpina* dira aipagarriak.

Maitasunaren gaiaren hastapena Härtling-ek idatzitako *Benek Ana maite du* 90ean itzuli zenean koka daiteke, baina Patxi Zubizarreta izan zen bertako lehen idazlea nerabeen arteko maitasun-istorio bat kontatzen, 1994an kaleratutako *1948ko uda* liburuan. Geroztik, liburu askotan landu da maitasunaren gaia.

Askatasunaren gaia jorratuz kaleratu zuen 81ean M. Landak *Amets uhinak* eta 83an Ormazabalek *Margolin*, baina zapalketa eta injustizien berri itzulpenen bidez iritsi zaigu: Judith Kerr-en *Hitlerrek untzi arrosa lapurtu zuenean* (1988), Inge Auerbacher-en *Izar*

bat naiz (95), Urs M. Fiechtner-en *Anaren historia* (94), M. Enderen *Momo* (88) edota Reiner Zimmik-en *Garabia* eta *Danborrariak*.

Oro har, errealismoa landu duten liburu asko eta asko idazten dira gaur egun. Izan ere, errealismoak ekarri zuen modernitatea euskal HGLra (Etxaniz, 1997: 306). Azpimarratu nahi genuke, hala ere, errealismoaren korrontean, eta, beraz, euskal HGL modernoaren eraikuntzan, HGL alemanaren itzulpenak eragin handia izan duela; hala frogatzen dute azken atal honetan zerrendatutako lanetako askok.

3.1.2 *Euskal HGL-sistema*

Lopez Gasenik eta Etxanizek ziurtatzen dutenez, “70eko urteetan nekez abiatuta eta 80ko hamarkadako bultzada instituzionalari esker indartuta, 90eko hamarkada jo ahal izan dugu euskal HGLaren behin-betiko finkatzearena” (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 9). Hori frogatze aldera, plazaratutako liburu kopuruari dagozkion hainbat datu ematen dituzte: 1900 eta 1960 bitartean haurrentzako 35 liburu kaleratu omen ziren; 60ko hamarkadan, 44; 70ekoan, 242; 80koan, 1.477; eta 90ekoan, berriz, 2.962.

Hala ere, kantitateari ez diote hainbeste erreparatzen. Ordura arte falta zen aldaketa gertatu, eta literatur sistema osatzen duten elementuak finkatu zirela diote, eta horixe izan omen da euskal HGL-sistema osatzeko garaian eragile nagusia: “[...] euskal haur- eta gazte-literatura, bere historian lehenbiziko aldiz, 90eko urteetan sistema oso baten gisa agertzea eta finkatzea, horretarako beharrezko dituen osagai guztiak bereganatu dituelarik” (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 40). Beraz, osagai guztiak dituen sistema

osoaz hitz egiten dute Lopez Gasenik eta Etxanizek, baina, nondik begiratzen den; aurrerago deskribatuko dugun HGL-sistema alemanarekin alderatuta, adibidez, euskal HGL-sistemaren osotasuna ez bailitzateke hain argi geldituko.

Edonola ere, sistemaren osaera 90eko hamarkadan gertatu dela defendatzen dute bi adituek, eta sortu den sistema benetan bizia dela. Etxanizek berak berriki egin duen azterketan esaten duenez, HGLaren sistema gehiago aldatu baita “azken 30 urteotan aurreko 400etan baino” (Etxaniz, 2011: 80).

Lopez Gasenik eta Etxanizek euskal HGL-sistemaz hitz egiten duten arren, atal honetan ahalik sakonen aztertu nahi dugu sistema hori nolakoa den. Izan ere, Euskal Herriko literatur sistema konplexua da oso. Badirudi jakintzat ematen dela osagai guztiak dituzten sistema osoak direla, bai euskal literatur sistema, eta, horren barruan, baita euskal HGL-sistema ere. Hala ere, gorago aipatu ditugun Etxanizen eta Lopez Gaseniren hitzak gogoratu nahi genituzke, bi ikertzaileek berek dioten moduan, bultzada instituzionalari esker indartu baitzen 80ko hamarkadan euskal HGL-sistema deiturikoa. Laguntza eta bultzada behar izan baditu, hizkuntza eta kultura gehiagoren ondoan bizi garelako da, gurea baino indartsuagoak diren hizkuntza eta kulturen ondoan, hain zuzen ere. Euskal literatur sistema bat egongo da, baina ez dago bakarrik: gaztelaniazko literatur sistema dago hegoaldean eta frantsesezko literatur sistema iparraldean. Galdera litzateke, beraz, zer kokaleku duen euskal HGL-sistemak gaztelaniazko eta frantsesezko HGL-sistemekiko: sistema beregaina den, nahiz eta txikiagoa izan, ala menpekoa den; bere horretan funtzionatzen duen ala besteen barnean kokatzen den. Gizartea bera elebakarra

ez den unetik, garbi dago euskal HGL-sistema beste HGL-sistemekin batera bizi dela, eta, beraz, sistemak dinamikoak diren heinean, ukaezina dirudi elkarri eragingo diotenik. Hori guztia kontuan hartu nahi dugu orain, euskal HGL-sistemaren egoera aztertu nahi dugun honetan.

2005eko lanean, Lopez Gasenik eta Etxanizek Itamar Even-Zoharrek deskribatutako polisistemako elementuak aztertu zituzten banan-banan, betiere 90ean osatutako euskal HGLaren sistema aintzat hartuta. Ondoren, 2011n, euskal HGL-sistemaren deskribapen hori eguneratu egin zuen Etxanizek. Euskal HGLaren aberastasuna eta bizitasuna egiaztatzen zituen, nahiz eta gabeziak eta arazoak ere haintzat hartzen zituen (Etxaniz, 2011: 81). Azterketa horietatik abiatuko gara gu ere, nahiz eta ohar eta zehaztapen batzuk gehituko ditugun. Zehaztapen horiek ez ditugu egingo euskal HGL-sistema beste literatur sistemekin batera bizi delako bakarrik, baizik eta, aldi berean, itzulpenak duen pisua azpimarratu nahi dugulako. Itzulpenen ezinbestekotasuna ikertzaileek eurek ukatzen ez duten zerbait da, baina sistemaren azterketa egitean ez dirudi euskal HGL itzuliari –sistemako eragile den azpi-sistema gisa– merezi duen arreta eskaintzen zaionik. Beraz, eta euskal HGL-sistemaren konplexutasun osoa kontuan hartuta, polisistemako elementuak aztertzeari ekingo diogu.

Kontsumitzaileak/Irakurleak

Kontsumitzaile potentzialen kopuruak gora egin du urtetik urtera, eta bereziki EAEn, Eusko Jaurlaritzak 1979an elebitasun dekretua bultzatu zuenetik. Gauza jakina da, hala ere, Nafarroan ere geroz eta gehiago direla D ereduan matrikulatzen direnak.

Iparraldean, ordea, atzeraka doa euskara. Edozein modutan, HGLa kontsumi dezaketen irakurle potentzial multzo handia dugu.

Beste kontu bat da zer kontsumitzen duten gustukoen irakurle horiek, zein den beren ulermen maila etab. Gai horri dagokionez, ikerlan bakarra aipatzen dute Lopez Gasenik eta Etxanizek: Mari Jose Olaziregik 1998an argitaratutako *Euskal Gazteen Irakurzaletasuna*.

Nolanahi ere, baikor agertu ziren bi adituak 2005ean euskal HGL-irakurlearen inguruan:

90eko hamarkadan zehar lortu dugu «irakurle homologatua» izatea (esaterako, liburuetan hiztegitxoek beharrik gabe ibiltzen dena, ez Sor eta Itzul sailtako hasierako liburuetan gertatzen zen bezala) [...], gai, estilo eta genero ezberdinen artean aukera egin dezakeen irakurlea (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 41).

2005ean irakurle homologatua lortu genuela adierazi arren, 2011ko lanean kezka nagusia, hain zuzen ere, irakurleak sortzen duela aitortu zuen Etxanizek: “Nork, zergatik, zenbat eta zer irakurtzen duten. Lortu al dugu euskal irakurle hezia?” (Etxaniz, 2011: 87). Aldi berean, ordea, gazteek irakurri irakurtzen dutela dio Etxanizek: Euskadin 6 eta 14 urte bitarteko haurren % 87,9k astero hiru ordu baino gehiago pasatzen omen dute eskola-liburuak ez direnak irakurtzen (Etxaniz, 2011: 89). Bestalde, itzulpenak ere modu arruntean kontsumitzen direla dio:

Adibide xumea da baina gaur egun nahiko modu arruntean argitaratzen diren Cornelia Funkeren liburuak, edo Harry Potteren 900 orriko liburuak, gazteentzako 550 orrialdeko Eragon nobela eta abar pentsaezinak ziren euskal merkatuan duela 20-30 urte (Etxaniz, 2011: 89).

Baikor pentsatzeko datuak ematen dituzten arren, arazoa irakurle kopuruan dagoela azpimarratzen dute, eta kopuru horrek zer nolako mugak jartzen dituen apustuak, proiektuak, proposamenak, aurrera eramateko orduan (Etxaniz, 2011: 89). Gure ustez, interesgarria litzateke baita ere jakitea zein hizkuntzatan irakurtzen duten euskal irakurleek. Izan ere, ez dago euskal elebakarra den irakurlerik, eta, beraz, norberak egiten duen hautuaren arabera da: euskaraz irakurri ala beste hizkuntza batean. Hautu hori, hala ere, ez dago beti aukeran, zenbait lan ez baitago euskaraz eskuragarri, soilik gaztelaniaz. Hori bereziki nabarmena da, esaterako, haurrei bideratutako filmeen eskaintzan. Hori guztia kontuan hartzekoa da interesgarria delako jakitea zein hizkuntzatan eraikitzen duten gazteek beren errepertorioa. Era berean, itzulpenak modu arruntean irakurtzen direla aipatzen dute, baina ondo legoke datu zehatzagoen berri edukitzea eta jakitea, esate baterako, produktu bera gaztelaniaz eduki arren, eta eskura lehenago eduki arren, euskal irakurleak euskarazko itzulpena hautatzen duen.

ekoizleak

Euskal HGLaren finkatzea gertatu den hamarkadan, ekoizleak (idazleak, itzultzaileak eta ilustratzaileak) ugaritu eta profesionalizatu egin omen dira. Profesionalizatu diren idazle bakanen kasuan, esan behar da, hala ere, helduen literaturako idazleak eta HGLkoak berberak izan ohi direla. Beraz, ez da generoaren bereizketarik egiten. Mariasun Landa izan liteke HGLan maila profesionalean berezitu den euskal idazlea. Gainerakoan, Bernardo Atxaga, J.K. Igearabide, P. Zubizarreta, A. Lertxundi bezalako izenak dauzkagu; lehen esan bezala, HGLko

egileak eduki baditugu, baina helduentzako literaturan ere aritzen dira. Azpimarratu nahi genuke, aldi berean, euskaraz sortzen ibiltzen diren idazleetako batzuek gaztelaniaz ere sortzen dutela, eta, aldi berean, sorkuntzan soilik ez, itzultzen ere aritzen direla. Era berean, literaturan profesionalizatu direnak badira, baina, HGLari dagokionean, zuzenean generoan hasitakoak dauzkagun arren, badauzkagu generora tarteka edo zeharka iristen direnak ere.

Ekoizleen helburu nagusia, hala ere, literarioa da. Gogoratu behar baita, sistema sortu gabe zegoen hamarkadetan bestelakoa zela helburua; alegia, euskara garbian idaztea edo euskaraz idatzitako zerbait izatea zen lehentasuna. Errepertorioa osatzea zuten helburu. Sistema osatuta dugun honetan, ordea, ekoizleek bestelako kezak dituzte. Are, gaur egun, experimentalismorako joera sumatzen da, eta, albumen arloa, adibidez, bereziki sustatu da azken urteotan (Etxaniz, 2011: 91).

Lopez Gasenik eta Etxanizek ematen dizkiguten datuei erreparatuta (2005: 42), 22 idazle ditugu hiru obra baino gehiagorekin (98an argitaraturiko katalogoan oinarritu dira). Bestalde, Euskal Idazleen Elkarteko 50 idazlek baino gehiagok idatzi du HGLa. Idazleen berri ez ezik, ilustratzaileen berri ere ematen digute: beste 22 omen daude. Horiei, jakina, azken urteotan gehitu zaizkien profesional berriak gehitu behar zaizkie. Dena dela, eta idazle zein ilustratzaileen berri ematen badute ere, ez dute itzultzaileen kopururik ematen. Etxanizek, bere azken lanean, ekoizleen artean sartzen ditu itzultzaileak, baina aipamen laburra egiten die, eta ez du daturik ematen. Galtzagorri elkarteko datu-basean ikusita, 15 itzultzaile aurkitu ditugu, 59 idazle eta 41

irudigile. Datu base horretan agertzen direnak elkarteko bazkide egindakoak dira. Horrek esan nahi du bertan izena emandakoak baino gehiago ere egon daitezkeela akaso. HGLa, beraz, literatur genero erakargarria da, batez ere merkatuan daukan pisua dela eta, ikusiko dugun moduan.

Barneko eta kanpoko merkatua

Aldaketarik aipagarrienetariko bat eremu honetan gertatu omen da, merkatua sendotzea lortu baita. Oraindik ere Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen badu ere, eta liburutegiek ale kopuru baten erosketa ziurtatzen badute ere, “nabarmena da euskarazko HGLak duen erakarpena, erakarpen ekonomikoa, alegia” (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 44).

Bestalde, merkatuari begira egindako azken ikerketan, euskal komunitatea bere horretan mantendu dela ikusi da, eta “dugun jaiotze-tasa txikia poliki-poliki handitzen ari bada ere, milaka bakan batzuen gorabeheraz ari gara” (Etxaniz, 2011: 81). Etxanizek dioenez, euskarazko HGLaren merkatua gorenera iritsi da eta, hemendik aurrera, ez dugu orain baino askoz irakurle gehiago izango. Horrek ez du esan nahi salmentak hazi ezin direnik, baina, horretarako, irakurzaletasuna bultzatzeko politikak sendotu behar dira. Izan ere, auzi horrexeri erreparatzen dio Etxanizek: irakurle gabeziari. Guk jakin nahiko genuke, hala ere, zenbatekoa den gaztelaniazko irakurle kopurua, eta irakurle kopuru horrek nola eragiten dion euskarazko irakurle kopuruari.

Kopuruak kopuru, gaur egun HGL-lan berri asko argitaratzen da urtero. Eskaintzen den aukera ugaria eta zabala da, baina beste kontu bat da liburu bakoitzetik zenbat ale argitaratzen den:

Hots, egun, inprimagintzan gertatutako berrikuntzen ondorioz gero eta tirada txikiagoa egin daiteke liburu bat errentagarri plazaratzerakoan, eta horren ondorioz zuzena da gaur egun liburu bizien kopurua gero eta handiagoa dela, baina, era berean, zenbat eta liburu eskaintza handiagoa izan, orduan eta liburu baten ale gutxiago erosten dira (Etxaniz, 2011: 82).

Esan bezala, horren alde ona da eskaintza ugaria eta aberatsa dagoela. Merkatuan diren liburu biziei dagokienez, 3tik 1 da HGLkoa. Datuei begiratuta: 96an argitaratutako liburuen % 26,5 zen HGLkoa (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 44); 2002an, % 44; 2003n, % 37; eta 2004an % 30 (Etxaniz, 2011: 85). Azken urteari begiratuta, merkatua moteldu egin dela dio Etxanizek, eta arazoa omen da geroz eta gutxiago erosten dela.

HGLak euskal liburugintzan duen garrantzia eztabaida ezina da, 2008an fakturazio guztiaren % 17,6 izan baitzen HGL, hau da, 7.700.000 euro. Bestalde, 96ko datuei gagozkiela, HGLaren ekoizpenaren % 58,6 izan ziren itzulpenak. Azken datu horrek argi eta garbi erakusten du itzulpena dela HGLaren ekoizpenaren zatirik pisutsuena, itzulpenak bizi duela euskal HGLa, alegia. Iruditzen zaigu, beraz, arreta handiagoa eskainiko beharko geniokeela itzulpenaren fenomenoari. Izan ere, irudipena dugu ez ote gauden Even-Zoharrek aipatzen duen fenomenoaren aurrean, alegia, itzulpenaren fenomeno pisutsuena izanagatik ere, bazterreko jarduna izatea. Lopez Gasenik eta Etxanizek berek ere hala aitortzen dute: pisurik handiena itzulpenak badu ere, "sorkuntza da gehien saltzen dena eta gehien berrargitaratzen dena" (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 45). Aztertzeke modukoa litzateke fenomeno horren zergatia.

Bestalde, Etxanizek merkatuetako *noraiezaz* hitz egiten digu, “zirkuituetan (irakaskuntzaren –eskola eta euskaltegien zirkuituetan–) sartzen ez den lanak oso etorkizun iluna” baitu. (Etxaniz, 2011: 85). Hala, euskarazko HGLak erdal merkatuan sartu behar duela dio Etxanizek. Horixe da azken urteotan geruz eta gehiago ikusten den joera, koedizioarena, alegia. Hala, euskaraz oihartzuna izandako geruz eta lan gehiago plazaratzen dira erdaraz: “merkatu horretan bilatu beharko du euskal idazleak irtenbide ekonomikoa, euskarazko merkatua gero eta beteago dagoelako eta salmentak –ohiko zirkuituetan sarturikoak salbu– gero eta txikiagoak direlako” (Etxaniz, 2011: 87).

Euskal HGLaren merkatuak, beraz, ezinbestean begiratu behar du, biziraun nahi badu, erdaretako merkatuen aldera, euskarazko irakurleen merkatua txikia baita. Hala ere, ez da asko itzultzen dena: 80ko hamarkadan lau egileren bederatzi lan itzuli ziren, eta 90eko hamarkadan 15 egileren 58 lan itzuli dira. Gehien itzulitakoen artean Mariasun Landa (13 lan) eta Bernardo Atxaga (10) ditugu. Ez da ahaztu behar, izan ere, Atxagak Narratibako Espainiako Sari Nazionala irabazi zuela 1989an *Obabakoak* lanagatik, eta Mariasun Landak HGLko Sari Nazionala eskuratu zuela 2003an *Krokodiloa ohe azpian* lanagatik. Azpimarratu beharra dago lan gehienak gaztelaniara itzultzen direla aurrena, eta, ondoren, beharbada, beste hizkuntzetara. Euskal literatura beste hizkuntzetara itzulia aztertu du Manterolak, eta, egindako azterketaren arabera, HGLa da gehien itzuli den generoa (Manterola, 2012: 144).

Gehitu beharra dago, hala ere, autoitzulpena egiten dela batez ere: “1980. urtetik 2000. urtera euskal haur eta gazte literaturaren

alorrean gaztelaniara egin diren itzulpenen % 96,42 autoitzulpen bidez egin dira, hau da, gehien-gehienak” (Lopez Gaseni, 2005: 54). Euskal literaturak, izan ere, gaztelanian aurkitzen du kanpora ateratzeko bidea.

Lopez Gasenik eta Etxanizek diotenez (2005: 117-118), euskal HGLak kanpoko merkatuetara ateratzea zailtzen duten bi elementu daude: batetik, autoitzulpena egiten da maiz (eta horrek, askotan, lanaren itzulpena baino, lanaren bigarren bertsioa sorrarazten du), eta, bestetik, atzerriko hizkuntzetara pasatu ahal izateko gaztelaniara itzuli beharra aurrenik. Egia da, izan ere, euskaratik beste hizkuntzetara zuzenean itzultzea ez dela erraz eta automatikoki gertatzen den zerbait, eta horrexegatik bihurtzen da, hain zuzen ere, gaztelaniara autoitzultze/itzultze hori lehio berri bat. Horrek euskal HGL-sistema Espainiako HGL-sistemarekin nolabait lotuta dagoela erakusten du. Hori guztia positiboa ala negatiboa den alde batera utzita, uste dugu funtsezkoena dela garbi adieraztea sistemek nola funtzionatzen duten, bestela funtziona dezaten nahi baldin bada, eman beharreko pausoak ematen hasteko edo eman ditzaten eskatzeko.

Instituzioa

Talde honetan sartzen dira HGLaren jarduera soziokulturala mantentzearekin zerikusia duten elementuak: argitaletxeak, kritika, komunikabideak, hezkuntza-erakundeak etab.

Lopez Gaseniren eta Etxanizen ustez (2005: 46), aldizkarietan iruzkinak argitaratzen badira ere, eta zenbait egunkaritan luzeagoak diren kritikak argitaratzen badira ere, kritika analitiko oso urria da. Etxanizek gaineratzen duenez, euskal merkaturia txikia

izateak erraztu egiten du HGLaren presentzia komunikabideetan (Etxaniz, 2011: 92). Dena dela, bi adituen ustez, HGLa ez da bigarren mailako produktutzat hartzen, egiten diren azterketa eta jardunaldietan beti baitago HGLaren generoa presente. Argitaletxei dagokienean ere, ia guztiek dute HGLari bideratutako bildumaren bat (Susa eta Gaiak dira salbuespen bakarra). Badira HGLa bakarrik argitaratzen dutenak (Tartalo eta Kalandraka), eta bildumen sailkapena ugaritu egin da (HGLko bildumek azpi-bilduma asko dauzkate, adinaren arabera, esaterako). Komunikabideetan ere HGLak badu bere oihartzuna (Sautrela programan eskaini izan zaizkio erreportajeak, eta hortxe dugu Ipupomamua programa berezitua ere). Hurrei bideratutako txokoak daude herri-liburutegietan, eta Donostian HGLa ikertzeko dokumentazio-zentru bat dago.

Bestalde, Galtzagorri elkarte aipatu behar dugu. Elkartea 1990ean sortu zen, haur eta gazteen irakurzaletasuna bultzatzeko eta euskarazko HGLa sustatzeko. HGLan aritzen diren idazle, ilustratzaile, itzultzaile eta, oro har, gremioarekin zerikusirik duen edonor izan daiteke kide. Hala, elkarte guztien elkargune da, nolabait. Babesa eta azpiegitura ematen die. Bertako web gunean, argitaratutako HGLko liburuen bilaketa egin daiteke, bai eta egile, idazle eta itzultzaileena ere.

Horretaz gain, aipatzekoa da elkarteak duen aldizkaria, Behinola: HGLari buruzko aldizkaria da, eta, liburuen iruzkinez gain, HGLa genero gisa lantzen duten artikulua eta erreportajeak argitaratzen ditu.

Hala, esaterako, 2008an Galtzagorri egokitu zitzaion *OEPLI – Organización Española Para el Libro Infantil* elkarteak bi urtez behin egiten duen biltzarra antolatzea. Donostian elkartu ziren, uztailaren 3tik 5era, HGLan adituak diren hainbat pertsona, eta generoaren inguruan egiten diren ikerketen eta hausnarketan berri edukitzeko aukera izan zuten.

HGLaren generoak, beraz, badu azpiegitura instituzional bat Euskal Herrian, ezinbestekoa generoak bizi duen osasunaren inguruan hausnarketa egiteko eta etorkizuneko urratsak ere sendo emateko.

Bestalde, HGLaren inguruan antolatutako sariei dagokienean, hauek dira aipagarrienak: Euskadi Saria (Eusko Jaurlaritzak antolatua), Xabier Lizardi Saria (Zarauzko Udalak antolatua), Antonio Maria Labaien Saria (Tolosako Udalak antolatua) eta Vitoria-Gasteizko udalak antolatutako HGLko itzulpen saria.

Azken hori da soilik eta espresuki HGLaren itzulpena saritzen duen bakarra. Nolanahi ere, adierazgarria da mota honetako sari bat antolatuta egotea. HGLa, berez, bazterreko generoa baita, eta itzulpena bera ere beste maila batean gelditu ohi da sortze-lanen alboan. Bestelakoa da errealitatea, jakina; ikusi dugun moduan, HGLaren pisua euskal literatur sisteman nabarmena baita, eta, ekoizpen-kopuruei erreparatuta, itzulpena da nagusi. Ulertzekoa da, beraz, mota honetako sari bat egotea. Era berean, HGLaren itzulpenari duen garrantzia aitortzeko modu bat dela ulertzen dugu.

Jaurlaritzak eta udalek antolatzen dituzten sariez gain, estatuko argitaletxeek eurek ere banatzen dituzte sariak, eta

erkidegoetako hizkuntzatan idatzitako lanak ere aurkez daitezke. Baporea Saria edota Edebé Saria aipa genitzake.

Badira, bestalde, album ilustratuaren edo ilustrazioen inguruan antolatzen diren sariak, edota hurrek eurek epaimahai gisa jardunez ematen dituzten HGLko sariak (Galtzagorrik berak Liburu Gaztea antolatzen du, esaterako).

Hala eta guztiz ere, hemen aurkeztu ditugun sariak kontuan hartuta, ukazina da HGLaren ekoizpenari duen garrantzia aitortzeko esfortzua, eta HGLak gizartean duen estatusaren adierazle da hori.

Dena den, Lopez Gaseni eta Etxanizen ustez,

Urte gutxi hauetan hainbat aurrerapen izatearen arrazoia, gizartearen ekimenean baino gehiago, aurreko egoeraren atzerapenean eta euskal sistemaren ahulezian bilatu behar da. Izan ere, botere-borroka gutxi den esparru batean errazagoa baita lorpenak izatea (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 48).

Beraz, eta azken iruzkin horren bidez, zalantzan ere jartzen dute euskal HGL-sistemaren sendotasuna.

Produktua

3.1.1. atalean euskal HGLak bizi izan duen bilakaera aztertu dugu, eta, ondorioztatu ahal izan dugun moduan, euskal produktuek literaturtasuneranzko bidea egin dute. Gaur egun, atzerrian jorratzen diren gaiei dagokienean, maila bertsuan gaudela esan genezake (errealismo kritikoa jorratzen da, esate baterako).

Kontuan hartu behar da, hala ere, atzerrian jorratzen zen mailarekiko parekatze hori gertatu bada, hein batean itzulpenei

esker ere izan dela. Itzulpenek betetzen duten funtzioa, beraz, gakoa da euskal HGLan, eta, sistemaren barnean ezinbesteko diren heinean, gutxienez kontuan hartu beharko genituzke, eta modu horretan ulertu HGL-sistema.

Euskaratutako HGL aztertzeke orduan kontuan hartu beharreko gauza hauxe da: jatorriz beste toki edo eta garai batean idatzitakoa, itzulpenaren bidez, geure sisteman txertatzen da. Gainera, sorburu sisteman xede jakin batzuekin argitaraturikoa, gurean beste helburu batzuk betetzera etor daiteke, eta, gure sistemaren kasuan, euskal HGL eguneratzen lagundu dutela gauza ukazina da, bereziki narratibaren eremuan (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 51).

Laurogeiko hamarkadan, euskal HGLaren ekoizpenak nabarmen gora egin zuenean, itzulpen kopuruak ekoizpen osoaren hiru laurden hartzen zuen. Lopez Gasenik eta Etxanizek, hala ere, arazo batzuk aipatzen dituzte hasiera hartako itzulpen-jardunari dagokionean, hala nola itzultzaileen prestakuntza falta, itzulpen gehien-gehienak gaztelaniaren bidez egitea eta, horrekin lotuta, sorburu-testu osoak beharrean, egokitzapenak edo moldaketa laburtuak itzuli izana, hain zuzen ere, jatorrizkotzat hartutakoa — gaztelaniazko bertsioa — egokitua edo laburtua zegoelako (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 105).

Egoera aldatu da, eta, 90eko hamarkadan, HGL-sistema sortu denean, itzulpen kopurua zertxobait jaitsi da. Hala eta guztiz ere, argitaratutako guztiaren bi heren da itzulpena. Itzulpenak euskal HGLaren sisteman duen zeresana, beraz, ez da nolana hikoia.

Dena den, itzulpen-jarduna aldatu egin da 80ko hamarkadaz geroztik, baldintzak eta testuingurua ere aldatu egin baitira: 1980an Martuteneko Itzultzaile Eskola sortu zen, 1986an Administrazio eta

Lege Arloko Itzultzaile Eskola, 1988an EIZIE, 1990ean Deustuko Unibertsitateko itzulpengintza masterra, 1991n Euskal Herriko Unibertsitateko itzulpengintza masterra eta 2000. urtean Itzulpengintza eta Interpretazioa Lizentziatura jarri zen abian EHUn.

Ukaezina da, era berean, euskararen normalizazio bidean urratsak eman direnik, eta horrek guztiak eragin du egiten diren itzulpen lanen kalitatea ere hobetzea. Hala, “aurreko urteetan HGLko itzulpenen funtzioa jatorrizko produkzioa osatu eta ordezkatzeko izan bazen, egoera berrian betetzen duen funtzioa sistema berri edo modernizatzea izan zen” (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 107).

Itzulpenek euskal HGLan izan duten eraginari buruz luzeago arituko gara orain, erreperitorioan.

Erreperitorioa

Euskal HGLan, berez sorturiko erreperitorioa txikia da. Oraindik orain, badira gehiegi lantzen ez diren generoak, hala nola antzerkia eta komikia. Bestalde, lehen esan dugun moduan, itzulpenetik asko edan du (eta edaten du) euskal HGLak, eta, beraz, gaiei nahiz baliabide literarioei dagokienean, nazioarteko erreperitorio aberatsa dugu.

Itzulpenak gure sisteman duen posizioa eta eragina, ordea, ezatabaidatua izan da maiz. Halaxe aipatzen du Lopez Gasenik:

Azken batean, eskuak burura eramanda «kolonizatuta gaude», «bide honetatik euskarak bere adierazkortasuna galduko du» eta antzekoak esanez atera ziren apokaliptikoen iritzietatik harantzago, gaur eguneko usterik zabalduena oso bestelakoa

da, alegia, egoera horrek munduaren erdian kokatu gaituela, gu eta euskara bera (Lopez Gaseni, 2006: 43).

Lopez Gasenik eta Etxanizek datuak ere ematen dituzte: 1545etik 1900era bitartean euskarazko ia 600 liburu argitaratu ziren, baina horietatik 12 baizik ez ziren izan erlijioa ez den beste gai batzuei buruzkoak. Gaur egun, ordea, oso bestelakoa da egoera, erreperitorio zabala baitugu. Hala, ukaezina da itzulpenak zeresan handiena duenik HGLan, ekoizpenean, eta, beraz, erreperitorioan bertan ere. Horrexegatik da baliagarria –euskal HGLaren azterketa egitean– delako hizkuntza pareen arteko ikerketa egitea: itzulpenek elikatuta sortutako sistema da geurea, eta horrek literatur hizkuntzan nola eragin duen aztertzeko, ikerketa itzulpenei begira egitea da egokiena.

Itzulpenari zuzenean erreferentziarik egin gabe ere, Lopez Gasenik ere ikerketa gehiago eskatzen du, euskal HGLaren gabeziak bat lantzen hasteko: kanon jakin bat ezartzea, alegia.

Haur eta gazte literaturaren kanonari buruz eztabaida biziak gertatu dira. Arazoa ez da kanonik eza, baizik eta kanon hori zehazteko adostasun falta. Baina horixe da, hain zuzen ere, kanonaren ezaugarrietako bat, Haur eta Gazte Literaturaren «instituzioaren» inguruan mugitzen diren indar guztien arteko tirabiren ondorioa, aldagarria definizioz: argitaldariak, kritikoak, aldizkariak, idazleen elkarteak, hezkuntza eta kultura erakundeak, lehiaketak, mass media direlakoak... Horien guztien arteko botere-borroken ondorioa da kanona (Lopez Gaseni, 2006: 61).

3.1.2.1 HGLaren ikerketaren bilakaera Euskal Herrian

Edozein delarik ere jakintza, maila zientifiko-akademikora igo nahi badu, behar-beharrezkoa ditu masa kritikoa eta aditu edo ikertzaile talde bat.

Euskal Herrian, 80ko hamarkadan gertatu zen gorakadarik nabarmenena HGLaren ekoizpenari dagokionean. Orduantxe hasi ziren ernatzen euskal HGLaren sistema osatuko zuten oinarritzko elementuak, eta, bistan denez, gaiaren inguruko ikerlanak ere funtsezkoak dira aipatu sistema osatzeko eta, oro har, jakintza-gaiaren estatusa altxarazteko.

Euskal HGLari begira egindako aurreneko lanek ez dute jakintzaren ikuspegi orokorrik ematen: 82an *Haur literaturaz* izeneko lana atera zuen A. Lertxundik, besteak beste, ipuinen erabilera didaktikoaz, eta, betiere, eskolan lanean ziharduten irakasleei begira; 1985ean *Altxorrak eta bidaiak* atera zen J. Kortazarren zuzendaritzapean, eta bertan, literatura iniziatiko gisa balio izan dieten lanen inguruan hitz egiten dute hainbat ikaslek; 1986an, berriz, Gillermo Etxeberriak *Ahozko poesia* atera zuen, poesiak eskolako haurren heziketan eduki behar duen lekuari buruz. Esan dugun moduan, aurreneko lan horiek irakaskuntzaren ikuspegitik bideratuko dira batez ere, irakaskuntzatik abiatu baitzen, azken batean, euskal HGLa.

Ondoren etorriko dira zenbait lan monografiko, hala nola 1986ko Jakin aldizkariaren 41. zenbakia, *Haur literaturaren inguruan*; 93an, Labayru ikastegiak ateratako *Haur literatura*; 92an, UEUk ateratako *Haur literaturaren inguruan*; 94an, Hegats aldizkariaren 9.

zenbakia. Azkenik, J. K. Igerabidek *Bularretik mintzora (haurra, ahozkotasuna eta literatura)* lana aterako du 93an.

Unibertsitate mailari gagozkiola, Xabier Etxaniz Erleren tesia aipatu behar dugu, gaia berariaz jorratu zuen aurrenekoa izan baitzen. *Euskal haur eta gazte literaturaren historia* izenburupean aurkeztu zuen tesia 1996an. Ondoren etorri da, Etxanizen zuzendaritzapean, hain zuzen ere, Lopez Gaseniren tesia: *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak*, 2000. urtean aurkeztua. Ondoren, Lopez Gaseniren zuzendaritzapean, Genaro Gomez Zubiak *Grimm anaien Kinder- und Hausmärchen euskaraz: itzulpen eta egokitzapenen azterketa* izeneko tesia aurkeztu zuen 2004an. Azken tesia 2010ean Ainhoa Beldarrain Agirrek aurkeztutakoa, Lopez Gaseniren zuzendaritzapean hori ere: *Alegia klasikoak euskaraz: Isopeteko, La Fontaineren eta Samaniegoren alegien berridazketen azterketa*.

Lau tesiek jarraitasun bat ageri dute denboran eta tematikan, eta, lan multzo handia ez bada ere, pozgarria da horiek sortu izana. Bestalde, lauak ere Euskal Herriko Unibertsitateko Gasteizko eta Donostiako Irakasleen Eskoletan egin dira, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailan. Horrek erakusten du HGLaren ikerketa hezkuntzari lotuta dagoela. EHUko letren fakultatean, esaterako, hizkuntza desberdinetako literaturaren inguruko ikerketak egiten badira ere, ez da, artean, hizkuntza horietatik euskararako itzulpena aztertzen duen lanik egin. Gainerakoan, berariaz eta soilik HGLa aztertzen ez badu ere, Idurre Alonsoren tesia ere aipatzekoa da, 2008an argitaratua, *Euskal literaturaren irakaskuntza Hego Euskal Herriko Batxilergoan* izenburupean. Alonsorena ere, bide batez, hezkuntzari lotutako tesia da. Dena

den, guztiak ere HGLa aztergai duten tesiak izanik, funtsezko ikerlanak dira, eta guk gure lan honetan kontuan hartu ditugunak.

Bereziki aipagarria da HGL itzuliaren inguruan Lopez Gasenik egindako tesia, HGLaren euskal itzulpenen inguruan egindako aurrena delako eta, gerora ere, Etxanizekin batera, jarraitu duelako gaia ikertzen. Hala, hainbat dira orduz geroztik berak edo Etxanizekin batera ateratako lanak: Lopez Gasenik eta Etxanizek 2005ean elkarrekin ateratako *90eko hamarkadako Haur eta Gazte Literatura* da aipagarria, 2005ean *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan* liburua, eta 2006an eginikoa: *Literaturak umeei begiratu zientean*, bertan HGLaren inguruan egiten baititu hainbat hausnarketa.

3.2. HAUR ETA GAZTE LITERATURA ALEMANA¹⁶

3.2.1 Bilakaera historikoa

3.2.1.1 Erdi Aroa, edo hastapenetik XVIII. mendera arte

2.1 atalean ikusi dugun moduan, Ilustrazioan sortu zen HGLa. Hala ere, Erdi Aroan bertan aurkitzen dugu HGLren aztarna gisa har daitekeen testurik: erlijio kutsu handiko testuak dira, helburu pedagogikoa eta moralizatzailea zutenak. Aurrenetariko testu bat, esaterako, itzulpen bat dugu, Marquard vom Stein-ek 1495ean egindakoa, *Der Ritter vom Turm* (sorburu-testua frantsesez dago

¹⁶ HGL alemanaz hitz egiterakoan, alemanez idatzitakoaz ari gara. Hau da, Austriako eta Suitzako egileak ere hartu ditugu kontuan. Gauza bera gertatzen da *egile aleman* kontzeptuarekin: alemanez idazten duen egileaz ari gara, eta ez Alemaniako egileaz. Hala ere, bilakaera historikoan deskribatzen diren gertaerek Alemaniari egiten diote nagusiki erreferentzia.

idatzia, *Chevalier de La Tour Landry*, Geoffroy Adelige-k idatzia XIV. mendean).

Brunken-ek dioenez (Brunken in Wild, 2008: 1), halako lanak ez lirateke, gaur egun, HGLtzat hartuko, batik bat gertaerak deskribatzeko erabiltzen den modu ilun eta bortitzagatik. Izan ere, kontuan hartu behar da XVIII. mende erdiaren inguruan baino ez direla hasiko gizakiaren bilakaeran *hautzaroa* eta *gaztaroa* bereizten, eta orduan baino ez direla hasiko, pixkanaka, haur eta gazteei zuzendutako testuak berariaz idazten.

Bien bitartean, ordea, *haur* kontzeptuaren historian ikusi dugun moduan, heldu gabeko pertsona zen haurra, heldu-arorantz begira trebatu beharrekoa. Etorkizuneko familian eta gizartean hartu beharreko rolen inguruko eredia eskaintzen zuen garai hartako HGLak, eta ez beren adinari berariaz zegokion ezer (Brunken in Wild, 2008: 2).

Beraz, hastapeneko HGLak bete zituen funtzioei begira, honela sailka genitzake testuak:

- Erlijioa irakastea helburu zuten liburuak: Bibliaren moldaketak eta bertsio laburtuak, horietako batzuk baita ilustratuak ere; kateximak; edota erlijioan oinarritutako eleberriak.
- Balio etikoak eta gorde beharreko portaera zuzena irakastea helburu zuten idatziak. Irakasleekin edo gurasoekin izandako elkarrizketa moduan idatzitako testuak ziren, pertsonak izan behar zituen bertuteak eta bizitzako arauak zein ziren irakastea helburu. Horren adibide daukagu, esaterako, *Der Winsbecke / Die Winsbeckin* (1210-1220 artean). Nabarmentzekoa, baita ere, Rotterdam-eko Erasmus teologoak latinez idatzitako *Der civilitate morum puerilium* (1530) idatzia, urtebete beranduago alemanez, aterea:

Züchtiger Sitten, zierlichen Wandels und höfflicher Geberden der Jugend (1531, itzultzaile ezezaguna).

- Alegiak: pertsonaiak animaliak izanik, ondorio moralizatzaile batera bideratzen duten testuak. Ulrich Boner eta haren *Edelstein* (1349) izeneko alegien bilduma dugu horren adibide. Kontuan hartu behar da, garai hartan, irakurtzeko gaitasun nahikoa zuten gazteak gizarte maila gorenetakoen semeak zirela, jauntxoek semeak, alegia. Horiek zalduntza-liburuak zituzten gustukoak, baina, garaiko hezkuntzaren arabera, kaltegarriak ziren haurrentzat, eta, beraz, alegiak ziren, batez ere, txikienei begira idazten ziren lanak.
- Latina ikasteko liburuak, testu-liburuen aurrekari gisa hartu behar direnak. Garrantzitsuena Johann Amos Comenius-en *Orbis Sensualium Pictus* izango da (1658)¹⁷. Haurrek latina ikasteko ele bitan idatzitako liburu bat da, marrazkiekin apaindua. Horregatik, HGL ilustratuaren aitzandaritzat ere hartzen da lan hau. Comenius protestantea zen, eta heziketa ahalik eta gehien zabaltzeko behar zela uste zuen. Gainera, haurrak hezteko bestelako modu baten aldekoa zen; alegia, hitz hutsak baino, batez ere irudiak erabiltzea aldarrikatzen zuen. Pedagogiaren maisutzat hartua, hark idatzitako *Orbis Pictus* lana arrakastatsua izan zen eta hizkuntza askotara itzuli zuten. Gogoratu behar baita, izan ere, garai honetan katolizismoaren eta protestantismoaren artean talka handia zegoela. Iparraldean zabaltzeko, batez ere, protestantismoa; baina, Trentoko Kontzilioaren ostean (1563), katolizismoak kontraerreforma jarri zuen abian. Horren ondorioz, jesuiten eskolak ugartu egin ziren, eta, horrekin batera, baita sinesmen katolikodun HGLko lanak ere.

¹⁷ Etxanizek HGLko lan aitzindaritzat hartzen du Comeniusen *Orbis Sensualium Pictus* liburua. John Cottonek 1641 eta 1645 bitartean argitaratu omen zuen *Milk for babes* katixima Massachusetts-en, eta hori omen da, ofizialki, aurreneko HGLko liburua, baina Comeniusen lanak ekarri omen zuen benetako berrikuntza (Etxaniz, 1997: 11).

- Eleberri esanguratsuenak, besteak beste, *Seelentrost* (egile ezezaguna, 1474), lehen ere aipatutako *Der Ritter von Turm* (hau batez ere neskentzat pentsatuta idatzi zen) eta Wickram-en *Der Jungen Knaben Spiegel* (Wickram, 1554) izan ziren. Nolanahi ere, eleberri horietan guztietan moralala eta bide zuzena irakastea zen helburu nagusia. Horrela, eta, funtsean, eleberria ez da XVIII. mendearen amaiera arte idatziko, Ilustrazioaren garaia iristen denean.

3.2.1.2 Ilustrazioa, edo XVIII. mende amaiera

XVIII. mendean asko aldatuko da gizartea: burgesiak gora egingo du, eta artea eta zientzia landuko dira. Dena den, irakurri eta idatzi dezaketen pertsonen kopurua nabarmen haziko bada ere, oraindik ere alfabetatu gabeko pertsona asko egongo da, eta, horren ondorioz, pedagogiaren beharra zabalduko da. Hain zuzen ere, pedagogiari, hezkuntzari eta jakintzari lotuta sortuko da Ilustrazioa.

Izan ere, John Locke-ren ideiek aldaketa handia ekarriko dute hezkuntzan, batez ere 1693an *Some Thoughts Concerning Education* idatzi ondoren. Testu horretan, hurrei egokitutako literaturaren beharra azpimarratu zuen Lockek; liburu arinagoak aldarrikatu zituen txikienentzat, eta Esoporen alegiak hartu zituen eredutzat.

Bestalde, Frantzian, *Emile ou sur l'éducation* idatziko du Rousseauk 1762an, pedagogian giltzarri den beste testu bat (Rousseauk haurtzaroaz duen ikuskerak erromantikoengan ere izango du eraginik, baina hori 3.9.1.3 atalean azaldu dugu modu zabalagoan).

Beraz, Locke-ren ideiek Ingalaterran eta Rousseau-renek Frantzian ikuspegi pedagogiko berri bat eskainiko dute, eta horrek

eragin izugarria izango du Alemanian, filantropismoaren mugimendua sorraraziko baitu. Filantropismoaren eraginez, hezkuntzan ez ezik, HGLan ere aldaketa nabarmenak gertatu ziren, hezkuntzari hertsiki lotuta sortu baitzen HGLa. Hala, Johann Bernhard Basedow aipatu behar dugu, eta haren *Elementerwerk* lana (1774), funtsean entziklopedia gisako testu-liburu bat dena baina haurrak bere estimulurako behar dituen elementuekin (irudiak etab.). Basedowk eskola-eredu berri bat bultzatu eta horren araberrako eskolak sortu zituen. Immanuel Kant ilustrazio alemaneko pentsalari nagusiak ere ideia horiek jaso zituen 1803ko *Über Pädagogik* lanean. Aipatzeko da, baita ere, horien ondoren Pestalozzi suitzarra nabarmenduko dela pedagogiaren inguruan egindako lanengatik.

Hala ere, filantropismoaren mugimenduaren barnean are esanguratsuagoa dugu Joachim Heinrich Campe, Rouseauren ideien bultzatzaile nagusia alemanez idatzitako HGLan. Haurrak gizaki gisa hezi behar direla ulertzen zuen Campe, eta ingurunearen ezagutza eta heziketa morala eskaini behar zitzaie. Bere lanik esanguratsuen *Robinson der Jüngere* izan zen (1779-1780), *Robinson Crusoe* eleberriaren moldaketa bat, Rousseau-ren *Émile* obran defendatzen diren irizpideen arabera egokitua (alegia, haurrari bere espazioa eman behar zaiola bere kasa ikas dezan, eta ikasbideak ez duela inolaz ere autoritarioa edo bortitza izan behar). Moldaketa HGL alemaneko lanik arrakastatsuenetariko bat bihurtu zen, hainbat eta hainbat hizkuntzetara itzuli baitzen, modu horretan Defoeren jatorrizko lana berpiztuz.

Beste hizkuntzetara egin diren itzulpenek, Defoeren eta Camperen lanak, biak hartu dituzte oinarri, eta bien arteko

nahasketatik, hurrei bideratutako liburuak atera ziren, alemanez *Robinsonaden* moduan ezagutuak, eleberri edo kontakizun robinsondarrak, alegia. Hala, Robinsonen figura, obra jakin bat baino, kontzeptu bihurtu zen, genero bat bere horretan (Calvo eta Yela, 1989). Kontua da, Campekin egindako itzulpena bereziki arrakastatsua gertatu zela, eta motibo beraren inguruko lanak ugaritu zirela. Suitzian, esate baterako, Johan David Wyß-ek *Der schweizerische Robinson* idatzi zuen, eta lan horrek ere zabalkunde handia izan zuen¹⁸.

Hürlimann-ek dioenez (Hürlimann, 1982: 81), Camperen *Robinson* unerik egokienean iritsi zen, Defoeren lana ez baitzen interesgarria garaiko gazteentzat (kontuan hartu behar da Defoeren garaian gazteek ez zeukatela eurei espreski bideratutako literaturarik). Haur eta gazteei bideratuta egoteaz gain, Camperen Robinsonek bestelako desberdintasunak ere bazituen Defoeren lanetik: Camperen Robinson ezer gabe iristen da irlara, inolako objekturik gabe eta ia-ia biluzik (Defoerenak Biblia dauka); horretaz gain, Camperen Robinson etxera itzultzen da amaieran, aitarengana, irlan egindako Ostiral lagunarekin batera.

Pedagogiaren ikuspegi aurrerakoi horren aztarnak ez ziren, hala ere, lurralde osoan modu orokorrean nagusitu: batez ere protestanteen artean zabalduko den ikuskera izango da (Campe,

¹⁸ Euskarara denera hiru itzulpen daude *Robinson Crusoenak*. Bata, Xabier Kintanak 1974an egindakoa Cinsa argitaletxe madrildarrentzat; beste bat, 1988koa, Kriselu argitaletxean plazaratua (47 orrikoa, beraz, moldaketa/laburpen baten itzulpena); eta hirugarren bat Aintzane Ibarzabalek 1997an egina, EIZI Eren Literatura Unibertsala bildumaren barruan. Ez dakigu bertsio horiek zein testutan oinarrituko ziren: Defoerenean, Camperenean edo orduz gero atera ziren hainbat eta hainbat moldaketetako batean (azterketa gai bat litzake bere horretan).

Wyß etab.), eta korrante hori iparraldean zabalduko dela gogoratu behar da (Ewers, 2005). Kontuan izan behar da, esaterako, Schmidek, katolikoa izanik, XIX. mendearen hasieran testu moralizatzaileak idatziko dituela, hau da, ilustratuen ikuskera pedagogiko aurrerakoiekin zer ikusi handirik ez duten testu moralizatzaileak. Hain justu ere Schmiden lanak izango dira euskarara iritsiko diren aurrenetariko lanak.

Bestalde, Ewers-en arabera, aurreneko lan benetan antiautoritarioa, Christian Adolf Overbeck-en *Frizchens Lieder* (1781) olerki-liburua izan zen. Lan horretan, lehen pertsonan aurkezten du haur batek bere burua, eta ez da gizartearen edo gurasoen figura autoritariorik ageri.

Olerkigintzarekin jarraituz, garai honetan alemanez egindako bestelako sorkuntza-lan interesgarria Christian Felix Weißerena dugu, berak argitaratu baitzuen haurrentzako lehen poesia-antologia (*Lieder für Kinder*, 1766).

Beraz, eta garai honek Alemaniako HGLaren bilakaeran izan zuen garrantziaz jabetzeko, aipatu behar da, Ewers-en arabera (Ewers in Hunt, 2004: 1057), filantropismoaren iraultzaz geroztik, Ingalaterra eta Frantziarekiko murrontzarekin hautsiko duela Alemaniak, eta bertako sorkuntza izugarri haziko dela. Izan ere, ordura arte eta literaturaren arloan, Frantzia zen Alemaniaren eredu, eta HGLan ere halaxe izan zen. Hala, haurrei zuzenduriko lehen aldizkariak frantsesetik itzultitakoak izan ziren, eta 1772 arte itxaron beharko da alemanez sortutako lehen haur-aldizkaria agertzeko (*Leipziger Wochenblatt für Kinder*). Filantropismoaren iraultzarekin bat, ordea, alderantzizko efektua gertatuko da, eta

Alemanian egindako sorkuntzatik edango omen dute Frantzian, Ingalaterran, Eskandinabian eta Europa ekialdean. Hala, esportatzen hasiko da HGL-sistema alemana. Azken datu horrek ageriago uzten du euskal HGL-sistemarekiko dagoen aldea.

3.2.1.3 Erromantizismoa

Alemanian oso berezkoa izan zen garaiari eman zion hasiera Erromantizismoak. Ilustrazioan didaktismoa bultzatu bazen ere, Frantziako eta Ingalaterrako ereduari jarraiki egin zen hein handi batean. Nahiz eta 1770eko hamarkadaren amaiera aldera Alemaniak Rousseau-ren ideiak hartu eta nahiko modu autonomoan garatu zituen, XIX. mendeko lehenengo eta bigarren hamarkadetan HGL erromantikoaren barnean sortu zen mugimendua oso-oso berezkoa izan zen, Europako beste herrialdeetan XIX. mende amaieran edo, are, mende bat beranduago sortuko dena (Ewers in Wild, 2008: 96).

Erromantizismoaren aurrekariak ulertzeko Ilustraziora egin behar dugu atzera, XVIII. mende amaiera aldera. Gogoratu behar dugu garai hartan haurtzaroaren kontzeptu jakin bat osatu zela: haurra izaki zerutiarra zen, zuzenean Jainkoarekin lotuta zegoena, unibertsoaren osotasuna izendatzeko filosofian erabiltzen den *Weltseele*, *munduaren arimadun* izakia, alegia. Haurrek ez omen zuten munduaren arimarekiko zuten lotura hori jaiotzearekin batera galtzen, baizik eta pertsona heldu bihurtzen zirenean; horregatik ziren haurrak izaki zerutiarrak. Ikuspegi hau jaso zuen Johann Georg Hamann-ek, eta hark Johann Gottfried Herder-engan eragin zuen aldi berean.

Herderren haur kontzeptuari eutsi zion hainbat autorek, hala nola Jean Paulek, Ludwig Tieckek edo Novalisek. Egile horien ustean, haurra izaki zerutiarra zen, eta, heldua, berriz, gainbehera joandako edo alferrik galdutako izakia. Hala, helduek haurtzarora begiratu beharko lukete: “Denn sind die Menschen nicht verdorbene, ungeratene Kinder? Sie sind nicht vorwärts-, sondern zurückgegangen; das Kind ist die schöne Menschheit selbst” (Tieck-en aipua in Wild, 2008: 99).

Garai honetan eta mugimendu honetatik sortuko dena, beraz, ez da, hasiera batean behintzat, haur-literatura (*Kinderliteratur*) izango, baizik eta haurtzaro-literatura (*Kindheitsliteratur*). Jean Paul, Goethe, Hölderlin, Tieck edo Novalis bezalako egileek idatziko dituzten lanetan haurtzaroa miretsi eta laudatuko dute, baina ez dira haurrari zuzendutako lanak izango horiek. Ewerek dioenez, erromantikoen artean ez zegoen pedagogorik edo eskola munduko inor: literaturagileak, intelektualak eta legegizon idazleak ziren, haurtzaroaren poetikotasunaz txundituta. Hala, erromantikoentzat haurrak poetak dira jaiotzez eta, idazleak, haurtzaroan gelditutako helduak (Ewers in Wild, 2008: 101).

XIX. mendearen hasieran, gerra giroa egon zen gaur egun Alemania gisa ezagutzen dugun lur-eremuan: 1806an Erromatar-Germaniar Inperio Santua eroriko da, eta Napoleonek okupatu egingo du. Gertakari historiko horiek guztiek zalantzan jarri zituzten erromantiko goiztiarrek defendatzen zuten haurtzaroaren ikuspegi idealista, une hartan haur zein heldu miseria gorrian baitzegoen. Horregatik, erromantizismo berantiarreko idazleek, gizarteari poesia erakustaldiak ematea baino, mehatxupean zeuden herri-jakinduria, folklorea eta tradizioa salbatzea zuten helburu.

Hala, erromantiko berantiarrek jarduera pedagogikoei ekingo diete.

Folklorearen biltzea helburu zuten lanen artean aipatzekoak dira, besteak beste, Achim von Arnim eta Clemens Brentanoren *Des Knaben Wunderhorn* (1808), Grimm anaiek egindako *Kinder- und Hausmärchen* (1812-1815) eta *Deutsche Sagen* (1816-1818) edota Ernst Moritz Arndt-en *Märchen und Jugenderinnerungen* (1818).

Brentano eta von Arnimek ahozko tradizioko bertso, kantu eta poemak bildu zituzten beren lanean, hain justu Grimm anaiek ipuinekin egin zuten gauza bera. Izan ere, Hürlimann-ek dioenez (Hürlimann, 1982: 22), Alemaniak oso presente zeukan Napoleonen itzalaren mehatxua, eta, beraz, alemanaren benetako eta berezko ahozko ekoizpenaren jatorria aztertzea eta jasotzea aberriaren aldeko ekintza gisa ulertu behar da (Herderrek eta beste filosofo batzuek jarriko dituzte mugimendu horren oinarriak, nazioa eta bereziki *Volksgeist* delako kontzeptua garatuz¹⁹).

Oro har, helburu nagusia herri-jakinduria biltzea bazen ere, Ewers-ek dio (Ewers in Wild, 2008: 104) Erromantizismoaren ekoizpenean bi korrante nagusitu zirela: folklorikoa bata, Grimm anaiek bideratutakoa, eta, sortzaileagoa bestea, Achim von Arnim eta Clemens Brentanok bideratutakoa. Izan ere, *Des Knaben Wunderhorn* liburuaren egileek ez zuten uste folklorea bere horretan berreskuratu behar zenik, baizik eta balio poetiko bat

¹⁹ Kontu handiz aipatu beharrekoa da *Volksgeist*a, askok nazi(onali)smoarekin lotu izan baitute maiz. Joxe Azurmendi filosofoak defendatzen duenez, *Volksgeist*a ez da berba bakuna eta edozein alorrerako berdina (literaturarako, politikarako, historiarako etab). Argudiatzen du, gainera, erromantiko alemanek baino lehen Voltairek eta Montesquiek ere erabili zutela termino hori (Azurmendi, 2008: 76).

gehitu behar zitzaioela uste zuten, haurrei sormena pizteko lagungarri izan zekien. Soinu jostagarriak dira *Wunderhorn* lanaren ardatz, eta edukia, beraz, bigarren maila batean gelditzen da. Hizkuntzarekin jostatu eta sortzeko aukera ematen dio haurrari. Izugarritzko eragina utzi zuen lana izan zen, antzeko lanak atera baitziren han eta hemen, dialekto desberdinetan. Erromantizismo *aske* horren eragina ikusiko da, aurrerago, E.T.A Hoffmannengan.

Kontrako aldean, Grimm anaiak dauzkagu; beraien ustez folklorea eta tradizioa bere horretan jaso behar ziren, inolako sormen-lanik egin gabe. Folklorea eta herri-ipuinak herritik modu kolektiboan sortzen direnez, ez zuten uste indibidualki egindako sormen-lanarekin eraldatu behar zirenik. Hala, hiru hatsarre nagusiri jarraitzen zieten: batetik, kontakizunetan ez ziren sartu behar istoriokoak ez ziren pertsonaia arrotzak; bestetik, istorioa ezin zitekeen laburtu edo luzatu, bere horretan errespetatu behar zen; eta, azkenik, kontakizunaren helburua errespetatu behar zen: ezin zitzaion helburu indibidual edo pertsonalik ezarri.

XIX. mende hasieran gizarte burgesak izan zuen bilakaerarekin, von Arnim-en ikuspegiak irabazi zuen, eta Grimm anaiek zeukatena baztertuta geratu zen. Horiek horrela, Jacob anaia beste egitekoetara lerratu bazen ere (hiztegitintzara), garai eta korrante berriei egokitu zitzaion Wilhelm, eta herri-ipuinetatik haur-ipuinak egingo ditu 1825ean. Moldatutako argitalpen horrek izugarritzko arrakasta izan zuen, eta *Wunderhorn*ekin gertatu moduan, Alemania osoan hedatu ziren antzekoak.

Ludwig Tieck, bestalde, eredu berri baten sortzaile izan zen: kontakizun berean eta maila berean jarriko ditu errealak diren

elementu edo pertsonaiak eta fantasiakoak direnak. Eredu berari jarraituko dio E.T.A Hoffmann-ek, *Das fremde Kind* (1817) lanean, maila berean agertzen baitira mundu errealeko nahiz fantasiako munduko elementuak, kontakizun berean, alegia. Horretaz gain, ordea, egile honen *Nussnacker und Mausekönig* lana aipatu behar dugu, 1816an argitaratua. Izan ere, ordura arteko tradizioan oinarritutako gaiak jorratu beharrean, errealismo psikologiko modernoari dagozkionak jorratuko ditu. Horregatik esaten da Hoffmann-ek ekarri zuela Erromantizismoarekiko haustura.

Mit den von Tieck und E.T.A Hoffmann entwickelten Erzählmodellen hat die romantische Kinderliteratur eine bedeutsame Erweiterung erfahren: Neben die reine Volkspoesie, besser gesagt: an diese sich anschliessend tritt mit dem dualistischen Märchen und dem Wirklichkeitsmärchen eine Kinderliteratur, die frühe kindliche Modernitätserfahrungen artikuliert (Ewers in Wild, 2008: 121).

3.2.1.4 Biedermeier garaitik (1815-1848) Lehen Mundu Gerra arte

Napoleonen kontrako gerra 1815ean Vienan egin zen kongresuarekin amaitu zen, eta garaiko Europako mugak eta agintea banatu egin ziren: bereganatutako lurak galdu zituen Frantziak, inperio austrohungariarra berrezarri zen, eta Prusiak Alemaniako zenbait lurralde bereganatu zituen. Absolutismoa berrezarri zen, nahiz eta ezin izango diren ideia askeak isilarazi (1830 eta 1848ko iraultzak lekuko).

Biedermeier garaian, desberdintasun handiak zeuden gizartean, eta horrek eragina izan zuen haurrengan, betiere gizarte-taldean arteko desberdintasunak tarteko, haur aberatsak edo pobreak ez baitziren modu berean hazten eta hezten.

Morala ezarri eta transmititzea helburu duten testu asko idatziko da. Ipuin moralizatzaileak izango dira, beraz, garai honetan nagusi, eta apaizak izango dira, batez ere, egileak. Hala eta guztiz ere, Biedermeier garaiko ipuin moralizatzaileen ezaugarria izango da geroz eta kutsu literariogoa hartzen joango direla.

Garai honetako idazle ospetsuenetako bat dugu Christoph von Schmid katolikoa, 1850 arte ehundik gora ipuin idatzi baitzituen, eta eleberrira gerturatzaren ziren dozenatik gora kontakizun. Ospetsuenen artean ditugu, besteak beste, *Die Ostereyer* (1816), *Wie Heinrich von Eichenfels zur Erkenntniss Gottes kam* (1818), *Rosa von Tannenburg* eta *Das Blumenkörbchen* (1823), *Der Weihnachtsabend* (1825), *Das hölzerne Kreuz* (1826) eta *Der gute Fridolin und der böse Dietrich* (1830)²⁰.

Schmiddek arrakasta izugarria izan zuen bere garaian, eta baita gerora ere. Fenomeno hori ulertzeko arrazoi bat baino gehiago aipa daiteke. Batetik, maila guztietako jendearengana iritsi ziren bere argitalpenak, hasiera batean koaderno moduko formatu merkeetan ere argitaratu baitziren, formatu dotoreago eta aberatsagoez gain. Horrek esan nahi du ez zirela gizarte-maila jakin batera bakarrik bideratu, eta zabalkunde handiko lanak izan zirela. Bestalde, testuari dagokionez, egitura errazekoak ziren, hala nola protagonistei gizarte-mailaketa sinplea ezartzen zien (aberatsa/pobrea, harroa/umila, jauregia/txabola, ikasia/ikasigabea), eta balore moralak ere erraz banatzen zituen

²⁰ Alemanez izan zuten antzeko asmoa betetz itzuli ziren euskara Christoph von Schmiden ipuinak. Euskaratu ziren aurrenetariko lanak izan ziren gainera: 1929an itzuli zituen Gabriel Manterolak, *Ipuintxoak* izenburupean. Bestalde, HGLkoa den ala ez eztabaidagarria bada ere, Gregorio Arruek 1868an Schmiden *Brabante-ko Genovevaren bizitz arrigarri miragarria* lan arrakastatsua itzuli zuen.

(ona/gaiztoa, jainkozkoa/deabruzkoa, dohatsua/bekataria); berehala zigortzen zituen gaiztoak, eta saritu zintzoak.

Dena dela, ipuin moralizatzaileak ez dituzte beti teologo edo pedagogoek idatziko. Are, merkatua zabaldu ahala, liburuak zeukaten potentzialaz ohartuta, idazle gehiago sortuko da, eta eskola-irakasle asko hasiko da hurrei bideratutako liburuak idazten, HGLa diru-iturri segurua bihurtzen hasia baitzen. Fenomeno horren adibide gisa Gustav Nieritz daukagu, idazteari ekin zion irakaslea. Gosea, etxebizitza beharra, pobrezia etab. ziren ukitzen zituen gaietako batzuk; Biedermeier estilotik errealismorako jauziaren lehen zantzuak nabari zaizkio Nieritz-en lanari.

Schmid-en didaktismoari jarraiki baina merkatuan zegoen hutsunea bete nahian kaleratu zuen Heinrich Hoffmann-ek bere lanik entzutetsuena, *Struwwelpeter* (1845). HGLak eskaintzen zituen lanekin gustura ez eta, Eguberrietan, bere sormenetik ateratako lan bat oparitu zion hiru urteko semeari Hoffmann-ek. Marrazkiez lagunduta, esanekoak ez diren hurrek kontuan hartu beharreko lezioak ageri ziren liburuxkan. Bihurrikeriek dakarten ondorio txarrak ageri dira, eta nahiko modu zorrotzean eta gogorrean adieraziak gainera: ebakitako behatzak, odola iturriko ura balitz bezala isurtzen etab. Zeresan handia eman zuen eta egun ere ematen duen liburua da, batez ere ageri duen gogortasun eta zorroztasunagatik. Batzuen ustetan sadikoa ere bada. Bere garaian ere kritika gogorrak jaso zituen, haurrentzat batere egokia ez zela uste baitzuen askok. Hürlimann-ek dioen moduan (Hürlimann, 1982: 105), ordea, paradoxikoa gertatzen da psikologoengandik eta hezkuntzan aditu direnengandik horren kritikak izan den lana,

hain zuzen ere, mediku psikiatra batek idatzia izatea. Hoffmann psikiatra baitzen, izan ere, eta, hain justu, garaian bereziki berritzailea zen eroetxe bat ireki zuen. Garai hartan Frankfurt hiri askea zen (*freie Stadt Frankfurt*, hau da, ez zegoen Prusiaren menpe) eta Hoffmann-ek modu aktiboan hartu zuen parte politikan, ideia ireki eta aurrerakoiak bultzatuz. Loening liburu-saltzaileak kaleratu zion lehenik 1845ean lana, baina 1847an kaleratu zen gaur egun ezagutzen den moduan, *Struwwelpeter* izenburupean, alegia. Hoffmann bera bizi zela ere hainbat eta hainbat hizkuntzetara itzuli zen liburua, kontinenteetan barrena zabaldu zen, eta 15 milioi ale ere saldu zirela kalkulatzen da²¹.

Struwwelpeter lanaren antzekoa da Wilhelm Busch idazleak egindako sorkuntza-lana. *Max und Moritz* da haren lanik ezagunena (1865)²². Eguneroko bizitza burgesari eta helduek haurrengan daukaten autoritateari egiten dio barre Busch-ek. Gauzak horrela, esan beharrik ez dago, garaiko pedagogo askoren mespretxua jaso zuen Busch-ek. Hala, Ilustrazioan nahiz Erromantizismoan haurren inguruan eraiki zen irudiari kontra eginez, Hoffmann eta Busch bezalako idazleen eskutik oso bestelako irudi bat sortuko da, haur gaizto eta bihurriarena.

Gainerakoan, hurrei bideratutako historia-liburuek funtzio berezia bete zuten garai aztoratu haietan, Frantziak (Napoleonen gidaritzapean) lurralde aleman gehienak menderatu zituenez, hezkuntza nazionala bultzatzeko helburua duten historia-liburuak

²¹ Euskarazko itzulpena (*Peru Tximaluze*) 2008an argitaratu zen, Zeberrioko Udalaren eta Zertu Kultur Elkartearen artean egindako argitalpen batean.

²² Gurean, 1991ean itzuli zuen Pello Zabaletak Pamiela argitaletxean (*Max eta Moritz*, 1991). Bai *Struwwelpeter* bai *Max und Moritz* lan klasikoak badira ere, euskal HGLaren inguruan sistema bat finkatu denean baino ez dira biak euskarara ekarri.

egingo baitira, nazioarekiko maitasuna sustatzearen. Bestalde, 1840ko eta 1850eko hamarkaden artean antisemitak diren lanak hasiko dira ugaritzen (Pech in Wild, 2008: 151).

Historia-liburuez gain, bidaia- eta abentura-liburuak dira aipatzekoak, eta, autore ezagunenen artean, Karl May. Egile hau arrakastatsu bihurtu zuen pertsonaia *Winnetou* indioa izan zen. Pertsonaia horri buruzko hiru liburukiak 1892an atera ziren, baina, guztira, gai horren inguruko 65 ale atera zituen. Esan behar da, hala ere, Karl Mayk horren xeheki deskribatzen zituen Ameriketako parajeak irudimenetik atereak zirela, 1908 arte ez baitzen idazlea Ameriketara joan (Hürlimann, 1982: 99). Garai hartan, ordea, indioena modako generoa zen, eta Karl Mayk berak Cooper edota Sealsfield-en hainbat eta hainbat lan izango zituen irakurriak.

Testu-liburuen gorakada ere gertatuko da, “in den ersten Jahrzehnten des 19. Jh.s ist eine außerordentliche Zunahme sachliterarischer Werke zu beobachten. Sie nimmt oft mehr als ein Drittel der Kinderbuchproduktion ein” (Pech in Wild, 2008: 159). Kontuan hartu behar da gizartean aurrerapen teknikoak gertatuko direla eta eskola teknikoak ere irekiko direla, gazteak gai horietan hezteko. Gainera, 1830ean litografiaren teknikaren sorrerarekin batera, asko erraztu zen inprenta-lana, eta idazlanak kopuru askoz handiagoan ekoizteko aukera ekarri zuen horrek.

XIX. mendearen amaiera aldera Prusiaren eta Frantziaren arteko gerra gertatuko da, eta horrela lortuko da Alemania bateratzea (*Das Kaiserreich*), 1871ean, Otto von Bismarck-en gidaritzapean. Bigarren inperio deituriko honek Lehen Mundu

Gerra arte iraungo du (1914-1919); ondoren, Weimarko errepublika sortuko da.

Lehen ere aipatu dugunaren ildotik, liburu-merkatuak hazten jarraituko du 1860tik aurrera: argitaletxeen ekoizpena azkartuko duten hainbat asmakuntza egingo dira, irakurle kopurua nabarmen igoko da eta, testuinguru honetan, haurrentzako aldizkariak kaleratuko dituzte, hala nola *Der gute Kamerad*, *Das Kränzchen* edota *Das neue Universum*. Dena den, liburugintza zabaldu ahala, maila berean zabalduko dira HGLa bideratu eta kontrolatzeko batzordeak: *Jugendschriftenkommissionen*, gazteei bideratutako idatziez arduratzen diren batzordeak. Hala, 1893an hainbat eskualdetako batzordeak bildu eta *Die Jugendschriften-Warte* osatuko dute (Wilkending in Wild, 2008: 175).

Nazioaren irudi bukolikoa eskaintzen duten lanen artean, bitxia da Johanna Spyri idazlearen kasua, suitzarra izanik ere, Alemanian lortuko baitu, batez ere, oihartzuna (Wilkending in Wild, 2008: 177). Wilkendingen ustez, Spyriren *Heidi* lanak (1880) errealismo zantzuak ditu. Tradizioa eta kutsu moralizatzailea dituen lana bada ere, haurren barneko egoeran sartzen da, eta haren izu eta desioak azaleratzen ditu. Hala, herri-literaturako elementuz eta elementu tradizional erlijiosoz betea dago, baina, horretaz gain, hirietan bertako biztanleek dauzkaten arazoez hitz egiten digu, betiere haur baten ikuspegitik. Alde horretatik, hiria demonizatzen duela ere esan genezake (Heidi protagonista gaixotu egiten baita, hain zuzen ere, mendietatik eta landagunetik urrun dagoelako), baina, aldi berean, Frankfurt hiriak neskatoari eskainitako gauza onak ere erakusten ditu, hots, idazten eta irakurtzen ikasten duela. Hain zuzen ere, mendietara itzultzean,

aitona mendietatik jaitsi eta herriko bizimoduan gehiago barneratzea izango da Heidiren helburuetako bat.

Fantasia eta animaliak protagonista diren istorioak ere agertuko dira: *Die Biene Maja* idatziko du Waldemar Bonsels-ek 1912an eta garaiko HGLko egile ezagunenetakoa izango da hurrengo bi hamarkadatan²³.

Bestalde, garai honetan bereizi egingo dira lanak sexuaren arabera, hala nola neskei zuzendutako lanetan bizitzari buruzko hausnarketak izango dira nagusi (*Lebensgeschichten*) eta, oro har, maitasun-istorioak. Mutilentzat, berriz, bidaia- eta abentura-liburuak idatziko dira. Horrek ez du esan nahi, jakina, neskek ez zituztenik irakurtzen merkatuak mutilei zuzentzen zizkien lanak edo alderantziz, baina liburu-merkatuan bereizkuntza hau nabarmentzen hasi zen, eta bereizketa joera hori ez da 60-70eko hamarkada arte hautsiko (nahiz eta inork eztabaida lezakeen gaur egun ere, neurri batean, badela sexu-bereizketarik HGLan).

3.2.1.5 Weimarko Errepublika (1919-1933)

Lehen Mundu Gerra amaituta, azaroko iraultzaren ondoren eta Versailleseko Ituna sinatuta, Weimarko Errepublika sortu zen, Konstituzio berria eta guzti. Hamalau urteko iraupena izan zuen

²³ Gurean *Maya erlea* oso lan arrakastatsua izan da, baina ikus-entzunezkoei esker jaso dugu batez ere, eta gaztelaniaz, kultura japoniarrean sortutako egokitzapen baten eskutik, beraz (*みつばちマーヤの冒険 Mitsubachi Maya no boken*, 1975). Liburu formatuan, euskaraz, 2007an atera da lehendabizikoz lan hau, EITBren eskutik (47 orriko liburutxo bat da, eta ez da itzultzailearen edo idazlearen izenik ageri). Hala, Maya erlearen kontakizuna ere zeharkakotasun mota desberdinen adibide dugu: jatorrizko testu alemana japonieraren bitartekaritza moldatu da ikus-entzunezko produktura; ez dakigu gaztelaniazko bertsiok zuzenean itzuliko zuen gaztelaniara ala zeharka, baina euskarara gaztelaniazko bertsiotik iritsi zaigu, lehendik ere aipatu dugun zeharkakotasun diglosikoaz.

erregimena izan zen, baina nahiko mugitua eta arazotsua: 1919-24 bitartean gerra osteko krisia izango da nagusi; 1925-29 bitartean egoera finkatu egin zela esan genezake; 1930-33 bitartean mundu mailako ekonomia-krisia egon zen, eta faxismoak indarra hartu zuen.

Erregimen berriak aldaketa sozial asko ekarri zituen berekin, hala nola hauteskundeetan bozkatzeko eskubide-berdintasuna, emakumearen berdintasuna, zortzi orduko laneguna ezartzea, bilkurak egiteko askatasuna nahiz adierazpen-askatasuna prentsan. Oinarrizko baldintza demokratiko horiek irabazteaz gain, ordea, esan behar da oso garai zaila bizi izan zuela ekonomiak. Gerra osteko inflazioa izugarria izango da. Krisi ekonomiko latza biziko du lurraldeak, eta horrek familien ongizateari erasango dio. Gosea eta pobrezia orokorrak izango dira, eta haur asko eta asko gerran senideren bat galdua haziko da.

Esan bezala, oinarrizko eskubide batzuk bermatuko dira haurren ongizateari begira, esaterako, haurren ongizatearen aldeko lege nazioanala onartuko da 1922an (*Reichjugendwohlfahrtsgesetz*), eta gizarteak bestelako aldaketa sakonak biziko ditu: emakumeak buruaskeagoak izango dira, gehiago barneratuko dira lan-merkatuan, erretzen hasiko dira, gona motzak edota alkandorak janzten etab.

Oro har, kultur sorkuntzari begira, oparotasun handiko garaia izango da Weimarko Errepublika, eta horrek HGLari ere eragingo dio, batez ere, lehen esandakoaren haritik, haurren mundua eta haurtzaroa ikusteko moldeak aldatu egingo direlako. Garai honetan gertatuko den aldaketarik nagusiena, ordea, zinema eta

irratiaarena izango da. Haurrentzat ere egingo dira filmak eta irratsaioak, eta horrek aldaketa handia ekarriko du haurraren mundura, ikus-entzunezkoaren mundua irekiko baitio. Erich Kästnerren eleberrian oinarritutako filma, *Emilio eta detektibeak* (1931), haurrei zuzendutako filmerik esanguratsuenetariko bat izango da.

Garai honetan, kanpoko lanen itzulpen eta moldaketa ugari argitaratuko da: Ingalaterratik, Eskandinabiar herrialdeetatik eta baita Errusiatik ere. Garai honetan kaleratuko ditu Jón Svensson islandiarrak bere *Nonni* liburu ezagunak alemanez²⁴.

Kanpoko eraginaz gain, bertako ekoizpenean aldaketa nabaria gertatuko da, batez ere 1926tik aurrera. Genero berriak sortuko dira, hala nola haur-eleberriak eta detektibe-istoriak. Kontakizunek, gainera, kokagune berria izango dute: hiri handia eta, zehazki, Berlin metropolia.

Weimarko Errepublika garaian garatuko den langile-mugimenduaren testuinguruak HGLaren ekoizpenean ere izango du eraginik: Bruno H. Bürgel-en *Seltsamer Geschichte des Doktor Ulebuhle* (1920) lanean, Ulebuhle medikuak kaleko haurrak jaso eta *sendatu* egiten ditu, irakaspenak emanez, guztiok anaiak eta berdinak garela irakatsiz; Hermynia Zur Mühlen idazlearen *Was Peterchens Freunde erzählen* (1921) lanean, berriz, hainbat objektuk bizia hartu eta ohean datzan Peter haurrari azaltzen diote ekoitziak izan diren lantegietan langileak zapalduak daudela, langileak borroka egin behar dutela beren eskubideak erdiesteko etab.

²⁴ Euskarara Plazido Mujikak itzulia 1952an.

Hala, egileak ez dira garai bateko herri-ipuinetara itzuliko; bestelako lanak ekoitziko dira, hiri handiko haurrari begira, landagunekoari begira baino. Horren adibide, Lisa Tetzner idazlearen lanak, *Hans Urian geht nach Brot* (1929) edo *Hans Urian oder die Geschichte einer Weltreise* (1931); azken hori Weimarko Errepublikako HGLko lanik ezagunetarikoa.

Aipagarriak dira, halaber, 20ko hamarkada erdialdean argitaratutako bi lan: Carl Dantz-en *Peter Stoll. Ein Kinderleben. Von ihm selbst erzählt* (1925). Bertan, hiri handiko haur batek dauzkan gabezia eta beharrez hitz egiten da, baina baita haur horrek duen kemenaz eta indarraz ere. Beste lana Wolf Durian-ek idatzitako *Kai aus der Kiste* (1927) da, hor ere hiri handiko haurren egoera deskribatzen da, baina haurrak hiriko jaun eta jabe balira bezala.

Azken lan horren eragina jaso zuen Erich Kästner-en lan ezagunenetarikoak. *Emilio eta detektibeak* (1929) lanean Emilio eta bere lagunek eskuartean duten misioaz hitz egiten da. Lan horretan, ordea, Durianen lanean ez bezala, leku ordenatu eta moderno gisa ageri da hiria: ez da kaosik ageri, eta haurrak ere modu ordenatuan antolatzen dira, ia-ia parlamentu batekoa dirudien jarduna irudikatuz. Erich Kästner-en beste lan ezagun batzuk: *Pünktchen und Anton* (1931), *Der 35. Mai oder Konrad reitet in die Südsee* (1932)²⁵.

Oro har, esan daiteke Weimarko Errepublikaren garaian ideien zabaltze bat egon zela, eta horrek kultur sorkuntza oparoa eta aberasgarria ekarri zuela. Jarrera ireki hori, ordea, amaitu egingo

²⁵ Hiruak ere euskaratuak dauzkagu: *Maiatzak 35*, 83an Bittor Hialgok euskaratua; *Puntutxo eta Anton*, 89an Jon Legarretak itzulia; eta *Emilio eta detektibeak*, 91n Sarasolak itzulia.

da nazionalsozialismoaren garaipenarekin. Izan ere, 1933an gertatutako hausturaren eraginez, egile askok erbestera alde egin beharko du, liburu asko zentsuratu egingo dira, eta beste asko erre. Haur-literaturaz arduratzen zen *Jugendschriften-Warte* elkartearen propagandaren esanetara jarriko da, eta honelakoak aldarrikatuko ditu:

Was diesem ersten und wichtigsten Ziele schädlich ist, was überwundene liberalistische, individualistische und pseudosozialistische Tendenzen an die Jugend heranträgt, was artfremd ist und undeutsch, da wird ausgemerzt werden aus dem Erziehungsgut der deutschen Jugend (Karrenbrock in Wild, 2008: 259).

3.2.1.6 Faxismoa

Faxismoaren garaipenarekin nazionalsozialismoaren esanetara jarriko dira artea eta kultura, baita horien inguruan lan egiten duen oro ere.

1933an Letren Ganbera (*Reichsschrifttumskammer*) sortu zen, eta idazle, argitaletxe, liburuzain eta liburudenda guztiak bertako bazkide izan behar zuten nahitaez. Askori debekatu zitzaion bertan sartzeko baimena, funtsean, ideia politiko eta ideologikoengatik. Ganbera horrek kaltegarriak ziren idatzien zerrenda atera zuen urtero-urtero 1935 eta 1944 bitartean.

Ganbera horretaz gain, ordea, erregimen faxistak hainbat erakunde zituen, sortzen zen guztia kontrolatzeko. HGLaren ardura RJF-*Reichsjugendführung* eta NSLB-*Nationalsozialistische Lehrerbund* erakundeek zuten batez ere. Erakunde horiek erabakitzen zuten zer argitaratu zitekeen eta zer ez, betiere literatura politika nazionalsozialistaren arabera oinarri jarraiki. Helburua

zen zentsura ahalik eta modurik sotilenean bideratzea, herritarrek eta, are, nazioartean horren berri izan ez zezaten.

Horregatik, oso zaila da Hirugarren Reich-eko literaturaz hitz egitea, nazionalsozialismoaren propoganda egiten zuen literatura mota baino ez zegoelako (Josting in Wild, 2008: 279). Faxismoaren aginduetara ez zegoen HGL mota erbestean idatzi zen. Izan ere, 1933an bertan autore askok aldegin zuen Alemaniatik, eta, 1938an, baita Austriatik ere (Austria Alemaniari lotu zitzaionlarik). SPD edo KPD alderdikoak izategatik edota bi alderdi horien gertuko erakunde edo elkarteren batekoak zirelako erbestera behar izan zuten, edo judutarrak zirelako. Nazionalsozialismoaren gainbeheraren ostean ere asko ez ziren itzuli.

Zuzenean erbestera joan gabe, ordea, bada beste erbeste mota bat ere: barne erbestea, atzerrira ihes egin behar izan gabe, Alemanian geldituta, beren lanak erbestean argitaratzen zituzten idazleena, alegia. Horixe da, esaterako, Anni Geiger-Gog eta Erich Kästner-en kasua.

Kästnerrek Europako hainbat herrialdetan edota AEBn argitaratu zituen *Emil und die drei Zwillinge* (1935) lana eta, oro har, 1933 baino lehen nahiz ondoren idatzitako lanak. Alemanian antzezlan eta gidoiak ere argitaratu zituen, baina Eberhard Foerster eta Berthold Bürger ezizenak erabilita.

Jostinek bost taldetan sailkatzen du garai honetako erbesteko literatura alemana:

Erbestean eta atzerriko hizkuntzan idatzi eta argitaratutako lanak: 30 liburutik gora omen dira herrialde hartzailearen hizkuntzan idatzi eta argitaratu diren lanak; guztiak ere ingelesez

idatzitakoak, Ingalaterran eta AEBn argitaratutako liburuak, batez ere 1944/45 urteetan. Erika Mann idazleak (Thomas Mann-en alabak), esaterako, Amerikan argitaratu zuen *A Gang of Ten* liburua (1942), 1944an suedieraz eta gaztelaniaz argitaratu zen, eta urte berean plazaratu zuten Londonen ere, baina Alemanian ez zen 1989 arte argitaratu.

Erbestean idatzi eta Bigarren Mundu Gerraren ondoren argitaratu ziren lanak (edo inoiz argitaratu ez zirenak): erbestean idatzitako hainbat testu gerra ostean Alemania ekialdean edota Sobietar Batasunean argitaratu ziren, testu horien egileak antifaxistatzat edota sozialistatzat hartzen zirelako. Hori da, besteak beste, Bertolt Brecht-en *Der verwundete Sokrates* testuaren kasua (1938an idatzia, 1949an inprimatua). Ruth Rewald-ek 1938an idatzi zuen *Vier spanische Jungen* liburua, baina 1987an argitaratu zen Alemanian. Bada, ordea, egile beraren idatzi bat, oraindik liburu formatuan argitaratu ez dena: *Kinder aus China*, 1937an agertu zen *Der öffentliche Dienst* aldizkari suitzarrean, Lisa Tetzner idazlearen ekimenez, baina oraindik ez da liburu gisa argitaratu.

1933 arte Alemanian argitaratu ziren lanen berrargitalpenak: Alemanian 1933 arte argitaratu ziren lanen berrargitalpen batzuk erbestean egin ziren, batez ere oso arrakastatsuak ziren lanak edota nolabaiteko gizarte-kritika egiten zutenak, adibidez, Lisa Tetzner egilearen *Hans Urian* liburua, gizarteko gatazkak baititu hizpide eta HGL errealarako aldaketa ekarri zuen lantzat hartzen baita. Aipatzekoa da, baita ere, Felix Salten (Sigmund Salzmann berezko izenez) idazlearen lana, *Bambi* (1923), geroago Walt Disney konpainiak zinemara ere eramandakoa. Liburua salduenetakoa zen

Weimarko Errepublika garaian, eta 1928an Ingalaterran, Frantzian eta AEBn agertu zen.

Erbestean alemanez nahiz atzerriko hizkuntzan argitaratutako lanak: HGLko lan asko lehenik eta behin Suitzan argitaratu ziren (beraz, alemanez baino ez), baina Sobietar Batasunean edota Herbehereetan argitaratzen zirenean lehenik eta behin alemanez atera ziren, eta ondoren errusierara, holandarrera, Eskandinaviako hizkuntzetara, gaztelaniara, ingelesera edota hebreerara itzuli ziren.

Erbestean alemanez baino argitaratu ez ziren lanak: erbestean soilik alemanez argitaratu ziren liburu gehienak Suitzan atera ziren, batzuk baita Ingalaterran, Sobietar Batasunean edota Hego-nahiz Ertamerikan. Alemaniaren okupazioa 1938an eta 1940an zabaldu zen arte, Austrian, Txekoslovakian edota Herbehereetan ere alemanez argitaratzeko aukera zegoen. Sobietar Batasunean KPD alderditik hurbil agertzen zirenek baino ezin zezaketen argitaratu. Hala, beren lanak Sobietar Batasunean argitaratu zituzten idazleen artean dauzkagu Walter Schönstedt, Anna Segehrs, Hermynia zur Mühlen eta Berta Lask.

3.2.1.7 Aldaketa antiautoritarioa²⁶

1945eko maiatzaren 9az geroztik, Hirugarren Reich garaituak osatzen zuen lur-eremua lau zatitan banatu zen, eta bi erregimen politiko eta kultural desberdin sortu ziren. Ondoren, 1949az geroztik, Alemania bitan banatuta gelditu zen, ekialdea (DDR) eta mendebaldea (BRD). Banaketa politiko eta soziokultural horrek HGLan ere izan zuen eragina, jakina.

²⁶ Garai honetako lanak dira euskarara nahiko modu sistematikoan iristen lehenak.

Idazle esanguratsuenetariko bat Erich Kästner dugu; 1949an HGLko bi lan kaleratuko ditu: *Die Konferenz der Tiere* eta *Das doppelte Lottchen*. Aurrenekoan animaliek antolatzen duten biltzar baten berri ematen du Kästnerrek. Mundua hondatua dago, helduak ez dira ezer egiteko gai, eta hurrek galdua daukate itxaropena. Animaliek, haurren ordezkari gisa, biltzarra egin eta konponbideak adostuko ditzuzte. Suitzan bizi eta lan egiten duten Lisa Tetzner eta Kurt Held senar-emazteekin eta Walther Pollatschek-ekin batera, Kästner izango da 1945-1949 bitartean salbuespena liburuetan landuko diren gaiei dagokienez.

50eko hamarkada, berriz, oparotasun garaia izango da: 1954ean futboleko mundu-txapelketa irabaziko du mendebaldeko Alemaniak, mirari ekonomikoaren garaia izango da (*Wirtschaftswunder*), eta idazleak joera eta gai berriak lantzen hasiko dira. Joera berri horiek bereganatzen lehenetarikoa Hans Baumann izan omen zen (*Der Sohn des Columbus*, 1951; *Steppensöhne*, 1954²⁷; *Die Barke der Brüder*, 1956; *Ich zog mit Hannibal*, 1960). Faxismoaren garaian nazionalsozialismoaren kutsuko idazlea dugu Baumann, baina, garai berri honetan, publikoki baztertu omen zituen iraganeko joera horiek (Steinlein in Wild, 2008: 324).

Herrialdearen egoera hobetu eta joera liberalak zabaldu ahala, HGLko gaiak ere pedagogiatik urrundu eta fantasia eta psikologiara hurbildu ziren. Otfried Preußler-ek *Der kleine Wassermann* (1956) eta *Die kleine Hexe* (1957)²⁸ bezalako lanak argitaratu zituen.

²⁷ Zabaletak 81ean euskaratua.

²⁸ Azken hori Pilar Iparragirrek 83an euskaratua.

Fantasiari garrantzia handia ematen dion egilea dugu James Krüss. Fantasia darabil hurrei mundua eta errealitatea azaltzeko. Horixe egiten du baita ere bere lanik ezagunenean *Der Leuchtturm auf den Hummerklippen* (1956). Istorioa Bigarren Mundu Gerra amaitu zen garaian kokatzen du, eta itsasargi batean zoriontsu bizi den gizonaren istorioa kontatzen du, itsasargia delarik inguruan gertatzen den guztitik babesten duen oasia.

Michael Ende *Jim Knopf und Lukas, der Lokomotivführer* (1960) eta horren jarraipena *Jim Knopf und die wilde 13* (1962) idatziko ditu, haur-autonomia delakoaren adierazgarri direnak. Lan horietan Ende fantasiazko mundu bat sortzen du, eta Jim Knopfek bere gurasoen kontrolik gabe dihardu, autonomoki. Bere lagun Lukasekin abenturaz betetako bidaiak egingo ditu, izaki maltzurren esku zeuden haurrak askatuz.

60ko hamarkada amaieran, haur literatura fantastikoak antiautoritarismorantz joko du, eta Christine Nöstlinger daukagu horren adibide (*Die feuerrote Friedrike* 1970an eta *Wir pfeifen auf den Gurkenkönig* 1972an). Ezinbesteko bihurtu dela ere esan genezake, eta ez bakarrik geurean: Alemanian bertan ere kanoniko bihurtu dela baieztatu dezakegu, Index Translationum-en egindako bilaketan egilearen 733 izenburu aurkitu baititugu, eta munduko hizkuntza askotara egindako itzulpenak dauzka²⁹.

²⁹ Alemaniako HGL antiautoritarioak eragin handia izan du beste hizkuntza askotako HGL-sisteman. Aipagarria da, hala ere, HGL turkiarreen HGL alemanetik itzulitako lan gutxi dagoela: 25 urtean 53 lan baino ez dituzte itzuli alemanetik turkierara (Dilidüzgün eta Kurultay, 1992: 92). Kästner, Ende, Nöstlinger eta Härtling bezalako autoreak itzuli omen dira, baina gisako liburu gehiago itzultzea espero dute Dilidüzgünek eta Kurultayk, horrek bertako HGL-sisteman eta haurrengan eduki dezakeen eragin positiboa dela eta. Euskarara asko itzuli den egilea dugu Nöstlinger: gure katalogoan 13 izenburu dauzkagu.

Haurraren psikologia landu zuten egileen artean Ursula Wölfel da aipatzekoa, haurraren bilakaera eta behar psikologiko eta emozionalei erreparatzen dien egilea denez³⁰.

3.2.1.8 HGLa Alemania ekialdean

Bigarren Mundu Gerrak eragindako hondamendia bateko, eta indar okupatzaileek Alemania mendebaldearentzat bideratu zuten laguntza-politikak besteko, indar sobietarrek okupatutako zonalde alemaniarra dezente gaztigatua gelditu zen.

HGLko argitaletxe gutxi zegoen Alemania ekialdean. Funtsean, bi izan ziren Alemania ekialdeko HGL sozialistaren oinarri:

- *Verlag der jungen Generation*, 1946an sortua (aurrerago *Verlag Neues Leben* izena hartu zuen). Gazteentzako liburuak egiten zituzten.
- *Junge Pioniere* taldearen argitaletxe gisa jokatu zuen *Kinderbuchverlag* argitaletxea, 1949an sortua.

Dolle-Weinkauff-en arabera (Dolle-Weinkauff, 2000: 163), gezurra da Alemania ekialdeko HGLa Sobietar Batasuneko HGLaren imitazio gisa osatu zenik. Hasiera batean, HGL sobietarreko hainbat liburu itzuli baziren ere, Alemaniako Errepublika Demokratikoak bere HGL-sistema propio eta buruaskia osatu zuen. Hasiera batean, Weimarko Errepublikako literatura proletarioa berreskuratu zuten, edo 1933 ostean erbesteratutako idazleen lanekin osatu zen HGL-sistema. Hala, esate baterako, *Kinderbuchverlag* argitaletxean argitaratu zen lehen lana Bertolt Brecht-en *Der verwundete Sokrates* izan zen (100.000 aleko tirada atera zuten).

³⁰ *Feuerschuh und Windsandale* (1961) lana Umerezek eta Azpitartek itzuli zuten 1987. urtean, eta 11 aldiz berrargitaratu da itzulpena.

Alemania ekialdeko HGL-sistema gorpuzteko, ezinbestekoa izan zen 1950eko otsailaren 8an onartutako legea, haurrak Alemaniako Errepublika Demokratikoaren eraikuntzan parte hartzeari buruzkoa (*Gesetz über die Teilnahme der Jugend am Aufbau der Deutschen Demokratischen Republik und die Förderung der Jugend in Schule und Beruf, bei Sport und Erholung*), eskolan, lanean, kirolean nahiz aisian haien jarduera bultzatzeari buruzkoa. Lege horren bitartez, haur eta gazteen parte hartzea eta ekimena sustatu nahi zen eta, zehazki, laugarren artikuluan adierazten zenez, HGL mota berri bat sortu nahi zen (*Schaffung einer neuen Jugend- und Kinderliteratur*). Hala, lehiaketak, sariak etab. antolatu ziren, idazleen sormena sustatzeko, HGL mota berri baten aldera.

Bestalde, 1988 arte 200 ipuin eta dibulgazio-lan baino gehiago argitaratu zen faxismoa eta horri jarritako oposizioa gaitzat hartuta, lan antifaxistak, alegia. Horren adibide ditugu, Stephan Hermlin-en *Die erste Reihe* (1951), Dieter Noll-en *Die Abenteuer des Werner Holt* (1960), Karl Neumann-en *Das Mädchen hieß Gesine* (1966) edota Horst Beseler-en *Käuchenkuhle* (1965). Lan horiek zabalkunde handia izan zuten, eta 1980 arte gomendiozko lanak izan ziren. Dieter Noll-en lana, esaterako, kultuzkoa bihurtu zen, are gehiago 64an, liburuan oinarrituriko filma egin zutenean. Bestalde, Karl Neumann-en liburuaren eraginez, Gesine ohiko izen bihurtu zen Alemania ekialdean.

Alemaniako egoera zatitua bera ere hainbat liburutako gai izan zen. Horren adibide daukagu Benno Pludra-ren *Sheriff Teddy* (1956). Liburu horretan nabarmen hobesten da ekialdeko sistema mendebaldekoaren aldean. Gai hori bereziki errepikatuko da 61ean, harresia eraiki ostean. Bigarren Mundu Gerraren amaieran

kokatuta, Alfred Wellm-en *Pugowitzta oder Die silberne Schlüsseluhr* (1975) lana daukagu, soldadu sobietar baten lagun egiten den mutikoaren istorioa.

Gainerakoan, 50eko hamarkadaren erdialdean argitaratuko dira Alemaniako Errepublika Demokratikoko HGLko lan esanguratsuenetako bi: Ludwig Renn-ek idatzitako *Trini* eta Erwin Strittmatter-ek idatzitako *Tinko*. Bi lan horiek Artearen eta Literaturaren Sari Naizonala irabaziko dute, eta Alex Wedding-en lanekin batera Alemaniako Errepublika Demokratikoko lanik aipagarrienak izango dira.

Gazteei bideratutaklo gai ei dagokienez (*Jeanlitteratur*), Verlag Neues Leben argitaletxeko idazleetako batzuk 14-20 urte bitarteko gazteentzat idazten hasi ziren lanak dira aipatzekoak; gai nagusiak gurasoen etxetik ateratzea, lana, sexua etab. dira. Esate baterako, Kurt Wunsch-en *Fischkopp* (1978), Eva Maria Kohl-en *Es sollte ewig Sonntag sein* (1976) eta Dorothea Iser-en *Neuzugang* (1985).

Esan behar da, oro har, mendebaldeko HGLan 68an gertatu zen aldaketa 70eko hamarkadan gertatu zela ekialdean, hain zuzen ere, Ulrich Plenzdorf-en *Die neuen Leiden des jungen W* (1972) lanarekin. Era berean, Jurij Koch-en *Augenoperation* (1988) lanean Alemania ekialdeak bizi duen egoera zailaren arrazoi en eta erantzukizunen inguruko hausnarketa egingo da, ordura arteko lanetan ukitzen ez zen gaia.

3.2.1.9 70-90eko hamarkadak

Hamarkada horietan aldaketa askoren lekuko izan zen gizartea: hasteko, hezkuntza-urteak zabaldu ziren (institutua eta unibertsitatea), eta horrek luzatu egingo ditu haurtzaroari eta

gaztaroari dagozkien garaiak; familia kontzeptua ere aldatuko da, batez ere, emakume asko eta asko etxetik kanpo lanean hasiko delako eta, beraz, bestelako instituzioen esku utziko da haurraren heziketa, hala nola, eskolaren, bestelako elkarten edota komunikabideen esku; era berean, haurtzaroak arreta berezia irabaziko du, besteak beste, familietako haur kopurua izugarri jaitsiko delako (askotan haur bakarra egongo da), eta, beraz, arreta bideratuagoa izango da.

HGLrako interesa handitu egingo da garai honetan: 1971n Hans-Joachim Gelberg argitaletxeak Beltz & Gelberg bilduma aterako du; urte berean sortuko da dtv Junior, haurrentzako poltsikoko liburu-bilduma; eta, urtebete beranduago, Rowohlt argitaletxeak Rotfuchs bilduma aterako du.

Literaturari gagozkiola, errealitateko gaiak islatuko dira liburuetan: politika, kritika soziala, familia eta eskolako arazoak, nerabezaroen bizipenak sexualitatearen inguruan, drogak, kriminalitatea eta indarkeria, ingurumena, iragan nazionalsozialista etab. Fantasiatzko generoa egiteko ere modu berriak agertuko dira (Nöstlinger-en *Ich pfeife auf den Gurkenkönig*, 1972; Ende-ren *Die unendliche Geschichte*, 1979; eta, 90eko hamarkadan, *Harry Potter*en goraldia), hain zuzen ere, pertsonaiei karga psikologiko handia emango zaielako.

Gerra hizpide dauzkaten lanak isilarazi egingo dira hasiera batean, eta judutarren jazarpenaren gaia, esaterako, Peter Reichter-en *Damals war es Friedrich* (1961) lanaren ostean hasiko da agertzen liburuetan (Wild, 2008: 354). Clara Asscher-Pinkhof idazlearen *Sternkinder* (1961) eleberria, Myron Levoy amerikarraren *Der gelbe*

Vogel (1981) ipuinak eta Gira Almagor israeldarraren *Der Sommer von Aviha* (1990) lanak ere erabakiorrak izan ziren.

Judutarren jazarpenaz gain, ordea, gerraosteaz hitz egiten duten lanak ere argitaratu dira, adibidez, Christine Nöstlinger-en *Maikäfer flieg* (1973) eta *Zwei Wochen in Mai* (1981) lan autobiografikoak.

Bestalde, 80ko hamarkadan sortuko da *nerabe-eleberri* terminoa (*Jeansliteratur* edota *emanzipatorische Mädchenliteratur* terminoak ere sortu ziren). Mota horretako lanetako protagonistek identitate-krisia bizi dute, gurasoengandik bereiztea, norik bere bizitzako baloreak eraikitzea (etika, politika, kultura etab.), aurreneko sexu-harremana, gizarteak ezarritako paperari uko egitea etab. Horiek dira agertzen diren gaiak. AEBko nerabe-literatura asko itzuliko da 70eko hamarkadan, eta, alemanez sortutakoei dagokienez, aipagarriak dira Dagmar Chidolue-ren *Lady Punk* (1985) eleberria, Alemaniako HGLko sariaren irabazle, eta egile berberaren *Magic Müller* (1992).

Nazioartean arrakastatsu bihurtu diren lanak ere badauzkagu, esaterako, Janoschen *Oh, wie schön ist Panama* (1978) lanak Alemaniako HGL Saria irabazi zuen³¹. Ilustrazioari garrantzia handia ematen zion lana zen, eta 80ko hamarkadan telebistako serie bihurtu zen.

1968ko gorabeheren ondoren, aldaketa politikoaren porrotak eraginda, ekologiak pixkanaka indar handia hartuko du Alemaniako gizartean. Aipagarria da, testuinguru horretan, Michael Enderen *Momo* lana (1973). Endek mundu utopiko baten

³¹ Euskarara Ainhoa Irazustabarrenak ekarri zuen 2010ean.

aldeko aldarria egiten du, ekologia zaintzen den eta gizakiak elkarrenganako errespetua eta atsegina erakusten duten mundua. Liburu hori ere zinemara (1986) eta telebistara (2001) eraman izan da geroztik. HGLak ikus-entzunezkoekin duen loturaren beste adibide bat.

80ko hamarkadan Gudrun Pausewang da aipatzekoa (*Die letzten Kinder von Schewenborn*, 1983 eta *Die Wolke*, 1987). Lan horietan indar atomikoaren eta ekologiaren kontra egiten diren sarraskien errealitatea jorratzen da, etorkizun ilun bat irudikatuta. Hala, ezkorra den utopia batera garamatza idazleak. Nolabait, berriz ere soziala den fantasia berreskuratuko du Pausewangek. *Die Wolke* lanarekin Alemaniako HGL Saria iarabazi zuen 1988an eta bere lanak derrigorrezko irakurgai bihurtu dira eskolan³².

3.2.1.10 Gaur egun, edo 90eko hamarkadatik honakoa

1989an Berlingo harresia eraitsiko da, eta 1990ean bi Alemanien bateratzea gertatu. HGLan ere gertakizun horrek izango du bere oihartzuna, alde batekoek nahiz bestekoek jorratuko duten gaia izango baita.

Historia gaietan, hala ere, holokaustoaren gaiak hartuko du garrantzia; horren adierazgarri dauzkagu Gudrun Pausewang-en *Reise im August* (1992) eta Mirjam Pressler-en *Malka Mai* (2001).

Azken urteotan, belaunaldi desberdinen arteko harremanak eta gerraostea bizi zutenen lekukotzak agertzen dituzten lanak argitaratu izan dira gai historikoak jorratzeko: Renate Welsh-en

³² Euskarara Mendigurenek itzuli zuen 91ean.

Besuch aus der Vergangenheit (2001) edo Renate Günzel-Horatz-en *Marie* (2000).

Nerabeentzat idatzitako literaturan, postmodernitateaz edo pop-literaturaz hitz egiten da, eta horren adibide gisa, Christian Kracht-en *Faserland* (1995) aipa genezake. Zortzi ataletan dago liburua banatuta, eta ataletako bakoitzean protagonistak iparraldetik hegoaldera Alemanian zehar bizi duen bidaian eginiko geldialdien berri ematen digu. Protagonistaren bizipen eta sentipenetan etsipena da nagusi, desilusioa. Politika, esaterako, elementu estetiko bat da, ez du garrantzia berezirik protagonistaren bizitzan, ez bada talde bateko partaide sentitzeko elementua.

Alexa Hening-en *Relax* (1998) lanean gazte talde batek drogekin eta sexuarekin dituen bizipenak kontatzen dira. Hedonismoa aldarrikatuko da eleberri horretan, plazerei kasu egitea. Joera postmodernoetan helburua ez da izango identitate egokia bilatzea, baizik eta identitate mota desberdinak hartu eta erabiliko dira.

Testu postmodernoen alboan 90eko hamarkadan dokumental balioa duten bi lan agertuko dira: Florian Illies-en *Generation Golf* (2000) eta Jana Hensels-en *Zonenkinder* (2002). Gazteen artean salduenenak izan dira. *Generation Golf* lanean bere bizitzako haurtzaroaren eta gaztaroaren berri ematen du idazleak, betiere tonu nostalgikoan, eta, *Zonenkinder* lanean, Alemania ekialdean egileak bizi izandako gaztetako oroitzapenak ageri dira.

Alde horretatik, Alemania ekialdeari buruzko oroitzapenen inguruan idazteko joera zabaldu da (zineman ere nabari da hori:

Sonnenallee edo *Goodbye Lenin*): Kathrin Aehnlich-en *Wenn ich groß bin, flieg ich zu den Sternen* (2003), Jakob Hein-en *Mein erstes T-shirt* (2002) edo Claudia Rusch-en *Meine Freie Deutsche Jugend* (2002).

90eko hamarkada amaieratik hona Alemanian irakurri diren literatur lan berritzaile gehienak ingelesa mintzatzen den herrialdeetatik etorritako lanak dira, itzulpenen bitartez Alemaniako liburu-merkatuan barneratuak. Joera horren erakusle da Alemaniako HGL Saria azken urteotan askotan eman zaiola ingelesez idazten duen idazleren bati³³: Kevin Brook britainiarrek *Lucas* (2006) lanarekin lortu zuen aipatu saria, eta, orduz geroztik, *Candy* (2007) eta *Kissing the rain* (2007) lanak oso arrakastatsuak izan dira. Markus Zusak australiarrek *Der Joker* (2007) lanagatik irabazi zuen sari bera, eta Kate Morgenroth amerikarra *Ruben* (2005) lanagatik egon zen hautagaien artean.

Alemanez idatzitakoen artean ditugu, esaterako, Jochen Till-en *Ohrensausen* (2002an saritua), Kristina Dunker-en *Schmerzverliebt* (2003), Benjamin Quabeck-en *Nichts bereuen* (2002) eta, batez ere, Christian Bieniek-en lanak (*Total verzaubert*, 2003; *15, Jungfrau, Schlampe*, 2003; *Knutschen erlaubt*, 2004). Ezin aipatu gabe utzi Zoran Drvenkar egilea, *Niemand so stark wie wir* (1998) eta *Der Bruder* (1999) lanen ondoren ere nerabeei zuzendutako hainbat eta hainbat lan postmoderno idatzi dituena. Aipagarria da *Die Kurzhosengang* (2004) lanarekin gertatutakoa: Victor Caspak eta Ives Lannois egileen *The mysterious adventures of the Short Ones* lanaren itzulpen moduan argitaratu zen, eta horrek sinesgarritasuna ematen zion Kanadan kokatzen zen istorioari.

³³ Alemaniako HGL Sariatik itzulpenak sortze-lanekin batera maila berean lehiatzen dira, eta horrek erakusten du itzulpenak Alemaniako sisteman duen estatusa.

Itzultzaile moduan Drvenkar egilearen lagun Andreas Steinhöfel agertzen zen. Lanak Alemaniako gazte-literatur saria jaso zuen 2005 urtean, eta orduan jakin zen ez zela itzulpena, sasi-itzulpena baizik, egiatan lana Drvenkar berak idatzi baitzuen.

Gaur egun, bestalde, fantasiako eleberrien benetako goraldia gertatu da. Harrera ona izan duten lan batzuk Andreas Schülter-en *Der Ring der Gedanken* (1995) edo Eva-Maria Lamprecht-en *Karo, die Computerhexe* (1997) dira, baina, batez ere, Joanne K. Rowling-en *Harry Potter* bildumak ekarri du iraultza (1998an atera zen alemanezko aurreneko bertsioa, eta 2007an azkena).

Rowlingen eragina jasota, nazioartean arrakastatsu bihurtu den egilea dugu Cornelia Funke. *Herr der Diebe* (2000) lanarekin egin zen, batez ere, arrakastatsu, 2005ean zinemara eraman baitzuten eta 23 hizkuntzetara itzulia dago. Funkeren lanak hasiera batean arrakastatsuagoak izan ziren Erresuma Batuan, AEBn eta Kanadan; ez zituen, ordea, hain kritika onak jasotzen Alemanian. *Tinta-bihotz* (2003) lanarekin, berriz, ez da gauza bera gertatu. Alemanian bertan ere Wetzlar hiriko fantasiako liburuari saria jaso zuen, eta Alemaniako HGL Sarirako izendatua egon zen.

Aipatu dugu gaur egungo HGLa multimediala dela (2.7 atalean), eta joera horren erakusgarri da gaur egungo HGL alemana. Ezinbestean aipatu behar dira *Hörbücher* edo entzuteko liburuen fenomenoak, 90eko hamarkadaren amaieratik edo XXI. mendearen hasieratik arrakasta izugarria lortu baitute, eta ekoizpen, salmenta nahiz kontsumoari dagozkion datuak izugarri hazi dira. Cornelia Funke, Kirsten Boie, Jostein Gaarder edo Paul Maar bezalako idazleen lanak daude entzungai. Funke eta Maar-en

kasuan, adibidez, beraiek irakurtzen dituzte beraien lanak; Kirsten Boieren kasuan, esaterako, haurrak dira liburua irakurtzen entzuten ditugunak. 90eko hamarkada amaieratik hona, *Hörbuch* delakoek leku berezia irabazi dute Alemaniako kulturean. Hala, sariak ematen zaizkie *Hörbuch* onenei, lehiaketak daude, kritikak idazten dira horien inguruan, liburu-azoketan leku bat eskaintzen zaie etab.

Entzuteko liburuek ez ezik, filmek ere nagusitasun handia lortu dute: Möbiusek dioenez (Möbius in Wild, 2008: 450), Peter Ruckrieglek eta Thomas Koebnerrek 2002an egindako lan batean azaldu zuten sortzen diren literatur lanen % 50 inguru film bihurtzen dela, eta Michael Sahr-ek 2004an egindako azterketa batean egiaztatu zuen portzentaje hori are handiagoa zela HGLan.

Beraz, argi dago literaturaren eta, bereziki, HGLaren eta ikus-entzunezko merkatuaren arteko lotura estua dela. Ewerek dio, ordea (Ewers, 2005), ikus-entzunezkoen bilakaera eta nagusitasun horrek ez duela liburuaren heriotza ekarri. Hala ere, liburuak galdua du haur eta gazteen aisialdiko monopolioa: orain beste komunikabide bat baino ez da, eta komunikabide nagusiek (zinemak eta telebistak) agintzen eta eragiten dituzten aldatetara egokitu behar du:

Wer sich für die Zukunft des Lesens und des Buches engagiert, sollte vermeiden, diese Kulturtechnik und dieses Medium zum Träger ausschließlich der eigenen generationspezifischen Kulturvorstellungen zu machen. Wir müssen zulassen, dass die nachfolgenden Generationen ihre eigene Lesepraxis und Buchnutzung entwickeln; nur dann werden das Lesen und das Buch eine Zukunft haben (Ewers, 2002: 26).

3.2.2 *HGL alemanaren polisistema*

Ikusi dugun moduan, edozein polisistematan hainbat ekintza-sistema dago, ekoizpenetik hasi eta kontsumora arte. Zehazki, bost ekintza-sistema bereizten zituen Ewers-ek: ekoizpen-sistema, banaketa-sistema, ebaluazio-sistemak, biltegiatze-sistemak eta kontsumo-sistemak. Horretaz gain, sistema horiek guztiak bateratzeko funtzioa betetzen duen sistema bat egon ohi dela ikusi dugu (askotan ekintza-sistema horietako bat izaten da).

Alemaniko HGLaren polisistemaren eraketaren berri izateko, Ewers-ek egindako azterketari jarraitu diogu. Hark banaketa- eta ebaluazio-sistemak behatzen ditu gertuagotik, horiexek direlako, haren ustez, esanguratsuenak HGLan (Ewers, 2000: 42).

3.2.2.1 **Haur eta gazteentzako liburu nahiz ikus-entzunezkoen merkatua**

Liburuez gain, haur eta gazteei bideratutako kasete, CD eta DVDak sartzen ditu talde berean, azken urteotan izugarri ugartu diren produktuak baitira. Dena den, Ewers-ek liburuei baino ez die erreparatzen polisistemaren deskribapena egiteko, ikus-entzunezkoek bestelako sistema edo polisistema bat eraiki baitute. Bestalde, merkatuaz ari denean, argitaletxeek ari da, baina ez ekoizle gisa betetzen duten funtzioari dagokionez, baizik eta banatzaile gisa egiten duten lanari dagokionez (lehen ere esan dugun moduan, funtzio hori askoz erabakiorragoa delako polisistema deskribatzeko).

Argitaletxeak, finean, HGLaren eskaintzaile dira, eta Ewers-ek hiru motakoak bereizten ditu Alemanian: HGLa tarteka baino eskaintzen ez dutenak, maiztasunik gabe (gehienetan egile jakin

baten obrak kaleratzen dituzte: esate baterako, Perthes argitaletxea –Wilhelm Hey idazlearen lanak argitaratu zituen eta, aurrerago, Johanna Spyrirenak– edota, gaur egun, Suhrkamp argitaletxea); bigarrenik, badira beren programatan HGL-bildumak sartzen dituzten argitaletxeak, HGLa argitaratzea beren markaren beste adar bat bezala aurkezten dutenak, alegia (Beltz argitaletxearen Beltz & Gelberg, Fischer argitaletxearen Fischer Schatzinsel etab.); azkenik, soilik HGLa plazaratzen duten argitaletxeak daude. 1950ean *Arbeitsgemeinschaft von Jugendbuchverlagen e.V.* izeneko elkartean bildu ziren HGLa argitaratzen ziharduten 13 argitaletxe, eta, 2000n, Alemania, Austria eta Suitzako 70 argitaletxe zeuden elkarte horretan ordezkatuak; alegia, 70 argitaletxe zeuden, gutxienez, soilik eta berariaz HGLa argitaratzen zutenak edo beren programan HGL-bilduma finkoak zituztenak (Ewers, 2000: 43).

Argitaletxeen eta kontsumitzaileen artean badira bitartekariak, hain zuzen, argitaletxeen ordezkari gisa jarduten dutenak, argitaletxearen produktuak zabaltzen, saltzen etab. (aipatzekoa da udazkenean Frankfurten eta udaberrian Leipzigen egiten diren liburu-azoketan HGLari berariaz eskaintzen zaiola lekua, eta Italiako Bologna hirian HGLaren liburu-azoka egiten dela). Bestalde, liburu-dendak daude, eta horietan ere, argitaletxeen moduan, desberdintasunak daude: HGLan berezitu diren ala ez. Dena den, Ewerek dioenez (Ewers, 2000: 44), kontuan hartzeko modukoa omen da hiri handietan HGLan berezituak diren liburu-denden kopurua. Bestalde, aipatu behar dira, berariaz liburu-denda izan gabe, HGLa salgai izaten dela, baita ere, jostailu-dendatan edota saltoki handietan.

Ekintza-sistema honetako azken katebegia eroslea genuke. Eroslea izateak, dena den, ez du esan nahi kontsumitzailea bera denik, HGLaren ezaugarrietan behin eta berriz ikusten ari garenez, heldua baitugu beti tartean, eta, HGLa erosterakoan ere, gehienetan helduak erosten du haurrentzat (gehienetan eskolak edo helduak berak erabakitako liburua). Gerta liteke, baita ere, erositako liburua/k ez egotea azken kontsumora bideratuta, baizik eta, esate baterako, liburutegi edo eskoletako bildumetarako erostea.

HGLa erosterakoan oparitan emateko izaten da askotan eta, hala, XIX. mendetik hona (lehenagotik ez bada), Gabonak dira, nabarmen, HGLa erosteko urte-sasoi puntakoena. Ondoren, *Ostern*, Aste Santuko oporrak datoz, lehen jaunartzea bezalako erlijio-ospakizunak eta urtebetetze-egunak (Ewers, 2000: 45).

HGLaren merkatuak, ordea, banaketa-funtzioaz gain, ebaluazio-funtzioa ere betetzen du. Izan ere, lehen aipatu ditugun argitaletxeetako ordezkariak liburu-dendatara joaten direnean, izenburu jakin batzuk gomendatzen dituzte, eta beste batzuk ez. Liburutegietako liburuzainek ere irizpide jakin batzuen arabera egiten dute liburutegian izango dituzten liburuen aukeraketa, eta haurrentzat erosten ari diren helduek ere aukeraketa bat egiten dute. Horiek guztiek nolabaiteko ebaluazio-funtzioa betetzen dute, izenburu batzuk hobesten baitituzte besteen aldean. Ebaluazio funtzio horrek, dena den, ez du maila ofizialik.

Azkenik, ekintza-sistema honetan funtzio bateratzailea sektoreko iritzi publikoak dauka, hala nola HGLaren inguruan kaleratzen diren lan eta ebaluazio-txosten ofizial guztiek:

katalogoak, aldizkariak etab. Aipatzekoa da *Börsenblatt für den Deutschen Buchhandel* delakoa, bereziki HGLan oinarrituz Alemaniako liburu-denden elkarteak urtero ateratzen duen argitalpena. Aldizkarien artean, aipatzekoak dira *Hits für Kids* edo *Look. Schauen - Lesen - Spielen. Das lustige Buchmagazin für alle Kids*.

Ewerek azpimarratzen duenez, Alemanian, haur eta gazteen liburu-merkatua ez da liburu-merkatu beregaina, baizik eta liburu-merkatu orokorraren segmentu bat da: “in den deutschsprachigen Ländern haben wir es dabei nicht mit einem separaten Buchmarkt, sondern mit einem Segment des allgemeinen Buchmarkts zu tun.” (Ewers, 2000: 47). Dena den, liburu-merkatu orokorraren segmentu den horrek geroz eta bereizgarri gehiago dituela nabarmentzen du Ewerek eta, hori, batez ere, geroz eta handiagoa den argiteletxeen kopuruan igartzen da, edota, esaterako, generoen espezializazioan (gazteentzako eleberriak geroz eta berezituagoak direla, esaterako).

3.2.2.2 Liburutegi publikoak

Liburutegi publikoak esatean, alde batera gelditzen dira erlijio jakin baten inguruan edo joera politiko baten inguruan osatutako liburutegiak, baita hezkuntza-instituzio baten inguruan osatutakoak ere (unibertsitateko liburutegiak etab.).

Hala, hasiera batean liburutegi guztiak erlijioari hertsiki lotuak sortu ziren (erlijioak zuelako liburuen kontrola) eta guk liburutegi publiko moduan ezagutzen ditugunak XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran hasi ziren sortzen Alemanian (Ewers, 2000: 48).

Liburutegiak, beraz, HGLaren eskaintzaile dira (ez liburuena bakarrik, baita haur eta gazteei bideratutako ikus-entzunezko

produktuena ere), baina, jakina, ez dute merkatuan dagoen guztiguztia eskaintzen, eskaintza aukeratu izan ohi da; alde horretatik, ebaluazio-funtzioa ere betetzen dute, herritarrei eskainiko dieten produktuen aukeraketa eta sailkapen bat egiten dutelako.

Alemanian, liburutegietarako liburuak aukeratu eta erostean *Einkaufszentrale für Bibliotheken GmbH* arduratzen da (liburutegi katoliko edo ebanjelikoetarako bestelako elkarteak daude). Bertako langileek, zenbait liburutegitako ordezkari batzuen laguntzarekin, proposamenak eta liburu-erreseinak egiten dituzte, liburuak adin-tartearen eta generoaren arabera katalogatu etab. *BA – Besprechungen, Annotationen. Basisdienst und Mitteilungsblatt der Lektoratskooperation für öffentliche Bibliotheken* izena du ateratzen duten argitalpenak (Ewers, 2000: 50).

Badira liburutegietako aldizkariak ere, betiere HGLaren inguruko kritika egitea helburu dutenak, hala nola, *BuB – Buch und Bibliothek. Medien, Kommunikation, Kultur. Fachzeitschrift des Vereins der Bibliothekare und Assistenten e.V.* edo *Die Bücherei. Zeitschrift für kommunale öffentliche Büchereien in Rheinland-Pfalz*. Gisa horretako argitalpenen garrantzia ez da nolana hikoia, argitaletxeek aurkezten dituzten esku-orri, erreseina eta iragarkiez gain, bestelako ikuspegitik egindako ebaluazioa eskaintzen baitute. Liburutegien iritzi publikoaz ere hitz egin liteke (hau da, merkatukoaz edo iritzi akademikoaz aparte):

Die vom öffentlich-bibliothekarischem Handlungssystem geleistete Sichtung und Bewertung des kinder- und jugendliterarischen Angebots steht, was ihre Breite, ihre methodische Homogenität und ihre Kontinuität angeht, gegenwärtig ohnegleichen dar. Die daran beteiligten Redakteure der Einkaufszentralen und Lektoren bzw.

Bibliothekare öffentlichen Bibliothekswesens in der Öffentlichkeit nur teilweise wahrgenommen werden, so wird diesem doch eine gewisse Autorität zubemessen. Das weitgehend autonome bibliothekarische Bewertungssystem wird durchweg als eine der legitimen kinder- und jugendliterarischen Sanktionsinstanzen anerkannt (Ewers, 2000: 51).

Beraz, liburutegi publikoen sareak banaketa funtzioa betetzen du, kontsumitzaileei liburuak eskaintzen dizkien heinean. Denbora-tarte baterako mailegua izaten da eta kontrolatua, beraz, kontsumoaren kontrola ere badakar horrek, hain zuzen ere, maileguan hartutako liburu motaren informazioa jasotzen dutelako. Gainera, informazio zehatza izaten da, liburuak generoka eta adin-tarteka sailkatzen dituztelako.

Sailkatze horretan ebaluazio-funtzioa ere betetzen dute, ikusi dugun moduan. Zein liburu bilduko duten eta zein ez erabakitzean aukeraketa bat eta, beraz, nolabaiteko ebaluazio bat gertatzen bada, hautatutako liburuak sailkatu eta katalogatzean ere ebaluazio prozesu bat gertatzen da, liburuak irakurle jakin batzuen arabera ordenatzen dituztelako.

Esan behar da HGLaren presentzia liburutegi publikoetan literatura orokorrarekin batera partekatutakoa izaten dela; hau da, ez dira HGLan berezitutako liburutegi publikoak egoten. Hala ere, badira publikoak ez diren eta HGLan berezitutako liburutegiak ere, ezagunena, Municheko *Internationale Jugendbibliothek* delakoa.

3.2.2.3 Eskolako irakurgaiak

Hurtzaindegiek eta eskolek HGLa zabaltzeko organo gisa jarduten dute. Hurtzaindegietan irudi-liburuak, albumak etab.

erabiltzen dituzte; eskolan, berriz, adinaren arabera mailakatutako testuak.

Eskolako irakurgaiez ari garenean, ez gara testu-liburuez ari, baizik eta ikasleak irakurtzera ohitzeko eta literaturara erakartzeko erabiltzen diren irakurgaiez. Hala, Ewerek *Schüllektüre* eta *Freizeitlektüre* bereizten ditu:

Bei der Schullektüre handelt es sich darüber hinaus per se um sanktionierte Literatur: Sie ist einer Prüfung unterzogen und nicht bloß für unbedenklich, sondern für wertvoll in schulpädagogischer Hinsicht befunden worden (Ewers, 2000: 54).

Hala, eskolak aukeraketa bat egiten du, zein irakurgai hobetsiko dituen bere ikasleentzat. Irakurgai klasikoak izan daitezke, nolabait eskola-umeentzat moldatuak, edo merkatuko beste edozein HGL-lan, irizpide jakin batzuk betetzen dituelako aproposa dena.

Esan behar da, hala ere, batez ere eskolako aurreneko mailetan ez dela hain ohikoa HGL-lanak bere horretan erabiltzea, kasu horietan berariaz eskola-haurrentzat egokitutako liburuak hautatzen baitira. Alde horretatik, erabakigarria izan zen 1963an Anna Krüger-ek atera zuen lana: *Kinder- und Jugendbücher als Klassenlektüre*, HGL-lanak eskolan erabiltzearen onurak azpimarratu baitzituen (Ewers, 2000: 55).

Eskolak, beraz, hautaketa bat egiten du, eta lan jakin batzuk hobesten ditu besteen aldean. Esan behar da lan-hautaketarako irizpideak desberdinak izan daitezkeela eskola bakoitzean edo, bestela, eskualde edo *Land* bakoitzean adosten direla.

Eskoletarako irakurgaiak mota horretako testuak argitaratzen dituzten argitaletxeen eskutik kaleratzen dira Alemanian (*Schulbuchverlage*). Eskolek ezartzen dituzten irizpideen arabera funtzionatzen duten argitaletxeak dira, eta eskola-haurrentzat egokiak diren irakurgaiak ateratzen dituzte.

Nolanahi ere, HGLko argitaletxeek ere ateratzen dituzte, ohiko HGL-lanez gain, eskolarako irakurgaiak. Ikastetxeek, beraz, liburutegiek ez bezala, liburu-merkatuko argitaletxeen eskaintzatik egiten dute hautaketa.

Aipatzekoa da, bestalde, ikastetxeetan ere izaten direla liburutegiak (*Schulbibliothek*), eta liburutegi publikoekin batera funtzionatu ohi dute.

3.2.2.4 Ekintza-sistema pedagogikoa³⁴

Ewerek dioenez, Alemanian eragin izugarria izan zuen irakasleek HGL-lanekiko hartu zuten jarrerak. Izan ere, XIX. mendean zehar, Wolgast pedagogo entzutetsuak aldarrikatutakoari jarraiki, irakasle asko HGL-lanak ebaluatzen hasi zen, betiere haurraren hezkuntza-beharrak kontuan hartuta. Horregatik bihurtu zen pedagogikoa ekintza-sistema honen ebaluazio-sistema: batetik, pedagogoek egina zelako eta, bestetik, haurraren hezkuntza-beharrak kontuan hartuta egiten zelako.

Familia aberatsenetan haurren hezkuntzaz arduratzen zirenak *Hofmeister* izenekoak ziren eta, eskolak emateaz gain, haurrek

³⁴ Nahasgarria gerta badaiteke ere, Ewerek bereizi egiten ditu *Kinder- und Jugendliteratur im schulischen Handlungssystem* (eskolako irakurgaietarako erreferentzia egiteko) eta *das pädagogische Handlungssystem* (ekintza-sistema pedagogikoa). Bigarrenarekin bereziki azpimarratzen du irakasleek historian zehar osatu izan duten indar-taldea.

irakurtzen zutena kontrolatzea ere beren eskuetan egon ohi zen. Hala, *Hofmeister* asko hausnarketa pedagogiko horiek guztiak idatziz jasotzen eta ondoren argitaratzen hasi ziren, esate baterako, 1844an *Musterung unserer deutschen Jugendliteratur* argitaratu zuen A. Detmer-ek, *Mittheilungen über Jugendschriften an Aeltern und Lehrer nebst gelegentlichen Bemerkungen über Volksschriften* Georg Wilhelm Hopf-ek, 1849an aurrena eta 1875ean 5. aldiz ere berrargitaratu zena (Ewers, 2000: 61).

Irakasleak biltzen hasi ziren, hirika nahiz eskualdeka, batzordeak osatuz, hain zuzen ere, HGLari buruzko beren hausnarketa pedagogikoak elkarbanatzeko. Azkenik, 1893an *Vereinigte Deutsche Prüfungsausschüsse* izeneko elkartean bildu ziren denak. Helburua, irakurgai onuragarriak eta kaltegarriak bereiztea, eta aukeraketa horretarako irizpideak bateratzea. Erakunde hori hilero hasi zen argitalpen bat ateratzen, *Jugendschriften-Warte*, gomendagarriak ziren irakurgaiak zerrendatuz.

Beraz, liburutegiek egiten duten antzeko funtzioa bete izan du, ikuspegi historiko batetik, ekintza-sistema pedagogikoak, biek ala biek merkatuko argitalpenetatik hautaketa bat egiten baitute (nahiz eta liburutegiak, horretaz gain, liburuen banaketaz ere arduratzen diren).

Dena den, ekintza-sistema pedagogikoak ebaluazio-organo gisa izandako eragina izugarria izan da Ewersen ustean, pedagogoek bakoitzak bere aldetik argitaratzen zituzten gomendioetatik hasi, batzorde moduan antolatuta gero eta, azkenik, organo oso moduan. Haien proposamen eta gomendioen hartzaileak, ikastetxe, irakasle eta gurasoez gain, liburutegi, liburu-

denda eta are, argitaletxeak ere baziren, guztiek ikusi nahi zituztelako beren lanak zerrenda horietan:

Der Einfluß, den der pädagogische Bereich auf die Kinder- und Jugendliteraturproduktion ausgeübt hat, kann –jedenfalls in historischer Perspektive– nicht hoch genug angesetzt werden, auch wenn dieser den Pädagogen zu allen Zeiten noch als viel zu gering erschien. Die von der Pädagogenzunft, später von Lehrerverbänden und deren Prüfungskommissionen ausgehenden Bewertungen des kinder- und jugendliterarischen Angebotes haben, dank der ihnen in nahezu allen Gesellschaftsschichten zugesprochenen Autorität, das Käuferverhalten in einem solchen Maße beeinflußt, daß nur wenige Verlage an ihnen vorbei produzieren konnten (Ewers, 2000: 65).

3.2.2.5 HGLaren iritzi publikoa

Talde honetan sartuko lirateke kazetariak, literatur kritikariak, epaimahaikideak, kultur eragileak etab. Ekintza-sistema gazteena litzateke honako hau, batik bat XX. mendearen bigarren erditik aurrera izan baitzuen zeresana Alemanian (Ewers, 2000: 66). Bere egiteko nagusia HGLaren eskaintza aurkeztu, ebaluatu, eztabaidatu eta sailkatzea da, HGLaren kritika eta eztabaidaren gune diren aldizkari, egunkari, telebista- nahiz irratsaioetan. Antolatzen diren hitzaldi, irakurraldi, lehiaketa eta sari-banaketa moduko ekitaldiak ere ekintza-sistema honen beraren barruan sartuko genituzke.

Hori horrela izanik, ebaluazio-funtzio ofiziala da HGLaren iritzi publikoak betetzen duena eta, beraz, merkatuak berak edota liburutegiek egiten dutenetik desberdina. Izan ere, merkatuak edo liburutegiek helburu ekonomiko edo pedagogikoen arabera gomendatzen dituzte zenbait lan. HGLaren iritzi publikoak, oster,

ez luke mota horretako irizpideen arabera funtzionatu behar: berez, tratu bera eman behar die lan eta egile guztiei.

Iritzi publikoak, beraz, ez dio irakurleari aukeraketa murrizten, eta, irakurleak, iritzi publikoak esan duena esan duela ere, lan jakin bat kontsumitu nahi badu, kontsumitu egingo du. Aldiz, merkatuak eta liburutegiek egiten duten aukeraketa –liburu jakin batzuk eskainiz eta beste batzuk ez eskainiz–, horrek bai mugatzen du irakurleak eskura duen eskaintza.

Bestalde, helduak ditugu iritzi publikoaren sortzaile nahiz hartzaile, betiere lanagatik edo bestelako arrazoiengatik HGLaren inguruan funtzionatzen duten helduak. Aipatzekoa da, dena den, Alemanian badela haur eta gazteek eurek sortutako iritzi publikoa HGLaren inguruan. Badira gaztetxoek idatzitako iritziak, haiek antolatutako sariketak edo erakusketak etab. Helduen laguntzarekin antolatutako jarduerak dira, baina betiere gazteenek eurek erabakitakoaren arabera (Ewers, 2000: 69).

3.2.2.6 HGL-sistemaren egungo egoera eta estatusa

HGL-sistemak funtziona dezan, aztertu berri ditugun ekintza-sistemetak batek hartu ohi du funtzio arauemailea, hau da, ekintza-sistema guztiak gutxi gorabehera koordinatu eta arautzeko funtzioa. XIX eta XX. mendeetan, esaterako, ekintza-sistema pedagogikoak bereganatu omen zuen funtzio hori. Gaur egun ere, sistema pedagogikoa egon badago, baina pisu handia galdu du funtzio arauemaile gisa, batez ere 60ko hamarkadatik aurrera eskola-irakurgai gisa HGLa onartzen hasi zen unetik:

Der [...] Pädagogenstand verliert in den Augen der allgemeinen wie der Fachöffentlichkeit mehr oder weniger seine

Zuständigkeit für die Kinder- und Jugendliteratur qua Freizeitlektüre, gibt sie gewissermaßen ab an das öffentliche Bibliothekswesen und die kinder- und jugendliterarische Öffentlichkeit [...], um sich fortan – nunmehr als Lehrerschaft und zugleich in weitaus größerer Zahl – auf die Kinder- und Jugendliteratur qua Schullektüre zu konzentrieren (Ewers, 2000: 74).

Funtzio arauemailea, ordea, ez omen dute ez liburutegiek ez iritzi publikoak bere gain hartu. Helduen literaturan, kritika literarioak eta literatura-eremu publikoak betetzen du funtzio hori, baina HGLan ez da horrelakorik gertatu. HGLaren kritikak bizi duen miresmen urriak zerikusi handia du horretan guztian: askotan HGLaren kritika egiten da helduen literatur kritikagintzan hasteko abiapuntu gisa; horregatik, ohikoa izaten da kritika ez profesionalak aurkitzea. Hala, helduen literaturan kritiketako iritziak kontuan hartzen badira ere, HGL-sisteman, liburutegi eta eskolek beren irizpideari egiten diote kasu, kritikari baino.

Der hier umrissene geschichtliche Wandel hat das kinder- und jugendliterarischen Polysystem in ein Stadium geführt, in dem es kein eindeutig fixiertes und allseits anerkanntes Zentrum mehr gibt. So stellt sich um so dringlicher die Frage nach dem Zusammenhalt dieses Polysystems (Ewers, 2000: 76).

Ez omen dago Alemanian HGLaren polisistemaren batasunaz arduratzen den ekintza-sistema finkorik; erdigunea falta omen da, beraz.

Horrek ez du esan nahi saiakerarik egon ez dagoenik: HGLaren berezko eremu publiko bat sortzeko ahaleginak egon badaude Alemanian, baita, neurri batean, Austrian eta Suitzan ere. Ewarsek aldizkari espezializatuen sorrera ematen du adibide gisa

(besteak beste: *Bulletin Jugend & Literatur*, *Eselsohr*, *Fundevoegel*, *JuLit*), baita hainbat ekimenen bultzatzaile bihurtu diren elkarteak ere (Munichen egoitza duen *Arbeitskreis für Jugendliteratur e.V.* elkartearen arduratzen da, esaterako, *JuLit* aldizkaria argitaratzeaz, edota Alemaniako HGL Saria emateaz).

Hala eta guztiz ere, elkarte eta adar guztien arteko batasun falta sumatzen du Ewarsek. Indarrak zentrifugoak direla dio, eta horrek ekarri duela HGLaren polisistema bat eratu ahal izateko hain beharrezkoa den indar bateratzailerik ez egotea:

Im ganzen gesehen stellt sich die Kinder- und Jugendliteratur auf der Handlungsebene gegenwärtig als ein vielgliedriger Bereich mit einer relativ schwachen Zentrierung dar. Die Folge davon ist, daß das Gesamtbild dieses Literaturzweiges vergleichsweise diffus ausfällt: Wir haben es jetzt mit einer höchst vielfältig sanktionierten Literatur zu tun, wobei keine der einzelnen Sanktionierungen so herausragt, daß sie zu einem primären Gegenstandscharakteristikum aufsteigen könnte (Ewers, 2000: 78).

Beraz, indar bateratzailea eragiten duen erdigune baten falta sumatzen du Ewarsek gaur egungo Alemaniako HGL-sisteman. Horrekin lotuta, generoak gaur egun estatus baxua bizi duela irakurtzen diogu O'Sullivan. HGL alemanak nazioartean pisu handia izan zuela aitortzen du, baina pisu hori batez ere ilustrazioaren eta erromantikoen garaian izan zuela (ikus 3.2.1.2 eta 3.2.1.3 atalak). Hala ere, bazterreko bihurtzen duten ezaugarriak unibertsalak direla ere gaineratzen du. Hau da, helduen literaturarekin alderatuta, HGLa edozein kulturatan omen da bazterrekoa:

Die in diesem Kapitel angeführten, sie von der Allgemeinliteratur unterscheidenden Merkmale der Kinderliteratur –ihre Bestimmung als von gesellschaftlichen Instanzen der Lesergruppe Kinder und Jugendliche zugeteilten Texten, die Asymmetrie der kinderliterarischen Kommunikation und die Zugehörigkeit zum literarischen und pädagogischen System– können als universal angesehen werden, als Merkmale von Kinderliteratur an sich (O’Sullivan, 2000: 131).

Guk ere uste dugu HGLaren estatus baxua zerbait orokorra dela, generoaren ezaugarriak direla-eta kultura gehienetan errepikatzen dena. HGLak Alemanian duen pisua, ordea, ez da bazterrekoa; are gutxiago salerosketa-datuei erreparatzen badiegu: Alemaniako liburu merkatu orokorrak 9,6 mila milioi euroko fakturazioa eragin zuen 2011n (2010ean baino % 1,4 gutxiago); salmenta kopuru orokor horretan HGLak duen proportzioa, ordea, geroz eta handiagoa omen da, 2011n % 15,7koa izan zen. Azpimarratzekoa da, hala ere, salmenta gehien eragin zituen liburua itzulpen bat izan zela: *Gregs Tagebuch* arrakastatsua, ingelesetik itzulia eta 2,6 milioi ale salduta.

HGLko argitalpen berrien kopurua ere adierazgarria da: 8.225 argitalpen berri plazaratu ziren 2011n, 2010ean baino % 1,8 gehiago. Hala, liburu-ekoizpen osoaren % 10 hartzen du HGLak Alemanian, baina fakturazio osoaren % 15,7 eragiten du.

Itzulpen datuei erreparatuta, itzulpen-hartzaile handia da Alemania: HGL-ekoizpen osoaren % 22,9 itzulpenak izan ziren 2011n. Itzulpen horien % 63,8 jatorri anglosaxoiekoa zen, % 10,4 jatorri frantsesekoa eta % 6 Japoniakoa (komikiek duten arrakasta dela-eta ulertzen da Frantziatik eta Japoniatik etorritako liburu

kopuru handia). Dena den, itzulpen-hartzaile izateaz gain, bere ekoizpena mundura kanporatzen duen herrialdea dugu Alemania:

Mit 2.462 Verträgen ist das Kinder- und Jugendbuch der Motor im Exportgeschäft der Inhalte. Die deutschen Verlage haben sich international einen guten Ruf erarbeitet, der vor allem – aber keineswegs nur– bis nach China vordringt (*Börsenverein des Deutschen Buchhandels*, 2012: 105).

Hala, 2011n saldutako lizentzia guztietatik % 30,8 HGLko lizentziak izan ziren³⁵.

Datuok ikusita, ezin esan daiteke Alemaniako HGLa makal dabilenik. Baliteke, bizi duen estatus baxua salatzen duten iritziek gehiago egitea erreferentzia literatur sistemaren barruan duen miresmen urriari, miresmen profesional urriari, alegia. Gainerakoan, datuek erakusten dutenez, liburu-merkatuaren zati garrantzitsua da, Alemanian ere, HGLa.

Bestalde, generoa bera bultzatzearren antolatzen diren ekitaldiei erreparatuta, bi sari nagusi antolatzen dira Alemanian. Hainbat elkarte txikiagok sariak antolatuko badituzte ere, ekimenik nagusiena Alemaniako Haur Literaturaren Saria da (*Deutscher Jugendliteraturpreis*). Sari hori 1956an eman zen aurreneko aldiz, 1981ean *Deutscher Jugendbuchpreis* izena hartu zuen, eta, gaur egun, urtero-urtero banatzen da, irudi-liburu onena, haur-liburu onena, gazte-liburu onena eta HGLko saiakera-liburu onena sailetan.

³⁵ Euskarara itzultzeko 14 lizentzia saldu ziren 2011n, aurreko urteetako joera jaitsiz. Izan ere, 2007an 18 lizentzia salerosi ziren euskararako, 2008an 9, 2009an 15 eta 2010ean 28. Katalanera, 51 lizentzia saldu zen 2007an, 53 2008an, 36 2009an, 81 2010ean eta 43 2011n. Datu horiek ez dira hizkuntza hegemonikoek dituztenekin konparagarriak, jakina: gaztelaniara itzultzeko 567 lizentzia saldu zituen Alemaniak 2011n.

Azpimarratu behar da –ez baita inondik ere ohikoa– itzulitako produkzioa jatorrizkoaren parean hartzen dela kontuan sari horiek ematerakoan. Tabbert-ek egindako azterketa baten arabera (Tabbert, 1998: 95), 1956tik 1995 bitartean saria jasotako lanen jatorriari dagokionez, albumetan % 46,6 izan dira atzerriko liburuak, haur-liburuetan % 44,7, gazte-liburuetan % 61,9 eta saiakeratan % 40,6. Beraz, irudi-liburuetan eta gazte-literaturan nabarmendu da gehien itzulpenen nagusitasuna. Saritutako liburuen jatorriari dagokionez, berriz, itzulpenen % 50 baino gehiago AEBtik edo Erresuma Batutik etorritakoak dira.

Deutscher Jugendpreis sariaz gain, *Buxtehuder Bulle* saria dago. *Buxtehuder Bulle* saria 1971. urtetik hona ematen da urtero, baina 14-17 urte bitartekoei bideratutako liburu onenari soilik ematen zaio. Aurreneko aldiz ematen hasi zirenetik 1995 arte 21 aldiz eman zuten saria, horietatik 7 aldiz atzerriko hizkuntzadun egileren bati (kasuen % 33,3). Atzerriko hizkuntzan sortzen duten egile horietatik 6k ingelesa erabiltzen dute eta, batek, holandesa (Rieken-Gerwing, 1995: 39).

Nola *Deutscher Jugendpreis* sarian nola *Buxtehuder Bulle* sarian, ez dago itzulpen onenari berariaz ematen zaion saririk; itzulpenek jatorrizko liburuen maila berean lehiatzen dute, eta, hala ere, ez da gutxitan gertatu sarituak itzulpenak izatea. Alemaniako HGL-merkatuan ekoizitako lau liburutik bat da itzulpena. Saritutakoen proportzioari erreparatuta, gazte sailean, esaterako, 3:2 da, itzulpenen alde, *Deutsche Jugendpreis* saria jasotakoen proportzioa (Rieken-Gerwing, 1995: 41). Rieken-Gerwingen ustez, itzulpenek aurre-sailkapen baten galbahetik pasatu behar dutelako atera dira sarriago garaile. Izan ere, liburu onenak edo berezienak baino ez

dira itzultzen, hau da, ez asko, baina itzultzen diren horiek saria jasotzeko aukera handia dute: “Gerade im Kb- und Jb-Sektor werden nur die ‘besten’ Bücher für eine Übersetzung vorgeschlagen” (Rieken-Gerwing, 1995: 41).

3.2.2.7 HGLaren ikerketaren bilakaera Alemanian

Gaiaren inguruko azterketa teorikoak tradizio handikoak dira Alemanian. Ewers-ek dioenez (Ewers, 2002: 1), aurreneko hausnarketak XVIII. mendearen amaieran eta XIX.aren hasieran atera ziren, eta eragin handikoak izan ziren atzerrian ere. Aipatzekoak ditugu, esate baterako, Joachim Heinrich Campek *Robinson der Jüngere* (1779/80) liburuan egiten duen hitzaurrea, edota Grimm anaiek beren ipuin-bildumaren hasieran (1812/15; 1819) gaiaren inguruan egiten duten aitzin-solasa.

Ondoren, XIX. mende osoan, Erromantizismoaren gorakadarekin batera, aleman filologia aztergai akademiko bihurtu zen, nahiz eta HGLak askoz gehiago itxaron beharko duen maila hori lortzeko (XX. mendeko 60ko hamarkada arte ez baitzaio halakorik aitortuko HGLaren ikerketari).

Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi gaiaren inguruan lan egiten zutenek HGLaren inguruko ikerketak egiten ez zituztenik. Izan ere, XIX. mendearen erditik aurrera, apaizak, hezitzaileak eta liburuzainak arduratu ziren gaiaren inguruko hausnarketak egiteaz, maila ez akademikoan (XX. mendean liburu-saltzaileak eta bildumagileak batu ziren talde horietara).

XX. mendean, berriz, Hamburg-eko Heinrich Wolgast (1860-1920) irakasleak Europan zehar aipagarria izango den lan bat aterako du: *Das Elend unserer Jugendliteratur* [Gure haur-

literaturaren zoritxarra] (1896). Bertan, HGLak helburu moralizatzaileetatik ihes egiteko duen beharra azpimarratuko du Wolgastek, eta artelan izateko eskubidea aldarrikatuko dio. Garai beretsuan aterako du baita ere Hamburgoko Leopold Köster-ek *Geschichte der deutschen Jugendliteratur in Monographien* (1906/07). Garai hartan, gainera, hainbat kritikariren ahotsa entzungo da, hala nola Severin Rüttgers, Willhelm Fronemann, Erwin Ackerknecht edota Josef Prestel-ena. Hirugarren Reich-ean Severin Rüttgers eta Josef Prestelek izan zuten eragin handiena.

XX. mendearen bigarren erdian ugaritu egin ziren irakasleak eta liburuzainak trebatzeko asmoz erakundeetan antolatzen ziren hitzaldiak. Hala, akademikoen belaunaldi berri bat sortu zen: Anna Krüger, Richard Bamberger, Horst Schaleer, Karl Ernst Maier, Walter Scherf, Theodor Brüggemann etab.

70eko hamarkadaren hasieran Alemania mendebaldeko unibertsitateetan HGLarekiko interesa hazi zen, batik bat literaturaren kontzeptua ere zabaldu egin zelako. Dena dela, HGLaren eremua ikuspegi pedagogikotik ikusten zen hasiera batean, eta oso estatus baxua aitortzen zitzaion. Hala eta guztiz ere, HGLak interes akademikoa piztu zuen garai hartako unibertsitateetan; horren adierazle, Walter Pope-k 1981ean gaiaren inguruan egindako aurreneko tesia: *Das literarische Kinderbuch* [Haur-liburu literarioa]. Haren ondoren etorri ziren Erhard Dahl (1986), Rüdiger Steinlein (1987), Reienr Wild (1987) eta Hans-Heino Ewers (1989).

Hasiera batean, haur-literatura zuzenki lotua egongo da irakaskuntza-eskoletara, eta mendebaldeko Alemanian ez da

diziplina autonomo bilakatuko 80ko hamarkada arte (hamar urte gehiago ere itxaron beharko da, Alemaniaren batasunarekin batera, egoera hori lurralde osoan zabaltzeko).

Hasiera batean, lan izugarria egin zen materiala biltzen, ipuin eta haur-liburuen bilduma historikoak osatzen, alegia. Izan ere, aurren-aurreneko lanak ondo gordeak zeuden (elizetan eta monastegietan, alegia) baina data jakin batetik aurrerakoan bildumarik ez zegoen, eta lan asko zegoen egiteko zentzu horretan. Beraz, aurreneko lan akademikoak bildumagintza historikoan oinarritu ziren. Alemania ekialdean Horst Kunze dugu izen aipagarrienetariko bat katalogogintzan eta, Alemania mendebaldean, berriz, Theodor Brüggemann (Kolonian). Aipatzekoa da, beraz, Reiner Wild-ek 80ko hamarkadaren erdialdean bildu zuen aditu taldea *Geschichte der deutschen Kinder- und Jugendliteratur* liburu monografikoa osatzeko (1990ean argitaratua).

Denbora luzean, beraz, haur-literatura historikoaren inguruan arduatu zen batez ere ikerketa akademikoa, haur-literatura garaikidearen ikerketa irakaskuntza-eskolen esku utzi zelarik, hizkuntzaren didaktikaren eta pedagogia departamentuen esku, zehazki esateko. Horretaz gain, haur-literatura garaikidea aztertzerakoan, ikuspegi arauemailea erabiltzen zen, literatura ona zer den eta txarra zer den zehaztu aldera.

80ko hamarkadan, ordea, eraldaketa bat gertatuko da, haur-literaturari egindako ikerketa arauemaileak egitetik generoka sailkatutako ikerketa deskribatzaileak egitera pasatu baitziren:

abentura-liburuak, fantasiakoak, neskei bideratutakoak, gai historikoak jorratzen dituztenak etab.

Gaur egun, berriz, abian diren ikerketa gehienek komunikabideak dauzkate ardatz, hala nola zinemak, Internetek eta bestelako ikus-entzunezko baliabideek HGLarekin duten lotura estua aztertzea helburu dutenak. Hala, HGLaren ingurukoak aztertzea helburu duen ikerketa-proiektu bat baino gehiago dago abian gaur egun Alemanian.

Frankfurteko Johann Wolfgang Goethe unibertsitateko Filologia Alemaneko departamentuaren barnean, Klaus Doderer-ek *Institute for children's literature research* delakoa sortu zuen 1963an, 1990etik aurrera Hans-Heino Ewers-en zuzendaritzapean dagoena. Hainbat artxibategi dauzkate, eta alemanez idatzitako haur-literaturari eskainitako bilduma handienetarikoa.

Kolonian, Theodor Brüggeman-ek haur-literaturaren historia ikertzeko zentroa sortu zuen 70eko hamarkadan irakasle-eskolaren baitan. Zentro horren gidaritzza Bettina Hürrelmann-ek hartu zuen 1988an, eta, 1993tik aurrera, Gisela Wilkendig gehitu zaio. Gaur egun, Koloniako irakasleen unibertsitate-eskolako parte da zentroa eta *Arbeitsstelle für Leseforschung und Kinder- und Jugendmedien/ALEKI* izena hartu du.

1983an Gerhard Haas eta Bernhard Rank-ek irakurketa zentroa sortu zuten, 1987an *Lesezentrum der Pädagogischen Hochschule Heidelberg* izena hartu zuena. Gaiaren inguruko mintegiak, erakusketak eta proiektuak antolatzen dituzte.

Oldenburg hiriko unibertsitatean Jens Thiele-k *Oldenburger Forschungsstelle Kinder- und Jugendliteratur/OLFOKI* diziplina

anitzeko proiektua sortu zuen 1997an. Hiriko liburutegiarekin lankidetzan estua daukate, haur-literaturaren bilduma handia duen liburutegia baita.

Bestalde, maila nazionalan, 80ko hamarkadan *Arbeitsgemeinschaft Kinder- und Jugendliteraturforschung* elkarteak sortu zen, urtero gaiaren inguruko biltzar zientifiko bat antolatuzeko. Gaur egun elkarteak beste izen bat hartu du: *Gesellschaft für Kinder- und Jugendliteraturforschung*; 140 kide inguru dauzka, eta Austriako *Österreichischen Gesellschaft für Kinder- und Jugendliteraturforschung* elkartearekin aritzen da elkarlanean. Bi elkarteek, Alemaniakoak eta Austriakoak, haur-literaturaren inguruan egindako ikerketak biltzen dituen lan bat ateratzen dute urtero.

Gainerakoan, aipagarriak dira, besteak beste, *Deutsche Akademie für Kinder- und Jugendliteratur e.V.*, Volkach hirian kokatua. Hainbat mintegi antolatu, eta horietatik ateratako artikuluak argitaratzen ditu. Vienan, Richard Bamberger-ek 1965ean sortutako *Internationales Institut für Jugendliteratur und Leseforschung* dago, inongo unibertsitatean lotu gabeko elkarte independentea, eta, modu autonomo berberean jarduten duen *Schweizerisches Jugendbuch-Institut – Johanna Spyri Stiftung* fundazioa Suitzan.

Atal honetan bi sistemen inguruan egin dugun alderaketa laburtuz, desberdintasun argiak ikusi ditugu euskal HGL-sistemaren eta HGL-sistema alemanaren artean. Alemanian XV. mendean hasten da HGLaren historia, Euskal Herrian, berriz, lau

mende beranduago, XIX. mendean. Alemanian pisu handia izango dute Ilustrazioak eta Erromantizismoak, nazioarteko mailara igoko baitute aleman HGLa. Euskal Herrian, berriz, helburu hezitzaile eta moralizatzailea duten liburuak izango dira nagusi. Hala, 1929an Euskal Herrian Schmiden eta Grimm anaien itzulpenak egiten diren bitartean, urte berean Berlingo hiri-giroan kokatutako *Emilio eta detektibeak* lana argitaratuko du Kästnerrek Alemanian. Euskal Herrian, gainera, 1936an Gerra Zibilak eta ondoren Frankismoak erangigo duten lehorrea izango da nagusi; 60ko eta 70eko hamarkadetan hasiko da kultur egoera aldatzen, eta, euskara hezkuntzan zabaltzearekin batera, izugarritzko hauspoa biziko du euskal HGLak. Alemanian, faxismoak eta herrialdearen zatitzea bezalako gertaerek ere nabarmen eragingo dute HGLan.

Gaur egun, HGL-sistemaren batasunaz arduratuko den adituen eremu publiko baten beharra sumatzen da Alemanian. Euskal Herriko adituek euskal HGL-sisteman sumatzen duten gabezia, ordea, bestelakoa da, funtsezkoagoa: merkatua txikiagia da, eta irakurle gutxiegi dago.

Hala ere, hainbat arlotan nabari dira bi sistemen arteko aldeak: HGL alemana argitaratzen duten 70 argitateletxe dago (gutxienik)³⁶, eta Euskal Herrian 11 zenbatu ditugu³⁷; ikusi dugunez, Alemanian ebaluazio-sistema oso hedatua dago, liburutegiek ere beren erreseinak egiten dituztenez, eta Euskal Herrian liburutegiek ez dute halako indarririk; horri lotuta, gaian

³⁶ *Arbeitsgemeinschaft von Jugendbuchverlagen e.V* elkartearen parte direnak.

³⁷ Elkar, Erein, Alberdania, Pamiela, Txalaparta, Mezulari, Ibaizabal, Desclée, Aizkorri, Zubia eta Giltza (azken hiruak Espainiako Everest, SM eta Edebé argitaletxeen euskal ordezkariek dira).

berezituak diren 6 aldizkari zenbatu ditugu HGL alemanaren inguruan³⁸, eta Euskal Herrian Behinola da aldizkari horien izaerari gerturatzen zaien bakarra; Ikerketari dagokionean ere, Alemanian tradizio luzeagoa ikusten dugu, gaia modu akademikoan lantzen duten lehen tesiak 80ko hamarkadan atera baitziren, eta gurean Etxanizek eman zion hasiera, 1996an.

Garbi dago HGL-sistema baten eta bestearen dimentsioa oso bestelakoa dela. Hala ere, adierazgarria da euskal literatur sisteman HGLak duen pisua aleman literatur sisteman HGL alemanak duena baino handiagoa dela: 2004an, euskal literatur sisteman argitaratutako liburuen % 30 izan zen HGLkoa; Alemanian, 2011n ekoizitakoaren % 10 izan zen HGL. Hala ere, Alemanian, fakturazio osoaren % 15,7 hartu zuen HGLak 2011n, eta, euskal literatur sisteman, 2008ko datuen arabera, fakturazio osoaren % 17,6 hartzen zuen euskal HGLak. Hau da, merkatu biziagoa da Alemaniakoa, Euskal Herrian asko argaitaritzen bada ere, ez baita, proportzioan, hainbeste saltzen. Hain zuzen ere, ikusi dugu Etxanizek irakurle falta azpimarratzen zuela euskal HGL-sistemako gabezia nagusi gisa.

³⁸ *Buch&Maus, 1000 und 1 Buch, Julit, kjh&m, Eselschr eta Interjuli.*

HGLa eta itzulpengintza

HGLaren ezaugarri nagusiak zein diren ikusi ondoren eta itzulpengintzaren inguruko teoriak izan duten bilakaerari erreparatuta, jakintza eremu biak uztartu ditugu: HGLa eta itzulpengintza. Bi arlo beregainak badira ere, gure ikerketan biak elkartzen dira, eta, beraz, HGLaren itzulpegintzaren inguruko teoria nagusiak hartu ditugu kontuan.

HGLaren itzulpenari erreparatu zioten aurrenekoak zein izan ziren ikusiko dugu labur-labur. Baina arreta berezia eman nahi izan diegu gure ustez HGLaren itzulpenaren teoriagintzan adierazgarri izan diren hiru egileri: Zohar Shaviti, Riitta Oittineni eta Emer O'Sullivanari.

Egile horiengana iritsi baino lehen, ordea, aurretik egin diren lan nagusien erreparatu bat egingo dugu, itzulpengintzako ikasketetan mugari izan den *Translation Studies* ikasketa deskribatzaileen ildoan ardatz hartuta betiere.

4.1. TRANSLATION STUDIES ETA HGLa UZTARTZEKO BIDEA

HGLa urte askoan egon da itzulpengintzako ikerketetatik kanpo, generoak betidanik bizi izan duen bazterreko kokapenaren ondorio, inondik ere. Funtsean, kanonikotasunetik aparte utzitako generoa izan da, tradizionalki baztertua, kanonikoa edo erdigunea denari eskaini izan zaiolako arreta. Beraz, lehendik aipatu dugun *Translation Studies* delako eskola sortu arte itxaron beharko da, orduan hasiko direlako aztertzen, batez ere Even-Zoharren ekarpenei esker, HGLa genero gisa, eta, pixkanaka, baita HGLaren itzulpena ere. Gainera, denbora luzean uste izan da HGLko itzulpenak ez direla, funtsean, itzulpenak; egokitzapen eta moldaketa asko izaten dituzten testuak direla argudiatuta, itzulpen praktika *arruntetik* aparte gelditzen den esparrutzat hartu izan da urte askoan HGLaren itzulpena (O'Sullivan, 2000: 179).

Bestalde, HGLaren ikerketa oso eremu berezitzat hartu izan da, hurrei bideratua dagoelako, eta, beraz, apartekoak diren hainbat ezaugarri dauzkalako, hala nola haurren hizkera, irudien erabilera, elkarrizketak etab. Aparteko ezaugarriak izanik, ikerketa eta arreta akademikoak beranduago bideratu izan zaizkio.

HGLaren itzulpenaren ikerketak izan duen bilakaerari gainbegiratua eskaintzen dio Emer O'Sullivanek bere 2000. urteko lanean, eta errepasso horretan Reiß aipatzen du lehenik, bera izan baitzen aurrenetarikoa HGLaren itzulpenak dakartzan zailtasunak aipatzen, 1982an, testu-tipoei buruz egin zuen teorian. Hiru zailtasun hauek aipatu zituen (Reiß in O'Sullivan 2000: 180):

- Itzulpenaren prozesu osoan nagusi den asimetria, hots, helduek itzultzen dute haurrentzat helduek idatzi dutena.

- Itzultzaileak duen presioa tabuak zaintzeko eta oinarri pedagogikoak gordetzeko.
- Haur eta gazteek munduaz duten ezagutza txikia eta, oro har, bizitza-eskarmentu urria.

HGLaren itzulpenak sor zitzakeen arazoak aipatzerakoan, HGLaren itzulpenari dagozkion ezaugarri batzuk ezarri zituen, nolabait, Reißek. Horretaz gain, HGLaren itzulpen-prozesua aztertzen aurrenetakoa Klingberg izan zen, hain zuzen ere, 1986an argitaratu zuen lanaren bitartez (*Children's Fiction in the Hands of the Translator*, 1986). Lan arauemailea da erabat, sorburu-testuetatik desbideratutako itzulpenak ematen baititu adibide gisa, eta nola itzuli izan beharko lirakeen proposatzen baitu, STari ahalik eta leialen jarraitzea helburu.

Nolanahi ere, lan horretan Klingbergek HGLaren itzulpenean bereziki arazotsuak gerta daitezkeen edo arreta berezia merezi duten puntuak aipatzen ditu (kultur erreferentziak, batez ere), eta, alde horretatik, lan aberasgarria ere bada, HGLaren itzulpenari arreta eskaintzen dion aurreneko lanetariko bat denez. Egilearen helburua, ordea, arazotsuak gerta daitezkeen puntu horiek nola itzultzea komeni den ezartzea da, haren ustez, itzulpen *on* batek ahalik eta leialen gorde behar baititu STaren erreferentzia guztiak. Lanaren sarreran bertan adierazten du ikuspegi arauemailea: “The study presented here is only concerned with the fourth of these research fields: how children’s books are actually being translated and how they should be translated” (Klingberg, 1986: 9).

Esan bezala, Klingbergen lana izan zen HGLaren itzulpenari erreparatzen aurrenetarikoa, eta gerora sortuko diren lan askoren erreferente. Laurogeiko hamarkadan itzulpengintzako ikasketetan

eskola deskribatzailea sortu arren, hainbat egilek joera arauemaileari eutsiko dio. Baliteke, hezkuntzarekin duen lotura dela eta, joera arauemaile hori indartsuagoa izatea betidanik HGLan beste generoetan baino.

Alemanian HGLaren itzulpenaren inguruan egindako lanei begiratzea besterik ez dago. Rieken-Gerwing-ek 1995ean aurkeztu zuen bere lana (*Gibt es eine Spezifik kinderliterarischen Übersetzens?*), eta hori ere ildo arauemailetik bideratu zuen. Lanaren hasieran HGLaren itzulpenaren oinarri teoriko batzuk ezarriko dituela dio eta, funtsean, HGLaren itzulpenaren egoera estatistikez lagunduta eta modu zabalean aztertu ondoren (merkatua, ematen diren sariak etab.), Rieken-Gerwing ere joera arauemailean gelditzen da (Klingberg-ek 86an egin moduan), HGLko itzulpenek erakutsi beharko luketen idazkera eta estilo zuzena zein izan beharko litzatekeen proposatuz.

Soll eine Übersetzung auch noch fünf oder zehn Jahre nach Erscheinen gelesen werden, darf ein Übersetzer nicht auf die aktuellsten Redewendungen –gerade im Bereich Slang– zurückgreifen, sondern muß neutralere Ausdrücke finden, die dennoch die Aussageebene des Originals treffen (Rieken-Gerwing, 1995: 81).

Lehen ere aipatu dugun moduan, 80ko hamarkadan *Translation Studies* korronea sortu izanak aldaketa nabarmena ekarriko du, Even-Zoharrek eraikitako polisistemen teoriaren haritik eta Touryk ezarritako ikasketa deskribatzaileen metodologian oinarrituta, literatura kanonikoa ez ezik, HGLa bera eta HGLaren itzulpena ere kontuan hartuko direlako.

Eskola horri jarraiki lan egiten aurrenetarikoa Zohar Shavit dugu. Alegia, HGLaren sistemak literatur polisisteman duen kokapenaz, haren osaeraz eta itzultzaileek sistema batetik bestera igarotzeko daukaten askatasunaz hitz egingo du. Shaviten lan egiteko molde deskribatzailearen adibide dugu 1992an editatu zuen *Poetics today: children's literature* argitalpena. Bertan, HGLaren itzulpena metodo deskribatzaileari jarraiki aztertzeke xedez egindako 3 artikuluko bildu zituen. *Poetics today* literaturari eskainitako aldizkari entzutetsua da, eta 13. alea osorik HGLari eskaintzea ekimen aitzindaria izan zen, inondik ere. Izan ere, Shavitek berak argitalpenaren sarreran aitortzen duenez, HGLaren itzulpenari oso arreta txikia eskaini izan zaio, nahiz eta, agertzen dituen kultur faktore guztiak medio, ikerketa alor guztiz interesgarria izan: "Few, if any, cultural fields have come about as the result of, and despite, quite so many cultural constraints as has children's literature" (Shavit, 1992: 2).

HGLaren itzulpena ikertu beharra azpimarratzen du Shavitek, eta ezinbestekotzat jotzen du ezein kultur ikasketatan: "One might even go so far as to say that no other sphere of cultural studies approximates quite such a vast scope of cultural issues as does children's literature." (Shavit, 1992: 2)

Lehen esan bezala, 92ko argitalpen horretan HGLaren itzulpenari berariaz erreparatzen dioten hiru artikuluko dauzkagu:

- Wunderlich-ek Collodiren *Pinocchio* lanaren itzulpenek Ameriketako Estatu Batuetan izan zuten harrera aztertu zuen. Bestelakoa den HGL-sistema bateko arauak itzulpenean noraino eragin dezaketen aztertu zuen, hainbat itzulpen desberdinetako adibideak erabilia.

- Ben-Arik Erich Kästner-en *Das doppelte Lottchen* liburitik frantsesera eta ingelesera egindako itzulpenak aztertu zituen, baina, batik bat, itzulpen horien alde aurreko arauak (*preliminary norms*) aztertuta: zergatik itzuli diren, zein ereduri jarraitu dioten itzulpenek eta zein kokagune hartu duten itzulpenek xede sisteman³⁹.
- Basmat Even-Zoharrek hebreeraz idatzitako HGLaren estilo-arauak zein diren ondorioztatu zuen, Astrid Lindgren-en lanen hebreerazko itzulpenak aztertuta. Ondorioa izan zen Astrid Lindgrenen hizkuntza eta idazkera informala eta ausarta bada ere, hebreeraz askoz maila jasoagoa hartu zutela lanek.

Translation Studies korronteari jarraiki egindako lan horiek guztiek erakusten dute katalogo baten bitartez egindako azterketak zein baliagarriak izan daitezkeen, arauak zein diren ezagututa, HGLaren alderdi kulturean, literarioan eta pedagogikoan sakontzeko aukera baitago.

Shaviten urrats aitzindarien ostean, Riitta Oittinen egile finlandiarraren ekarpena iritsi zen. 1993an ateratako *I Am Me – I Am Other: On the Dialogics of Translating for Children* lanean (eta orduetik aurrera plazaratutako argitalpenetan) haur-literaturaren itzulpenaz baino, haurrentzat itzultzeaz dihardu. Bajtinen elkarrizketaren teoria eta Rosenblatten testuen harrerari buruzko teoria oinarri hartuta, Nord-ek 1991ean garatutako itzulpenaren teoria funtzionalari jarraitzen dion arrazoiketa bat osatzen du, eta, horren arabera, itzultzaileak berreraiki egin behar luke STaren egileak testuari emandako funtzioa. Historian atzera eginez, DTS

³⁹ Ben-Ariren lan nagusia, hala ere, 1988an argitaratutako tesia da: *Norms underlying Translation of German Literature into English, French and Italian*, Tel Aviveko Unibertsitateak argitaratua. Tesi horretan hainbat hizkuntzetara egindako HGL-lanen itzulpenak aztertzen ditu Ben-Arik.

baino lehenago sortu zen funtzionalismoaren teoria, eta Oittinenek berari jarrituko dio. Funtzionalismoak nahiz DTSk, biek begiratzen diote xede-kulturari eta hartzaileari, baina badirudi, eta horren lekuko dira egin diren ikerketa-lan guztiak, DTSk teorizazio osoago baterako atak zabaldu zituela.

Riita Oittinenek egindako ekarpenaren ondoren, Emer O'Sullivan aipatu nahi genuke HGLaren itzulpenaren teoriagintzan. O'Sullivanek DTSri heltzen dio berriz ere, eta guri biziki interesgarria iruditu zaigun kontzeptu bat aurkezten du, itzultzaile implizituaren figura.

Orain, aipatutako hiru ikertzaile nagusien ekarpena aztertuko dugu zehazkiago.

4.2. SHAVIT, AITZINDARIA

Zohar Shavitek 80ko hamarkadan sortutako itzulpen ikasketen irizpideei jarraiki bideratu du bere lan akademikoa. Polisistemen teoriaran oinarritzen du, hasiera-hasieratik, 1986ko bere lana, *Poetics of children's literature*:

Hence, the point of departure in my study is the assumption that children's literature is part of the literary polysystem, that it is a member of a stratified system in which the position of each member is determined by socioliterary constraints. Thus, it is an integral part of society's cultural life, and only as such, should it be analyzed (Shavit, 1986: x).

Lan horretan, HGLari buruzko zenbait ideia aztertu ondoren, HGLaren itzulpena aztertzen du berariaz. Hebreerara itzultitako HGL-lanen azterketan oinarrituta ateratzen ditu ondorioak. Nolanahi ere, egileak dio hebreerak bizi duen mendeko egoera

bera bizi duten beste zenbait sistemak ere ezaugarri antzekoak agertuko dituela:

[...] though the described patterns of behavior are not necessarily typical only to Hebrew children's literature, but seem to be common to other national systems as well (mainly to dependent systems such as the Icelandic, the Arabic, the Swedish) (Shavit, 1986: 111).

Izan ere, eta polisistemen teorian oinarrituta, itzulpen prozesuan, testu hutsak baino, sistema batetik bestera pasatzen direnak testu-ereduak direla defendatzen du Shavitek. Sorburu-sistemaren eta xede-sistemaren artean harreman bat gertatzen baita, zubi bat eraikitzen da. Ideia hori azpimarratu egiten du Shavitek, sistema bakoitzak eta sistemen artean eraikitzen den harremanak modu jakin batera eragiten baitio testuari:

Hence, the final product of the act of translation is the result of the relationship between a source system and a target system, a relationship that is itself determined by a certain hierarchy of semiotic constraints (Shavit, 1986: 111).

Bestalde, literatur polisisteman HGLak duen posizioak berak eragin egiten dio HGLaren beraren itzulpenari (1986: 112). Shavitek dioenez, helduen literaturako itzultzaileen aldean, HGLko itzultzaileak askatasun handia dauka sortzen duen testuarekin. Horrek, jakina, zerikusi zuzena dauka HGL-sistemak literaturaren polisisteman betetzen duen kokagunearekin, ez baitugu ahaztu behar HGLa bazterreko sistema dugula, eta helduen literatura, berriz, erdigunean kokatzen dela. Bazterreko sistemetako itzultzaileek, beraz, askatasun handiagoz jokatzeko lizentzia dute

erdiguneko sistemetako itzultzaileek baino, eta horixe gertatzen da HGLko itzultzaileekin ere.

Dena dela, HGLko itzulpenaren oinarri diren eta nahitaez errespetatu beharrekoak diren bi printzipio hauek ezartzen ditu Shavitek (Shavit, 1986: 113):

- Testuak egokia izan behar du haurrarentzat, une jakin batean gizarteak *haurrarentzat egokit*izat hartzen duen horren arabera.
- Gidoiak, pertsonaiek eta hizkuntzak bat etorri behar dute gizartearen ustez haurrak dituen irakurketa- eta ulermen-mailarekin.

Printzipio horien pisua eta zeresana desberdina izan da garaia-aren arabera: HGL generoaren hastapenetan lehenengo printzipioak zuen pisurik handiena, sortu berria zen sistema hura hertsiki lotuta zegoelako hezkuntzarekin.

Nowadays, the emphasis differs; although to a certain degree the first principle still dictates the character of the translation, the second principle, that of adjusting the text to the child's level of comprehension, is more dominant (Shavit, 1986: 113).

Bestalde, HGLaren generoak berekin dakartzan hainbat muga edo baldintza aipatzen ditu, helduen literaturan agertzen ez direnak (Shavit, 1986: 115):

Lehendik zegoen ereduarekin parekatzea: itzulpenak xede-hizkuntzako HGL-sisteman lehendik zeuden testu-ereduetara egokitu ohi dira. Joera nabarmena da, gainera, HGLaren kasuan, konbentzionala eta ezaguna den hori onartzeko joera baitauka sistemak. Sorburu-testuaren eredia xede-hizkuntzan existitzen ez bada, testua moldatu egiten da (ezabaketak, gehikuntzak, moldaketak etab.) xede-hizkuntzako eredura egokitu dadin.

Joera hori helduen literaturan ere gertatu zen garai batean, baina sistema indartu ahala, eredu berriak ere errazago onartu ziren. HGLan ez da oraindik halako aldaketarik gertatu (Shavit 1986: 115).

Testuaren osotasuna: gaur egun helduen literaturan arau nagusia testua osorik eta inolako murrizketarik gabe ematea bada ere, hori ez da beti horrela izan: XIX. mendean eta, are, XX. mendearen hasieran ere, itzultzaileek testuaren luzera moldatzeko lizentzia zeukaten.

HGLan, ordea, ohikoa izan da betidanik testuak laburtzea. Gogoratu behar da, hasteko, HGLko lehen lanak helduen literaturatik hartutako testuak zirela, eta, beraz, haurrei ezin zitzaien eman helduei ematen zitzaien gauza berbera. Horrela, Gulliver, Tom Sawyer eta bestelako pertsonaien istorioak helduentzat idatzitako bertsio luzeagoen moldaketa laburtuagoak ziren.

Izan ere, HGL-lanek moralki aproposagoak izan behar zuten, eta, gainera, ulerterrazagoak (haurrek ezin zutelako horren testu luzerik irakurri). Pasarte jakinak ezabatzen ziren, deskribapen luzeegiak edota konplexuegiak.

Testuaren konplexutasuna: lehen esan bezala, testuaren osotasuna zuzenki lotuta dago testuaren konplexutasunarekin. Helduen literaturan ez bezala —gauzak modu konplexuan azaltzea baita hobetsitako araua—, HGLan ahalik eta modurik errazenean adieraztea hobesten da, karga txikia daramaten elementu kopuru txikia sartzea testuan:

In contrast to adult canonized literature, in which the norm of complexity is the most prevalent today, the norm of simple and simplified models is still prominent in most children's literature (canonized and non-canonized), as is also the case with the non-canonized adult system (Shavit, 1986: 125).

Egokitzapen ideologikoa: itzulpena tresna erabilgarria izan da kasu askotan zenbait ideologia barneratzeko. Adibiderik garbiena *Robinson Crusoe* lanaren itzulpenean daukagu: Joachim Campe (*Robinson der Jungere*, 1779-1780) hainbat aldaketa sartu zituen, testua Rousseau-ren ideologiara gehiago hurbiltzeko. Esate baterako, jatorrizko testuan Robinson irlara Biblia eskuan eta arropak soinean iristen bada ere, Camperen itzulpenean Bibliarik gabe eta erabat biluzik iritsiko da. Gainera, pertsonaia ez da saiatuko irlan Europaren antza duen inolako zibilizaziorik eraikitzen, eta naturarekin harreman estuan egongo da. Horixe zen Campe islatu nahi zuen ideologia (Rousseaurena) eta horrelaxe zabaldu da beste hainbat eta hainbat hizkuntzetara ere, esan behar baita, Camperen bertsioa izan dela jatorrizkoa baino ezagunagoa bihurtu dena.

Egokitzapenen adibide gisa, Shavitek *Txanogorritxoren* moldaketa desberdinak hartu eta aztertzen ditu bere lanean. Gauza bera egin zuen Klingberg-ek *Alice lurralde miresgarrian* liburuarekin.

Shavitek landutako ideiak eta puntuak interesgarriak bazaizkigu ere, aitortu behar dugu ez dugula lotura handirik aurkitu guk egin dugun ikerlanarekin. Seguru aski ikerketarako hautatu ditugun lanak berriagoak direlako izango da, baina, nolana den, alemanetik euskaratutako HGLa aztertu dugun lan honetan ez dugu Shavitek aipatzen dituen arauen zantzurik antzeman. Shavitek, izan ere, HGL-sistemaren sorreran gertatutako

fenomenoak aipatzen ditu, egokitzapenak, testua osorik ez jartzea eta gisakoak ohikoak izan baitziren. Guk, sumatzekotan, hizkuntza xede-sistemako erduetara moldatzeko joera sumatu dugu, hain zuzen ere, sorburu-hizkuntzako erregistroa moldatu egiten dela, euskarak bizi duen egoeragatik, baina, jakina, gaztelaniaren eraginpean.

4.3. OITTINENen EKARPENA: ELKARRIZKETA HGLaren ITZULPENEAN

Riitta Oittinen itzultzaile eta ilustratzaile finlandiarrak 1993an amaitu zuen doktore-tesia (*I Am Me – I Am Other: On the Dialogics of Translating for Children*) eta ordutik aurrera hainbat dira HGLaren itzulpenaren inguruan atera dituen lanak. Bestek beste, 97an Carrollen *Alice* liburutik finlandierara egindako hiru itzulpenen azterketa egin zuen. Bere ideia eta lan nagusiak bilduz, *Translating for children* atera zuen 2000. urtean (gaztelaniara 2004an itzuli zuten Isabel Pascua Feblesekin eta Gisela Marcelo Wirnitzerrek: *Traducir para niños*).

Oittinenek dio haurrak direla erdigune; alegia, itzulpenaren hartzailea da garrantzitsuena, eta, hartzaile hori kontuan hartuta, itzulpenak zenbait moldaketa eskatzen baditu, Oittinenek zilegi eta egoki ikusten du horiek egitea. Gaineratu nahi genuke, hala ere, arrazoiketa hori horrela izanik, haurra ez dela benetan erdigunea, baizik eta haurraren hobe beharrez ari den heldua.

Itzulpenaren inguruko hainbat teoriagileren iritziak birpasatu ondoren, Oittinenek HGLaren itzulpenaren inguruko bi izen nagusi aipatzen ditu: Klingberg eta Shavit. Bi egile horiek haurrentzako itzulpenak egokitu beharraz / ez beharraz duten

jarreraz hausnartzen du Oittinen finlandiarrak. Hain justu, bi egileen kontrako jarrera erakusten du. Honela dio Zohar Shaviti buruz:

En su obra *Poetics of Children's Literature*, Shavit no tiene en cuenta la época, el lugar, la cultura o el cambio de las imágenes infantiles y parece olvidarse de las situaciones individuales, de los traductores y niños como lectores (Oittinen, 2004: 105).

Klingbergen ikuspegia, berriz, are estuagoa iruditzen zaio finlandiarrari: "se concentra en las palabras y fragmentos de texto, pero aislados, con el único fin de formular reglas estrictas para los traductores" (Oittinen, 2004: 105).

Izan ere, nola Klingbergentzat nola Shavitentzat, XTa egokitzea irakurlearekiko begirunerik ez izatea da, irakurlea manipulatzeko, eta HGLak bizi duen bazterreko egoeraren adierazle da. Oittinen ados dago HGLari estatus altuagoa aitortu behar izatearekin, baina ez du uste egiten diren moldaketak arbuiagarriak direnik. Oittinenek uste du hartzailean pentsatu behar dela, eta haurrak behar duena moldaketak eta bertsio laburtuak badira, ez dagoela ezer txarrik horretan. Itzulpenak bere testuinguruan kokatuta aztertu behar baitira, hartutako erabakien zergatiak kontuan izanik (Oittinen, 2004: 121).

Venuti teoriagilea ere aipatzen du Oittinenek, harekiko desadostasuna erakutsiz. Gogoratu behar dugu historian zehar hainbat arrazoiengatik moldatu diren lanak aztertzen dituela Venutik *The Translator's Invisibility: A History of Translation* lanean, moldaketa vs. atzerritartzea ideian oinarrituta. Izan ere, Venutiren ustez, lan baten moldaketa egiten da, gizartean une jakin batean dauden arauen arabera, irakurleak lan horren moldaketa behar

duela uste denean, hau da, etxekotu egiten da lana. Bestalde, atzerritartzen denean, lana irakurlearengana moldatuta gerturatu baino, irakurlea gerturatu behar zaio lanari, eta, horren ondorioz, kanpoko balore eta ideia berriak ekartzen dira xede-hizkuntzara. Venutik moldaketa gaitzesten du, eta itzultzaileak ikusgarri izan behar lukeela defendatzen du: irakurleak antzeman behar du eskuartean duena itzulpen bat dela.

Oittinen ez dator bat Venutirekin, uste baitu ez duela kontuan hartzen zergatik moldatzen diren lanak. Itzultzaileek hartzaileengan pentsatuta eta horren arabera itzultzen baitute eta, beraz, Oittinen-en ustez, ez dauka zentzurik testuak nola itzuli diren aztertzeak (etxekotu ala atzerritartu ote diren ikusteak), zentzuzkoagoa da estrategia horiek zergatik erabili diren hausnartzea. Lehenik eta behin testuak nola itzuli diren aztertu behar da, eta ondoren zergatik, baina, edonola ere, bigarren galdera horrek laguntzen du auzia ulertzen (Oittinen, 2004: 92).

Oittinen-ek galdetzen du ez ote den, azken finean, itzulpen oro moldaketa bat, itzultzerakoan lan berri bat sortzen dugulako, eta, azken batean, ez dago jatorrizkoari guztiz eta erabat leial zaion itzulpenik. Nord egilea aipatzen du honako hau dioenean: “Como Christiane Nord, yo llamaría a esto lealtad a los futuros lectores de la traducción, lo cual implica, también, lealtad al autor del original.” (Oittinen, 2004: 31).

Alde horretatik, Oittinen-en iritzia gehiago dator bat Christiane Nord egile funtzionalistarekin. Nordek muturreko leialtasunetik muturreko askatasuna arte doan mailaketaren arabera aztertzen ditu itzulpenak baina, horretarako, ez du oinarritzat sorburu testua

hartzen, hartzailea baizik. Hortaz, itzulpen bat leialagoa edo moldatuagoa izango da, hartzaileen eskakizunak betetzen dituen neurriaren arabera, eta ez sorburu-testuarekiko bat-etortze linguistikoen arabera.

Inongo zalantzarik gabe, egokitze edo etxekotzearen alde ageri da Oittinen. Finlandiera bezalako hizkuntza eta kultura gutxitu batekoa izateak izango du zerikusia akaso:

Cualquier cosa puede adaptarse. Los nombres pueden domesticarse, los emplazamientos hacerse locales; los géneros, los hechos históricos, los ritos culturales, religiosos o creencias pueden adaptarse para futuros lectores de texto. En Finlandia domesticamos para los finlandeses y en cualquier país para sus propios ciudadanos; domesticamos para niños, para las minorías culturales, por ideas políticas, por creencias religiosas. Si es por imperialismo cultural o nacionalismo emergente, si es llevado a cabo por razones de propiedad o con propósitos educativos depende de la situación. Los textos pueden también domesticarse por presiones políticas, censura y por diferentes valores morales o imágenes de la infancia (Oittinen, 2004: 121).

Moldaketak eta itzultzailearen esku-hartzea defendatzen dituen neurrian, elkarrizketaren kontzeptua egiten du Oittinenek bere teoriaren ezaugarri nagusi. Hala, bi egile hartzen ditu oinarri bere teoriagintzarako: Bajtin eta Rosenblatt. Hain zuzen ere, 93ko bere lan nagusian (eta hurrengo guztietan), Bajtin-en elkarrizketaren teoria eta Rosenblatten trantsakzioaren teoria hartzen ditu oinarri eta helduleku.

Bajtinek dio hitza ez dela modu isolatuan existitzen, elkarrizketa batean baizik, aldez aurretik espero den erantzun batek bultzatuta. Itzulpenean ere gauza bera gertatzen da: estiloari, hiztegiari eta, oro har, itzultzerakoan egindako hautu guztiei

dagokienez, irakurle berriengan pentsatuta hartzen diren erabakiak dira.

Beraz, itzultzea idazlearen, itzultzailearen eta hartzaileen arteko elkarrizketa da, eta ezinbestekoa da, sorburu-testuan ez ezik, xede-testuaren, hau da, itzulpenaren hartzaileengan pentsatzea. Horrela, jatorrizkoaren eskubideak ez daude itzulpenaren hartzaileen eskubideei kontrajarriak. Itzultzaileak hartzaileen kulturaren eta hizkuntzan pentsatuta egiten du lan, eta, hori horrela eginda, jatorrizkoaren egileari zaio leial.

Ahots desberdinen elkargunea da itzulpena, dio Oittinenek, itzultzaileak berak barruan daraman haurrari entzuten baitio, hartzaileak diren hurrengan pentsatzen du, eta baita jatorrizko egilean ere. Esan bezala, elkarrizketa bat da: "Dialogue may be described as some kind of context, a situation which occurs between texts and human beings and the world around, that is, culture, time and place, for instance" (Oittinen, 1993: 74).

Rosenblattek, bestalde, testu batek irakurketa desberdinak izan ditzakeela defendatzen du, irakurle bakoitzak, testuinguru jakin batean, bere irakurketa egiten baitu. Hala, bi irakurketa mota bereizten ditu: eferentea bata, irakurketatik informazioa jasotzea eta berau baliatzea denean helburu, eta estetikoak bestea, irakurketaren esperientziaz gozatzea eta bizitzea helburu duena. Haurrek modu emozionalagoan irakurtzen dute, antza, modu estetikoak deritzon horren arabera, eta helduok modu analitikoagoan, eferentean.

Rosenblatten ideia horiei jarraiki, Oittinen-ek dio itzuli beharreko testu bat aurreneko aldiz irakurtzen duenean modu

estetikoan irakurtzen duela, eta testuak sorrarazten dizkion sentsazioez jabetzen dela orduan (atsegin duela, aspergarria egin zaiola etab.), eta bigarren aldiz irakurtzen duenean, eta, beraz, itzultzeari ekiten dionean, modu analitikoagoan egiten duela, Nordek aipatzen duen kiribilean aurrera eta atzera⁴⁰.

Izan ere, Christiane Nordek *looping* (kiribila) terminoa darabil itzultzailearen irakurketa-mugimenduak adierazteko: itzulpena ez da prozesu lineala, sorburu-testuan hasi eta xede-testuan amaitzen dena. Itzulpena prozesu zirkularra da, errepikakorra, kiribil formakoa, aurrera egin baina abiapuntuko hausnarketetara atzera buelta egin ohi dugulako, eta ondoren berriro aurrera eta berriz atzera, eta horrela etengabe.

Hala, *elkarrizketa* bat sortzen da testuaren inguruan biltzen diren pertsonen artean, egileek, eta itzultzaileek, ustezko hartzaileari zuzentzen dizkiotelako beren hitzak. Beraz, HGLko itzultzaileak nolabaiteko haur mota bati bideratzen dizkio bere hitzak, eta haur jakin horretan pentsatuta erabakitzen ditu, gainera, erabiliko duen hiztegia, sintaxia etab.

Hala, HGLko itzultzaileak beren haurtzaroko erreperitorioa azaleratzen duten irakurleak dira; haur zirela bildutako literatur eskarmentua darabilte, eta normalean itzultzaileak pertsona

⁴⁰ Oittinenek boz gora irakurtzearen garrantzia azpimarratzen du, eta Dollerup ere bat dator egile finlandiarrarekin, batez ere irakurtzeko gai ez diren haurrei bideratutako albumen itzulpenei dagokienean: "For children who cannot yet read, the translator has to prepare stories for oral rendition. The translator can actually only do this by personally reading the stories aloud. This corresponds to the fairly few reports I have from translators of stories that are meant to be read aloud, but there is still little indication that Translation Studies scholars are aware of this" (Dollerup, 2003: 100).

helduak badira ere, ez omen dute helduen moduan itzultzen: haurrentzat itzultzean itzultzaileek nolabaiteko elkarrizketa bat izaten dutelako hurrekin.

The translator of children's literature is a reader who brings dimensions from childhood to her/his reading experience. Although usually an adult, she/he does not just translate as an adult. Every grown-up is a former child, who carries a child within her/himself. When translating for children, the translator is holding a discussion with all children: the history of childhood, the child of her/his time, the former and present child within her/himself – the adult's childhood and how she/he remembers it (Oittinen, 1993: 70).

Oittinenek defendatzen duen azken ikuspuntu hori, hau da, haurrentzat itzultzean itzultzaileek ez dutela helduen moduan itzultzen, zalantzarria zaigu. Izan ere, HGLko komunikazioa asimetrikoa baldin bada, helduek (eta ez haur bihurtutako helduek) idazten dutelako gertatzen da. Helduak, gainera, helduak dira, nahiz eta haurtzaroa ere beren parte izan. Gainera, helduek beren haurtzaroan pentsatuz itzuli behar badute, alde aurretiko haurraren irudi jakin bat ezartzeko arriskua ikusten dugu. Oittinenek arreta hartzaileari bideratu behar zaiola azpimarratu nahi duela ulertzen dugu, baina hartzaileari erreparatzeko behar hori, funtsean, itzulpengintzako teoria garaikide guztiek defendatzen dutena da. Gainerakoan, zalantzak ditugu Oittinenen teorizazioak itzulpengintzaren ikerketan izan dezakeen aplikagarritasunari buruz. Izan ere, abstrakzioaren mailan gelditzen delako susmoa dugu, eta, zenbaitetan, ukitu arauemailea duela ere iruditzen zaigu, etengabe esaten duelako nola irakurri, itzuli eta jardun beharko lukeen itzultzaileak.

4.4. O'SULLIVAN ETA ITZULTZAILE INPLIZITUA

O'Sullivanek aurrerapentzat hartzen du Oittinenen ekarpena, baina arazo batzuk ikusten dizkio: Oittinenek HGLko itzulpenetan egiten den egokitzapen oro balekotzat hartzen du, baldin eta *bidezko* arrazoiengatik egin badira (haurraren izaera eta kultura errespetatzeagatik), ez, ordea, *okerreko* edo *bidezkoak ez diren* arrazoiengatik egin badira. O' Sullivanen ustez, Oittinenen jarrera, azken batean, arauemailea da. Egile finlandiarrak Shavit eta Klingbergen ekarpenak arauemailetzat hartzen baditu ere, O'Sullivanek dio Oittinenek berak ere haurraren eta haurtzaroaren irudikapen propioa darabilela (haurtzaroa eta inauteriak parekatuz, esaterako), eta irudikapen horren arabera bidezkoa eta okerrekoa zer den epaitzea ere jokabide arauemailea dela (O'Sullivan, 2000: 188-189).

Horretaz gain, Oittinenek irudi-liburuak, aurre-eskolako haurrentzako liburuak eta irakurtzen ikasteko balio dutenak aztertzen ditu, eta horietan oinarrituta eraiki duen teoria aplikatu nahi dio HGLko liburu guztiei. O'Sullivanen ustez, funtzionaltasunean oinarritutako teoria eraiki nahi bada, lehenik eta behin testu bakoitzaren helburua zein den bereizi behar da, HGLan testu literarioak bai baitaude, baina baita irakurtzen irakastekoak edo testu-liburu gisa jokatzen dutenak ere: "Als umfassendes funktionalistisches Konzept ist Oittinens Ansatz daher noch zu wenig differenziert" (O'Sullivan, 2000: 189).


Gainerakoan, Bajtinen elkarrizketaren ideia aplikatzearekin bat dator O'Sullivan, baina ez Oittinenek egiten duen moduan, pertsonen artean gertatzen den elkarrizketa gisa (STaren egilearen,

itzultzailearen eta irakurlearen artean gertatzen den elkarrizketa gisa). Bide hori mugatu samarra iruditzen zaio O'Sullivan, eta 2000. urtean ateratako lanean testu mailan gertatzen den elkarrizketa gisa aurkezten ditu HGLaren itzulpenean gertatzen diren fenomenoak, hain zuzen ere, itzultzaile implizituaren bidez. Izan ere, Bajtin teoriagileak testu mailan gertatzen den elkarrizketa aztertu zuen (bereziki Dostoievskiren obran⁴¹), eta Oittinen pertsonetara mugatzen dela dio O'Sullivanek. Teoria aurkezteko orduan, beraz, O'Sullivanek bestelako eskema bat proposatzen du, elementu guztiak barne hartuta. O'Sullivanentzat, beraz, testuan gertatzen da elkarrizketa osoa, itzultzaile implizituak irakurle implizituari begira hartzen dituen erabakietan (O'Sullivan, 2000: 191).

Bere teoria eraikitzeko, HGLko komunikazio-eskema hartzen du abiapuntu gisa O'Sullivanek, igorlearen (helduen) eta hartzailearen (haur eta gazteen) arteko distantzia nola burutzen den aztertzeko; azken helburua, dena den, ondorengo eskema hauetan itzultzailearen figura txertatzea izango du.

O'Sullivanek Booth aipatzen du lehenik, 1961ean eraiki baitzuen HGLaren komunikazio-sistemaren eskema, hain zuzen ere, honako hau (O'Sullivan, 2000: 120):

⁴¹ "Im Dostojewskijs Welt müssen alle, muß alles einander kennen und voneinander wissen. Alles muß in Kontakt treten, sich von Angesicht begegnen, miteinander ins Gespräch kommen. Alles muß einander spiegeln, einander dialogisch beleuchten. Deshalb muß alles Getrennte und Ferne in einen räumlichen und zeitlichen Punkt zusammenrücken. Das ist der Grund, weshalb Dostojewskij die Freiheit des Karnevals, die karnevalistische Konzeption von Raum und Zeit braucht." (Bajtin, 1990: 84). Oittinenek Bajtinen elkarrizketaren eta inauterien ideia bera aplikatzen du HGLaren itzulpenean. O'Sullivanek dio, ordea, Oittinenek ez dituela ideiak behar bezala aplikatzen, eta testua ahazten duela.



Irudia 4. Booth-en eskema.

Booth-ek irakurle inplizituaren figura eraiki zuen, egile inplizituarekin batera sortzen dena. Alegia, egile inplizituak irakurle inplizitua eraikitzen du benetako irakurlearen kontzientzia hartu eta haren behar, interes eta gaitasunera iristeko, lehen aipatutako distantzia eta, beraz, asimetria hori gainditzeko.

Booth-ek egindako ekarpenaren ondoren, Chatman-ek 1978an egindako ekarpena daukagu, Booth-enaren zabalpen moduan (O'Sullivan 2000: 121):



Irudia 5. Chatman-en eskema.

Chatmanek bi elementu gehiago identifikatu zituen eskeman, testuari dagokion eremuan, hartzailearenganaino hurbiltzeko lan

horretan jarduten dutenak: fikziozko narratzailea eta fikziozko hartzailea. Egile implizituak testuan txertatzen dituen figurak dira, irakurle implizituaren behar eta interesetara gerturatzeko.


Hala, O'Sullivanek komunikazio eskema hori hartzen du oinarri itzultzailearen zeregina bertan txertatu eta itzulpen prozesua irudikatzeko.

Lehenik eta behin, sorburu-testuaren benetako irakurlearen paperean sartzen da itzultzailea. Sorburu-testuaren egileak irakurle implizitua eraiki du, hizkuntza-kode jakin bat, idazketa-estilo jakin bat eta erreferentzia jakin batzuk hautatuta. Sorburu-testuaren egileak, beraz, garai eta testuinguru jakin bati erantzuten dion irakurle implizitua eraiki du, eta, itzultzailea, irakurle implizituaren rola bere gain hartuta, sorburu-testuaren benetako egilearen kontzientziaz jabetzen da; hau da, egile implizituak irakurle implizitua nola eraiki duen ulertzen du itzultzaileak.

Komunikazioaren bigarren zatian, ordea, itzultzaileak itzulpenaren igorle papera hartzen du eta, hala, sorburu-testuaren benetako egilearen paralelotzat har daitekeen papera jokatzen du. Itzulpena, baina, ez da mezu berri bat, sorburu-testutik eratorritako bertsio bat baizik. Itzultzaileak xede-kulturari dagokion kodean, estiloan eta erreferentziekin ematen dio testu itzulia berak irudikatutako itzulpenaren irakurle implizituari. Antzekotasunak egon badaitezke ere, itzulpenaren irakurle implizitua ez dator bat sorburu-testuaren irakurle implizituarekin. Itzultzaileak, beraz, igorle gisa bereganatzen duen zereginean eta hartzen dituen estrategia eta erabakiei esker, komunikazio berri bat eraikitzen du.

Sorburu-testuaren irakurle implizitua eraikitzeko egile implizitua baldin badago (komunikazioa gauzatzeko osatzen den egile-kontzientziaren irudikapena), eta itzulpen baten irakurle implizitua sorburu-testuaren irakurle implizitutik desberdina denez, berori eraikitzen duena ez da egile implizitua, baizik eta itzultzaile implizitua (komunikazioa gauzatzeko itzultzaileak osatzen duen itzultzaile/egile-kontzientziaren irudikapena). Hain zuzen ere, itzulpenean hartzen diren erabakiez jabetzeko, itzulpen batek ageri dituen nolakotasunak aztertzeko, itzultzaile implizituaren esparruan hartzen diren erabakiei begiratu behar zaie, O'Sullivanen ustez (O'Sullivan, 2000: 242).

O'Sullivanek Schiavik 1996an proposatutako teoria aipatzen du, itzulpenean sortzen den komunikazio motan itzultzailearen zeregina kontuan hartzen duen bakarra ordura arte. Izan ere, Booth, Genette eta Chatmanek ez zuten sorburu-testuaren eta itzulpenaren arteko bereizketarik egiten, biak bat bera balira bezala, eta itzulpenean itzultzailearen ahotsik agertuko ez balitz bezala.



Irudia 6. Schiaviren eskema.

O'Sullivanek Schiaviren eskema berreskuratu eta zenbait egokitzapen egin dizkio. Funtsean, irakurle gisa jokatzeko duen


itzultzailea testutik kanpo kokatu du, baita sorburu-testuaren benetako itzultzailearen figura ere. Izan ere, testuan parte hartzen dutenak dira, batetik, itzultzaileak STa irakurtzean osatzen duen *irakurle implizitua*, eta, bestetik, itzulpena egiteko osatzen duen *itzultzaile implizitua*.

Esan behar da, hala ere, O'Sullivanek zehazten duenez, itzultzaile implizituaren figuran ez dagoela soilik itzultzaile fisikoaren figura, hau da, itzultzaileaz gain, irakurleaz egindako irudikapena, argitaletxearen aginduak, gizartea eta, oro har, testuinguru osoa nahasten da. Hain zuzen ere, hainbat elementuk osatutako *itzultzaile-kontzientzia* da itzultzaile implizituaren figura.

Alle an einer Übersetzung Beteiligten – Übersetzer, Lektor, Programmleiter – können in der Instanz des impliziten Übersetzers wiederauffindbar sein; das 'Übersetzerbewußtsein' ist also nicht zwangsläufig oder ausschließlich auf den realen Übersetzer zurückzuführen (O'Sullivan, 2000: 245).

Horretaz gain, Chatmanek bere garaian sartutako beste bi elementu ere sartu ditu, alegia, fikziozko narratzailearena eta hartzailearena, hain zuzen ere, egileak eta itzultzaileak testuan baliatzen dituzten pertsonaiak komunikazioa bideratzeko.

Honelakoa litzateke, beraz, O'Sullivanen proposamena (2000: 247):



Irudia 7. O'Sullivanen eskema.

Schiavirekin alderatuta, gainera, O'Sullivanek itzulitako testuak bereganatzen dituen ahots biak nabarmendu ditu: sorburu-testuaren egilearen ahotsa (gris ilunez nabarmendutako laukietan) eta itzultzailearen beraren ahotsa (gris argiz nabarmendutako laukietan).

Baliteke zenbait kasutan itzultzailearen ahotsak sorburu-testuaren egilearen ahotsari gertu-gertutik jarraitzea. Hori gertatzen denean, itzulpena elkarrizketa batekin parekatzen du O'Sullivanek. Beste zenbait kasutan, ordea, gerta liteke itzultzaileak STaren egilearen ahotsarekin inondik ere bat ez egitea, oso bestelako ahotsa erabiltzea⁴². Kasu horretan, O'Sullivanek dio, itzultzaileak bakarriketa osatzen duela, bere ahotsaz XTaren erabateko kontrola hartzen duelako, nolabait esatearren:

⁴² O'Sullivanek Alemanian 1965ean argitaratu zen *Pippi Langstrumpen* itzulpena ematen du adibide moduan: kontakizunaren une batean, Pippik pistola batzuk aurkitzen ditu, eta, airera tiro egin ondoren, bere lagunei eskaintzen dizkie, eta horiek ere gustura ekiten diote tiro egiteari. Alemanez 65ean argitaratu zen bertsoan, ordea, Pippik ez dizkie lagunei pistolak eskaintzen, eta, horren ordez, lezioa ematen die, esanez pistolak ez direla umeentzako jolasa. Alemaniak bizi zuen gerraondoarekin lotzen du fenomenoaren O'Sullivanek, helburua baitzen hurrei erakustea armak ez direla erabili behar (O'Sullivan, 2003: 198).

Die Stimme des Erzählers der Übersetzung kann sich hinter die des Erzählers des Ausgangstextes stellen, d.h. sie gänzlich 'nachmachen' oder, um eine Metapher aus dem Musikbereich zu verwenden, mit ihr 'einstimmen'. Man könnte diesen Fall [...] als dialogisches Übersetzen bezeichnen. Die Stimme des Erzählers der Übersetzung kann aber auch die des Erzählers des Ausgangstextes übertönen oder sich mit einer etwas anderen Tonlage zur Geltung bringen wollen. Der implizite Übersetzer versucht dann in einer Art monologischem Übersetzen, mit seiner Stimme neben seiner eigenen aufkommen zu lassen (O'Sullivan, 2000: 246-248).

O'Sullivanen itzultzaile inplizituaren figurari oso baliagarria deritzogu itzulpenean gertatzen den komunikazio-sistema azaltzeko. Dena den, eta guk interferentziaren auziari gertutik jarraitzen diogunez, esan genezake euskararen kasuan itzultzaile inplizitu bikoitza genukeela. Erabakiak hartzerakoan itzultzaileak hartzaile inplizitua irudikatzen baldin badu, eta, hartzaile inplizitu horren arabera, itzultzaile inplizituak (itzultzailearen kontzientziak) erabakiak hartzen baditu, euskal itzultzaileen kasuan espazio edo kontzientzia bikoitza egon ohi dela esatera ausartzen gara, itzultzaile inplizitu bikoitza, alegia. Euskal itzultzaileak gaztelaniazko bertsioa ere maila jakin batean presente duelako, eta, fisikoki presente eduki ez arren, gaztelaniazko bertsioarekiko alderaketak saihestezina dirudielako. Esan genezake, beraz, itzulpenean gertatzen den elkarriketa biderkatu egiten dela. "We could say that two voices are present in the narrative discourse of the translated text: the voice of the narrator of the source text and the voice of the translator" dio O'Sullivanek (O'Sullivan, 2003: 202); kontuan hartu behar dugu, ordea, gure corpusean, zeharka egindako itzulpenetan, hiru ahots dauzkagula:

jatorrizko egilearena, zubi-hizkuntzako itzultzailearena eta euskal itzultzailearena.

Teorizazio interesgarria iruditzen zaigu O'Sullivanena, eta gurean ere aplikatu daitekeelakoan gaude. Aurreko lerroetan azaldu dugun moduan, gure hipotesia honako hau litzateke: zeharkako kasuetan, O'Sullivanek aipatzen dituen bi ahotsez gain, hiru genituzkeela; horretaz gain, ordea, zuzeneko kasuetan ere hiru ahots horiek akaso entzun litezkeela gaineratu nahi diogu hipotesiari, uste baitugu O'Sullivanek berak aipatzen duen itzultzaile inplizitua bikoitza izan daitekeela euskal itzultzailearengan, hau da, euskal itzultzaileak bi hizkuntza dituzenez, zuzeneko itzulpenetan ere zeharkakotasun hori gerta daitekeela. Lehendik ere aipatu dugun bikoiztasun diglosikoaren ondorioa litzateke.

Itzultzaile inplizituari buruzko ideia teorikoetatik harantzago, aplikagarritasun praktikoa ematen saiatzen da O'Sullivan bere ideiei. Hala, itzultzaile inplizituaren ahotsa —interferentzia dei geniezaioke— non entzun edo suma daitekeen azaltzen du. Izan ere, HGLan beste generoetan baino ohikoagoa omen da itzultzaile inplizituak irakurle inplizituaren irudikapen berri bat egitea, eta, beraz, beste generoetan baino errazago antzeman omen daiteke itzultzaile inplizituaren ahotsa (O'Sullivan, 2000: 249). Itzultzailearen ahotsa suma daitekeen eremu hauek aurkezten ditu O'Sullivanek:

Paratestuan: itzultzailearen oin-ohar, glosategi, aitzin- edo gibel-solas moduan. Literatura orokorrarekin alderatuta, HGLan ondo ikusia, onartua eta ohikoa ere bada paratestuaren bidez

itzultzailearen ahotsa azalratzea, betiere adin txikiko irakurleei ezezagun zaien errealitate eta erreferentzien inguruko azalpenak emateko (O'Sullivan, 2000: 250-251). Bi adibide ematen ditu O'Sullivanek: oin-oharrak (sorburu kulturako jai-egun baten erreferentzia egiten bada, esaterako, itzulpenaren irakurleari egun hori noiz den azaltzeko), eta aitzin- edo gibel-solasak (hainbat itzultzailek erantsitako hitzaurreen eta bestelako atalen adibideak ematen ditu). Guk aztertutako liburuetan ere aurkitu ditugu O'Sullivanek aipatzen dituen bi kasuak, nola oin-oharrena nahiz aitzin- edo gibel-solasena. Adierazgarriak dira, adibidez, 80ko hamarkadan liburuen amaieran jartzen ziren hiztegitxoak euskal irakurleak sortzen laguntzeko (euskal irakurle gabezia baitzegoen). Hala, gure hipotesia da, paratestuetan itzultzailearen ahotsa entzunaraztea normalagoa dela zenbat eta HGL-sistema gazteagoa izan.

Testuan: itzultzailearen ahotsa testuan bertan ere nabari da, esan dugun moduan. Hala, itzultzaile implizituak irudikatutako irakurle implizituaren araberako aldaketak eta egokitzapenak aurki daitezke testu itzulian. O'Sullivanek bitan banatzen du itzultzailearen ahotsak duen eragina testu itzulian: kontakizun areagotzailea ala kontakizun murriztailea bihur dezake testua.

Kontakizun areagotzaileetan, itzultzailearen ahotsak STko egile implizituak ematen ez dituen azalpenak ematen ditu (esate baterako, egoera komiko bat zergatik den komikoa azalduz) eta, hala, testuak (eta, beraz, baita itzultzailearen ahotsak ere) bestelako funtzio bat hartzen du, dibulgazioarena, adibidez.

Kontakizun murriztailean, berriz, alderantzizkoa gertatzen da: itzultzaile implizituak ezabatu egiten ditu STko egile implizituak adierazitakoak.

Bi kasu horiek, alegia, kontakizuna areagotzailea ala murriztailea bihurtzearen auzia, aurreago corpusaren mikroazterketan aztertu nahi izan dugun puntuetako bat da, hain zuzen ere.

4.5. HGLaren ITZULPENA HIZKUNTZA GUTXITUETAN

1.5 atalean ikusi dugu hizkuntza gutxituak zer diren, eta itzulpengintzak nola eragin diezaieketen horiei. Atal honetan, ordea, zehazki hizkuntza gutxituetara egiten den HGLaren itzulpenari erreparatu nahi izan diogu.

4.5.1 *Aurrekariak*

Euskal Herrian gaiaren inguruan egin diren bi tesi aipatuz hasi nahi genuke atal hau. Manu Lopez Gasenik 2000. urtean argitaratu zuen bere tesia, euskarara itzulitako HGLaren gaia berariaz ukitzen zuen lehena. Bertan, HGLari eta itzulpengintzari buruzko oinarriak azaldu ondoren, euskarara itzulitako HGLaren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egiten ditu. Helburuak dira euskaratutako HGLak euskal HGL-sisteman betetzen dituen funtzioak zein diren ezagutzea eta baliatu diren itzulpen-estrategiak zein diren ezagutzea. Itzulitako literaturak xede-sisteman betetzen duen funtzioa aztertzeke, itzulitako liburuek nahiz sortze-lanek historian izan duten bilakaerari erreparatzen dio Gasenik, eta, itzulpen-estrategiak aztertzeke, berriz, honako hauek hartzen ditu kontuan: Touryren hasierako araua nola betetzen den

(hau da, egokitasunerantz ala onargarritasunerantz jotzen den) eta Sahvitek 86ko lanean aipatzen dituen estrategiak nola betetzen diren (nahiz eta Shavitek lan hartan deskribatutakoek gehiago azaltzen duten nola sartzten diren helduen literatur lanak HGLan, eta, pixkanaka, HGL-sistema nola sortzen den). Gasenik azterketa kualitatiboan aipatzen dituen ezaugarrien artean, badira guri bereziki interesatzen zaizkigunak, gure gaiarekin zerikusia dutelako edo gure azterketan ere agertu zaizkigulako: 1876-1975 urte bitarteko ekoizpena oso mugatua izan zen, eta, beraz, 1975-1995 urte bitartean itzuliko da modu sistematikoagoan. Jatorrizko produkzioarekin ere gauza bera gertatu zela dio, hau da, 1975-1995 urtealdian sistematizatu zela sorkuntza. Hala ere, eta teknika eta gai aldetik berritzaileak diren elementuak itzulpenetan lehenago agertu izan direla aitortzen badu ere, Lopez Gasenik dio ezin dela frogatu itzulpenen zuzeneko eraginik egon den sortze-lanetan (Lopez Gaseni, 2000: 292). Itzulpenek sortze-lanetan eraginik utzi duten aztertzea dirudiena baino konplexuagoa izango da, baina, nolana den, argi gelditzen da itzulpenek pisu handia izan dutela euskal HGL-sistemaren eraikuntzan. Halaxe aitortzen du Lopez Gasenik berak ere, eta 80ko hamarkadan Elkarrek atera zuen Itzul saila aipatzen du horren adibide. Bide batez esan behar da sail horretako lanen % 33 (kopururik altuena) alemanezko polisistemako lanak direla (Lopez Gaseni, 2000: 210). Bestalde, bere lanetik ateratzen duen ondorio nagusia da 1975-1995 urtealdian sistematizatu egiten dela euskal HGL-itzulpena, itzultzaileek ere gehiago errespetatzen dutela testuen osotasuna eta horrek erakusten duela euskal HGL-sistema –bere dohain eta gabezia guztiekin– finkatuta dagoela (Lopez Gaseni, 2000: 293).

Lopez Gaseniren tesiaren ondoren Gomez Zubiak 2004an argitaratutakoa aipatu behar dugu. Gomez Zubiarena, gainera, egile eta hizkuntza-konbinaizo jakin batzuetara lerratu zen: Grimm anaien *Kinder- und Hausmärchen* lanaren euskarazko itzulpenak aztertu zituen, alemana-euskara hizkuntza-konbinazioan, hain zuzen. Lopez Gaseniren moduan, Gomez Zubiak ere azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egiten ditu. Azterketa kuantitatiboan euskarara egindako itzulpen eta egokitzapen guztiak katalogatzen ditu, eta horien datuen berri ematen du. Azterketa kualitatiborako, ordea, itzulpen eta egokitzapen bana duten ipuinak hautatzen ditu, 14 guztira. Gomez Zubiak dioenez, Grimm anaien ipuinak euskaratu direnean, garaian garaiko eskakizunen arabera egokitzapenak egin dira, Grimm anaiek eurek beraien lana garaiaren arabera moldatzen joan behar izan zuten moduan (Gomez Zubiak, 2004: 358).

Lopez Gaseniren eta Gomez Zubiaren tesien ondotik, Beldarrainek 2010ean aurkeztu zuen alegia klasikoaren euskarazko itzulpenen azterketa, baina, gainerakoan, ez da euskaratutako HGLari buruzko ikerketa akademikorik burutu.

Estatu espainiarrean Galizian bultzatu da gehienbat ikerketa mota hau, zehazki, Vigoko unibertsitatean. Doktorego programa bat daukate, non 1994tik hona HGL alemana eta ingelesaren itzulpenak aztertzen dituzten, eta horrek gaiaren inguruko doktore-tesiak egiten direla dakar ondorio gisa (Ruzicka, 2002: 19).

Ruzicka bera kexu agertzen da Espainian maila akademikoan HGLaren itzulpenak jasotzen duen arreta txikia dela eta. Aipatu dugun moduan, Vigokoa da gaiaren inguruan Espainian dagoen

ikerketa-talde bakarra. Ikerketa talde horretatik sortu zen 1999an ANILIJ (*Asociación Nacional en Investigación de Literatura Infantil y Juvenil*), HGLaren ikerketarako Espainiako elkarte. Elkarte horrek elkarlanerako harremanak lotu zituen Espainiako erkidegoetako unibertsitateekin, hala nola Vigoko Unibertsitatearekin, Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitatearekin, Kanaria Handiako unibertsitatearekin, Alicanteko unibertsitatearekin, Bartzelonako unibertsitate autonomoarekin, Santiago de Compostelako unibertsitatearekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin. Helburua, hain zuzen ere, eskualde elebidunetan egiten den HGLaren itzulpena aztertzea:

Da es sich dabei jedoch immer noch um vereinzelte Arbeiten handelt, die sich nur auf bestimmte Autoren und gewisse übersetzerische Aspekte beschränken, wurde in jüngster Zeit durch die Forschungsgruppe der Universität Vigo eine umfangreiche Studie in Gang gesetzt, deren Untersuchungen sich auf die zweisprachige autonomen Regionen erstrecken, wo die kinderliterarischen Übersetzungstendenzen durch regionale Kulturspezifika und Sprachnormen stark geprägt sind. Die ersten Resultate werden in den Band "Estudios críticos de traducción de literatura infantil y juvenil. Análisis de las traducciones de obras inglesas y alemanas a las cuatro lenguas oficiales de España" veröffentlicht (Ruzicka, 2002: 20).

Espainiako unibertsitateen artean lotutako elkarlan horretatik *Estudios críticos de traducción de literatura infantil y juvenil. Análisis de las traducciones de obras inglesas y alemanas a las cuatro lenguas oficiales de España* argitalpena plazaratu zuten eta, besteak beste, Christine Nöstlingerren edo Peter Härtlingen lanen itzulpenak aztertu zituzten Espainiako hizkuntza guztietan. Polisistemen teoria hartu

zuten gidalerro gisa, eskualde elebidunetako hizkuntza politikek eragin ditzaketen arauak zein diren aztertzea helburu:

Dieses Polysystem betrachten wir als einen sehr geeigneten und fruchtreichen Ansatz für die Analyse von literarischen Übersetzungen in Gesellschaften mit konfliktiven Sprachen, wo die politische Linguistik bestimmte Richtungsweisen vorgibt bzw. vorschreibt. Das Ziel ist dabei, allgemeine Tendenzen in Hinsicht auf die Normen der Übersetzung und deren Abweichungsgrad von den originalen Texten sowie das Ausmaß der Manipulation ablesen zu können (Ruzicka, 2002: 24).

Zehaztu nahi genuke, hala ere, badela alderik argitalpen horretan egindako lanen artean. Izan ere, gidalerro nagusia polisistemen teoriak izan beharko balu ere, ez zaigu iruditzen guztiek zorroztasun akademiko bera erabili dutenik Even-Zoharren teoria aplikatzerakoan. Zehazki, Nöstlingerren *Liebe Susi, Lieber Paul!* lanaren euskararako itzulpenaren azterketan jarrera guztiz arauemailea topatu dugu. Huberrek, artikulua egileak, itzulpenak dituen akatsez eta arazoez hitz egiten du jatorrizko alemana eta euskal itzulpena alderatuz. Are, liburutik ateratako adibideen ondoan, bere proposamena ematen du. Gainera, azterketa osoa egin ostean, ondorioetan, Huberrek berak aitortzen du itzulpena seguru aski gaztelaniatik abiatuta egingo zela eta "si se confirmara esta hipótesis, al análisis contrastivo aquí realizado le faltaría un elemento esencial y por tanto se relativizaría un tanto su valor" (Huber in Ruzicka eta Lorenzo, 2003: 230). Itzulpena sortutako egoera eta baldintzak kontuan hartu ez izana Even-Zoharren teoriak dioenaren kontra doa, eta horrek bereizi egiten du argitalpen horretako gainerako artikuluetatik. Izan ere, Lopez Gasenik *A study in Scarlet* lanaren euskarazko itzulpena aztertzen

du, besteak beste, Touryren eta Even-Zoharren ideiei jarraiki. Huberrek aztertutako testu bera aztertzen du Marisa Presasek (Presas, 2003: 181), baina katalanera egindako itzulpenean oinarrituta. Presasek berak ere azterketa deskribatzaileen garrantziaz ohartarazten du hasiera-hasieratik, eta pausoz pauso egiten du ondoren azterketa: HGLaren itzulpenaren eta kultur erreferentzien inguruan hausnartzen du aurrena, itzulpen-prozedurak zein izan ohi diren azaltzen du hurrena, sorburu-testuari, egileari eta itzultzaileari buruzko datuak ematen ditu, eta, azkenik, itzulpenean erabilitako prozedurak aipatzen ditu. Lehen esan bezala, aldeak egon badaude argitalpen honetako artikuluen artean, eta horrek are berresten digu benetan itzulpena ardatz hartzen duten ikerketak egiteko beharra.

Izan ere, argitalpen horretako hainbat artikuluk aitortzen duenez, ohikoa izan da eta da zubi-hizkuntzaren erabilera. Ikusi dugu Huberrek ondorioetan aipatzen zuela zubi-bertsioarena, baina ez duela kontuan hartzen. Gure ustez, ordea, hasieratik hiru hizkuntzak kontuan hartuta egin behar da azterketa, testu-alderaketa filologiko hutsetik haratago testu bakoitzaren sorreraren testuingurua kontuan hartuz eta itzulpen mota ezberdinak topa ditzakegula kontuan izanik hasiera-hasieratik.

Lopez Gaseniren tesian ere (Gaseni, 2000), gaztelania zubi-hizkuntza gisa erabiltzearen estrategia nabarmentzen da: 60ko hamarkadan ia itzulpen guztiak egin ziren gaztelanitik, eta jatorrizko hizkuntzekiko itzulpenak 90eko hamarkadan hasten omen dira egiten nolabaiteko sistematikotasunez (Lopez Gaseni, 2000: 293). Hala ere, zubi-hizkuntzaren erabilera sarri aipatzen bada ere, artean ez da lanik egin berariaz hiru hizkuntzak erkatuz,

gizarte elebidun batean bi kulturen arten osatzen den harremana aztertze aldera.

4.5.2 *HGLaren itzulpenaren funtzioak*

Kultur eta hizkuntza plangintzak ezinbestekoak dira hizkuntza gutxituen kasuan, plangintza horien arabera egiten baitu aurrera ala atzera hizkuntzak. Plangintza horiei lotuta daude, aldi berean, itzulpenak, hein batean dagokien hizkuntza eta kulturaren bilakaeraren arduradun direlako, bereziki normalizazio bidean dauden hizkuntza gutxituetan. Horregatik guztiagatik, itzulpenek, eta horien barruan baita HGLko itzulpenek ere, funtzio estrategikoa betetzen dute hizkuntza gutxituetan. Hainbat hizkuntza gutxituren kasuan HGLaren itzulpenak bete duen funtzioari erreparatuta, Touryk deskribatutako arauen arabera sailkapena egin dugu, funtzio batzuk alde aurretiko edo *preliminary norms* delakoekin baitaude lotuta, eta beste batzuk jarduerazko arauekin edo *operational norms* delakoekin.

Aurreneko atalean ikusi dugun moduan, alde aurretiko arauak itzulpen politikarekin daukate zerikusia, hau da, zer itzuliko den, nork itzuliko duen, nola etab. HGLan egiten diren itzulpenek maila horretako erabakiekin ere badute zerikusia eta funtzio jakin baten arabera hartzen dira. Finlandiaren kasuan, Oittinenek dio XIX. mendean garbi ikusi zela Finlandiak nazio zibilizatu bat izan nahi bazuen, herriaren hizkuntza erabili behar zela literaturan, gobernuan eta merkataritzan: “The nation’s first priority, therefore, was to educate young people in the Finnish language and about literature written in the Finnish language” (Oittinen, 2006: 36). Lehentasuna zen, beraz, herritarrek hizkuntza

ikas zezaten eta hizkuntza horretan idatzitako literaturan heziak izan zitezten. HGLaren generoa, ondorioz, gakoa bihurtu zen finlandieraren hizkuntza plangintzan, eta gauza bera errepikatzen dela uste dugu beste hainbat hizkuntza gutxitutan, hizkuntza bultzatzeko modu bat delako.

Itzulpen plangintzaren garrantzia azpimarratu nahian, Lunak eta Monterok diote (Luna eta Montero, 2006: 11), kontuan hartu behar dela itzulpenak historiako garai eta egoera jakin batean kokatzen diren gertakizunak direla, eta, gizarte eta une jakin batean agertzeko helburuz itzultzen badira, ez dela halabeharrak eragindako erabaki bat. Halabeharrak erabakia ez den bezala zein hizkuntzatako zein lan itzuliko den.

Faktore horiek guztiak izendatzeko *elementos paratraductivos* terminoa erabiltzen dute bi egileek. Alegia, itzulitako testuaz kanpo, itzulpenaren sorkuntzan eragiten duten alderdiak dira: funtsean, argitaletxeen politika.⁴³

Itzulpen politikei dagokienez, hizkuntza boteretsuen eta gutxituen artean sortzen diren aldeei erreparatzen diete Lunak eta Monterok. Egile hauek diotenez, hizkuntza gutxituetako argitaletxeek lan *txikiagoak* aukeratzen dituzte itzultzeko, hain zuzen ere, hizkuntza handiek aukeratu ez dituzten horiek:

Así, dentro do Estado español, nas comunidades con lingua propia tenden a elixir obras «menores» de autores de

⁴³ Terminoa Touryren *preliminary norms* terminoan oinarrituta sortu dute: “As normas preliminares remiten á (in)tolerancia cara á tradución indirecta e á política de tradución en xeral e inclúen factores extratextuais como indiferenza, desaprobación ou selección das linguas fonte, tipo de texto, autor/a, posición da tradución no polisistema, etc.” (Toury in Luna eta Montero, 2006: 11).

recoñecido prestixio para seren traducidas, no canto de obras obras galardoadas coa intención de evitar dobretes non mesmo espazo. Porén, a cultura minorizada en situación diglósica adoita configurar un canon na lingua propia, mesmo complementario ao da cultura coa que convive precisamente por razóns de prestixio (Luna eta Montero, 2006: 13).

Hizkuntza gutxituetan, beraz, kanon propioa eraikitzea omen da helburua, hizkuntza boteretsuan itzuli ez diren obrak itzuliz; obren errepikapenak gertatu ez daitezen, eta, esan bezala, kanon propio bat eraikitzearren. Iruditzen zaigu, hala ere, horrek Galiziako egoera isla dezakeela, baina ez hainbeste Euskal Herrikoa. Izan ere, gurean luzaroan gertatu da alderantzizkoa, hau da, gaztelaniazko merkatuan zegoena itzuli izan da euskarara. Fenomeno horrek, hala ere, egile eskubideekin dauka zerikusia, Espainiako argitaletxeek erosten zituztelako estatu osorako eskubideak. Gaur egun, Euskal Herriko zenbait argitaletzek berezko autonomia duela erakusten du, eta ez du itxaroten liburu gaztelaniazko merkatuan egon arte: egile eskubideak erosi, eta euskaraz nahiz gaztelaniaz argitaratzen du liburu bera, egile eskubideen erosketari zukua ateratzearren. Praktika mugatua da, hala ere.

Bestalde, hizkuntza gutxituak eta HGLaren itzulpen-politika zuzenki lotuak dauden bi elementu dira, hizkuntza gutxituek ezagun duten bereizgarrietako bat baita nagusiki HGLa itzultzea (helduentzako literatura baino gehiago):

Así por exemplo, nas culturas non normalizadas adoita existir un maior desequilibrio entre o volume de importación de LIX e o de publicación de traducións de literatura para adultos; mentras nas culturas que gozan dunha normalidade lingüística

(normalmente maioritarias) a situación goza de maior equilibrado (Luna eta Montero, 2006: 14).

Hasieran aipatu dugunaren ildotik, beraz, HGLaren itzulpena bultzatzeak zerikusi zuzena dauka hizkuntza baten egoera diglosikoarekin, hezkuntza-sistemarekin duen lotura dela-eta, hizkuntza bera bultzatzeko estrategia bihurtzen baita HGLa bultzatzea.

Era berean, helduentzako literatura baino errentagarriagoa izaten da HGLaren itzulpena (berriz ere, hezkuntza-sistemarekin lotuta dagoelako), eta, horrenbestez, arnasbide funtzioa ere betetzen du hizkuntza gutxituaren literatur sisteman:

Aínda que cada cultura viviu e vive a conformación do seu sistema literario de maneira ben distinta, a historia recente da tradución literaria para as linguas minorizadas ten unha función principal en común: a recuperación da consideración cultural e identitaria (Luna eta Montero, 2006: 15).

Aldez aurretiko arauekin lotuta zeuden funtzioak ikusi baditugu ere, badira jarduerazko arauekin lotuago dauden funtzioak. Nitsa Ben-Arik, esaterako, joera didaktiko-pedagogikoak sumatzen ditu alemanetik hebreerara Bigarren Mundu Gerra ostean itzulitako HGLan (Ben-Ari, 1992: 221-231). Sumatzen dituen fenomenoak honako hauek dira:

- Errepikapena: xede-testuaren hizkuntza aberastea helburu, hitzen sinonimoak bata bestearen atzean ematea, edo, oro har, testuaren estiloa edertzea.
- Ezabaketak: edukia egokia ez delako, testu zatiak ezabatzea.
- Gehikuntzak: hizkuntza irakastea helburu, modu esplizituagoan idaztea. *Bambiren* hebreerarako itzulpenean, esaterako, Ben-Arik lau sustantibo bikoitz topatu zituen

aurreneko orrialdean (aldaera ez hain ezaguna eta ezaguna, bata bestearen alboan).

- Hizkera ez formala saihestea: esapide gogorak ezabatu edo arindu egiten dira, edota, informal kutsua duten hitzak aldaketa tipografikoz adierazten dira (letrakera etzanez emanda, esaterako).
- Egokitzapen kulturalak: kultur erreferentziak xede kulturara egokitzea.

Interesgarriak iruditzen zaizkigu Ben-Arik bere artikuluan aipatzen dituenak, guk ere horietako batzuk sumatu baititugu euskaraz. Dena den, Ben-Ari urrunago doa bere adierazpenetan, eta HGLaren itzulpenean beti xede-testuaren onargarritasuna lehenesten dela defendatzen du. Itzulpenaren unibertsal gisa aurkezten du gainera:

It is necessary to emphasize again that in each of these cases considerations of adequacy will never take priority over those of acceptability in the TL, no matter how “classic” the author or how central the text’s position in the SL. However, the norm tends to grow even more rigid and uncompromising as the position of the text shifts from the center to the periphery (Ben-Ari, 1994: 227).

Orain hizkuntza gutxitudun sistema batzuetan HGL alemanetik egindako itzulpenei buruzko ikerketen adibide batzuk ikusiko ditugu.

4.5.3 *HGLaren itzulpena hizkuntza gutxituetara*

1.4 atalean ikusi dugunez, itzulpen-jarduera alde biko txanpona izan daiteke hizkuntza gutxituentzat: kultura hartzailea irekitzea eta garatzea dakar, baina ikusi dugu arrisku-faktore gisa ere ikusten dutela batzuek. Silvia Coll-Vinentek dio kultura

katalana modernizatzeko ezinbestekotzat hartu zirela itzulpenak. *Noucentisme* deritzon kultur mugimenduaren baitan, XIX. mendearen hasieran berritzailetzat hartzen ziren hainbat lanen itzulpena egin zen katalanera (Coll-Vinent, 1998: 208-209). Azpimarratzekoa da, hala ere, ingelesez idatzitako hainbat lan frantsesezko bertsiotik abiatuta itzuli zituztela. Fenomeno horri “mediated translation” deitzen dio Coll-Vinentek, eta, hain zuzen ere, askotan gertatutako fenomeno bat da; are gehiago hizkuntza gutxituen kasuan. Aparteko arreta eskaini diogu guk horri lan honetan.

Horiek, baina, Kataluniako itzulpen jardueraren hastapenak izan ziren, XIX. mendearen hasieran. XX. mendeko laurogeiko hamarkadan itzulpen jardueraren beste olde bat gertatu zen, eta, kasu hartan, Euskal Herrian gertatu zenaren antzera, haur eta gazteek beren hizkuntzan idatzitako testuen beharrak sorrarazi zuen:

[...] even though the market was given an extraordinary boost in the eighties as a result of the urgent need for children’s and teenager’s literature to be used in primary and secondary schools. This need arose because an essential part of the syllabi in Catalan language classes included pupils’ having to read several books each year, and at first many of these books were translations (García de Toro, 2004: 274).

Garai hartan ere zeharka egin ziren itzulpenak, frantsestik beharrean, ordea, gaztelaniatik egin ziren, Euskal Herrian gertatu zen fenomeno berbera.

Alemanetik katalanera itzultitako HGLaren kasu zehatzari erreparatuta, HGL alemanaren itzulpenak ibilbide oparoagoa izan

du katalanera euskarara baino. Ruzickak egindako ikerketaren arabera (Ruzicka, 2002: 17), 1980 eta 2000 urteen artean HGLko 280 lan inguru itzuli ziren katalanera. Aldiz, garai berean, 70 lan baino ez omen ziren euskarara itzuli. Hala ere, euskaratutako HGL alemanari buruz Ruzickak ematen duen datu hori ez dator bat gure katalogoak ematen duenarekin: 1980 eta 2000 urteen artean, 147 itzulpen dauzkagu guk gure katalogoan. Hala eta guztiz ere, egia da katalanera gehiago itzuli dela.

Kopuruaz gainera, itzulpen politika bera ere bestelakoa izan dela dio Ruzickak: “[...] während in Katalonien die Verlagspolitik anders ist, d.h. es wird viel mehr direkt aus dem Original und nicht aus den Brücken-Versionen übersetzt” (Ruzicka, 2002: 17).

Nolanahi ere, Fischer ez dator guztiz bat Ruzickak dioenarekin. Alemanetik katalanera egindako HGL-lanen itzulpenak gertutik aztertu dituen ikertzailea dugu Martin Fischer, eta, berak dioenez, ezagun da zenbait itzulpen gaztelaniatik egin direla, guztiek alemanetik itzuli dela aditzera ematen badute ere:

Bei den anderen Titeln der KJL ist in der Regel davon auszugehen, dass die Übersetzungen direkt vom Deutschen ins Katalanische erfolgten. Allerdings deuten bei Stichproben gefundene ähnliche Fehler in der katalanischen und spanischen Ausgabe des gleichen Buches zuweilen auf eine andere Praxis hin. Es liegt uns jedoch kein ursprünglich deutschsprachiges Buch vor, in dem ausdrücklich angegeben wird, es sei uns aus dem Spanischen ins Katalanische übertragen worden (Fischer in Ruzicka, 2002: 43).

Beraz, zenbait paralelismo topatzen ditugu alemanetik euskarara egindako itzulpenen eta alemanetik katalanera egindako itzulpenen artean. Euskarazko hainbat eta hainbat liburutan

begiratuta ere ez dago jakiterik zuzenean ala zeharka itzuli den, eta, argitaletxera deituta, zuzenean itzuli dela esateko bat-bateko erreakzioa aurkitu dugu sarritan, nahiz eta sobera jakin, zenbait kasutan, itzulpena, ziur asko, zeharka egin dela. Ziurgabetasun hori edo itzulpenen ustezko balio hori gako da, hain zuzen ere, gure lanean, zuzenean ala zeharka itzuli diren ustez baino ez baitugu sinetsi nahi, azterketa zehatzagoek erakutsiko digutenaren esperoan.

Fischerrek aipatzen duen beste datu bat jatorrizkoaren argitalpen-urtearen eta itzulpenaren argitalpen-urtearen arteko jautzia da. Fenomeno horren arrazoia, hain zuzen ere, egile eskubideen jabetzan aurki dezakegu. Izan ere, orain gutxi arte, estatu espainiarreko argitaletxe handiek estatuko hizkuntza guztietan argitaratzeko egile eskubideak erosten zituzten:

Zumeist jedoch liegt zwischen der Veröffentlichung der ersten, spanischen Übersetzung und der katalanischen ein Zeitraum von einigen Jahren. Dieser Umstand bewog den Verleger Francesc Boada (95), dem großen Madrider Verlag Alfaguara vorzuwerfen, die Rechte für Übersetzungen in die kleineren Sprachen Spaniens systematisch zurückgehalten zu haben, wodurch sich die Übersetzung wichtiger Werke der KJL ins Katalanische, Baskische und Galicische oftmals um Jahre verzögert habe (Ruzicka, 2002: 44).

Galegoen kasuari erreparatuta, Ruzickari irakurtzen diogunez, Galizian itzultzen den HGL kopurua handia da: argitaratzen den HGL kopuru osoaren % 60 da itzulpena. Are, *Xabarin* moduan, soilik HGL itzulia argitaratzen duten argitaletxeak ugaritu egin omen dira (Ruzicka, 2002: 27). Datu horiek kontuan harturik, Ruzicka kexu agertzen zaigu artikulu horretan, datuak

esaguratsuak izan arren, HGLaren kritiketan ez zaiolako itzulpenari dagokion arreta ematen, eta, beraz, horrek agerian uzten omen du HGLaren itzulpenari buruz egiten den gogoeta txikia.

Bestalde, Ruzickak ematen dituen datuei zehatzago begiratuta, ondoriozta dezakegu 90eko hamarkadan gertatzen dela alemanetik galegora egindako HGL itzulpenen pikoia, eta, beraz, ordutik aurrera sistematizatzen dela itzulpen-jarduera hori. Kontuan hartu behar da, izan ere, 1982tik aurrera sartuko direla hizkuntza autonomikoak oinarrizko hezkuntzan eta DBHn. Hala, 1989 eta 1991 urteen artean, esaterako, alemanetik galegora itzulitako 39 HGL-lan argitaratuko dira (Ruzicka, 2002: 31); 1992tik aurrera, alemanetik itzulitako 3-4 liburu argitaratu da urtean (ingelesetik eta frantsesetik gehiago); hala ere, 1997tik aurrera, goranzko joera erakutsi du kopuru horrek (2001ean 7 lan): “Derzeit nehmen die Übersetzungen aus dem Deutschen den zweiten Platz des gesamten galicischen Übersetzungsmarktes im Bereich der KJL ein” (2002: 31).

Silvia Monterok, bestalde, Galizian gaur egun HGLaren itzulpenak betetzen dituen funtzioak zerrendatzen ditu (Montero in Ruzicka 2002: 196):

- Bestelako kulturak eta kultura horien literatur produktuak ezagutzea. Bestelako formak eta edukiak inportatzeak eragin estimulagarria omen dauka bertako ekoizpenean.
- Hizkuntzaren normalizazioa.
- Munduko literaturako kanona galegoz, hau da, ama-hizkuntzan, eskuragarri eduki ahal izatea. Ondorioz, munduko literatura galegoz eskuragarri dagoenez, galegoa kultura-hizkuntza gisa baloratzen da.

- Bertako hizkuntza baliatzea, nazio-identitatearen oinarri baita.
- Bertako liburu-merkatuko hutsuneak betetzea.

Monterok galegora itzulitako HGLak betetzen duen funtzioei buruz esandakoak dira horiek, baina, funtsean, edozein hizkuntza gutxitura itzulitako HGLak betetzen dituen funtzioak dira, eta, horrenbestez, euskarari ere aplikatu dakizkiokeenak.

Katalanaren eta galegoaren kasuei erreparatzen diegu maizenik, baina badira HGL-produktuen itzulpenak aztertzen dituzten hizkuntza gutxitu gehiago ere, jakina. Eithne M.T. O'Connellrek Irlandako haurrentzat gaelikoz bikoiztutako ikus-entzunezkoak aztertu ditu 2003an kaleratutako lanean (*Minority Language Dubbing for Children*), eta gaelikoa bezalako hizkuntza gutxitu batera itzultzeko auziaz diharduenez, euskararen kasuarekin pareka genitzakeen kontuak aipatzen ditu.

O'Connellrek dioenez, aukeratzen utzita, haur gehienek jarduera gehienak ingelesez egingo lituzkete. Hala, gaelikoz egindako produktu gehiago aldarrikatzen ditu, haurrek, bestela, ingelesez dauzkatelako produktu denak edo ia gehienak, eta, beraz, gaztetxoenen hizkuntza-joeretan eragiten du horrek. Hizkuntza gutxietara egindako itzulpenek, beraz, lotura estua dute hizkuntza horretako hizkuntza-plangintzarekin.

Irish-language books, TV programmes and other materials only represent a small fraction of what is available in Ireland in the English language and just an infinitesimal fraction of what English has to offer globally (O'Connell, 2003: 61-62).

Zehazki, Janosch egile alemanaren *Janoschs Traumstunde* telesailaren gaelikora egindako bikoizketa lanak aztertzen ditu O'Connell. Bere lanaren ondorio nagusietariko bat da gaelikora

egindako itzulpeni terminologiaren sinplifikazio handia sumatzen zaiela jatorrizko alemanezko testuen aldean. Ordea, O'Conellek ateratzen duen ondorio interesgarrienetako bat da, hain zuzen ere, sinplifikazio hori batzuetan ez dela gertatzen gaelikoz termino jakin bat egon ez dagoelako, baizik eta itzultzaileak ama-hizkuntza gaelikodunak ez diren hartzaileengan pentsatuta, testuak errazten dituztelako baizik:

The fact that Irish is now used in limited domains means that while such words exist and are available in dictionaries, they may not be common currency or have a high frequency of use. This places translators operating without very clear language policy guidelines in a dilemma – should they reflect the current state of the language by using restricted vocabulary, thereby keeping learners in a comfort zone? Or should they expand the linguistic boundaries of the audience, thereby appealing more to native speakers and possibly alienating others? (O'Connell, 2003: 124).

O'Conellek egiten dituen galderak funtsezkoak dira guretzat ere. Izan ere, baliteke euskal itzultzaileari ere gauza bertsua gertatzea: euskal itzultzaile inplizituak, HGLa euskaratzen ari delarik, hurrek zenbait euskal hitz/esapide ezagutuko ez dituela pentsatuta, arruntagoak diren hitzak erabiltzea erabaki lezake. Eskarmetu pertsonalean oinarrituta esan dezakegu fenomeno hori gertatu gertatzen dela. Itzultzaileak, izan ere, hartzaile bat irudikatu nahi du buruan: adin-tarte jakin bateko haur euskalduna. Gurean, ordea, hizkuntzaren egoera dena delakoa izanik, hizkuntza-gaitasun oso desberdineko haur euskaldunak daude, hizkuntza modu desberdinean bizi dutenak. Azken irakurle inplizitua irudikatzeko zailtasun horrek, beraz, are zailtzen du hartu beharreko itzulpen-erabakia. Bestalde, arruntagoak diren

hitz eta esapideetara egin beharrean, baliteke zenbaitetan alderantzizkoa ere gertatzea, HGLa euskara irakasteko tresna bihurtzen delarik.

Touryk berak hebreerara itzulitako HGL alemaneko testu baten itzulpenaren nondik norakoak kontatzen ditu artikulu batean. Testua *Das Schlaraffenland* ipuin ezaguna da, baina ez Bechsteinek idatzitako jatorrizkoa⁴⁴, baizik eta Tom Freudek (Freuden hilobak) egindako haren moldaketa bat. Hebreerarako itzulpena Chaim Nahman Bailik-ek egin zuen 1922an, baina, artikuluan Touryk egiaztatzen duenez, hainbat aldaketa eragiten dizkio Bailikek: testua errimatan ematen du, amaieran fikziozko narratzaile baten ahotsa sartu eta epilogo bat eransten du, eta, hasieran ere, sorburu-testuak duena baino sarrera askoz luzeago bat ematen du. Touryk frogatzen duenez, Bailikek ipuin errusiarren ereduari jarraitu zion itzulpena/moldaketa egiteko:

Es wird jetzt möglich, die Behauptung aufzustellen, daß (fast) alles in der Zusammensetzung von »Gan-Eden ha-taxton«, was vom deutschen Ausgangstext und seinen organisatorischen Prinzipien (das Modell, das ihm zugrunde liegt) abweicht, nicht einfach aus einem allgemeinen Bereich, dem der russischen Folklore, aufgegriffen wurde, sondern in Wirklichkeit ein erkennbares Modell ausmacht (Toury, 1994: 107).

Ordea, testuaren egituraz haratago, hizkuntzan bertan sumatzen du ipuin errusiarren tradizioaren arrastorik Touryk: zenbait esapide errusiarren hitzez hitzeko itzulpenak, errusiar anekdota tradizioaletatik atereak, baina, bestalde, baita

⁴⁴ Sorburu-testua Ludwig Bechsteinek argitaratu zuen 1845ean, *Das Märchen vom Schlaraffenland*; Tom Freudek 1921ean argitaratutakoa jatorrizkoaren bertsio laburtua da funtsean (Toury, 1994: 100).

hebreerazko zenbait esapide finko ere, yiddish idatzitik maileguan hartuak baina hebreeraz gaurkotasunik ez zutenak.

Bi fenomenoak iruditzen zaizkigu interesgarriak, biak baitira interferentziaren adibide: errusieratik kalkatutako esapideak, baina, bestalde, hizkuntza bera bultzatzearen, aspaldian erabili gabeko esapideak bultzatu nahia. Touryk berak dioenez, itzulpen horretan Bialikek erabiltzen dituen fraseologiak ez ditu egile gisa erabiltzen (idazle nazionaltzat hartzen baita, bestalde, Bialik):

Ungeachtet dieser Verallgemeinerung kann nirgends in Bialiks Übersetzungen oder in seiner Kinderliteratur (vielleicht mit der Ausnahme seiner Übersetzung einer »Don Quixote«-Version) eine solche Dichte an hebräischen Phraseologismen gefunden werden. Diese Tatsache kann als weitere Bestätigung unserer vorherigen Hypothese angesehen werden, daß diese zunächst und vorwiegend Strategien zur Milderung der potentiellen Fremdheit des Textes und zur Vergrößerung seiner Akzeptabilität darstellen (Toury, 1994: 111).

Touryren ustez, beraz, itzulpena egiteko bestelako ereduak oinarritzat hartzen direnean, onargarritasuna xede hartuta egiten diren itzulpenak dira. Kontuak kontu, garai hartan errusiako literatur sistema zen hebreerazko sistemaren iturri nagusi, nola itzultzeko testuei zegokienean nola eredu orokor gisa (Toury, 1994: 108).

Touryk emandako adibidea euskararenarekin pareka genezake beharbada, gaztelaniazko eredu oso presente baitugu, eta, zenbaitetan, haren interferentzia onartzen dugu geure sistemaren onargarritasunaren alde.

Azken batean, argi ikusi dugunez, HGLa hizkuntza gutxitu batera itzultzeak baditu bere koskak, HGL generoa delako, batetik,

baina, aldi berean, hizkuntza gutxitua izateak dakartzan ondorioengatik.

Atal honen ekarpena laburbilduz, itzulpen ikerketen hastapenean ez zen HGLaren itzulpena aintzakotzat hartu. Hala, itzulpen ikasketak sortu ostean eta Even-Zoharrek polisistemen teoria eraikitzen duenean, Zohar Shavit izango da, hain zuzen, aitzindarietako bat, eta HGL itzuliaren sistemaren eraketaz eta beraren ezaugarriez teorizatuko du. Shavitek hebreerara itzulitako HGLaren kasuari erreparatuko dio, eta, hala, bitara lotzen da guk egin dugun ikerlanarekin: hebreerak, hasieran behintzat, HGL alemanetik itzuli zuen batik bat, eta guk ere alemanetik euskaratutako HGLaren itzulpena hartu dugu aztergai; bestetik, bi hizkuntzen ezaugarriak eta bilakaerak erkagarriak ez diren arren, hebreera berpiztutako hizkuntza bat izan da, eta horrek, neurri batean, euskararen pare jar dezake, euskara ere bultzatu eta indartu behar izan delako, galtzea nahi ez bazen. HGLaren itzulpenak, izan ere, zeregin berezia jokatzen du hizkuntzaplantzari dagokionez. HGLaren itzulpenaren teoriagintzarekin jarraituta, Oittinenen izena nabarmendu nahi dugu, egile finlandiarrak ikuspegi berri bat barneratu zuelako HGLaren itzulpenaren teorigintzan, hain zuzen ere, HGLaren itzulpenean egilearen, itzultzailearen eta hartzailearen arteko elkarrizketa bat sortzen delako, eta, elkarrizketa horretan, egilearenaz gain, itzultzailearen ahotsa ere sar daitekeelako. Azpimarratu nahi izan dugun azken egilea O'Sullivan izan da, Oitinenen teoria garatzen duelako: egile finlandiarraren elkarrizketaren ideia komunikazioeskeman irudikatzen du, baina itzultzaile inplizituaren figura ere

barneratzen du, itzulpen-erabakiak hartzen diren espazioa irudikatze aldera, non itzultzaile implizituak irakurle implizituaren arabera jokatzeko duen.

HGLaren itzulpenaren teoriagintzak izandako bilakaera kontuan hartuta, baina euskarara egindako itzulpenen kasuari helduta, funtsezkoa deritzogu teoria horiei guztiei zehaztapen bat gehitzea, alegia, zubi-hizkuntzaren interferentziak itzultzailearengan duen eragina. Euskal itzultzaileak interreferentzia bikoitza izan dezakeela aipatu dugu, eta, beraz, itzultzaile implizitua ere bikoiztuta ageri dakiguke, xede-hizkuntza bikoitzean pentsatzen duelako askotan.

Bestelako hizkuntza gutxituetara egiten diren itzulpenak kontuan hartuta, bistakoa da zubi-hizkuntzak itzulpenetan edota itzultzailearengan duen interreferentzia. Ondorioz, interreferentzia hori izan dugu batez ere oinarri gure ikerketa bideratzeko.

5 Metodologia

Atal honetan metodologiari erreparatuko diogu, oinarri gisa hartutako lan-irizpideek arrazoitzen baitute, azken batean, nondik nora bideratu dugun lana.

5.1. OINARRIAK

80ko hamarkadan Touryk itzulpen ikasketa deskribatzaileetarako oinarriak ezarri zituenean, metodologia sendo baterako giltza aurkitu zuten itzulpen ikasketetako ikerketak egin nahi zituzten ikertzaileek. Aurreneko atalean ere azaldu dugunez, datu enpirikoetan oinarritutako ikerketa akademikoak egiteko bidea ematen du DTSk; Touryk berak objektiboak diren ikerketak egin ahal izateko bide gisa aurkezten ditu itzulpen ikerketa deskribatzaileak. Guk geuk ere DTSk ezarritako oinarriei jarraitu diegu, uste dugulako berau dela itzulpengintzako jakintzarlaroari ekarpen esanguratsu eta fidagarriak ematen dizkion ikerketa-metodoa. Aitzitik, ez genuke metodologia deskribatzailea ikerketa bide guztiz objektibo gisa defendatu nahi. Uste dugu ez dagoela ikerketa batean % 100 objektibo izaterik eta, ikerketa deskribatzaileetan ere, ikertzailea den pertsonak hartzen ditu,

azken buruan, itzulpenetan atzemandako fenomenoetarako buruzko erabakiak. Dena dela, uste dugu metodologia jakin bati eustekarekartzen duela ikertzailearen subjektibotasunari mugak jartzea eta pertsonaren eta ikerketaren artean distantzia bat ezartzea. Horri dagokionez, objektibotasun horretara ahalik eta gehien hurbiltzeko bide ematen duen heinean, Touryk proposatutako DTS-metodologia aproposa eta egokia dela uste dugu.

Teoriagile eta ikertzaile askok hartu dituzte ikerketa deskribatzaileak oinarri gisa lanerako. Lambertek eta van Gorpek, esaterako, itzulpen lanak modu deskribatzailean aztertzeo eskema moduko bat ezarri zuten 1985ean, eta guk eskema hori hartuko dugu oinarri. Izan ere, Lambertek eta van Gorpek ezarritako jarraibide horietarako jarraitu die TRACE ikerketa-taldeak, eta, ondorioz, baita gurean itzulpen ikasketen ikerkuntzan buru dabilen hainbat ikertzailek ere, hala nola Merinok (1994), López P. de Herediak (2004), Barambonesek (2009), eta baita berriki tesia defendatu duen Manterolak ere (2012).

Honako hauek dira metodologia deskribatzaileerako ezarri zitutzen urratsak (Lambert eta van Gorp, 1985: 52-53), azken urte hauetan egin diren hainbat ikerketa deskribatzailek ere modu batera zein bestera aintzat hartu dituztenak:

- Aldez aurretiko datuak aztertzea: izenburuek eta liburuazalek ematen duten informazioa, hau da, metadatuak aztertzea (idazlearen izena, itzultzailearena etab.). Era berean, testua jasotzen duen kultur testuingurua kontuan hartzea.
- Makroazterketa: testuaren banaketa atalen arabera, orrialde kopurua etab.
- Mikroazterketa: besteak beste, maila sintaktikoan, lexiko-semanticokoan edo estilistikoan identifikatutako fenomenoak.

- Sistemari buruzko gogoeta egitea: mikroaren eta makroaren artean egon litezkeen aldeak, testuarteko harremanak (bestelako itzulpenekin edota sormenezkoak diren lanekin dagoen harremana), sistemaren barneko harremana (generoari edo estilistikari dagokionez).

Urrats horien arabera, aldez aurretiko datuen azterketak makroazterketara garamatza, makroazterketak mikroazterketara, eta, mikroazterketa eginda, hasierako urratsetan ateratako ondorioetara itzuliko ginateke, sistemari buruzko gogoeta bat egin eta bertan suma daitezkeen arauz jabetzeko. Beraz, kiribil bat da: ikuspegi orokorretik hasten da, ikuspegi horrek ikuspegi xeheago bat hartzeko oinarriak emango dizkigu, eta, ikuspegi xehea hartuta, hobeto ulertuko dugu atzera ikuspegi orokorra.

Esan bezala, azken urte hauetan ugaritu egin dira Lambert eta van Gorpen metodologia deskribatzaileari jarraituz egin diren lanak. Itzulpengintzari buruzko ikerketatan ikuspegi biak, orokorra zein xehea, kontuan hartzeko beharraz ohartarazten du, adibidez, Tymoczko, teleskopioaren eta mikroskopioaren irudiak erabiliz horretarako (Tymoczko, 2002). Mikroskopioari esker, gauza berri asko ezagutu ahal izan dira, baina beste hainbeste teleskopioari esker:

Ultimately, however, in my view the best work shows a convergence – working toward the macroscopic from the direction of the microscopic, or vice versa, so that one's data from the macroscopic level are complemented and confirmed by data from the microscopic level (Tymoczko, 2002: 17).

Tymoczko aipatzen duen ikuspegi bien beharra edo Lambertek eta van Gorpek proposatzen duten kiribil formako ibilbidea funtsezkoak iruditzen zaizkigu. Izan ere, testu soilak

aztertuta, mikroskopioak eskainitako ikuspegia baino ez genuke izango, hau da, hizkuntza bien arteko azterketa kontrastiboa litzateke, eta gisa horretako azterketak emango lukeen emaitza erabat linguistikoa litzateke. Metodologia deskribatzaileak, berriz, ikerketarako marko osoago bat ezartzen du: itzulpenak kultura jakin bateko parte direnez, itzulpenen azterketak kultura hori hobeto ulertzeko bidea emango digu, baina, horretarako, ikuspegi zabalaz ekin behar diogu azterketari, sistemak eta kulturak deskribatzeko, ondoren, ikuspegi estuagoaz aztertu testuak, eta, azkenik, ikuspegi zabalera itzuli, sistemari eta kulturari buruzko ondorioak ateratzeko. Testu hutsak bere horretan alderatzetik ateratako emaitza ez litzateke testuak eta itzulpenak sortu diren egoeraren isla eta adierazle:

We can never 'compare' texts by simply juxtaposing them. We need a frame of reference to examine the positive and/or negative links between T1 and T2, and to examine them from the point of view of both T1 and T2 (Lambert eta van Gorp, 1985: 48).

Hain zuzen ere, ikuspegi makroa eta mikroa, biak uztartzen saiatu gara lan honetan. Uste dugu, gainera, alemana-gaztelania-euskara, hiru hizkuntzen arteko konbinazioak are gehiago bultzatzen duela sistemari buruzko ondorioak ateratzea. Izan ere, iruditzen zaigu egin egiten direla gaztelaniaren eta euskararen arteko harremanari eta interferentziari buruz lan eta azterketak, baina, beharbada, hizkuntza-gertakarietan gelditzen direla, eta, beraz, ez direla aski gertakari horien nondik norakoak azaldu ahal izateko, ez dutela ondorio sistemikorik ateratzen laguntzen. Alemana bezalako atzerriko hizkuntza batetik euskarara egindako itzulpenak aztertzean, berriz, gaztelaniaren interferentzia eta

zeharkakotasuna aztertzen bukatuko dugu, bai, baina, modu horretan, uste dugu errazago egingo dugula azterketa distantzia jakin batetik: argiago ikusiko dugu, akaso, gaztelaniaren sistema gurean tartekatzen den ala ez, eta zein neurritan edo nola tartekatzen den. Alegia, hiruko harreman horrek edo zeharkakotasunaren fenomenoak berak bultzatuko gaitu sistemen mailako ondorioak ateratzera.

Metodologia deskribatzailearen irizpide horiei jarraitu nahian, guk ere ikuspegi orokorretik abiatu nahi izan dugu, ondoren ikuspegi xeheari ekiteko, eta, guztia elkarren harremanetan jarrita, adierazgarriak diren ondorioak ateratzeko.

Lehenik eta behin, katalogo bat osatu dugu, gure aztergaia testuinguruan kokatze aldera. Ondoren, katalogoa aztertu dugu, eta horrek aztertzen ari garen jardunaren lehen irudi orokorra eskaini digu; horren ondorioz, irizpide batzuk ezarri ditugu, eta horien arabera hautatutako lanekin osatu dugu corpusa. Corpus horretako lanak metodologia deskribatzailearen arabera aztertzen saiatu gara berriz ere: paratestuei eta makroegiturari erreparatuz lehenik eta mikroegiturari hurrena.

Berariaz azpimarratu nahi genuke katalogotik corpusera eman dugun jauzia, betiere adierazgarria den lan kopurua hautatuz. Izan ere, aztergai dugunari buruzko ondorio esanguratsuak atera nahi baditugu, ezinbestekoa zaigu sistema kontuan hartzea, eta ez *a priori* hautatutako lan bakar edo gutxi batzuen inguruko azterketa egitea:

When dealing with individual phenomena, we are likely to overlook their general characteristic if we confine ourselves to

a single descriptive category [...]. A systemic approach on the other hand, enables us to distinguish between individual or collective norms (Lambert eta van Gorp, 1985: 51).

Corpusak erabilia lan egiteak itzulpen ikasketetan hartu duen pisuaz ohartuta, corpusgintzari buruzko ohar batzuk egingo ditugu hurrena. Ondoren, tesia burutzeko emandako pausu metodologikoak deskribatuko ditugu.

5.1.1 *Corpusgintza itzulpen ikerketan*

Atalaren hasieran aipatu dugun itzulpen ikasketa deskribatzaileen korronea hasi zen, itzulpengintzan, ikerketahelburutarako corpusak baliatzen eta, batik bat, Mona Baker, 90eko hamarkadan.

Izan ere, hizkuntza baten inguruko ikerketaren bilakaera hertsiki lotua dago hizkuntza-teknologiaren garapenarekin; esan nahi baita, hizkuntza baten erabilera aztertu nahi bada, edota hura bultzatu, ezinbestean heldu behar zaio corpusgintzari. Argi dago, hizkuntzen ikerketari maila zientifikoa eman nahi bazaio, datu empirikoekin egin behar da lan, errealitateak ematen dituen datuetan oinarritu, alegia. Hizkuntzak modu zientifikoa, eta, beraz, empirikoa aztertu nahi duenak hizkuntza hartu behar du oinarri. Horregatik guztiagatik dira funtsezkoak corpusak. Nabarmena da, bestalde, egoera indartsuan dauden hizkuntzek etengabe jorratzen dutela bide hori, eta Euskal Herrian ere ez dugu kanpoan gelditu nahi izan, hainbat baitira dauzkagun corpusak. Ordea, eskura dauzkagun corpusei erreparatu aurretik, corpus bat zehazki zer den eta guk corpus gisa zer ulertzen dugun azaldu nahi genuke labur.

Corpusa zer den definitzeko IXA taldekoek oinarrizko ideia ematen dute aurrena: hizkuntza-erabilera errealekoak diren datu-bilduma bat da. Ordea, beste ezaugarri hauek ere eranstean dituzte: hizkuntza aztertzeko edo hizkuntzari buruzko datuak eskuratzeko asmoz bildua izan behar du, edo horretarako erabilia izan; nolabaiteko diseinu batez edo irizpide batzuez eratua egon behar du; formatu elektronikoa egon behar du bildua; eta linguistikoki prozesatua egon behar du. (Areta, Gurrutxaga eta Leturia, 2008).

Corpus motaren arabera, sailkapen hau aurkezten dute IXA taldekoek (IXA, 2007: 16):

- Hizketa/testu corpusak: corpusa osatzen duen materialari erreparatzen dio.
- Orokorrak/espezializatuak: materialaren nolakotasunari erreparatzen dio.
- Elebakarrak/elebidunak/eleaniztunak: corpusa osatzen duen/duten hizkuntzen arabera.
- Gordinak/etiketatuak: testua argitaratu bezala badago edo hizkuntza-unitateei buruzko informazioerik gehitu zaion.
- Sinkronikoak/diakronikoak: testuen sorrera datuen arabera.
- Erreferentzia corpusak: maiztasuna kontuan hartuta, hizkuntzaren erabilera-eremu guztietarako adierazgarria izango dena (ez da ereduazkoarekin nahastu behar).
- Orekatuak: eremua, generoa, dialektoak, garai historikoak etab. kontuan hartuta osatutakoa (erreferentziazkoak orekatuak dira, baina tamaina handikoak).
- Nazionala: hizkuntza baten erreferentzia nagusi eta ezinbesteko bihurtu nahi duena.
- Monitorea/estatikoa: etengabe eguneratzen den ala ez.

Brown corpus ingelesa jo ohi da corpusgintza modernoaren aitzindaritzat, 1964an osatua. Bigarrena alemana izan zen, *Limás*

corpusa, 1970ean osatua. Haren ondotik beste bi corpus ingeles aurkeztu ziren, *LOB* 1978an eta *Birmingham* corpusa 1980an. Hurrengo corpusa, berriz, *Helsinki* corpus ingelesarekin batera, *Orotariko Euskal Hiztegiaren Testu Corpusa* daukagu, 1984an aurkeztua. Esan daiteke, beraz, euskara garaiz edo, are, goiz hasi zela. Areta, Gurrutxaga eta Leturiarentzat, “corpus hori orduan egin izana ikuspegi estrategiko baten seinaleztat hartu behar genuke” (Areta etab., 2008). Hurrengo euskarazko corpusa, ordea, ez da 2002 arte aterako (*XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa*). Tamainari dagokionez, 2007an aurkeztutako *Ereduzko Prosa* eta Euskaltzaindiaren *Lexikoaren Behatokia* izan dira, orain gutxi arte, euskal corpusik handienak, 25,1 milioi eta 26,5 milioi hitzekin, hurrenez hurren, baina 2013ko martxoan aurkeztu zuten *ETC Egungo Testuen Corpusak* 204,9 milioi hitz dauzka. Hitz kopuru oso handia da hori: *DWDS* corpus aleman handiak, esaterako, 122 milioi hitz baino gehiago ditu. Euskarazko *ETC* corpusaren eraketa, beraz, aurrerapauso handia izan da.

Hala, Euskal Herriko corpusek gurea bezalako lanetarako duten balioaz ohartarazi nahi genuke. Izan ere, erreferentzia gisa balia daitezke, kontraste moduan, alegia. Corpusak, azken finean, ekoizpen errearen isla dira, eta, hala, euskal corpusetan kontsultatuta ebaluatu dezakegu itzulpenetan atzemandakoek euskal sisteman duten erabilera eta onarpena. Modu horretan erabili ditugu *Ereduzko Prosa*⁴⁵ edota *XX. Mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa*⁴⁶. Ikus-entzunezko materialean oinarritzen den

⁴⁵ <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>

⁴⁶ http://www.euskaracorpora.net/XXmendea/Konts_arrunta_fr.html

arren, Goenkale corpusaren balioa ere azpimarratu nahi genuke⁴⁷. Antolatzaileen hitzetan, geroz eta material gehiago dugu eskura, baina material horien artean elkarrizketaren hutsune nabarmena dugu. Teleikusleek hala esaten omen dute, Goenkaleko elkarrizketak biziak direla, naturalak hizkuntza aldetik. Helburua da, beraz, euskal hitzek elkarrizketaren erregistroan nolako testuingurua duten kontsultatu ahal izatea. Esan gabe doa, horrelako corpusak gure interesa piztu du, elkarrizketa biziaren ezaugarriak aztertu nahi izan baititugu.

Guk osatu dugun corpora definitze aldera, esan genezake corpus espezializatua dela gurea, HGLko lanak baino biltzen ez dituelako; hirueleduna da, alemana, euskara eta gaztelaniazko bertsioak dituelako; etiketatua da, baina esaldika, ez hitzeko; gainerakoan, ezin esan daiteke diakronikoa denik, gure corpusaren helburua ez baita garai desberdinetako hizkuntza-erabilerei erreparatzea, baina guztiz sinkronikoa ere ez da; helburuari dagokionean, ez da erreferentziazkoa, nazionala edo monitorea bihurtzea helburu duen corpora.

Corpusa sortzeko prozesuan etiketatzearekin izan ditugu zalantza gehien. Izan ere, jakin badakigu, etiketatutako corpus bat testu gordinez osatutako bat baino errazagoa dela ustiatzen:

Corpus gordinak sinpleagoak dira eratzen, baina aplikazioei begira mugatuagoak, etiketatuetan dagoen informazio gehigarriak (dokumentala, lexikala, morfologikoa, sintaktikoa, semantikoa) askoz interesgarriago bihurtzen baititu ikerkuntzari zein aplikazio informatikoei begira. Informazio gehigarrien artean, lema edo erroa funtsezkoa da bilaketak

⁴⁷ <http://ehu.es/ehg/goenkale/>

modu egokian egin ahal izateko, are gehiago euskara bezalako flexio handiko hizkuntzetan. Idazle batzuek *hizkuntza-corpusak* esaten diete linguistikoki etiketatutako corpusei (IXA, 2007: 16).

Esate baterako, hasiera batean, izen berezien itzulpena aztertuko genuela pentsatu genuen, edota kultur elementuen itzulpena (eta etorkizuneko azterketa bideak izaten jarraitzen dute). Corpuseko testuetako hitzak etiketatu eta bakoitza identifikatu izan bagenu (izen berezia, kultur elementua etab.), hitzen bilaketa eta hustuketa automatikoa litzateke. Hori egiteak, baina, oso luze hartuko liguke, eta kontuan hartuta ikerketaren helburua ez dela informatikoa, etiketatze-lana esaldika egitea erabaki genuen. Hitz bakoitza etiketatzeak ekarriko lukeen abantaila, alde batetik, baina denbora- nahiz ahalegin-kostua, beste aldetik, uste dugu nekeak eta arazoak handiagoak liratekeela ustiaketa-abantailak baino. Hala ere, hitz bakoitzeko etiketatzea talde-proiektu zabalago baten testuinguruan egin daitekeela uste dugu, agian etorkizunean.

Itzulpen ikasketetarako sortutako corpusgintzari ETC izena ematen dio Gloria Corpasek (*Estudios de Traducción con Corpus*), eta dio ikerketarako nahiz irakaskuntzarako direla baliagarriak. Bi corpus mota bereizten ditu, konparagarriak (itzulpenez eta sortze-lanez osatuak) eta paraleloak (sorburu-testuak beren itzulpenekin). Itzulpengintzaren irakaskuntzan corpus mota biak dira baliagarriak, nahiz eta corpus konparagarriak gehiago erabili diren ikerketarako (Corpas, 2008: 94). Izan ere, itzulpengintzaren ikerketarako bereziki interesgarria da corpusaren erabilera:

Desde esta perspectiva se posibilitaba por primera vez el estudio detallado y sin complejos de la traducción como

fenómeno y, en consecuencia con ello, de las características intrínsecas de la lengua traducida, es decir, aquellos rasgos típicos de la producción de textos traducidos que los diferencian de los textos originales y que se ha dado en denominar *translationese* (por analogía al término *motherese* de la lingüística aplicada). Se parte de la idea de que tales rasgos diferenciales son susceptibles de ser investigados mediante las técnicas de corpus y que, de alguna manera, pueden revelar el comportamiento traductor, y mostrar ciertas tendencias que podrían ser consideradas universales de traducción (Corpas, 2008: 99).

Zerbait eskuetan hartu eta hatz-arrastorik ez uztea ezinezkoa den modu berean, ezinezkoa da guztiz inpersonala den hizkuntza sortzea (Baker, 2000: 244), eta corpusean oinarritutako ikerketei esker itzultzaileek eta itzulpenaren sorkuntza-giroak hizkuntzan utzitako arrastoak azter ditzakegu.

Esate baterako, Manchesterreko UMIST *Centre for Translation Studies* delakoan ingelesera itzulitako testuen corpus elektronikoa bat osatu dute, sorburu-hizkuntzak ugariak izanik (Europako hizkuntzetatik nahiz Europaz kanpoko hizkuntzetatik itzulitako testuak). 20 milioi hitz inguruko corpusa da, fikziozko eta biografiazko lanez osatutakoa. Itzultzailearen sexua, nazionalitatea eta lanbidea zehazten dituzte metadatuetan; baita itzulpenaren noranzkoa, sorburu-hizkuntza, argitaletxea etab.

Guk osatu dugun corpusera etorrira, alemana-euskara lotura egiten duen lehena dela azpimarratu nahi genuke, baita hirueleduna dela ere. Behin baino gehiagotan esan dugun moduan, funtsezkoa iruditu zitzaigun gurea bezalako kultura elebidun eta diglosiko batean gaztelaniaren presentzia ere kontuan hartzea, eta, beraz, corpusa hirueleduna egitea, gure ustez, corpus elebidunak

(alemana-euskara, kasu honetan) ez lukeelako errealitatea bere osotasunean jasoko. Azpimarratu nahi genuke, aldi berean, testuak lerrokatzeko programa informatikoa nahiz bilatzailea hiru hizkuntzekin lan egiteko prestatu ditugula. Hala, eta hiru hizkuntzak kontuan hartzeko metodologia-irizpideari heldu nahian, aurrean dugun errealitateari erantzuteko moduan egokitu ditugu ikerketa-erremintak.

5.2. EMANDAKO PAUSOAK

Lan hau ikasketa deskribatzaileen metodologiari jarraiki saiatu gara egiten: makroazterketatik hasi gara mikroazterketarekin jarraitzeko, betiere pentsatuz jakintzat ematen ditugun gauza asko ustez direla horrela (Touryk baliatzen duen *assumed translation* terminotik abiatuta). Hona hemen, laburtuta, eman ditugun pausoak:

Katalogoa osatzea: lehenik eta behin, katalogoa osatu dugu (*Aleuska-HGL*). Ibon Uribarri hasia zegoen 2003tik alemanetik euskaratutako lanen zerrenda osatzen, eta *Aleuska* izena eman zion katalogoari. Beraz, HGL generoari zegozkion sarreretatik abiatuta, datuak eguneratu, osatu eta *Aleuska-HGL* sortu dugu. Katalogoko datuak betetzeko, *FileMaker Pro 11* programa erabili dugu.

Datuak bilatzeko, Interneten eskuragarri dauden katalogo eta datu-baseak erabili ditugu, nazioartekoak, Alemaniakoak nahiz Euskal Herri mailakoak. Alemanetik euskaratutako lanen bilaketa egin eta HGLkoak direnak hautatu ditugu. Gure katalogoan, baina, inon ageri ohi ez den datu bat gaineratu nahi izan dugu: itzulpena zuzenean alemanetik egin den ala zeharka egindako itzulpena den. Datu hori ez da inongo fitxatan ageri, baina guk gure ikergaian

ezinbesteko datutzat daukagunez, osatzen saiatu gara: gehienetan, zuzenean jo dugu, telefonoz edo posta elektronikoz, argitaletxera edota itzultzailearengana. Hala eta guztiz ere, zenbaitetan ezin bete gelditu zaigu datu hori, eta galdera ikurra jarri behar izan dugu. Hala eta guztiz ere, azpimarratu nahi genuke katalogokoak *ustez* zuzenean ala *ustez* zeharka itzulitako lanak direla; mikroazterketara iritsi eta handik ateratako ondorioekin egiaztatu daitezkeen datuak dira.

Ringmarrek hiru puntu nagusi aipatzen ditu itzulpena zeharka ala zuzenean egin den jakiteko (Ringmar, 2003): batetik, metadatuari erreparatzeko proposatzen du (zeharka itzuli den aitortzen ote den, jatorrizko zein izenburu aitortzen den edota izenburuaren itzulpenak zubi-hizkuntzarekin lotura esturik ageri duen); bigarrenik, itzultzailearen biografiari erreparatzeko garrantzia azpimarratzen du, sorburu-hizkuntzaren ezagutzarik ez duen itzultzaileak nekez itzuliko baitu sorburu-hizkuntzatik zuzenean; azkenik, baina, testuen azterketara jotzeko beharra azpimarratzen du Ringmarrek: "Identical omissions, additions, misunderstandings and so forth in the MT and the TT, as opposed to the ST, will then establish beyond doubt the fact of an indirectly translated target text" (Ringmar, 2003: 9).

Izan ere, liburuetakoko metadatuaren ageri den informazioak ez du, nahitaez, egiazkoa izan behar. Ikerketa deskribatzaileen metodologiari jarraiki, edozein ikerketa abiatzerako garaian, aurre-arauak edo hipotesiak behin-behineko heldulekuak baino ez dira. Ondoren, ikerketa egin eta gero, aurre-arau horiek egiaztatu ala gezurtatu egingo dira.

Katalogoa, beraz, ikerketagaiaren makroazterketa egiteko baliatu dugu. Haren osaerari buruzkoak xehetasun gehiagoz landuko ditugu 6. atalean.

Katalogotik corpusera: alemanetik euskaratutako HGLari buruz osatutako katalogoan denera 401 sarrera bildu ditugu gaur arte. Katalogoak berak ikuspegi bat eman digu, ikergaiaren argazki bat. Hala, ikuspegi hori oinarri hartuta, ondorio batzuk atera ahal izan ditugu alemanetik euskaratutako HGL orokorrari buruz, hau da, emaitza batzuk atera ditugu. Hurrengo pausoa, berriz, irizpide batzuk ezartzea izan da, katalogo horretatik corpora osatuko duten lanak hautatzeko. Izan ere, azterketa deskribatzaile oso bat egiteko, testuetara iritsi behar genuen, baina ezinezkoa zitzaigun katalogoko lan guztien testuak aztertzea; horregatik, batzuk aukeratu eta horiek osatu dute corpora (Zubillaga, 2012: 84).

Hala eta guztiz ere, bi corpus mota bereizi ditugu, 1. corpora eta 2. corpora: lehenengo corpusean katalogotik aukeratutako lanik adierazgarrienak aukeratu ditugu, katalogo laburtua, nolabait esatearren. Bigarren corpora osatzeko, berriz, bigarren galbahea pasatu diegu 1. corpora osatu duten lanen zerrendari eta, ondoren, testuak bildu eta landu ditugu. Hala, bigarren corpuserako hautatutako lanen testuak izan dira, hain zuzen, aztertu ditugunak.

Esan bezala, irizpide batzuen arabera egin dugu aukeraketa, eta, hala, bigarren corpora osatu duten 33 testuetara iritsi gara (19 lan ustez zuzenean itzuli direnak eta, 14, ustez zeharka itzuli direnak). Lehenengo nahiz bigarren corpuseko lanak aukeratzeko erabilitako irizpideen ingurukoak 7. atalean deskribatu ditugu xeheago.

Corpusa osatzea: corpusa osatzeko aurreneko pausua testuak digitalizatzea izan da, corpus elektronikoa osatu nahi izan baitugu. Beraz, liburuak eskuratu, eskaneatu eta dokumentuak txukundu behar izan ditugu.

Jatorrizko liburuetak asko Frankfurteko Goethe Unibertsitateko HGLko liburutegitik⁴⁸ eskuratu genituen⁴⁹. Zenbait libururen sorburu-bertsioak Interneten bertan geneuzkan (Grimm anaien ipuinak, esaterako, *Projekt Gutenberg*⁵⁰ orrialdetik eskuratu ditugu). Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak eskuratzea errazagoa izan da: zenbaitetan, argitaletxeekin harremanetan jarrita lortu ditugu bertsio digitalak; bestetan, Euskal Herriko liburutegi sare publikoan lortu ditugu. Paperean genituen testuak digitalizatu egin ditugu OCR makina bat erabiliz (denbora asko jan duen prozesuan). Ondoren TXT formatuan jarri ditugu testu guztiak.

Baina testuak lerrokatuta eduki nahi genituen (itzulpen-memoriek funtzionatzen duten moduan, jatorrizkoaren, itzulpenaren, eta, hala zegokion kasuetan, zubi-hizkuntzaren testuak parez pare lerrokatuta segmentuka), eta, horretarako, TRACE aligner tresna informatikoa egokitu eta garatu egin behar izan dugu. Izan ere, lerrokatze programa ez zegoen prest hiru hizkuntzekin lan egiteko, ikerketa gehienetan sorburu-bertsioa eta xede-bertsioa hartzen direlako kontuan, eta ez zubi-bertsioa. Programa garatzeko prozesuan, Iñaki Albisua informatikariarekin aritu gara lankidetzan, hark egokitzapen informatikoak egiten

⁴⁸ <http://www.uni-frankfurt.de/fb/fb10/jubufo/Bibliothek/index.html>

⁴⁹ DAAD erakundeak emandako beka baten laguntzaz 2010eko irailetik hasita bederatzi aste eman nituen bertan.

⁵⁰ <http://gutenberg.spiegel.de/buch/6248/1>

baitzituena, eta guk, gure aldetik, lerrokatze programari ikusten genizkion gabezia eta beharrak aipatzen genizkion. Programa horri esker, TXT testuak etiketatu eta lerrokatu egin ditugu esaldika. Programak lerrokatutako testuak banan-banan erreparatu eta moldatu ditugu, sorburu-testuko esaldia xede testukoarekin eta zubi-hizkuntzakoarekin bat zetoze la ziurtatu arte. Prozesu luze horren ondoren sortutako XML dokumentuak izan dira datu baserako oinarri. Ikerketaren zati neketsu baina erabakigarri honen xehetasun gehiago emango dugu 7. atalean.

Corpusaren ustiaketa: corpus lerrokatua ustiatzeko, MySQL datu-baseen kudeatzailea erabili dugu. Testu multzoa kudeatzaile horretan sortutako datu-basera igo eta, ondoren, Albiuak egituratutako bilatzailea lotu diogu. Bilatzailearen bitartez testuen mikroazterketa egin ahal izan dugu: adierazitako hitzak gure datu base hirueledun lerrokatuan bilatu ditu programak, eta datu horiek oinarri hartuta egin ahal izan dugu mikroazterketa. Kontuan izan dugu zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenetako emaitzak jaso ditugula, eta horrek bere eragina izan du mikroazterketa egiterakoan: zuzeneko itzulpenetan, xede-testua jatorrizko testuarekin erkatu dugu; zeharkako itzulpenetan ere, alemanezko jatorrizko testuarekin erkatu dugu xede-testua, baina zubi-bertsioa ere kontuan hartuta, itzultzailea, kasu horietan, zubi-bertsiotik abiatu delako. Izan ere, badakigu zeharka egindako itzulpenetan bi itzulpen-eragiketa desberdin gertatu direla, baina ez dugu berariaz itzulpen-eragiketarako bakoitza aztertu, zeharkako itzulpen-eragiketa osoaren emaitza baizik. Beraz, bi kasuetan ere itzulpen-eragiketa osoari erreparatu nahi izan diogu, kasu bakoitzean xede-testuak agertzen duen azken emaitza ebaluatu ahal izateko. Dena

den, zailtasun bat baino gehiago izan dugu ikerketaren urrats honetan. Izan ere, bilatzaileak emandako emaitzak aztertzen hasitakoan hainbat erabaki hartu behar izan ditugu (esaterako, bilatutako hitz eta esapide bakoitza zein motakoa den, edota kasu bakoitzean zein itzulpen-erabaki hartu duen itzultzaileak), eta ohartu gara kategoriak eta sailkapenak zehaztea ez dela automatikoki egiten den zerbait. Dena den, corpora osatzeko prozesu osoa xeheago deskribatu dugu 7. atalean, eta, 9. atalean, mikroazterketa egitean izandako zailtasunak aipatuko ditugu.

Atal honetan, alderdi metodologikoari erreparatu diogu. Touryk itzulpen ikasketa deskribatzaileak jorratu zituenean 80ko hamarkadan, itzulpen teoriaren eta praktikaren arteko zubi bat eraiki zuen, eta, gaur egun, hark ezarritako metodologia ezinbesteko bihurtu da itzulpengintzari buruzko ezein ikerketa burutzeko. Lambert eta van Gorpek Touryk hasitako biderei jarraiki ezarri zituzten ikerketa deskribatzaile bat bideratzeko urratsak: aldez aurretiko datuen azterketa; makroazterketa; mikroazterketa; eta ondorioak ateratzea. Alegia, ikuspegi orokorretik hasia xehetasunekin jarraitzeko, eta ateratako ondorioak hasierako hipotesiarekin alderatzea. Makrotik mikrorako jauzia egiteko, ordea, adierazgarria den lagin bat aztertu behar dugu, hala nola adierazgarria den corpus bat behar dugu.

33 testuz osatutako corpus bat aztertu dugu. Corpora, gainera, hirueleduna da, zubi-testuak ere hartu ditugulako kontuan, eta digitalizatua. Hau da, ez gara begi hutsezko azterketara mugatu: azken hamarkadetan hizkuntza-teknologien baitan hasitako

aurrerapenei erreparatuta, corpus digitalizatu eta lerrokatu bat egin dugu, datu-base bat elikatu eta, bilatzaile baten laguntzaz, nahi beste ustiatu eta mikroazterketa egin ahal izateko.

Atal honen laburra ez da ikerketa osoan zehar metodologiari eskainitako indarraren erakusle. Dena den, sinetsita gaude osatu dugun corpusaren bidez bilaketa-erreminta emankor bat sortu dugula: lan egiteko modu enpiriko eta sistematizatua erabili dugu; eta, are garrantzitsuagoa iruditzen zaiguna: ez dugu zerbait iragankorra eraiki; ustiatzen jarraitu dezakegun, eta, beraz, ikerketa-fruituak ematen jarrai dezakeen tresna garatu dugu.

Katalogoa

Orain arteko ataletan lan honen oinarri teoriko direnak aztertu ditugu. Hemendik aurrera, ordea, gure ikerketa-gaiari helduko diogu zehazki, ikerlanaren helburuetara iristeko eman ditugun urratsak azalduz eta horietan ateratako ondorio nagusiak deskribatuz. Hala, aurreneko urratsa katalogoa sortzea izan da. Beraz, katalogoa nola sortu dugun, bere ezaugarriak zein diren eta bertan jasotako datuetatik zein ondorio atera ditugun azalduko dugu.

6.1. KATALOGOA OSATZEA

Ikerketa hau, hain zuzen ere, *Aleuska-HGL* katalogoa osatzetik hasi zen. Ibon Uribarri 2003tik zegoen hasita alemanetik euskaratutako lanen zerrenda osatzen. *Aleuska* izena eman zion katalogoari, eta, beraz, HGL generoari zegozkion lanetatik abiatuta, datuak eguneratu, osatu eta *Aleuska-HGL* sortu dugu. Liburuetara mugatuta dagoen katalogoa da, alemanetik euskaratutako lehen liburua argitaratu aurretik ere izan baitziren zenbait aldizkaritan agertutako itzulpen solteak. Bestalde, 2011 arte bitarteko itzulpenak jasotzen dituen katalogoa da. Baliteke, hala


ere, 2011koa izanik ere, katalogoan agertzen ez diren lanak egotea: katalogatze lana mugagabea denez, norberak jarri behar dio muga, eta horrek esan nahi du datuak ez daudela azken nobedade berrienen arabera eguneratuta. Beraz, esan bezala, alemanetik euskarara itzuli eta 2011 urtera arte liburu formatuan argitaratutako lanen katalogoa dugu hau.

Katalogoari dagozkion datuak betetzeko *FileMaker Pro8.5* programa erabiltzen hasi ginen (programaren bertsio eguneratua atera ahala, berau baliatu genuen, hau da: *FileMaker Pro11*). Sortutako datu-baseak kudeatzeko aukera ematen duen programa da *FileMaker Pro*, eta guk erabili genuen ereduak TRACEk,⁵¹ Leongo Unibertsitatearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean sortutako ikerketa-taldeak, bere helburutarako berariaz sortutako datu-basearena izan zen. Datu-basean txukun eta modu antolatuan sar daitezke datuak, gero bilaketak ere erraz egiteko. Izan ere, *FileMaker Pro11* programak, datu-baseen kudeaketarako berariaz sortua izanik, sartutako datuak beste formatuetara aldatzeko aukera ematen du, hala nola, Excel edo Pdf formatura.

Katalogoko sarrera bakoitza honako parametro hauen informazioaz osatu dugu: jatorrizko egilea, itzultzailea, jatorrizkoaren argitalpen urtea, itzulpenaren argitalpen urtea, itzulpen mota (zuzenean ala zeharka itzuli den), itzulpena plazaratutako argitaletxea eta lekua, eta itzulpenaren orrialde kopurua. Hala, nahi hainbat modutara kudeatu dugu informazioa, datuak parametro jakinen arabera ordenatuz (kronologikoki, egilearen izenaren arabera etab.), edota datu jakin batzuk bakarrik

⁵¹<http://www.ehu.es/trace/home-eng.html>

bistaratz (une jakin batean erosoagoa izan baitaiteke, esate baterako, jatorrizkoaren argitalpen-urtea eta jatorrizkoaren izenburua bakarrik bistaratzea, gainerako datuak ezkatuta).



The screenshot shows the FileMaker Pro 11 interface. At the top, there is a menu bar with options like Archivo, Edición, Vista, Insertar, Formato, Registros, Guiones, Ventana, and Ayuda. Below the menu bar is a toolbar with icons for 'Registros' (6), 'Total (Desord.)', 'Mostrar todos', 'Nuevo registro', 'Eliminar registro', 'Buscar', and 'Ordenar'. The main area displays a table with the following columns: Autor Original, Autor Meta 1, Pseudoautor, Título Original, Título Meta, Etiqueta Meta, Género Meta, año edició..., Fecha Publicación, and Editorial. The table is currently empty.

Irudia 8. FileMakerPro11 datu-basearen itxura, daturik gabe.

Bestalde, katalogoko fitxan bete beharreko datuak bilatzeko, datu-baseak erabili ditugu. Gaur egun, gainera, erraz egin daiteke hori, katalogoak Internetez kontsultatzeko aukera baitago. Beraz, hona hemen nagusiki erabili ditugunak:

- Index Translationum
http://portal.unesco.org/culture/en/ev.php-URL_ID=7810&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html

UNESCOk sortutako atari honetan estatu-kideetan argitaratutako itzulpenen datu bibliografikoak jaso dira, guztira, 1.800.000 sarreratik gora, hain zuzen ere.

Bilaketa erraz egin daiteke: sorburu-hizkuntza (alemana) eta xede-hizkuntza (euskara) hautatu eta konbinazio horrekin katalogatuta dauzkaten guztiak ageri dira. 2012ko abenduaren 9an egindako bilaketan 320 emaitza zeuden guztira. Emaitza horien artetik, jakina, HGLko egileak diren horiek hartu behar ziren.

Jatorrizko egilearen izenaz gain, euskarazko izenburua ematen du, itzultzailearen izena, argitalpen-tokia, argitaletxea, argitalpen-urtea, orrialde-kopurua (xede-testuarena) eta, azkenik, jatorrizkoaren izenburua.

Datu-base ona da, baina, jakina, egindako itzulpen guztiak ere ez daude, eta, esate baterako, ez da zehazten katalogoak erakusten duen argitalpena lehena den ala zenbatgarrena den.

Euskal Herriko liburutegietan ere egin dugu kontsulta: Azkue liburutegian zein Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean dauden liburutegietan (hor sartzen dira herri-liburutegiak, baina baita HABE liburutegia ere). Biek ere, bilaketa eremuan *ger+baq* kodea sartuta, alemanetik euskaratuak izan diren lanak bistaratzen dituzte. Ordea, itzulpenak ez ezik, alemana eta euskararen arteko harremanarekin zerikusia duten lanak ere bistaratzen dira, esate baterako, Gernikako bonbardaketari buruzko bideoa. Bilaketa egin ostean, beraz, garbiketa egin beharra dago, baliagarria dena eta ez dena.

- Azkue liburutegia (<http://gorbeia.euskaltzaindia.net/cgi-bin/abwebp/X5102/ID789076902/G0?ACC=BUASIT>)

Jatorrizkoaren egilea, xede-izenburua, itzultzailearen izena, argitalpen-tokia, argitaletxea, argitalpen-urtea eta ISBN datuak ematen ditu, baina, horretaz gain, jatorrizko egilearen ondoan haren jaiotze eta, hala balegokio, heriotza-data ere ematen du. 2012ko abenduaren 9an egindako bilaketan 1 600 emaitza jaso ziren.

- ELSN – Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea http://www.katalogoak.euskadi.net/cgi-bin_q81a/abnetclop/O9522/ID4a08754e?ACC=101

Web-gune horretan, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko udal liburutegien katalogoak eta HABEren liburutegiko katalogoa daude bateratuta. 2012ko abenduaren 9an egindako bilaketan 649 emaitza jaso ziren.

Euskal Udal Liburutegietan egindako bilaketak alderdi on bat du: itzulpen beraren edizio desberdinak ikus daitezke zerrendaturik. Bestelako katalogoek itzulpen bakoitzaren emaitza bakarra agertzen dute, baina udal liburutegietako katalogoak herri desberdinetan dauden argitalpen desberdinak erakusten ditu, eta horrek berrargitalpenei buruzko datua osatzen lagundu digu.

Beraz, jatorrizko egilearen izena eta haren jaiotze-data, xedez-izenburua, itzultzailearen izena eta haren jaiotze-data, ediziozenbakia, argitalpen-urtea, argitaletxea, bildumaren izena eta argitalpen-tokia, orrialde-kopurua, liburua zein adin-tarterako idatzi den eta ISBN-datuak ematen ditu. Horretaz guztiaz gain, lehen esan bezala, liburua zein udalerritan daukaten eta bakoitzean zein signatura duen ere esaten du.

Katalogo horietako informazioarekin guztiarekin euskarazko bertsioen datuak osatu ahal izan ditugu, baina jatorrizkoen datuak osatzeko honako bi bide hauetara ere jo dugu:

- DNB—Deutsche Nationalbibliothek (<https://portal.d-nb.de/>)
- Egileen web-orriak.

Internet mundu zabaleko informaziora irekia dagoen atea izanik, hainbat eta hainbat dira eskaintzen dituen aukerak. Egileek beren web-orriak dituzte sarean eta horietan ere egin daiteke idatzi dituzten liburuei buruzko kontsulta. Egileen web-orrietan ez ezik, argitaletxeetako web-orrietan ere egin daiteke kontsulta hori,


alegia, Alemaniako nahiz Euskal Herriko argitaletxeetako web-orrietan.

Iturri horietan begiratuta, pixkanaka-pixkanaka katalogoa osatzen joan gara, baina bada inon ageri ohi ez den datu bat, eta horixe azpimarratu nahi genuke, alegia, itzulpena zuzenean alemanetik egin den ala zeharka egindako itzulpena den. Datu hori ez da inongo fitxatan ageri, baina guk gure ikergaiaren ezinbesteko datutzat daukagunez, osatzen saiatu gara, itzulpen-jokabideak aztertzen dituen ikerketa izanik, ezinbestekoa baita jakitea zenbatetan itzuli den zuzenean eta zenbatetan zeharka. Datu hori jakiteko, gehienetan zuzenean jo dugu argitaletxera edota itzultzailearengana. Nolanahi ere, ezin izan ditugu kasu guztietan datu guztiak bete, eta, beraz, galdera ikurrak ere gaineratu ditugu.

Autor Original	Autor Meta 1	Pseudocautor	Título Original	Título Meta	Etiqueta Meta	Género Meta	año edición	Fecha Publicación	Editorial
Jakob Wilhelm	Traducto Joseta		Kinder- und Hausmärchen	Grimm	zuzenakoa	HGL	1812-1815	1929	Jesus
Jakob Wilhelm	Traducto Joseta		Kinder- und Hausmärchen	Grimm	zuzenakoa	HGL	1812-1815	1929	Verdes
Christoph Schmid	Traducto Gabriel	con And		Ipurtoak	zeharkakoa?	HGL	1823-1829	1929	Jaungo
Christoph Schmid	Traducto Gabriel			Ipurtoak	zeharkakoa?	HGL	1823-1829	1934 (2)	Jaungo
Friedrich Schiller	Traducto Aita		Wilhelm Tell	Wilhelm	zeharkakoa?	HGL	1804	1934-1935 (7)	Yalanza
Jon Swensson	Traducto Hazido		Nonni und Manni	NANI ETA	zuzenakoa	HGL	1914	1952	Iborope
Friedrich Hoffmann	Traducto Hazido		Bilderbibel	Gadteen	zeharkakoa	HGL	1968	1968	Brufo
Jakob Wilhelm	Traducto		Schneeweißchen und	Lamosaur	zuzenakoa	HGL	1812/1815	1968	La Crah
Jon Swensson	Traducto Hazido		Nonni und Manni	NANI ETA	zuzenakoa	HGL	1914	1968	Iborope
Franz Xaver Weiser	Traducto Hazido		Das Licht der Berge	Mendiko	zuzenakoa	HGL	1931	1968	Mensaje
Jakob Ecker	Traducto Jaime		Katholische Schulbibel	Urmeen	zeharkakoa	HGL	1906	1969	Verbo
Jakob Wilhelm	Traducto Ayerbe		Kinder- und Hausmärchen	Hansel	zeharkakoa?	HGL	1812/1815	1974	
Jakob Ecker	Traducto Jaime		Katholische Schulbibel	Urmeen	zeharkakoa	HGL	1906	1975	Verbo
Jakob Wilhelm	Traducto F			Haurraen	zeharkakoa	HGL	1906	1975	
Johanna Spyri	Traducto Kabier		Heidi	Heidi	zeharkakoa	HGL	1880-81	1975	Cinsa
Friedrich Schiller	Traducto Javinto		Wilhelm Tell	gILEN	zeharkakoa	HGL	1804	1976 (1)	Mensaje
Friedrich Schiller	Traducto Javinto		Wilhelm Tell	gILEN	zeharkakoa?	HGL	1804	1979	Mensaje
Friedrich Schiller	Traducto Javinto		Wilhelm Tell	gILEN	zeharkakoa	HGL	1804	1979 (2)	Mensaje
Hans Baumann	Traducto Aito		Steppensöhne	Estepako	zuzenakoa	HGL	1954	1991	Hordago
Hans Baumann	Traducto Aito		Til Eulenspiegel	Til	zuzenakoa	HGL	1510/11	1991	Hordago
Hans Baumann	Traducto Aito		Steppensöhne	Estepako	zuzenakoa	HGL	1954	1991	Hordago
Kurt Baumann	Traducto Aitiku		Til Eulenspiegel	Til	zeharkakoa	HGL	1510/11	1991 (1)	Elkar
Kurt Baumann	Traducto Aitiku		Küchengeschichten	Lehorbi	zeharkakoa?	HGL	1977	1992	Altea/Sa
Helme Heine	Traducto Kaleku		Na warte sagte Schwarte	Xerribor	zeharkakoa?	HGL	1977	1992	Altea
Helme Heine	Traducto Kaleku		Freunde (drei kleine	Hiru	zeharkakoa?	HGL	1982	1992	Altea
Klaus Zischang	Traducto Armand		Richtig Leichtathletik	Aleluisa	zuzenakoa	HGL	1980	1992	Candini
Rainer Zimnik	Traducto Kaleku		Die Nase	Sudurra	zeharkakoa?	HGL	1981	1992	Altea
Ottfried Preussler	Traducto Kabier		Thomas Vogelschreck	Thomas	zeharkakoa	HGL	1958	1992 (1)	Elkar
Ottfried Preussler	Traducto Aitiku		Til Eulenspiegel	Til	zeharkakoa	HGL	1510/11	1992 (2/??)	Elkar
Jakob Wilhelm	Traducto Josu		Kinder- und Hausmärchen	Ilargia	zuzenakoa	HGL	1812/1815	1993	Argos
Franz Xaver Weiser	Traducto Hazido		Das Licht der Berge	Mendiko	zuzenakoa	HGL	1931	1993	Mensaje
Jon Swensson	Traducto Hazido		Nonni und Manni	NANI ETA	zuzenakoa	HGL	1914	1993	Argos
Ottfried Preussler	Traducto Pilar		Die kleine Hexe	Sorgin	zeharkakoa	HGL	1957	1993 (1)	Elkar
Peter Härtling	Traducto David		Omia die Geschichte von	Amona	zeharkakoa	HGL	1975	1993 (1)	Elkar
Erich Kästner	Traducto Estor		Der 25. Mai oder Konrad	Masizak	zeharkakoa	HGL	1932	1993 (1)	Elkar
Reiner Zimnik	Traducto Ailpe		Der Kran	Garabia	zeharkakoa	HGL	1956	1993 (1)	Elkar
Reiner Zimnik	Traducto Agustina		Die Trommler für eine	Dantborri	zeharkakoa	HGL	1958	1993 (1)	Elkar
Günther Feustel	Traducto David		Hans Olsenburg	Nino	zeharkakoa	HGL	1995	1993 (1)	Elkar
Peter Härtling	Traducto Kabier		Das war der Hirbel	Taribel	zeharkakoa	HGL	1972	1993 (1)	Elkar
Friedrich Heilmann	Traducto Aitor		Bitte nicht spuken	Futboleko	zeharkakoa	HGL	1973	1993 (1)	Elkar
Friedrich Schiller	Traducto Aitiku		Wilhelm Tell	gILEN	zeharkakoa	HGL	1804	1994	Elkar
Jakob Wilhelm	Traducto A		Von dem Fischer und seiner	Arantzale	zeharkakoa?	HGL	1812/1815	1994	Anaya
Jakob Wilhelm	Traducto Gara		Fischers Vogel, Kinder- und	Txori	zeharkakoa?	HGL	1812/1815	1994	Anaya
Jakob Wilhelm	Traducto Gara		Hänsel und Gretel, Kinder-	Hansel	zeharkakoa?	HGL	1812/1815	1994	Anaya
Johannes M. Simmel	Traducto Margart	Mar Adri	Weinen streng verboten	Ez	zuzenakoa	HGL	1979	1994	Elkar
Rosemarie Miragar	Traducto Aito		Jenny Abenteuer	Jennyren	zuzenakoa	HGL	1989	1994 (1)	Elkar
Hans Jürgen Press	Traducto Aitor		Die Abenteuer der	Eskeubetz	zeharkakoa	HGL	1995	1994 (1)	Elkar

Irudia 9. FileMaker Pro11 datu-basearen itxura, datuak beteta.

Lehen esan bezala, katalogoa osatzeko *FileMakerPro11* programa erabili dugu. Hona hemen fitxak duen itxura eta bertan bete ditugun datuak:



Irudia 10. Datu-baseko fitxa baten irudia.

- Jatorrizko egilea.
- Xede-egilea (itzultzailea).
- Pseudoegilea edo bigarren egilea. Hutsune honetan itzultzailearekin batera itzulpenean nolabait parte hartu duen pertsona sartu dugu, hala nola, egokitzailea, zuzentzailea etab.
- Jatorrizkoaren izenburua.
- Xede-izenburua.
- Itzulpena zeharkakoa/zuzenekoa.
- Generoa (HGL)
- Jatorrizkoaren argitalpen-urtea.
- Xede-testuaren argitalpen-urtea.
- Argitaratze-tokia.
- Argitaletxea. Bilduma.

- Orri kopurua.

Funtsezko datu bibliografikoak badirudite ere, ez dira halabeharrez hautatuak izan, baizik eta betiere aurrerago egingo den azterketan pentsatuta.

Batetik, izenburuak dauzkagu, nahitaezkoak lanak identifikatu nahi baditugu. Bestetik, jatorrizko egilea eta itzultzailea. Datu horiek oso erabilgarriak izango zaizkigu aurrerago egingo den azterketan, horien bitartez jakingo baitugu, esate baterako, zein izan den HGLan gehien itzuli den egile alemana, edota zein itzultzailek itzuli duen gehien. Argitalpen-urteak ere ezinbestekoak zaizkigu gure azterketarako. Batetik, jatorrizkoa kaleratu zen urtearen eta itzulpena argitaratu zen urtearen artean pasatako denbora kalkula daiteke, eta, ikusi, ea alderik dagoen, urteek aurrera egin ahala jatorrizkoaren eta itzulpenaren arteko denbora-jauzia motzagoa bihurtu ote den. Bestetik, ordea, bestelako datuen erreferente ere erabil dezakegu denbora-ardatz hori, hala nola, urte bakoitzean alemanetik euskaratutako HGLko zenbat lan egon diren, eta kopuruaren bilakaera ikusi eta aztertu, edota urte bakoitzean zuzenean ala zeharka itzulitakoak zenbat izan diren eta datu horrek denboran izan duen bilakaera ere aztertu. Hain zuzen ere, datu hori azpimarratu nahi genuke, ez baita datu bibliografiko arruntetan gehitzen, baina guk ezinbestean gaineratu nahi izan dugu gure ikerketarako, hau da, itzulpena zuzenean ala zeharka egin den.

Zeharka egin dela diogu, itzultzaileak alemana ez den hizkuntza bateko bertsiotik egin duenean itzulpena, alegia, ez duenean alemanezko bertsiotik izan abiapuntu, eta bestelako zubi-hizkuntzaren bat erabili duenean. Jakin badakigu edozein

itzultzailek erabiltzen dituela bestelako hizkuntzetan dagoeneko egin diren itzulpenak erreferentzia gisa. Hala eta guztiz ere, hori zuzenean itzultzea litzateke, itzultzaileak bai baitauka alemanezko bertsioa eskura, eta ulertzen du alemana. Bestelako hizkuntzetan egindako itzulpenak kontsultatzea, hori itzulpen-lanari dagokion baliabideetako bat da gure ustez. Aztertzeke modukoa litzateke, beharbada, erreferentziak erabiltzearen baliabidea zenbateraino den mesedegarri eta ez kaltegarri, baina hori beste gai bat litzateke —aztertzeke nahiko konplexua, bide batez—, eta, beraz, guk itzulpena zeharka egin dela jo dugu soilik sorburu-testua alemana ez bestelako hizkuntza batean eduki duenean itzultzaileak. Informazio hori argialetxeetara edo itzultzaileengana zuzenean jota jakin ahal izan dugu, ez baita liburuaren fitxan ageri diren beste datuekin batera ematen den informazio bat izaten. Jakinaren gainean gaude, hala ere, behin-behineko datuak direla (*assumed direct translation*) eta testuen makroazterketaren bitartez, aurrena, eta mikroazterketaren bitartez, hurrena, berretsi ala gezurtatu ahalko dugula, beharbada, itzulpenak zuzenean ala zeharka egin diren. Nolanahi den, horrek guztiak itzulpenetatik sortzen diren galdera interesgarrien inguruan hausnartzeko aukera ematen digu: xede-testuari igartzen ote zaion itzulpena zeharka ala zuzenean egin den, eta zein modutan igartzen zaion, hau da, zuzenean egin den kasuetan igartzen ote den atzean sorburu-hizkuntzaren egitura ezkututzen dela edota, alderantziz, zeharka egin den kasuetan, abiapuntu izandako zubi-hizkuntzarekiko morrontza igartzen zaion itzulpenari, esate baterako, gaztelaniaren hizkuntza-ereduak, gaztelaniatik egin bada.

6.2. KATALOGOAREN DESKRIBAPENA


Alemanetik euskaratutako *Aleuska-HGL* katalogoan 401 sarrera dauzkagu guztira. Datu horretan, ordea, itzulpen beraren berrargitalpenak ere daudela hartu behar da kontuan. Itzulpen bakoitzaren aurreneko argitalpenari erreparatuta, gure katalogoak 242 sarrera dauzka, *Aleuska* katalogoaren % 42⁵².

Hasieran aipatu dugun moduan, liburu formatuan argitaratutako lanak jasotzen ditu katalogoak: lehen sarrera 1929koa⁵³ daukagu, eta, azkena, 2011koa. Guztiak ere liburu formatudun argitalpenak badira ere, ez dugu bereizketarik egin HGL mota desberdinen artean. Hau da, alemanetik euskaratutako HGL-lan guztiak katalogatu ditugu, eta horrek esan nahi du album ilustratuak, haurrentzako liburuak nahiz gazteentzako liburuak, guztiak katalogo berean sartu ditugula. Gure azterketa ez dugu HGL mota batera bideratu, eta horregatik sartu ditugu guztiak katalogo berean. Dena den, eta informazio gisa, orrialde kopuruaren arabera bereizketa bat egin dugu, katalogoak jasotzen dituen liburuen luzeraren inguruko ikuspegi bat ematearren. Osatu dugun grafikoak erakusten digunez, lan gehienak 100-200 orrialde bitartekoak dira. Orrialde kopurua ez da

⁵² *Aleuska* katalogoan, leku handia hartzen dute poesia solteek (horietako asko aldizkarietan agertzen joan direnak etab.), guztira 140 baitaude. Beraz, poesia alde batera utzita, HGLak *Aleuska* katalogoan izango lukeen proportzioa % 60ra gerturatuko litzateke.

⁵³ Gogora dezagun gure katalogoan ez dugula Arruek 1868an egindako Schmiden lanaren itzulpena sartu (*Santa Jenobebaren bizitza*). HGL-lantzat hartuz gero, ordea, lan horrexek emango lioke hasiera katalogoari. Lehen ere 2.2 atalean esan dugun moduan, datu-base eta argitaletxeetan HGL gisa sailkatuta dauden horiek hartu ditugu guk ere HGL-lantzat, eta ez gara hasi katalogazio horren barne nahiz kanpo gelditutako lanen izaera zalantzan jartzen.

beti erabakigarria, baina esan genezake haur edo gazteentzako liburuak direla nagusi katalogoan; orrialde kopuru txikiagoko lanak, album ilustratu izan daitezkeen horiek, ez dira hainbeste.




Irudia 11. Katalogoko lanak, luzeraren arabera.

Jarraian datorrena, beraz, katalogo horretan behatutakoaren deskribapena da. Azalpenak erraztearren eta emaitzak modu bisualean aurkezteko, grafikoak egin ditugu.

6.2.1 *Itzulitako egile alemanak*

Katalogoa aztertzen hasteko, lehenik eta behin, zer itzuli den aztertuko dugu, zein izan diren euskarara ekarritako egile alemanak. Horretarako, katalogoan jasota dauzkagun egile alemanen zerrenda hartu eta ondorengo grafiko hau osatu dugu, euskarara gehien itzulitako egile alemanen kopuruak hobeto ikusteko. Zenbaketan ez dugu berrargitalpenik hartu kontuan, hau da, egile bakoitzari itzuli zaion liburu bakoitza behin baino ez dugu zenbatu; dena den, alemanezko liburu bera izanagatik,

euskarara itzultzaile batek baino gehiagok itzuli badu (egile klasikoekin gertatu da hori), kasu horretan bertsio guztiak hartu ditugu kontuan.



Irudia 12. Euskarara itzultitako egile alemanak.

Lehen begiratutik atera dezakegun ondorioa da egile aleman askoren lanak itzuli direla euskarara, guztira 87 baitira euskarara ekarritako egile alemanak. Bere horretan ikusita, kontuan hartzeko moduko kopurua da. Alemaniako ekoizpenarekin eta egile kopuruarekin alderatuta, berriz, kopuru hori ez litzaiguke, seguru aski, horren handia irudituko. Izan ere, eta 3. atalean azertu

dugunez, aztergai ditugun sistema bien tamainek eta ezaugarriek ez dute zerikusirik, eta, hala, egile aleman batzuen obra batzuk baino ez dira pasatzen euskal sistemak eta merkatuak ezartzen duten bahetik.

Nolanahi den, egile bakoitzari itzuli zaion lan kopuruari erreparatuta, bada alderik, eta ez dira hainbeste bost edo bost lanetik gora itzuli zaizkien egileak.

Grafikoaren zatirik handiena, % 10, Knister egile garaikideak du, 24 liburu itzuli baizaizkio euskarara. Bigarren postuan Jakob eta Wilhelm Grimm anaiak daude, 14 lan itzuli baizaizkie (egokitzapenak askoz gehiago dira, baina, gero azalduko dugunez, itzulpenak baino ez ditugu kontuan hartu). Ondoren Christine Nöstlinger daukagu 13 lanekin, eta Mira Lobe eta Sabine Lohf 10na lanekin.

Knister izengoitiaren atzean Ludger Jochmann izeneko idazlea ezkututzen da. Antzerkirako nahiz telebistarako hainbat lan egin ostean, 1980an kaleratu zuen HGLko bere lehen lana, eta ordutik hona arrakasta handia izan du Alemanian nahiz beste hainbat eta hainbat herrialdetan. Hark sortutako *Hexe Lilli / Kika Supersorginak* hizkuntza asko hitz egiten ditu, baita euskara ere, eta liburuetakoa gehienak berrargitaratu ere egin dira, zenbait liburuk 4. argitaraldia ikusi baitu. Hala, berrargitalpen guztiak kontuan hartuta, 46 sarrera dauzkagu katalogoan; aurreneko argitalpena kontuan hartuta, berriz, esan bezala, 24.

Jakob eta Wilhelm Grimm anaiak 1785 eta 1786an jaio ziren, hurrenez hurren, Hasau hirian, Alemanian. 1812 eta 1815 bitartean kaleratu zuten *Kinder und Hausmärchen* ipuin-bilduma 160

hizkuntza baino gehiagora itzuli da. Euskaraz ere hainbatetan itzuli ditugu: gure katalogoan 14 itzulpen dauzkagu jasota, Gomez Zubiak Grimm anaien ipuinen itzulpenen eta egokitzapenen inguruko doktore-tesian itzulpen gisa hartutako hamalauak, baina itzulpen horiez gain 153 egokitzapen ere badauzkagu euskaraz (Gomez, 2004: 381-401). Egokitzapenetako gehienak itzulpenak badira ere, bertsio laburtuak dira, moldatuak, eta horregatik Gomez Zubiak itzulpen gisa hartzen dituen horiek bakarrik jaso ditugu katalogoan. Hamalau itzulpen horietatik 4 dira ipuin-bildumaren itzulpenak, eta bederatzi ipuin solteak.


Christine Nöstlinger egile austriarra da. Lehen liburua 1970ean kaleratu zuen, baina orduz geroztik asko dira kaleratu dituen liburuak. HGLan errealismoa gehien bultzatu duen egileetako bat da, eta ideia liberal eta aurrerakoiak dituen egileetat jo izan da. Gure katalogoan egile horren 13 lan dauzkagu jasota, baina horietako batzuk hainbat aldiz berrargitaratu dira. *Ingeles bat etxean* liburua, esaterako, 1991ean argitaratu zen aurreneko aldiz euskaraz, baina 2009an hamabigarren aldiz argitaratu da.

Laugarren eta bosgarren postuan Mira Lobe eta Sabine Lohf dauzkagu, bakoitza 10na lanekin. Mira Lobe Austriako egile ezagunenetako bat dugu, bere lanak berrogeita hamar eta hirurogeiko hamarkadetan argitaratu zituenak. Euskaraz, *Amona sagar gainean* lana 2005ean berrargitaratu da hirugarren aldiz. Sabine Lohf, berriz, ilustratzailea da prestakuntzaz eta, funtsean, hurrei bideratutako hainbat diseinu-lan egiten ditu. Gure katalogoan Lohfen 10 lan dauzkagu, baina kontuan hartu behar da hurrek lehengaiekin (egurrarekin, plastilinarekin etab.) egin dezaketinari buruzko hitz gutxiko album ilustratuak direla

guztiak, alegia, bilduma beraren 10 liburu, eta horiek dira gure katalogoan jasota daudenak.

Hamar liburu edo gehiago itzuli zaizkien egile horien atzetik Angela Sommer-Bodenburg daukagu, banpiro txikiaren liburuen egilea, 9 libururekin. Ondoren Peter Härtling 8rekin eta Joachim Masannek, futbolaria basatien egilea, 7rekin. Ondoren, sei liburu itzuli zaizkien hiru egile datoz: Friedrich Schiller, Erich Kästner eta Thomas Brezina. Jarraian Ursula Wölfel, Janosch eta Preußler bezalako izen ezagunak dauzkagu, bakoitzari bosna liburu itzuli baizaizkie.

Zerrenda horretatik behera hainbat dira euskarara itzultako egile alemanak, baina, esan bezala, gehiengoari bi liburu baino ez zaizkio itzuli. Hain zuzen ere, eta itzuli diren liburu kopuruez jabetuta, bestela osatu dugu euskarara itzultako egile alemanen grafikoa: egile bakoitzari itzuli zaion lan kopuruaren arabera, alegia.




Irudia 13. Egileei itzuli zaien lan kopurua.

Horrela, bada, lan bakarra edo bi itzuli zaizkien egileak % 72 dira eta 3 lan edo gehiago itzuli zaizkien egileak, berriz, % 28.

Pentsa liteke onena dela egile bakoitzaren lan asko edukitzea itzulita, gainerakoan lan asko gelditzen delako itzuli gabe. Ordea, lehen ere aipatu duguna azpimarratu nahi genuke, alegia, iristen zaizkigun lanak bahe estu batetik iristen zaizkigula. Kasurik gehienetan, gainera, Espainiako argitaletxeetan funtzionatu duen hori ekartzen da, estatu osorako egile-eskubideak ere eurek izaten dituztelako. Beraz, bistan denez, HGL alemanaren merkatuko ekoizpena eta aukerak zabalak badira ere, iristen zaiguna printza batzuk baino ez dira. Hain zuzen ere, iritsi zaizkigun egileen profila zehaztearren, egile horien garaiari erreparatu diogu, iritsi zaiguna nagusiki zein joerakoa den jakiteko. Horretarako, HGL alemanaren bilakaera aztertzen duen liburu bat hartu dugu oinarri (Wild, 2008, *Geschichte der deutschen Kinder- und Jugendliteratur*), eta horren arabera sailkatu ditugu guk katalogoan dauzkagun egileak. Garaikidetzat jo ditugu 70eko hamarkadatik aurrerako egileak, erreferentzia gisa baliatutako liburuan hamarkada horretatik gaur egun arteko epea baita periodizazioko azkena. Hala, garaikide gisa hartzen ditu Peter Härtling, Michael Ende, Gudrun Pausewang, Cornelia Funke etab. Badira 70eko hamarkada baino lehen ere argitaratzen hasitako egileak, Christine Nöstlinger, adibidez, baina 70-80ko hamarkadetan, eta, are, gaur egun ere idazten duenez eta arrakasta duenez, garaikidetzat jo dugu. Klasiko bihurtze bidean diren egileen artean sartu ditugu Weimarko errepublikaren garaian hasi eta 70eko hamarkada arte lan egin zutenak. Talde horretan genituzke, esaterako, Erich Kästner, Ursula Wölfel edota Otfried Preußler. Gainerakoak, egile klasikotzat jo ditugu: Grimm anaiak, Friedrich Schiller, Thomas Brezina edota Heinrich Hoffmann.

Egile bakoitza dagokion garaian sailkatuta, honako hau osatu dugu:



Irudia 14. Itzulitako egile alemanak, garaiazen arabera.

Euskarara itzuli ditugun 87 egileen gehiengo nabarmena, % 71, garaikidea da, % 16 klasiko bihurtzeko bidean diren egileak dira, eta % 13 klasikoak.

Egile garaikideen portzentajea ikusita, badirudi katalogoan Alemaniako azken nobedadeak izango ditugula, baina uste dugu zuhur jokatu beharra dagoela halako ondorioz atera baino lehen. Izan ere, 70eko hamarkadatik aurrerako egile guztiak hartu ditugu garaikidetzat, baina egungo datatik gertuago gelditzen diren lanak zenbat diren jakiteko, katalogoan jatorrizko lanen argitalpen urteari erreparatu eta 90eko hamarkadatik aurrerako lanak zenbat diren zenbatu dugu: 90 lan dira, hau da, katalogoko lanen % 37, 90eko hamarkadatik gaur arte Alemanian argitaratu diren lanak. Lehen garaikidetzat jotzen genuen lan kopurua eta azken datu horren artean bada tarterik, eta horrek esan nahi du, lehen garaikidetzat jo ditugun horien artean, gehiengoa 70-80

hamarkadako lanak direla; alegia, urteak joan ahala, klasiko bihurtzeko bidean diren egile bihurtuko dira gehiengoak.

Bestalde, eta itzuli gabe gelditzen denaz ohartzeko, Alemaniako HGL Sarietan azken urteotan garaile atera direnen zerrendak begiratu ditugu, 2000. urtetik hona saridun izan direnetako zenbat euskaratu ditugun ikusteko. Egiazki, bat bera ere ez daukagu euskaratua, eta horien artean badira Alemaniako gaztetxoeren artean bereziki arrakastatsu gertatu direnak, hala nola 2002an gazte literaturaren saria jaso zuen Alexa Henning von Lange edo 2009an haur literaturarena jaso zuen Andreas Steinhöffel. Gazteen artean harrera ona duen Isabel Abedi egilearen lan bat daukagu euskarara ekarria (*Antxume tentela! Ahate txepela!*, Ttartalo, 2010), baina ez *Whisper*, hain arrakastatsu bihurtu duen trilogiaren alerik.

Ondorioz, euskarara ekarritako HGLko egile alemanak asko direla iruditu lekiguke, eta, neurri batean, ez geundeke guztiz oker. Nondik begiratzen den. Izan ere, eta esan bezala, bi sistemak oso desberdinak dira ekoizpenari eta merkatuari dagokionez, eta, jakina, asko da itzuli gabe gelditzen dena.


6.2.2 *Argitalpen kopuruaren bilakaera*

Atal honetarako prestatu ditugun grafikoek katalogoko sarrera guztiak erakusten dituzte kronologia-ardatz batean irudikatuak. Horrela, alemanetik euskarara itzultitako HGLan argitaratutako lanen kopuruak izan duen bilakaera ikus dezakegu.

Bi grafiko daude: lehenak (15. irudikoak) katalogoko sarrera guztiak hartzen ditu kontuan, 16. irudiko bigarrenak, berriz, soilik

liburu bakoitzaren lehen argitalpena. Gainerakoan, berdinak dira bi grafikoak: biak ere 1929an hasten dira eta 2011n amaitu.

Oro har, eta grafikorik ikusi behar izan gabe ere, aurkitzea espero genuen emaitza zen, hain zuzen, argitalpen-kopuruak gorantz egin izana. Baina katalogoa osatuta eta grafikoak eginda, askoz gehiago ere esan daiteke. Orain ikusiko dugu, zehatz-mehatz, grafikoak erakusten diguna.



Irudia 15. Argitalpen kopurua, berrargitalpen eta guzti, kronologia-ardatzean.

Alemanetik euskaratutako lehen hiru lanak 1929an argitaratu ziren. Lehen ere aipatu dugun moduan, liburu gisa kaleratutako argitalpenez ari gara lan honetan, hasierako data hau baino lehen ere atera baitziren alemanetik euskaratutako zenbait lan solte aldizkaritan. Beraz, 1929. urtean, Joseba Altunak Grimm anaien liburu bat atera zuen eta Ipolito Larrakoetxeak beste bat; hirugarren liburua Gabriel Manterolak egindako itzulpena da, Christoph Schmid-en ipuinena.

Etzanizek egindako HGLaren euskal historiaren laburpenean ageri denez, garai hura sorkuntza handikoa izan zen Euskal Herrian HGLari zegokionez. Foruak galdu berriak eta Gerra Zibila etorri gabea, haurrak euskal nazionalismoan eta kristautasunean hezteko nahia zen nagusi. Garai hartakoa da, esate baterako, *Xabierto* liburu ezaguna (1925). Gure ustez, 1929ko hiru lan horiek bereziki aipagarriak dira. Garai hartan urte berean alemanetik egindako hiru itzulpen egotea bereziki esanguratsua da, esan nahi baitu, orduko hartan aleman kulturaren oihartzun berezia iritsi zela. Grimm anaien ipuinak askotan berrargitaratu edo itzuliko dira aurrerago ere, beraz, 1929ko hasiera hori gerora ere iraungo duen eta egun ere dirauen eraginaren abiapuntu izan zen.

Hurrengo bi argitalpenak 1934an agertzen zaizkigu: bata, Iñaki Goenagak egindako *Wilhelm Tell*⁵⁴ ipuin ezagunaren itzulpena; bestea, ordea, ez da lan berri bat, 1929an Manterolak egindako Schmidten itzulpenaren berrargitalpena baizik. Hala, hurrengo grafikoan ikusiz gero (16. irudia), lan bakarrari dagokion zutabea ageri da 1934an.

Horrela, bada, eta bilakaera historikoa gogora ekarriz, 1936-1939 urte bitartean Gerra Zibila egon zela hartu behar dugu kontuan. Gerra Zibilaren ostean, Francoren diktadura etorri zen, eta, horrek guztiak, jakina, eragin zuzena izan zuen liburugintzan, eta, nola ez, baita itzulpengintzan ere. Izan ere, 1962 arte itzulpenak editatzeko debekua egon zen, salbuespenak salbuespen.

⁵⁴ *Wilhelm Tell* lana antzerkin-lan bat zen jatorrian. Haur eta gazteentzako moldaketa asko izan zituen, eta HGL-lan gisa iritsi da hainbat eta hainbat literatur sistemetara. HGL-lanen barnean zer sartu eta zer ez sartu erabakitzeke dauden arazoak uzten ditu horrek agerian.

Salbuespen horietako bat izan zen, hain zuzen ere, 1952an bakar-bakarrik ageri den zutabetxo: Plazido Mujikak Jon Svensson-ek idatzitako *Nonni und Manni* liburutik egindako itzulpenari dagokio, *Nani eta Noni: islandiar mutiko baten gertaldiak* liburuari, alegia.

Francoren diktadura 1939tik 1975 arte luzatu bazen ere, badirudi azken urteetan malgutasun gehiagoz goza zitekeela. Horren erakusle dira 60ko hamarkadan haur eta gazteentzat euskaraz argitaratu zituzten lanak, herri-ekimenaz han eta hemen sortutako ikastolak eta, batez ere, Gero eta Hordago argitaletxeetako HGLko bildumak, *Kimu* eta *Tximista*, hurrenez hurren. Hain zuzen ere, diktaturaren hondarreko urte horietan alemanetik euskaratutako hamazazpi argitalpen dauzkagu, berrargitalpenak barne. Horietako bat *Nani eta Noni* liburuaren berrargitalpena izango da. Ondoren, haurrek Bibliako gaiak ikas ditzaten prestatutako hiru liburu etorriko dira: 68an Anizeto Zugastik Friedrich Hoffmann-en *Gazteen Biblia* itzuli zuen eta Plazido Mujikak Weiser-en *Mendiko argia*, eta, 1969an, Jacob Ecker-en *Umeen Biblia* itzuliko dute Anizeto Zugastik eta Jaime Kerexetak. Aurrerago, 75ean sartuta, Jacob Eckerrek haurrentzat prestatutako bibliaren itzulpen berri bat daukagu, J. F. Setienek egina: *Haurren Biblia*. Urte berean, 75ean, Xabier Mendigurenen lehen itzulpena aterako da *Cinsa* argitaletxean, *Heidi*, eta *Wilhelm Tell* beste bi aldiz itzuliko da, 1976an J.F. Setienek eta, 1979an, Hilario Urkiak.

Garai hauetan egondako argitalpenak, beraz, ez daude inolaz ere sistematizatuak, hau da, zeresana dute, hain zuzen ere,

alemanetik euskaratutako ezer argitaratzen ez zen garaietan argitaratu zirelako.

Xabier Mendigurenek berak azalduta, garai hartan itzulitakoak nola ahala egin ziren, ziren garaiak izanik, argitaletxeen funtzionatzeko modua ere ez baitzen batere formala. Hala, helburua lanak euskaraz eskaintzea zen, eta, zentzu horretan, hor zehar zebiltzan beste hizkuntzetatik itzulitako gaztelaniazko bertsioak euskaratzeari ekin zioten. Euskarari arnasbideak zabaltzea zen helburua. Laurogeiko hamarkadatik aurrera gauzak bestela egiten hasi zirela aipatu zigun, eta grafikoan ere, argitalpen-kopuruari dagokionean behintzat, nabarmen ikus daiteke sistematizatu egin zela urtero alemanetik HGLa itzultzea.


1981ean 3 itzulpen dauzkagu, 82an 7 eta 83an 12. Kopuru horiek apur bat apaltzen dira argitalpen bakarra kontuan hartuta egin den grafikoa ikusiz gero (16. irudia), baina aldea ez da horrenbestekoa (handiagoa da aurreragoko urte-bitarte batzuetan). Argitalpen kopuruak izan duen igoera benetan adierazgarria da, eta arrazoia garai hartan euskal kulturgintzak izan zuen bultzadan aurki dezakegu. Garai hartan hasi baitziren Mensajero, Hordago eta Elkar HGLa argitaratzen; horren adibide daukagu 1983an lehenengoz argitaratutako 9 lanetatik 8 Elkarrek atera zituela.

Grafikoan aurrera eginda hainbat gorabehera nabari daitezke kopuruari dagokionez, baina, funtsean, ondorio nagusi bat atera daiteke, alegia, 1981etik aurrera, gorabehera batzuk egon arren, urtero argitaratu direla alemanetik euskaratutako HGLko lanak.

Edonola ere, beherakadak baino, badira grafikoan aurrera egin ahala aipagarriak diren goraldi batzuk.

Argitalpen guztiak kontuan hartzen dituen grafikoan begiratuta, bi piko egiten dira berehala deigarri. Horietan aurrenekoa 1990ekoa da; hain zuzen ere, 24 lan argitaratu ziren urte hartan denera. Bigarren grafikoan ikusiz gero (16. irudia), datu hori 19ra jaisten da, horrek esan nahi du, 5 berrargitalpen egon zirela. Hala eta guztiz ere, oso kopuru altua da, eta, beraz, urte berezitat ere har dezakegu. Aurreko urteetako joerari jarraituz, Elkarrek 12 lan plazaratu zituen 90ean; hala ere, horietatik 10 Sabine Lohf egilearen lanak izan ziren: bilduma berekoak diren marrazki-liburu laburrak, eta, beraz, erraz ulertzen da liburu horiek urte hartako zenbakiak igoaraztea.

Bigarren goraldia 2006koa da, baina 15. irudian nabarmentzen den piko hori neurri handian apaltzen da 16. irudian. Hala, 15. irudiak 29 sarrera erakusten dizkigu, inoizko sarrera-kopururik handiena, baina 16. irudiak 17; horrek esan nahi du 12 berrargitalpen egon zirela. Hala eta guztiz ere, urte horietan argialetxe berrien uzta sumatuko da. Hala, 80ko hamarkadan indartsu hasitako Elkar, Mensajero eta, 90eko SM Baporea argialetxez gain, Alberdaniak itzulitako album ilustratuak ditugu, edo Mezulari argialetxeak ateratako *Hexe Lilli / Kika Supersorginaren* bilduma. Nobedade horiek eragin dute, hein handi batean, 2006ko zutabeak horren gora egitea.



Irudia 16. Argitalpen kopurua, berrargitalpenak kontuan hartu gabe, kronologia-ardatzean.

Bestalde, argitalpen guztiak eta argitalpen bakarra kontuan hartuta egindako grafikoak erkatzen baditugu, ikusiko dugu berrargitalpenak toki handia duela alemanetik euskaratutako HGLaren merkatuan.

Oro har, urtero berrargitaratu dira pare bat lan eta horrek, bistan denez, are luzatu ditu argitalpen kopuru osoen zutabeak. Askotan 4 berrargitalpen egon dira, hala nola 91ean, 94an, 97an, 98an, 2002an eta 2003an. Baina badira kopuru handiagoak ere: 2005ean, 11 berrargitalpen egin ziren, 2006an, esan bezala, 12, eta 2009ean 10 (urte haietako argitalpen kopuru osoaren % 64, % 41 eta % 71, hurrenez hurren).

Horrek guztiak erakusten digu alemanetik euskaratutako HGLaren egoera, osasuntsua izateaz gain, arrakastatsua ere badela, berrargitalpen ugari dugunez. Katalogoko sarrera guztien % 39,6 berrargitalpenak dira.

Datu nagusiak eman baditugu ere, bi grafikoek erakusten duten bilakaeraren periodizazio bat egin nahi izan dugu. Honela bereiziko genituzke garaiak:

- **1929. urtea:** lehen esan bezala, oso deigarria da garai honetan alemanetik euskaratutako HGLko hiru lan egotea, hain zuzen ere, HGLko euskarazko sorkuntzak gora egin zuen garai berean. Hasiera izan zen, eta, inolaz ere, hasiera garrantzitsua.
- **1929tik 1968 arte:** hasiera indartsuaren ostean barealdia etorri zen, lehenik eta behin, 1936-1939 bitartean Gerra Zibila izan zelako, eta, ondoren, Francoren diktadurapean, euskal kulturak, beste hainbat arlok bezala, sekulako itxialdia eta atzeraldia jasan zuelako. Plazido Mujikak 1952an itzulitako *Nani eta Noni* daukagu salbuespen gisa.
- **1968tik 1981 arte:** artean Francoren diktadura indarrean bazen ere, azken urte hauetan euskal abertzaletasunaren aldeko ekimenek beren ahotsa entzunarazteko eta proiektuak aurrera eramateko aukera izan zuten. Gogoratu 1968an Arantzazuko Biltzarra egin zela, euskara baturanzko urrats garrantzitsua. Garai honetan ageri zaizkigun lan bakanak haurrentzat moldatutako biblia, Grimm anaien kontakizunak, *Gilen Tell* eta *Heidi* dira. Hau da, klasikoak eta denboran askoz aurreragoko lanak itzuliko dira batez ere.
- **1981etik hona:** Etxanizek berak Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia liburuan azaltzen duen moduan, "Euskal Herrian argitaratutako liburuen kopuruan igoera handia izan zen 80ko hamarkadaren lehen urteetan" (Etxaniz, 1997: 244) eta alemanetik euskaratutako lanetan ere jokabide bera aurkitzen dugu, hau da, 80ko hamarkadatik hona itzulpengintzak susperraldi eta goraldi orokor bat ezagutu du, jakina, urte batetik bestera ere gorabeherak dauden arren. Hala ere, sistematizatu egin da egoera, eta urtero argitaratzen dira alemanetik euskaratutako lanak, ez aurreko urteetan gertatzen zen moduan, kasu bakanetan.

Hala eta guztiz ere, gure azterketa zehatz samarra izanik —ez baikara euskaratutako HGLaz oro har ari, baizik eta, zehazki, alemanetik euskaratutakoaz—, hiru azpi-garai desberdinu nahi ditugu 1981etik honako azken garaian:

a) 81etik 90 arte: garai honetan Elkar eta Ediciones SM argitaletxeek argitaratuko dituzte lan gehienak, eta asko izango dira, lehen esan bezala, 90ean Elkarrek bakarrik 12 aterako baititu.

b) 90etik 1999 arte: garai honetan Elkar, Ediciones SM eta Descléeek argitaratuko dituzte lan gehienak.

c) 1999tik gaur egun arte: azken urteetan argitaletxe berriak agertu dira, eta badirudi garrantzitsu bihurtu direla; Kalandraka, Alberdania eta Ibaizabal bezalako argitaletxeek ari gara. Argitaletxe berri horiek batez ere albumak itzuliko dituzte alemanetik. Edonola ere, aurretik lanean ziharduten argitaletxeek ere alemanetik euskaratutako HGLa kaleratzen dihardute (Gero-Mezularik asko argitaratu du), baina badirudi eragile gehiago dagoela orain, eta hori datu positiboa da.

Garaiak garai, eta ikusi dugun moduan, 80ko hamarkadatik hona izandako bilakaeran ere nolabaiteko banaketa egin badaiteke ere, esan dezakegu urtero alemanetik HGLko 6 lan euskaratzeko jokabide edo arauari eusten zaiola, nahiz eta, ikusi dugun moduan, zenbait urtetan askoz gehiago ere argitaratu den.

Garairik garai eta lehen argitalpena bakarrik kontuan hartuta, batez beste argitaratutako lan kopuruei dagozkien honako zenbaki hauek atera ditugu (betiere lehen egin dugun periodizazio horretako urte-bitarteak errespetatuta):


- 1929-1968: 5 lan 39 urtean; 0,1 lan urteko.

- 1968-1981: 8 lan 13 urtean; 0,6 lan urteko.
- 1981-1990: 54 lan 9 urtean; 6 lan urteko.
- 1990-1999: 80 lan 9 urtean; 8,8 lan urteko.
- 1999-2011: 95 lan 12 urtean; 7,9 lan urteko.

Hori guztia betiere argitalpen kopuruari dagokionez. Orain bestelako informazioa aztertzen jarraituko dugu.

6.2.3 *Jatorrizko argitalpenen eta xede-argitalpenen arteko jauzia*

Atal honetako grafikoa egiteko, jatorrizko lana argitaratutako urtearen eta itzulpena argitaratutako urtearen arteko kenketa egin dugu. Ateratako emaitza bi argitalpen-daten arteko jauzia izango da, eta jauzi horrek zer-nolako bilakaera izan duen azter dezakegu ondorengo grafikoa.



Irudia 17. Jatorrizko lanen argitalpen-urteen eta itzulpenen argitalpen-urteen arteko aldea.

Pixkanaka garatu eta hobera egin duen literatur sistema baten aurrean gaudela kontuan hartuta, pentsa genezakeen argitalpen-

jauzia irudikatzen duten puntutxoak aldapan behera mailakatuak aurkitu behar genituela. Egoera, ordea, pixka bat konplexuagoa da.

Hasieran argitalpen-jauziak handiak direla ikus dezakegu, txikienak ere 37 edo 38 urtetara ere iristen baitira.

Bestalde, arreta deitzen duten jauziak bi motakoak dira, oro har. Batetik, grafikoaren hasieran 460 urte inguruko bi piko nabarmentzen dira: *Till Eulenspiegel* ipuinagatik sortutako jauziak dira, jatorrizkoa, hain zuzen ere, 1510ean argitaratu zelako, eta horregatik igotzen da argitalpen-jauzia 460 urtera. Bestetik, ordea, grafiko osoan zehar tarteka nabarmentzen den 170-180 urte inguruko pikoak daukagu. Jauzi hori Grimm anaiei egindako itzulpenen eraginez da. Izan ere, Grimm anaiek 1812 eta 1815 bitartean argitaratu zituzten beren ipuinak, eta, beraz, jatorrizkoaren eta itzulpenaren arteko argitalpen-jauzia handi samarra da.

Horiek biak dira lehen begiratuan gehien nabarmentzen diren jauziak, baina, hala ere, grafikoan zehar handi samarrak diren jauziak daudela esan behar dugu: badira 120 urte inguruko jauzi batzuk, lan klasikoek eragindakoak, baina 50 urte inguruko lerroan eta 30 urte ingurukoan dauden puntu asko dago.


Guztira dauzkagun 242 sarrereren % 58k dauka hamar urtetik beherako argitalpen-jauzia. Erdetik gorako portzentajea bada ere, kasuen % 42an gertatu da liburuak HGL-sistema alemanean argitaratu eta 10 urte edo beranduago itzuli izana, eta hori portzentaje altu samarra da. Izan ere, itzulitako egileak aztertu ditugun atalean ikusi dugunez, itzulitako egile gehienak garaikideak dira, baina horrek ez du esan nahi orain urte gutxi

kaleratutako lanak direnik, eta, bistan denez, jatorrizkoak argitaratu eta ez dira berehalakoan gurera iristen. Bi urtetik beherako tartea duten argitalpenak % 13 dira.

Izan ere, hizkuntza gutxituen literatur sistemetan gertatu ohi denez, jatorrizkoa argitaratu eta denbora bat pasatzen da xedehizkuntzara ekarri artean, besteak beste, ez dagoelako nahikoa indar egile-eskubideak zuzenean eta berehala erosteko, eta boteretsuagoa den hizkuntza batera itzuli arte itxaron behar izaten da, haren sistematik hartzeko.

6.2.4 *Itzultzaileak*


Dagoeneko aztertu dugu gutxi gorabehera zer itzuli dugun alemanetik euskarara eta noiz. Orain, berriz, nork itzuli duen aztertu nahi dugu, hobe esanda, nortzuk ibili diren itzultzaile lanetan. Orain arte egin dugun moduan, azterketa honetarako ere grafiko bat prestatu dugu. Hala, ondorengo grafikoan HGL alemaneko egileak euskaratu dituzten itzultzaileak irudikatu ditugu. Katalogoan sartuta dauzkagun guztiak ageri dira, eta bakoitzari itzuli duen lan kopuruaren arabera eman diogu grafikoaren zati handiagoa ala txikiagoa. Kontaketa egiterakoan ez ditugu berrargitalpenak kontuan hartu, itzultzaile bakoitzak egindako lana egiazki islatzearren, bestela, esate baterako Nekane Umerez eta Arantxa Azpitarteri puska handi samarra legokieke *Suzko zapatak eta airezko sandaliak* itzulpena 12 aldiz berrargitaratu delako, baina, berez, horixe da beren itzulpen bakarra. Gauza bera gertatzen da Pilar Iparragirre itzultzailearekin, berez 2 lan itzuli baititu (*Sorgin txikia* eta *Eskubeltz taldearen abenturak*), baina, berrargitalpenak medio, 31 sarrera dauzkagu bere izenean.



Irudia 18. Itzultzaileak, bakoitzak itzuli duen lan kopuruaren arabera.

Emaitzak ikusita, eta egile alemanen grafikoarekin gertatzen zen moduan, itzultzaileei dagokienean ere itzultzaile ugaritasuna daukagula esan daiteke.

Dena den, ugaritasun hori ez da parekidea: esku bete itzultzailek baino ez du lanen gehiengoa itzuli, eta, gehiengoak, berriz, lan bakarra edo bi itzuli du. Hona hemen grafiko bera, baina itzulitako lan-kopuruaren arabera ordenatua:



Irudia 19. Itzultzaileak, lan kopuruaren arabera taldekatuak.

Lan bakarra edo bi itzulitakoak % 79 dira, eta, hamar lan edo gehiago itzulitakoak, berriz, % 4 besterik ez. Beraz, itzultzaile asko aritu da alemanezko HGLa euskaratzen, baina gehiengoak ez du errepikatu. Modu esporadikoan lan egite hori lotuta dago, seguru aski, itzultzaile askok zeharka lan egin izanarekin (ikus 24. irudia), pentsa baikenezake alemanetik zuzenean itzuli dezakeenak behin baino gehiagotan itzuliko duela.

Horrek bi motako balorazioak egitera garamatza. Izan ere, itzultzaile ugaritasuna bere horretan ikusita datu baikorra dela esan liteke, itzultzaile bakoitzak bere ahotsa ematen baitio testuari. Ordea, itzultzaile gehienek lan bakarra edo bi itzuli du, eta ez du jarraitu; horrek esan nahi lezake esperientzia moduan balio izan dietela HGLko lanen bat edo beste itzultzea, edota beste hizkuntzetatik ere itzultzen dutela, eta jaso duten lan bat gehiago dela jatorriz alemanez idatzita dagoen HGL-lan jakin hori itzultzea. Argudio horri helduta, lan gehiago, eta, bereziki, hamar lan baino

gehiago itzuli dituzten itzultzaileak nolabait *berezitu* egin direla esan genezake.

Dena den, eta lehen ere iradoki dugun moduan, loturarik egon daiteke itzultzaile bakoitzak itzuli duen lan kopuruaren eta zuzenean ala zeharka itzuli izanaren artean, pentsa baitaiteke alemanetik euskarara lan kopuru nabarmena itzuli dutenek alemana menderatuko dutela eta zuzenean arituko zirela. Hori egiaztatzeko, itzulpen gehienak egin dituzten itzultzaileak zein diren ikusiko dugu orain, alemana badakiten eta zuzenean ala zeharka itzultzen duten erreparatuz.

HGL alemana euskaratzen nolabait *berezitu* direnak, alegia, liburu kopuru gehien itzuli dituztenak honako hauek dira: Pello Zabaleta (30 lan), Xabier Mendiguren (22 lan), Joxan Ormazabal (13 lan) eta Lola Erkizia eta Inazio Mujika (12 lan). Ondoren datoz Edurne Azkue, Iñaki Aristondo eta Mari Eli Ituarte, bakoitza 8na lanekin.

Pello Zabaletari dagokionez, 1942an jaio zen Legazpin. Eliz ikasketak egin zituen, Arantzazun hasita baina Friburgo eta Erroman bukatuta. Jakin aldizkariaren zuzendari izateaz gain, hainbat egunkari edo aldizkaritan idatzi izan du. Liburuak ere idatzi ditu, baina, ikusi dugun moduan, batez ere HGLa itzuli du, alemanetik euskarara, hain zuzen ere. Gaur egun Granadan bizi da. Beste hizkuntzen artean alemana ere ikasi zuen, eta, berak hala aitortuta, alemanetik itzultzen du zuzenean.

Xabier Mendiguren Ezkion jaio zen 1945ean. Filosofia eta Teologia ikasi zituen; Martuteneko itzultzaileen eskolako zuzendari izan zen, baita Euskararen Kontseiluko idazkari nagusi

ere, eta euskaltzain urgazle da. Itzulpengintzan eskarmentu handia jasotako gizona da eta gaiari buruzko testu-liburuak ere badauzka idatziak. Zabaletaren moduan, Mendigurenek ere alemana ikasi zuen eta alemanetik itzultzen du.

Joxan Ormazabal Zegaman jaio zen 1948an eta 2010ean hil. Magisteritza ikasketak egin eta irakasle aritu zen garai batean. Dena den, 1981ean Elkarlanean argitaletxean hasi zen lanean, HGLko bildumen arduradun, eta hantxe jarraitu zuen erretiratu arte. Liburu asko idatzi eta itzuli zituen, eta beste askorenak zuzendu. Ehundik gora ipuin itzuli zituen, beti gaztelaniatik.

Lola Erkiziak eta Inazio Mujikak osatzen duten bikotea azken hamarkadan aritu da HGL alemaneko lanak euskaratzen. Inazio Mujika bera hainbat ipuin-bildumen idazle izan da, eta Alberdania argitaletzeko editore lanetan dihardu gaur egun. Lola Erkiziak ere Alberdania argitaletxean egiten du lan. Mujikak hala adierazita, nolabaiteko oreka bilatu dute beren artean: Lola Erkiziak, alemana dakenez, alemanezko testuak izan ditzakeen xehetasunak zaintzen ditu eta Inazio Mujikak euskarazko testua txukuntzen eta atontzen du. Nolanahi den, album ilustratuak dira batez ere itzuli dituzten lanak: *28 ipuin barre egiteko* liburuak 64 orrialde ditu, eta liburu hori da, *27 ipuin zopa hartzeko* liburuarekin batera, luzeena. Gainerakoak 30 orri inguruko albumak dira.

Zortzina lanekin hiru itzultzaile geneuzkan: Edurne Azkuek esan zigunez alemanetik itzultzen du, baina Mari Eli Ituartek eta Iñaki Aristondok gaztelaniatik. Azken bi itzultzaileak *Kika supersorginaren* bildumaren itzultzaileak dira, eta horregatik dauzkate 8na itzulpen gure katalogoan, Kikaren bilduma luzea

baita. Mari Eli Ituarte bera Mezulari argitaletxeko editorea da. Esan behar da, hala ere, Mezulari argitaletxeak itzuli duela, *Kika supersorginaren* ondoren, jatorriz alemanez idatzita dagoen bilduma bat, zehazki, *Futbolari basatien* bilduma, eta, kasu horretan, alemanetik itzul dezaketen itzultzaileak bilatu dituzte.


Datu horiek ikusita, garbi dago itzulpen kopuru handiak ez duela esan nahi, nahitaez, zuzenean itzultzen denik. Hori, hala ere, dagokion testuinguruan ulertu beharra dago: Joxan Ormazabalek 1990ean egin zituen itzulpen gehienak, lehentasuna euskarari eta euskal HGLari bultzada bat ematea zen garaian, eta ekimen-giro horretan ulertu behar da zeharkakotasuna. Mari Eli Ituartek eta Iñaki Aristondok bilduma oso bateko liburuak itzuli zituztelako ageri dira alemanetik euskaratutako lan kopuru handia dutela beren izenean, baina ez dute horretan jarraitu, are, hurrengo bilduman ez dira itzultzaile aritu.

Orain, eta itzultzaile aritu direnen ikuspegi zabalago bat lortzearren, itzultzen jardun duten itzultzaileen zerrenda bestelako aldagaiekin konbinatuko dugu.

6.2.4.1 Itzultzaileak/Kronologia

Atal honetan kronologiaren arabera banatuko ditugu itzultzaileak, hau da, hamarkada bakoitzean zein itzultzaile aritu den, eta, hala, bilakaeraren berri izango dugu.

Ondorengo grafikoak, beraz, hamarkadaka antolatu ditugu, hala, bakoitzean egoera zein izan den eta horrek guztiak zer esan nahi duen ondorioztatu ahalko dugu.




Irudia 20. 80ko hamarkadan aritu diren itzultzaileak.

80ko hamarkadan Pello Zabaletak itzuli zuen gehien (12 lan). Ondoren datoz Kalekumeak kolektiboa (4 lan), Xabier Gartzia (3) eta Itziar Alkorta (3), Dabid Urbistondo (2), Pilar Iparragirre (2), Igara (2) eta Joxan Ormazabal (1). Beste askok ere jardun zuen itzultzaile lanetan, baina gainerako guztiek lan bakarra itzuli zuten alemanetik.

Hamarkada honetan nabarmena da Zabaleta zela alemanetik zuzenean euskaratu zezakeena, gainerakoek, gure katalogoko datuen arabera, zeharka itzuli baitzuten, eta horrek azal lezake, era berean, zergatik itzuli zuen nagusiki Zabaletak HGL alemana.

Hala eta guztiz ere, gerora arrakastatsu bihurtuko diren lan batzuk argitaratuko dira garai honetan, hala nola Pilar Iparragirrek itzulitako *Eskubeltz taldearen abenturak*, gerora 24 aldiz berrargitaratua, edo Nekane Umerezek eta Arantxa Azpitartek itzulitako *Suzko zapatak eta airezko sandaliak* lana, 12 aldiz berrargitaratua. Itzultzaileek HGL alemanarekin eduki zuten

kontaktu bakanak izan baziren ere, gerora ere bide luzea egin duten liburuak dira.




Irudia 21. 90eko hamarkadan aritu diren itzultzaileak.

80eko hamarkadan gertatzen zen moduan, 90ekoan ere Zabaletak pisu nabaria du (12 lan), baina, hala ere, oraingo honetan Xabier Mendigurenek hartzen dio aurre itzulitako kopuruan (18 lan). Mendigurenek lehen-lehen lana 1975ean argitaratu zuen Cinsa argitaletxean, baina hura ibilbide luze baten abiapuntua baino ez zen izan, 90eko hamarkadan Elkar eta Desclée argitaletxeetan lan asko argitaratuko baitu. Aipatzekoa da, esate baterako, Elkar argitaletxearentzat itzuliko duen Christine Nöstlinger egilearen *Das Austauschkind / Ingeles bat etxean* lana (91ean argitaratua), gaur egun arte 13 aldiz berrargitaratua baina sei aldiz 90eko hamarkadan.

Mendigurenen eta Zabaletaren ostean Ormazabal daukagu hamarkada honetan (11 lan), Sabine Lohfen 10 album ilustratuak

itzuli baitzituen 1990ean. Ondoren, aipatzekoa da Edurne Azkue, 8 lan itzuliko baititu eta 8ak Desclée argialetxearentzat.

Gainerakoan, 80ko hamarkadan gertatzen zen moduan, itzultzaile ugartasuna da nagusi, nahiz eta, 90eko hamarkadan, itzulpen kopuru handiena itzultzaile bakar batek eduki beharrean, kopurua gehiagoren artean dagoen banatua. Joera hori, alemanetik itzulpen-lan bat baino gehiago egitearena, alegia, areagotu egin da, eta hala erakutsi digu hurrengo grafikoak.



Irudia 22. 2000-2011 bitartean aritu diren itzultzaileak.

Azken grafiko honetan, beraz, azken hamarkadan jardun duten itzultzaileak irudikatu ditugu.

Oraingo honetan, Zabaleta eta Mendigurenen izenak ageri bazaizkigu ere, aipatzekoa da ez direla izen nagusienak: 5 lan dauzka Zabaletak, 2 Mendigurenek. Horrek esan nahi du, beraz, izen berriei egin zaiela leku.

Lola Erkiziak eta Inazio Mujikak osatutako bikotea dugu zerrendaren lehen postuan (11 lan), eta ondoren *Kika*

supersorginaren itzultzaile izandakoak: Ituarte (8 lan), Aristondo (8 lan) eta Urmeneta (7 lan). Ondoren, ordea, aurreko hamarkadetan gertatzen zenaren kontra, itzultzaile gehiago dago lan bat baino gehiagorekin.

6.2.4.2 Itzultzaileak/Egileak

Atal honetan egile alemanak beren itzultzaileekin lotu ditugu. Ikusi nahi genuen ea loturarik badagoen, itzultzaileak egileren batekin nolabait berezitzen ote diren⁵⁵.

Ondoren, gehien itzultitako egile alemanak dauzkagu, eta bakoitzak izan dituen euskal itzultzaileak:

- **Knister:** Iñaki Aristondo (8), M^a Eli Ituarte (8), Juan Luis Urmeneta (7) eta Zabala eta Ituarte (1).
- **Jakob/Wilhelm Grimm:** Itziar Alkorta (3), Joxan Ormazabal (2), Igara (2), Joan Mari Sarasola (2), Genaro Gomez (1), Ipolito Larrakoetxea (1), Joseba Altuna (1), Josu Landa (1) eta Urmeneta eta Iñurrieta (1).
- **Christine Nöstlinger:** Edurne Azkue (3), Pello Zabaleta (2), Xabier Mendiguren (2), Joxemari Navascues (1), Joxemari Iturralde (1), Juan Legarreta (1), M^a Jose Kerejeta (1), Miren Billelabeitia (1), Xabier Barrutieta (1).
- **Sabine Lohf:** Joxan Ormazabal (10).

⁵⁵ Zabaletari SENEZ aldizkarian irakurrita itzultzaileak egile jakin batean espezializatzeari buruz: "Guk ez daukagu, beharbada, ez beharrik ez posibilitaterik ere, gaur gaurkoz, idazle baten obra guztiak euskaratzeko. Eta, orduan, deskuidoan, ez daukagu horrenbestearainoko beharrik itzultzailea idazle batengan espezializatzeke. Hori nik unibertsitateko irakasleei utziko nieke, ez itzultzaileari, ze gure premiak beharbada larriagoak dira, beste era batekoak dira, eta beste merkatu bat daukagu, beste zabalkunde bat. Horregatik, agian, nahiko eta gehiegi dugu, baldin idazle inportante bakoitzaren obraren bat euskaratzen badugu, haren obra guztia guregana ekartzen ibili gabe" (Biguri, K. eta Zabaleta, J., 1990: 18).

- **Mira Lobe:** Pello Zabaleta (6), Gabriel Ceberio (1), Jon Suarez (1), Joxan Ormazabal (1), , Xabier Mendiguren (1).
- **Angela Sommer-Bodenburg:** Edurne Azkue (4), Gerardo Markuleta (2), Joan Mari Sarasola (1), Xabier Monasterio (1), Juan Legarreta (1).
- **Peter Härtling:** David Urbistondo (2), Xabier Mendiguren (2), Juan Legarreta (2), Pello Zabaleta (1), Xabier Gartzia (1).

Ikusten dugun moduan, ez da inolako espezializaziorik gertatu. Egotekotan kasu bakarra egon da, Sabine Lohf idazlearena, Joxan Ormazabalengan baino ez baitu aurkitu euskal ordezkariarik. Baina hori ere salbuespentzat hartu behar dugu, egile horren bilduma jakin bat baino ez baitzuen Elkarrek argitaratu, haurrentzat bideratutako eskulanei buruzko liburuxkak, paperarekin egin daitekeena, egurrarekin egin daitekeena etab., eta, beraz, horiek guztiak Ormazabalek itzuli zituen. Baina ez dugu uste Lohf-ek idatzitako beste ezer euskaratuko balitz nahitaez Ormazabalek itzuliko zukeenik. Alegia, ez dugu uste egilearekiko fideltasunagatik izan denik.

Christine Nöstlinger idazleak izan dituen euskal itzultzaileak ikustea besterik ez dago: bederatzi itzultzaile desberdin aritu dira egile austriarraren liburuak euskaratzen. Kontrako kasuan — aurreko zerrendan sartu ez dugun arren— Thomas Brezina austriarrari itzuli zaizkion sei lanak Mendigurenek itzuli ditu Desclée argitaletxean. Azken hori izan liteke, beharbada, nolabait egile jakin batean berezitu izandako kasua, baina, hala eta guztiz ere, argi dago ez zaiola egileengan berezitzeko arauari jarraitzen.

Egoera hau guztiz arrunta da, hizkuntza indartsuetan eta argitaletxe-sistema oso boteretsuetan baino ez baita gertatzen itzultzaileak egile jakin batean berezitzea. Baliteke, gainera, HGLa

izanda, are gutxiago gertatzea itzultzailea egile jakin batean espezializatzea.

6.2.4.3 Itzultzaileak/Argitaletxeak

Atal honetan, berriz, argitaletxeekiko lotura aztertu nahi izan dugu, hain zuzen, gehien argitaratu duten itzultzaileek erakusten ote duten nolabaiteko konpromisoa argitaletxe jakinen batekin. Hona hemen lan gehien egindako itzultzaileak eta argitaletxe bakoitzean plazaratutako lan kopurua:

- **Pello Zabaleta:** Ediciones SM (15), Elkar (9), Erein (3), Hordago (2) eta Pamiela (1).
- **Xabier Mendiguren:** Elkar (9), Desclée (9), Ediciones SM (2), Cinsa (1) eta Aizkorri (1).
- **Joxan Ormazabal:** Elkar (12) eta La Galera/Elkar (1).
- **Lola Erkizia & Inazio Mujika:** Alberdania (12).
- **Edurne Azkue:** Desclée (8).
- **Mari Eli Ituarte:** Gero-Mezulari (8).
- **Iñaki Aristondo:** Gero-Mezulari (8).

Zabaleta eta Mendigurenek batez ere Ediciones SM, Elkar eta Descléen egin dute lan, baina, hala ere, nabarmentzekoa da ez dutela argitaletxe jakin bakar batentzat lan egin.

Ormazabalek, jakina, Elkarrentzat egin zuen lan denbora guztian, hain zuzen ere, 1981etik aurrera Elkarreko HGLko arduradun izan zelako bera. Lola Erkizia eta Inazio Mujikaren kasuan ere, biak dira Alberdaniako langileak, eta bertan argitaratu dituzte kaleratutako itzulpen guztiak. Berdin gertatzen da Mari Eli Ituarte eta Iñaki Aristondorekin: Mari Eli Ituarte Mezulariko editore da, eta Aristondo lankide eta ohiko kolaboratzaile du; beraz, Mezulari argitaletxean kaleratu dituzte itzulpenak. Edurne

Azkueren kasuan bai ageri dela nolabaiteko lotura. Alemanetik itzuli dituen lan guztiak Desclée argitaletxearentzat itzuli ditu. Hala ere, eta gure katalogoaren arabera, 90eko hamarkadaz geroztik ez du alemanetik euskarara HGLa itzultzen jarraitu.

Beraz, Azkueren kasuan nolabaiteko lotura bat ageri da argitaletxearekiko. Besteen kasuan, ezin sahiestuzkoa da lotura, editoreak baitira.

Dena den, sortzen diren lan-loturez gain, itzulpenak kaleratzen dituzten argitaletxeen izaerak badu zerikusirik ateratzen dituzten lan kopuruarekin. Izan ere, argitaletxe batzuk euskal argitaletxeak dira, eta horrekin esan nahi da, Euskal Herrian sortuak direla; beste batzuk, ordea, espainiar estatuko argitaletxeen euskal adar edo ordezkariak dira. Normalean, eta salbuespenak salbuespen, atzerriko lanen egile-eskubideak Espainia osoarentzat saltzen dira, eta horrek esan nahi du, egile-eskubideak erosi dituen argitaletxeak duela Espainiako beste hizkuntzetera itzultzeko eskubidea. Hala, euskal argitaletxe batek lan jakin bat euskarara itzuli nahi duenean, eskubideak Espainiako argitaletxeari erosi behar dizkio, eta horrek esan nahi du euskarazko lana gaztelaniazkoa baino beranduago aterako dela. Beste aukera da eskubideak erosi dituen Espainiako argitaletxeak berak itzultzea euskarara, Euskal Herrian dauzkan ordezkartzen bitartez, baina, kasu horretan, argitaletxeak nahi duenean eta hari interesgarria iruditzen zaionean aterako du itzulpena. Horrek esan nahi du zenbait liburu atera gabe gelditzen direla, Espainiako argitaletxeari euskarara itzultzea interesatzen ez zaiolako edota Espainiako eta Euskal Herriko argitaletxeen arteko tratuak aurrera egin ez duelako. Ondorioz, plazaratzen diren itzulpen-eskubideen giltza dute Espainiako argitaletxeek, eta,

besteak beste, horrek azal dezake zergatik ateratzen diren itzulpen asko Espainiako argitaletxeen euskal ordezkari diren argitaletxeetan. Azken urte hauetan sortu dira bestelako ekimen eta zirkuituak, esate baterako, Kalandraka argitaletxe galiziarrena: zuzenean erosten ditu egile-eskubideak sorburu-merkatutik eta, ondoren, estatuko gainerako hizkuntzetara egiten ditu itzulpenak —euskarara, Pamiela argitaletxearekin koedizioan—, hizkuntza guztietan aldi berean argitaratuz.

Orain esandako guztiak izan lezake, beharbada, eraginik zuzenean ala zeharka itzultzerako garaian. Hala ere, orain aztertuko ditugu xeheago zuzenean ala zeharka itzulitako lanen ingurukoak.

6.2.5 Zeharka/Zuzenean itzulitako lanak

Itzuli denaren deskribapen kuantitatiboa egin badugu ere, ezer gutxi esan dugu lan egiteko moduari buruz, alegia, itzultzaileen jardunaren nondik norakoez. Orain hori zehaztu nahi dugu xehetasun garrantzitsu bati erreparatuz: itzulpenak alemanetik zuzenean ala zeharka itzuli diren. Horretarako, ondorengo grafikoaz baliatu gara, zuzenean eta zeharka itzuli diren lanen kopurua zenbatekoa den ikusteko.

Arestian zehaztu dugun moduan, zeharka itzuli dela esaten dugu itzultzaileak sorburu-bertsioa eskura eduki ez duenean, eta, horren orde, beste hizkuntzen batera egindako itzulpenaren bertsioa erabili duenean jatorrizko gisa. Gure kasuan, katalogoko datuei begiratuta, euskararako itzulpenak gaztelaniazko bertsiotik abiatuta egin dira gehienetan.

Koldo Izagirrek, esaterako, gaztelaniazko edo galizierazko bertsiotik euskaratzen du, halaxe jakinarazi zigun Kalandraka argitaletxeok. Dena den, alemanetik gaztelaniara edo galegora itzuli duten itzultzaileekin harremanetan egoten da beti (sorburu-testuan jar dezakeenaren inguruan zalantzarik balu).


Zuzenean egin denean ere askotan edukiko zituzten itzultzaileek gaztelaniazko bertsioak eskura, jakina. Hori, ordea, ez da horren erraza neurtzen, alegia, noiz itzuli duten zuzenezuzenean eta noiz erabili dituzten erreferentziak. Edonola ere, erreferentziak erabilia ere, zuzenean itzultzea dela pentsatzen dugu; kontua da argitaletxeak sorburu-testua eman izana itzultzaileari.

Datu horiek lortzeko, zuzenean argitaletxeekin jarri gara harremanetan eta, zenbaitetan, argitaletxeok berek ere eman dizkigute itzultzaileekin harremanetan jartzeko beharrezko datuak. Horrela lortu genuen, esate baterako, Joxan Ormazabalekin harremanetan jartzea. Berak, esate baterako, argi eta garbi jakinarazi zigun guztia gaztelaniatik egin zuela, eta, horretaz gain, bildumako arduradun zenez, beste hainbat itzultzailearen lan egiteko moduaren berri ere eman zigun.

Itzultzaile askoren posta elektronikoa Interneten bertan ere agertzen denez, zuzenean idatzi genien. Horrelaxe lortu genuen Xabier Mendigurenekin hitz egitea. Hark kontatu zigunez, hasiera batean dena egitean zen gaztelaniatik. Berak ere, alemana jakinagatik, *Heidi* bere lehen itzulpena (1975) gaztelaniazko bertsiotik abiatuta egin zuen, hain zuzen ere, argitaletxeen azpiegitura, lan egiteko modua eta abar ez zeudelako, artean,

batere finkatuak, eta lehentasuna liburu batzuk euskaraz edukitzea zen. Geroago, ordea, gauzak beste modura egiten hasi omen ziren, eta berak ia beti jaso omen ditu argialetxeen eskutik sorburu-bertsioak, alemanezkoak, alegia; askotan, hori bai, gaztelaniazko bertsioarekin batera.

Hala ere, lehen esan moduan, kasu guztietan ezin izan dugu jakin zuzenean ala zeharka itzuli den. Horregatik, ondorengo grafikoan galdera ikurrak ere sartu ditugu, zalantza irudikatuz. Izan ere, ikerketaren urrats honetan, ezin dugu ezer egiaztatutzat eman, eta, are, galdera ikurrik gabe zuzeneko eta zeharkako itzulpen gisa sailkatu ditugunak *ustez zuzenean itzulitakoak* eta *ustez zeharka itzulitakoak* direla ulertu behar dugu (*assumed direct / indirect translations*). Lan honen ondorengo urratsetan, testu-azterketara iritsita, *ustez zuzenean eta zeharka itzuli direla* diogun lan horiek benetan hala egin diren egiaztatu ahalko dugu akaso.




Irudia 23. Zuzenean eta zeharka itzulitako lanak.

Ikus daitekeen moduan, araua edo itzulpen-jokabide nagusia zeharka itzultzea da. Dena den, arau edo jokabide hori argiago ikusiko dugu hurrengo grafikoan.

Hurrengo grafikoan, zuzenean eta zeharka lan egin duten itzultzaileen proportzioa irudikatu dugu, eta areago mugatu dira kopuruak.


Izan ere, zuzenean itzultzen duten itzultzaileen kopurua ez da batere handia. Zabaletak eta Mendigurenek asko itzuli dute, eta horregatik ez zen horren txikia zuzenean itzultitako liburuen kopurua (23. grafikoa).



Irudia 24. Zuzenean eta zeharka itzultzen duten itzultzaileen kopurua.

24. irudiko grafikoan ikusten den moduan, berriz, itzultzaileen gehiengoak zeharka itzuli du; kopuru hori, gainera, are nabarmenago da zeharka? kopurua ere gehitzen badugu: % 65koa da zeharka lan egin duten itzultzaileen kopurua.

Hurrengo grafikoan zuzenean ala zeharka itzultako lanen kopurua kronologiarekin lotu nahi izan dugu, bilakaeraz jabetzeko.



Irudia 25. Zuzenean eta zeharka itzuli den lan kopuruaren bilakaera.

Itzultako lan-kopuruaren bilakaeraren grafikoan gertatzen zen moduan, hemen ere nabari dugu 80ko hamarkadatik aurrera itzultako kopuruaren gorakada, baina, badugu beste xehetasun bat, alegia, gorakada horretan zeharka itzuli zela gehienbat.

Ezin esan dezakegu zuzenean itzultakoaren lerroa ahul nabari zaigunik, baina, oro har, zeharka itzultzearen jokabidea gailentzen da ia urte guztietan (grafiko biribiletan ikusitako arauari jarraiki).

Aurrerago esaten hasi garen moduan, 80ko hamarkadan, itzulpen kopuruak gora egin ahala, zeharka itzultzeko jokabidea nagusitu zen. Hasiera hartan Zabaletak, Mendigurenek eta Azkuek zuzenean itzultzen bazuten ere, beste hainbat eta hainbatek zeharka itzuli zuten. Aurrerago, 90eko hamarkadan, denetik ikusten dugu: 94tik aurrera badirudi zuzenean askoz gehiago

itzultzen dela, hain zuzen, garai hartan batez ere Mendiguren eta Azkueren lanak argitaratu zirelako, eta biek zuzenean itzultzen zutelako, baina gero berriz ere behera doa kopuru hori.

Azken hamarkadan zeharkakoaren lerroak gorakada bat izan du. Gogoratu behar dugu 2005-2006 urteetan *Kika Supersorginaren* lan asko argitaratu direla eta, kasu guztietan, zeharka itzuli dela.

Gorabehera handiko grafikoa dugu, eta, egia esan, ez dugu halako joera nabarmenik sumatzen, kopuru absolutuak ere txikiak baitira. Hori azken bi urte hauetako datuetan ikus dezakegu nahiko argi: 2010ean 8 itzulpen argitaratu ziren, eta 8ak zuzenean itzuli ziren, horregatik dago zuzeneko lerroa horren goian; 2011 urtean, berriz, 5 lan argitaratu ziren, 3 zuzenean itzuliak eta 2 zeharka itzuliak. Beraz, katalogoko azken urtean gehiago izan ziren zuzenean itzultitakoak, baina ez zeharka itzultitakoak baino askoz gehiago. Nolanahi den, datu horiek behin-behinekotzat hartu behar ditugu, epitetuetan oinarrituak baitira, hau da, argitaletxeetakoek edo itzultzaileek esandakoaren arabera osatuak. Hemendik aurrera sakontzen joango gara gure azterketan eta horrela iritsiko gara itzulpen moten konplexutasuna modu osoagoan ikustera.

Atal honetan ikusitakoak laburtze aldera, ikusi dugunez, alemanetik euskaratutako HGLak 83 urteko ibilbidea egin du, betiere osatu dugun katalogoaren arabera. Nahiko goiztiar iritsi zen aurreneko lana, baina Espainiako Gerra Zibilak eta Frankismoaren ondorioz, alemanetik euskaratutako lanak 80ko hamarkadatik aurrera hasi ziren argitaratzen modu sistematikoan.

Beraz, egiari zor, 31 urtekoa da modu osasuntsuan eta jarraituan egin den ibilbidea. Gaur egun, alemanetik euskaratutako 6 bat HGL-lan argitaratzen dira urtero.

Asko dira itzuli diren egile alemanak, nahiz eta bakoitzari lan kopuru txikia itzuli zaion. Dena den, itzultitako egile alemanak asko direla esaten dugun arren, itzuli gabe gelditu direnak ere asko direla azpimarratu nahi genuke, eta horrek agerian uzten duela bi sistemen arteko aldea. Iristen zaizkigun lanak, gainera, ez dira, normalean, berehala iristen, eta hor argitaletxeen botereak eta ekimenak du zerikusia: Espainiako argitaletxe batek estatu osoko hizkuntzei dagozkien eskubideak erosten baditu, euskal argitaletxeak argitalpena bideratzeko autonomia galtzen du.

Asko dira, baita ere, lanean jardun duten itzultzaileak, baina gutxi modu jarraituan aritu direnak. Hala, horrek agerian uzten du espezializazio gabezia, eta itzultzaile bakan batzuk egon direla bereziki HGL alemana euskaratzen. Azken urte hauetan, ordea, HGL alemaneko lan bat baino gehiago itzuli duten itzultzaileen izen gehiago ageri dira; itzultzaileen prestakuntzan egon diren aurrerapenak izango zuen eragina.

Nagusiki egin den itzulpen motari dagokionez, ikusi dugu zeharka itzuli dela gehienbat, eta, are adierazgarriagoa izan den datua: lanean jardun duten itzultzaileen gehiengo handi bat aritu da zeharkako itzulpena egiten. Azken urteotan hastapenetan baino gehiago itzuli da zuzenean, baina, hala ere, badira zeharkako itzulpenak ere.

Hala eta guztiz ere, katalogo mailako deskribapena izan da hau, eta, hemendik aurrera, ondorio gehiago ateratzen joan nahi

genuke, batez ere zuzenean/zeharka itzulpen-praktikei dagokienean.

7 Corpusa

Seigarren atalean, katalogoak erakutsitako egoeraren inguruko ondorioak atera ditugu, baina helburua testuetaraino iristea denez, katalogotik corpuserako jauzia egin behar dugu. Atal honetan, hain zuzen ere, jauzi hori nola eta zein irizpide kontuan hartuta egin dugun azalduko dugu, eta, ondoren, corpusa bera nola prestatu dugun, ikerketarako ustiatzeko moduan egon dadin.

7.1. KATALOGOTIK CORPUSERA

Alemanetik euskaratutako HGLaren katalogoa osatuta, ikergaiaren argazki orokor bat egin dugu. Irudi orokor horri esker, gainera, ondorio batzuk atera ditugu, 6. atalean azaldu ditugunak, eta ondorio horietan oinarrituta eman dugu hurrengo urratsa, corpuserako lanak hautatzearena, alegia.

Izan ere, katalogoa informazio osoa biltzen duen zerrenda bat da, alemanetik euskarara itzuli diren HGL-lan guztiak bildu dituena, bakoitza bere fitxarekin, eta, fitxa bakoitzean, interesgarri jo ditugun datuekin. Era berean, ordea, katalogoa osatzea eta deskribatzea aurreneko urratsa da gure ikerketan: testuetara

iristeko tresna. Katalogoari esker ko-testu edo testuinguru deiturikoa deskribatu ahal izan dugu, baina hurrengo urratsa eta gure helburua testuetara iristea da. Jakina, ezinezkoa da katalogoko 242 lanen testuak aztertzea; horregatik, katalogoaren deskribapenetik ateratako ondorioetan oinarrituta, lan batzuk aukeratu ditugu, eta horiek osatu dute corpusa.

Ikerketa deskribatzaileen metodologiari zorrotz jarraitu nahian, bi corpus bereizi ditugu 1. corpusa eta 2. corpusa. Camino Gutiérrez Lanzak TRACE ikerketa-taldearen metodologia azaltzen duen artikuluan ere halaxe azaltzen du: katalogoko datuak xeheki aztertuta, adierazgarrienak diren lanak hautatzen dira, eta lan horien zerrendak osatzen du 1. corpusa; ondoren, ikerketaren hipotesiak eta helburuak zein diren gogoan izanik, 2. corpusa osatuko duten lanak hautatzen dira 1. corpusetik, eta horiek bai, testuak dira (Gutiérrez, 2005: 58-59).

Lehenengo corpusa, beraz, katalogoko lanen aukeraketa bat izan da. Bigarren corpusa, berriz, bigarren galbahe bat pasatuta 1. corpusetik hautatutako lanen testuek osatu dute, hala nola sorburu-lanek, itzulpenek eta, zegokion kasuan, zubi-hizkuntza gisa erabilitako testuek. Nolanahi den, katalogotik 1. corpusera eta 1. corpusetik 2.era pasatzeko, zenbait irizpidetan oinarritu gara, eta horiek zeintzuk izan diren azaldu nahi genuke orain.

Ikerketa honetan alemanetik euskaratutako HGLa aztertu nahi izan dugu, hain zuzen ere, bi ildori jarraiki:

- Batetik, alemanetik euskarara zuzenean itzultako lanak dauzkagu (eta horietan baliatutako itzulpen-estrategiak aztertu nahi izan dugu).

- Bestetik, alemanetik euskarara beste zubi-hizkuntzaren baten bitartez itzultako lanak dauzkagu (zubi-hizkuntza hori ia beti gaztelania izan da, hau da, jatorrizkoa alemanezko bertsioa izan beharrean, gaztelaniazko bertsioetik abiatuta egin dira itzulpenok; kasu horietan baliatutako itzulpen-estrategiak aztertu nahi izan ditugu, zehazki, zubi-hizkuntzaren interferentzia zer-nolakoa izan den).

Ikerlanaren hasieratik presente izan ditugun bi ildo horiek oso kontuan hartu ditugu katalogotik hautatu beharreko lan-kopurua zehazteko garaian ere.

Esan behar da katalogoko lan gehienak zeharka itzultakoak direla. Lan kopuru osoaren % 53 itzuli da zeharka, eta % 44, aldiz, zuzenean; gainerakoak (% 3), ezin izan ditugu zehaztu, zuzenean ala zeharka itzuli diren. Portzentajeak horiek izanik eta zeharka itzultako lanak gehiago badira ere, 1. corpusa osatzeko lan kopuru bera hartu dugu multzo bietatik. Hala, oinarri gisa hartu dugun irizpide nagusia bi multzoen arteko oreka bilatzea izan da, zuzeneko eta zeharkako itzulpenen arteko alderaketa egitea dugulako helburu.

Bestalde, katalogoan jasotako aurreneko lana 1929koa da. Alemanetik euskaratutako HGLaren bilakaera, beraz, 83 urtekoa da. Bilakaera horrek, ordea, ez du beti lerro zuzen bat irudikatu: katalogoari egindako deskribapenean ikusi dugun moduan, 80ko hamarkadatik aurrera hasi zen alemanetik euskaratutako HGLaren sistema benetan osatzen, garai horretan ugaritu baitzen nabarmen itzulpen-kopurua.

Hori izan da, bestalde, katalogotik corpusera jauzi egiterakoan erabaki beharreko beste kontu bat. Izan ere, ikerketa kronologiko bat egin nahi izan bagenu, katalogoa osatzen duten garai

guztietatik hautatu beharko genituzkeen zenbait lan, itzultzeko moduak denboran zehar nola aldatu diren ikusteko. Ikerketaren helburua, ordea, ez da itzulpen-estrategien ikuspegi diakronikoa lortzea, baizik eta lehen aipatutako bi ildo horien inguruan erabili diren itzulpen-estrategien ikuspegi lortzea, alegia, zuzenean eta zeharka itzuli izan denean zer-nolako estrategiak erabili diren jakitea eta interferentziaren eragina aztertzea.

Ondorioz, 80ko hamarkadatik aurrera egindako itzulpenetan oinarritu gara, osatu dugun katalogoa aztertuta egin dugun deskribapenean ikusi dugunez, orduantxe hasi baitzen alemanetik euskaratutako HGLaren sistema eratzen. Era berean, 3.1.2 atalean aipatzen genuenez, Lopez Gasenik eta Etxanizek ere 1980az geroztik euskal HGLan aro berri bat hasi zela aitortzen dute, aldaketa kuantitatiboez gain, aldaketa kualitatiboak gertatu zirelako (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 25). Esanguratsuagoa zaigu, beraz, laurogeiko hamarkadatik aurrerako produkzioa aztertzea, gure lehentasuna ez baita, hainbeste, denborarekin itzulpen-euskarak izan duen eraldaketa aztertzea, baizik eta zuzenean eta zeharka itzuli izan denean zer-nola itzuli izan den eta, gaur egun, nola itzultzen den aztertzea. Horregatik, batez ere gaur egungotik gertuago dauden lanak hautatzea interesatu zaigu.

Bukatzeko, berriz azpimarratu nahi genuke orekaren irizpidea, horren arabera hautatu baititugu askotariko argialetxe eta itzultzaileen lanak. Itzultzaile eta argialetxe batzuek lan gehiago egin dute, baina, oreka bilatzearren, guztien ordezkari za zabala segurtatu nahi izan dugu. Izan ere, itzultzaile bakoitzak bere estiloa eta ahotsa ditu, eta gure ikerketarako ahalik eta ahots gehien kontuan hartzea komeni izan zaigu, ondorioak ere

ugaritasun eta aberastasun horren isla izan daitezzen. Argitaletxe desberdinak hautatzearen arrazoia ere antzekoa da: lan-molde desberdinak kontuan hartzea, eta gure ikerketa ahots eta lan egiteko modu bakar baten isla izan ez dadin. Bestalde, garai desberdinetan egindako lanak aukeratu ditugu (baina betiere 80ko hamarkadatik aurrerakoak) eta itzultitako egile alemanak eta obra bakoitzak sorburu-kulturan nahiz Euskal Herrian izan duen garrantzia ere hartu dugu kontuan.

Beraz, laburbilduz, eta kontua argitze aldera, hona hemen katalogotik 1. corpusera pasatzeko erabili diren irizpideak:

- Zuzenean nahiz zeharka itzultitako lanak hautatu dira, lan kopuru bera multzo bietatik: 28na.
- 80ko hamarkadatik aurrera itzultitakoen artean egin da hautaketa, horixe delako garairik emankorrena.
- Multzo bakoitzetik (zeharka itzuli direnetik eta zuzenean itzuli direnetik), itzultzaile bakoitzak egindako itzulpen kopuruari erreparatu zaio, baina baita beste hainbat daturi ere, besteak beste, argitaletxe desberdinek ateratako lanak izatea, urte desberdinetakoak izatea eta gehien itzultitako egile alemanak hautatzen ditugula ere kontuan hartuta.

7.1.1 Zuzenean itzultitakoak

Lehen ere aipatu dugun moduan, zuzenean itzultitako lanak 112 dira (lan kopuru osoaren % 44). Dena den, egile kopurua ez dator lan kopuruarekin bat, itzultzaile batzuek lan asko itzuli dituztelako (horixe da, esaterako, Zabaletaren edo Mendigurenen kasua).

Zuzenean itzulitako lanak hautatzerakoan, ordea, ez diogu soilik itzultzaileak itzulitako lan kopuruari begiratu. Honako irizpide hauek erabili ditugu hautaketarako:

- Itzultzaileak itzulitako lan-kopurua. Zabaletak, esaterako, zuzenean itzulitako lan gehienak itzuli ditu, beraz, pentsatzekoa da corpuserako hautatu ditugun lan kopuru adierazgarri bat berak egindakoa izatea. Horrek ez du esan nahi, dena den, egindako itzulpen kopuruaren proportzioan hautatu ditugula itzultzaileak. Gogora ditzagun lehendik ere aipatu ditugun bestelako irizpideak:
- 80ko hamarkadatik aurrera, urte desberdinetan argitaratutako lanak.
- Argitaletxe desberdinetan kaleratutako lanak.
- Gehien itzuli diren egile alemanen lanak.
- Gurean gehien berrargitaratu diren lanak edo, gurean horren arrakastatsuak izan ez badira ere, sorburu-herrialdean garrantzi berezia izan duten lanak.

Irizpide horiei jarraiki, ondorengo zerrenda honek jasotzen ditu zuzenean itzulitakoen artetik hautatu ditugun lanak. Zerrendaren ostean, taula bat erantsi dugu, hautatutako lanek argitaletxeen artean osatzen duten irudia hobeto ikusteko. Lanak zerrendan zehaztutako kodearen arabera daude identifikatuta, eta parentesi artean datorren zenbakiak orrialde kopurua adierazten du.

- AZKUE, E. (1995), *Txokoloski, urtebetetzeko txakur trufazalea*. Bilbo: Desclé. 172 orrialde (Angela Sommer-Bodenburg, *Schokolowski, der Geburtstags-Trüffelhund*). **Som95Tx**
- AZKUE, E. (1994), *Franzen eskolako kontuak*. Bilbo: Desclée. 50 orrialde (Nöstlinger, *Schulgeschichte von Franz*). **Nös94Fr**

- ERKIZIA, L eta MUJIKA, I. (2004), *28 ipuin barre egiteko*. Irun: Alberdania. 64 orrialde (Ursula Wölfel, *Achtundzwanzig Lachgeschichten*). **Wöl0428**
- ERKIZIA, L. eta MUJIKA, I (2008), *Antton eta hostoak*. Irun: Alberdania. 32 orrialde (Ole Könnecke, *Anton und die Blätter*). **Kön08An**
- ERKIZIA, L. eta MUJIKA, I. (2006), *Zer da zalaparta hau?* Irun: Alberdania. 28 orrialde (Moritz Petz *Was ist das für ein Lärm?*). **Petz06Zer**
- GARIKANO, A. (2007), *Txerrikume pirata*. Donostia: Elkar. 61 orrialde (C. Funke, *Das Piratenschwein*). **Fun07Tx**
- GOMEZ, G. (1999), *Grimm anaien ipuinak: haur-ipuinak eta supazterrekoak*. Iruña: Pamiela. 366 orrialde (Grimm, *Kinder- und Hausmärchen*). **Grimm99Gr**
- LANG, J. eta ZIEMKIEWICZ, J (2008), *Peru tximaluze*. Zeberio: Zeberio Udal. 38 orrialde (Heinrich Hoffmann, *Struwwelpeter*). **Hoff08Pe**
- LEGARRETA, J. (1990), *Banpiro txikia etxez aldatzen da*. Bilbo: Alfaguara. 181 orrialde. (Sommer-Bodenburg, *Der kleine Vampir zieht um*). **Som90Ban**
- LEGARRETA, J. (1992), *Egin hegaz, Koko!* Bilbo: Desclée. 213 orrialde (Nöstlinger, *Maikäfer flieg!*). **Nös92Eg**
- MENDIGUREN, X. (1989), *Amona eta biok*. Donostia: Elkar. 103 orrialde (Achim Bröger *Oma und ich*). **Brö89Am**
- MENDIGUREN, X. (1991), *Hodeia*. Donostia: Elkar. 208 orrialde. (Gudrun Pausewang, *Die Wolke*). **Pau91Ho**
- MENDIGUREN, X. (1991), *Ingeles bat etxean*. Donostia: Elkar, 150 orrialde (Nöstlinger, *Das Austauschkind*). **Nös91In**
- MENDIGUREN, X. (1992), *Franze*. Donostia: Elkar. 163 orrialde (P. Härtling, *Fränze*). **Här92Fr**
- MENDIGUREN, X. (1995), *Jojo, pailazo baten historia*. Donostia: Elkar. 102 orrialde (Ende, *Das Gauklermärchen*). **En95Jo**

- MENDIGUREN, X. (2001), *Diosalak espirituen gaztelutik*. Bilbo: Desclée. 170 orrialde (Brezina, *Grüsse aus dem Geisterschloss*). **Bre01Dio**
- NARBAIZA, A. (1992), *Lotte eta Luisa, hau bizki parea!* Donostia: Elkar. 183 orrialde (Erich Kästner, *Das doppelte Löttchen*). **Käs92Lo**
- OÑEDERRA, L (2007), *Sommer jaunaren istorioa*. Donostia: Erein. 112 orrialde (Patrick Süskind *Geschichte von Herrn Sommer*). **Süs07So**
- SEBRANGO, N. (2008), *Felix urakana*. Bilbo: Gero-Mensajero. 144 orrialde (Joachim Masannek, *Leon der Wirbelwind*). **Mas08Fe**
- UGIDOS, A. (1990), *Amaigabeko istorioa*. Bilbo: Alfaguara. 433 orrialde (Ende, *Die unendliche Geschichte*). **En90Amai**
- ZABALETA, P. (1981), *Estepako semeak I eta II*. Donostia: Hordago. 28 eta 29 orrialde. (Hans Baumann, *Steppensöhne*). **Bau81Est**
- ZABALETA, P. (1987), *Jauregiko Iratxoa*. Bilbo: Ediciones SM. 85 orrialde (Mira Lobe, *Das Schlossgespenst*). **Lo87Jau**
- ZABALETA, P. (1987), *Markako eroak*. Bilbo: Ediciones SM. 131 orrialde. (Preußler, *Bei uns in Schilda*). **Preu87Mar**
- ZABALETA, P. (1990), *Amona maite, zure Susik*. Bilbo: Ediciones SM. 100 orrialde (Nöstlinger, *Liebe Oma deine Susi*). **Nös90Am**
- ZABALETA, P. (1994), *Lena teilatuan*. Donostia: Elkar. 142 orrialde (Peter Härtling *Lena auf dem Dach*). **Här94Le**
- ZABALETA, P. (1996), *Alperrontzi erregea*. Bilbo: Ediciones SM. 95 orrialde (Mira Lobe *König Tunix*). **Lo96Alp**
- ZABALETA, P. (2002), *Gabon panpinatxo*. Donostia: Elkar. 188 orrialde (Hassenmüller, *Gute Nacht Zückerpüppchen*). **Hass02Ga**
- ZABALETA, P. (2004), *Maitasuna besterik ez: Sandrak Meike maite du*. Donostia: Elkar. 210 orrialde (Marliese Arold, *Einfach nur Liebe*). **Ar04Mai**

7.1.2 Zeharka itzultitakoak

Zeharka itzultitako 179 lan dauzkagu katalogoan. Itzultzaile kopuruari dagokionez, ordea, zuzenean baino itzultzaile gehiago aritu dira zeharka itzultzen, baina, oro har, esan behar da lan bakarra edo bi itzuli dituzten itzultzaile asko daukagula, modu esporadikoan lan egin duen itzultzaile asko, alegia.

Beraz, zeharka itzultitako lanak hautatzeko ere askotariko irizpideak erabili ditugu, alegia, ez soilik gehien lan egin duten itzultzaileei dagozkien lanak, baizik eta, era berean, urte desberdinetan itzuli direnak, argitaletxe desberdinetakoak etab.

Hona hemen, beraz, alemanetik euskarara zeharka itzultitako lanen zerrenda gordina eta, ondoren, taula:

- ARISTONDO, I. (2006), *Kika supersorgina altxorraren bila*. Bilbo: Gero. 151 orrialde (Knister, *Hexe Lilli aus der Jagd nach dem verlorenen Schatz*) **Knis06Kik/al**
- EUBA, A. (2003), *Maitasun istorio bat*. Donostia: Hiria. 30 orrialde (Piotr Wilkon, *Leopanter, eine Liebesgeschichte*). Ingelesetik. **Wil03Mai**
- GARTZIA, X (1984), *Fantasmatoxa*. Donostia: Elkar. 124 orrialde (Preußler, *Das kleine Gespenst*) **Preu84Fan**
- HIDALGO, B. (1983), *Maiatzak 35*. Donostia: Elkar. 137 orrialde (Kästner, *Der 35. Mai oder Konrad reitet in die Südsee*) **Käs83Mai**
- HITZURUN (2006), *Fitxaketa bikaina*. Euba: Ibaizabal. 145 orrialde (Frauke Nahrgang, *Die Teufelskicker1*) **Nahr06Fitx**
- IGERABIDE, J.K. (1992), *Txokolate garratza*. Bilbo: Desclee. 124 orrialde (Mirjam Pressler, *Bitterschokolade*) **Pres92Txoko**

- IPARRAGIRRE, P (1985), *Eskubeltz taldearen abenturak*. Donostia: Elkar. 129 orrialde (Hans Jürgen Press, *Die Abenteuer der Schwarzen Hand*) **Press85Es**
- IPARRAGIRRE, P (1986), *Sorgin txikia*. Donostia: Elkar. 164 orrialde (Preußler, *Die kleine Hexe*) **Preu86Sor**
- ITUARTE, M.E. (2003), *Kika Supersorginak ikasgela asaldatzen du*. Bilbo: Gero-Mensajero. 103 orrialde (Knister, *Hexe Lilli stellt die Schule auf den Kopf*) **Kni03Kik/ikg**
- ITUARTE, M.E. (2007), *Kika supersorgina eta eguberrien xarma*. Bilbo: Gero-Mensajero. 121 orrialde (Knister, *Hexe Lilli und der Weihnachtszauber*) **Kni07Kik/eg**
- ITURRALDE, J.M. (1992), *Konrad edo kontserba poto batetik atera zen haurra*. Bilbo: Desclée. 143 orrialde (Nöstlinger, *Konrad oder das Kind aus der Konserverbüchse*) **Käs92Kon**
- IZAGIRRE, K (1999), *Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo*. Pontevedra: Kalandraka. 24 orrialde (Werner Holzwarth, *Vom kleinen Maulwurf, der wissen wollte, wer ihm auf den Kopf gemacht hat*) **Holz99Bu**
- IZAGIRRE, K (1999), *Nola dastatu ilargia?* Pontevedra: Kalandraka. 28 orrialde (Michael Grejniec, *Wie schmeckt der Mond?*) **Grej99No**
- KALEKUMEAK (1982), *Txerritxoaren ezkontza*. Madril: Altea. 36 orrialde (Helme Heine, *Na warte sagte Schwarte*) **Hei82Tx**
- LEGARRETA, J (1989), *Puntutxo eta Anton*. Bilbo: Alfaguara. 136 orrialde (Kästner, *Pünktchen und Anton*) **Käs89Pun**
- NAVASCUES, J (1994), *Markel, Maddi eta Maluta*. Madril: Alfaguara. 123 orrialde (Nöstlinger, *Jokel, Julia und Jericho*). **Nös94Ma**
- ORMAZABAL, J (1990), *Botoiak*. Donostia: Elkar. 28 orrialde (Sabine Lohf, *Ich mach was mit Knöpfen*) **Lohf90Bo**
- ORMAZABAL, J (1995), *Amona sagar gainean*. Donostia: Elkar. 165 orrialde (Mira Lobe, *Die Omama im Apfelbaum*) **Lo95Am**

- OSSA, J (1993), *Animalien Biltzarra*. Bilbo: Alfaguara. 103 orrialde (Kästner, *Der Konferenz der Tiere*) **Käs93An**
- SARASOLA, J.M. (1988), *Munduko haurrik xarmangarrienak*. Donostia: Elkar. 144 orrialde (Gina Ruck-Pauquet, *Die bezauberndsten Kinder der Welt*) **Ruc88Mun**
- SARASOLA, J.M. (1988), *Banpiro txikia*. Bilbo: Afaguara. 193 orrialde (Angela Sommer-Bodenburg, *Der kleine Vampir*) **Som88Ban**
- SARASOLA, T (1991), *Emilio eta detektibeak*. Donostia: Elkar. 176 orrialde (Kästner, *Emil und die Detektiven*) **Käs91Em**
- UMEREZ, N eta AZPITARTE, A (1986), *Suzko zapatak eta haizezko sandaliak*. Donostia: Elkar. 111 orrialde (U. Wölfel, *Feuerschuh und Windsandale*) **Wöl86Su**
- URIARTE, J (1997), *Sardina latako sirena*. Bilbo: Anaya. 112 orrialde (G. Pausewang, *Die Seejungfrau in der Sardineenbüchse*) **Pau97Sa**
- URMENETA, J.L. (2005), *Daniren urtebetetzea*. Bartzelona: Bruño. 59 orrialde (Knister, *Hexe Lilli feiert Geburtstag*) **Kni05Kik/Da**
- URMENETA, J.L. (2006), *Sorgindutako futbol partidua*. Bartzelona: Bruño. 59 orrialde (Knister, *Hexe Lilli und das verzauberte Fussballspiel*) **Kni06Kik/sor**
- ZALDUA, X (1991), *Tigretxo orroelaria eta gangsterrak*. Donostia: Elkar. 68 orrialde (Reiner Zimmik, *Der kleine Brülltiger*) **Zim91Tigr**
- ZUBELDIA, I (1984), *Gillen Tell*. Donostia: Elkar. 36 orrialde (Schiller, *Wilhelm Tell*) **Schi84Gi**

	Elkar	Alfaguara- Descleé	Mezulari	Anaya	Kalandraka	Hiria	Bruño	Altea	Ibaizabal
Ormazabal (2)	Loh90Bo (28), Lo95Am (165)								
Ituarte (2)			Kn03Kik/ik g (103), Kn07Kik/e g (121)						
Kalekumeak (1)								Hei82Tx (36)	
Hidalgo (1)	Käs83Mai (137)								
Zubeldia (1)	Schi84Gi (36)								
Gartzia (1)	Preu84Fan (124)								
Iparagirre (2)	Press5Es (129), Preu86Sor (164)								
Umerez eta Azpiarte (1)	Wöl86Su (111)								
J.M. Sarasola (1)	Ruc88Mun (144)	Som88Ban (193)							
Legarreta (1)		Käs89Pun (136)							

	Elkar	Alfaguara- Desclée	Mezulari	Anaya	Kalandraka	Hiria	Bruño	Altea	Ibaizabal
T. Sarasola (1)	Käs91Em (176)								
Ossa (1)		Käs93An (103)							
Uriarte (1)				Pau97Sa (112)					
Izagirre (2)					Holz99Bu (24), Grej99No (28)				
Igerabide (1)		Press92Txoko (92)							
Zaldúa (1)	Zim91Tigr (68)								
Euba (1)						Wil03Mai (30)			
Urmeneta (2)							Kni05Kik/D a (59), Kni06Kik/s or (59)		
Aristondo (1)									
Hitzurun (1)									Nahr06Fit x (145)
Iturralde (1)		Käs92Kon (143)							
Navascues (1)		Nös94Ma (123)							

Hurrengo urratsean, lehenengo corpora osatu duten 56 lanen zerrendari bigarren galbahea pasatu eta bigarren corpora osatu dugu.

Lehenengo corpora osatzeko adierazgarrienak diren lanak hautatu ditugu, katalogoaren azterketatik ateratako ondorio batzuen arabera eta gure ikerketaren helburua kontuan hartuta. Bigarren corpora osatzeko ere berdin-berdin eutsi diogu orekaren irizpideari, baina, kopuruari dagokionez, ez dugu testu kopuru bera hartu zuzeneko itzulpenen eta zeharkako itzulpenen artetik. Kontuan izan dugu zeharkako itzulpenen kasuan hiru bertsio izango genituela (jatorrizkoa, zubi-hizkuntza eta xede-hizkuntzako bertsioa), eta, horrexegatik, zuzenean itzultitakoak baino lan kopuru txikiagoa hartu dugu, orrialde, esaldi eta hitz kopuruarekin. Bestalde, 2. corpora osatzeko urrats honetan beste irizpide bat ere gehitu dugu, eskuragarritasunarena, alegia. Izan ere, lehenengo corpusean baziren, esaterako, EHUko liburutegian geneuzkan alemanezko liburuak, eta horiek hobetsi ditugu bigarren corpuserako. Kontuan hartu behar baita, bigarren urrats honetan, lanen testuak eskuratu egin behar direla, bigarren corpora ez dela zerrenda huts bat, alegia.

Beraz, adierazgarrienez jotzen genituen lanak 1. corpusean aukeratuak genituzenez, 2. corpuserako jauzia egiteko, testu-masen orekari eta lanen eskuragarritasunari erreparatu diogu. Hala, honako hauek dira bigarren corpora osatzeko hautatu ditugun lanak, gure ikerketa burutzeko baliatuko ditugun testuak:

Taula 1 Corpusa osatzen duten lanak.

Zuzenean itzulitako lanak (19) 1.190 o. inguru TXT formatuan	Zeharka itzulitako lanak (14) 1.023 o. inguru TXT formatuan
DSG - <i>Das Schlossgespenst</i> (Lobe)	DOA - <i>Die Omama im Apfelbaum</i> (Lobe)
LOS - <i>Liebe Oma deine Susi</i> (Nöstlinger)	HLJ - <i>Hexe Lilli auf der Jagd nach dem verlorenen Schatz</i> (Knister)
LD - <i>Lena auf dem Dach</i> (Härtling)	35M - <i>Der 35. Mai</i> (Kästner)
GNZ - <i>Gute Nacht, Zuckerpüppchen</i> (Hassenmüller)	DKG - <i>Das kleine Gespenst</i> (Preußler)
EL - <i>Einfach nur Liebe</i> (Arold)	DASH - <i>Die Abenteuer der schwarzen Hand</i> (Press)
WO - <i>Die Wolke</i> (Pausewang)	DKH - <i>Die kleine Hexe</i> (Preußler)
DAK - <i>Das Austauschkind</i> (Nöstlinger)	FSWS - <i>Feuerschuh und Windsandale</i> (Wölfel)
FR - <i>Fränze</i> (Härtling)	PA - <i>Pünktchen und Anton</i> (Kästner)
DGM - <i>Das Gauklermärchen</i> (Ende)	ED - <i>Emil und die Detektive</i> (Kästner)
28LG - <i>Achtundzwanzig Lachgeschichten</i> (Wölfel)	DKT - <i>Die Konferenz der Tiere</i> (Kästner)
AUB - <i>Anton und die Blätter</i> (Konnecke)	VKM - <i>Vom kleinen Maulwurf, der wissen wollte, wer ihm auf den Kopf gemacht hat.</i> (Holzwarth)
WL - <i>Was ist das für ein Lärm?</i> (Petz)	WSM - <i>Wie schmeckt der Mond?</i> (Grejniec)
SK - <i>Schokolowski, der Geburtstags-Trüffelhund</i> (Sommer-Bodenburg)	KND - <i>Konrad oder das Kind aus der Konservenbüchse</i> (Nöstlinger)
DDL - <i>Das doppelte Lottchen</i> (Kästner)	JJJ - <i>Jokel, Jula und Jericho</i> (Nöstlinger)
KHM - <i>Kinder- und Hausmärchen</i> (Grimm)	
DPS - <i>Das Piratenschwein</i> (Funke)	
DGS - <i>Die Geschichte von Herr Sommer</i> (Suskind)	
WFKD - <i>Die wilden Fussballkerle: Deniz die Lokomotive</i> (Masannek)	
STP - <i>Der Struwwelpeter</i> (Hoffmann)	

7.2. CORPUSA OSATZEA

Corpuseko lanak zein izango diren hautatuta, hurrengo lana corpusa bera gorpuztea izan da, corpusa osatzea, testuak baitira corpusaren osagaiak.

Aurreneko pausua, beraz, testuak eskuratu eta horiek digitalizatzea izan da, corpus elektronikoa osatu nahi izan baitugu, eta horrek esan nahi du corpusa osatzen duten liburuak eskaneatzea eta txukuntzea, eskaneatutako edozein testu zikin samar gelditu ohi baita.

Esan bezala, jatorrizko liburuetakoz batzuk EHUko liburutegitik hartu ditugu. Beste asko Frankfurteko Goethe Unibertsitateko HGL-liburutegitik⁵⁶ eskuratu ditugu. Beste zenbait libururen sorburu-bertsioak Interneten bertan geneuzkan (Grimm anaien ipuinak, esaterako, *Projekt Gutenberg*⁵⁷ orrialdetik eskuratu ditugu). Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak eskuratzea errazagoa izan da. Euskal argitaletxeekin jarri ginen harremanetan aurrena, testuen bertsio digitalizatuak izango zituztela pentsatuta, azken batean, testuak helburu akademikoetarako baliatu nahi baititugu. Edozein modutan, ez zeuzkaten gure zerrendako testu guztien maketa digitalak, testu berrienei zegozkienak baizik. Nolanahi den, gainerakoak, baita gaztelaniazko bertsioei dagozkien testuak ere, Euskal Herriko liburutegi sare publikoan lortu ditugu. Hala, testuak fotokopiatu eta nahiko modu automatikoan pasatu ahal izan ditugu eskanerretik, makinak fotokopiagailu baten moduan hartzen baititu fotokopiak eskaneatzeko.

⁵⁶ <http://www.uni-frankfurt.de/fb/fb10/jubufo/Bibliothek/index.html>

⁵⁷ <http://gutenberg.spiegel.de/buch/6248/1>

Eskaneatu ostean ugaritu zaigu lana. Izan ere, hiru dokumentu mota izan dugu esku artean, dokumentua eskuratu dugun formatuaren arabera: eskaneatutakoak RTF formatuan, argialetxeek emandakoak PDF formatuan eta internetetik kopiatutakoak. Testu bakoitzak bere berezitasunak ditu. Esate baterako, eskanerreko softwarean hizkuntza berariaz aukera badaiteke ere (alemana, gaztelania ala euskara), karaktere batzuk ez dira ongi identifikatzen: *m* beharreak *rn* agertzen da askotan, *ñ* beharreak *fi*, puntua *o* hizkia bezala identifikatzen du askotan etab. Akats ortografikoak automatizatzea oso zaila da. Word programaren zuzentzailea oso lagungarri gerta liteke, baina, nahi eta nahi ez, eskuz egin behar den prozesua da. Akats ortografikoez gain, puntuazio akatsak geneuzkan, hau da, hutsuneak hutsunerik behar ez lukeen lekuan, ilustrazioek utzitako hutsuneak edo gehiegizko lerro saltoak. Hasiera batean protokolo bana sortu genuen, bata PDFan genituen dokumentuentzat eta, bestea, eskaneatutako dokumentuentzat, bakoitzak agertzen zituen akats tipikoak desberdinak baitira. Protokolo horietan bilatu/ordezkatu aginduak zerrendatu genituen, eta dokumentu bakoitzean aplikatu. Ondoren, ordea, Iñaki Albisua informatikariari esker, protokoloetako pausuak automatizatu egin ahal izan ditugu, Microsoft Access-en egindako programa bati esker (*garbitufitx* izena jarri genion): fitxategiek TXT formatuan egon behar dute; programa ireki, fitxategia aukeratu eta *dokumentua garbitu* botoian sakatuta, bilatu/ordezkatu agindu guztiak aplikatzen ditu automatikoki.

Das ist Lilli, die Hauptperson unserer Geschichte. Sie ist ungefähr so alt wie du und sieht aus wie ein gewöhnliches Kind. ¶

Das ist sie eigentlich – auch... aber doch nicht ganz. ¶

Lilli besitzt nämlich etwas, was überhaupt nicht gewöhnlich ist: ein Hexenbuch! ¶

Eines Morgens fand Lilli es neben ihrem Bett. Wie ist es da wohl hingekommen? Keine Ahnung. Lilli weiß nur, dass die schusselige Hexe Surulunda Knorr das Buch aus Versehen liegen lassen hat. Und sie weiß, dass echte Zaubereien und wilde Hexentricks in dem Buch stehen. Einige davon hat Lilli schon ausprobiert. Aber aufgepasst: ¶

Versuche lieber nicht Lillis Hexereien nachzumachen! ¶

Hast du nur ein Wort falsch gelesen, ¶

¶/wird Zahnbürste zum Hexenbesen. ¶

Aus Lehrerin wird böser Schurke. ¶

aus Eis am Stiel wird saure Gurke. ¶

niemandem von ihrem tollen Buch erzählt. Sie ist sozusagen eine echte Geheimhexe. ¶

Auch vor ihrem kleinen Bruder ¶

Leon hält sie das Hexenbuch geheim. Das ist gar nicht so einfach, denn ¶

Leon ist sehr neugierig und kann manchmal ziemlich nervig sein. ¶

Lilli hat ihn aber trotz dem sehr lieb. ¶

So... und jetzt kann der Lesespaß losgehen! ¶

Das ist Lilli, die Hauptperson unserer Geschichte. Sie ist ungefähr so alt wie du und sieht aus wie ein gewöhnliches Kind. Das ist sie eigentlich auch... aber doch nicht ganz. Lilli besitzt nämlich etwas, was überhaupt nicht gewöhnlich ist: ein Hexenbuch! ¶

Eines Morgens fand Lilli es neben ihrem Bett. Wie ist es da wohl hingekommen? Keine Ahnung. Lilli weiß nur, dass die schusselige Hexe Surulunda Knorr das Buch aus Versehen liegen lassen hat. Und sie weiß, dass echte Zaubereien und wilde Hexentricks in dem Buch stehen. Einige davon hat Lilli schon ausprobiert. Aber aufgepasst: ¶

Versuche lieber nicht Lillis Hexereien nachzumachen! ¶

Hast du nur ein Wort falsch gelesen, wird Zahnbürste zum Hexenbesen. Aus Lehrerin wird böser Schurke. aus Eis am Stiel wird saure Gurke. Vorsichtshalber hat Hexe Lilli niemandem von ihrem tollen Buch erzählt. Sie ist sozusagen eine echte Geheimhexe. Auch vor ihrem kleinen Bruder Leon hält sie das Hexenbuch geheim. Das ist gar nicht so einfach, denn Leon ist sehr neugierig und kann manchmal ziemlich nervig sein. Lilli hat ihn aber trotzdem sehr lieb. ¶

So... und jetzt kann der Lesespaß losgehen! ¶

Irudia 26. Testu baten adibidea, eskaneatu ostean eta garbitufitx programatik pasatu eta birpasatu ondoren.

Hala eta guztiz ere, eta programa laguntza handia izan bada ere, aitortu behar da testuak ez direla % 100 garbi gelditzen: azken gainbegiratu bat egitea ezinbestekoa da; eta, hala ere, azken gainbegiratu hori egin arren, beti gelditu ohi dira aurrerago baino ikusten ez diren akatsak. Edonola ere, eta ikerlan honen harira sortua izan bada ere, *garbitufitx* programak etorkizunean ere izan lezakeen erabilgarritasunaz ohartarazi nahi genuke.

Behin testuak garbituta, lerrokatu egin ditugu. Horrek esan nahi du parez pare jarri ditugula sorburu-bertsioa eta haren itzulpena(k), itzulpen-segmentuka. Hori da, azken batean, itzulpen-memoriek egiten dutena. Horretarako, baina, garbitutako testuak etiketatu egin behar dira, etiketa bera duten segmentuak elkartu daitezten.

Etiketatzeko eta lerrokatzeko, TRACE ikerketa-proiektuaren markoan sortutako programa bat erabili dugu. Programa hori hasiera batean Leongo unibertsitatean jarri zuten abian, baina

lehen ere aipatu dugun Iñaki Albisua informatikariari esker, garatu eta gure beharretara egokitu ahal izan genuen programa. Lerrokatze prozesua, beraz, bi pausotan banatzen da: etiketatzea eta lerrokatzea.

Etiketatzekoan XML dokumentu bat sortzen dugu garbitutako testu bakoitzarentzat. Bertan, *etiketa* bidez, paragrafo eta esaldi guztiak markatuta gelditzen dira. Horretaz gain, testu bakoitza metainformazio jakin batez hornitua dago, gero bilaketak egiteko ezinbestekoa izango dena, hala nola testuaren izenburua, egilea, itzultzailea, eta testua zuzenean ala zeharka itzuli den. Beraz, XML dokumentuaren aurreneko 20 lerroetan metadatuak izango ditugu, eta, ondoren, *text* etiketa barruan, testua daukagu, paragrafo (n), esaldi (s) eta elkarrizketa (q) markekin zenbakitua.


```

<?xml version="1.0" encoding="iso-8859-1"?>
<TEI xmlns="http://www.tei-c.org/ns/1.0" xml:id="spa">
<teiHeader>
<fileDesc>
<titleStmt>
<title>Das Piratenschwein</title>
<author>Funke, C.</author>
<code>DPS</code>
<translator></translator>
<language>Deutsch</language>
<tradmode>Original</tradmode>
</titleStmt>
<publicationStmt>
<date>DD/MM/AAAA</date>
</publicationStmt>
<sourceDesc>
<p>Editorial_AGA: Coleccion: </p>
</sourceDesc>
</fileDesc>
</teiHeader>
<text>
<body>
<p n="1"><s n="1">Jeder auf der Schmetterlingsinsel kannte den Dicken Sven und sein Boot mit dem grünen Segel.</s><
<p n="2"><s n="2">Sven wohnte mit Pit, seinem Schiffsjungen, in einer kleinen Hütte am Strand, unter Bäumen, ar
<p n="3"><s n="6">Pit hatte es geschrieben.</s><s n="7"> Der Dicke Sven hatte ihm voll Bewunderung dabei zugesehen
<p n="4"><s n="9">Die zwei hatten wirklich genug zu tun.</s><s n="10"> Selbst wenn es so stürmte, dass die Qualler
<p n="5"><s n="13">Doch eines Morgens beschlossen die zwei, vor der Arbeit noch einen Strandspaziergang zu machen.
<p n="6"><s n="15">Da spülten die Wellen ihnen plötzlich ein Fass vor die Füße.</s></p>
<p n="7"><s n="16">Und als Pit hineinsah, grunzte ihn ein Schwein an.</s></p>
<p n="8"><s n="17">Kaum größer als ein Hund war es, und um den speckigen Hals trug es eine goldene Kette, an der
<p n="9"><s n="20">"Kommt gar nicht in Frage", antwortete Pit, hob das kleine Schwein aus dem Fass und nahm es mi
<p n="10"><s n="21">Sie nannten das Ferkel Jule.</s><s n="22"> Und sie merkten schon bald, dass sie da kein gewöhn
<p n="11"><s n="23">Zwar wälzte Jule sich genauso gern im Schlamm wie andere Schweine.</s><s n="24"> Aber am lieb
<p n="12"><s n="27">Nur baden wollte sie nicht.</s></p>
<p n="13"><s n="28">Denn Jule war wasserscheu.</s><s n="29"> Sehr sogar.</s></p>
<p n="14"><s n="30">Eines Tages - Jule war immer noch ein ziemlich kleines Ferkel - bekam Sven den Auftrag, dreier
<p n="15"><s n="32">Mitten auf hoher See fing Jule plötzlich an zu quieken.</s><s n="33"> Sie quiekte, als hinge


```

Irudia 27. Etiketaturako testu baten irudia XML formatuan.

Testu pareta (edo hirukotea) etiketatuta izan dugunean, lerrokatu egin ditugu. Horretarako, etiketatze erabili dugun programa bera zabaldu eta *lerrokatu* botoian sakatu dugu. Lerrokatu nahi dugun testu pareta edo hirukotea hautatu, eta programak parez pare erakusten dizkigu aukeratu ditugun bertsiok, etiketatze bera duten testu-zatiak lerroz lerro parekatuak.

Lerrokatze prozesua ere, ordea, ez da guztiz automatikoa. Hau da, programak esalditan banatzen du testu bakoitza, baina ondoren guri dagokigu, sorburu-testua oinarri hartuta, sorburu-testuko esaldia xede-testuko esaldiarekin bat datorrela ziurtatzea. Horrek esan nahi du, sorburu-testuko esaldi bat bi esalditan itzuli bada, bi

esaldi horiek batu behar izan ditugula. Lan hau egin bitartean lehen itxura edo neurria hartu ahal izan diegu testuei, sorburu-testuaren arabera moldatzerakoan, batzuek besteek baino lan gehiago eman baitute, hau da, batzuetan besteetan baino esaldi gehiago batu/ebaki behar izan ditugu, eta horrek corpuseko testuen aurreneko irudipen bat eman digu.



Irudia 28. Etiketaturako testu hirukotea moldaketa batzuk egin eta gero, jatorrizkoarekin parez pare bat etor daitezten.

Horrela, testu bikote eta hirukote guztiak erreparatu ditugu banan-banan, behar ziren aldaketak egiten itzulpenak alemanezko jatorrizkoarekin parekatuta gelditu arte. Parekatutako testuak izan dira, ondoren, datu base elektronikoa elikatzeke oinarria.

7.3. CORPUSA USTIATZEKO ERREMINTA

Corpus lerrokatua ustiatzeko datu base bat behar genuen, testu multzoa bertara igo eta, datu base horri lotutako bilatzaile baten bitartez, nahi ditugun bilaketak egiteko. Datu-baseak kudeatzeko balio duen MySQL sistema erabili dugu guk. Datu-basera testuak igota, testu pare/hirukote guztiak jasotzen dituen artxibo handi bat izango dugu (SQL luzapena duen datu-basea). MySQL erabili ahal izateko, XAMPP instalatu dugu gure ordenagailuan, eta, ondoren, phpMyAdmin atalean, gure datu-basearen egitura sortu dugu. Gure datu-basea Iñaki Albisua informatikariak sortu du, eta hiru taulatan banatzen da (testuak, esaldiak, hitzak).

	clave	autor	idioma	traductor	titulo	traduccion	modo	codigo	genero
<input type="checkbox"/>	1	Wölfel, U.	Deutsch		Achtundzwanzig Lachgeschichten	1	Original	ZBLG	NULL
<input type="checkbox"/>	2	Wölfel, U.	Euskera	Erkizia, L.	28 ipuin berrak egiteko	1	Directo	ZBLG	NULL
<input type="checkbox"/>	3	Könnecke, O.	Deutsch		Anton und die Blätter	2	Original	NULL	NULL
<input type="checkbox"/>	4	Könnecke, O.	Euskera	Mujika, I. eta Erkizia, L.	Anton eta hostoak	2	Diruzko	NULL	NULL
<input type="checkbox"/>	5	Nöstlinger, C.	Deutsch		Das Austauschkind	3	Original	DAK	NULL
<input type="checkbox"/>	6	Nöstlinger, C.	Euskera	Mendiguren, X.	Ingelak bat etxean	3	Directo	DAK	NULL
<input type="checkbox"/>	7	Kästner, E.	Deutsch		Das Doppelte Lotchen	4	Directo	DGS	NULL
<input type="checkbox"/>	8	Kästner, E.	Euskera	Narbaiza, A.	Lotte eta Luisa Hau bizki pareak	4	Directo	DDL	NULL
<input type="checkbox"/>	9	Ende, M.	Deutsch		Das Gauklernmärchen	5	Directo	DGM	NULL
<input type="checkbox"/>	10	Ende, M.	Euskera	Mendiguren, X.	Jojo, palazio baten historia	5	Directo	DGM	NULL
<input type="checkbox"/>	11	Funke, C.	Deutsch		Das Piratenschwein	6	Directo	DPS	NULL
<input type="checkbox"/>	12	Funke, C.	Euskera	Garkano, A.	Txerriume Pirata	6	Directo	DPS	NULL
<input type="checkbox"/>	13	Lohe, M.	Deutsch		Das Schlossgespenst	7	Original	DSG	NULL
<input type="checkbox"/>	14	Lohe, M.	Euskera	Zabaleta, P.	Jauregiko iraboa	7	Directo	DSG	NULL
<input type="checkbox"/>	15	Hoffmann, H.	Deutsch		Der Struwwelpeter	8	Directo	STP	NULL
<input type="checkbox"/>	16	Hoffmann, H.	Euskera	Lango, J. & Ziemkiewicz, J.	Peru Tximaluze	8	Directo	STP	NULL
<input type="checkbox"/>	17	Siskind, P.	Deutsch		Die Geschichte von Herr Sommer	9	Directo	DGS	NULL
<input type="checkbox"/>	18	Siskind, P.	Euskera	Oñederra, L.	Sommer jaunaren istorioa	9	Directo	DGS	NULL
<input type="checkbox"/>	19	Masannek, J.	Deutsch		Die wilden Fussballerle: Deniz die Lokomotive	10	Directo	WFKD	NULL
<input type="checkbox"/>	20	Masannek, J.	Euskera	Rekalde, A.	Futbolari basatiak: Deniz Lokomotora	10	Directo	WFKD	NULL
<input type="checkbox"/>	21	Pausewang, G.	Deutsch		Die Wolke	11	Original	WO	NULL
<input type="checkbox"/>	22	Pausewang, G.	Euskera	Mendiguren, X.	Die Wolke	11	Directo	WO	NULL

Irudia 29. Datu-basea.

MySQL datu-baseari esker gure corpusaren gorputza ikus dezakegu bere osotasunean, testu-masaren argazki bat eskaintzen baitigute zenbakiak. Corpusaren ezaugarri zenbakiak

makroazterketaren atalean aztertuko baditugu ere, hona hemen gure corpusaren tamaina hitz kopurutan:

Taula 2. Corpuseko hitz kopurua

Liburuaren kodea	Hitz kopurua		
	Alemanez	Zubi-hizkuntzaz	Euskaraz
DSG	3.901		3.670
LOS	7.236		5.943
LD	24.515		22.073
GNZ	29.238		25.176
EL	33.759		28.928
WO	43.127		36.288
DAK	32.125		25.887
FR	20.353		17.681
DGM	15.340		11.386
28LG	5.682		5.116
AUB	138		143
WL	739		676
SK	19.855		18.925
DDL	24.297		21.516
KHM	72.325		58.928
DPS	3.452		2.859
DGS	16.189		12.842
WFKD	20.574		16.884
STP	2.080		1.785
DOA	17.607	19.830	16.080
HLJ	12.802	13.273	11.432
35M	17.597	20.004	16.086
DKG	15.313	16.036	12.750
DASH	11.956	12.484	10.566
DKH	16.382	17.904	13.836
FSWS	11.859	14.333	11.234
PA	23.986	25.371	21.362

ED	26.776	28.473	24.316
DKT	9.643	10.382	8.065
VKM	427	424	381
WSM	496	460	396
KND	32.435	33.329	26.917
JJJ	16.857	17.054	14.167
GUZTIRA	589.061	229.357	457.862

Datu basera igotako corpora ustiatu ahal izateko, bilatzailea ere egituratu digu informatikariak, eta MySQL programari lotu. Hala, bilatzailean sartutako hitzak gure datu base lerrokatuan bilatzen ditu programak, eta datu horiek oinarri hartuta egin dezakegu gure azterketa. Gainera, datu-basera igotako testuetan metadatuak zehaztu ditugunez (testu bakoitzaren ezaugarriak dira metadatuak: itzultzailearen izena, jatorrizko egilearen izena, zuzenean ala zeharka itzuli den eta zein hizkuntzatan dagoen testua), bilaketa hainbat modutara mugatzeko aukera ematen du bilatzaileak.

Hala, bilatzen dugun hitza soilik zuzeneko itzulpenetan bilatzea eska dezakegu, eta, orduan, zuzeneko itzulpenen artean aurkitutako emaitzak bistaraziko dizkigu. Alderantziz, bilaketa zeharkako itzulpenetara muga dezala eska dezakegu, eta, kasu horretan, zuzeneko itzulpenak alde batera utzi eta zeharkako itzulpenetan aurkitutako emaitzak baino ez dizkigu bistaraziko. Bestalde, guztietan bila dezala agintzen badiogu, bilatzaileak ez du mugarik ezarriko, eta itzulpen guztietan egingo du bilaketa.

Sorburu-egilea ere zehaz dezakegu bilatzailean, eta, horren arabera, guk zehaztutuako egile alemanari egindako itzulpenetan egingo du bilaketa.

Gauza bera itzultzaileekin: itzultzaile jakin baten itzulpen-jarduna sakonago aztertu nahi bagenu, itzultzaile jakin horren arabera muga genezake bilaketa.

Era berean, bilatu nahi dugun hitzarekin ere molda dezakegu bilaketa: bilaketa-hizkuntza zehaz dezakegu, eta, hala, jatorrizko hizkuntzakoak ez ezik, zubi-bertsioako hitzak edo xede-hizkuntzakoak ere bila ditzakegu. Gainera, hitz bera bere horretan bila dezala eska dezakegu, edo, bestela, hitzaren hasiera edo amaierarekin bat datozen hitz guztiak bila ditzala. Horretaz gain, hitz-konbinazio jakinak ere bila ditzakegu.

CONSULTAS		
Idioma de búsqueda: DEUTSCH Modo de búsqueda: Texto a buscar EXACTO Idioma columna 2: DEUTSCH Idioma columna 3: DEUTSCH Modo columna 2: TODOS Modo columna 3: TODOS EXACTO Distancia-1 EXACTO Distancia-1 Distancia-2 Autor: TODOS Traductor 2: TODOS Traductor 3: TODOS		
DEUTSCH	guztuak	guztuak
LOS	Wenn der Paul erst einmal da ist, dann wird auf alle Fälle alles SUPER SUPER!	Paul heldzean, orduan bai izango dela gurtia IZUIZUGARRIA!
LOS	Die Mama ist gerade aus dem Bett gestiegen und ins Badezimmer gegangen.	Orainxe jekti da ama ohetik eta komnera joan da
SK	Aber wenigstens kam kein Auto mit einer Sirene und so erreichten sie ohne Zwischenfall das kleine Einkaufszentrum.	Sirenadun kotxerik, behintzat, ez zen agertu, beraz oztoporik gabe iritsi ziren merkatala zentru txikiara.
SK	Dort gab es einen Super markt, eine Drogerie, einen Blumenladen - ja, und das Tiergeschäft.	Han supermerkatu bat zegoen, botika bat, loradenda bat, eta jakina, abere-denda!
SK	"Bist du einverstanden, wenn ich dich hier anbinde?", fragte Ta bi und zeigte auf das Schild mit der Aufschrift "Wir warten draußen".	"Hemen lotzen bazahat, ados?" galdetu zion Tobik eta "Guk konposan itxaron behar dugu" karteltxoa seinatu zion.
HLJ	"Aber wer hat Amerika denn versteckt?", lässt Leon nicht locker. "Niemand hat es versteckt."	«Baten batek ezkatuta ote zuten? -Ez da hori! -hasperen egiten du Kikak, gogañata.
HLJ	Die Menschen hier bei uns wussten nur nicht, dass es Amerika gab, weil es so super -weit weg war.	- Lo que pasa es que, como América estaba tan superlejamos, - Kontua da Amerika oso-oso superurruti zegoela.
HLJ	Einmal über den großen, großen Ozean.	ozeano itzel baten beste ertzean.

Irudia 30. Bilatzailea.

Deskribatu berri dugun corpusa izan da, beraz, ikerlan honen helburuetarako osatu eta baliatu dugun tresna, baina, era berean, etorkizunerako tresna izango dugulakoan gaude.

Corpus hirueleduna sortu dugu, paraleloa, estatikoa (nahiz eta horrek ez duen esan nahi elikatzen jarraitu ezin dezakegunik),

espezializatua (HGL alemanaren itzulpena duelako helburu) eta sinkronikoa. Horretaz gainera, elektronikoa denez, erraztasunak ematen ditu aurrerantzean ere bilaketak egin eta askotariko gaiak aztertzen jarraitzeko. Ondorioz, sinetsita gaude ikerketa erraztu digun tresna osatu dugula, eta, are, etorkizunean ere lanean jarraitzeko tresna izango dugula. Alemana-euskara konbinazioan osatu den aurreneko testu-corpora dugu, eta, are, atzerriko hizkuntza batetik euskarara egindako itzulpenekin osatutako aurrenetarikoa, aurrenekoa ez bada.

Laburtuz, corpora eskura eta kontsultagarri edukitzeak denbora hartu digu. Izan ere, gauzak ondo eta txukun egin nahi genituen, eta horrek eskatzen zuen, batetik, katalogotik corpusera egin beharreko jauzia aldeztatik hausnartutako irizpideen arabera egitea, eta, bestetik, hautatuko corpora ez begi hutsez aztertzea, baizik eta gerora ere ustiatzeko moduan izango dugun tresna digital bat eraikitzea.

Sortu dugun corpusak 80ko hamarkadatik hona itzulitako testuak hartzen ditu, gurean pisu berezia izan duten egile alemanak kontuan hartuta eta lanean aritu diren itzultzaile nahiz argitaletxe ahalik eta gehienen presentziari erreparatuta. Helburua, 80ko hamarkadatik hona euskaratutako HGL alemanaren lagin errepresentatibo bat lortzea: 33 testuk osatu dute osotara, zuzenean itzulitako 19k (645.199 hitz) eta zeharka itzulitako 14k (631.081 hitz).

Corpusa hirueleduna da, eta beste lanetatik bereizten duen beste ezaugarri bat ere badu: digitala da. Horrek esan nahi du hemendik aurrera ere kontsultagai dugula.

Horretarako, testu guztiak eskuratu behar izan ditugu: jatorrizko bertsioak, itzulpenak eta zubi-bertsioak. Testuak eskanerretik pasatu eta garbitu egin ditugu. Ondoren, informatikari baten laguntza behar izan dugu, hark prestatu baitigu testuak etiketatu eta lerrokatzeko programa. Testuak etiketatu eta lerrokatzea lan luzea izan da, banan-banan kontrolatu behar izan dugulako itzulpenak bat zetoztela jatorrizko segmentuekin.

Ondorioz, itzulpen-memoria baten forma hartu duen testu-masa lortu dugu (azken hiru hamarkadetako HGL alemanaren euskal itzulpenen memoria bat), zein libururi dagokion identifikatuta eta sorburu-testuaren arabera lerrokatuta dauden itzulpenekin.

Testu-masa MySQL kudeatzailean sortutako datu basean daukagu, eta, hari lotuta, bilatzaile bat.

Azken emaitza, beraz, modu elektronikoan kontsulta daitekeen corpusa dugu, gure beharren arabera ustia dezakeguna. Gure ikerketa honetarako zukua atera diogu, eta, hemendik aurrera ere, zukua ateratzen jarraitu ahalko diogu.

Sinestsita gaude corpusa osatzeko pausua zorroztasun akademikoaz eman dugula, eta, horrexegatik, aurrerantzean ere emaitzak ematen jarraituko duen tresna dugula.

Paratestuen eta makrotestuaren azterketa

Katalogoa deskribatu eta corpora osatu ondoren, corpusaren azterketari ekingo diogu orain. Urratsez urrats ekingo diogu, ordea. Lehenik, corpora osatzen duten lanen paratestuei erreparatuko diegu, eta, ondoren, makrotestua aztertuko dugu, hau da, corpusean daukagun hitz, esaldi eta paragrafo kopurua.

8.1. PARATESTUAK

Atal honetan corpora osatzen duten liburuen paratestuak aztertu ditugu. Zuzeneko eta zeharkako azterketaren analisisian pausu bat da honako hau, ustez zuzenean ala zeharka itzuli diren lanen paratestuek zer dioten aztertuta ondorio batzuk atera baititugu, eta ondoren makroazterketari eta mikroazterketari eutsi diegu. Genettek ezarri zituen paratestuen azterketa bideratzeko oinarriak (Genette, 1987), eta itzulpengintza ikasketetan berriki

egin diren tesietan frogatu denez, ondorio adierazgarrien iturri dira (Manterola, 2012). Hasteko, baina, paratestuak zer diren azalduko dugu labur-labur.

Obraren ardatz den testuaz gain, badira liburu batek eskaintzen dizkigun hainbat testu-elementu: egilearen izena, izenburua etab. Liburua osatzen edo janzten duten adierazpen horiek testu-zatitzat hartu behar diren ala ez esateak, berriz, zalantza gehiago sorrarazten du.

Hala ere, eta bistan denez, adierazpen horiek aurkeztu egiten dituzte liburuko testua eta liburua bera. Hau da, liburuaren harrera ziurtatzen dute, elementu horiek liburuaren aurkezpen-txartela baitira. Baina, konbentzio batzuk egon arren, liburu guztiek ez dituzte elementu aurkezle mota eta kopuru bera izaten.

Liburuko testu nagusiarekin batera datozen elementuei paratestu izena eman zien Genettek *Palimpsestes* izeneko lanean. Hala, Genetten hitzetan, “le paratexte est donc pour nous ce par quoi un texte se fait livre et se propose comme tel à ses lecteurs, et plus généralement au public” (Genette, 1987: 7). Metaforaz baliatuz, *atalase* ere deitzen die Genettek paratestuei (*vestibule*); atari bat baitira, liburuan sartu aurretik igaro beharrekoa. Izan ere, *atalase* horrek eragin bat uzten du hartzailearengan, eta liburua irakurtzera bultzatuko du, ala ez.

Bi motako paratestuak definitu zituen Genettek:

- Peritestua: testu nagusitik kanpo dauden elementuak, hala nola izenburua, hitzaurrea, kredituak etab., nahiz testuan txertatuta daudenak, hau da, atalen izenburuak edo oinoharrak. Liburukiaren parte izanagatik, testu nagusia ez diren

eta liburuari buruzko informazioa ematen duten elementuak lirateke.

- Epitestua: liburuari buruzko informazioa ematen duten baina liburutik kanpo kokatzen diren mezuak dira, komunikabideen bitartez aurkeztuak (elkarrizketak) edota komunikazio pribatuen bitartez jasoak (gutunak, mezu elektronikoak etab.).

Hala ere, hasieran esan den moduan, liburu guztiek ez dute paratestu mota eta kopuru berbera aurkezten:

[...] il existe des livres sans préface, des auteurs réfractaires aux interviews, et l'on a connu des époques où l'inscription d'un nom d'auteur, voire d'un titre, n'était pas obligatoire. Les voies et moyens du paratexte se modifient sans cesse selon les époques, les cultures, les genres, les auteurs, les oeuvres, les éditions d'une même oeuvre, avec des différences de pression parfois considérables (Genette, 1987: 9).

Izan ere, horrexegatik izan daiteke esanguratsua eta aberasgarria paratestuen azterketa egitea: liburuak, gure kasuan itzulpenak, sortu diren testuinguruari buruzko informazioa ematen dute paratestuek. Alde horretatik, oro da adierazgarri: ematen den informazioa nahiz ematen ez dena; baita ematen den informazioa aurkezteko modua ere. Esate baterako, eta gure corpuseko lanen artean begiratuta, *Jokel, Jula und Jericho* izenburua *Markel, Maddi eta Maluta* bihurtu da euskaraz. Izenburua (eta pertsonaien izenak) modu horretan eraldatzeak arindu egiten ditu, neurri batean, atzerrikotasun zantzuak. Izenburuan gertatzen diren aldaketek ez ezik, bestelako paratestuetan gertatzen direnek ere informazio baliagarria emango digute: ilustrazioekin zer gertatzen den, adibidez. Laburbilduz, paratestuen azterketak HGLaren

itzulpenean aplikatzen diren araei buruzko informazioa osatzen lagunduko digu, inondik ere.

Paratestuek komunikazio prozesuan parte hartzen dute, eta komunikazio eskemari erreparatuta, paratestuen igorlea eta hartzailea nor den ere defini liteke. Paratestuen igorlea egilea/argitaletxea/itzultzailea izan daiteke (paratestu guztiak ez dira igorle berak sortuak). Hartzailea definitzea, berriz, ez da hain erraza gertatzen: “Le destinataire peut être grossièrement défini comme «le public», mais cette définition est beaucoup trop lâche [...]” (Genette, 1987: 14). Zenbait paratestu publiko orokorrari edo liburua eskuartean hartzen duen edonori egon ohi da bideratuta (izenburua, adibidez), beste zenbait (hitzaurrea), irakurleei soilik; beste asko, literatura kritikariei edo saltzaileei.

HGLaren kasuan konplexuago da paratestuen hartzaileak definitzea, bigarren atalean ere ikusi dugun moduan, hartzaile bikoitza baitu HGLak: haur eta gazteak, baina baita helduak ere. Haurrengan eragina duten paratestuak izenburua eta, batik bat, ilustrazioak direla pentsa genezake, baina liburuak eskaintzen dituen gainerako elementu paratestualak (egilearen izena, itzultzailearena, argitalpenari buruzko bestelako informazioa) gehiago daude helduei bideratuta. Baliteke, beraz, arrazoi horregatik jokatzeko malguago edo ez horren zorrotz paratestuak aurkezteko garaian. Azken hipotesi hori, hala ere, gure corpuseko paratestuak aztertu ondoren baino ezingo dugu egiaztatu.

Genettek, dena dela, ez ditu, artean, itzulpenei dagozkien paratestuak ez eta ilustrazioak ere aztertu, eta gabezia horretaz mintzo da bere lanean. Alabaina, paratestuek datu esanguratsuak

ematen dituztela jabetuta, ezinbestekoa zaigu, gure lan honetan, horiei erreparatzea.

Paratestuen azterketa egiterakoan, bereziki erreparatu nahi izan diegu itzulpena zuzenean ala zeharka egin ote den adierazten duten informazioei, azterketa honetatik ateratako ondorioek informazio eta ekarpen gehigarria egingo baitiote zuzenean ala zeharka egiten diren itzulpenek ageri dituzten ezaugarriei buruzko ikerketari.

Corpusa osatzen duten itzulpenak eskuartean hartu eta honako galdera hauen erantzunak bildu ditugu taula batean:

1. Datu orokorrak (itzulpenaren aitopenearekin zerikusi zuzenagoa dutenak)

1.1. Egilearen izena ageri da?

1.2. Itzultzailearen izena ageri da?

2. Zeharkako itzulpenaren inguruko datuak.

2.1. Jatorrizko izenburua zein den ageri da? Itzultako izenburua zenbat aldentzen da jatorrizkotik?

2.2. Ilustrazioak (barnekoak eta azalekoa). Jatorrizko lanekoak errespetatu dira?

2.3. Berariaz adierazten da alemanetik/gaztelaniatik egin denik?

2.4. Gaztelaniazko edizioaren datuak agertzen dira?

2.5. Epitestuetatik ateratako informazioa: argitaletxeekin hitz egindakoan zein informazio eman ziguten zuzenean ala zeharka itzuli ote zen galdetuta?

8.1.1 Paratestuen azterketa

Liburuek aurkezten dizkiguten datu nabarmenak aztertuz hasiko gara.

8.1.1.1 Egilearen izena

Corpuseko liburu guztiek ageri dute jatorrizko egilearen izena. Izan ere, egiletza hain eskubide aitortua denean, arraroa litzateke jatorrizko idazlearen izenik ez agertzea. Salbuespen modura, Grimm anaien ipuinen itzulpena daukagu. Liburu horren itzulpenean ez da, berariaz, egileen izenik ageri kredituetan. Pamiela argitaletxeko itzulpena da guk gure corpusean daukagun itzulpena. Argitalpen zaindua da, Grimm anaien biografia eta haiek egindako lanari buruzko iruzkin bat eta guzti duena. Hain zuzen ere, izenburutik bertatik ondorioztatzen da Grimm anaiak direla lanaren jatorrizko egileak, eta liburuko aitzin-solasean ere luze-zabal hitz egiten da egile alemaniarrei buruz. Beraz, kredituetan berariaz halakorik agertzen ez bada ere, liburuko gainerako paratestuetan (izenburuan, aitzin-solasean) informazio hori nabarmentzen denez, ezin esan daiteke egiletza aitortzen ez denik.

8.1.1.2 Itzultzailearen izena

Egilearenarekin gertatu moduan, itzultzailearen izena ere corpuseko liburu guztietan agertzea espero genuen⁵⁸. Bada, ordea, salbuespen bat: corpuseko 33 lanen itzulpen guztietan


⁵⁸ Corpusak 80ko hamarkadatik aurrera argitaratutako itzulpenak kontuan hartzen dituzenez, ez dugu espero itzultzailearen izena ezkutatzea. Bestelakoa litzateke beste garai batzuetako jardunari erreparatuko bagenio. Esate baterako, Latheyk dio XVIII. eta XIX. mendeetan ingelesera HGLa itzultzen aritu zirenen izenak (gehienetan emakumeak) ez zirela aitortzen (Lathey, 2010: 5).

itzultzailearen edo itzultzaileen izenak ageri dira, *Achtundzwanzig Lachgeschichten* lanaren itzulpenean izan ezik (28 ipuin barre egiteko). Argitaletxeko arduradunei galdetuta, itzultzaileak Inazio Mujika eta Lola Erkizia izan direla badakigu, baina liburuko kredituetan ez da halakorik agertzen; nolana den, argitaletxeari oharkabean pasatutako detaile edo akats bat delakoan gaude, gainerakoan beti agertzen baitituzte itzultzaileen izenak.

Jatorrizko egilearena eta itzultzailearena datu orokorragoak izan badira ere, itzulpenak zuzenean ala zeharka egin diren adierazten diguten datuei erreparatuko diegu xeheago.

8.1.1.3 Izenburua

Jatorrizko izenburua 28 liburuk ageri dute kredituetan. Bi kasutan gertatu da jatorrizko izenburua agertu bai, baina, kredituetan beharrean, oharretan azalduta eman izana (Grimm anaien ipuinen kasuan eta *Peru Tximaluzeren* kasuan). Beraz, esan liteke, 33 lanetatik 30ek ageri dutela jatorrizko izenburua. Hiru itzulpen daude, beraz, jatorrizko izenburuaren berri ematen ez dutenak: *Zer da zalaparta hau?*, *Fantasmatoxa* eta *Gabon Panpinatxo*. Azken itzulpen horren kasua bitxiagoa da, argitaletxe bereko eta bilduma bereko beste itzulpenetan agertu agertzen baita jatorrizko izenburua (*Hodeia* liburuan eta *Ingeles bat etxean* liburuan; biak ere corpus honetan sartuak).



Irudia 31. Jatorrizko izenburua agertzeari buruzko grafikoa.

HGLan ohikoa izan ohi da pertsonaia nagusiaren izena agertzea azaleko izenburuan. Hori gertatzen da gure corpuseko 15 lanen kasuetan; alegia, kasuen erdian, gutxi gorabehera. *Hexe Lilli, Lotte und Luisa, Struwwelpeter*, dira adibideetako batzuk.

Izen berezien itzulpena aztertzea bereziki interesgarria eta emankorra izan badaiteke ere, tamalez, gure ikerketaren luzezabalak ezin izango dio ikerketa-gai horri ere behar besteko sakontasunez erreparatu. Izan ere, izen berezien itzulpen-estrategiak ere aztertzeak HGLaren itzulpenaren inguruko ondorio interesgarriak emango lituzkeelakoan gaude; eta, jakina, era berean, zuzeneko eta zeharkako itzulpenen arteko alderaketari buruzko informazio gehiago emango liguke.

Edozein modutan, eta oraingoz ur sakonagoetan sartzeko asmorik ez badugu ere, ondorio batzuk atera ditzakegu izen bereziak erabiltzen dituzten izenburuen inguruan.

Izen bereziak dituzten 15 izenburu horietatik 2 kasutan izenaren itzulpen linguistikoa egin da: *Struwwelpeter* Peru

Tximaluze bihurtu da eta *Feuerschuh und Windsandale* ezizenak Suzko Zapatak eta Haizezko Sandaliak ezizenez euskaratu dira. Izen berezien itzulpenean, Manterolak itzulpen linguistikoa gertatu dela dio, hain zuzen ere, zentzua mantenduz, izenak xede-hizkuntzara egokitzen direnean (Manterola, 2012: 341). Beste bi kasutan, itzulpen sortzailea egin da: *Jokel, Jula und Jericho* Markel, Maddi eta Maluta bihurtu dira, eta *Hexe Lilli* Kika Supersorgina bihurtu da. Itzulpen sortzailea deitzen zaio izenak xede-hizkuntzan sortzen direnean.

Lilli sorginaren kasuan, euskarazko bertzioak gaztelaniazko sorginaren izen berbera jaso du. *Lilli* ez da, berez, bereziki arrotza edo zail egiten den izena, baina, kasu horretan, euskarazko merkatuak gaztelaniazkoarekiko duen morrontza agerian uzten duela interpreta genezake. Izan ere, gaztelaniazko *Kika Superbruja* euskarazkoa baino lehenago sortu zen, eta, are, euskarazko itzulpenak gaztelaniazko bertsiotik abiatuta egin ziren. Gaztelaniazko izenak erabat baldintzatuko zuen euskarazkoa, jakina, eta, gainera, lanaren inguruan sortzen diren merkatu-erreferentzia guztiak *Kikaren* ingurukoak izateak ere izango zuen eraginik. Alegia, liburuaren inguruan sortutako produktu guztiek (filmak, posterrak eta abar luze batek) *Kika* izena hartu dute Espainiako merkatuan, eta, esan beharrik ez dago, euskal merkatua estuki lotua dago espainiar merkatuarekin. Horrek guztiak are frogatzen du kultur errealitate bat gehiago direla itzulpenak kultur merkatuaren barruan, eta, ondorioz, gizarte eta kultur testuinguru jakin batean lan egiten duten heinean, itzultzaileek ez daukatela zenbait erabakiren inguruan erabakitzeke adina autonomiarik. Nolanahi den, eta Fischerrek ohartarazten duenez (Fischer, 2011:

77), italieraz eta katalanez ere izena aldatu diote sorginari (*Maga Martina* italieraz, *Tina Superbruixa* katalanez), gainerako hizkuntzatan *Lilli* edo grafia antzekoa duena utzi bada ere: *Bruxinha Lili* (P), *Hekse Lilly* (NL), *Lilly the Witch* (GB), *Magic Lili* (F) etab. Adierazgarria da katalanera gertatzen dena, haiek ere espainiar merkatuari lotuta baitaude eta, hala ere, ez diote, euskaraz egin den bezala, gaztelaniaz hartutako erabakiari jarraitu. Tina izena jarrita, beste merkatu bat sortu dute, jatorrizkotik ere aldentzen dena. Izan ere, *Lilli* izena mantentzeko, baina, *Tina* itzulita, berena baino ez den produktu bat sortu dute. Adierazgarria da, aldi berean, galegoek egin dutena, haiek ere euskaldunen bide berari jarraitu baitiote: *Kika Superbruxa* da bildumaren nahiz pertsonaiaren izenburua.

Lau kasu horiez gain, beste 11 kasuetan transferentzia bidez itzuli dira izenak; hau da, jatorrizkotik batere moldaketarik gabe jaso dira izenak (*Lena auf dem Dach – Lena teilatuan*).

Gainerakoan, bada, alemanezko bertsioan pertsonaia-izenik agertu ez arren, bada itzulpenean izen berezia gehitzen deneko kasu bat (hori ere itzulpen sortzailearen estrategia litzateke): *Das Gauklermärchen* [prestidigitadore edo eskujokariaren ipuina] *Jojo, pailazo baten historia* bihurtu da euskaraz; gaztelaniaz erabili duten estrategia da, hain zuzen (*Jojo, historia de un saltimbanqui*). Euskarazko bertsioa argitaratzeaz arduratutako argitaletxeak (Descléek) ez zuen aurretiaz gaztelaniazkoa argitaratu, baina, argi dago, beste argitaletxeetan ateratako gaztelaniazko bertsioari ere begiratu diote. Itzultzailea Xabier Mendiguren da, eta badakigu alemana ondo menderatzen duela eta alemanetik itzultzen duela. Izenburua gaztelaniazkoaren parekoa izateak, beraz, eduki lezake

Kika Supersorginak gaztelaniazkoari begiratu izana azaltzeko arrazoi berbera.

Gainerako 17 izenburuek ez dute izen berezirik agertzen, eta itzulpena ez da jatorrizkotik bereziki aldendu (35. *Mai – Maiatzak* 35).

8.1.1.4 Ilustrazioak

Ilustrazioei dagokienean, bi motakoak bereizi behar ditugu: azaleko ilustrazioak eta liburu barrukoak. Badira, azalean ilustrazio bat eduki arren, barnean batere ez daukatenak. Bestalde, azalean nahiz liburuaren barnealdean ilustrazioak dauzkaten liburuen kasuan, ohikoena da, azaleko ilustrazioaz arduratu den pertsona berak egin izana, baita ere, barnekoak.

Azaleko ilustrazioari dagokionez, 23 liburuk errespetatu dute jatorrizkoa, baina 8 liburutan gertatu da azaleko irudia bertako ilustratzaile batek egitea (horietako 6 Elkar argitaletxeak dira, bat Desclée argitaletxeak eta beste bat Pamiela argitaletxeak). Bi kasutan gertatu da, berriz, informazio hori zehaztu gabe agertzea (*Txokolowsky, urtebetetzeko txakur trufazalea* liburuan eta *Animalien biltzarra* liburuan).




Irudia 32. Azaleko irudiari buruzko grafikoa.

Barneko ilustrazioei dagokienean, berriz, esan dugun moduan, liburu guztiek ez dituzte ilustrazioak; corpuseko 9 libururen kasua da hori (kasuen %27). Gainerako liburuek ilustrazioak daramatzate barnean, eta, horietatik, batean baino ez da gertatu ilustrazioak bertako batek egitea; gainerako guztiek jatorrizko ilustratzailearen lana mantendu dute. *Suzko Zapatak eta Haizezko Sandaliak* liburua da jatorrizko ilustrazioak mantendu ez dituen liburua.

8.1.1.5 Liburua alemanetik itzulia izan den esplizitatzea

Hiru kasutan adierazten da alemanetik itzuli dela; horietako bi Pello Zabaletak itzulitako liburuak dira (*Jauregiko iratxoa* eta *Maitasuna besterik ez*) eta bestea Grimm anaien ipuinen argitalpena da. Azken horretan, aitzin-solasean adierazten da alemanetik itzuli dela, baina ez kredituetan. *Jauregiko iratxoa* eta *Maitasuna besterik ez* liburuetan, berriz, kredituetan espresuki adierazten da alemanetik itzuli dela. Gainerako liburuetan ez da halakorik adierazten. Hiru kasu horiek salbuespena izanagatik ere, liburuetan edo itzultzaileengan aurki liteke, beharbada, arrazoia: Zabaleta ibilbide

luzeko itzultzailea da, eta nolabaiteko estatusa du HGLa alemanetik euskaratzen; Gomez Zubiak egindako Grimm anaien ipuin-bildumaren itzulpenak, berriz, izaera kanonikoa du, itzultzailea maila akademikoan espezializatu baita Grimm anaien lanen itzulpenen inguruan. Beraz, bi itzultzaileen kasuan, uler liteke alemanetik itzuli dutela berariaz aitortu izana.



Irudia 33. Alemanetik itzuli dela esplizitateari buruzko datuak.

8.1.1.6 Gaztelaniazko edizioaren datuak agertzea

Argitalpen-eskubideei erreparatzeak itzulpena zuzenean ala zeharka egin den adieraz dezake. Izan ere, itzulpena zeharka egin bada, alemanezko argitalpenaren egile-eskubideak agertzeaz gain, itzulpena egiteko erabili den bertsioarenak agertu beharko lirateke (gaztelaniazkoarenak, kasu).

Ordea, 4 kasutan baino ez dugu ikusi gaztelaniazko bertsioaren aipamena egiten denik egile-eskubideen lekuan (kasuen %12 da hori). Alfaguarak argitaratutako liburuak dira horietako hiru: *Konrad*, *Puntutxo eta Anton* eta *Animalien Biltzarra*.

Beste liburua Mezulari argitaletxeak argitaratutakoa da (*Kika Supersorgina*), egile-eskubideak Bruño argitaletxeari erositakoa.

Gainerako guztiek ez dute bitarteko lanaren egile-eskubiderik aitortzen, eta, hori horrela ikusita, bertako argitaletxeek egile-eskubideak zuzenean Alemaniako argitaletxeei erosi dizkietela interpreta liteke. Jakin badakigu, ordea, gaztelaniazko bertsioaren egile-eskubiderik agertzen ez duten hainbat liburuk gaztelaniazko bertsioa hartu dutela oinarri eta gaztelaniatik abiatuta egindako itzulpenak direla. Edozein modutan, argi dago zubi-hizkuntza gisa erabilitako bertsioari buruzko edizioaren informazioa ezkutatzeko ez duela jakiten uzten nori erosi zaizkion eskubideak⁵⁹.

8.1.1.7 Glosategiak

Euskaratutako HGLan aipagarria eta adierazgarria den paratestu bat dugu glosategiena. Euskal HGL-sistemari buruzko atalean aipatu dugun moduan, Sor eta Itzul sailtako hasierako liburuetan hiztegitxoak erabiltzea ohikoa zela ohartarazten dute Etxanizek eta Lopez Gasenik (Lopez Gaseni eta Etxaniz, 2005: 41). Bestelako hizkuntzatan ere gertatu da HGL itzuliak funtzio hezitzailea izatea hizkuntzari dagokionez, hebreeraren kasuan, esaterako, non jatorrizko alemanezko testuetan hitz bera errepikatzen bazen ere, hebreeraz bi edo hiru sinonimo ematen baitziren, hartzaileen hizkuntza aberastearren (Ben-Ari in Even-Zohar 1992: 223).

⁵⁹ Gai konplexua da egile eskubideen salerosketarena. Jakin dugunez, Elkar argitaletxeak garai batean Baionan zuen egoitzaren bitartez erosten zituen atzerriko lanen eskubideak (Frantziatik, alegia), Alfaguarak eskubideak espainiar estatu osorako erosten zituelako beretzat. Modu horretan, Elkarrek hainbat lan atera ahal izan omen zituen euskaraz. Sakonago aztertzeke kontuak lirateke horiek guztiak.

Gure corpusean zehazki bi lanek ageri dute glosategi bat: *Maiatzak 35* eta *Fantasmatoxa* liburuek. Lan horiek hiztegi bat gehitzen dute ipuinaren bukaeran. Irakurlearengan pentsatuta osatutako hiztegiak dira, harentzat ezezagunak izan daitezkeen hitzekin.

Laurogeiko hamarkadan argitaratutako liburuak direnez, pentsatu behar da euskara estandarizazio-prozesuan zegoela betebetan; hizkuntzaren estandarizazio maila eskasa zela-eta, irakurlea hezteko beharra ere bazegoen. Horregatik, hain zuzen, ordura arte liburuetan erabili gabeko hitzak erabili eta irakurlea horiekin hezteko beharra. Gaur egun, ordea, ez da halakorik erabiltzen.

Horrek, batetik, HGLak hezkuntza-sistemarekin duen lotura uzten du agerian, baina, era berean, une jakin batean euskarak bizi zuen egoera diglosikoa erakusten du. Euskarara bikoiztutako ikus-entzunezko HGL-produktuak aztertzean fenomeno berarekin egin zuen topo Barambonesek ere: bere hastapenetan, ETB-1 kateak euskaraz bikoiztutako ikus-entzunezko produktuei gaztelaniazko azpigituluak gaineratzea erabaki zuen. Modu horretan, euskaraz ulertzen ez zuen biztanleriaren zati handi batek ere bazuen ETB-1eko produktuak kontsumitzeko aukera. Euskaldun ziren askori ere, telebistan euskarara bikoiztuta entzuten zuen hizkuntza ez zitzaion ulertteraza egiten, eta azpigituluak lagungarri zitzaizkion (Barambones, 2009: 122). Barambonesek ikus-entzunezko produktuetan sumatutakoarekin pareka genezake, beharbada, 80ko hamarkadako HGL itzulian aurkitutako glosategiak.

4.4. atalean ikusi dugu itzultzailearen ahotsaren adierazgarri gisa hartzen zituela O'Sullivanek glosategiak. Ez da, jakina, jatorrizko egileak sortutako zerbait, baina, itzultzailearen erabaki autonomoaz harago, argitaletxearen erabaki bat delakoan gaude, hizkuntza-komunitatearen gaitasunei begira hartutakoa, eta, beraz, hizkuntzak bizi duen egoera diglosikoaren adierazle.

Orain arte ikusitakoa kontuan hartuta, corpuseko testuek zuzenean/zeharka itzultzeari buruz ematen duten informazioari buruzko ondorio batzuk atera genitzake. Aipagarriena da argitaletxeak esandakoagatik zeharka itzuli direla dakigun liburuen % 12k baino ez dituela zubi-hizkuntzako egile-eskubideak aitortzen. Horretaz gain, azaleko nahiz barruko ilustrazioak aldatu eta bertako ilustratzaile batek egindakoak jarri dira, esaterako, FSWS-eu liburuan; aztertu beharko litzateke ilustrazioen eskubideek zerikusirik izan duten ala liburua bere osotasunean euskalduntzeko nahia dagoen horren guztiaren atzean. Ez genuke ahaztu nahi, bestalde, zuzeneko itzulpena izan arren, gaztelaniazko itzulpenei begiratu begiratzen zaiela, horixe egiaztatu baitugu DGM-eu liburuaren izenburuari erreparatuta: *Jojo, pailazo baten historia* izenburua gaztelaniaz argitaratutako izenburuaren kopia da. Itzulpena zuzenean egingo zen beharbada, baina argi dago gaztelaniaz aurretik argitaratutako bertsioari ere erreparatzen zaiola.

8.1.1.8 Epitestuak

Epitestuei dagokienean, argitaletxeekin eta zenbait itzultzaileekin izandako elkarrizketetatik jaso dugu informazioa. Jakina denez, liburuek adierazten digutena zuhurtziaz hartu behar

badugu, are zuhurrago jokatu behar dugu argialetxeetako arduradunek esaten digutenarekin.

Ondorengo taula honetan ageri da, laburturik, argialetxeekin hitz egin ostean jasotako informazioa:

Taula 3. Epitestuen taula.

Elkar	Zabaletak, Mendigurenek eta Garikanok alemanetik abiatuta egin omen zituzten itzulpenak. Ormazabalek, Iparragirrek, Gartziak, Sarasolak eta Umeretz eta Azpitartek, berriz, gaztelaniatik abiatuta.
Alberdania	Mujikak eta Erkiziak alemanetik itzuli omen zuten. Erkiziak alemana daki, eta beraz, Mujikak alemanez jakin ez arren, euskarazko bertsioa gainbegiratu eta hari dagozkion zuzenketak eta iradokizunak egin omen zituen.
Pamiela	Kenari Gomez Zubiak argitalpeneko hitzaurrean bertan adierazten du alemanetik egin zuela.
Erein	Oñederrak alemanetik abiatuta lan egin zuen, nahiz eta gaztelaniazko bertsioa ere kontuan hartu zuen.
Mezulari	Aristondok gaztelaniazko bertsiotik itzuli zuen; Ainara Rekaldek alemanetik, nahiz gaztelaniazko bertsioa kontsultatu zuen.
Peru Tximaluze	Zuzenean itzuli omen zuten. Euskarazko zuzentzaile baten laguntza izan zuten.
Kalandraka	Izagirrek galegotik itzultzen duela adierazi ziguten.

Alfaguara

Narbaizak eta Azkuek alemanetik itzuli omen zuten, Legarretak, Ossak, Iturraldeak eta Navascuesek, berriz, gaztelaniazko bertsiotik.

Argitaletxeetako arduradunekin hitz egitean jaso genuen informazioa askotan *alemana badaki / ez daki* motakoa izan zen. Baina horrek ez du esan nahi alemana dakien batek, hizkuntza ezagutu arren, itzultzerakoan gaztelaniazko bertsiolari begiratuko ez dionik. Gainera, hizkuntzen jakintzan askotariko mailak daude, eta hizkuntza jakiteak ez du esan nahi hizkuntza horretatik itzultzeko gaitasuna duenik.

Hala, zaila da neurtzea zenbateraino eragingo zieten gaztelaniazko bertsiok euskal itzultzaileei, zenbaterainoko neurrian kontsultatuko zuten euskal itzultzaileek gaztelaniazko bertsiak.

Bestalde, euskal itzultzaileak bere baitan, euskara ez ezik, gaztelania ere baduenez, gaztelaniazko bertsiak kasik ez kontsultatu arren, gaztelaniak bigarren ama-hizkuntza gisa eraginik eta arrastorik utzi uzten duelakoan gaude.

Gauzak horrela, argi dago epitetuetatik ateratako informazioa ere behin-behineko datu gisa hartu behar dela.

8.1.1.9 Ondorioak

Aurreko datuak aztertu ondoren, informazio-gabezia handiena gaztelaniazko bertsioren egile-eskubideetan topatu dugu.

Jatorrizko egiletza beti aitortzen da. Ez da gauza bera gertatu itzultzailearen figurarekin, nahiz eta itzultzailea aipatu ez den kasu

bakarrean nahi gabe ahaztutako informazioa dela pentsa daitekeen. Edozein kasutan, nahi gabe egindako hutsegite hori bera helduen literaturan gertatuko ote litzatekeen, hortxe koska. Hau da, beharbada HGLaren generoak literaturaren barnean duen prestigio baxuaren albo-ondorio bat ere izan liteke. Ezin daiteke ezer ziurtatu, jakina, baina datu adierazgarria denik ere ezin uka.

Jatorrizko izenburua corpuseko 30 lanek ageri dute, gehiengoak, alegia, eta, beraz, jarri ez duten hiru lanen kasuan ere nahi gabe ahaztutako informazioa izan daiteke. Dena den, esan berri dugunaren haritik, ahanztura horiek gertatzea bera ere adierazgarria bada.

Alemanetik itzuli dela apenas aitortzen den espresuki, baina hori, oro har, ez da praktika arrunta. Ez da, beraz, harridura sorrarazi digun datua.

Harridura handiagoa sorrarazi digu gaztelaniazko edizioaren eskubideak horren neurri txikian aitortuta egoteak. Corpuseko lau liburuk baino ez dituzte beren kredituetan gaztelaniazko bertsioaren eskubideak agertzen. Kontuan hartu behar da katalogotik zekarten datuen arabera (nahiz datuak, betiere, hipotetikoak diren), 14 lan daudela zeharka eginak, hau da, jatorrizko gisa gaztelaniazko bertsioa hartu eta bertatik abiatuta eginak.

Era berean, eta ilustrazioei buruzko datuak gogora ekarrita, gaztelaniazko bertsioaren eskubideak agertzen ez dituzten lan horietatik batek (*Suzko Zapatak eta Haizezko Sandaliak*) bertako ilustratzaile batek egindako irudiak dauzka (Luis Astrainen

ilustrazioak). Baliteke, kasu horretan, arrazoi ekonomikoak egotea tarteko.

Nolanahi den, eta batez ere zeharka egindako itzulpenen kasuan, paratestuek ez dute beti informazio argigarria ematen.

8.2. TESTU AZTERKETA MAKRO MAILAN

Makroazterketari ekiteko, corpusak ematen dizkigun zenbaki gordinak aztertuko ditugu lehenik. Liburuek osatzen dute gure corpusa, baina, azken buruan, liburuetan testua dago, eta testua paragrafoz, esaldiz eta hitzez dago osatua. Horiek guztiek zenbatu, eta jatorrizkoen eta itzulpenen artean dagoen aldea ikusita, corpusaren azaleko itxurari erreparatuko diogu. Izan ere, azaleko datu gordin horiek ere esanguratsu gerta dakizkiguke bere horretan: euskarazko bertsioak daukan atal, paragrafo edo esaldi kopurua alemanezko bertsiotik baino, zubi-hizkuntzaren bertsiotik gertuago gelditzen bada, adibidez. Jakina, azaleko datuez ari gara, eta horien interpretazioa testuen ikerketa xeheago bati ekin aurreko pausoa baino ez da izango.

Corpusa 33 lanek osatzen dute: zuzenean itzultako 19k eta zeharka itzultako 14k, betiere hasierako ustearen arabera. Izan ere, eta metodologiaren oinarriak azaltzean adierazi dugunez, dena da ustezko eta hipotetiko hasiera batean. Hemendik aurrera egindako azterketek egiaztatuko digute, egiaztatzekotan, guk zuzeneko nahiz zeharkakotzat jotzen ditugun lanak hala diren ala ez.

Katalogotik zein lan aukeratu ditugun eta zergatik azaldu dugunean (7.1 atalean) aurkeztu dugu corpusa osatzen duten izenburuen zerrenda. Beraz, eskuartean dugun datu-basearen

ezaugarriak deskribatuko ditugu orain. Ez baita ahaztu behar, erabili dugun metodologia dela eta (katalogotik lan kopuru adierazgarri bat aukeratuta, alegia), kontuan hartzeko moduko datu-masa bat dugula.

Lehenik eta behin, liburuek ageri duten barne antolaketari erreparatuko diogu, bakoitzak duen atal kopuruari, alegia.

Taula 4. Corpuseko lanen atal kopurua.

Liburuak	Atal kopurua		
	Alemanez	Zubi-hizkuntzaz	Euskaraz
DSG	0		0
LOS	26 gutun		27 gutun
LD	18		18
GNZ	18		18
EL	17		17
WO	sarrera moduko bat dago (<i>wir wissen es nicht... sie haben versagt</i>) + 16		16
DAK	4		4
FR	17		17
DGM	Hitzaurrea, 7 agerraldi eta hitzatzea.		Hitzaurrea, 7 agerraldi eta hitzatzea.
28LG	28		28

AUB	0		0
WL	0		0
SK	33		33
DDL	12		12
KHM	62		62
DPS	0		0
DGS	0		0
WFKD	19		19
STP	<i>Wenn die Kinder artig sind</i> + 10 istorio + hitzatzea		<i>Peru Tximaluze</i> izeneko sarrera + 10 istorio + epilogoia (<i>jesus umea</i>)
DOA	8	8	8
HLJ	4 + 2 <i>Urwaldtrick</i>	4 + 2 <i>Truco selvático</i>	4 atal + Oihaneko 2 trikimailu
35M	7	7 (oin-ohar batzuk baditu)	7 (bukaeran glosategia)
DKG	22	22	22 (bukaeran glosategia)
DASH	<i>Das geheimnisvolle Haus</i> (11) + <i>Der Schatz im Bibersee</i> (11) + <i>Der Schmuggler-Tunnel</i> (18) + <i>Raub im Zoo</i> (20) + <i>Die Meisterdetektive</i>	<i>La casa misteriosa</i> (11) + <i>El tesoro en el lago de los castores</i> (11) + <i>El tunel de los traficantes</i> (18) + <i>Robo en el Zoo</i> (20) + <i>Los detectives campeones</i>	Etxe misteriotsua (11) + Kastoreen lakuko altxorra (11) + Trafikarien tunela (18) + Lapurreta Zooan (20) + Ikertzaile txapelduna
DKH	20	20	20
FSWS	15	15	15

PA	<i>Die Einleitung ist möglichst kurz + 16 (+Nachdenkerei) + Das kleine Nachwort</i>	<i>La introducción es lo más breve posible + 16 (+reflexión) + un pequeño epílogo</i>	hitzaurrea + 16 (+ gogoeta) + gibelsolas txikia
ED	<i>19 (Die Geschichte fängt noch gar nicht an + So, nun wollen wir aber endlich anfangen, 18)</i>	<i>19 (el cuento no empieza todavía + ahora empieza el cuento,18)</i>	19 (ipuina ez da oraindik hasten + orain hasten da ipuina, 18)
DKT	8 (izenbururik gabe)	8 (izenbururik gabe)	8 (izenbururik gabe)
VKM	0	0	0
WSM	0	0	0
KND	0	0	0
JJJ	18	18	18

Corpuseko ia-ia liburu guztietan mantentzen da atal kopurua; hau da, ez da aldaketa nabarmenik sumatu. Izan ere, atalei dagokienean desberdintasun handiak baleude, bertsio laburtuez edo, oro har, moldaketez arituko ginateke, itzulpenez baino.

Dena dela, LOS (*Liebe Oma, deine Susi*) liburuan gutun bat gehiago daukagu euskarazko bertsioan. Liburu horretan ez dago, berez, atalik, Susik bere amonari bidaltzen dizkion gutunak baizik. Gutunak zenbatu ditugu, eta euskarazkoan bat gehiago dago. Susik bi egunetan bidaltzeko astirik izan ez dituen bi gutun daude liburuan. Alemanezko bertsioan besteen artean txertatuak ageri dira bi gutun horiek, eta parentesi artean zein egunetakoak diren agertzen da. Euskarazko bertsioak, ordea, gutun labur-labur bat

dauka bi gutun horien aurretik. Bertan, Susik amonari azaltzen dio ez duela izan hurrengo bi gutunak bidaltzeko denborarik eta jarraian bidaltzen dizkiola. Horregatik dauka euskarazkoak gutun bat gehiago. SM Ediciones argitaletxeak argitaratutako itzulpena izanik, itzultzaileak gaztelaniaz argitaratutako bertsioaren egiturari jarraitu diola pentsatu dugu, eta gaztelaniazko bertsiora jo dugu: 1987an SM Ediciones argitaletxean argitaratutako gaztelaniazko bertsioak ere atzeratutako hiru gutun dauzka, euskarazkoak bezalaxe. Gaztelaniazko bertsioak dio Dachs Verlag argitaletxeak 1985ean argitaratutako bertsioa duela oinarri, eta EHUko liburutegian corpuserako hartu dugun liburuxka Dachs Verlag argitaletxeak 2002an argitaratutako bertsioa da. Argitaletxe alemanak testuaren edukari dagokion xehetasun hori aldatu duen ala ez alde batera utzita, honek guztiak garbi utzi digu LOS-eu liburuak gaztelaniazko bertsioaren egiturari jarraitu diola. Katalogoaren arabera zuzeneko itzulpena bada ere, azterketa mikrotestuarean adi egongo gara liburu honi dagokionean, zeharkakotasunaren zantzurik sumatzen ote dugun, edo, alderantziz, itzulpena zuzenean egin delako frogarik lortzen dugun.

WO (*die Wolke*) liburuan, alemanezko bertsioak hitzaurre moduko atal txiki bat dauka aurreneko atala hasi aurretik (egunkari aleman batean zentral nuklearrei buruz agertutako erreportaje baten zatitxo bat; ez dira egilearen hitzak). Euskarazko bertsioan ez dago atal hori. Hasieran pentsatu genuen alemanezko edizio batetik bestera gehitu duten xehetasun bat izan zitekeela, baina aurreneko edizioa kontsultatu dugu (1987koa) eta han ere


badator aurre-atal hori. Bestalde, gaztelaniazko itzulpena ere kontsultatu dugu datu gehigarri gisa, eta hark ere ez du halakorik.

STP (*Struwwelpeter*) liburuan ere desberdintasun txiki bat dago hurrenkerari dagokionez, baina edukia berbera da. Alemanezko *Wenn die Kinder artig sind* bertsoa atzean dator euskarazko bertsoan (epilogo gisa), eta alemanezkoak hitzatze bat dakarren moduan, euskarazkoak hitzaurre bat dauka, liburuaren nondik norakoak azaltzen dituena.

Ez dago, gainerakoan, inolako alderik sorburu-bertsioen eta zubi-hizkuntzen edo euskarazko bertsoien artean.

Bestalde, eta 8.1.1.7 atalean aipatu dugun moduan, corpuseko bi lanek glosategiak dauzkate amaieran.

Testuek eskaintzen dizkiguten datu gordinak aztertzen hasiko gara orain. Guztira, 1.276.280 hitz dauzkagu esku artean. Jakina, datu horiek desberdinak dira hizkuntzen arabera: alemanezko eta euskarazko testuek dute hitz gehien (589.061 hitz alemanez, 457.862 hitz euskaraz); zubi-hizkuntzei dagokien hitz kopurua baxuagoa da (229.357 hitz), itzultzeko ustez zubi-hizkuntza baliatu den kasuetan baino ez ditugulako bertso horiek kontuan hartu; hau da, zeharka itzuli diren kasuetako zubi-bertsioak baino ez ditugu sartu corpusean: 14 guztira.




Irudia 34. Corpuseko hitz kopurua.

Hala ere, euskarazko lan kopurua bada alemanezko lan kopuruaren berbera, eta, hala eta guztiz ere, nabarmena da hitz kopuru handiagoa dugula alemanez euskaraz baino; % 22ko aldea dago, zehazki, bi hizkuntzen artean. Alemanezko eta euskarazko bertsioren arteko hitz-alderaketari xeheago erreparatuta, ikusi dugu 33tik 25 lan daudela % 10 (edo hortik goragoko portzentajedun) hitz gutxiagorekin, 14 lan % 15 hitz gutxiagorekin eta 3 lan % 20 hitz gutxiagorekin. Hiru lan horiek DGM (*Das Gauklermärchen*), DGS (*Die Geschichte von Herrn Sommer*) eta WSM (*Wie schmeckt der Mond?*) dira. Hiruak itzuli dira, ustez, zuzenean alemanezko bertsiotik. Baliteke errealitate hori bi hizkuntzen egitura ezberdinari lotuta egotea: preposizionala bata, postposizionala eta eranskaria bestea.

Hurrengo taulak zeharka itzultako testuak baino ez ditu hartzen kontuan. Hor argiago ikusten da alemanezko eta zubi-hizkuntzako testuen hitz kopurua (alemanezkoek 214.136, zubi-hizkuntzakoek 229.357) antzekoagoa dela euskarazko testuena

baino (187.588). Euskaraz, alemanez baino % 12 hitz gutxiago dago, eta zubi-hizkuntzaz baino % 18 gutxiago. Hemen ere hizkuntzen oinarritzko egiturak du zeresan handia, zalantzarik gabe.



Irudia 35. Zeharkako itzulpenetako hitz kopurua.

Ez gaude hizkuntzen arteko alderaketa bat egiten hasteko moduan, baina ohartarazi nahi genuke euskara hizkuntza postposizionala dela eta eranskaria. Horregatik, alemanak edota zubi-hizkuntza gisa erabilitako gaztelaniak eta galegoak artikulua eta preposizioa izenaren aurretik eta hitz solte gisa eramaten badute ere, euskarak izenari lotuta eraman ohi ditu. Hala, hizkuntzen ezaugarri hori kontuan hartuta, erraz uler daiteke hitz solteen kopurua handiagoa izatea aztergai ditugun beste hizkuntzetan gurean baino. Froga gisa, 35M liburuko aurreneko pasarte hartu dugu, eta alemanez, gaztelaniaz eta euskaraz bakoitzak duen hitz kopurua zenbatu dugu. Ikus daitekeen moduan, euskarak du hitz kopururik txikiena:


Taula 5. Hitz kopuruen arteko aldea. Adibide bat.

35M	35M-es	35M-eu
Es war am 35.Mai. Und da ist es natürlich kein Wunder, daß sich Onkel Ringelhuth über nichts wunderte. Wäre ihm, was ihm heute zustoßen sollte, auch nur eine Woche früher passiert, er hätte bestimmt gedacht, bei ihm oder am Globus seien zwei bis drei Schrauben locker. Aber am 35. Mai muß der Mensch auf das Äußerste gefaßt sein.	Ocurrió el 35 de mayo. Y por eso no tiene nada de extraño que al tío Ringelhuth le pareciera todo de lo más normal. Si solamente una semana antes se le hubiera presentado lo que hoy le iba a suceder, hubiera pensado, sin duda, que a él o al globo terrestre le faltaba algún que otro tornillo. Pero el 35 de mayo tiene uno que estar preparado para cualquier cosa.	Maiatzak 35ean gertatu zen. Ez da, beraz, batere harrigarria osaba Ringelhuthi dena munduko gauzarik arruntena iruditzea. Gaur jazo* beharrekoa aste bete lehenago presentatu izan balitzaio, zalantzarik gabe pentsatuko zuen edo berak edo lur borobilak buruko ardatza estutu gabe zeukala. Baina maiatzak 35ean prest egon behar du norberak edozein gauzatarako.
58 hitz	70 hitz	49 hitz

Hasierako une honetan corpusak eman diezagukeen beste datu bat esaldi kopuruarena da. Lerrokatze lana egin aurretik etiketatutako testuek aurkezten zizkiguten esaldi kopuruan oinarritu gara ondorengo grafikoa osatzeko. Izan ere, lerrokatu ondoren, parez pare geratu zaizkigu liburu beraren bertsiokoak; hau da, alemanez bi esaldi baldin bazeuden eta euskaraz bakarra, euskarazko esaldia bitan banatu dugu. Horregatik, lan hori egin aurretik, esaldiak parekatzeko egin beharreko moldaketa guztiak egin aurretik, etiketatze-lerrokatze programak erakutsi dizkigun esaldi kopuruak hartu ditugu kontuan. Jakina, etiketatuta baina lerrokatu gabe dauden esaldi horietan ere errore-tarte bat aurreikusi behar dugu, etiketatzean, programak ez baitu, kasu guztietan eta beti, esaldi guztiak akatsik gabe, hasi eta buka, etiketatu. Lerrokatzerakoan konpondu ditugun zenbait

inkongruentzia egon da, eta lerrokatu aurreko esaldi kopuruari begiratzean, inkongruentzia horiek ere esaldi gisa gelditu dira zenbatuta. Esate baterako, puntu bat ikusi orduko, etiketatzean programak esaldi bukaera gisa interpretatzen du, nahiz eta puntu hori zifra batek daramana izan, edo sigla batek daramana. Errore kopuru hori ez da inondik ere handia, baina fidagarritasuna kentzen dio esaldi kopuruari. Erroreak errore, kontuan hartzeko moduko datua dela uste dugu.


Kasu honetan ere, alemanez euskaraz baino esaldi gehiago dugula ikusi dugu. Euskaraz baino 1.138 esaldi gehiago dago alemanez. Ez da, hala ere, hitz kopuruarekin ikusi dugun bezain alde handia (kasu honetan, euskarazkoak alemanezko bertsioak baino % 2 esaldi gutxiago dauka), baina, bere horretan, datu adierazgarria da: euskaraz esaldiak batzeko joera dagoelako hipotesia atera genezake.



Irudia 36. Corpuseko esaldi kopurua.

Zeharka itzulitako testuen esaldi kopuruari erreparatuta, ordea, zubi-hizkuntzako bertsioen eta euskarazko bertsioen artean

esaldi kopuruan dagoen aldeak arreta deitu digu: euskarazko bertsioek zubi-hizkuntzakoek baino 1.628 esaldi gutxiago daukate (% 7 gutxiago) eta alemanezkoek baino 2.920 esaldi gutxiago (% 13 gutxiago). Beraz, zeharkako itzulpenetan moldaketarako joera nabarmenagoa dela ondoriozta dezakegu.




Irudia 37. Zeharkako itzulpenetako esaldi kopurua.

Datuak gertuagotik ikusita, alemanezko lan bat daukagu euskarazkoak baino nabarmen esaldi kopuru handiagoa duena: FSWS da (*Feuverschuh und Windsandale*). Euskarazkoak baino %16 esaldi gehiago dauka (239 esaldi gehiago); gaztelaniazko bertsioak, berriz, gaztelaniazko bertsioetik itzuli baitzen, euskarazkoak baino % 4 esaldi gutxiago dauka (43 esaldi gutxiago). Kasu zehatz horretan, alemanezko bertsioetik euskarazkora jauzi handi samarra dago, baina zubi-bertsioaren eta euskarazkoaren arteko aldea ere adierazgarria da, uste izatekoa baita, euskarazkoak gaztelaniazkoari jarraitu badio, haren esaldi kopuruak berdintsua izan beharko lukeela.

Bistan denez, zubi-hizkuntzako bertsoien eta euskarazkoen arteko aldea nabaria da, eta, euskarak zubi-hizkuntzari jarraitu diola kontuan hartuta, alde hori (% 7 esaldi gutxiago) adierazgarria da. Datu zehatzei erreparatuta, liburu bakar batean ikusten dugu gaztelaniazko bertsoiak euskarazkoak baino esaldi kopuru handiagoa duenik: DASH liburuan gertatzen da hori (*Die Abenteuer von der schwarzen Hand*). Liburu horretan, gaztelaniazko bertsoiak euskarazkoak baino 59 esaldi gehiago dauka (% 4 gehiago). Hala ere, liburu horren kasuan, badugu bi bertsoien arteko esaldi kopuruaren aldea azalduko lukeen arrazoia: pertsonaia baten izena *Kiki c.a.* da gaztelaniaz, eta euskaraz, *Kiki k.* da izena. Hau da, euskarazko izenak puntu bakarra dauka, eta gaztelaniazkoak bi. Lehen azaldu dugunaren haritik, etiketatze programak esaldi amaiera gisa interpretatzen ditu puntuak, eta, kasu horretan, gaztelaniazko bertsoian esaldi kopuru handiagoa interpretatu du, izenak daraman bi puntuak direla medio.

Gainerako liburuetako esaldi kopuruari banaka erreparatuta, euskarazko bertsoiek zubi-hizkuntzakoek baino esaldi kopuru pixka bat handiagoa dutela ikusi dugu.

Esaldi kopuruen arteko aldeak handiak eta adierazgarriak direnez, zuzeneko itzulpenei erreparatu diegu, kasu horietan esaldi kopurua antzekoago mantendu ote den ikusteko. Ondorengo grafikoak erakusten digunez, ordea, zuzenean itzultako testuen artean, esaldi kopuruari dagokionez dagoen aldea handia da: euskarazko bertsoiek alemanezkoek baino 1.782 esaldi gehiago daukate (% 4,4 gehiago). Beraz, esaldi kopuruari dagokionez, orain arte ikusi duguna ikusita, ezin esan genezake zuzenean ala zeharka itzultzean ezer sumatzen denik esaldien kopuruan.



Irudia 38. Esaldi kopurua zuzeneko itzulpenetan.

Paragrafo kopuruari begiratuta berriz, guztira 54.590 daudela ikusi dugu. Alemanaren eta euskararen artean alderatuta, nabarmena da euskaraz paragrafo gehiago dagoela (18.592 alemanez, 26.171 euskaraz). Alemanez elkarrizketak kakotx artean txertatzen dituzte narrazioan, eta, maiz, ez dute lerro-saltorik gehitzen. Euskaraz, berriz, gaztelaniaz baliatzen diren konbentzio berberak baliatuta, gidoien bitartez identifikatzen dira elkarrizketak, eta, pertsonaia bakoitzak esandakoaren ostean, lerro-saltoa etorri ohi da.


Taula 6. Paragrafo kopuruen arteko aldea. Adibide bat.

DOA (2 paragrafo)	DOA-es (4 paragrafo)	DOA-eu (4 paragrafo)
Die Mutter gab Bello einen kleinen Klaps, zum Zeichen, dass er fertig gebürstet war. Sie nahm Andi auf den Schoß: "Ist es sehr schlimm, dass du keine Omama hast?" Andi nickte. "Alle haben	Mamá le dio un empujoncito a Bello, para darle a entender que había terminado de cepillarle, y luego sentó a Andi en su regazo. -¿Tan triste te parece eso de no tener abuelita?	Amak bultzadatxo bat eman zion Xarpari, eskuilatzen bukatu zuela adierazteko. Eta gero bere besoetan hartu zuen Andi. -Hain gauza tristea dela iruditzen al zaizu amonarik ez edukitzea?


eine. Der Gerhard und der Robert -alle!"	Andi asintió. -Todos la tienen. ¡Gerhard, y Robert... todos!	Andik baietz zioen. -Denek daukate. Beñatek, Ikerrek... denek!
--	---	--

Aurreko adibideetan ikusten denez, alemanezko bertsioan lerro-salto bat dagoen tokian (2 paragrafo), gaztelaniaz eta euskaraz hiru daude (4 paragrafo).

Hori guztia argiago ikusteko, zeharka itzultako datuak bakartu ditugu, kasu horretan gehiago sumatzen delako hizkuntzen arteko aldea, paragrafoak markatzeari dagokionean. Hemen bi grafikoak:



Irudia 39. Corpuseko paragrafo kopurua.



Irudia 40. Zeharkako itzulpenetako paragrafo kopurua.

Ikus daitekeen moduan, zubi-hizkuntzek (gaztelaniak eta, bi kasutan, galegoak) eta euskarak ageri dituzten paragrafo kopuruak antzekoak dira, nahiz eta euskaraz paragrafo gehiago dagoen. Adierazgarriena da, ordea, agerikoa dela bi bertsiok alemanaren alboan agertzen duten aldea. Izan ere, zuzenean eginda ere, kontua da gaztelaniazko konbentzio berbera erabiltzen duela beti euskarak elkarrizketen formatuari dagokionean.

Atal honetan, paratestuei erreparatu izan nahi izan diegu lehenik. Ez dugu bereziki esanguratsua egin zaigun informaziorik topatu, lan guztiek baitakarte funtsezkoa den eta formalismoek agintzen duten informazio guztia. Dena den, badira zenbait xehetasun: WL-eu, DKG-eu eta GNZ-eu itzulpenek ez dute jatorrizko izenbururik ageri kredituetan, baina hori oharkabean gertatutako zerbait izan liteke; FSWS-eu itzulpenak egokitu egin ditu barneko ilustrazioak, eta jatorrizkoak errespetatu beharrean, bertako batek egindakoak jarri dira; bestalde, eta adierazgarriagoa dena, zeharka egin diren 14 itzulpenetatik 4 kasutan baino ez dira

gaztelaniazko bertsioaren egile-eskubideak zehazten. Batez ere azken datu horrek erakusten du badela gaztelaniarekiko morrontza ez erakusteko nolabaiteko helburua.

Makroegiturari dagokionean, jatorrizkoen eta itzulpenen atal kopuruari erreparatu diegu, baita hitz, esaldi eta paragrafo kopuruari ere. Oro har ondorio argirik atera ezin badaiteke ere, garbi ikusten da zeharka itzultakoek badutela zubi-hizkuntzako lanekin lotura bat. Garbi ikusi dugu hori paragrafo kopuruan, zeharkako itzulpenak hartuta ikusi baitugu zubi-hizkuntzako eta euskarazkoen paragrafo kopuruak antzekoak direla, eta ez datozela guztiz bat jatorrizkoak diren alemanezko bertsioekin. Nolanahi den, hitz kopurua kontuan hartuta, euskarazko bertsioek alemanezkoek eta zubi-hizkuntzakoek baino hitz kopuru txikiagoa ageri dute, baina hori hizkuntza bakoitzaren ezaugarriei egotzi beharrekoa izango da.

Atal kopuruari dagokionean, WO-eu eta LOS-eu itzulpenetan desberdintasun batzuk sumatu ditugu alemanezko atal kopuruarekiko. Ikusi dugu, gainera, gaztelaniazko bertsioen atal kopuruarekin bat datozela. Beraz, hemendik aurrera ekingo diogun mikro mailako testu azterketan ikusi beharko da testu horien ingurukoak argitzen zaizkigun.

Mikrotestuaren azterketa

Makrotestuaren azterketan corpusaren gorputza aztertu ondoren, mikrotestuaren azterketari ekingo diogu orain: corpusa arakatzeko bilatzailea erabili, eta, jasotako emaitzak aztertuz, testuei erreparatuko diegu xehe-xehe. Egitura orokorragoak aztertu ostean, beraz, hauxe dugu ikerlanaren hurrengo urratsa; atal honetako ondorioak atera ondoren, makrotestuaren azterketako ondorioekin gurutzatu, horiek testuinguru sistemikoari lotu eta ondorio orokorrak atera ahal izango ditugu.

Bi gai aztertuko ditugu mikrotestuan: iseken eta madarikazioen itzulpena, alde batetik, eta alemanezko moduzko partikulen itzulpena, bestetik. Biak ere gazte-hizkerarekin edo elkarrizketa fikzionatuarekin lotuta dauden elementuak dira.

9.1. ISEKAK ETA MADARIKAZIOAK

HGLaren itzulpenean erabiltzen den gazte-hizkera aztertzerakoan, iseken eta madarikazioen itzulpenei erreparatu

nahi izan diegu lehenik. Ikusi dugun moduan, idatzizkoak ez du ahozkoa guztiz islatzen, eta, beraz, testuen beste hainbat ezaugarriekin gertatzen den moduan, ahozkotasun fikzionatua ez da, inolaz ere, ahozkotasun erreala. Hala, hipotesizat daukagu askotan esapideen indarra leuntzera jo ohi dela, eta, are, hizkuntza maila jasoegia ere erabiltzen dela batzuetan. Gure azterketa honekin iseken itzulpenean eufemizatzea zein mailatan gertatzen den ikusi nahi dugu (Touryren estandarizazioaren legea), baina, era berean, gaztelaniak zer esanik baduen hartu nahi dugu kontuan, zeharka itzulitako kasuetan erabat baldintzatzen baitu zubi-hizkuntzak, baina, zuzenean itzuli den kasuetan ere suma liteke, akaso, gaztelaniaren interferentzia (Touryren interferentziaren legea; gure kasuan, baina, interferentzia bikoitzaren legea genuke). Interferentzia gaztelaniazko hitzak edo esapideak erabiltzen direlako suma liteke, edo, preseski, kontrako arrazoiagatik: gaztelaniatik urrundu nahi izatean edota euskarari beste maila bat eman nahi izatean maila jasoagoko esapideak erabiltzen direlako.

9.1.1 *Aurrekariak*

Ez dugu topatu iseken eta madarikazioen itzulpena berariaz aztertzen duen lanik. Nolanahi den, badira gaira nolabait hurbiltzen diren lanak.

Fischerrek, esaterako, ahozko eta ez-ahozkoen artean desberdintzen ditu kultur elementuak (Fischer, 2000: 152), eta, dio, ahozkoak direnen artean, esapideak eta irainak nabarmentzen direla itzultzeko zailenak direnen artean.

2006ko artikuluan, Marcelo Wirnitzerrekin batera alemanetik gaztelaniara itzultzeko jaso zuten enkargu baten berri ematen digu Pascua Feblesek. Gazteei bideratutako liburua zen jatorrizkoa, eta, ordurako, itzulia zegoen ingelesera. Gaztelaniazko bertsioa ingelesezkoa ere kontuan hartuta egin behar omen zuten, eta artikuluan lehendik eginda zegoen ingelesezko bertsioaren eta beraiek egindako gaztelaniazko bertsioaren arteko alderaketa egiten dute. Era berean, itzulpena egiterakoan kolokialak eta idiomatikoak ziren esapideekin nola jokatu erabakitzeke izan zituzten zalantzen berri ematen dute: “should he or she follow the needs of the young readers, using the language these youngsters speak at home and with their friends?” (Pascua Febles, 2006: 112). Pascua Feblesek berak erantzuten dio bere galderari, esanez, hain zuzen, liburu bakoitza bakarria dela sortzen eta itzultzen den lekuan/garaian, eta, beraz, askotariko estrategiak direla zilegi. Galdera hori gakoa da HGLa euskarara itzultzerakoan, gazteek etxean eta lagunartean egiten duten hizkuntza gaztelaniatik gertu egon ohi baita; beraz, kontua ez da soilik gazteen hizkuntza informalegia ote den idatzian jartzeko, baizik eta, zenbaitetan, euskaraz nola egingo luketen irudikatu egin behar duela itzultzaileak; hizkera fikzionatua guztiz normalizatu gabe daukagulako seinale.

Esan bezala, artikulua horretan bertan, Pascua Feblesek jatorrizko alemanezkoaren eta ingelesezko bertsioaren artean sumatzen dituen aldeei erreparatzen die. Zenbait adibidetan oinarrituta, izen bereziak, onomatopeiak eta tonua aztertzen ditu, eta ondorioztatzen du ingelesezko itzulpena askoz formalagoa dela, ez dituela jatorrizkoaren zakarkeriak jasotzen eta etxekotze

linguistiko zein kulturalaren alde egiten duela (Pascua Febles, 2006: 120).

Argitalpen bereko beste artikuluko batean, Richard Adams, Roald Dahl eta J.K. Rowling egile ingelesaren fantasiako liburuen gaztelaniarako testuak aztertzen ditu Gonzálezek, Lambert eta Van Gorpen metodologiari jarraiki: makroazterketarekin hasi eta mikroazterketarekin jarraituz (González, 2006). Mikroazterketan azpimarratzen duenez, kultur kodeari dagozkion elementuen itzulpenean (irainen eta esapide kolokialen itzulpenean) neutralizatu egiten da, eta Roald Dahlen *Charlie and the Great Glass Elevator* liburuaren gaztelaniazko pasarte bat ematen du adibidetzat: “translation strategies such as reduction of the idiom by rephrasing, generalization and a more elevated style, neutralize the semantic vividness of the ST and deprive the target reader of specific connotations” (González-Cascallana, 2006: 107).

Bi artikuluko horiek adierazten digutenez, egon badago HGLaren itzulpenean hizkera ez formalak jasotzen duen trataerari buruzko kezka. Sakonagoak diren lanetan, hala ere, hizkera ez formala kultur erreferentzia gisa hartzen da, eta, beraz, kultur erreferentziak diren gainerako elementuekin batera aztertzen dira irainak eta bestelakoak. Hori da, esaterako, Marcelok egiten duena bere lanean: HGL alemaneko, eta, zehazki, Christine Nöstlingerren lanetan ageri diren erreferentzia kulturalen azterketa egiten du (Marcelo, 2007). HGLak helburu didaktiko eta pedagogikoen eragin sendoa jasotzen duenez, itzultzaileen esku-hartzeaz ohartarazten du Marcelok:

Una comparación de muchos libros y de sus traducciones nos mostraría cómo los traductores cambian insultos por palabras más suaves o simplemente los eliminan, escenas relacionadas con el sexo, que también se suelen “suavizar” o censurar etc. Todo esto depende por supuesto de las características de cada cultura y de los tabúes existentes e imperantes en cada una de ellas (Marcelo, 2007: 146).

Erreferentzia kultural guztien sailkapen luze bat osatu ostean, horien itzulpenak aztertzen ditu Marcelok, itzultzaileak erabilitako itzulpen estrategiei, batetik, eta itzulpen-prozedurei, bestetik, erreparatuz. Itzulpen estrategiak itzultzailearen jarduteko irizpide orokorrak dira, testuari bere osotasunean eragiten diotenak; itzulpen-prozedurak, berriz, elementu zehatz bat itzultzeko itzultzaileak erabiltzen dituen mekanismoak (Molina eta Hurtadoren zerrendan oinarritu da Marcelo). Erreferentzia kulturalen zerrenda luzean, irainak aldaera diastratiko gisa sailkatzen ditu Marcelok, eta, era berean, horien itzulpenean egokitzapen kulturala aplikatu dela ondorioztatzen du:

En cuanto a la traducción de estos elementos, se observa un predominio de la adaptación cultural, utilizada en más de la mitad de las muestras encontradas. Esto pone de relieve la tendencia de los traductores a buscar un efecto similar al del TO adaptando las referencias culturalmente (Marcelo, 2007: 192).

Gazte-hizkerari buruz 2.8.1 atalean ikusi dugunez, Alemanian Androustoupoulusen doktore-tesia dugu gai honi dagokionean erreferente. Bere laneko ataletako batean, berariaz erreparatzen die iskei eta madarikazioei (1998: 481-486). Androustoupoulusek dioenez, bi iseka mota dago gazte-hizkeran: distantzia markatzen dutenak, eta, beraz, hitzez nolabaiteko bortizkeria adierazten

dutenak; eta minik egiten ez duten isekak, solaskidearekiko harremana zalantzan jartzen ez dutenak, alegia.

Nolanahi ere, eta irizpide pragmatikoei jarraiki (hizketa-ekintzaren indar ilokutiboa eta komunikazio-egoera kontuan hartuta), lau iseka mota bereizten ditu Androutsopoulusek:

Iseka erritualak: batik bat elkarrizketa hasteko eta amaitzeko erabiltzen direnak. Solaskideari ez diote inolako kritika edo mespretxurik egiten. Are, bien arteko intimitatearen seinale da: *Hey Harry, du alte Sau, So lange ihr Scheißer...!*

Bidezko iseka: solaskideak esandako zerbaitegatik erreakzio moduan sortzen den, eta, beraz, arrazoituta dagoen iseka: *He Du Penner! War um 17:00 da (wie ausgemacht!) und Du beglückst einen mal wieder mit deiner Abwesenheit.*

Iseka sailkatzailea: norbaiten izaera edo jarrera negatiboki ebaluatu edo sailkatzeko erabiltzen diren isekak: *Poser, Proll, Asso, Loser, Schwätzer.*

Distantzia ezartzeko isekak: normalean ezezagunei bideratutakoak, hain zuzen ere, distantzia hori mantentzeko asmoz.

Androutsopoulusek egindako sailkapen hori ahozko jardunean dago oinarrituta, komunikazio-helburuen arabera, eta oso baliagarria izan liteke, batez ere, iseken funtzioa aztertzeko. Gure ikerketan, ordea, itzulpen-estrategiei erreparatu nahi diegu gehiago. Alde horretatik, aski dugu iseken sailkapen orokorrigo/formalago bat, lana modu ordenatuan egiten lagunduko diguna.

9.1.2 *Metodologia*

Gure corpusean agertzen diren iseken eta madarikazioen erauzketa egiteko, lan bat hartu dugu oinarri gisa: Gabriele Scheffler-ek 2000. urtean argitaratutako lana (Scheffler, 2000, *Schimpfwörter im Themenvorrat einer Gesellschaft*, Marburg: Tectum Verlag). Lan horretan, iseken azterketa bat egiten du Schefflerrek, baina gizonezkoei ala emakumezkoei zuzenduta dauden kontuan hartuta. Batari zein besteari zuzenduta joan, bakoitzerako baliatzen diren hitzen alderaketa bat egitea du helburu Schefflerren lanak. Iseken eta irainen hiztegi bat baino gehiago⁶⁰ kontsultatu zituen Schefflerrek, eta, horretaz gain, galdeketa batzuk ere egin zituen, non galdetuek 10-20 iseka bitarte esan behar zituzten, gizonezkoentzat ala emakumezkoentzat erabiltzen zuten zehaztuz. Material horretatik zerrenda batzuk prestatu zituen Schefflerrek eta 10 pertsonako laginari galdetuta, emakumezkoentzat tipikoak diren, gizonezkoentzat tipikoak diren eta bientzat erabiltzen diren iseken zerrendak atera zituen. Guztira, batez ere emakumezkoentzat erabiltzen diren 111 iseka, batez ere gizonezkoentzat erabiltzen diren 151 iseka eta bientzat erabiltzen diren 40 iseka neutro bildu zituen.

Gure helburua ez da, inondik ere, iseken bereizketarik egitea hartzailearen arabera. Schefflerrek, ordea, gure corpusean erauzketa egiteko oso baliagarriak izan dakizkigukeen taulak dakartza: neutroak diren isekak (gizon nahiz emakumezkoei

⁶⁰ Hala ere, hau izan da gehien erabili duen hiztegia: Pfeiffer, Herbert (1997) *Das größte Schimpfwörterbuch. Über 10.000 Schimpf-, Spott- und Neckwörter zur Bezeichnung von Personen*. Hiztegi horrek Duden hiztegia, *Das große Wörterbuch der deutschen Sprache*, hartzen zuen kontuan esanahiak zehazterako orduan (Scheffler, 2000: 123).

bideratutakoak); batez ere emakumezkoei bideratutakoak; eta batez ere gizonezkoei bideratutakoak.

Taula horietan biltzen diren iseka guztien bilaketa egin dugu gure corpusean. Esan behar dugu, hala ere, batez ere gizonen zkoentzat eta baztez ere emakume zkoentzat erabiltzen diren iseken zerrendetan, bietan agertzen zirela errepikatuak 40 iseka neutroak. Nolanahi den, hiru taula horiek izan ditugu oinarri eta, bilatzailea erabiliz, bertan zerrendatutako bilaketa egin dugu gure corpusean. Bilaketak, gainera, ez ditugu zehatzak egin, hitz bakoitza lema gisa hartuta baizik. Era horretan, *Mist* [kaka] bilatuta, *Mist* hitza bera aurkitzeaz gain, *Mistkerl* [tipo nazkagarria] edo bestelakoak ere aurkitu ahal izan ditugu.

Datu horiek eskuan, nola jokatu aztertu dugu. Izan ere, oinarri izan dugun taulako isekak lema gisa baliatu ditugunez, ez ditugu soilik iseka balioa duten esapideak lortu, madarikazio moduan erabilitako esapideak ere lortu ditugu, narrazioari nolabaiteko tonu ez-formala ematen dioten hitzak edota, beste zenbaitetan, zerrendakoak izan arren, iseka baliorik ez daramaten hitzak.

Beraz, ondorengo bezalako taula batean sartu ditugu emaitzak, eta, lehenik eta behin, MOTA zehaztu dugu. Izan ere, bilaketak taulan sartuta geneuzkela ohartu gara guztiek ez dutela balio bera, eta, hainbeste izanik, nolabait sailkatu behar genituela, interesatzen zitzaizkigunak hartzeko. Taularen irudiaren ostean azaldu dugu sailkapena:

Liburua	Hitza	Baliokidea			Estrategia			Oharrak	Mota
		Zuzenean	Zeharka	Zubi-hizkuntza	Sintaxia	Semantika	Tonua		

Irudia 41. Bilaketan erazutako isekak eta madarikazioak sailkatzeko erabilitako taula.

Begi bistakoa da, esaterako, oinarrian hitz bera duten adierazpide hauen izaera desberdina:

- *"Steht auf, **ih**r Faulenzer, wir wollen in den Wald gehen und Holz holen"* (KHM)
- *"Der dicke Seidelbast ist doch in unsrer Schule elfmal sitzengeblieben, weil er so **faul** war!"* (35M)
- *Er hat sich gelangweilt, und von **all dem Fressen und Faulsein** ist er so dick wie ein Fußball geworden* (28LG)
- *Von draußen drang der Geruch von **faulem** Laub herein* (WO)

Aurreko adibideak *faul* hitzaren bilaketa egin ondoren lorturikoetako batzuk dira. Aurrenekoa, pertsona bati (kasu honetan Hansel eta Greteli, bie) bideratutako iseka bat da. Bigarrena ere iseka moduan har liteke, baina ez zaio pertsona bati zuzenean adierazten, hirugarren batez ari baitira. Hirugarren adibidean, *das Faulsein* ez da iseka gisa erabiltzen, nahiz eta ez den, bestalde, erregistro altuko hizkeraren adierazle; testuak eskatzen duen tonu informala ematen duen esapide adierazkortzat har genezake. Azkenik, laugarren adibideak, gainerakoetan iseka bat edo adierazpide adierazkor bat osatzeko baliatutako osagai bera badarabil ere (*faul*), kasu horretan ez da ez iseka bat, ez adierazpide adierazkor bat: *faul* hitzak *ustel* ere esan nahi du, janari edo

haragiaz ari garenean, eta, kasu horretan, esanahi erabat neutroan erabili da, orbel ustelaren usaina deskribatzeko.

Faul osagaiarekin ez, baina bestelakoen bilaketa eginda, madarikazio balioa duten esapideak ere topatu ditugu:

- *Nein, so eine Dummheit!* (DOA)

Beraz, bilaketa guztiak egin ondoren, eta begi bistan genituen aukeren zabala ikusita, sailkapen hauxe prestatu dugu, betiere kontuan hartuta gure corpusak emandako emaitzen arabera prestatu dugun sailkapena dela, eta ez iseken eta madarikazioen inguruko hizkuntza-azterketa bat egitea helburu duen sailkapen bat:

- Isekak.
 - Pertsonalak (solaskideari zuzendutakoak, betiere elkarrizketa baten barruan).
 - Deskribatzaileak (norbaiten kontra esanak baina ez zuzenean, modu narratiboan baizik: hirugarren pertsona bati buruz edo norberari buruz esana).
- Madarikazioak.
- Balio ez iraingarria (iseka edo madarikazio gisa erabiltzen ez diren hitz edo esapideak, baina testuari tonu informala ematen diotenak, esaterako, aurreko 3. adibidean ikusitako *von all dem Fressen und Faulsein*).
- Bestelako esanahia (iseka edo madarikazio gisa erabil badaiteke ere, hitzak iraingarria ez den esanahi bat duenean eta testuari tonu informalik ematen ez dionean, esaterako, aurreko 4. adibidean ikusitako *faules Laub*).

Lehen begiratuan sailkapenak erraza badirudi ere, zenbait kasutan argi gelditu zaigu hizkuntza ez dela matematika. Isekei dagokienean, adibidez, kasu guztietan ez zaigu hain erraza gertatu erabat pertsonalak ez diren baina erabat deskribatzaile ere ez

direnak zein taldetan sartu erabakitzea. Iseka pertsonaltzat hartu ditugu honako kasu hauek: solaskideari zuzenean esandakoak (*Du, Arschloch*) eta, solaskideari zuzenean isekarik adierazten ez bazaio ere, aditza aginteran jarrita eta iseka bat adizlagun, solaskidea iraintzeko asmoz adierazten direnak (*Lach nicht so dumm*). Iseka deskribatzailetzat hartu ditugu modu narratiboan adierazten direnak, aurrean ez dagoen pertsona bati buruz esandakoak (*Dann nannte ich sie eine Zimmerliese oder Heulsuse*) eta nork bere buruz esandakoak (*Ich bin zu dumm dazu*), biak ere distantzia batetik ikusita adierazten baitira, hirugarren bati buruz bezala.

Madarikaziotzat hartu ditugu, oro har, amorratuta egonik, pertsona batek airera botatzen dituenak (*Das ist doch blödsinnig!*) eta airera botatzen diren galdera erretorikoak, (*Wie kann man nur so blöd sein?*), nahiz eta oinarrian pertsona bati erreferentzia egin, amorratitok airera botatako esapideak direlako.

Balio iraingarririk ez duten hitzen eta bestelako esanahi bat duten hitzen arteko bereizketa egitea ere ez zaigu guztiz erraza gertatu: muga ez da beti uste bezain argia. Iseka edo madarikazio gisa erabiltzen ez diren arren, nahiko argi ikusten dugu hitz eta esapide askok nolabaiteko adierazkortasuna gehitzen diotela testuari, testuaren tonu informalekin bat datozela, alegia. Esate baterako, *Der See war trotzdem schweinskalt* [hala ere, lakuko ura izoztuta zegoen] (DAK) esaldian *Schwein* [zerri] hitza ez da iseka gisa erabiltzen, baina ura oso hotz dagoela esateko modu adierazgarri edo informal bat da. Beste kasuetan, ordea, ez da hain erraza gertatu hitzek testuaren adierazgarritasuna areagotzen dutenik erabakitzea. Esate baterako, *Eine dumme Bemerkung* [tontakeria bat] (GNZ) segmentuan *dumm* [tonto, lelo] adjektiboa


daukagu, baina esan ere akaso esan liteke esaldi horrek nahiko balio neutroa duela. Bestalde, ordea, beste genero bateko literatura balitz, beharbada ez litzateke *dumm* hitza erabiliko. Izan ere, hizkuntza-alderakuntza noiz gertatzen den erabakitzea ez da dirudiena bezain erraza: Mayoralen doktore-tesian irakurtzen dugu formaltasunaren eta informaltasunaren arteko muga oso lausoa dela.

Hemos visto cómo muchos autores han resaltado lo difícil que resulta categorizar las escalas de formalidad y cómo estas escalas se remitían a situaciones comunicativas. Unos rasgos de informalidad se pueden utilizar para caracterizar lo mismo la lengua oral, un dialecto, un sociolecto bajo, una lengua inculta, una situación de conversación relajada, o familiaridad o enemistad con el interlocutor (también la interpretación de estos rasgos va ligada a la situación comunicativa). Lo mismo ocurre con el tabú o con las incorrecciones. A su vez, *tabú* e *informalidad* no tienen fronteras claras, puesto que muchos tabúes dejan de ser tales en las variedades más informales. La interpretación de estos parámetros también va muy ligada al contexto cultural pues culturas diferentes utilizan diferentes grados de informalidad, tabú, etc., para reflejar las mismas situaciones (Mayoral, 1997: 106).

Sailkatu beharrak berekin dakartzan zailtasunez jabetuta, zorrotz jokatu dugu iseka edo madarikazioa ez diren eta testuari tonu adierazgarrikeri erantzen ez dioten hitzekin. Adibidez, esanahi neutroan erabilitako animalia-izenekin egin dugu topo (*gebratene Huhn; eine Ratte huschte über die Fahrbahn*) eta horiek ez dute alemanez hain ohikoak diren animalia-izenekin osatutako iraineekin zer ikusirik; bestalde, irain gisa ere erabil daitezkeen arren, hitzaren esanahi guztiz neutroan erabilitako hitzak aurkitu ditugu (*fett gedrückt; von draußen drang der Geruch vom faulem Laub herein;*

Hexe [sorgin] hitza pertsonaiari erreferentzia eginez...). Aipatu berri ditugun moduko adibide argiak *bestelako esanahia* taldean sartu ditugu eta, beste guztia, *balio ez iraingarria* taldean.

Emaitzak sailkatzeko erabilitako irizpideak azalduta, emaitzak aztertuko ditugu orain. Guztira, 653 emaitza atera ditugu. Gehiengoa balio iraingarririk gabeko hitzak/esapideak dira (242), ondoren, iseka deskribatzaileak ditugu (195), gero, bestelako esanahia dutenak (92), iseka pertsonalak (90) eta madarikazioak (34).



Irudia 42. Iseka motak.

Modu grafikoan egiaztatu ahal izan dugunez, ugariak dira iseka gisa erabili ez diren esapideak, guk *balio iraingarririk gabekoak* taldean sartu ditugunak. Izan ere, testuak haur eta gazteei bideratuta egoteak badu eraginik hizkuntzan, eta, ikusi ahal izan dugunez, esanahi iraingarri edo madarikatzailea eduki gabe,

isekak eraikitzeko erabiltzen diren hitz-erroen erabilera ez da txikia.

Dena den, gure azterketan isekei eta madarikazioei erreparatu diegu (gure taulako elementuen % 49 da hori, hain justu). Iseken eta madarikazioen itzulpena nola egin den aztertu nahi dugu, zuzenean eta zeharka itzuli den kasuetan zein joera nabari den ondorioztatu ahal izateko. Iseka eta madarikazio gisa erabili ez diren hitzek lanei ukitu informala ematen badiete ere, azterketa-gai zabalago baten elementuak direlakoan gaude: testuei erregistro informala ematen dieten elementuetako batzuk dira. Hala, isekak eta madarikazioak hizketa-ekintzaren zati argiagoak direnez, horien itzulpenei erreparatu diegu.

Iseken eta madarikazioen itzulpenak aztertzeke, hiru eremuri begiratu diogu: sintaxiari, semantikari eta tonuari.

Sintaxiak hitzen arteko lotura arautzen du; semantikak hitz eta perpausen esanahia; tonuak, berriz, igorlearen eta hartzailearen arteko harremanari egiten dio erreferentzia (Hatim eta Mason, 1992: 50). Hizkuntza-aldaerak aztertzen hasita iristen dira Hatim eta Mason tonuraino. Izan ere, hizkuntza-aldaerak hizlariaren arabera gerta daitezke (eta orduan aldaera geografikoak, tenporalak, sozialak eta idiolektalak sortzen dira hizkuntzan) edota erabileraren arabera gertatzen dira, eta orduan sortzen da erregistroa. Aldi berean, erregistroa desberdina izango da diskurtsoaren erabilera-eremuaren arabera (erregistroa aldatu egiten baita, medikuntzaz ari garen ala barrea eragitea helburu duen gai batez ari garen), diskurtso-moduaren arabera (ahozkoa ala idatzizkoa den, bat-batekoa den ala ez, idatzizkoa izan arren

ahozkotasuneko ezaugarriak dituen etab.) eta, hain zuzen ere, tonuaren arabera. Tonua formaletik informalerara doan eskala batean zehazten dela diote Hatim eta Masonek (Hatim eta Mason, 1992: 50). Ez dute ezer esaten eskala horretako maila desberdinez, eta, hain zuzen ere, indefinizio edo lausotasun horrek zaildu egiten du tonuaren itzulpena aztertzea.

Diskurtsoaren erabilera-eremua, modua eta tonua elkarreragileak dira, noski: erabilera-eremua HGLa izateak eta, beraz, testu idatzia izan arren ahozkotasunezko hainbat elementu edukitzeak tonuari eragiten dio ezinbestean.

Orain arte, HGLaren hainbat ezaugarri ikusi ditugunez, aritu gara beraren erabilera-eremuaz. Nahiko gaingiroki bada ere, aritu gara moduaz, HGLaren ahozkotasunari kasu egin baitiogu. Testu-elementu zehatzen itzulpena aztertzeraz goazen honetan, beraz, tonuari ere erreparatu nahi diogu, erregistroa zehazten duen oinarrietako bat baita.

Lan honetan zehar gehiagotan aipatu dugun moduan, hizkuntza ez da aztergai zehatza: hitz jakin baten tonuari erreparatu eta formal-informal eskalako zein mailari dagokion erabakitzea ez da lerro zuzen bat marraztu eta hitzak lerroaren alde batera eta bestera bidaltzea bezain ariketa gardena. Ariketa horren lausotasuna aipatzen dute Hatim eta Masonek ere: “the inherent fuzziness of registers” (Hatim eta Mason, 1992: 51). Edozein modutan, lan modu sistematikora lerratuz, objektibotasuna lortzeko saiakera egin daiteke: “what can be done, however, is to elaborate a set of parameters for analysis which aim to promote consistency and precision in the discussion of

translating and translations” (Hatim eta Mason, 1992: 5). Beraz, erauzitako isekak hartu eta, banan-banan, itzultzerakoan gertatutakoari begiratu diogu, lehen esan bezala, sintaxiari, semantikari era tonuari erreparatuz. Maila bakoitzean gertatutakoa identifikatu eta kategoriatan sailkatzen saiatu gara.

Hala, sintaxian eta semantikan hiru fenomeno hauek sumatu ditugu: mantentzea, aldatzea eta ezabaketa. Kategorია orokorrak erabili ditugu, gure helburua ez baitzen sintaxian eta semantikan sakontzea. Hona hemen adibide batzuk gertaera bakoitza hobeto ulertzeko:

-Sintaxian eta Semantikan:

Mantentzea: jatorrizkoa mantentzen denean.

“*Dummer Hupfer, dummer Hupfer, dummer, dummer!*” (28LG)

“*Matxinsalto baboa!, matxinsalto baboa!, baboa!, baboa!*” (28LG-eu)

Aldatzea: jatorrizkoarekin alderatuta aldaketaren bat gertatzen denean.

»*Lach nicht so dumm*« (JJJ)

—No te rias **como un idiota** (JJJ-es)

—Ez egin barrerik, **inozo halako horrek** (JJJ-eu)

“*Ich Affe*”, sagte sie, “und darauf bin ich nicht gekommen!” (PA)

—**Zer asto zatia naizen!** — esan zuen—. Ez nintzen konturatu. (PA-eu)

Aldaketen aurreneko adibidean aldaketa sintaktikoa gertatu da: jatorrizkoan adizlagun baten bidez adierazten dena pertsona deskribatzen duen adjektibo bihurtzen da itzulpenean. Bigarren adibidean, berriz semantika mailan gertatu da aldaketa: alemanez,

tximinoaren irudiarekin pertsonaiak tuntun jokatu duela adierazi nahi da, eta, itzulpenean, animaliarene irudia egokitu egiten da. Alde batera utzita astoak tuntuna den norbait irudikatzen duen ala ez, esapidea bera (zer asto zatia naizen) gaztelaniaren interferentziatik baino ezin daiteke ulertu (*qué pedazo de burra*), eta kasu horretan semantika bera ere aldatzen da, astoak zakarra edo konturik ez duen norbait deskribatzen baitu. Azken adibide horretan, esaterako, esanahi aldaketa bat ikusi dugu, baina gaztelaniak eraginda. Horrelakoei bereziki erreparatzea dugu, hain zuzen, helburu.

Ezabaketa: jatorrizkoan agertutako elementua xede-testuan agertzen ez denean.

»*Steht auf, ihr Faulenzer, wir wollen in den Wald gehen und Holz holen.*« (KHM) —Jaiki zaitezte, basora joan behar dugu-eta. (KHM-eu)

Horiek izan dira sintaxian eta semantikan sumatu ditugun hiru aldaerak. Tonuan, berriz, aurkitu dugun egoera konplexuagoa izan da. Mantentzea eta ezabaketa kategoriak mantendu baditugu ere, zehaztapen gehiago sartu ditugu horien artean: disfemizatzea, eufemizatzea eta desagerraraztea. Hona hemen tonuan sumatu ditugunak eta adibide batzuk.

-Tonuan:

Disfemizatzea: jatorrizkoaren tonu iraintzailea areagotzen edo indartzen denean. Adibide bakar hauxe aurkitu dugu:

»*Dir werde ich es geben, du Flittchen.* (GNZ) —Nik emango dizut, **urdanga zikina.** (GNZ-eu)

Mantentzea: tonu iraintzailea mantentzen denean.

“*He, der Dummbart!*” (KHM)

—Je, hori bai **tontotzarra!** (KHM-eu)

Eufemizatzea: jatorrizko tonu iraintzailea arindu, ahuldu edo epeltzen denean.

“*Gefühlloser Fachidiot!*”,
schimpfte die Frau
Pischtranek hinter ihm her.
(JJJ)

¡Especialista idiota y
sin sentimientos! —
despotricó tras él la
señora Tranek. (JJJ-es)

—**Sentimendurik gabeko mediku leloa!** —Beitia andrea doktoarearen atzetik zihoan, inon direnak eta ez direnak esanez. (JJJ-eu)

Desagerraraztea: emandako baliokideak tonu iraintzailerik ez duenean.

*Andi schlug vor, die Wurst
in den Eiskasten zu legen,
und merkte gleich, wie
dumm das von ihm war.*
(DOA)

Andi le propuso
conservarlas en la
nevera, y se dio cuenta
en seguida de que
acababa de decir una
tontería. (DOA-es)

Hozkailuan sar zitzakeela
proposatu zion Andik,
baina segituan konturatu
zen **hanka sartu zuela hori esatean.** (DOA-eu)

Ezabaketa: sintaxian eta semantikan gertatu den moduan, jatorrizkoan agertutako elementua xede-testuan agertzen ez denean.

“*Nun, was ist dir in die Quere gekommen,
alter Bartputzer?*” sprach der Esel. (KHM)

—Ezbeharren bat-edo gertatu zaik? —
mintzatu zen astoa. (KHM-eu)

Aipatu dugun moduan, syntaxian eta semantikan hiru fenomeno identifikatu ditugu (mantentzea, aldatzea eta ezabaketa), baina tonuan bost (disfemizatzea, mantentzea, eufemizatzea, desagerraraztea eta ezabaketa). Martí Ferriolek azpidazketan erabiltzen diren itzulpen-metodoen sailkapen bat egiten du, eta bertan proposatzen ditu eufemizatze eta disfemizatze terminoak: “Proponemos por tanto la inclusión, para los ejemplos de suavización del signo ético, del término “eufemización”, y para los que tienden a endurecerlo, del término “disfemización”” (Martí, 2006: 70). Bestalde, baliteke desagerraraztea eta ezabaketa terminoak nahasgarri samarrak gertatzea, baina, gure ustez, bada desberdintasunik, eta beharrezkoa iruditu zaigu hori jasotzea. Alegia, tonua desagerrarazteak esan nahi du itzultzaileak baliokide bat eman duela baina baliokide horrek ez duela tonua inondik ere jasotzen (aurreko adibidean, esaterako, *hanka sartu zuela* dio itzulpenak, baina, jatorrizkoak, *ergel baten baten moduan* jokatu zuela); ezabaketak jatorrizko elementuaren erabateko ezabatzea dakar. Egiaztatu ahal izan dugunez, jatorrizkoan zegoen iseka edo madarikazioa itzulpenean ezabatuz gero, maila sintaktikoan gertatutako ezabaketak nahitaez dakar beste mailatako ezabaketa. Maila sintaktikoan ezabatutakoa beste baliabideak indartuz konpentsa zitekeela pentsatu dugu hasieran, baina inongo kasuk ez digu halakorik erakutsi.

Semantikan eta Syntaxian identifikatutako fenomenoeri ere erreparatu badiegu ere, tonuari erreparatu diogu gehien, besteak beste, eta orain arte behin baino gehiagotan aipatu dugun moduan, neurtu nahi dugulako zenbateraino jotzen den itzultzean tonua

eufemizatzeraz. Hala, Touryk proposatutako estandarizazio legea zein neurritan gertatzen den aztertu nahi dugu.


9.1.3 *Mikrotestuaren azterketa: corpuseko isekak eta madarikazioak*

9.1.3.1 **Iseka Deskribatzaileak**

Corpusak emandako 195 iseka deskribatzaileetatik, 100 dira zuzeneko itzulpenetan agertu direnak, eta 95 zeharkako itzulpenetan agertutakoak.

Nola sintaxiari zein semantikari dagokionean, jatorrizkoaren balioa mantentzeko joera nabarmena sumatzen da, zuzeneko itzulpenetan nahiz zeharkakoetan: zuzeneko itzulpenetan 92 aldiz mantendu da sintaxia, 4 aldiz aldatu eta 4 aldiz ezabatu; semantika, berriz, 73 aldiz mantendu da, 23 aldiz aldatu, eta 4 aldiz ezabatu. Zeharkako itzulpenetan, 86 aldiz mantendu da sintaxia, 7 aldiz aldatu eta 2 aldiz ezabatu; semantika, berriz, 76 aldiz mantendu da, 17 aldiz aldatu, eta 2 aldiz ezabatu. Oro har, beraz, sintaxia aldatzen da gutxien, aurkitutako aldaketan portzentajea ez baita % 10era ere iristen, zuzenean nahiz zeharka; semantika mailan gertatutako aldaketak handiagoak dira: zuzenean nahiz zeharkakoetan % 15-25 bitartean daude aldaketa kopuruak. Beraz, semantika mailan gertatutako aldaketak nabarmenak dira.

Tonuari dagokionean, ordea, datuak adierazkorragoak dira: zuzeneko itzulpenetan, % 59 mantendu da, % 29 eufemizatu, % 8 desagerrarazi eta % 4 ezabatu. Grafikoaren azpian zenbait adibide jarri ditugu.



Irudia 43. Iseka deskribatzaileak zuzeneko itzulpenetan.

Orain adibide batzuk ikusiko ditugu, tonua mantendu dutenekin hasita.

Taula 7. Iseka deskribatzaileak zuzenean. Mantentzea.

Sorburu-testua	Xede-testua
1. <i>Aber da hat das dumme Brüderchen vor Ungeduld den Stuhl umgeworfen.</i> (28LG)	Baina orduan anaia txiki txotxolo horrek zer egingo, eta aulkia bota zuen nahi gabe. (28LG-eu)
2. <i>Was ist mein Bruder ein Dummbart,</i> (KHM)	Ergela diat anaia, (KHM-eu)
3. <i>Der jüngste, welcher der Dummling hieß,</i> (KHM)	Anaia gazteena, Artaburu baitzeritzoten, (KHM-eu)
4. <i>Es war ein Mann, der hatte drei Söhne, davon hieß der jüngste der Dummling,</i> (KHM)	Gizon batek hiru seme zituen; hiruretan gazteenari Ergela zeritzoten, (KHM-eu)
5. <i>Als jüngster von vier Brüdern war er stets der Kleine, Ungeschickte und Dumme gewesen.</i> (GNZ)	Lau anaien artean gazteena, beti izan zen bera txikia, zabarra eta tontoa . (GNZ-eu)
6. <i>Die Freude, mich weinen zu sehen, mache ich der blöden Anita nicht!</i> (LOS)	Ez diot emango Anita txepel horri ni negarrez ikusteko poza! (LOS-eu)
7. [...] <i>grinste Fabi, als wär ich der größte Idiot.</i> (WFKD)	[...] —barre egin zuen Fabik, tontolapikorik handiena banintz bezala.

(WFKD-eu)	
8. "Dirk ist ein Idiot . (EL)	– Babo bat da Dirk hori. (EL-eu)
9. Dieser Mistkerl fasst bestimmt nie wieder einem Jungen ans Ohr. (WFKD)	Zerri horrek ez dio inori gehiago belarritik tira egingo, ez horixe. (WFKD-eu)
10. »Dieser Trottel . (LD)	– Astapito hori, gero! (LD-eu)

Jakina, eztabaidagarria da aurreko ordain horiek guztiek maila berean mantentzen ote duten jatorrizko isekaren tonua. Gure iritiz, *astapito* iseka eraginkorragoa eta indartsuagoa da *ergel* baino. Edozein modutan, tonua benetan leuntzen duten itzulpenetan baino ez dugu eufemizatzea egon dela erabaki, eta, hori dela eta, tonua mantendu duten kasuak ugariak dira.

Taula 8. Iseka deskribatzaileak zuzenean. Eufemizatzea.

Sorburu-testua	Xede-testua
1. <i>Manchmal denke ich, die Gören werden absichtlich krank, nur damit ich nicht weggann.</i> (EL)	Batzuetan pentsatu ere izan dut ipotxak berariaz jarri direla gaixo, ni ez ateratzeko. (EL-eu)
2. "Du glaubst doch selber nicht, daß jemand anderer so blöd wäre, mit deinem Kopf herumzulaufen!" (DDL)	– Baina zuk uste al duzu badagoela norbait hain inozorik hortik zehar zure aurpegiaren antzeko batez ibiltzen ausartzen denik? (DDL-eu)
3. <i>Ein dreckiger Kerl.</i> (FR)	Ezerez bat. (FR-eu)
4. <i>So eine Kuh wie diese Anita gibt es kein zweites Mal.</i> (LOS)	Anita bezalako beste behi bat ez dut ikusi nik. (LOS-eu)
5. <i>Heute beim Frühstück hat mich die Kuh ausgelacht, weil ich so rot bin.</i> (LOS)	Gaur goizean, gosaltzekoan, behiak barre egin dit, hain gorri nengoelako. (LOS-eu)
6. <i>So eine Kuh!</i> (LOS)	Hori behia! (LOS-eu)
7. "Viellieher würde ich den Affen eine kleben" (EL)	– Gustura emango nioke nik bero bat tximu horri. (EL-eu)
8. <i>Und dann wird man unbeliebt und gilt allgemein als Streber oder als Weinberl.*</i> (DAK)	Eta ez zaituzte gogoko eta " txurikapinto "tzat hartzen zaituzte, (DAK-eu)

Eufemizatutako kasuen adibide multzo handi samar bat jarri dugu, adierazgarriak direla uste baitugu. Aurreneko bi adibideak tonua eufemizatzen deneko adibide garbiak dira; hirugarren adibidean, eufemizatu egiten da, baina, batez ere, euskaraz ematen den baliokidea (*ezerez bat*) maila jasoko hitza delako. Laugarren, bosgarren, seigarren eta zazpigarren adibideek bestelako fenomeno bat erakusten digute: alemanez *Kuh* hitzak tuntun esanahia du, eta *Affek* txotxolo. Itzultzaileak, ordea, hitzez hitzeko itzulpena eman du. Ez genuke esan nahi *behi* eta *tximu* hitzak iseka gisa erabili ezin direnik, baina jatorrizkoak dituen konnotazioak behintzat ez ditu jasotzen. Bi liburu horiek (LOS eta EL) Zabaletak itzuliak dira, eta, ustez, zuzenean. Hala ere, *Kuh* eta *Affe* isekak modu horretan itzuli izatearen atzean gaztelaniazko bertsioa ote dagoen aurrerago aztertuko dugu xeheago. Bestalde, zortzigarren adibidean, euskaraz ematen den ordaina (*txurrikapinto*) ez dago batere hedatua. Jatorrizkoak ere erabili badarabil dialektoari dagokion aldaera (*Weinberl*), baina aurretik aleman estandarreko iseka ematen du (*Streber*). Euskaraz emandako itzulpenak leundu egiten du jatorrizkoaren indarra.

Liburu bat izan ezik (DDL) gainerakoak Mendigurenek eta Zabaletak itzuliak dira, HGL alemana gehien euskaratu duten itzultzaileak biak. Ez dirudi, beraz, eskarmentua izateagatik gutxiago eufemizatzen denik.

Taula 9. Iseka deskribatzaileak zuzenean. Desagerraraztea.

Sorburu-testua	Xede-testua
1. <i>Gretel war nicht faul, lief schreiend zu dem Herrn und rief</i> (KHM)	Gretel, halere, denbora alferrik galdu gabe , joan zen deiadarka etxeko jaunarengana, eta hots egin zuen: (KHM-eu)

2. *Doch das war diesem Mistkerl einfach egal.* (WFKD) [...] baina horrek ez zion **taxi-gidariari** axola izan eta [...]. (WFKD-eu)

Desagerrarazitako zortzi kasu topatu ditugu, eta hemen aurreko biak erantsi ditugu adibide gisa. Aurreneko adibidean parafirasira jo da itzulpenean; beraz, itzuli, itzuli du itzultzaileak, baina parafraisi baten bitartez, jatorrizko hitzaren tonu iraintzailea galduz. Bigarren adibidean ere berdin: pertsonaia deskribatzen duen izen orokorra erabili da (*taxi-gidaria*) jatorrizko izen iraingarria erabili beharrean.


Taula 10. Iseka deskribatzaileak zuzenean. Ezabatzea.

Sorburu-testua	Xede-testua
<i>Dem Soldaten hätt ich nicht einmal brauchen einen Schlaftrunk zu geben, der Lümmel wäre doch nicht aufgewacht.</i> (KHM)	Soldaduari lo-edabea eman beharrik ere ez zegonan; ez zunan inola ere itzarriko. (KHM-eu)

Ezabaketa kasuak 4 dira guztira. Lehen ere azaldu dugun moduan, itzultzailea ez da jatorrizko hitza jasotzen saiatu, eta horregatik hartu dugu ezabaketa moduan. Aurreko adibidean, esaterako, ez du *Lümmel* [alproja] itzuli, pertsona bera izendatu ez duelako.

Iseka deskribatzaileen tonuarekin gertatutakoa ikusi dugu, baina zuzeneko itzulpenetan. Zeharkako itzulpenetan, ordea, bestelakoa da joera: % 48 mantendu da, % 44 eufemizatu, % 6 desagerrarazi eta % 2 ezabatu. Ikusten dugun moduan, zeharkako itzulpenak izan arren, hauetan ere tonua mantendu egin da gehienbat. Hala ere, zuzenekoetan baino portzentaje txikiagoa daukagu zeharkako hauetan (gogoratu zuzeneko itzulpenetan % 59 zela mantendutakoa). Gainera, zeharkako hauetan eufemizatu

dena, desagerrarazi dena eta ezabatutakoa, guztiak batera kontuan hartzen baditugu, % 52koa dugu tonuari beherantz egin zaion kasuen portzentajea; mantendutakoa baino handiagoa. Beraz, oro har, zuzeneko eta zeharkako itzulpenetan joera ezberdina identifikatzen da: zeharkako itzulpenetan gehiago eufemizatzen da.



Irudia 44. Iseka deskribatzaileak zeharkako itzulpenetan.

Orain, lehen egin dugun moduan, adibide batzuk ikusiko ditugu. Oraingo honetan, baina, zeharkako itzulpenak direnez, hiru bertsioak izango ditugu: jatorrizkoa, gaztelaniazko zubi-bertsioa eta euskarazko xede-testua.

Taula 11. Iseka deskribatzaileak zeharka. Mantentzea.

Sorburu-testua	Zubi-testua	Xede-testua
1. <i>Na, ganz so dumm, dachte der Herr Egon, wie ich immer gemeint habe, ist diese Kitty doch nicht.</i> (KND)	Pues esta Kitty no es tan tonta como yo creía, pensó el señor Egon. (KND-es)	Ba Kitty hau ez duk nik uste nuen bezain tuntuna , pentsatu zuen Egon jaunak. (KND-eu)

2. [...], "dann gehen wir hin zu der kleinen Kröte und rupfen ihr einzeln die Haare vom Kopf! (DKH)	[...] — iremos y tiraremos del pelo a este bicharraco . (DKH-es)	[...] — ileetatik tenk egingo diogu alproja zikin honi. (DKH-eu)
3. Das Biest ist mir durchgegangen. (DKH)	Este mal bicho se me ha desbocado. (DKH-es)	Zoro baten moduan abiatu zait alu hau . (DKH-eu)
4. "Der ist ein alter Knülch! " (KND)	— ¡Es un viejo plasta! (KND-es)	— Nazkante zahar bat duk! (KND-eu)
5. "Der Halunke braucht nicht zu merken, daß ihm Detektive auf der Spur sind. (ED)	Es preciso que el bribón no repare que tiene detectives sobre la pista, (ED-es)	Beharrezkoa duk alproja hori ez jabetzea atzetik detektibeak dituenik, (ED-eu)
6. Anzeichen dafür, daß jemand ein Schweinehund ist, gibt es eine ganze Reihe. (PA)	Existe toda una serie de detalles que demuestran que alguien es un cerdo asqueroso . (PA-es)	Bat txerri nazkagarria dela frogatzeko mila xehetasun daude. (PA-eu)

Kontuan hartu behar da zeharka itzuli diren lan guztiek gaztelaniazko bertsioa hartu dutela abiapuntu gisa. Hau da, bi itzulpen-jarduera egon dira: alemana-gaztelania aurrena, eta, ondoren, gaztelania-euskara. Hala, gaztelaniazko bertsioak gutxi gorabehera alemanezkoaren tonu bertsua mantendu badu, eta euskarazkoak, gutxi gorabehera, gaztelaniazkoak jasotakoari jarraitu badio, tonua nolabait mantentzen dela esan genezake. Zenbait kasutan, jatorrizkotik aldentzen dela sumatu da, esaterako, aurreko hirugarren adibidean: euskarazko itzulpena gaztelaniazko bertsiotik abiatuta egin da, baina tonua jasotzen saiatu da (*alu hau*). Hala, jatorrizko hitz alemanetik aldentzen bada ere (*das Biest*), tonua mantendu egin dela iruditu zaigu. Dena den, gaztelaniazko bertsioak hasiera batean tonua mantendu duelako gertatu da hori, zubi-bertsioan tonua aldatuko balitz, gauza bera gertatuko bailitzateke euskarazko azken bertsioan.

Taula 12. Iseka deskribatzaileak. Eufemizatzea.

Sorburu-testua	Zubi-testua	Xede-testua
1. <i>Nichts als Dummheiten macht er!</i> (ED)	¡Ese chico no hace más que tonterías! (ED-es)	Mutiko horrek ez du zorakeria besterik egiten! (ED-eu)
2. [...] <i>aber seit die Andacht, dieses dumme Luder, da ist, traut man sich rein gar nichts mehr.</i> (PA)	[...] pero desde que la Virtudes, esa estúpida burra está aquí, no hay quien se atreva a entrar. (PA-es)	[...] baina Birtute -asto zati inozo hori- hemen dagoenetik, ez dago gelan sartzen ausartzen denik. (PA-eu)
3. <i>"Aber die Kinder aus deiner Klasse sind auf alle Fälle lauter Affen!"</i> (JJJ)	Pero los niños de tu clase parecen auténticos monos. (JJJ-es)	Baina zure gelako umeak tximino hutsak dira. (JJJ-eu)
4. <i>Und der Oberaffe ist der, der den Jericho am Schwanz gezogen hat, und wie der Jericho geknurr hat, hat er dann gezittert, der Oberaffe, der blöde!"</i> . (JJJ)	Y el mono jefe es el que le tiró del rabo a Jericó y se echó a temblar en cuanto le gruñó. ¡ El supermono, el tonto ése! (JJJ-es)	Eta tximinoen nagusia , Malutari buztanetik tiratu eta txakurrak marruska egin zionean, dardarka hasi zen mutila da. Inozo hori super-tximinoa da! (JJJ-eu)
5. <i>Seidelbast sagte, wenn er nicht so unbändig faul wäre, würde er klatschen.</i> (35M)	Seidelbast dijo que, si no fuera tan rematadamente vago , aplaudiría. (35M-es)	Seidelbastek esan zuen, arras alferra ez balitz, egingo zukeela txalo. (35M-eu)
6. <i>Wer es im Hexen zu etwas bringen will, darf nicht faul sein.</i> (DKH)	Porque quien quiere llegar a ser alguien en el arte de embrujar no puede ser holgazán. (DKH-es)	Sorgin gauzetan jakintsu izan nahi duenak, saiatu egin behar du. (DKH-eu)
7. <i>Dort drüben sitzt der Schweinehund, der ihm das Geld geklaut hat.</i> (ED)	Allá arriba está sentado el bandido que le ha afanado el dinero. (ED-es)	Han goian eserita zegoen dirua ostu dion maltzurra. (ED-eu)
8. <i>"Den Streber, den verdammten, können wir nicht brauchen!", sagten sie.</i> (KND)	—¡No necesitamos a ese maldito empollón pelotillero! (KND-es)	—Ez dugu behar aulkibero lausengari madarikatu hori! (KND-eu)
9. <i>"So ein fetter Kerl", flüsterte der Onkel.</i> (35M)	"Qué tío más voluminoso ", susurró el tío. (35M-es)	"Hau gauza kankailua ", osabak zurrumurruka. (35M-eu)
10. <i>Piefke bewachte</i>	Entretanto Piefke vigilaba	Bien bitartean zitala

<i>unterdessen den gefesselten Halunken und probierte heimlich, wie Schuhsohlen schmecken. (PA)</i>	al bribón y probó con disimulo qué sabor tenían las suelas de sus zapatos. (PA-es)	Piefkek zaintzen zuen eta oinetakoen zolak zer zaporekoak ziren dastatu zuen. (PA-eu)
---	---	---

Tonua eufemizatu den kasuetan honako fenomeno hauek ikusi ditugu: batetik, zubi-hizkuntzak xede-hizkuntza baldintzatu izana (bigarren adibidean, *dumme Luder* gaztelaniaz *estúpida burra* itzuli izanak *asto zati inozo hori* eragin du, eta, gainera, gaztelaniaren interferentzia diglosikoa suma liteke, esapidearen atzean *pedazo burra* dagoela pentsa baitaiteke); bigarren adibide horrekin lotuta, hirugarren eta laugarren adibideek erakusten dituzten gaizkiulertuak dauzkagu (*Affek* edo *Oberaffek* ez du esan nahi pertsonak tximino baten mugimenduak etab. imitatzen dituenik); bestalde, bosgarren adibideak erakusten du euskara maila altua erakutsi nahi dela (*arras* alfer); eta, horrekin lotuta, zortzigarren adibideak kaleko euskaran entzuten ez den, eta, beraz, erabileratik urruntzen den baliokide bat erakusten du (*lausengari*).

Ondorioak aurrerago aterako baditugu ere, aurreratu nahi genuke aurreko adibideek tonuaren eufemizatzea erakusten dutela, hau da, estandarizazioaren legearekin dute lotura zuzena, baina, era berean, gaztelaniazko bertsoaren eragina eta interferentzia sartzen da tartean.

Taula 13. Iseka deskribatzaileak zeharka. Desagerraraztea.

Sorburu-testua	Zubi-testua	Xede-testua
1. <i>Andi schlug vor, die Wurst in den Eiskasten zu legen, und merkte gleich, wie dumm das von ihm war. (DOA)</i>	Andi le propuso conservarlas en la nevera, y se dio cuenta en seguida de que acababa de decir una tontería . (DOA-es)	Hozkailuan sar zitzakeela proposatu zion Andik, baina segituan konturatu zen hanka sartu zuela hori esatean. (DOA-eu)

2. <i>Der Schurke versteht die Welt nicht mehr...</i> (HLJ)	El cazador está perdido. (HLJ-es)	Ehiztariarenak egin du. (HLJ-eu)
---	--	---

Tonua dsagerrarazitako 6 kasu dauzkagu zeharkako itzulpenetan, eta horietako 4 liburu berekoak dira: HLJ liburukoak. Bigarren adibideak erakusten duena gertatzen da lau adibideetan, hau da, zubi-hizkuntzak, eta, beraz, euskarazko bertzioak, pertsonaia izendatzeko izen orokor bat erabiltzen dute, eta ez jatorrizkoak erabiltzen duen iseka. Dena den, aurreko adibide hori bereziki adierazgarria da, eta horregatik jarri dugu: *Der Schurke* hitzaren tonua dsagerrarazi eta *ehiztari* emateaz gain, hizkuntza batetik bestera gertatutako jauzietan esanahiak ere aldatzeko arriskua duela erakusten digu adibideak. Ehiztaria sare batean harrapatuta dago, zuhaitz batetik zintzilik, eta behean krokodilo goseti bat dauka. Kikaren lagun bat, gainera, krokodiloz mozorrotuta dago, eta preso dagoen ehiztariari hasi zaio esaten mendeku hartuko dutela. Horregatik dio jatorrizkoak *die Schurke versteht die Welt nicht mehr* [alprojak ez du ezer ulertzen]. Gaztelaniazko bertzioak dio *el cazador está perdido*, baina esapide hori bi modutara uler liteke: *bereak egin du* ala *iparra galduta dabil*. Hala, zubi-bertzioaren anbigutasunak eraginda, euskarazko bertzioak ezin izan du jatorrizko esanahia jaso, euskaraz *ehiztariarenak egin du* itzuli baita, *ez du ezer ulertzen* edo halakoren bat itzuli beharrean.

Taula 14. Iseka deskribatzaileak zeharka. Ezabaketa.

Sorburu-testua	Zubi-testua	Xede-testua
<i>"Wir könnten die freche Kröte zur Strafe ein bißchen ins Feuer werfen", meinte</i>	— Como castigo podríamos dejarla un rato muy cerquita del fuego —	— Denbora puska batez sutondoan utz genezake zigorturik — proposatu

<i>die Muhme Rum-pumpel.</i> (DKH)	propuso la tía Sacudidas. (DKH-es)	zuen izeba Astintzailek. (DKH-eu)
---------------------------------------	---------------------------------------	--------------------------------------


Bi ezabaketa kasu aurkitu ditugu zeharka itzulitako iseken artean. Aurreko adibidean ikusten den moduan, zubi-bertsioak jaso ez duena euskarazkoak ere ez du jasotzen.

9.1.3.2 Iseka Pertsonalak

Corpusetik atera ditugun 90 iseka pertsonaletatik, 46 zuzeneko itzulpenetan ageri dira, eta 44 zeharkakoetan.

Zuzenean egindako itzulpenetan, balio sintaktikoa eta semantikoa nabarmen mantentzen dira (balio sintaktikoa 40 kasutan mantendu da, kasu batean aldatu eta bost kasutan ezabatu; balio semantikoa, berriz, 36 kasutan mantendu da, 5etan aldatu eta 5etan ezabatu). Zeharka egindako itzulpenetan ere, balio sintaktikoa eta semantikoa mantendu egin dira batez ere (balio sintaktikoa 37 kasutan mantendu da eta 7 kasutan aldatu; balio semantikoa, berriz, 31 kasutan mantendu da eta 13tan aldatu). Kasu honetan ere, sintaxia da osagairik egonkorrena; semantika aldakorragoa da; eta tonua da aldakorrena.

Tonuari erreparatuta, joera nagusia zuzeneko itzulpenetan mantentzearena da (% 70), baina ez dira gutxi tonu iraintzailea eufemizatu direneko kasuak (% 17) edo ezabatu direnekoak (% 11). Aurreneko aldiz dugu disfemizazio kasu bat, emaitza osoen % 2 hartzen duena. Tonua jaitsarazi diren kasuak % 28 dira guztira; beraz, tonua mantendu egin da batik bat, eta, are, kasu batean, areagotu edo disfemizatu.



Irudia 45. Iseka pertsonalak zuzeneko itzulpenetan.

Hona hemen adibide batzuk:

Taula 15. Iseka pertsonalak zuzenean. Mantentzea.

Sorburu-testua	Xede-testua
1. "Asos", schreit sie gegen die Wände, "Arschlöcher, Penner!"(FR)	— Asozialak! —oihu egiten du hormaren kontra—. Zerriak, arloteak! (FR-eu)
2. "Du unverschämter kleiner Dreckskerl, du..."(DGS)	Kakagixon lotsagabe horrek... (DGS-eu)
3. "Wenn du zu dumm bist, das du verstehen, halt den Mund!" (DAK)	—Hori ez ulertzeko bezain txepela baldin bazara, hobe duzu isiltzea. (DAK-eu)
4. "Du bist eine Heulsuse " (WO)	— Negarrontzi hutsa zara (WO-eu)
5.[...] »ich bring dich um, du Saukerl! « (GNZ)	[...], hil egingo zaitut, zerri zikina! (GNZ-eu)
6. "Du bist eine Schneegans ," sagte die älteste, "die sich immer fürchtet". (KHM)	— Hi haiz, hi, oilobustia —esan zuen zaharrenak—, beti-beti egoten haiz beldurrak airean; (KHM-eu)

Tonua mantendu duten 6 adibide baino jarri ez baditugu ere, gogorarazi nahi genuke zuzenean itzulitako iseka pertsonalen kasuan % 70 mantendu dela tonua. Aurreko sei adibideetatik 3

Mendiguren itzultzailearenak badira ere (FR, DAK eta WO), adibideen zerrendan Zabaleta (aurreko adibidean, GNZ liburuaren itzultzailea) edo Gomez Zubia (KHM) ere nabarmentzen dira batez ere. Bigarren adibideko *kakagixon* azpimarratu nahi genuke, hiztegiatan agertzen ez den hitza bada ere, ahozkotasuna baitu oinarri (Goenkale corpusean 3 emaitza ematen ditu eta ereduazko prosan ere 8 esalditan agertzen da, nahiz guztiak liburu berekoak izan). Orobat iruditzen zaigu azpimarratzekoa azken adibideko hitanoaren erabilera, esaldi osoaren tonuan baitauka, gure ustez, eragina.

Taula 16. Iseka pertsonalak zuzenean. Eufemizatzea.

Sorburu-testua	Xede-testua
1. <i>Und weil ich keine Heulsuse bin.</i> (LOS)	Eta neskatil negarti bat ez naizelako. (LOS-eu)
2. <i>“So ein kleines Biest!”</i> (DDL)	“Hau elementua! ” (DDL-eu)
3. <i>“Du Idiot!”</i> (EL)	— Leloa halakoa! (EL-eu)

15. eta 16. tauletako adibide sorten artean bi aldiz ageri zaigu *Heulsuse* iraina. Talde banatan dauzkagu sailkatuta, ordea: tonua mantentzen dutenen artean, bata (*negarrontzi*), eta, tonua eufemizatzen dutenen artean, bestea (*neskatil negarti*). Iseka gisa *negarti* oso ohikoa eta erabilia bada ere, esaldian bertan txertatua dagoen moduan (*neskatil negarti bat ez naizelako*) indarra galtzen duela iruditzen zaigu. Gauza bera gertatzen da beste bi adibideekin: *hau elementua* eta *lelo* esapideek emaitza asko ematen dituzte euskal corpusetan, eta, beraz, badute tradizioa, baina sorburu-hitzen tonua gordinagoa da.

Taula 17. Iseka pertsonalak zuzenean. Ezabatzea.

Sorburu-testua	Xede-testua
1. "Nun, was ist dir in die Quere gekommen, alter <i>Bartputzer</i> ?" sprach der Esel. (KHM)	— Ezbeharren bat-edo gertatu zaik? — mintzatu zen astoa. (KHM-eu)
2. "Finde ich dich hier, du alter <i>Sünder</i> ", sagte er, "ich habe dich lange gesucht. (KHM)	

Bost ezabaketa aurkitu ditugu. Hemen goian, horietako bat: Bremengo musikarien ipuinetik dago hartua, astoa katuari ari zaion une batean. Sorburu-testua online dagoen Gutenberg proiektutik atera dugu guk, eta testu horiek *Die schönsten Kinder- und Hausmärchen* argitalpena dute oinarri, Grimm anaien 1857ko 7. ediziotik abiatuta. Gomez Zubiak, berriz, 1837ko hirugarren argitalpenean oinarrituta Heinz Röllekek prestatutako edizioa izan zuen oinarri. Baliteke, beraz, ezabaketa horiek edizio desberdinetan oinarritutako argitalpenak alderatzeagatik aurkitu izana⁶¹.

Taula 18. Iseka pertsonalak zuzenean. Disfemizatzea.

Sorburu-testua	Xede-testua
"Dir werde ich es geben, du <i>Flittchen</i> " (GNZ)	— Nik emango dizut, urdanga zikina . (GNZ-eu)


Azken adibide honetan, itzulpenak sorburu-irainaren tonua disfemizatzen duela erabaki dugu. Tonua jaitsi edo eufemizatu dela erabakitzerakoan gertatu den modu berean, tonua areagotu

⁶¹ Gomez Zubiari irakurtzen diogunez, hirugarren edizioan bederatzi testu berri sartu zituen Wilhelmek, eta hainbat aldaketa esanguratsu egin zizkien testu guztiei. Ondoren, beste lau edizio ere egingo dira, baina "edizio hauetatik guztietatik bat bera ere ez da beste baten berdina" (Gomez Zubia, 2004: 29).

edo disfemizatu dela erabakitzea ere ez da automatikoki egin den eragiketa. Aurrekoa da aurkitu dugun adibide bakarra: itzulpena egokia den ala ez erabakitzea sartu gabe, jatorrizkoarekin alderatuta gogorragoa delakoan gaude.

Bestalde, zeharka egindako itzulpenei erreparatzen badiegu, tonua eufemizatzerara jo da gehien (kasuen % 54), ondorengo grafikoan ikus daitekeenez. Hala ere, kasuen % 39k mantendu egin du tonua. Hiru kasutan gertatu da tonua desagerraraztea (% 7).

Beraz, iseka pertsonaletan bereziki nabarmena egiten da zuzeneko eta zeharkako itzulpenen artean tonua eufemizatzeari dagokionez dagoen aldea: zeharkakoetan zuzenekoetan baino gehiago eufemizatzen da, zehazki, zuzeneko itzulpenetan baino hiru aldiz gehiago eufemizatu da zeharkakoetan.



Irudia 46. Iseka pertsonalak zeharkako itzulpenetan.

Hona hemen adibide batzuk:

Taula 19. Iseka pertsonalak zeharka. Eufemizatzea.

Sorburu-testua	Zubi-testua	Xede-testua
1. <i>Du hast etwas Falsches gefressen, du dummes, armes Schweinchen.</i> (FSWS)	Eres un cerdito muy tonto , pues has comido algo que puede hacerte mucho daño. (FSWS-es)	Oso txerrikume inozoa zara, kalte handia egin bailekizuke jan duzunak. (FSWS-eu)
2. <i>"Das war doch keine Dame, das war doch ein Mann, du dummes Ding", murmelte die Frau ärgerlich.</i> (PA)	—Eso no era una señora, era un hombre, so tonta —murmuró enfadada la mujer. (PA-es)	— Inozoa! Ez da izan emakumea, gizona baino —marmartu zion emakumeak haserre. (PA-eu)
3. <i>"So was Blödes!", sagten die Kinder.</i> (JJJ)	—Juan está chalado —dijeron los niños. (JJJ-es)	—Markel burutik jota dago —esan zuten beste umeek. (JJJ-eu)
4. <i>"Gefühlloser Fachidiot!", schimpfte die Frau Pischtraneke hinter ihm her.</i> (JJJ)	¡Especialista idiota y sin sentimientos! —despotricó tras él la señora Tranek. (JJJ-es)	Sentimendurik gabeko mediku leloa! —Beitia anderea doktoarearen atzetik zihoan, inon direnak eta ez direnak esanez. (JJJ-eu)
5. <i>"Marsch zurück, du Mistvieh!"</i> (35M)	«¡Atrás, marcha, bestia asquerosa! » (35M-es)	«Atzera, ospa hemendik, piztia higuingarria! » (35M-eu)
6. <i>"Die Menschen", brüllte er, "die Menschen können uns gestohlen bleiben, du Schaf!"</i> (DKT)	—¡Las personas! —rugió—, ¡a las personas que les parta un rayo, oveja! (DKT-es)	—Gizakiak! —esan zuen orroaka—. Pikutara joan daitezela, bai, ardi hori! (DKT-eu)
7. <i>"Erlaube mal", sagte Julius gekränkt, "ich bin kein Schaf"</i> (DKT)	—Permíteme —dijo Julius ofendido—. ¡Yo no soy una oveja! (DKT-es)	—Barkatu —esan zuen Juliusek minduta—, baina ni ez naiz ardia! (DKT-eu)
8. <i>Ein Rindvieh sind Sie.</i> (35M)	¡ Una vaca! ¡Eso es usted! (35M-es)	Mandoa! Horixe zara zu! (35M-eu)

Hemen ere eufemizatutako kasuen adibide asko jarri ditugu, iruzkindu nahi genituzkeen hainbat fenomeno aurkitu baitugu. Iseka deskribatzaileekin gertatzen zitzaigun moduan, zeharka itzulitako iseka pertsonaletan ere zubi-hizkuntzaren erabilerak

itzulpen-prozesuan duen eragina suma daiteke. Hirugarren adibidean, esaterako, gaztelaniazko bertsioak tonua neutralizatu dio jatorrizkoari (bestelako tonu bat ematen dio behintzat), eta euskarazko bertsioaren abiapuntua hura izanik, neutralizatzeko joera hartzen du hasiera-hasieratik (*burutik jota dago*). Hirugarren adibidean, ordea, zubi-hizkuntzak tonua errespetatzen duen arren, euskarazkoa bertsioak eufemizatu egiten du. Bosgarren adibidean, gerturatzen ari zaion otso bati aldegiteko ari zaio esaten pertsonaia. Kasu horretan sumatu duguna, zubi-bertsioak eragindako interferentzia baino, euskarazko itzulpenaren sinesgarritasun falta izan da: alemanez edo gaztelaniaz irakurtzen duenari sinesgarria zaio pertsonaiak halakorik esatea otsoa gerturatzen ari bada; euskarazko irakurlearengan identifikazio bera gertatzen den, zalantzarria dela uste dugu. Horrek, jakina, hizkuntzaren egoera osoarekin dauka zerikusia.

Azken hiru adibideetan animalia-izenen kasuak dauzkagu berriz ere. Seigarren eta zazpigarren adibideak liburu beretik atereak dira, DKT liburutik, alegia. Bi kasu horietan hitz joko bat dago, batak besteari *Schaf* [ardi] deitzen baitio. Alemanez, *Schaf* iseka bat da, baina baita animalia-izen arrunta ere, eta liburu horretan pertsonaiak animaliak direnez, zentzu biko elkarrizketa sortzen da bien artean. Ez gaztelaniaz ez euskaraz ez da hitz-jokoa mantentzen. Zortzigarren adibidean ere antzeko zerbait gertatzen da: pertsonaia zaldi bat da berez, eta solaskideak *Rindvieh* erabiltzen du zaldia iraintzeko, alemanez animalia izen hori iseka bat delako, hain zuzen. Gaztelaniaz edo euskaraz, baina, hitz-jokoa galtzen denez, isekaren tonua ere galdu egiten da. Gaztelaniazko

zubi-bertsioak eragindako testu-interferentzia horietako batzuk 9.1.3.5 atalean aztertuko ditugu berriz ere.

Taula 20. Iseka pertsonalak zeharka. Mantentzea.

Sorburu-testua	Zubi-testua	Xede-testua
1. <i>Wie konnte ich nur so dumm sein!</i> (DKG)	¿Cómo pude ser tan tonto? (DKG-es)	Baina nola izan nintzen hain astakirtena? (DKG-eu)
2. <i>“Wartet, ihr faulen Böcke, euch helfe ich!” schimpfte er los - und schon holte er weit mit der Peitsche aus.</i> (DKH)	—¡Esperad, pencos holgazanes! Os voy a despertar —dijo, enfadado... , y levantó el látigo. (DKH-es)	— Itxaron, zaldi ustelak! Nik esnatuko zaituztet — esan zuen haserre bizian... zartailua altxatuz. (DKH-eu)
3. <i>“Feigling du, Feigling du!”</i> (KND)	¡ Cobarde, cobarde! (KND-es)	Koldarrontzi, koldarrontzi! (KND-eu)
4. <i>Du bist ein maßloses Schaf, mein Sohn</i> (35M)	« Eres tonto de remate, hijo mío!» (35M-es)	« Astakirten kaiku hori! »(35M-eu)

Tonua mantendu duten aurreko adibideen artean, bigarrena bitxia iruditu zaigu. Izan ere, *faul* hitzak alemanez *alfer* esan nahi du, baina, haragiaz edo elikagaiez ari garelarik, *ustel* ere esan nahi du. Alemanezko bertsioan *alfer* esanahia darama hitzak, baina bitxia da euskaraz *ustel* erabili izana iseka gisa; are bitxiagoa kontuan hartzen badugu Iparragirrek gaztelaniatik itzuli zuela, eta ez jatorrizko alemanetik.

Taula 21. Iseka pertsonalak zeharka. Desagerraraztea.

Sorburu-testua	Zubi-testua	Xede-testua
<i>Wie konntest du nur so dumm sein?</i> (DOA)	¿Cómo pudiste ser tan tonta? (DOA-es)	Nola egin zenuen hori, ordea? (DOA-eu)


13. taulako adibide multzoan agertzen zitzaigun liburu bereko adibide bat daukagu hemen ere, Ormazabalek itzultako DOA-eu.

9.1.3.3 Madarikazioak

Madarikazioak gutxiago dauzkagu corpusean, 34 guztira. Horietatik 25 dauzkagu zuzeneko itzulpenetan, eta 9 zeharkakoetan.

Kasu honetan, syntaxian eta semantikan bada alderik zuzenean eta zeharka egindako itzulpenen artean: zuzeneko itzulpenetan 22 aldiz mantendu da syntaxia, 2 aldiz aldatu eta behin ezabatu; semantika, berriz, 21 aldiz mantendu da, 3 aldiz aldatu eta behin ezabatu. Zeharkako itzulpenetan, ordea, 5 aldiz mantendu da syntaxia, 2 aldiz aldatu eta 2 aldiz ezabatu; semantika ere, berdin, 5 aldiz mantendu da, 2 aldiz aldatu, eta beste 2 aldiz ezabatu. Zeharkako itzulpenen datu kopurua txikia bada ere, proportzioan gehiago aldatu edo ezabatu da zuzeneko itzulpenetan baino.

Tonuari dagokionean, zuzeneko itzulpenetan, eufemizatu (% 56), desagerrarazi (% 8) edo ezabatu (% 4) egin da gehien, hiru horiek adierazten baitute tonuaren beheranzko joera. Mantendu, % 32 egin da. Bistan denez, iseken kasuan baino askoz gutxiago mantendu da tonua.



Irudia 47. Madarikazioak zuzeneko itzulpenetan.

Hona hemen adibide batzuk:

Taula 22. Madarikazioak zuzenean. Eufemizatzea.

Sorburu-testua	Xede-testua
1. <i>So ein dummes Gewäsch!</i> (EL)	Halako zentsugabekeriari gero! (EL-eu)
2. <i>Verflixte Hühmerkacke!</i> (WFKD)	Arranopola! (WFKD-eu)
3. <i>„Schöner Mist“, meinte Sandra.</i> (EL)	— Ederra kontua! —Sandrak. (EL-eu)
4. <i>Das ist doch blödsinn.</i> (DAK)	Ez du zentzurik (DAK-eu)
5. <i>So ein Blödsinn.</i> (LOS)	Hori gezurra! (EL-eu)

Aurreko adibideen artetik, *blöd* hitzarekin osatutako madarikazioak ez dira oso gordinak, nahiko arruntak baizik (*txoro/txorakeria* esanahia hartzen dute). Hala eta guztiz ere, euskaraz erabat eufemizatu direla ikus daiteke. Are nabarmenagoa da eufemizatzea beste adibideen kasuan: *dumm* edo *mist* hitzekin osatutako madarikazioak gordinagoak dira, eta erabat eufemizatu dira euskaraz.

Taula 23. Madarikazioak zuzenean. Mantentzea.

Sorburu-testua	Xede-testua
1. "So ein Mist, so ein elender Mist! (EL)	–Hau kaka! Kaka zaharra! (EL-eu)
2. "Blödes Wetter. (LD)	–Hau eguraldi zikina! (LD-eu)

Grafikoak erakutsi digun moduan, gutxi dira tonua mantendu duten madarikazioak (% 32). Zortzi adibide dauzkagu guztira. Tonua guztiz mantentzen den ala ez eztabaidagarria izan daiteke, baina eufemizatu den kasuekin alderatuta, aurrekoen moduko itzulpenek badute beste indar bat, gure ustez. Bi adibideak Zabaletak itzuliak dira; are, guztira dauzkagun zortzi adibideetatik, sei Zabaletarenak dira, eta beste biak Mendigurenenak.

Taula 24. Madarikazioak zuzenean. Desagerraraztea.

Sorburu-testua	Xede-testua
<i>Alles für'n Arsch</i> (WO)	<i>Dena alferrik da</i> (WO-eu)


Tonua desagerrarazi den adibide honetan, jatorrizko madarikazioa erabat desagertu da euskarazko itzulpenean. Istripua gertatutako zentral nuklear bat eta ingurune osoa hustu egin dutela kontatzen du pertsonaiak, direnak eta ez direnak egin dutela, baina *alles für'n Arsch* [zakurraren putza]. Euskarazko itzulpenak ez dirudi madarikazio bat denik.

Taula 25. Madarikazioak zuzenean. Ezabaketa.

Sorburu-testua	Xede-testua
<i>Mist, hatte sie etwas Falsches gesagt?</i> (EL)	

Ezabaketa gertatu den adibide honetan, esaldi osoa falta da. Horregatik, nahi gabe gertatu den ezabaketa izan dela pentsa genezake, madarikazioa (*Mist*), ezabatuta ere itzuli baitezakeen esaldia itzultzaileak.

Zeharkako itzulpenei erreparatuta, antzekoak dira portzentajeak. Ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, tonua mantendutako portzentajea (% 33,5) zuzeneko itzulpenetan aurkitu dugunaren antzekoa da (gogoratu zuzeneko itzulpenetan tonua % 32 mantendu dela). Eufemizatu ere kopuru berean egin da (% 33,5) baina ezabaketak % 22 dira eta tonua desagerrarazitako kasuak % 11. Beraz, zuzeneko itzulpenetan gertatzen zitzaugun moduan, hemen ere jaitsiarazi egin da nabarmen madarikazioen tonua.



Irudia 48. Madarikazioak zeharkako itzulpenetan.

Hona hemen adibide batzuk:

Taula 26. Madarikazioak zeharka. Mantentzea.

Sorburu-testua	Zubi-testua	Xede-testua
1. <i>Nein, so eine</i>	¡Pero qué tontería! (DOA-	Nolako txorakeriak

<i>Dummheit!</i> (DOA)	es)	egiten dituen jendeak! (DOA-eu)
2. " <i>Das ist blöd</i> ", sagte die Julia. (JJJ)	— Eso es una tontería — decía Julia. (JJJ-es)	— Hori lelokeria hutsa da! — esaten zion Maddik. (JJJ-eu)

Aurreko adibideetan, gaztelaniazko itzultzaileak jasotako madarikazioa jaso dute euskarazko itzultzaileek. Ondorengo adibideetan, berriz, gaztelaniazkoek jasotakoa eufemizatu, desagerrarazi edo zuzenean ezabatu egin dute itzultzaileek.

Taula 27. Madarikazioak zeharka. Eufemizatzea.

Sorburu-testua	Zubi-testua	Xede-testua
1. <i>Wenn er aber wie angestochen durch die Gegend rast, um eine Zehntelsekunde weniger zu brauchen als wer anders, so ist das kompletter Blödsinn.</i> (35M)	Pero es una mamarrachada que uno corra por ahí como un loco, solamente por hacer un tiempo una décima de segundo inferior a algún otro corredor. (35M-es)	Baina ergelkeria hutsa deritzot ero moduan lasterkatzeari, beste lasterkariren batek baino segundu hamarren bat gutxiagoan betetzeagatik bakarrik. (35M-eu)
2. <i>Mist!</i> (HLJ)	¡Porras! (HLJ-es)	Arraioa! (HLJ-eu)

Tonua eufemizatu den aurreko adibideetan bitariko fenomenoak ikus ditzakegu: aurreko adibidean, gaztelaniazkoak mantendu du gutxi gorabehera madarikazioaren tonua, baina euskarazkoak jaitsiarazi egin dio; bigarren adibidean, ordea, gaztelaniazko itzulpenak baldintzatu egin du euskarazkoa, zubi-hizkuntzatik hasita gertatu baita eufemizatzea.

Taula 28. Madarikazioak zeharka. Ezabaketa.

Sorburu-testua	Zubi-testua	Xede-testua
<i>Wie dumm!</i> (HLJ)		

Zeharka itzuli diren madarikazioetan gertatu diren bi ezabaketak aurreko adibidea bezalakoak dira. Biak, gainera, liburu berekoak dira (HLJ). Liburu horretan, gainera, gaztelaniazko itzultzaileak nahiko libre jokatu duela ikusi dugu, eta ezabaketena horren adibide izan daiteke: gaztelaniazko itzultzaileak esaldiren bat ezabatzen badu, ziurtasun osoa dugu zeharka egin den euskarazko bertsioan ere ezabaketa horiek gertatuko direla.

Taula 29. Madarikazioak zeharka. Desagerraraztea.

Sorburu-testua	Zubi-testua	Xede-testua
" <i>Zu dumm, Lord Caro ist dort unbekannt</i> " (DASH)	— Como era de esperar , lord Caro es desconocido allí. (DASH-es)	—Ba, espero genuena , han ere ezezaguna dela Lord Caro hori. (DASH-eu)


Tonua desagerrarazitako kasu honetan ere gaztelaniazko bertsioak baldintzatu du euskarazkoa. Detektibe lanetan ari diren gazteen istorioa kontatzen du aurreko adibideak: gazteak Lord Caro bilatzen saiatzen ari dira; beste hiri bateko postetxean lan egiten duela uste dutenez, hara deitzen dute. Baina han esaten diete ez dutela horrela izena duen inor ezagutzen. Horregatik, postetzekoen erantzuna entzun ondoren, pertsonaietako batek *zu dumm* [hau zorte txarra/kaka] dio. Gaztelaniazko itzultzaileak beste modu batera ulertu du, edo, gutxienez, beste modu batera parafraseatu du madarikazioa, eta, ondorioz, euskarazkoan ere desagerrarazi egin da.

Orain, azterketa mikrotestuarekin gehiago sakontzeko, iseken eta madarikazioen azterketa honetan emaitza kopuru handiena eman duten erroak nola itzuli diren aztertuko dugu.

9.1.3.4 Gehien erabilitako iseka-erroak

Iseka deskribatzaileen eta pertsonalen eta madarikazioen itzulpena aztertu dugu, batez ere tonuari erreparatuz. Kasu zehatzagoak aztertu, eta, beraz, ondorio xeheagoak ateratzeko, gure iseken eta madarikazioen erauzketan maizten agertutako hitzak nola itzuli diren aztertuko dugu.

Atal honetako 9.1.2 puntuan azaldu dugunez, Schefflerren taula erabili dugu bertako iseka-erroen arabera bilaketa egin eta emaitzak taula batean erauzten joateko. Hala, *blöd* bilatuta, *blödsinn*, *blödsinnig*, *Blödmann* etab. zeramaten testu-zatiak atera ditugu, baina *grob* bilatuta, adibidez, *Grobian* zeraman esaldi bakar bat agertu zaigu. Beraz, taulan zerrendatu ditugun emaitzei erreparatu eta iseka-erro bakoitzak eman dizkigun testu-zatiak zenbatu ditugu, emankorrenak zein izan diren jakiteko. Hona hemen emaitza modu grafikoan irudikatuta:




Irudia 49. Iseka-erroen maiztasuna agertzen duen grafikoa.

Zenbaketaren bitartez jakin dugunez, eta taulan nabarmen ikus dezakegunez, bi hitz daude gainerakoak baino gehiago erabili direnak: *dumm-* (59 aldiz) eta *blöd-* (48 aldiz). *Faul-* ere nahiko maiz agertu zaigu (22 aldiz) eta *mist-* hitza ere nahiko goian agertzen zaigu taulan (19 aldiz ageri zaigu, zehazki).

Nolanahi den, eta maizenik erabilitako iseka-erroez ari garela, ohartarazpen bat egin nahi genuke: kontuan hartu behar dugu bilatzailearekin bilaketa egin eta, emaitzak taulan biltzerakoan, iragazki moduko bat pasa dugula. Izan ere, badira gure corpusean agerpen kopuru oso altuko erroak, baina helburu iraingarririk gabe erabili direnak. Fenomeno horren adibide dugu *Hexe* [sorgin] hitza. Irain balioa har dezake, baina gure corpusean pertsonaia nagusiak sorginak diren bi liburu egonda (*Die kleine Hexe* eta *Hexe Lilli auf dem Jagd nach dem verlorenen Schatz*), *Hexe* hitzaren agerpenak ugariak dira, pertsonaiak sorginak direlako; testu horietan, ordea, ez da iseka gisa erabili. Hain zuzen ere, *Hexe* hitza iseka gisa erabili den bi kasu baino ez ditugu aurkitu ("*Hexe!*" *rief der Jokel* eta "*Du musst zu dieser alten Hexe gehen!*"), eta horiek sartu ditugu zerrendan. Beraz, 48. irudiko grafikoan maiztasun gutxien eman dituen puntuetako bat dugu.

Hexe hitzarekin agerpen osoa zein handia izan den hobeto irudikatzeko, Wordsmith programa erabili eta corpus osoko alemanezko bertsio guztien hitz zerrenda atera dugu: *Hexe* hitza 319 aldiz ageri da. Bilaketa lema gisa eginda (* izartxoarekin bukaeran, deklinabidean gerta litezkeen aldakuntza guztiak ere kontuan hartze aldera), 490 agerpen dauzkagu. Ondorengo grafikoak bistan uzten du DKH liburuan erabili dela gehien *Hexe* hitza, pertsonaiak sorginak direnez.



Irudia 50. Hexe hitza corpuseko testuetan.

Gauza bera gertatu zaigu *Alter* [zaharra] hitzarekin. Euskaraz ere gertatzen den moduan, izenaren ondoan agertu ohi da, izenlagun gisa izenaren esanahia osatuz. Baina izenlaguna bera ere bihur daiteke izen, eta, egoeraren eta helburu komunikatiboaren arabera, irain balioa har lezake: *Du, Alter* [hi, zaharra]. *Hexe* hitzarekin egin moduan, alemanezko bertsioren hitz zerrenda aterata, 669 aldiz atera zaigu *alt* hitza (* izartxoarekin, deklinabide aldaerak kontuan hartuta), iseka moduan, aldiz, 7 aldiz agertu zaigu.

Hexe eta *alt* hitzekin gertatu zaiguna beste hainbat hitzekin ere gertatu zaigu, hala nola iseka gisa erabilitako animalia-izenak bilatu eta emaitza gisa esanahi iraingarririk ez duten animalizena ere jaso baititugu.

Horiek, hala ere, bilaketak egin eta irain balioa zuten emaitzak taulan biltzeko egin dugun iragazki-lanari buruzko gorabeherak izan dira. Zenbaketa egin eta 49. irudiko grafikoan ikusi dugunez, *dumm* eta *blöd* dira beste edozein baino gehiago agertzen diren

hitzak. Horregatik, hurbilgotik aztertuko ditugu zeharka nahiz zuzenean itzuli diren kasuetan.

Esandako moduan, *dumm* hitza 59 aldiz agertu zaigu, 24 aldiz zeharkako itzulpenetan eta 35 aldiz zuzeneko itzulpenetan. Behean zeharkako nahiz zuzeneko itzulpenetan eman diren baliokideen zerrendak erantsi ditugu, eta emandako baliokidea behin baino gehiagotan eman bada, maiztasuna ere zehaztu dugu.

Taula 30. *Dumm* hitzaren baliokideak.

Zeharkoetan	zuzenekoetan
(6) inozo	(6) ergel
(4) [desagerraraztea]	(6) lelo/lelokeria
(3) ergel	(4) artaburu
(1) astakirten	(2) inozo
(1) lelo	(2) [desagerraraztea]
(1) tontolapiko	(2) babo
(1) kirten	(1) txepel
(1) tentel(keria)	(1) [ezabaketa]
(1) inuxente	(1) tontotzar
(1) zora(keria)	(1) susterbako
(1) txora(keria)	(1) tuntun
(1) tuntun	(1) txotxolo
(1) pena da [zu dumm]	(1) txoro
(1) [ezabaketa]	(1) baldar
	(1) kuttuntxo
	(1) tonto
	(1) lotsagabe
	(1) pena da [zu dumm]
	(1) zentzugabe(keria)

Zeharka itzuli den kasuetan, hamalau baliokide desberdin eman dira euskaraz. *Inozo* erabili da gehien (6 aldiz). Iseka

desagerrarazi ere askotan egin da (4 aldiz). Gainerakoan, *ergel* (3) da, *inozorekin* batera, erabiliena.

Zuzenean itzuli den kasuetan, berriz, hemeretzi baliokide desberdin eman dira euskaraz; zeharka itzuli denean baino bost baliokide gehiago, beraz. Kontuan hartu behar da zuzenean egindako itzulpenetan zeharka egindakoetan baino itzultzaile gutxiagoren ordezkaritza daukagula, eta, hala ere, baliokide gehiago atera ditugu. Dena den, zeharkako itzulpenetan ere hain maiz erabilitako *ergel* da, *lelorekin* batera, zuzenekoetan erabiliena (biak ere 6 aldiz); ondoren *artaburu* daukagu (4 aldiz), eta gero *inozo* (2 aldiz).

Lehenik eta behin azpimarratzekoa dena da *dumm* iseka-erro bat bakarra dela alemanez, eta, itzulpena matematika ez denez, eta espero izatekoa den arren baliokide bat baino gehiago aterako dela, euskaraz 14 eta 19 baliokide desberdin atera zaizkigu hitz bererako. Bestetik, nabarmena da zuzeneko itzulpenek baliokide-aniztasun handiagoa eman digutela. Gainera, zeharkakoetan agertu ez zaizkigun baina bereziki adierazkorrak egiten diren batzuk agertu zaizkigu zuzeneko itzulpenetan: *artaburu*, *babo*, *txepel* edota *susterbako*. Zuzeneko itzulpenek emandako emaitzei zehatzago erreparatuta, emaitzen ia heren bat KHM-eu itzulpenari dagozkiola ohartu gara: Gomez Zubia itzultzaileak, gainera, bost baliokide ematen ditu *dumm* hitz bererako (4 aldiz *ergel*, 3 aldiz *artaburu*, *susterbako*, *tontotzar* eta *baldar*). Baliteke horrek guztiak adieraztea zuzeneko itzulpenetan gehiago jotzen dela euskararen adierazgarritasuna ustiatzera zeharkakoetan baino.

Corpusean gehien ageri den bigarren hitzari dagokionez, *blöd* hitzari dagokionez, guztira 48 aldiz agertu zaigu: horietatik 30 aldiz zuzenean eta 18 aldiz zeharka.

Taula 31. *Blöd* hitzaren baliokideak.

zeharkakoetan	zuzenekoetan
(8) inozo	(7) txepel(keria)
(4) ergel(keria)	(3) ez du zentzurik
(1) ergel inozo	(3) zikin
(1) burutik jota egon	(3) lelo(keria)
(1) ero	(2) inozo
(1) kaiku	(1) gaizto
(1) lelo(keria)	(1) inuzente
(1) artaburu	(1) kaiku
	(1) babo
	(1) artaburu
	(1) astapotro
	(1) tonto
	(1) [ezabaketa]
	(1) kirten(keria)
	(1) txatxu(keria)
	(1) astakume
	(1) gezurra

Zeharka itzuli denean zortzi baliokide desberdin eman dira. *Inozo* da, alde handiarekin, gehien erabili dena (8 aldiz), eta ondoren *ergel* (4 aldiz).

Zuzenean itzuli den kasuetarako askoz gehiago dira baliokideak: hamazazpi guztira. Gehien erabili dena, alde handiaz, *txepel* hitza izan da (LOS liburuan dezente ageri delako), 4 aldiz daukagu. *Ez du zentzurik* esapidea *das ist doch blödsinnig* eta *es ist blöd* esapideen baliokide gisa eman dira. Gainerakoan, *zikin*, *lelo* eta

inozo dauzkagu zerrendaren hasieran. Azpimarratzekoa da zuzeneko itzulpenei dagokien zerrendako aurreneko hiru hitzak ez direla zeharkako itzulpenei dagokien zerrendan agertu ere egiten.

Beraz, *dumm* hitzarekin gertatu zaigun gauza bera gertatu zaigu hemen ere: zuzeneko itzulpenek baliokideen aukera zabalagoa eskaini dute. Zuzeneko itzulpenen adibide gehienak Zabaletarenak (17 adibide) eta Mendigurenenak (10 adibide) dira. Zabaletak 12 baliokide desberdin ematen ditu, eta LOS-eu itzulpenean *txepel* asko errepekikatzen badu ere, beste itzulpenetan *babo*, *artaburu*, *astapotro*, *zikin* eta *astakume* bezalakoak erabiltzen ditu. Mendigurenek ere *kaiku* eta *txatxu* bezalako hitzak erabiltzen ditu. Baliokide horiek guztiak ez ditugu zeharkako itzulpenetan topatu.

Zuzeneko itzulpenetan baliokideen aukera zabalagoa aurkitu badugu ere, behin eta berriz nabarmendu dena *inozo-ergel-lelo* hirukotea izan da, zuzeneko itzulpenetan nahiz zeharkakoetan. Baliteke, beraz, *dumm-* eta *blöd-* itzultzeko ohiko baliokideak izatea. Gure corpusean egin dugun bilaketako emaitzekin gurutzatzearen, eta *dumm-* eta *blöd-* erroen inguruko informazio osatuago bat jasotzeko, hiztegiek zer dioten ikusiko dugu.

Ikus dezagun, aurrena, zein den alemanezko hitzen esanahia: *dumm* hitzak honako adiera hauek jasotzen ditu⁶²:

- Adimenik gabea: *ein dummer Schüler*.
- Ezatsegina, txarra: *das ist eine dumme Geschichte*.
- Zorabiatzeko moduan: *der Lärm macht einem ganz dumm*.

⁶² DWDS sareko hiztegian kontsultatua (<http://www.dwds.de/>), 2012ko maiatzaren 27an.

Alemana-euskara hiztegian, berriz, honako baliokide hauek topatu ditugu *dumm* sarrera begiratuta: lelo, pello, kaiku, tonto (Martinez, 2006).

Blöd hitzak, berriz, honako adiera hauek jasotzen ditu:

- Adimen ahulekoa.
- Adimen ez zorrotzekoa: *ein blödes Kind*.
- Ergela, zentzugabea: *ein blöder Fehler*.
- Zuhurtziagabe, trakets: *du hast dich blöd benommen*.
- Ez-pozgarri, ezatsegin: *ein blödes Wetter*.

Alemana-euskara hiztegiak honako ordain hauek ematen dizkigu: mozolo, memelo, txatxu (Martinez, 2006).

Adierazgarria da alemana-euskara hiztegiak ez duela ematen gure corpusean zuzeneko itzulpenetan *blöd* hitzaren ordain gisa gehien agertu zaigun hitza (*txepel*). Orobat ez ditu ematen ez *ergel* ez *inozo* aztergai ditugun alemanezko bi hitzen ordain gisa. *Lelo* da hiztegiak ematen digun eta itzulpenetan ere sarri samar agertu zaigun ordain bakarra. Baliokide egokia zein den epaitzera sartu gabe, bistan da corpusetan oinarritu gabeko hiztegiak badituela bere hutsuneak, alegia, ez dituela nahitaez jasotzen testu errealetan nagusi diren baliokideak.

Ibon Sarasolaren Euskal Hiztegira jota, honako definizio hauek aurkitu ditugu (Sarasola, 2006):

- **Inozo** (1880) adimen urrikoa, buruz motela. ik. inuzente. ik. ergel.
- **Ergel** (1643) zentzu edo adimen txikikoa, zentzugabeki mintzatzen edo aritzen dena. ik. burugabe; zozo. ant. zuhur
- **Lelo** (1882) *batez ere Bizk.* ergela, tentela, adimen gutxikoa.

Hiztegiaren arabera, beraz, hiru hitzek egiten diote erreferentzia adimen urrikoa den pertsonari. Dena den, badirudi *inozok* gehiago duela inuzentetik, hau da, nahi izanda ere, bizkorra izan ezin daitekeen pertsona. *Ergel* hitza, bestalde, gehiago dagokio zentzuz jokatzeko ez duen pertsonari. Hau da, badirudi inozoa errugabea dela, eta *ergela* ez. *Lelo* hitza, berriz, inozoren parean jar genezakeen, baina mendebaldeko euskaran erabiltzen da batik bat.

Euskal hitzen erabilera baloratzeko Euskaltzaindiaren Euskararen Corpus Estatistikoan⁶³ eta EHUren Ereduzko Prosa Gaur⁶⁴ bilatzailean egin ditugu bilaketak. Euskararen Corpus Estatistikoak hitzaren erabilerari buruzko datuak ematen ditu: zein garaitan erabili den, zein euskalkitan eta zein literatur generotan. Ereduzko Prosak literatur lan garaikideetan egiten du bilaketa, nola sortze-lanetan nola itzulpenetan; itzulpenak corpusaren heren dira gutxi gorabehera, eta bilaketa egiterakoan corpus osoan ala itzulpenetara mugatzeko aukera ematen du.


Aztergai ditugun hitzekin bilaketa eginda ikus daitezkeenez, *ergel* hitzak du tradizio gehien, nahiz eta batez ere 70eko hamarkadatik hona erabili den (emaitzen % 70 70eko hamarkadatik honako ekoizpenari dagokio). Ordea, *inozo* hitza 70eko hamarkadatik hona baino ez da erabili beti (% 100ean) eta *lelo* hitzaren % 86 ere 70eko hamarkadatik hona erabili da. Hiru hitzak erabili dira batez ere euskara batuan, baina *ergel* eta *lelo* hitzak euskalkietan ere ageri dira; ez da gauza bera gertatzen *inozorekin*, soilik euskara batuan erabiltzen baita. Bestalde, *ergel* eta *lelo* hitzek %11ko agerpena dute HGLan, baina *inozok* %29koa. Beraz, soilik

⁶³ <http://www.euskaracorpora.net/XXmendea/>

⁶⁴ <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>

batuan erabiltzen den hitza da HGLan gehien erabiltzen dena: hizkuntza-eredu jakin bat bultzatzeko nahia adieraz lezake horrek.

Lema: **inozo**



Irudia 51. Euskararen Corpus Estatistikoak *inozo* hitzaren erabilerari buruz emandako informazioa.

Badirudi, beraz, *inozo* hitza dela berriena. Ereduzko Prosan begiratuta, berriz, *ergel* da erabiliena, 1.183 esalditan agertzen baita corpus osoan begiratuta; corpora itzulpenetara mugatuta, 792 esalditan agertzen da. Badirudi, beraz, itzulpenetan maiz erabiltzen den hitza dela. Gauza bera gertatzen da *inozo* hitzarekin: 521 esalditan agertzen da, baina horietatik 273 itzulpenak dira. *Lelo* hitza, berriz, 417 esalditan agertzen da, baina 119 baino ez dira itzulpenak. Beraz, *ergel* eta *inozoren* erabilera itzulpenetan handiagoa da.

Bi corpus horiek erabilerari buruzko informazio interesgarria ematen badute ere, bada bereiziki interesgarria iruditzen zaigun

beste corpus bat: Goenkale corpora⁶⁵. ETB1en emititutako telesailaren 2.418 ataletako gidoiak jasotzen dira corpus honetan, eta, ikus-entzunezko produktu baten corpora denez, bereziki interesgarria da guretzat. Izan ere, Goenkale telesailak arrakasta handia izan du ETB1en, eta, zentzu horretan, euskararen erabilera eta kontsumoa bultzatzeko produktu gakoa izan da. Gidoiak prestatzean, gainera, kalean, familian eta eguneroko jardunean erabiltzen den (ala akaso *erabili beharko genukeen* esan beharko nuke) euskara islatzeko esfortzua egin zen. Edozein modutan, *ergel* bilatuta, 504 agerraldi topatu ditugu, *inozo* bilatuta 380 eta *lelo* bilatuta 160.

Badirudi, beraz, batez ere *inozo/ergel* bikotea oso ohikoa dela euskal kontsumoko produktuetako elkarrizketatan. Are, maizenik erabilitako baliabidetzat ere har genitzake. Nabarmendu nahi genuke, dena den, *inozo-ergel-lelo* hirukoteaz gain, *astakume*, *astapotro*, *artaburu* edo *txatxu* moduko baliokideak ere agertu zaizkigula, nahiz maiztasun bakarrarekin. *Asta*- hitz hasiera, esate baterako, irain gehiagoren sorkuntzarako abiapuntu izan liteke. Gauza bera gertatzen da *mari*- aurrizkiarekin, Goenkale corpusean bilaketa egitea besterik ez dago, aurrizki horren eratorpen gaitasunaz jabetzeko (emaitzetako askok Joxe Mari izenaren bigarren zatia egiten diote erreferentzia, hala ere. Bilaketa zehatz horretan, beraz, galbahe estua pasatu beharra dago).

Ikusi dugu, beraz, badirela itzulpenetan, dena delako arrazoiengatik, bereziki erabiltzen diren hitz batzuk. Hala, batez ere hitz jakin batzuk erabiltzen badira, beste hainbat ez dira

⁶⁵ <http://ehu.es/ehg/goenkale/>

hainbeste erabiltzen, eta esan liteke horrek hizkuntzaren beraren adierazkortasuna apaldu lezakeela apur bat. Horrek guztiak, bestalde, Touryk proposatzen duen estandarizazioaren legea berretsiko luke.

Izan ere, eta egiaztatu ahal izan dugunez, zeharkako itzulpenek estandarizazio handiagoa jasaten dute, zuzeneko itzulpenetan euskararen baliabideen aniztasun handiagoa ikusi baitugu. Horregatik, zeharkako itzulpenei erreparatuko diegu orain, aztergai ditugun bi hitzentzat gaztelaniazko bertsioetan emandako ordainak zein diren ikusteko:

Taula 32. *Dumm* eta *blöd* gaztelaniaz.

<i>Dumm-</i>	<i>Blöd-</i>
(17) tonto/a, tontería	(5) estúpido/a
(4) estúpido/a	(6) tonta/a, tontería
(1) idiota	(2) idiota
(1) [desagerraraztea]	(1) chalado/a
(1) [ezabaketa]	(1) loco/a
	(1) majadero/a
	(1) mamarrachada
	(1) [ezabaketa]

Gaztelaniaz gehienbat *tonto/a* - *tontería* eta *estúpido* hitzera jo dela ikus dezakegu. Bestelako aukerak ere agertu zaizkigun arren, nabarmena da aurreneko bien nagusitasuna, eta, beraz, esan ere egin liteke gaztelaniaz itzultzerakoan baliabide horietara jotzen dela modu automatiko samarrean. Euskaraz baino baliokide-aniztasun txikiagoa aurkitu dugu gaztelaniaz.

Baliteke, gainera, araua hori izatea: hizkuntza batetik bestera itzultzerakoan nolabaiteko automatismoak eduki nahi izatea.

Horregatik gaztelaniaz batez ere bi baliokide nagusitu izana. Euskararen kasuan, badakigu lan batzuk gaztelaniatik itzultzen direla. Eta zuzenean sorburu-hizkuntzatik itzultzen diren lanen kasuan ere, gaztelaniazko bertsioa izaten du itzultzaileak eskura maiz; horretaz gain, gaztelaniaren presentzia eta interferentzia izaten du buruan bertan (interferentzia bikoitzaren araua). Beraz, horregatik da interesgarria zuzenean eta zeharka egindako itzulpenak alderatzea, interferentzia horren norainokoa neurtzeko.

Jarraian, beraz, gaztelaniak euskarazko bertsioetan utzitako arrastoa aztertuko dugu. Horretarako, iseken taula hartu eta euskarazko bertsioak zubi-hizkuntzarekiko erakuts lezakeen morrontza edo interferentziari erreparatuko diogu.

9.1.3.5 Zeharkako itzulpenen interferentzia

Garbi dago gaztelaniazko testuek euskarazkoak baldintzatu dituztela zeharkako itzulpenetan, gaztelaniazko zubi-bertsioak izan baitira abiapuntu. Pentsa liteke, beraz, gaztelaniak utziko zuela eraginik euskarari. Isekak eta madarikazioak aztertu ditugun atal honetan, gaztelaniazko testuak euskarazkoan arrastorik edo interferentziarik utzi ote duen aztertu nahi izan dugu. Horretarako, zeharkako itzulpenak hartu, gaztelaniazko eta euskarazko pasarteei erreparatu eta gaztelaniaren interferentziarik sumatzen ote duen idatzi dugu: I (interferentzia) ala Ix (interferentziarik ez).

Oraingo honetan ere, ez da erraza gaztelaniaren interferentzia zer den definitzea. Jakin badakigu zeharka itzultitako testuetan euskarazkoak gaztelaniazko bertsioari jarraitu diola, beraz, bai egitura mailan nola hiztegiaren mailan, paralelismoak izango ditugu. Hau da, testu-interferentzia saihestezina da kasu horietan,

hain zuzen ere, zeharka itzuli direlako. Hala ere, euskarazko bertsoiak, zeharka itzulia izan dela jakin gabe ere, gaztelaniaren itzala ezagun badu —interferentzia diglosikoa dei genezakeena—, edo haren ondorioz itzulpenari dagokion gaizkiulerturen bat ezagun badu, interferentzia (I) duela erabaki dugu.

Hala, kasuen % 20an sumatu dugu interferentzia. Interferentzia horiek zer nolakoak diren hobeto ulertzeko, hona hemen adibide batzuk.

Taula 33. Isekak eta madarikazioak. Interferentzia zeharkako itzulpenetan (1).

Sorburu-testua	Zubi-testua	Xede-testua
1. "Bäää, bääää, bääää, <i>Angeber du!</i> ", rief der Anton. (KND)	—¡Bah, bah, bah, soplón! —le gritó Antón. (KND-es)	—Ba, ba, ba, ahotzar! —oihukatu zion Antonek. (KND-eu)
2. "Ich Affe", sagte sie, "und darauf bin ich nicht gekommen! (PA)	—¡Qué burra! —dijo—. Yo no había caído, (KND-es)	—Zer asto zatia naizen! —esan zuen—. Ez nintzen konturatu. (KND-eu)
3. Mein Kind soll keine <i>hochnäsige Gans</i> werden. (PA)	Mi hija no debe convertirse en un ganso orgulloso . (PA-es)	Nire alaba ezin da izan antzara harroa . (PA-eu)
4. Piefke bewachte unterdessen den gefesselten <i>Halunken</i> und probierte heimlich, wie Schuhsohlen schmecken. (PA)	Entretanto Piefke vigilaba al bribón y probó con disimulo qué sabor tenían las suelas de sus zapatos. (PA-es)	Bien bitartean zitala Piefkek zaintzen zuen eta oinetakoen zolak zer zaporekoak ziren dastatu zuen. (PA-eu)
5. [...], das war der Sohn von den Portierleuten, ein <i>ausgemachter Lümmel</i> . (PA)	Era el hijo de los porteros, un auténtico gamberro . (PA-es)	Atezainen semea zen, benetako kaiku handia . (PA-eu)

Aurreko adibideetan, esaterako, zubi-hizkuntzak xede-testuko hitz jakin bat eragin eta behartu du; hau da, xede-testuko hitz edo esapide jakin baten atzean nabarmen sumatzen da zubi-testuaren eragina. Esate baterako, aurreneko adibidean *ahotzar* erabili da

euskaraz. Gaztelaniazko testuak *soplón* badarabil ere, itzultzaileak *bocazas* izango zuelakoan gaude, eta hortik atera zaio *ahotzar*, nahiz eta, *ahotzar* hitzak gehiago egiten dion erreferentzia aho handi bati (ereduzko prosan emaitza guztiek ahoaren tamainari egiten diote erreferentzia, ez isekari), eta, izatekotan, *ahozabal* izan liteke ordain egokia (Goenkale corpusean 11 aldiz ageri da iseka gisa). Gauza bera gertatzen da bigarren adibidean, euskarazko *asto zatiren* atzean gaztelaniazko *pedazo burra* ezkututzen dela pentsa baitezakegu. Hirugarren adibidean, berriz, euskal ordainaren atzean gaztelaniazko hitza dagoela sumatzeaz, gain, esan behar da, gainera, jatorrizkoaren berezko esanahia ere aldatzen dela: alemanez, emakume tuntunarentzat erabiltzen da *Gans* iraina; gaztelaniaz, berriz, eta DRAE hiztegiaren arabera, alferra edota bere burua dibertigarritzat duen gizonarentzat erabiltzen da *ganso*; euskaraz, *antzara* ez da iseka bat. Beraz, gaizkiulertua ere eragin du zubi-testuak.

Ondorengo adibide hauetan, berriz, hitz edo elementu solte bat baino, esaldiaren egitura behartu du zubi-hizkuntzak:

Taula 34. Isekak eta madarikazioak. Interferentzia zeharkako itzulpenetan (2).

Sorburu-testua	Zubi-testua	Xede-testua
1. "Das weißt du schon ganz gut, stell dich nicht so dumm, mein Herzblatt!" (PA)	—Lo sabes muy bien, no te hagas la tonta, niña . (PA-es)	—Zuk oso ondo dakizu; ez egin ez jakinarena, ume . (PA-eu)
2. Du hast etwas Falsches gefressen, du dummes, armes Schweinchen. (FSWS)	Eres un cerdito muy tonto, pues has comido algo que puede hacerte mucho daño. (FSWS-es)	Oso txerrikume inozoa zara, kalte handia egin bailekizuke jan duzunak. (FSWS-eu)
3. [...], dann kann man zehn gegen eins wetten, daß es sich um einen	[...], entonces se puede apostar diez contra uno a que se trata de un cerdo	[...], hamar baten aurka txerri nazkagarria dela esan dezakegu. (PA-eu)

<i>Schweinehund handelt.</i> (PA)	asqueroso. (PA-es)	
4. "Komm her, <i>du alter Räuber Windsandale!</i> " rief er aus einem Fensterloch. (FSWS)	—¡Ven aquí, malvado ladrón llamado Sandalias de Viento! —chilló desde una de las ventanas. (FSWS-es)	—Zatoz hona, Haizezko Sandaliak deituriko lapur gaiztoa! —oihu egin zion leiho batetik. (FSWS-eu)

Aurreko esaldietan nabaria da euskarazko esaldien egitura behartuta dagoela: bigarren adibidean, euskarazko esaldi-egitura zuzena izan arren, bistakoa da formalegia edo ez naturalegia gertatzen dela HGL generorako. Aurreko adibideak eta aurreko hauek kontuan hartuta, guztiak hiru itzulpenetatik atera direla ohartu gara: PA-eu, KND-eu eta FSWS-eu itzulpenetatik.

Zubi-bertsioetik abiatuta nahiko modu automatikoan egindako itzulpenak direla uste dugu, eta, horregatik, zubi-bertsioaren egiturari eta erabilera pragmatikoari erantzuten diotela. Zubi-bertsioaren interferentzia diglosiko edo kognitiboaren adibide gisa har ditzakegu, beraz.

Taula 35. Isekak eta madarikazioak. Interferentzia zeharkako itzulpenetan (3).

Sorburu-testua	Zubi-testua	Xede-testua
1. »Marsch zurück, du Mistvieh!« (35M)	«¡Atrás, marcha, bestia asquerosa! » (35M-es)	«Atzera, ospa hemendik, piztia higuingarria! » (35M-eu)
2. <i>Sie betuern Lilli, dass sie lieber ihr Leben lassen als diesem Mistkerl ihr kostbarstes Gut auszuliefern.</i> (HLJ)	¡Prefieren perder la vida a ceder la más valiosa de sus posesiones a ese bellaco! (HLJ-es)	Nahiago dute bizia galdu, daukaten gauzarik baliotsuena gaiztagin horren eskuetan utzi baino! (HLJ-eu)
3. "Den Streber , den verdammten, können wir nicht brauchen!", sagten sie. (KND)	¡No necesitamos a ese maldito empollón pelotillero! (KND-es)	Ez dugu behar aulkibero lausengari madarikatu hori! (KND-eu)

Higuin eta *higuingarri* hitzak oso onartuak baditugu ere, tradizioan iparraldeko euskalkian jaso dira batez ere. Literatura idatzian oso erabiliak dira, baina batez ere helduen literaturan. Gaztelania-euskara hiztegian badatoz ordain gisa, jakina, eta baliteke hiztegiaren kontsultak eragin izana hitz horren aukeraketa. Gauza bera uste dugu gertatu dela *gaiztagin* (batez ere ipar.), eta *lausengari* hitzekin (iparraldekoa eta G.g.er. –gaur gutxi erabilia— markak ditu euskal hiztegian). Ereduzko Prosan begiratuta, *gaiztagin* guztira 30 liburutan agertu da, horietatik 14 itzulpenak, baina *lausengari* 25 liburutan ageri da eta horietatik 20 itzulpenak dira. Gainera, batez ere kontakizunean ageri dira erabiliak, eta ez hainbeste elkarrizketetan. 35M-eu itzulpena 1983an argitaratu zen, eta KND-eu, berriz, 1992an. Itzulpenak argitaratu diren garaiak badu eraginik itzulpenerako erabili den hizkuntzan, baina, bigarren adibidea, HLJ-eu itzulpena, 2006an argitaratu zen.

Ondorengo adibideetan, berriz, zubi-testua oinarritzat hartzeak itzulpeneko gaizkiulertu bat baino gehiago eragin du:

Taula 36. Isekak eta madarikazioak. Interferentzia zeharkako itzulpenetan (4).

Sorburu-testua	Zubi-testua	Xede-testua
1. "Die Menschen", brüllte er, "die Menschen können uns gestohlen bleiben, du Schaf! " (DKT)	—¡Las personas! — rugió—, ¡a las personas que les parta un rayo, oveja! (DKT-es)	—Gizakiak! —esan zuen orroaka—. Pikutara joan daitezela, bai, ardi hori! (DKT-eu)
2. Sie Schafsnase, Sie hinterlistige Hopfenstange, Sie können ja aus der Dachrinne Kaffee trinken, Sie impertinentes Gespenst, Sie... " (PA)	Caradeoveja, pendona, podría usted beber el café del tejado , fantasma impertinente. Usted... (PA-es)	Gizatxar, zantar horrek teilatutik jausten den kafea har dezakezu , mamu lotsagabeko horrek. Bai, zuk zeuk... (PA-eu)
3. Und der Oberaffe ist der, der den Jericho am Schwanz gezogen hat, und wie der	Y el mono jefe es el que le tiró del rabo a Jericó y se echó a temblar en cuanto	Eta tximinoen nagusia , Malutari buztanetik tiratu eta txakurrak marruska

<i>Jericho geknurr hat, hat er dann gezittert, der Oberaffe, der blöde!"</i> (JJJ)	le gruñó. ¡ El supermono , el tonto ése! (JJJ-es)	egin zionean, dardarka hasi zen mutila da. Inozo hori super-tximinoa da! (JJJ-eu)
4. <i>Der Schurke versteht die Welt nicht mehr...</i> (HLJ)	El cazador está perdido . (HLJ-es)	Ehiztariarenak egin du. (HLJ-eu)

Aurreko adibideetako batzuk ikusi ditugu tonuaren azterketan zehar. Aurreneko adibidean, esaterako, animaliak dira liburuko pertsonaiak, eta elefanteak *Schaf* deitzen dio gameluari, gamelua izan arren, *Schaf* hitzak ergel esanahia duelako alemanez. Hitz-joko bat dago, beraz. Gaztelaniaz eta euskaraz, hitz jokoa galtzeaz gain, isekak berak ere ez du zentzurik.

Bigarren adibidean, emakume batek besteari botatzen dion erretolika daukagu: iraintzera ezetz ausartu egiten dio erronka bata besteari eta beste horrek, orduan, bururatzen zaion guztia botatzen dio. *Sie können aus der Dachrinne Kaffee trinken* esatean, kafe gisa teilatutik jaisten den ur zikinak edan ditzakeela esaten dio; gertatzen zaiona edo egiten duena bost axola zaiola esan nahian. Gaztelaniazko itzultzaileak guztia izen-sintagma beraren parte balitz bezala itzuli du esaldia (*el café del tejado*), teilatutik kafea jaitsiko balitz bezala, eta, beraz, esanahi bera eman dio euskarazko itzultzaileak.

Hirugarren adibidean errepikatu egiten zaigu animalia-izenekin gertatutako fenomenoak, eta laugarren adibideko kasua 9.1.3.1 ataleko 11. taulako adibide multzoan azaldu dugu: gaztelaniazko itzulpeneko anbiguitasunetik abiatuta, euskarazkoak jatorrizkoak ematen ez dion esanahia ematen dio.

Hala, ikusi berri ditugun horiek zeharkako itzulpena egitetik sortzen den testu-interferentziaren adibide dira, euskarazkoa zubi-bertsiotik abiatzen baitira, eta, beraz, zubi-bertsioiko testuak eragindako interferentziak dira. Horiek zeharkako itzulpenetan sumatu ditugun interferentzia motak, baina gauza bera aztertu nahi izan dugu zuzenekoetan ere.

9.1.3.6 Zuzeneko itzulpenen interferentzia

Pentsamenduaren lehen kolpean ezinezkoa dirudi alemanetik ustez zuzenean itzultitako lanetan gaztelaniaren interferentziarik bilatu ahal izango dugunik. Gogoratu behar dugu, ordea, sorburu-bertsioa abiapuntu gisa edukita ere, euskal itzultzaileak lehendik gaztelaniara egindako itzulpena daukala kontsultatzeko. Eta, gehienetan, ez dio muzin egiten dagoeneko itzulpen-lana egina duen bertsioari begiratu bat emateari. Horretaz gain, ez genuke ahaztu behar euskara hizkuntza bera, eta, beraz, baita euskal itzultzailea ere, zein testuingurutan bizi diren; alegia, hizkuntza boteretsua gaztelania den testuinguruan, egoera diglosikoa, gizartean bertan ez ezik, itzultzailearen baitan bertan aurki daitekeela zenbaitetan: horrek eragin lezake lehendik ere aipatu dugun interferentzia diglosikoa. Gainera, esatera ausar gintezke gaztelaniaren interferentzia, euskal itzultzaileak buruan duen hori, beste edozein sorburu-hizkuntzaren interferentzia baino lehenagokoa dela denboran, eta, beharbada, errotuagoa ere badagoela.

Hala, ustez zuzenean itzuli den corpus zatiari ere (Touyren terminologiari jarraiki, *assumed direct translation* genuke) arreta

handiz erreparatu izan nahi diogu, gaztelaniaren interferentziarik ikusten dugun baloratzeko.

Gaztelaniaren interferentzia izan litekeena kasuen % 8an baino ez dugu sumatu (15 kasutan, guztira). Xede-testua sorburu-testuarekin parekatuta, guztiz bat ez zetozen itzulpenak, edo sorburutik nolabait aldentzen zirenak topatu ditugu, eta, kasu horietan, tartean zubi-bertsio bat egon izan zitekeela pentsatu dugu. Beharbada, kasu horietan kontsultarako baino gehiago erabili da gaztelaniazko bertsioa; helduleku gisa, akaso. Guztiz ziurtatu ezin dugun zerbait da.

Taula 37. Isekak eta madarikazioak. Interferentzia posibleak zuzeneko itzulpenetan (1).

Sorburu-testua	Xede-testua
1. »Sei nicht so blöd! « sagt Luise. (DDL)	—Ez zaitez horren gaiztoa izan! — Luisaren erantzuna. (DDL-eu)
2. Flegel! (DDL)	Ipurterre halakoa! (DDL-eu)
3. »Du glaubst doch selber nicht, daß jemand anderer so blöd wäre, mit deinem Kopf herumzulaufen! « (DDL)	—Baina zuk uste al duzu badagoela norbait hain inozorik hortik zehar zure aurpegiaren antzeko batez ibiltzen ausartzen denik? (DDL-eu)
4. Die sind mit mir umgegangen wie mit dem letzten Deppen . (FR)	Azkeneko mamua banintz bezala portatu zaizkit. (FR-eu)
5. Manchmal denke ich, die Gören werden absichtlich krank, nur damit ich nicht weggann. (EL)	Batzuetan pentsatu ere izan dut ipotxak berariaz jarri direla gaixo, ni ez ateratzeko. (EL-eu)
6. "Viellieber würde ich den Affen eine kleben" (EL)	—Gustura emango nioke nik bero bat tximu horri . (EL-eu)
7. Eine blöde Kuh eben. (EL)	Behi lelo bat . (EL-eu)
8. So eine Kuh wie diese Anita gibt es kein zweites Mal. (LOS)	Anita bezalako beste behi bat ez dut ikusi nik. (LOS-eu)
9. Seither zeigt mir die Kuh , sooft sie mich sieht, die Zunge. (LOS)	Harrez gero, ikusten nauen bakoitzean mihia ateratzen dit behiak . (LOS-eu)
10. Heute beim Frühstück hat mich die Kuh	Gaur goizean, gosaltzekoan, behiak

<i>ausgelacht, weil ich so rot bin.</i> (LOS)	barre egin dit, hain gorri nengoelako. (LOS-eu)
11. <i>So eine Kuh!</i> (LOS)	Hori behia! (LOS-eu)
12. <i>Und jetzt geht er mit der blödesten Kuh von ganz überall und lässt mich sitzen!</i> (LOS)	Eta orain inguruetako behirik tentelenarekin doa eta ni bertan behera uzten nau! (LOS-eu)

Aurreneko bi adibideetan, esaterako, itzulpenek ez dute jatorrizkoak dioena itzultzen: aurreneko adibidean, udaleku batzuetan dauden neska batek besteari esaten dio egiteko kosk iritsi berri den neskari, hasieran inork ez baitu gogoko. Erantzuna da *sei nicht so blöd* [ez zaitez hain txoraa/tuntuna izan] eta euskarazkoak *gaizto* erabili du. Testuinguruan oso ondo datorren hitza da, baina *blöd* hitzetik *gaizto* hitzera besterik gabe jauzi egin izana harrigarria egiten zaigu. Bigarren adibidean, piano-jole baten bizitza deskribatzen da, nola, familiaz ahaztuta, konposatzean baino ez duen pentsatzen. Familiako aita gisa duen jokaera ikusita, etxeko maiordomoak *Flegel!* [axolagabea] pentsatzen du berekiko. Adibide horretan ere, euskarazko ordaina ez da desegokia, baina *ipurterre* hitzak beste adiera bat du, eta baliteke jauzi hori zubi-hizkuntzaren testu-interferentzia posible batek eragin izana.

Hirugarren, laugarren eta bosgarren adibideek jatorrizkoan esaten dena jasotzen dute, baina, nolabait, egitura eta esapide horien atzean gaztelaniazko ordainen oihartzuna datorkigu: zure aurpegiaren antzeko batez ibiltzea - *andar con una cara como la tuya*; azkeneko mamua - *el último mono* eta *ser un fatasma* esapideen arteko nahasketa; ipotxak - *enanos*.

Seigarren adibidetik aurrerako adibideak bi liburutatik hartuak dira (EL-eu eta LOS-eu); Zabaletak itzuli ditu biak. Alemanez *Affe*

eta *Kuh* iseka gisa erabiltzen badira ere, ez da gauza bera gertatzen euskarazko *tximu* eta *behi* hitzekin, edo, gutxienez, ez esanahi berarekin: alemanez, txotxoloa den norbaiti esaten zaio *Affe*, eta, tuntuna edo adimen gutxikoa den emakumezkoari *Kuh / blöde Kuh*. Ez dute zerikusirik, beraz, tximino baten moduan portatzen den norbaiten jokabidearekin edo gizena den norbaiti esaten zaion isekarekin. *Viellieber würde ich den Affen eine kleben* esaldian, gainera, pluralean dago datiboa, eta euskal itzultzaileak singularrean eman du: *tximu horri*. Gaztelaniaz ere *mono* eta *vaca* hitzek ez dute alemanezko baliokideen esanahi eta erabilera bera, eta, beraz, baliteke hori izatea euskaraz ere *behi* erabiltzearen arrazoia. Gogoratu behar dugu, gainera, justu LOS-eu itzulpenaren kasuan, euskarazkoak alemanezkoak baino gutun bat gehiago zuela; eta gaztelaniazko bertsioak ere, hain zuzen ere, gutun bat gehiago du. Horrek adierazi liezaguke itzultzaileak gaztelaniazko bertsioa eduki duela oinarri edo alemana-gaztelania kontsulta-tresnak erabiltzearen ondorioz sortutako interferentzia instrumentala izan daitekeela⁶⁶.

Aurreko adibide horiek interferentziaren susmoa piztu digutenetako batzuk dira. Hainbeste adibide ez direnez, gaztelaniazko bertsioak kontsultatu ditugu, interferentzia

⁶⁶ SENEZI eskainitako elkarrizketa batean, Zabaletak zioen alemanetik zuzenean itzultzen zuela, baina era berean, gaztelaniazko hiztegiak kontsultatzen zituela ere erantzuten zuen galderetako batean: "Alemanetik eta itzultzen dugunok, lehendabizi alemanetik gaztelaniarako ikusi behar dugu, eta ondoren gaztelaniatik euskararako, eta ondoren euskaraz begiratu behar dugu ea konforme dagoen" (Biguri, K. eta Zabaleta, J., 1990: 34). Jakina Zabaletak alemanez badakiela eta zuzenean itzuli duela, baina horrek ez du esan nahi gaztelaniaren interferentziatik libre denik, are gutxiago liburu beraren gaztelaniazko bertsioa lehendik argitaratua izan bada.

egiaztatzen den ikusteko, ustez zuzenean itzuli direnak azkenean zeharka itzuli ote diren jakiteko. Hona hemen, beraz, 37. taula baina gaztelaniazko ordainekin:

Taula 38. Isekak eta madarikazioak. Interferentzia posibleak zuzeneko itzulpenetan (2).

Sorburu-testua	Gaztelaniazko bertsioa	Xede-testua
1. »Sei nicht so blöd! « sagt Luise. (DDL)	— ¡Vamos, no digas tonterías! (DDL-es)	— Ez zaitetz horren gaiztoa izan! — Luisaren erantzuna. (DDL-eu)
2. Flegel! (DDL)	¡Qué mal educado! (DDL-es)	Ipurterre halakoa! (DDL-eu)
3. »Du glaubst doch selber nicht, daß jemand anderer so blöd wäre, mit deinem Kopf herumzulaufen! « (DDL)	¿Crees que hay alguien tan tonto para andar por ahí con una cara como la tuya? (DDL-es)	— Baina zuk uste al duzu badagoela norbait hain inozorik hortik zehar zure aurpegiaren antzeko batez ibiltzen ausartzen denik? (DDL-eu)
4. <i>Die sind mit mir umgegangen wie mit dem letzten Deppen.</i> (FR)	Se han portado conmigo como si fuera el último mono (FR-es)	Azkeneko mamua banintz bezala portatu zaizkit. (FR-eu)
5. <i>Manchmal denke ich, die Gören werden absichtlich krank, nur damit ich nicht weggann.</i> (EL)	A veces pienso que las crías se ponen intencionadamente enfermas para que yo no pueda salir. (EL-es)	Batzuetan pentsatu ere izan dut ipotxak berariaz jarri direla gaixo, ni ez ateratzeko. (EL-eu)
6. "Viellieber würde ich den Affen eine kleben " (EL)	— Preferiría darle un tortazo a esos animales. (EL-es)	— Gustura emango nioke nik bero bat tximu horri. (EL-eu)
7. <i>Eine blöde Kuh eben.</i> (EL)	En definitiva, como una vaca estúpida. (EL-es)	Behi lelo bat. (EL-eu)
8. <i>So eine Kuh wie diese Anita gibt es kein zweites Mal.</i> (LOS)	Parece una vaca. (LOS-es)	Anita bezalako beste behi bat ez dut ikusi nik. (LOS-eu)
9. <i>Seither zeigt mir die Kuh, sooft sie mich sieht, die Zunge.</i> (LOS)	Desde entonces, la muy vaca , cada vez que me ve, me saca la lengua. (LOS-es)	Harrez gero, ikusten nauen bakoitzean mihia ateratzen dit behiak. (LOS-eu)

10. <i>Heute beim Frühstück hat mich die Kuh ausgelacht, weil ich so rot bin.</i> (LOS)	Esta mañana, durante el desayuno, Anita se ha burlado de mí porque estaba roja. (LOS-es)	Gaur goizean, gosaltzekoan, behiak barre egin dit, hain gorri nengoelako. (LOS-eu)
11. <i>So eine Kuh!</i> (LOS)	¡Menuda vaca! (LOS-es)	Hori behia! (LOS-eu)
12. <i>Und jetzt geht er mit der blödesten Kuh von ganz überall und lässt mich sitzen!</i> (LOS)	Y ahora se va con la vaca más tonta del mundo y me deja aquí sentada (LOS-es)	Eta orain inguruetako behirik tentelenarekin doa eta ni bertan behera uzten nau! (LOS-eu)

Gaztelaniazko bertsioak kontsultatu ostean, ez dugu erantzun argirik atera: liburu bereko kasu batzuetan ez zaio gaztelaniazko bertsioari jarraitu, baina beste kasu batzuetan bai.

Aurreneko bi adibideetan, esaterako, ez zaio gaztelaniazko bertsioari jarraitu, baina, hirugarren adibidean, berriz, bai. Are, jatorrizkoan harridurazko esaldi gisa ematen dena galdera bihurtzen da gaztelaniaz, eta gauza bera euskaraz. Hiru adibideek DDL liburuari egiten diote erreferentzia. Beraz, pentsa liteke itzulpen horretan aldi berean behin kontsultatu dela zubi-bertsioa: Dollerupek aipatzen zuen *support translation* delakoa, edo Marinek aipatzen zuen *traducción asistida*.

FR liburuko adibidean (laugarren adibidean) ez dugu uste gaztelaniaren testu-interferentzia egiaztatu daitekeenik, baina beharbada izan liteke interferentzia instrumentalaren edo diglosikoaren ondorio, hau da, gaztelaniadun kontsulta-tresnak erabiltzearen ondorio edo itzultzaileak berak buruan aktibatuta duen gaztelania hizkuntzaren ondorio.

Gainerako adibideek, EL eta LOS liburukoek, gaztelaniaz *vaca* hitza erabili dela erakusten badute ere, esaldien egiturek erakusten dute euskarazko itzultzaileak bere aldetik jokatu duela: *Viellieber würde ich den Affen eine kleben* esaldiko datibo plurala ongi itzuli du gaztelaniazko itzultzaileak, eta euskarazkoak singularrean itzuli duela ikusi dugu; *eine blöde Kuh eben* esaldiko *eben* partikula jasota ageri da gaztelaniazko bertsioan (*en definitiva*), eta ez euskarazkoan; azkenik, LOS liburuko *Kuh* iseka gaztelaniaz *vaca* itzuli bada ere, zazpigarren adibideari dagokion gaztelaniazko ordainak erakusten digu ezetz, euskarazkoak eduki izan duela jatorrizkoa eskura, jatorrizko esaldi-egiturari jarraitu baitio, eta gaztelaniazkoak libreago jokatu baitu. Horretaz gain, hamargarren adibidean, gaztelaniazko bertsioak pertsonaiaren izena erabili du, eta euskarazkoak, jatorrizko alemanezko bertsioak bezala, *behi* hitza.

Gogora dezagun, azken adibideetako liburuaren (LOS) azterketa makrotestualak erakusten zuenez, euskarazko bertsioak zubi-hizkuntzaren argitalpen-irizpideei jarraitu zuela (gutun bat gehitzeari dagokionez). Mikroazterketak erakutsi digunez, berriz, baliteke itzultzaileak hizkuntzaren ezagutza pragmatiko erabatekoa ez edukitzea eta, beraz, interferentzia instrumentalaren ondorioz (hiztegiek ematen duten informazio orokorrean oinarrituta) itzuli izana, hitzez hitz, *Kuh* hitza *behi*.

DDL liburuari dagokionean ere, zuzeneko eta zeharkako itzulpen baten arteko bat dugu: jatorrizkoa izango zuen eskura, baina ezin daiteke uka tarteka gaztelaniazko bertsioari jarraitu dionik.

9.1.4 *Ondorioak*

Isekak eta madarikazioak aztertu ditugun atal honetan, bi puntu nagusi aztertu ditugu: eufemizatzea eta, beraz, estandarizazioa zein mailatan gertatzen den eta zubi-hizkuntzaren interferentzia noraino iristen den.

Eufemizatzeari dagokionez, iseken eta madarikazioen tonuaren itzulpen-azterketak erakutsi digu asko eufemizatzen dela. Eufemizatzearekin batera tonua jaitsi, desagerrarazi edo ezabatutakoen portzentajeak %25etik gorakoak izan dira kasu guztietan. Hala ere, zuzenean eta zeharka egin diren itzulpenak alderatuta, beste ondorio bat atera ahal izan dugu: zeharka itzuli denean gehiago eufemizatu da. Salbuespen gisa madarikazioak ditugu, horietan nabarmena baita eufemizatze joera, zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenetan berdintsu.

Eufemizatzearen praktika, beraz, oso zabaldua dago, eta Zabaleta edo Mendigurenek egindako itzulpenetan ere hainbat adibide aurkitu ditugu. Alemanetik itzultzen eskarmentu handia duten itzultzaileak dira, baina horrek ez du esan nahi hain hedatua agertu zaigun joera honetatik salbu geratzen direnik. Gainera, isekak eta madarikazioak itzultzeko behar den sorburu-hizkuntzaren ezagutza pragmatikoan akaso gabezia batzuk badituztela ikusi dugu (*blöde Kuh* bezalako iseken erabilera pragmatikoa ondo islatzen ez asmatzean, esaterako).

Bestalde, eufemizatze kasuetan, eguneroko erabileratik urrun gelditzen diren hainbat hitzen erabilera nabarmentzen dela ikusi dugu (*gaiztagin* edo *aulkibero lausengari*, esaterako). Fenomeno hori zuzenki lotua dago euskarak bizi duen egoerarekin, eta, beraz,

baita gaztelaniaren interferentziarekin ere. Estandarizazio legea interferentziarenarekin lotuta ikusten dugu, beraz.

Eufemizatzean estandarizazioaren legea betetzen dela ikusi badugu ere, corpusean maizenik agertu zaizkigun iseka-erroen ordain kopurua aztertuta atera ahal izan ditugu ondorio zehatzagoak: estandarizazioa gertatzen da, baina zeharkako itzulpenetan zuzenekoetan baino gehiago. Hori ere zubi-hizkuntzaren erabileraren albo-ondorio bat da: zubi-hizkuntzaren interferentziaren albo-ondorioa, beraz. Beste behin ere, elkar lotuta ikusten ditugu zubi-hizkuntzaren interferentzia eta estandarizazioa.

Bestalde, zubi-hizkuntzaren interferentziari gertuagotik erreparatu diogunean, tonuaren eufemizatzean sumatu ditugun fenomeno batzuk agertu zaizkigu. Zeharkako itzulpenetan, zubi-hizkuntzaren hitz eta egiturak sumatu ditugu ezkutatuta (*zer asto zatia naizen*), baina, era berean, euskarazko eguneroko erabileran ohikoak ez diren eta gaztelania-euskara hiztegiaren erabilera sistematikoak azal litzakeen ordainak ikusi ditugu (*piztia higuinarrria*). Fenomeno horiek, esan bezala, interferentziak eraginda sortu dira, baina zuzenki lotuak daude estandarizazioarekin.

Dena dela, zuzeneko itzulpenetan ere interferentziaren zantzuak bilatu ote genituen geunden, eta, zenbait pasarte zalantzarri gaztelaniazko bertsioekin erkatu ondoren, badirudi ustez zuzenean itzuli diren testuek ere izan dutela gaztelaniazko bertsioa edo gaztelania hizkuntza bera helduleku gisa maila ezberdinetan. Itzulpen mota hori, beraz, kontuan hartzekoa da.

9.2. PARTIKULAK

Iseken eta madarikazioen itzulpena aztertzen hasi garenean funtzio ilokutiboa betetzen duten elementuen azterketan abiatu gara, eta moduzko partikulen itzulpena izango da hurrengo geldialdia ibilbide horretan.

Partikulen erabilera bereziki emankorra da guri dagokigun eremuan, HGLan. Izan ere, partikula alemanak eguneroko hizkuntzan erabiltzen dira batik bat, eta, bereziki, elkarrizketan. Halaxe dio Helbigek: “Je umgangssprachlicher ein Text ist, desto partikelreicher ist er in der Regel auch” (Helbig, 1988: 12).

Orain arte HGLari buruz ikusi dugun guztia ikusi eta gero, badakigu hizkera ez-formala, ahozkoatasunari dagozkion ezaugarriak eta elkarrizketak ugariak direla; are, generoari dagokion bereizgarritzat har ditzakegu. Aurreikus genezake, beraz, partikula asko izango ditugula gure corpuseko testu alemanetan.

Ahozkoatasunaren bereizgarri izateaz gain, moduzko partikulek itzultzeko duten zailtasuna aipatu nahi genuke. Isekekin eta madarikazioekin gertatzen zitzaigun modu berean, eskarmentuan oinarrituta esan genezake alemaneko moduzko partikulek ataka estuan jartzen dutela itzultzailea, eta hori bera ere bada berorien itzulpena aztertu nahi izateko arrazoia. Euskaraz, beste xede-hizkuntza askorekin gertatzen den modu berean, ez dago zenbait partikula alemanen baliokide zuzenik: “dieser Umstand führt zu Schwierigkeiten bei der Übersetzung der deutschen Partikeln, weil diese zumeist keine direkten Äquivalente in anderen Sprachen haben” (Helbig, 1988: 12).

Partikulak itzultzeko aukerei heldu aurretik, baina, ikergaia zehaztuko dugu aurrenik: zer dira partikula alemanak? Zeintzuk dira eta zein funtzio betetzen dute? Ondoren moduzko partikulen itzulpenaren inguruan lehendik egin diren lanei erreparatuko diegu, eta guk gure lanean ateratako emaitzak eta ondorioak aurkeztuko ditugu azkenik.

9.2.1 *Alemanezko partikulak*

Partikula kopuruari dagokionean, aberatsa da hizkuntza alemana, batez ere beste hizkuntzekin alderatzen badugu (Helbig, 1988: 11). Alemanezko partikulen definizio gisa, Helbigek 1988an ontzat emandakoa aukeratu dugu guk hemen: jokutzen ez diren hitzak dira, beren horretan hitz-kategoria bat osatzen dutenak, eta ez direnak ez adberbio, ez hitz modal, ez preposizio, ezta juntagailu ere.

[...] werden unter Partikeln nach syntaktischen Kriterien nur solche unflektierbaren Wörter verstanden, die eine eigene Wortklasse darstellen und sich von den Adverbien und Modalwörtern, erst recht von den Präpositionen und Konjunktionen unterscheiden (Helbig, 1988: 20).

Aipatu behar da, hala ere, partikula alemanen definizioaren inguruan egon dela eztabaida linguistiko sakonagorik. Izan ere, badira ikuspegi zabalagoen aldekoak ere, partikulak inongo aldaketa morfologikorik jasaten ez duten hitz guztiak direla diotenak; hau da, juntagailuak, preposizioak, adberbioak eta hitz modalak ere partikulatzat hartzen dituzten ikuspegiak. IDS – *Institut der Deutscher Sprache*, hizkuntza alemana ikertzeko Mannheimen dagoen institutuak bere web gunean eskuragarri

duen dokumentazioan aipatzen denez, hiru ikuspegi edo aldaera bereizten dira partikulak sailkatzerakoan⁶⁷:

- Jokatzen ez diren elementu guztiak kontuan hartzen dituen sailkapena. Hau da, preposizioak, juntagailuak eta adberbioak ere partikula gisa hartzen dituen sailkapena.
- Ikuspegi estuago batek sailkapenetik kanpo uzten ditu preposizioak, juntagailuak eta adberbioak, ezaugarri sintaktikoak direla eta.
- Ikuspegi estuenak gradu-partikulak eta moduzko partikulak baino ez ditu hartzen benetako partikulatzat.

IDS institutukoek bigarren ikuspegiari jarraitzen diote. Ikuspegi hori da, gainera, partikula alemanak sailkatzeko garaian zabalduen dagoena⁶⁸.

Partikula alemanak zer diren argitze aldera, beraz, hona hemen haien ezaugarriak (Helbig, 1988: 21-24):

1) Partikulak ezin daitezke izan *Satzglieder* (aditza ez diren esaldiko bestelako elementu aldagarriak). Izatekotan, esaldiko elementu horietako baten laguntzaile edo parte izaten dira.

Ezaugarri honek adberbioetatik, baita bestelako hitz modaletatik ere bereizten ditu partikula alemanak.

⁶⁷http://hypermedia.ids-mannheim.de/call/public/sysgram.ansicht?v_typ=d&v_id=279

⁶⁸ Helbigek defendatutakoa da, eta Prüfer ere horren alde agertzen da: "La definición actualmente más aceptada y más divulgada, a la cual nos queremos adherir, es la defendida por Helbig/Busha [...], es decir, la postura que excluye de la clase de las partículas tanto los adverbios como las preposiciones y conjunciones, y subdivide dicha clase en partículas específicas, según las funciones de las mismas" (Prüfer, 1995: 19).

2) *Satzglieder* buruaskiak ez direnez, ezin daitezke esaldiaren aurreneko lekuan jarri, aditzaren aurretik (alemanez bigarren lekuan joan behar du aditzak)

Adibidez:

*Er hat die Prüfung **ja** gut bestanden.* (partikula)

****Ja** hat ere die Prüfung gut bestanden.*

*Er hat die Prüfung **sicher** gut bestanden.* (hitz modala)

***Sicher** hat er die Prüfung gut bestanden.*

3) Partikulek ez dute galderarik egiten uzten, ez baitute, bere horretan, erantzun gisa, inolako zentzurik:

Adibidez:

Wie gut hat er die Prüfung bestanden?

**Ja.*

4) Partikulek ez dute esaldiaren egiazkotasuna zalantzan jartzen, bestelakoa baita betetzen duten funtzioa (pragmatikoagoa), partikula motaren arabera aldatzen dena: "Was die Partikeln jeweils dem Satz ohne Artikel hinzufügen, sind Informationen anderer Art, die sich von Subklasse zu Subklasse der Partikeln unterscheiden" (Helbig, 1988: 24)

Adibidez:

*Er hat **eben** das Spiel verloren.*

Aurreko adibidean [partida galdu du, zer egingo diogu ba], *eben* partikulak etsipenaren ñabardura gehitzen dio esaldiari. Hala, partikula kenduta ere, esaldia ez litzateke agramatikal bihurtuko,

eta, esanahia bera ere (hark partida galdu izana) bere horretan mantenduko litzateke. Beraz, partikularekin ala gabe, desberdintasuna pragmatikoa da: esandako hori hizlariak berak nola ulertzen duen adierazten dute partikulek; hizlariaren jarrera zein den adierazten dute.

Helbigek esaten digunez, 1etik 3 arteko ezaugarriak sintaktikoak dira, batez ere, eta 4-6 bitartekoak semantikoak. Ezaugarri horiek guztiak betetzen dituzten partikula guztien sailkapena egiten du ondoren Helbigek, esaldian betetzen duten funtzioaren arabera:

- *Abtönungspartikeln* edo moduzko partikulak: *aber, auch, bloß, denn, noch* etab.
- Gradu-partikulak: *auch, ausgerechnet, eben* etab.
- Areagotzaileak: *etwas, ganz, höchst* etab.
- Erantzun-partikulak: *ja, nein, doch, eben, genau*.
- Ezezko partikulak: *kein, nicht*.
- Infinitiborako partikula: *zu*.

Guk gure lanean *Abtönungspartikeln* delakoei erreparatuko diegu, moduzko partikulei.

Batetik, ez lukeelako inolako zentzurik gure corpusean partikula aleman posible guztiak aztertzeak. Gure lanaren helburua ez baita hizkuntza alemanean hainbeste sakontzea, are gutxiago partikulei zuzenduta dagoen lan bat egitea. Gure lanaren xedea HGLaren adierazgarri izan daitezkeen zenbait ezaugarri euskarara nola itzuli diren aztertzea da. Horregatik, eta HGLko diskurtsoak berezkoak dituen ezaugarriak kontuan hartuta (elkarrizketa ugari, informaltasuna etab.) moduzkoak dira HGLan gehien aurkitzea espero ditugun partikulak. Beroiek osatzen dute

partikula-talderik handiena, eta, elkarrizketatan ere, gehien erabiltzen direnak dira. Prüferrek ere moduzko partikulen itzulpenean oinarritzen du bere azterketa: “Se las encuentra sobre todo en textos que reflejan el registro coloquial, es decir, un registro que establece una cierta cercanía entre los interlocutores cuya expresión formal es normalmente un diálogo” (Prüfer, 1995: 16).

Hain zuzen ere, HGLan elkarrizketak eta, oro har, ahozko erregistroa hain ohikoak eta arruntak izanik, interesgarria iruditzen zaigu partikulak, eta, zehazki, moduzko partikulak itzultzeko erabili diren estrategiei erreparatzea.

9.2.2 *Moduzko Partikulak*

Moduzko partikulen bereizgarrietan sartu baino lehen, hasiera-hasieratik egin beharreko banaketa batera bideratu behar dugu arreta. Izan ere, partikula gisa erabiltzen diren lexema gehienak bestelako hitz mota gisa ere erabiltzen dira. Hau da, moduzko partikula ia guztiek bestelako hitz kategoria gisa funtzionatzen duten homonimoak dituzte. Hori, jakina, traba bat da gure corpusean bilaketak modu automatikoa egiteko, moduzko partikulez gain, bestelako hitz kategoriak diren homonimoak ere bilatuko ditugulako. Hala ere, aurrerago azalduko dugu moduzko partikulen bilaketa nola egin dugun. Oraingoz, moduzko partikulek beste kategoriatakoak diren homonimoak dituztela ohartarazi nahi genuke.

Helbigek *partikula logiko* deitzen die moduzko partikulen homonimoei, eta bien artean deberdindu beharraz hitz egiten du:

Das führte zu einer Differenz zwischen solchen Partikeln, bei denen die semantische Funktion dominant ist (wie bei den

“logischen” Partikeln), und solchen, bei denen die kommunikative Funktion dominant ist (wie bei den “modalen” Partikeln) (Helbig, 1988: 27-28).

Partikula logikoek, beraz, funtzio semantikoa betetzen dute, eta moduzko partikulek, berriz, ez.

Adibidez:

*Wo habe ich **nur** die ganze Zeit meine Augen gehabt?* (moduzko partikula)

*Er hat **nur** ein gesundes Auge.* (partikula logikoa)

Moduzko partikulek predikatuari egiten diote erreferentzia, eta, beraz, perpaus osoari. Partikula logikoek, aldiz, esaldiko elementu bakarrari. Bestalde, moduzko partikulen funtzioa pragmatikoa da, eta logikoena semantikoa.

Moduzko partikulek homonimoak dituztela eta horiek bereizteko arretaz ibili behar dela argi utzi ondoren, moduzko partikulen ezaugarriak zein diren azalduko dugu, bereizketa argiago izan dadin⁶⁹. Ezaugarri gehienak ikusi ditugu, oro har partikula guztien ezaugarriak zein diren ikusi dugunean.

1) Moduzko partikulak, gainerako partikulen moduan, ez dira jokutzen.

2) Moduzko partikulek ez dute, beren horretan, perpausik osatzen. Hala ere, elkarren artean konbinagarriak dira; ez edonola, hala ere, hurrenkera jakin bati jarraiki baizik. Helbigek honako azpitalde hauek bereizten ditu kokalekuaren arabera:

⁶⁹IDS- Institut Deutscher Sprache web gunetik aterea: http://hypermedia.ids-mannheim.de/call/public/sysgram.ansicht?v_typ=d&v_id=392

a) *denn, doch* (indargabea), *eigentlich, etwa, ja*.

b) *aber, eben, halt, vielleicht, wohl*.

c) *doch* (indartua), *schon*.

d) *auch, mal*.

e) *bloß, nur*.

f) *noch*.

Hurrenkera hau izan ohi dela esaten digu Helbigek (Helbig, 1988: 75): a – b – c – d – e – f:

Wird er *denn auch noch* unpünktlich kommen?

Das war *denn eben doch auch nur* ein kleiner Erfolg.

Prüferren azterketa harago doa, eta esaten du funtzio komunikatibo berak dituzten partikulak baino ez direla konbinatzen (Prüfer, 1995: 225). Moduzko partikulak elkarrekin konbinatutakoan, gainera, areagotu egiten da harridurazko funtzioa: "Aparentemente, la combinación da más énfasis al enunciado, por lo cual la incidencia en el tipo funcional interrogativo se traslada al tipo exclamativo" (Prüfer, 1995: 225-226).

3) Ez dute galderarik egiten uzten.

4) Erdiko hitz-taldean (*Mittelfeld* delakoan) agertzen dira, galdegaiaren arabera hitz baten ala bestearen ondoan:

Vor lauter Wut hat ja Lea gestern in ihrem Zimmer das gerade gemalte Bild in zwei Stücke gerissen.

*Vor lauter Wut hat Lea **ja** gestern in ihrem Zimmer das gerade gemalte Bild in zwei Stücke gerissen.*

*Vor lauter Wut hat Lea gestern in ihrem Zimmer **ja** das gerade gemalte Bild in zwei Stücke gerissen.*

*Vor lauter Wut hat Lea gestern in ihrem Zimmerdas gerade gemalte Bild **ja** in zwei Stücke gerissen.*

5) Moduzko partikula gehienak atonoak dira, indartu gabeak. *Ja, doch* eta *bloß* partikulak indartu egin daitezke, baina orduan bestelako funtzioa eta kokapena dituzte perpausean.

6) Moduzko partikulek betetzen duten funtzioa komunikatibo-pragmatikoa da, eta solaskideen arteko harremana zehazten dute. Helbigek honako funtzio hauek deskribatzen ditu (Helbig, 1988: 56-63):

- Esandakoarekiko hizlariak duen ikuspegia eta iritzia adierazten dute.
- Hizketa-ekintza gertatutako egoera definitzen edo zehazten dute.
- Moduzko partikulak ilokuzio-adierazleak dira.
- Esaldi baten bitartez, funtzio lokutiboa betetzeaz gain (esanahi jakin bat duen esaldi sintaktiko-semantiko zuzen bat adieraztea), funtzio ilokutiboa betetzen dute (helburu komunikatibo jakin bat: zerbait galdetzea, zerbaiten inguruan ohartaraztea, zerbait aldarrikatzea etab.).
- Beraz, moduzko partikulek esaldiaren alderdi ilokutiboa bistarazten dute:

*Du kannst **mal** das Fenster schließen.* (eskakizun ez oso irmoa)

*Du kannst **doch** das Fenster schließen.* (baimen-eskaera bati baietz erantzuteko modu bat).

- Elkarrizketak gidatzen dituzte: erantzun bat eragin nahi bada, edo elkarrizketa amaitu nahi bada.
- Funtzio elkarreragilea: solaskideak erantzutea eragin dezakete, esate baterako.
- Lotura-funtzioa: aurretik esandakoa hurrena esandakoarekin lotzen dute. Kohesio funtzioa dei genezakeen.

7) Azken ezaugarriarekin lotuta (moduzko partikulek betetzen duten funtzioarekin lotuta), partikula bakoitza perpaus motaren arabera agertu ohi dela gaineratu nahi genuke. Alegia, perpausaren helburu komunikatiboa zein den, moduzko partikula jakin batzuk agertzeko aukera egon ohi da, hala nola:

- Adierazpen-perpausak: ja >> denn >> eben >> halt >> doch >> eben >> halt >> wohl >> einfach >> auch >> schon >> auch >> mal
- Galdera-perpausak: denn >> nicht >> wohl >> etwa >> schon >> auch >> schon >> nur >> bloß
- Aginterazko perpausak: doch >> halt >> eben >> einfach >> schon >> auch >> nur >> bloß >> ruhig >> mal >> ja

9.2.3 *Aurrekariak*

Alemanez partikulak hain ugariak eta erabiliak badira ere, 1970eko hamarkadara arte ez ziren aintzakotzat hartu aztergai gisa; hain zuzen ere, garai hartan gertatu zen hizkuntzalaritzan aldaketa komunikatibo-pragmatikoa (*kommunikativ-pragmatische Wende*). Orduan ugaritu ziren gaiaren inguruko lanak; hala, gaur egun, ugariak dira partikulei buruzko lan akademikoak hizkuntzalaritzaren adarrean.

Itzulpengintzaren ikuspegitik ere egin dira lan batzuk, hala nola alemanetik hainbat hizkuntzetara egindako itzulpenak aztertuta. Izan ere, alemanetik aritzen diren itzultzaileek betidanik

izan duten zalantza da hau: partikulak nola itzuli. Horrek ez du esan nahi, hala ere, partikulak itzulezinak direnik. Izan ere, partikula bakoitzak funtzio komunikatibo jakin bat betetzen badu, xede-hizkuntzan funtzio bera betetzen duen adierazpideren bat egon daitekeela pentsa genezake. Richard Waltereit-ek hizkuntza erromanikoez dituzten moduzko partikulen baliokideak aztertzen ditu bere lanean (*Zur Pragmatik und historischen Semantik von Modalpartikeln und ihren funktionalen Äquivalenten in romanischen Sprachen*, 2006). Waltereiten ustez, hizkuntza erromanikoez bederen badituzte zenbait baliabide, eta baliabide horiek alemanezko moduzko partikulek betetzen duten funtzio bera betetzen dute (Waltereit, 2006: 14). Tonua, beraz, ez da soilik partikulen bidez adierazi ahal, dio Waltereitek, eta bere lanean *Abtönungsformen* termino orokorragoa hobesten du *Abtönungspartikeln* terminoaren ondoan: “Abtönungsformen sind alle sprachlichen Formen, die regelmäßig eine abtönende Wirkung haben können” (Waltereit, 2006: 14).

Hizkuntza erromanikoez landa, Waltereit-ek Bublitz-ek 1978an egindako ikerketa aipatzen du, ingelesez moduzko partikula gisa funtziona dezakeen *question-tag* delako galdera-hitzak aipatuz. Honako esaldi honetan, *right* galdera-hitzak alemanezko *ja* edo *doch* moduzko partikulen funtzio bera betetzen du: “The Pope’s catholic, *right*? So why should he be celebrating Passover?” (Waltereit, 2006: 13).

Hizkuntza erromanikoak oro har hartuta Waltereit-ek egindako lan horretaz gain, partikula alemanen gaztelaniazko itzulpena sakon samar aztertzeaz arduratu diren lau egile, eta, beraz, lau lan nagusi dauzkagu. Batetik, Christiane Beerbomek

1992an egindakoa (*Modalpartikeln als Übersetzungsproblem. Eine krontastive Studie zum Sprachenpaar Deutsch-Spanisch*). Lan horretan 5 partikulen balizko baliokideen inguruko hausnarketa egiten du Beerbomek: *ja, doch, schon, eben* eta *halt* partikulena. Bestalde, alemanetik gaztelaniara ez ezik, alemanetik ingelesera ere egindako itzulpenetan oinarritutako lana da Irene Prüferrena 1995ean (*La traducción de las partículas modales del alemán al español y al inglés*). Lan horretan 20 moduzko partikulen gaztelaniazko nahiz ingelesezko baliokideak aztertzen ditu Prüferrek. Lan horretan, moduzko partikulen itzulpena posible dela ondorioztatu zuen Prüferrek: “hemos llegado a la conclusión de que la hipótesis de la posibilidad de traducción de las PPMM del alemán tanto al español como al inglés ha sido confirmada” (Prüfer, 1995: 237). José Cárdenesek *aber, denn, doch* eta *eben* partikulen itzulpena aztertu zuen 1997an (*Aber, denn, doch, eben und ihre spanischen Entsprechungen*). Azkenik, 1999an Ferrer Morak galderetan erabiltzen diren moduzko partikulak gaztelaniaz zein forma baliokide hartzen duten aztertu zuen (*Las partículas modales alemanas en el modo interrogativo y sus equivalencias en español como criterio para una taxonomía de preguntas*). Lan horien ikuspegia da, ordea, alemanezko moduzko partikulei gaztelaniazko baliokideak bilatu behar zaizkiela, eta, beraz, hizkuntzalaritza kontrastiboari lotutako ikuspegi nahiko arauemailea da.

Alemana-gaztelania konbinazioan lau lan horiek aurkitu ditugu, baina, jakina, hainbat eta hainbat dago beste hizkuntza konbinaziotan. Bada, esate baterako, Diane E. Kellerrek 1994an egindako lan bat (*Die Abtönungspartikeln im System der deutschen Sprache und ihre französischen Entsprechungen. Unter besonderer*

Berücksichtigung der Partikel ja). Keller alemana-frantsesa konbinazioan oinarritzen da bere lana egiteko, baina, zehazki, *ja* partikulak frantsesez izan ditzakeen baliokideei erreparatu die, aleman hizkuntzan maizenik agertzen den partikula delako (Keller, 1994: 13). Sergül Vuralek partikula alemanen eta turkiarren arteko erkaketa bat egin zuen 2000. urtean (*Der Partikelgebrauch im heutigen Deutsch und im heutigen Türkisch. Eine kontrastive Untersuchung*); lan horretan, 12 literatur lan hartu zituen guztira Vuralek: alemanez idatzitako hiru lan eta beren itzulpenak turkieraz, eta, alderantziz, turkieraz idatzitako beste 3 lan eta beren itzulpenak alemanez. Esan bezala, moduzko partikula guztien erabilera eta itzulgarritasuna aztertzen du lan horretan Vuralek. Edit Kristóf-ek alemana-hungariera hizkuntza konbinaketari erreparatu zion 2004an aurkeztutako doktorego-lanean (*Abtönungspartikeln in Wörterbüchern. Präsentiert anhand der Lemmazeichen aber, ja und schon*); Kristófek *aber, ja* eta *schon* partikulek hizkuntza bien arteko hiztegietan duten trataera aztertzen du.

Esan bezala, hainbat eta hainbat hizkuntza-konbinaziorekin lotutako lanak egin dira alemanezko moduzko partikulen baliokideen inguruan. Euskara kontuan hartuta egindako lan akademikorik, berriz, ez da artean egin.

Salbuespen gisa, Christiane Bendelek euskara ikasteko alemanentzat prestatutako ikas liburua daukagu, bertan zerbait aipatzen baita gaiaren inguruan, gehiegi sakondu gabe (Bendel, 2006). Liburu horretan euskal gramatika azaltzen zaie aleman hiztunei, eta, azalpen guztien artean, bada halako saiakera bat, euskarazko moduzko partikulak alemanezkoekin parekatzekoa. Beraz, alemanezko partikulen euskal baliokide batzuk egon

litezkeela iradokitzen du. Euskarazko lau moduzko partikula hauek aurkezten ditu, ondoan alemanezko baliokidea dutelarik (Bendel, 2006: 98-99):

al: *denn, etwa.*

Hau Koldo al da? / *Ist dies etwa Koldo?*

bide: *anscheinend, wahrscheinlich, ziemlich sicher.*

Gure alaba etorri bide da. / *Anscheinend ist unsere Tochter gekommen.*

omen, ei: *angeblich, anscheinend, es heißt, es sieht so aus, man sagt.*

Kotxe berria erosi omen duzu / *Es heißt, du hast ein neues Auto gekauft.*

ote: *wohl.*

Egia ote da? / *Ob das wohl wahr ist?, Ob das wahr sein wird?*

Bestalde, lehendik ere aipatu izan dugun Martinezen alemana-euskara-alemana hiztegia daukagu, baina ez dirudi baliokide gehiegirik ematen digunik:

Eben1 *Adj* lau, zelai.

Eben2 *Adv* (eben erst) oraintxe (bertan) / *Partik* hain zuzen (ere) (Martinez, 2006: 65).

Ja *Partik* bai *ja sagen* baietz esan. (Martinez, 2006: 146).

Egoera honen aurrean, beraz, bistan da euskaraz tresneria eta erreferentziak falta ditugula alemanezko partikulen itzulpenari ekiteko. Euskal itzultzailea, beraz, nabarmen dago baldintzatuta. Guk hemen egingo duguna ez da, jakina, alemanezko moduzko

partikula guztien azterketa sakona. HGL alemanaren euskararako itzulpena deskribatu dugu, eta hainbat fenomeno zehatz aztertzen saiatu gara, betiere ahozketasunarekin lotuta daudenak. Moduzko partikulei dagokienean, ikusi dugu elkarrizketetan agertzen direla batik bat eta arazotsuak izan ohi direla itzultzaileentzat.

Moduzko partikula guztiak aztertu nahi ez ditugunez, horietako batzuk aukeratuko ditugu. Partikulak aztertu dituzten lanei erreparatuta, ez dugu, egia esan, azterketa-irizpideei dagokienean, adostasun argirik topatu. Bakoitzak bere lanaren helburuaren arabera aukeratu du zein partiula aztertu ala guztiak aztertu eta nola aztertu. Kellerrek bere lanean dioen moduan, partikulei buruzko ikerketen ugaritasunak agerian uzten du, halaber, baliatutako metodologiaren aniztasuna:

Und schließlich spiegelt die Fülle des Materials über die Partikeln auch die Uneinheitlichkeit und oft auch Unvereinbarkeit der angewandten Untersuchungsmethoden und ihnen zugrundeliegenden Erkenntnisinteressen wieder (Keller, 1994: 11).

Hurrengo atalean azalduko dugu laburki nola jokatu dugun partikula batzuk aukeratu eta horiek aztertzeko.

9.2.4 *Metodologia*

Lehenik eta behin, moduzko partikulen agerpen-maiztasuna zenbatu nahi izan dugu gure corpusean. Ez da, ordea, dirudien bezain lan erraza. *WordSmith* programa erabili eta corpuseko hitzen zerrenda nahiz hitz bakoitzaren maiztasuna aterata, moduzko partikulen kasuan, haien homonimoak ere nahastu zaizkigu datuetan. Hala, *aber* 3.351 aldiz erabili dela atera dugu, baina

horrek ez du esan nahi *aber* guztiak moduzko partikula direnik (asko eta asko juntagailu izango baitira). Gure lehen kezka, beraz, partikulen kontaketa automatikoa egitean moduzko partikulen eta beren homonimoen bereizketa egin ahal izatea izan da.

Badakigunez moduzko partikulak ez direla sekula esaldiaren aurreneko kokalekuan agertzen, testuak *garbitu* ditugu: partikula bakoitzarentzat testu guztiak moldatu ditugu, puntu edo koma osteko eta gidoi edo kakotx osteko partikulak ezabatuz, baita letra larriz hasten ziren partikulak ezabatuz ere. Ondoren, berriro egin dugu zenbaketa. Ondorengo koadroan jarri ditugu emaitzak: emaitza gordinak eta aurren-aurreneko posizioan agertzen diren partikulak kendu ondoren ateratako emaitzak. Alde handiena *aber* partikularekin izan dugu, moduzko partikula ez denean, juntagailua baita normalean, eta aurren-aurreneko posizioan etorri ohi da. Gainerako datu guztiekin, berriz, ez dugu halako bereizketa handirik egiterik lortu, eta, jakin badakigu, zenbaki altu horien guztien artetik asko ez direla partikulak izango, adberbioak baizik, esate baterako.


Moduzko partikulak	Guztira	Aurreneko posizioko garbiketa eta gero	Zenbat testutan agertzen diren
Aber	3351	976	29
Noch	2513	2327	32
Auch	2375	2076	30
Doch	1893	1426	30
Nur	1723	1383	32
Schon	1582	1388	32
Ja	1568	1492	30
Denn	978	635	30
Einmal	826	739	30
Mal	671	518	27
Vielleicht	522	236	30
Einfach	346	325	27
Wohl	322	313	27
Überhaupt	260	246	25
Bloß	248	242	23
Eben	239	222	24
Eigentlich	213	154	26
Halt	102	62	18
Ruhig	102	97	21
Etwa	78	62	21

Irudia 52. Moduzko partikulen agerpena gure corpusean.

Corpusa HGL-lanez osatuta dagoenez, normalean baino moduzko partikula gehiago edukiko dugula aurreikusitako behar dugu. Moduzko partikulak lagunarteko hizkeran eta elkarrizketatan erabiltzen dira batik bat, hau da, batik bat HGL generoan (Prüfer, 1995: 61). Prüferrek lau testuz osatutako corpusa du aztergai, eta, corpus horretan egindako azterketaren arabera, Michael Enderen *Der höllen ... Wunschpunsch* da moduzko partikula gehien biltzen dituen testua: HGLko testua, hain zuzen ere. Lan horretan, maizenik agertzen diren moduzko partikulak *doch* (110 agerpen) eta *ja* (89 agerpen) dira (Prüfer, 1995: 231). Horretaz gain, Prüferrek dioenez, corpuseko lau testuak kontuan hartuta, *doch*, *denn* eta *ja* dira gehien agertzen diren partikulak, hain justu, M. Thurmairrek 1989an egindako ahozko erregistroaren corpusean maizenik aurkitutako partikulak (Prüfer, 1995: 236). Vuralek alemana-turkiera hizkuntza-konbinazioarekin egindako lanean

dioenez, *denn* (141 agerpen) eta *ja* (127 agerpen) partikulak dira erabilienak.

Badirudi, beraz, *doch*, *denn* eta *ja* maiztasun handiko partikulak direla elkarrizketak nagusi diren literatur lanetan. Horietako bat aukeratu nahi genuke guk ere, eta *ja* aukeratuko dugu, hiruen artean gehien agertzen dena delako (1.492 agerpen; konparatu kopuru hori *doch* partikularekin, 1.426, eta *denn* partikularekin, 635). Ez da corpuseko testu guztietan agertzen, 30 testutan baizik, baina testu horietan ageri duen hedadura adierazgarria da. Ikus hemen behean *ja* partikularen agerpen kopurua corpuseko testuetan:



Irudia 53. *Ja* partikularen agerpen kopurua corpuseko testuetan.



Ikerlanaren helburuak eta denborari nahiz luze-laburrari dagozkion mugak kontuan hartuta, ez dugu uste zentzurik duenik *ja* partikularen agerpen guztiak banan-banan aztertzen hasteak. Kontuan izan behar dugu 1.492 agerpen horiek guztiak ez direla moduzko partikularenak izango, baina, hala eta guztiz ere, zenbaki altuegia da bere horretan partikulen itzulpenean oinarritzen ez den lan batentzat. Beraz, *ja* partikula agertzen den testu bakoitzetik aurreneko 10 agerpenak hartuko ditugu, eta horiei erreparatuko diegu nola itzuli diren aztertzeko. Aurreneko 10 agerpenak hartzea erabaki dugu testuren batean (STP testuan, esate baterako), 2 agerpen baino ez dagoelako (ikusirik aurreko irudian), eta, beraz, aztertuko dugun datu kopurua gehiegi ez murriztearren.

Kontuan izan behar dugu, hala ere, *na ja*, *ach ja* edo baiezkoa adierazten duen *ja* hitzek ez dutela moduzko partikulen funtziorik betetzen, eta STP testuarekin gertatu zaigu ez dugula *ja* moduzko partikularik aurkitu. Beste zenbait testutan, *ja* moduzko partikularen maiztasuna oso handia izan da, baina, hala ere, aurreneko 10ak hartu ditugu. Horrela, corpuseko 33 testuetatik 29tan egin ahal izan dugu erauzketa, eta, guztira, 264 kasu atera ditugu. Ondorioz, atera ditugun datu eta emaitzak aski adierazgarriak izango direlakoan gaude.

Ja aztertzeko maiztasunaren irizpidean oinarritu gara, berau izan baita maizenik agertu zaigun moduzko partikuletako bat (eta ikusi dugu, oro har, hala izaten dela bestelako corpusetan ere). Dena den, ez genuke soilik partikula bakar baten itzulpena aztertu nahi; hala, lanaren emaitzak osatuagoak izan daitezten eta ondorioek ere funts gehiagokoak izan daitezten, bigarren partikula bat hautatuko dugu. Beste partikula aukeratzeko, ordea, bestelako

irizpide batean oinarritu nahi genuke. Izan ere, maiztasun handiko partikula bat aztertzeari ekiterakoan, lagin bat hartu behar izan dugu (testu guztietako aurreneko 10ak); ez ditugu agerpen guztiak aztertu, alegia. Horregatik, aztertzeo aukeratu nahi dugun bigarren partikularen kasuan, agerpen guztiak aztertzeo aukera emango zigun kopuruaren arabera erabaki nahi izan dugu.

Eben / halt moduzko partikulak aukeratu ditugu. Baliokideak diren partikulak dira; aurrenekoa gehiago erabiltzen da Alemaniaren iparraldean eta, bigarrena, gehiago hegoaldean. Alde horretatik, biak batera aztertu ahal ditzakegunez, moduzko partikula birekin egingo dugu lan aldi berean. Gure corpusean duten agerpen kopurua, gainera, ez da *ja*-rekin genuenaren bera: *eben* 222 agertu zaigu eta, *halt*, 62 aldiz. Horrek ez du esan nahi, jakina, guztiak moduzko partikula direnik, baina begi hutsez egingo dugu hautaketa-lana, eta moduzko partikula direnak baino ez ditugu hautatuko gure azterketarako.



Irudia 54. Eben/halt partikulen agerpen kopurua corpuseko testuetan.

Jaren kasuan nahiz eben/halten kasuan, Excel taula batean bildu ditugu bilatzaitetik jasotako testu-segmentuak: jatorrizkoak eta

itzulpenak (pluralean diot itzulpenak, zubi-bertsioak ere hartzen baititugu kontuan). Testu zatiei erreparatuta, kasu bakoitzean baliatu den estrategia identifikatu dugu. Estrategiak geroago identifikatuko baditugu ere, azpimarratu nahi genuke guztiak hartu ditugula kontuan: hau da, moduzko partikularen itzulpena ez jasotzea bera ere estrategiatzat hartu dugu. Aipatu ditugun ikerlanek partikulak nola itzultzen diren aztertzen dute, baina partikula jaso gabe uztea ez dute itzulpen modutzat hartzen, ikuspegi arauemailea darabiltelako, hain zuzen ere. Gure ustez, ordea, ez zaio errealitate jakin bati (itzuli gabe uztearen errealitateari) modu horretan muzin egin behar, eta, beraz, maila berean begiratuko diegu partikularen itzulpena jasotzeari nahiz ez jasotzeari. Partikularen itzulpena jasotzeko erabiltzen diren estrategiak identifikatzeko, berriz, agertzen zaigunaren arabera jokatu dugu. Gainerako ikertzaileek ere hala egin dute: partikula nola jasotzen den behatu eta, aukera ezberdinak kontuan hartuz, estrategien sailkapen bat osatu. Hala, Prüferrek hiru talde banatzen ditu: a) xede hizkuntzan dauden partikulak erabiltzea (*ja* partikularentzat, adibidez, *pero* adbertsatiboa, ebidentzia adierazteko *y*, larritasuna adierazteko *ya* eta *si* areagotzailea aipatzen ditu), b) esapaideak erabiltzea eta c) bestelako bideak (esaldi mota aldatzea, aditzaren etorkizuneko denbora baliatzea, bokatiboak eta interjekzioak baliatzea, adberbioak txertatzea). Sailkapenak, ordea, desberdinak izango dira hizkuntza batetik bestera, beraz, guk gure corpusean ikusten dugunaren arabera aterako ditugu ondorioak. Bestalde, eta gure ikerlanaren bigarren ardatza berau izanik, zuzeneko eta zeharkako itzulpenen artean egon litezkeen desberdintasunei erreparatuko diegu ahalik eta zorrotzen. Hona hemen emaitzak jasotzeko erabili dugun tauletako bat:

Liburua	Ja mota	Jatorrizkoa	Baliokidea			Itzulpen baliabideak			Oharrak
			Zuzenean	Zeharka	Zubi-hizkuntza	JASO GABE	JASO DU	Estrategia	

Irudia 55. *Ja eta eben/halt* partikulei buruzko emaitzak jasotzeko erabili dugun taula.

Hasiera batean, itzulpenak sorburu-testuko partikula jasotzen duen ala ez ikusi dugu. Aurreneko erabaki hori hartzea ez da beti erraza izan, ikusi dugun moduan, partikulen funtzioa pragmatikoa baita. Horregatik, jatorrizkoa partikularik gabe irakurtzen genuen hainbat aldiz, partikulak esaldiari zer tonu eransten dion hobeto ulertu ahal izateko; ondoren, tonu hori itzulpenean jasotzen den erabakitzen saiatu gara. Zeharka egin diren itzulpenen kasuan, kontuan hartu behar da itzultzaileak zubi-bertsioetatik abiatu direla, eta, beraz, ez zekitela alemanezko sorburu-testuan partikula bat bazenik ere. Hori kontuan hartuta ere, alemanezko partikula jaso den ala ez ebaluatu dugu, baina, aldi berean, eta azterketaren ondorioetan ikusi ahal izango denez, zubi-bertsioak eduki duen eragina ebaluatuz. Hala, bi kasuetan, zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketan, itzulpen-eragiketa osoaren emaitzari erreparatu nahi izan diogu. Partikularen ñabardura itzulpenetan jaso den ala ez erabaki ondoren, jasotako kasuei erreparatu diegu, eta emaitzak sailkatzen saiatu gara. Emaitzak, dena den, aurrerago datoz. Aurrena, *ja* partikularen azterketan ikusitakoa aurkeztuko dugu, eta, ondoren, *eben/halt* partikulen azterketan ikusitakoa.

9.2.5 *Mikrotestuaren azterketa: ja partikula*

Beste ezer baino lehen, *ja* partikularen erabilera aztertuko dugu. Gainerako moduzko partikulekin batera ikusi dugu zein diren guztien ezaugarriak (ez direla jokutzen, ez datozela esaldiaren aurreneko posizioan etab.). Dena dela, orain gertuagotik erreparatu nahi diogu *ja* partikulari, perpaus barruan betetzen duen funtzioari, alegia.

Hona hemen Andreu Castellek bere gramatikan ematen duen azalpena (Castell, 2008: 407-410):

- Adierazpen-perpausetan, harridura adierazten du. *Aber* moduzko partikula ere erabiltzen da harridura adierazteko, baina ikus ditzagun bietako adibideak bien arteko bereizketa behar bezala egiteko⁷⁰:

<i>Das ist aber bitter!</i>	[Bai garratza dagoela hau!] ⁷¹
<i>Das ist ja bitter!</i>	[Hau garratza dago-eta!]
<i>Du hast ja dein Zimmer aufgeräumt.</i>	[Zure gela txukundu duzu-eta]

Aurreneko adibidean, hizlaria harrituta dago ahoratu duenak duen garratasun maila dela eta. Bigarreanean, berriz, ahoratutakoa garratza izateak harritzen du, gozoa izango zela uste zuelako, beharbada. Hirugarren adibidean ere berdin: hizlaria harrituta dago besteak gela txukundu egin duelako (eta horrek aditzera ematen du ez dela zerbait ohikoa).

⁷⁰ Gramatika azalpenak eta adibideak Andreu Castell-en gramatika liburutik atereak dira.

⁷¹ Nire itzulpena.

- Aginterazko perpausetan, abisua edo mehatxua adierazteko erabiltzen da. *Bloß* eta *nur* partikulak ere erabiltzen dira modu berean.

<i>Fahr bloß/ja/nur langsam! Der Nebel ist sehr dicht.</i>	[Gidatu astiro gero! Behelainoa oso itxia da.]
<i>Sei bloß/ja/nur pünktlich!</i>	[Etorri orduan/puntual gero!]
<i>Mach das bloß/ja/nur nicht wieder!</i>	[Ez ezazula horrelakorik berriz egin!]

- Adierazpen-perpausetan, solaskideak jakinaren gainean egon beharko lukeela adierazteko.

<i>A: Warum willst du nicht schwimmen gehen?</i>	[A: Zergatik ez duzu igerian joan nahi?]
<i>B: Das Wasser ist ja noch zu kalt.</i>	[B: Horixe, ura hotz dago-eta oraindik!]
<i>A: Peter hat mein Angebot nicht angenommen.</i>	[A: Peterrek ez du nire eskaintzarik onartu.]
<i>B: Er ist ja nicht dumm.</i>	[B: Horixe, ez da-eta inozoa!]

Hori da Castellen gramatika ematen den azalpena, baina gure ikerketan aurrera egin ahala, osoagoa den esplikazio bat behar izan dugu, corpusean bilaketak egiten hasi garen unean moduzko partikulak baino ez direnak bereizi behar izan ditugulako, batetik, eta, bestetik, moduzko partikula gisa funtzionatzen dutenen artean sailkapen bat egin nahi izan dugulako, *ja* bakoitzak betetzen duen funtzioaren arabera, azterketako emaitzak ere zehatzagoak izan daitezke. Lan horretan Waltereit lana egin zaigu lagungarrien. Hona hemen nola sailkatzen dituen Waltereit-ek *ja* partikula mota desberdinak (Waltereit, 2006: 39-44):

1) Erantzun-partikula

A: *Sollte ich den mit fünf nehmen?*

B: **Ja**, einen mit fünf und einen mit dreien.

2) Baieztatze-partikula

A: *Du brauchst äh eine runde orange Schraube mit Kerbe.*

B: **Ja**.

3) Zeharkako hizketa-ekintza bati erantzutea.

A: *Und damit das festbleibt, drehst du da so einen grünen Klotz rein oder ist egal, welche Farbe.*

B: *Mhm ja*.

4) Baieztapen-eskea.

A: *Da komme ich zu Ihnen, ja?*

B: *Ja, das wäre schön.*

5) Entzulearen kontaktu-adierazpena.

A: *Wir könn' das ja erstmal vorläufig festhalten und*

B: **Ja**

A: *Wenn wir dann genau wissen, uns genau im klaren darüber sind und genauer beurteilen können [...]*

6) Hizlariaren kontaktu-adierazpena.

A: **Ja**, *hallo, hier ist Ina Weißpflug, ich wollte fragen, wann Sie vielleicht Zeit hätten, die beiden zweitätigen Treffen zu machen.*

B: **Ja**, *Tag, Frau Weißpflug.*

7) *Framer*, gai edo elkarrizketa bat hastea (6. adibide bera).

A: *Ja*, hallo, hier ist Ina Weißpflug, ich wollte fragen, wann Sie vielleicht Zeit hätten, die beiden zweitätigen Treffen zu machen.

B: *Ja*, Tag, Frau Weißpflug.

8) Zalantza.

A: *Nimmst du ähm ja den ja nimmst du die gelbe Schraube mit der Kerbe,*

9) Zuzenketa-marka.

A: *Nun ist das Problem, ja, unsere Chefs wollen natürlich auch einen Bericht über diese tolle Reise haben.*

10) Moduzko partikula.

a) Informazio jakinaren *ja*.

Er isst ja am liebsten Erdbeertorte.

b) Harridurazko *ja*.

Du hast ja ein Loch in Deinem Ärmel!

c) Aginduzko *ja*.

Komm JA nicht zu spät nach Hause!

Ich darf JA nicht die Autoschlüssel vergessen.⁷²

Hori da Waltereitek aurkezten duen eskema, *ja* partikulak kasu bakoitzean betetzen duen funtzio komunikatiboaren arabera

⁷² Azken adibide hauetako JA partikulak letra larriz daude idatzita, Waltwereien liburuan ere halaxe agertzen zirelako. Aginterazko perpausetan, *ja* partikula indartu egiten da, eta horregatik daude letra larriz berezita, entonazioaren bereizkuntzaz ohartarazteko.

prestatua. Aurreneko bederatzi motak kanpoan utzi ditugu gure azterketan, eta 10. puntuan deskribatzen direnen bila joan gara. Moduzko partikulen barruan, a eta b motak indartu gabeak dira ahoskeraren aldetik (atonoak), eta c, berriz, indartua. Informazio jakinaren *ja* erabilia, hizlaria sinetsita dago berak esan duen hori badakiela entzuleak edo esandakoarekin ados dagoela entzulea. Harridurazko *ja*ren kasuan, berriz, hizlariak uste du esaten ari dena eztabaidaezina dela, eta entzuleak ezin duela entzun berri duena ukatu. Azkenik, azken taldean aginterazkotzat har litezkeen perpausak sartzen dira, zeinetan hizlariak bere nahia adierazten duen entzuleak entzun duena eta agintzen zaiona onar dezan (Waltereit, 2006: 44).

Beraz, funtzio komunikatiboaren arabera egiten du Waltereitak sailkapena, eta, are, perpaus motak ere zehazten ditu funtzio bakoitzerako: informazio jakinaren kasuan adierazpen-perpausak izan ohi dira, harridurazkoetan harridurazkoak, eta, aginterazkoetan, aginterazkoak baina baita adierazpenezkoak ere.


Nolanahi den, Waltwereit berak aitortzen duenez, hiru taldeen artean bereizketa egitea ez da beti uste bezain erraza. Aurreneko bi taldeen bereizketan perpaus motak laguntzen du, baina aginterazko *ja* taldea ez da, askotan, soilik aginterazko perpaus forman agertzen. Horrek esan nahi du perpausaren helburu komunikatzaileari edo asmoari erreparatu behar zaiola, eta, orain arte behin baino gehiagotan gertatu zaigun moduan, ez da hain egiteko erraza: "Das betonte JA kann in verschiedenen Domänen vorkommen, darunter mit dem Deklarativsatz sogar in derselben wie das Bekanntheits-ja!" (Waltereit, 2006: 44).

Egiazki, bilaketak egiten hasi eta erabakiak hartu behar izan ditugunean ez zaigu beti guztiz erraza izan erabakitzea zein hiru taldetakoa zen aurrean geneukan *ja* moduzko partikula. Ikus dezagun adibide hau:

<p><i>"Na, du kommst ja auch schon", empfang Sandra Jan und stemmte die Hände in die Hüften. "Ich warte hier schon seit Stunden." (EL)</i></p>	<p>–Iritsi zara azkenean zu ere –eman zion Jani ongietorria Sandrak, eskuak gerrian lotzen zituen bitartean–. Orduak daramatzat zure zain. (EL-eu)</p>
--	--

Aurreko adibidean ikus daitekeenez, ez da entzuleak ez dakien baina jakin beharko lukeen informaziorik adierazten (ez da, beraz, harridurazko *ja*), eta ez du adierazten solaskideak egitea nahi duen zerbait (ez da, beraz, aginterazko *ja*). Informazio jakinarena dela esan genezake. Solaskideari zerbait aurpegiratzeko asmo argia ageri du hizlariak, hala ere. Eta horrelako kasuekin askotan egin dugu topo. Hau da, informazio jakinaren *ja* taldean esaldi asko sartu ditugu (gehienak), baina esan behar dugu horietako askok bigarren asmo edo funtzio bat ere betetzen dutela: hizlariak jakintzat ematen du entzuleak badakiela entzungo duena, baina, aldi berean, zerbait aurpegiratzten dio. Errieta kasuak dira, eta informazio jakinekoek baino indar ilokutibo bereziagoa dute.

Orain bai, azterketatik atera ditugun datuen berri emango dugu. Egin dugun sailkapenaren arabera, *ja* gehienak informazio jakinarenak dira: 191 guztira. Ondoren, eta alde handiarekin, harridurazkoak ditugu (50 guztira) eta ondoren aginterazkoak (12).




Irudia 56. Ja motak.

Esan dugun moduan, jakinezkoak direnen taldean aldeak sumatu ditugu: guztiek betetzen zuten Waltereien lanean topatu dugun irizpidea, solaskideen arteko ezadostasunik ez egotearena edo guztientzat informazioa ezaguna izatearena, alegia. Batzuetan, baina, zerbait aurpegiratzearen tonu argia sumatu dugu hizlariaren ahotsean; beste batzuetan, aldiz, askoz modu neutralagoan ematen da informazioa. Edozein modutan, eta aurretiaz aipatu dugun moduan, talde berean sartu ditugu, jakinezkoak taldean, guztiek – nahiz batzuek bestek baino ozpinago– azpimarratzen dutelako jakintzat ematen den informazioa.

9.2.5.1 Emaitzak

Baliatutako itzulpen estrategiari dagokienez, argi eta garbi esan behar dugu moduzko partikula xede-hizkuntzan ez jasotzea dela ohikoena. Hona iritsita, azpimarratu nahi genuke itzultzeko modu guztiak hartu ditugula kontuan estrategia gisa. Horregatik, xede testuan moduzko partikularik edo beste inolako osagarririk

jasotzen ez bada ere, baliabide hori ere itzulpen estrategiatzat hartu dugu. Ez itzultzea bera estrategia bat baita. Hona hemen datuak grafikoan zehaztuta:



Irudia 57. Ja itzultzeko estrategia motak.

Esan dugun moduan, estrategiarik erabiliena moduzko partikula jaso gabe uztearena izan da, kasuen % 84an ikusi baitugu hori. Ondorio zehatzagoetara aurrerago iritsiko bagara ere, datu horrek estandarizazio-zantzuak erakusten dizkigu. Gainerako kasuetan (% 16), itzultzaileak modu batera edo bestera saiatu dira *ja* partikulak perpausari txertatzen dion esanahia jasotzen. Horretarako baliatutako hitza, esapide edo perpaus eraikuntzak askotarikoak dira, baina taldekatzen saiatu gara. Hona hemen 10 estrategia-taldeak, maizenik erabili denetik hasi eta gutxien erabili den arte:

Taula 39. Ja itzultzeko estrategiak. Jaso gabe.

Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
1. "Ach!" hat er gerufen, "ich habe ja mein Geld verloren!" (28LG)		"Hara! Dirua galdu dut!" (28LG-eu)
2. Die anderen in der Klasse merken das ja . (DAK)		Ikastaldeko besteak konturatu egiten dira. (DAK-eu)
3. Das hätte ich mir ja denken können. (DAK)		Pentsatu beharko nukeen ordurako. (DAK-eu)
4. Aber ich fragte es ziemlich leise, weil ich ja begriffen hatte, dass Bille irgendetwas plante. (DAK)		Baina apal samar esan nuen, zeren konturatu bait nintzen Bille zerbait asmatzen zebilela. (DAK-eu)
5. "Ich komm ja schon!" schreit Luise. (DDL)		–Banoa! –egin du Luisak zarata. (DDL-eu)
6. "Da bist du ja endlich", sagt Fräulein Ulrike. (DDL)		–Etorri zara azkenean! –dio Ulrike andereñoak. (DDL-eu)
7. Natürlich, Almut und Reinhard waren ja um diese Zeit in der Schule. (WO)		Jakina, Almut eta Reinhard eskolan zeuden, nonbait. (WO-eu)
8. »Das kann ja gut werden.« (35M)	«A lo mejor resulta bien y todo .» (35M-es)	«Jakin nahi nuke nolako atarramendua izango dugun.» (35M-eu)
9. "Ich bin ja ganz schwarz geworden! (DKG)	–Me he vuelto completamente negro. (DKG-es)	–Erabat beltz bihurtu naiz. (DKG-eu)
10. "Das ist ja der Absatz von einem Schuh!". (DASH)	– Pero ¡si esto es el tacón de un zapato! (DASH-es)	–Zapata baten takoia da! (DASH-eu)
11. "Du machst mir ja schöne Geschichten!" krakeelte er. (DKH)	– ¡A ver que historia me vas a contar! –alborotó con sus graznidos (DASH-es)	–Ikusiko dugu zer berri dakarzun! –karrakatu zuen asaldaturik. (DASH-eu)
12. Das ist ja zum Lachen!". (FSWS)	¡ No me hagas reír! (FSWS-es)	Ez ie zadazu barregararik eman! (FSWS-eu)
13. 'Ich habe ja solchen Hunger auf Hasenfleisch! (FSWS)	¡ No sabes cuántas ganas tengo de comerme un tierno conejillo! (FSWS-es)	Ez dakizu untxi samur bat jateko zenbaterainoko gogoia dudan! (FSWS-eu)

Lehenengoa harridurazko *ja* baten adibidea da. Hizlariak ez zuen espero dirua galduko zuenik, eta ezusteko hori adierazten dio solaskideari. Euskarazko itzulpenean, azaldu azaltzen da harridura, baina ez *jaren* ñabardura. Hala, sorburu-esaldia partikularik gabe irakurrita, euskaraz emandako itzulpena jasoko genuke berdin-berdin, eta horrek adierazten digu partikulak zein ñabardura eranstean dion jatorrizkoari: hizlariaren ezustea.

Bigarren adibidean ere, onena da jatorrizko testua partikula eta guzti nahiz gabe irakurtzea. Kasu horretan informazio jakinaren *ja* daukagu. Esaten den hori solaskide biek ondotxo dakitela adierazten du partikulak: [izan ere / zuk zeuk ere ondotxo dakizun moduan] esanahia eranstean dio, eta solaskidearengana gerturatzeke balio du. Euskarazkoak bere horretan ematen du informazioa eta ez zaio solaskideari gerturatzen.

Hirugarren adibidean ere informazio jakinaren *ja* ageri zaigu, baina, oraingo honetan, lehen ere aipatu dugun errieta tonua gaineratzen dio: hizlariak bere buruari aurpegiratzen dio dena delakoan alde aurretik pentsatu ez izana. Euskarazkoak ez dio, hain zuzen ere, errieta tonu hori ematen.

Laugarren adibidea bigarrenaren antzekoa da: informazio jakinaren *ja* dator; solaskideari aditzera eman nahi zaio zergatik galdetu zuen horren isilik. Halako adibideek zer pentsatua eman digute, esaldia kausala delako (*bait-*) eta partikulak jatorrizkoan indartzen duena arrazoia baita –kasu honetan, isilik hitz egiteko arrazoia–. Dena den, kontuan hartu behar dugu euskarazko *bait-* esaldi kausalak alemanezko egitura kausalari erantzutzen diola.

Hau da, alemanez badago egitura kausala, eta, gainera, delako arrazoi hori indartu egiten da *ja* partikularen bitartez.

Bosgarren eta seigarren adibideak elkarren atzetik datoz (biak ere DDL liburuan). Adibide egokiak iruditu zaizkigu itzulpenek partikularen ñabardura jaso ez dutela ulertzeko: Luisek pazientzia galduta esaten dio zaintzaileari badoala eta ez duela zertan deika jarraitu, eta zaintzaileak errieta edo ironia kutsu batekin egiten dio ongietorria.

Zazpigarren adibideak fenomeno bitxi bat ageri du: euskarazko bertsioan *nonbait* daukagu bukaeran, eta jatorrizkoari begiratuta, pentsa liteke itzultzaileak partikulaz ohartuta gaineratu duela ñabardura hori. Hala eta guztiz ere, okerreko ñabardura da, jatorrizkoan adierazten dena baita guztiek zekitela eta zalantzarik ez zela Almut eta Reinhard ordu horretan eskolan zeudenik. Euskarazko itzulpenak berriz, zehar-informazio gisa aurkezten du, narratzailea esaten ari den horrekin guztiz ziur egongo ez balitz bezala. Gaztelaniazko bertsioaren interferentziaren eraginez izan ote litekeen pentsatu dugu, eta kontsultatu ere kontsultatu dugu. Hona hiru bertsioak bata bestearen ondoan:

Taula 40. Interferentzia posiblea *jaren* zuzeneko itzulpenean.

Sorburu-testua	Gaztelaniazko bertsioa	Xede-testua
<i>Natürlich, Almut und Reinhard waren ja um diese Zeit in der Schule.</i> (WO)	Naturalmente, Almut y Reinhard estarían en la escuela. (WO-es)	Jakina, Almut eta Reinhard eskolan zeuden, nonbait . (WO-eu)

Adibide horrek erakusten digunez, *nonbait* hitza ez da *ja* partikularen eraginez sortu. Eta, are, argi erakusten du gaztelaniazko bertsioari jarraitu diola itzultzaileak.

Zortzigarrenetik aurrerako adibideak zeharkako itzulpenetakoak dira. Itzulpenak zubi-bertsiotik abiatuta egin direnez, haren mendeko dira emaitzak: zubi-bertsioa jatorrizkoan agertzen zen partikularen ñabardura jasotzen saiatu bada ere, baliteke euskarazkoak, hala ere, ez jasotzea. Hori gertatu da, esaterako, zortzigarren eta hamargarren adibideetan.

Bestalde, bederatzigarren adibideak erakusten duenez, zubi-bertsioak partikularen ñabardura jasotzen ez badu, jakina da euskarazkoan ere falta egingo dela ñabardura hori. Bederatzigarren adibidean, jatorrizko harridura-ikurra bera ere ez da jaso.

Hamaikagarren adibidean, zubi-bertsioak partikularen ñabardura jasotzeko saiakera egin du, baina ez du esanahia guztiz jasotzea lortu. Adibidean, sorginaren zain dago belea etxean, eta gustura ematen dio ongietorria hura iristen denean, sorginak beti baitauka zer konta. Zubi-bertsioak nahiko libre jokatu du esaldiaren itzulpenarekin, eta, beraz, euskaraz etorkizunean emanda datorren itzulpena are gehiago urruntzen da.

Hamahiru eta hamalagarren adibideekin zalantza izan genuen, partikula jaso zuten ala ez. Izan ere, zubi-bertsioak ezezko esaldi-egitura eraikiz jasotzen du bietan partikularen ñabardura, eta euskarazko bertsioak orpoz orpo jarraitu dio zubi-bertsioari. Dena den, eta hasiera batean pentsa baliteke ere ezezko esaldi-egiturari esker euskarazko bertsioan ere partikularen ñabardura

jaso egin dela, jatorrizkoaren indar ilokutiborik ez dela jasotzen iruditu zaigu, zubi-bertsiotik egitura kalkatzeagatik beharbada.

Jarraian, berriz, partikularen ñabardura gutxi gorabehera jaso duten itzulpenen adibideak jarri ditugu, erabilitako prozeduraren arabera taldekatuak.

Taula 41. Ja itzultzeko estrategiak. Kausala.

Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
1. <i>Aber, lieber Schwiegersohn, sage mir doch, woher ist das viele Gold? das sind ja gewaltige Schätze!</i> (KHM)		Baina, suhi estimatua, esaidak nongoa den urre hori guztia, egundoko altxorra duk- eta! (KHM-eu)
2. <i>(Die Grüße vom Papa schicke ich dir allerdings, ohne dass er etwas davon weiß, weil er ja nicht da ist!)</i> (LOS)		(Aitaren goraintziak, berak ezer ez dakiela bidaltzen dizkizut, ez bait dago bera hemen!) (LOS-eu)
3. <i>Das Lernen machte ihr wenig Mühe, sie war ja noch jung.</i> (DKH)	Pero estudiar le molestaba un poco, pues era todavía joven. (DKH-es)	Baina gaztea zenez , ikastea ez zitzaion oso gogoko. (DKH-eu)

Esaldi-egitura kausalak *ja* partikularen ñabardura jasotzen duela iruditzen zaigu, batez ere, informazio jakinaren *ja* denean. Bigarren adibidean, jatorrizkoak berak badakar egitura kausala (*weil er...*), baina, hala eta guztiz ere, euskarazko bertsioak partikularen ñabardura jasotzen duela erabaki dugu, esaldi-egitura kausala erabiltzeaz gain, hitz-hurrenkeraren bitartez are azpimarratzen duelako arrazoia. Bestalde, hirugarren adibidean, zubi-bertsioaren eraginez partikularen itzulpena jasotzeaz gain, gaizkiulertu bat ere jasotzen dela ohartarazi nahi genuke. Izan ere, jatorrizkoak dio sorginak erraz eta inolako nekerik gabe ikasten

zuela, *das Lernen machte ihr wenig Mühe*, eta gaztelaniaz, eta, ondorioz, euskaraz, alderantzizkoa esaten da.

Taula 42. Ja itzultzeko estrategiak. Adizlaguna.

Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
1. "Die Butter soll ja nicht zwischen die Hefte tröpfeln." (FR)		Kontuz gurinarekin, bestela koadernoak zikinduko dizkizu. (FR-eu)
2. "Noch eine gute Viertelstunde weiter im Wald, unter den drei großen Eichbäumen, da steht ihr Haus, unten sind die Nusshecken, das wirst du ja wissen", sagte Rotkäppchen. (KHM)		–Basoan barrena oraindik ere ordu laurdena ibilita, hiru haritz handien azpian, hantxe dago etxea, hurritzeko hesiak daude azpian, honezker o jakin behar zenuke hori –esan zuen Txanogorritxok. (KHM-eu)
3. Na, das hat ja nun wieder sein Gutes". (PA)	Claro que eso tiene también su lado bueno. (PA-es)	Jakina , honek bere alderdi ona ere badauka. (PA-eu)

Aurreko adibideek alemanezko partikularen indar ilokutiboa adizlagun batez adierazten dutela iruditu zaigu, solaskidearen arreta deitzen dutelako, alegia.

Taula 43. Ja itzultzeko estrategiak. Ezezkoa.

Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
1. Steige ja nicht vorher aus, etwa am Bahnhof Zoo oder auf einer anderen Station!" (ED)	¡ Que no te vayas a bajar antes, por ejemplo en la estación del Jardín Zoológico o en otra cualquiera! (ED-es)	Etzaitzela lehenago jaitsi, Zooparkeko geltokian esate baterako, edo beste edozeinetan! (ED-eu)
2. 'Er ist ja noch klein... ', hieß dieses Blinzeln, 'lassen wir ihm seine Großmutter!'	[...] de aquella mirada que quería decir: "¿ No veis que	[...] eta bazekin begirada hark hauxe esan nahi zuela: " Ez al duzue ikusten oraindik txikia

(DOA)	aún es pequeño? ¡Dejémosle su abuelita!" (DOA-es)	dela? Utzi diezaiogun bere amonarekin ibiltzen." (DOA- eu)
-------	---	--

Esaldia ezezkoan jartzeak ere, esaldiaren indar ilokutiboa indartzen duelakoan gaude, batez ere aginterazko *ja* denean (lehenengo adibidea). Bigarren adibidean, ezezko esaldi-egitura erabiltzeaz gain, galdera ere baliatu dute itzultzaileek, beraz, aurrerago emango dugun galderaren adibidearekin batera ere joan liteke.

Taula 44. *Ja* itzultzeko estrategiak. Partikula.

Sorburu-testua	Xede-testua
1. <i>Ich bin ja die Jüngste und habe die beste Kondition", gab Sandra zurück.</i> (EL)	Gazteena ere neu naiz eta zailduena ere bai –erantzun zion Sandrak. (EL-eu)
2. <i>"Ich will euch ja alles geben, reicht nur die Hände herein."</i> (KHM)	– Bai, ba! Den-dena emango dizuet; luza itzazue besoak barrurantz, besterik ez duzue egin behar. (KHM-eu)

Ba(da) eta *ere* partikulak aurretik esan denarekiko lotura markatzeko edo indartzeko balio dute. Gainera, ahozko jardunean maiz erabiltzen ditugun baliabideak dira.

Taula 45. *Ja* itzultzeko estrategiak. Lokailua.

Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
1. <i>Das, was bis jetzt von ihrem Kinderhimmel umspannt wurde, war ja, wie sich plötzlich herausgestellt hat, nur die eine Hälfte ihrer Welt!</i> (DDL)		Izan ere gaur arte bere haur-hodei horretan ikusten zutena, munduaren erdia baino ez zen! (DDL-eu)
2. <i>Aber du hast's ja nicht</i>	Pero, en realidad , lo	Ondo merezia duzu, egia

anders verdient". (DKH) tienes bien merecido. **esan.** (DKH-eu)
(DKH-es)

Lokailuen bitartez (*izan ere, egia esan* etab.) aurretik esan denarekiko lotura indartzen da, eta, beraz, esaldiaren indar ilokutiboa nolabait indartzen dela uste dugu.

Taula 46. *Ja* itzultzeko estrategiak. Esapidea.

Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
1. <i>Das wäre ja gelacht!</i> (DKT)	Estaría bueno. (DKT-es)	Hau da, hau! (DKT-eu)
2. <i>Das hatte mein Vater ja gesagt:</i> (WFKD)		[...] nire aitak argi eta garbi esan zidan: (WFKD-eu)

Zenbaitetan *ja* partikula esaldian oso integratuta ageri zaigu, aurreko adibideetako aurrenekoan bezala. Hala, esaldi osoari eragiten dion adibide horretan, gaztelaniaz nahiz euskaraz baliokidea izan daitekeen esapide bat bilatu da. Ezin genezake zehaztu esaldiko zein elementuk jasotzen duen *jaren* ñabardura, esaldi osoak erantzuten diolako partikularen indar ilokutiboari. Bigarren adibideak, berriz, *ja* partikula bera esapide batez itzultzeko aukera erakusten digu.

Taula 47. *Ja* itzultzeko estrategiak. Galdera.

Sorburu-testua	Xede-testua
" <i>Das war ja noch schöner!</i> " (LOS)	"Hura politagoa zen, ez da? " (LOS-eu)

Bukaeran gehitutako galdera honen bidez, solaskideraen arretari eragiten zaio.

Taula 48. *Ja* itzultzeko estrategiak. Aditza indartzea.

Sorburu-testua	Xede-testua
1. <i>Sie will ja auch, daß sie Angst haben und sich aufregen.</i> (LD)	Nahi ere nahi du beldur eta aztora daitezen. (LD-eu)
2. <i>„Der Igel gibt sich ja wirklich Mühe, aber er klingt wie eine verbeulte Gießkanne!“</i> (WDL)	Saiatu saiatzen da Triku gaixoa, baina pertz zulatu bat joz soinu ederragoa atera liteke! (WDL-eu)

Aurreko adibideek erakusten dutenez, errepikapenaren bidez aditza indartu egiten da, eta, azken finean, alemanezko partikulak indartu nahi duena indartzea lortzen da. Aurreko kasu bi horiek dira aditza indartzearen baliabidea erabili duten bakarrak, biak ere zuzeneko itzulpenetan.

Taula 49. *Ja* itzultzeko estrategiak. Juntagailua.


Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
<i>„Ist ja auch alles Unsinn.“</i> (DASH)	-Pero esto no tiene sentido. (DASH-es)	-Baina honek ez du zentzurik. (DASH-eu)

Baina juntagailuaren erabilera bakarra bilatu dugu, gaztelaniazko bertsioak eraginda.

Ja moduzko partikularen itzulpena jasotzea lortu duten 9 estrategia identifikatu ditugu: esaldi kausala sortzea, adizlagun bat gehitzea, esaldia ezekoan jartzea, partikula indargarri bat erabiltzea, lokailu bat erabiltzea, esapide bat erabiltzea, galdera bat gehitzea, aditza indartzea eta juntagailu bat erabiltzea. Egia esan, ez dago bereziki nabarmentzen den estrategiarik, beharbada ez


ditugulako talde aski zabaletan bildu. Hala ere, alderaketa eginez, estrategia erabilienak esaldi kausalak egitea, adizlagun bat erabiltzea eta esaldiak ezezko bihurtzea izan dira.

Ikusi dugu, beraz, zein izan diren gehien erabilitako estrategiak. Orain, berriz, informazio hori *ja* mota bakoitzean nola banatzen den aztertuko dugu. Izan ere, informazio biak gurutzatuta, ikus dezakegu aginterazkoak diren *ja* motak gehiago jaso direla jakinezkoak eta harridurazkoak direnak baino (ikusi 58. irudia). Harridurazko eta aginterazko *ja* partikulak dituzten perpausak errazago nabarmentzen direlako susmoa genuen, eta horregatik egin nahi izan dugu informazio-gurutzaketa, harridurazko eta aginterazkoen kasuan *ja* partikularen itzulpena maizago jaso ote den egiaztatzeko. Grafikoan ikusten denez, harridurazkoen kasuan partikularen itzulpena pittin bat gehiago jasotzen da jakinezkoenaren aldean, baina txikia da aldea (% 3 gehiago). Aginterazko *jaren* kasuan, ordea, % 18ko aldea dago jakinezko *jarekin* alderatuta, eta nahiko adierazgarria den datua delakoan gaude. Itzulpena jaso den kasuetan, gainera, ezezko esaldi egiturak erabiliz egin da batez ere. Datu hori ere estuki lotua dago partikulak perpausari ematen dion balioarekin, aginterazko perpausetan dagoeneko eginak eta aski errotuak dauden esamolde edo baliabideak baitauzkagu (“Etzaitezela lehenago jaitsi”; “Eta pentsatu ere ez...”; corpusetik ateratako adibideak dira).




Irudia 58. *Ja* partikula itzultzeko erabilitako prozedurak *ja* motaren arabera.

Gainerakoan, gure ikerlanaren gako nagusiari heldu nahi genioke orain. Hau da, partikulak itzultzerakoan alderik egon ote den ikusi nahi dugu, zuzenean ala zeharka itzuli den kasuetan. Horretarako bereizi egin ditugu datuak: behean, aurrena, zuzenean itzulitakoak daude (guztira, 133 kasu ditugu); haren ostean, berriz, zeharka itzulitakoak (guztira, 120 kasu ditugu).



Irudia 59. *Ja* partikula zuzeneko itzulpenetan.



Irudia 60. *Ja* partikula zeharkako itzulpenetan.

Jaren itzulpena zuzenean egindako itzulpenetan zeharka egindakoetan baino % 1 gehiago jaso bada ere, bi grafikoaren arteko aldea ez da handia.

Zeharkako itzulpeni arreta handiagoz begiratuta, euskarazko bertsioak gaztelaniazkoari jarraitu dion aztertu dugu, eta ondorio hau atera dugu: zeharkako itzulpenetan, *ja* partikularen ñabardura jaso den kasu guztietan gaztelaniazko bertsioari jarraitu zaio. Zeharkako itzulpenez ari garenez, pentsatzekoa eta ulertzekoa da kasurik gehienetan euskarazkoak gaztelaniazkoari jarraitu izana. Eta halaxe gertatu da euskaraz *ja* partikularen ñabardura jaso dela ondorioztatu dugun kasuetan. Hemen adibide batzuk:

Taula 50. Zubi-bertsioaren eragina *ja* jasotzerakoan (1).

Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
<i>"Ach, das ist ja Frau Bäckermeister Wirth!"</i> (ED)	–¡Ah! ¡Si es la señora de Wirth, el pastelero! (ED-es)	–Ene! Wirth pastelgilearen andrea da eta! (ED-eu)
<i>Es war einmal eine kleine Hexe, die war erst einhundertsiebenundzwanzig Jahre alt, und das ist ja für eine Hexe noch gar kein Alter.</i> (DKH)	Érase una vez una brujita que tenía sólo ciento veintisiete años, lo que, realmente , no es mucho para una bruja. (DKH-es)	Behin batean bazen ehun eta hogeita zazpi urte besterik ez zituen sorgintxo bat. Adin hori, egia esan , sorgin batentzat ez da gehiegi. (DKH-eu)

Dena den, gaztelaniaz partikularen ñabardura jaso den arren, euskarazkoan jaso ez den hainbat kasu dago. Zehazki, hamabi aurkitu ditugu, zeharkako kasuen % 10. Hona hemen adibide batzuk:

Taula 51. Zubi-bertsioaren eragina *ja* jasotzerakoan (2).

Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
<i>"Das ist ja der Absatz von einem Schuh!"</i> (DASH)	– Pero ¡si esto es el tacón de un zapato! (DASH-es)	–Zapata baten takoia da! (DASH-eu)

<i>"Auf dich kann ich mich ja verlassen!"</i> (DOA)	-Sé que puedo confiar en ti. (DOA-es)	-Nik zuga n konfidantza osoa daukat. (DOA-eu)
---	--	--

Kontuan hartu behar dugu euskarazkoak zeharkako itzulpenetan zubi-bertsioa izan duela, teorian, abiapuntu. Horrek esan nahi du euskaraz *ja* partikularen ñabardura jasota gelditu bada ere, ez dela izan euskal itzultzaileak partikula jaso nahi izan duelako, baizik eta zubi-testuari orpoz orpo jarraitu diolako. Zubi-bertsioak partikularen ñabardura oso modu adierazgarrian jaso ez badu, edo itzulpenarekin guztiz asmatzen ez badu, euskarazkoak nekez asmatuko du. Hona hemen partikularen itzulpena jaso ez duten kasuen adibide batzuk:

Taula 52. Zubi-bertsioaren eragina *ja* jasotzerakoan (3).

Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
<i>"Du machst mir ja schöne Geschichten!"</i> krakeelte er. (DKH)	-¡A ver que historia me vas a contar! – alborotó con sus graznidos (DKH-es)	-Ikusiko dugu zer berri dakarzun! –karrakatu zuen asaldaturik. (DKH-eu)
<i>Das ist ja zum Lachen!"</i> . (FSWS)	¡No me haga reír! (FSWS-es)	Ez iezadazu barregarik eman! (FSWS-eu)

Hala, aurreko adibideek argi eta garbi erakusten dute gaztelaniaren interferentzia.

Beraz, gaztelaniazko bertsioak itzulpen jakin bat proposatzen duenean, zera gerta daiteke:

- Euskarazkoak ere jasotzea.
- Euskarazkoak jasotzeko ahalegina egitea, baina ez asmatzea.
- Euskarazkoak ez jasotzea.

Gure corpusean egindako azterketaren emaitzek erakutsi dutenez, euskarazkoak gehienetan jaso egin du gaztelaniazkoak jasotako ñabardura. Gaztelaniaz jaso arren euskarazkoak ez jasotzea % 10ean gertatu da.

Ikus dezagun orain *eben/halt* partikulen azterketak erakutsi diguna.

9.2.6 *Mikrotestuaren azterketa: eben/halt*

Jarekin egin dugun moduan, lehenik eta behin moduzko partikulak alemanez betetzen duen funtzioa zein den aztertuko dugu. Castellek bere gramatikan ohartarazten duenez, adi ibili beharra dago homonimoekin ez nahasteko: *eben* adjektiboa dago (laua) eta denbora adberbioa (oraintxe bertan, gertatu berri den zerbait adierazteko); *halt*, *bestalde*, *halten* (gelditu, eutsi) aditzaren aginterazko forma izan liteke, bigarren pertsonan (Castell, 2008: 411).

Bi moduzko partikulak adierazpenezko nahiz aginterazko perpausetan erabiltzen dira, indartu gabeak dira (atonoak) eta gertakizun batekiko edo haren ondorioekiko etsipena adierazten dute: zerbait ezinbestean den bezalako delatzen onartzea. *Eben* gehiago erabiltzen omen da Alemaniaren iparraldean, eta, *halt*, hegoaldean.

<i>Das ist eben so. (Da kann man nichts machen.)</i>	[Hori horrela da, eta kitto. (Ez dago ezer egiterik)] ⁷³
A: <i>Es regnet schon wieder.</i>	[A: Euria ari du berriz ere.]
B: <i>Dann müssen wir eben zu Hause bleiben.</i>	[B: Bada, etxean gelditu beharko dugu.]

⁷³ Nire itzulpena.

A: <i>Wir haben verloren.</i>	[A: Galdu egin dugu.]
B: <i>Ihr wart eben zu müde.</i>	[B: Bai ba, nekatuegi baitzeundeten.]
A: <i>Ich habe den Bus verpasst.</i>	[A: Autobusa galdu dut.]
B: <i>Dann nimm eben ein Taxi.</i>	[B: Taxi bat hartu orduan.]

Cárdenesek, ordea, sakon aztertzen du *eben* partikula, *aber*, *denn* eta *doch* partikulekin batera. Haren azterketa irakurrita, Castellek bere gramatikan egiten duena baino bereizketa zabalagoa aurkitu dugu. Izan ere, *eben* esapidea adjektiboarekin eta denbora adberbioarekin nahasteko aukera dago eta horiek bereizten jakin behar da, bai, baina orobat nahas daiteke gradu-partikularekin eta erantzun-partikularekin.

Gogora dezagun Helbigek berak egindako partikulen sailkapenean ere hainbat motako partikulak bereizi ditugula; horien artean zeuden moduzko partikulak, baina baita gradu- eta erantzun-partikulak, besteak beste.

Ohikoa da, hala ere, gradu- eta erantzun-partikulak moduzko partikulak balira bezala nahastea, izan ere, "Die Stellung von eben als Gradpartikel, also in der Bedeutung *gerade*, *genau*, ist generell dieselbe wie die der Partikel, nämlich im Mittelfeld, und darin die Position unmittelbar vor ihrem Bezugsglied" (Cárdenes, 1997: 148). Gradu-partikula gisa, ordea, *ebenek hain justu* esanahia darama, eta, erantzun-partikula gisa solaskidean esandakoa edo galdetutakoa baieztatzeko eta ziurtatzeko erabiltzen da, *hain zuzen ere* edo *horixe* esanahiaz.

Moduzko partikula denean, berriz, adierazpenezko ala aginterazko perpausetan baino ezin daiteke agertu. Adierazpen-perpausetan nolabaiteko etsipena adierazten du hizlariak, eta,

aginterazkoetan, solaskidearengandik halako konpromiso edo onarpen bat lortzea espero du (Cárdenes, 1997: 163). Funtsean, Castellen gramatikak zioena ez da okerra, hark ere *eben/halt* partikulen bi aukera horiek ematen baitzituen, baina ezinbestekoa iruditu zaigu gradu- eta erantzun-partikulen bereizketaz ohartaraztea, gure corpuseko erauzketa egitean guztiak hartu baititugu kontuan (adjektiboak eta denbora adberbioak salbu), baina, gerora, beste behin egin behar izan dugu bereizketa. Hara adibide hauek:

Taula 53. *Eben* partikula moten adibideak.

Sorburu-testua	Xede-testua
1. <i>Na, eben!</i> (DAK)	-Ikusten? (DAK-eu)
2. <i>Aber beim Hinunterklettern sah man nichts und mußte mehr oder weniger blindlings mit dem Fuß im tieferliegenden Geäst herumstochern, ehe man einen festen Tritt fand, und oft genug war der Tritt eben nicht fest, sondern morsch oder glitschig, und man glitt ab oder brach durch, [...]</i> (DGS)	Baina jaisterakoan, ez zen ezer ikusten eta ia-itsu bilatu behar zen oinarekin askoz beheragoko adaxketan, bermagune sendo bat aurkitu arte eta maiz bermea ez zen nahiko sendoa edo irristakorra zen eta irristatu egiten zinen edo erori [...] (DGS-eu)
3. <i>Das müssen die eben zahlen!</i> (LD)	-Ba, ordaindu egin beharko dute! (LD-eu)
4. <i>Es gibt eben keine geraden Schweineschwänzchen.</i> (FR)	-Tira, ez dago txerri-buztan zuzenik. (FR-eu)

Aurreneko adibidean argi eta garbi sumatzen da erantzun bat dela, eta, beraz, erantzun-partikula baten aurrean gaudela. Bigarren esaldia, berriz, gradu-partikula baten adibidea da (*zehazki* edo *hain justu* adberbioez ere ordezkari liteke). Hirugarren eta laugarren adibideek, berriz, *eben*ek moduzko partikula gisa hartzen

dituen bi funtzioak erakusten dituzte: helburu duena proposatutako irtenbidea solaskideak onartzea, batetik, eta, bestetik, hizlariaren beraren etsipena edo egoera jakin batekiko onarpena adieraztea helburu duena.


Esan bezala, adjektibo eta denborazko adberbio gisa ere funtziona dezake *ebenek*, baina horiek begi hutsez bereizi genituen adibideak corpusetik taulara erauzterakoan. Alabaina, oharkabean pasatako hiru denbora-adberbio identifikatu genituen gure taulan.

Hala, taulan jasota geneuzkan 125 *eben* partikuletatik, 93 dira moduzko partikula (% 74), 27 gradu-partikula identifikatu ditugu (% 22), bi erantzun-partikula, eta, esan bezala, hiru denbora-adberbio.

Hemendik aurrera, beraz, moduzko partikularen balioa duten 93 *eben* horien itzulpenei erreparatuko diegu.

9.2.6.1 Emaidzak

Ja partikularekin gertatzen zitzaigun bezala, *eben*en kasuan ere testu itzulietan alemanezko partikularen funtzioa ez jasotzeko estrategia erabili da gehien (% 83, ondorengo grafikoan ikus daitekeenez). Are, emaitza oso-oso antzekoa da, *ja* partikularen kasuan % 84 baitzen jaso gabekoen proportzioa. Dagoeneko baieztatu genezake, beraz, alemanezko moduzko partikulen ñabardura ez dela gehienetan jasotzen, eta horrek adierazten digu estandarizazio maila handia dela. Dena den, ñabardura hori nolabait jaso duten adibideak ere badaude (% 17).



Irudia 61. Eben partikula itzultzeko estrategiak, gure corpusaren arabera.

Orain adibideak ikusiko ditugu, betiere estrategia zabalduenetik hasita, hau da, partikularen ñabardura jasotzen ez dutenean adibideetatik hasita.

Taula 54. Eben itzultzeko estrategiak. Jaso gabe.

Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
1. "Sollen sie eben drin bleiben!" (DAK)		Gera daitezela hor! (DAK-eu)
2. So ist der Jasper eben! (DAK)		Holakoxea da Jasper! (DAK-eu)
3. Ja, er hat uns eben im Stich gelassen. (DGM)		Bai, baina aho bete hortzekin utzi gaitu. (DGM-eu)
4. "Ich kann's eben nicht anders ausdrücken", sagte Tünnes verlegen. (WO)		-Ez dakit beste era batera esaten -esan zuen Tünnesek aztoraturik. (WO-eu)
5. Wenn Mama dann arbeitet, muß ich eben zu Hause bleiben. (EL)		Amak lanera joan behar badu, nik geratu behar dut etxean. (EL-eu)
6. Vormittags mußst du eben mit dir selber auskommen. (FR)		Goizetan zeuk bakarrik moldatu beharko duzu, (FR-eu)

7. <i>Wir haben eben wenig.</i> (ED)	Porque tenemos poco. (ED-es)	Gutxi daukagulako, noski. (ED-eu)
8. <i>Na, er ist ja groß genug und muß eben unterwegs gut aufpassen.</i> (ED)	El niño es ya bastante mayorcito y no se perderá por el camino. (ED-es)	Mutikoa nahiko koxkortua dago eta ez da bidean galduko. (ED-eu)
9. <i>"Wenn er hier nicht mit mir reden kann", sagte die Frau Bartolotti, "dann werde ich eben draußen mit ihm reden!"</i> (KND)	–Si no puede hablar conmigo aquí –dijo la señora Bartolotti–, <i>tendré que</i> hablar con él fuera. (KND-es)	–Nirekin hemen ezin badu hitz egin –esan zuen Bartolotti andereak–, kanpoan <i>hitz egin beharko</i> dinat berarekin. (KND-eu)

Ja partikularekin egin dugun moduan, itzulpenek jatorrizko partikularen ñabardura jasotzen duten ala ez jakiteko, jatorrizko esaldia partikula eta guzti nahiz gabe irakurri dugu hainbat aldiz, partikulak gaineratzen duen funtzio pragmatikoa zein den hobeto ulertzeko.

Aurreneko adibidean, esaterako, familia norabait joatekotan da, baina umeetako bi komunean daude, eta ez dirudi atera nahi dutenik ere. Horregatik esaten du aitak *sollen sie eben drin bleiben!*. *Eben* partikularik gabe euskarazko itzulpena bera genuke emaitza gisa, baina partikulak hain zuzen gaineratzen duena aitaren aldar-teari buruzko informazioa da: bost axola zaiola hor barruan gelditzen badira eta hor konpon.

Bigarren adibidean, Jasper horrelakoa dela eta hori onartu beharra dagoela adierazten du partikulak.

Hirugarren adibidean, esaterako, zalantzak izan genituen partikularen esanahia jasotzen den ala ez erabakitzeko, euskaraz *baina* gaineratzen baitu itzultzaileak. Dena den, hori ez da jatorrizko partikulak gaineratzen dion esanahia. Adibidean, lanera

beste norabait alde egin duen lagun bati buruz ari dira hizketan; batek galdetzen dio besteari ea badakien lagunak alde egin duela beste batzuekin lan egiteko, eta adibideko esaldia da erantzuna: baietz, eta, hain zuzen ere, ataka gaiztoan utzi dituela gainerakoak. *Baina* kontzesiboak ez du, hain justu, jatorrizkoaren tonua jasotzen. Bestalde, *aho bete hortzekin* uztea ez litzateke *im Stich lassen* esapidearen itzulpen zehatza.

Laugarren adibidean ere ez da jaso pertsonaiaren etsipen tonua, baina, horretaz gain, esaldi horretan bertan itzultzaileak *verlegen* adberbioa itzultzean ez duela guztiz asmatu ikusi dugu. *Verlegen* hitzak *bere buruaz lotsaturik* esan nahi du, eta ez, hain justu, *aztoraturik*. Hirugarren adibidean bezala, adibide honetako itzultzailea Mendiguren da. *Ja* partikularen kasuan ikusi dugu WO liburuaren itzulpena ez zetorrela guztiz bat jatorrizkoarekin, eta, hain zuzen ere, gaztelaniazko bertsioari jarraitzen ziola euskarazkoak. Kasu honetan ere, beraz, gaztelaniazko bertsioan egin dugu kontsulta, adibide honetan ere itzultzaileak gaztelaniazko bertsioari jarraitu dion jakiteko. Hona hemen hiru bertsioak elkarren ondoan:

Taula 55. Interferentzia posiblea *ebenen* zuzeneko itzulpenean.

Sorburu-testua	Gaztelaniazko bertsioa	Xede-testua
<i>"Ich kann's eben nicht anders ausdrücken", sagte Tünnes verlegen.</i> (WO)	–No lo sé decir de otra manera –dijo Tünnes desconcertado. (WO-es)	–Ez dakit beste era batera esaten –esan zuen Tünnesek aztoraturik. (WO-eu)

Gaztelaniazko *desconcertadok* euskarazko *aztoraturik* eragin duela pentsa genezake, eta horrela azalduko genuke, euskarazko bertsioa jatorrizkotik aldenitu izana. WO-eu itzulpenaren kasuan (printzipioz zuzenean egina), beraz, eta ikusitakoak ikusita, egiaztatuta gelditzen da gaztelaniazko bertsioa ere izan duela eta, zenbaitetan gutxienez, hari jarraitu diola, jatorrizkoari beharrean.

Zeharka itzultitakoei dagokienez, gaztelaniazko bertsioei jarraitu diete itzultzaileek. Zazpigarren adibidean, adibidez, gaztelaniazko bertsioak esaldi kausala eraiki du. Eztabaidagarria izan daiteke gaztelaniazko *porque* kausalak partikularen ñabardura jasotzen laguntzen duen, baina euskarazko *gutxi daukagulako, noski* esaldia are gehiago urruntzen da jatorrizko tonutik. Jatorrizkoak adierazi nahi du diru gutxi dutela eta hor ez dagoela ezer egiterik, eta euskarazkoak esaldi kausala indartzen du.

Zortzigarren adibidean ere, gaztelaniazkoak eragindako aldaketak errepikatzen ditu euskarazkoak. Jatorrizkoak dio Emil nahikoa heldua dela eta ez zaiola bere burua zaintzea beste erremediorik gelditzen. Gaztelaniaz eta, beraz, euskaraz hartzen duen esanahia desberdina da.

Bestalde, partikula jaso gabekoen taldean sartu ala ez, zalantza eragin diguten adibide batzuk aurkitu ditugu. Azkenean, jaso gabekoen taldean sartu ditugu eta aurreko adibideetan ere bildu ditugu horietako bi: seigarren eta bederatzigarren adibideak dira. Adibide horietan, *behar* aditz laguntzailea geroaldian erabili da, eta gure zalantza zen ez ote duen egitura horrek hizlariaren nolabaiteko etsipena adierazten (gaztelaniazko *tendré que*), eta, beraz, ez ote duen balio *eben* partikularen ñabardura jasotzeko.

Zalantza argitzearren, gure corpusean bertan bilaketa gehiago egitea erabaki dugu, hain zuzen ere, euskaraz *beharko* bilatu eta corpusak erakusten dituen adibideei erreparatuz, egitura horrek partikularen bati erantzuten dion ala bestelako erabilera bati erantzuten dion jakiteko. Bilaketak emaitza asko eman ditu, eta, egia esan, oso gutxitan kointziditu du *eben* partikularekin. Hona hemen pare bat adibide:

Taula 56. Behar aditzlaguntzailea geroaldian, *eben* itzultzeko beharrik izan gabe ere.

Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
"Jetzt muß ich Rosinenbrötchen auf meine Briefe kleben!" (28LG)		"Hemendik aurrera, mahats-pasa opilak jarri beharko ditut gutunazaletan!" (28LG-eu)
"Wir müssen warten, bis Nickel wieder rauskommt" (DASH)	-Tenemos que esperar hasta que vuelva a salir Noriega. (DASH-es)	Noriega irten arte itxaron beharko dugu. (DASH-eu)

Bi adibide hauek aurkitu ditugunetako batzuk baino ez dira. Euskaraz *aditza* + *behar aditza laguntzailea geroaldian* egitura erabiltzen da, jatorrizkoan partikularik egon gabe ere. Are, gaztelaniaz *tendré que* egitura egon gabe ere, askotan agertu zaigu euskaraz. Beraz, ez dugu uste gure corpuseko adibide horietan *eben* partikulak eraginda erabili denik egitura hori.

Hona hemen *eben* partikula nolabait jaso dutenen adibideak:

Taula 57. Eben itzultzeko estrategiak. Esapideak.

Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
<i>Was mir gehört, gehört eben</i>	Lo que es mío, es mío,	Nirea dena nirea duk, eta

<i>mir, auch wenn's in einer fremden Tasche steckt!</i> " (ED)	aunque esté en el bolsillo de otro. (ED-es)	kito ; baita beste baten poltsikoan badago ere. (ED-eu)
--	---	--

Tira bezalako esapideak hizlariaren etsipena adierazten duelakoan gaude, jatorrizkoan gertatzen den moduan.

Taula 58. Eben itzultzeko estrategiak. Partikula.

Sorburu-testua	Xede-testua
"Das müssen die eben zahlen!" (LD)	– Ba , ordaindu egin beharko dute! (LD-eu)

Ba(da) partikula lau aldiz erabili da *eben* partikularen funtzioa itzultzeko. Aurreko adibidean, *behar* aditz laguntzailea geroaldian dago erabilita, baina ez dugu horregatik erabaki *eben* partikula jasotzen duenik, baizik eta hasierako *ba* partikularengatik.

Taula 59. Eben itzultzeko estrategiak. Lokailua.

Sorburu-testua	Xede-testua
"Ich bin manchmal eben ganz schön doof" (EL)	– Izan ere , ni batzuetan mozoloa naiz goitik beheraino. (EL-eu)

Izan ere lokailuak mozoloa izatea sahiestezina dela adieraz lezake, nolabait.

Taula 60. Eben itzultzeko estrategiak. Kausala.

Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
"Er ist eben müde geworden." (ED)	– Es que debía de estar muy cansado. (ED-es)	–Oso nekatuik egongo zen eta . (ED-eu)


Lehen esan badugu ere egitura kausalak ez duela guztiz *eben* partikularen funtzioa islatzen, iruditzen zaigu aurrekoa bezalako kausalen funtzioa gehiago dela funtzio ilokutiboa betetzearena, aurretik esandakoarekin lotura egitearena.

Taula 61. Eben itzultzeko estrategiak. Ezezkoa.


Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
<i>Na ja, das ist eben eine Notiz von zwanzig Zeilen.</i> (PA)	«Muy bien, sólo es una noticia de veinte líneas». (PA-es)	«Oso ondo, hogeit hamar albiste baino ez da ». (PA-eu)

Aurreko adibideko jatorrizkoak adierazten du garbi dagoela paper zati hori hogeit hamar albiste bat dela, ez gehiago, ez gutxiago. Egia esan, ezezkoaren erabilerak esaldia nolabait gutxietsi egiten badu ere, uste dugu adierazi lezakeela, baita ere, bistakoa dela paper zati hori albiste bat dela.

Orain arte, beraz, *eben* partikula itzultzeko erabili diren estrategiak ikusi ditugu. Orain, ordea, jasotako emaitzak bereizi egingo ditugu: zuzeneko itzulpenetan eta zeharkako itzulpenetan gertatutakoa bereizita baloratzeko. Hona hemen bi eskemak, goian zuzeneko itzulpenei dagokiena eta, behean, zeharkakoei dagokiena:



Irudia 62. *Eben itzultzeko* estrategiak zuzeneko itzulpenetan.



Irudia 63. *Eben itzultzeko* estrategiak zeharkako itzulpenetan.

Aldea oso handia ez bada ere, zeharkako itzulpenetan zuzenekoetan baino % 7 gehiago jaso da. Gogora dezagun *ja* partikularen kasuan aldea are txikiagoa zela, % 1ekoa, hain zuzen

ere. Gainera, *ja* partikularen kasuan, % 1eko alde hori zuzeneko itzulpenen aldekoa zen. Beraz, kasu horretan, ez dirudi ondorio garbirik atera daitekeenik partikularen itzulpena noiz jasotzen den gehiago, zuzenean ala zeharka itzultzen denean. *Eben* partikularen kasuak behintzat erakutsi digunez, zubi-bertsioak bai eragin du partikula maizago jaso dadin.

Dena den, partikularen itzulpena jasotzeaz harago, interferentzia kasuak ere sumatu ditugu zeharkako kasu horietan, eta horiei erreparatuko diegu orain:

Taulara 62. Eben partikularen itzulpenak aztertuz aurkitutako zenbait interferentzia.

Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
1. "Dann muss ich mir <i>eben etwas anderes überlegen!</i> ", sagte die Julia. (JJJ)	–¡Ya se me ocurrirá otra cosa! –concluyó Julia. (JJ-es)	–Izango dut, bada , beste ideiarekin bat! –amaitu zuen Maddik. (JJJ-eu)
2. "Dann wirst du dich <i>eben chemisch reinigen, liebes Kind</i> ", sprach sie zu ihrem Spiegelbild und holte einen Wattebausch und eine große Flasche aus dem Badezimmer. (KND)	–¡Pues te lavarás en seco ahora mismo, criatura! –dijo a su imagen en el espejo y cogió un trozo de algodón y un frasco grande del armario del cuarto de baño. (KND-es)	–Bada lehorrean garbitu beharko dun oraintxe, ume! –esan zion bere irudiari ispiluan eta kotoi pusketa bat hartu zuen eta bainugelako armairutik ontzi haundi bat. (KND-eu)
3. Das sind <i>eben böse Kinder</i> , dachte sie. (KND)	Esos son, sencillamente , niños malos. (KND-es)	Horiekin ditun, bestarik gabe , haur gaiztoak. (KND-eu)
4. "Und weil die <i>Umschulung sehr schnell gehen muss, müssen wir eben zu außergewöhnlichen Mitteln greifen...</i> " (KND)	–Y como la reeducación tiene que ir muy rápida hay que emplear incluso los métodos extraordinarios... (KND-es)	–Eta berreziketarik oso arin joan behar duenez erabili behar dituk baita aparteko moduak ere... (KND-eu)

Aurreneko adibidean, interferentzia euskarazko esaldiaren egitura osoan dagoela iruditzen zaigu. Adibide horretan, neskak ez du eskolara joan nahi, eta bere lagunak eskolara deitzeko asmoa du, neskaren amaren ahotsa jarritz. Probak egiten ari dela, neskak berak ikusten du hori ez dela ondo irtengo eta, beraz, *izango dut, bada, beste ideiarene bat!* esaten du. Zubi-bertsioaren kalko zuzena da, eta ez da batere sinesgarria egiten.

Bigarren adibidean, gaztelaniazkoak *lavar en seco* itzultzen du *chemisch reinigen* [produktu kimikoak erabiliz garbitu], eta euskarazkoak haren testu-interferentzia jasotzen du. Gauza bera gertatzen da esaldiaren amaierako *ume!* itzultzerakoan ere, gaztelaniazko *criatura!*k eragin baitu.

Hirugarren adibidean, *eben* partikularen itzulpenak eragin du interferentzia. Euskarazkoak hitzez hitz itzuli du gaztelaniazkoa.

Azkenik, laugarren adibidean, *berreziketa* eta, batez ere, *aparteko moduak* hitzek erakusten dute gaztelaniaren interferentzia.

Eben partikulari dagozkion emaitza horiek guztiak *halt* partikularekin batera eman nahi genituzke, hala ere. Ikusi dugu bi partikulak baliokideak direla. *Halt* partikulari dagokionean, ez dugu *ebenekin* bezalako sailkapenik egin behar izan, *halt* guztiak baitira moduzko partikula gisa funtzionatzen duen *eben* partikularen parekoak (*halten* aditzaren aginterazko formaren bigarren pertsona singularra da homonimo bakarra, baina kasu hori erraza da oso bereizten). *Halt* partikularen agerpen oso gutxi daukagu corpusean, zehazki, 38. Agerpen guztiak aztertuta, partikularen itzulpena 32 aldiz utzi da jaso gabe (kasuen % 84 da hori) eta 6 aldiz jaso da itzulpena (kasuen % 16). *Halt* partikulan

ere, beraz, % 84koa da partikula jaso gabe uzteko estrategiaren erabilera: gainerako partikulen proportzio berbera edo oso antzekoa.

Bestalde, testu-interferentzia bat topatu dugu zeharkako itzulpenetan:

Taula 63. *Halt* partikularen itzulpena aztertzean sumatutako interferentzia zeharkakoetan.

Sorburu-testua	Zubi-bertsioa	Xede-testua
<i>Ich -siehst du- bin halt nur eine Wochentags-Omama</i> (DOA)	Yo, ya lo ves, no soy más que una abuelita de cada día. (DOA-es)	Ni, ikusten duzunez, ez naiz eguneroko amona besterik. (DOA-eu)

Aurreko adibide horretan, bide batez esan behar da, *halt nur* partikula bikoitzaren itzulpena jaso egin da, *no soy más que* edo *besterik ez naiz* itzulita. Testu-interferentzia, ordea, *eine Wochentags-Omama* terminoaren itzulpenean gertatu da, gaztelaniaz gaizkiulertu bat gertatu baita, eta, beraz, gaizkiulertu hori errepikatu egin da euskarazkoan: DOA liburuko pertsonaiak ez dauka, berez, amonarik, eta, horregatik, asmatu eta irudikatu egiten du bat; egun batean, ordea, bizilaguna ezagutuko du, amona bat, eta hark esandakoa da adibideko esaldia: astegunetako edo aste barruko amona dela bera, *Wochentag* hitzak astelehenetik ostirala bitarteko egunak adierazten baititu. Gaztelaniaz, berriz, ez dute ulertu astelehenetik ostirala bitarteko egunena, eta egunerokoa dela itzuli dute, *de cada día*. Euskaraz, jakina, gauza bera errepikatu da. Hau da, euskal itzultzaileak, berez, ondo itzultzen du, zubi-bertsioa baita haren jatorrizkoa, baina horrek

guztiak agerian uzten du tarteko bertsio bat erabiltzeak horrelako testu-interferentziak eragin ditzakeela.

Baina, zeharkakoetan ez ezik, zuzenekoetan ere interferentzia zantzuak sumatu ditugu pare bat kasutan, eta, horregatik, liburu horien gaztelaniazko bertsioak ikustera jo dugu. Hara hemen bi kasuak:

Taula 64. *Halt* partikularen itzulpena aztertzean sumatutako interferentzia zuzenekoetan.

Sorburu-testua	Gaztelaniazko bertsioa	Xede-testua
1. "Dann soll er sich halt ein <i>Atelier mit Oberlicht mieten</i> ", bemerkt der Herr <i>Kapellmeister sehr treffend und ahnt nicht, daß er genau dahin steuert, wohin Lotte ihn haben will.</i> (DDL)	–Bien, entonces debe alquilar un estudio que tenga luz indirecta –aconseja el maestro con gran tino, sin darse cuenta de que va directamente al terreno donde Carlota quiere conducirle. (DDL-es)	–Arazoak orduan konponbide erraza dauka. Goitik datorkion argidun estudioa alokatu behar luke –adierazi du Palfy konposatzaileak. Ez daki baina Lottek ere horixe nahi duela. (DDL-eu)
2. "Der Herr Exgemahl wird sich halt dreinfügen müssen ". (DDL)	[...], entonces el señor ex marido tendrá que tener paciencia. (DDL-es)	[...], zure senar ohiak pazientziaz jokatu beharko du orduan. (DDL-eu)

Aurreneko adibideak erakusten duenez, euskarazkoak ez dio, nahitaez, gaztelaniazkoari jarraitu; are, ezinezkoa dirudi *luz indirecta* terminoak *goitik datorkion argia* terminoa eragin izana. Kasu horretan, argi dago alemanezko bertsiotik abiatu dela itzultzailea (*Oberlicht* hitzaren hitzez hitzeko itzulpena delako). Bigarren adibideak, ordea, agerian uzten du itzultzaileak gaztelaniazko bertsioa kontsultatu duela, horrek argitzen baitu

nondik atera den *pazientzia* hitza. Gogoratu behar dugu sumatu dugula, iseken eta madarikazioen itzulpenen azterketa egitean, interferentzia zantzuren bat DDL-eu itzulpen berari dagokionez (38. taula).

Beraz, azken zati honetako adibideek erakusten digutenez, ustez zuzenean itzulitako lan batzuek ere gaztelaniazko bertsioa kontsultatzen dute, eta, beraz, zuzeneko itzulpena ez da guztiz zuzenekoa. Ondorioz, zeharkako itzulpenetan ez ezik, ustez zuzenean egindakoak ere jaso dezakete interferentzia.

9.2.7 *Ondorioak*

Hasteko, atera dugun ondorio nagusietako bat izan da estrategiarik erabiliena partikularen ñabardura ez jasotzea izan dela. Hala erakutsi digute hiru partikuleteko datuek (*jaren* kasuan % 84 gelditu da jaso gabe, *ebenen* kasuan % 83 eta *halten* kasuan %84). Zenbaki horiek ikusita, estandarizazioa ondoriozta dezakegu dagoeneko. Dena den, fenomeno hori ez da euskararako itzulpenetan soilik gertatzen. Vuralek egiten duen partikula turkiarren eta alemanen arteko erkaketan irakurri dugunez, partikula alemanen % 44 baino ez da turkierara itzultzen (Vural, 2000: 208). Prüferrek dioenez, bere corpusean dauden 90eko hamarkadan egindako bi itzulpenetan moduzko partikulen % 50 jasota gelditzen da, baina 80ko hamarkadako itzulpenetan, berriz, portzentaje hori % 20-25 bitartera jaisten da:

Estas traducciones [90eko hamarkadakoak] se encuentran entre las más recientes y se observa, de cierta manera, el logro de la investigación de partículas y su influencia en la lexicografía y la enseñanza de idiomas, que apenas ha comenzado a dar resultados en los últimos años (Prüfer 1995: 241).

Baliteke gaztelaniarekin gertatu den hori euskaraz ere gertatzea: material eta ikerketa gehiago egin ahala, moduzko partikulak bezalako xehetasunak gehiago kontuan hartzea. Oraingoz garbi dagoena da moduzko partikulen ñabardurak ez direla gehienetan jasotzen. Horrek HGLaren itzulpenetako hizkuntzaren estandarizaziora garamatza.

Azpimarratu nahi genuke, gainera, helburua ez dela partikulak jasotzen dituzten itzulpenak bilatzea, hizkuntza bakoitzak bere baliabideak eta ezaugarriak baititu, eta, itzulpenek, hain zuzen ere, desberdintasun horiek uzten dituzte agerian. Prüferrek erabilitako ikuspegiari koska hori atera diezaiokegu: alegia, partikulen ñabardura ez jasotzea akats gisa hartzen du, eta ez du hizkuntza bakoitzak duen pragmatika desberdina kontuan hartzen. Berriz ere Vuralek ateratako ondorioekin erkatu nahian, egile turkiarrak dio turkierak badituela funtzio ilokutibo hori betetzen duten baliabideak, nahiz ez datozen guztiz bat alemanezko partikulekin:

Die einzelsprachliche Analyse der auf der Grundlage des Korpus ermittelten türkischen Äquivalente hat gezeigt, dass das Türkische unterschiedliche Mittel zur Realisierung von abtönenden Funktionen aufweist. Diese können jedoch kaum mit den Abtönungspartikeln des Deutschen gleichgesetzt werden [...] (Vural, 2000: 209).

Azterketa honetan ikusi dugunez, euskaraz ere egon badaude moduak alemanezko moduzko partikulen ñabardurak jasotzeko. Kontua da, ordea, horiek baliatzen diren azkenean; eta, ikusi dugunez, ez gehiegi.

Bestalde, zuzeneko eta zeharkako itzulpenak erkatuta, ez dugu alde handirik sumatu itzulpen estrategiei dagokienean, nahiz eta

eben partikularen kasuak erakutsi duen, baietz, zeharkakoetan % 7 gehiago jaso dela partikularen itzulpena, eta horrek erakus lezake zubi-bertsioak zenbaitetan eragin dezakeela partikulen itzulpena gehiago jasotzea. Horrek zubi-bertsioak xede-testuan duen eragina aztertzea eraman gaitu. Izan ere, zubi-bertsioak emandako itzulpena bere horretan manten dezake euskarazkoak ala ez; edota gaizkiulertuak sor litezke. Horrek interferentziaren fenomenora garamatza.

Izan ere, atal honetan interferentzia kasuak sumatu ditugu zeharkako itzulpenetan baina baita zuzeneko itzulpenetan ere. Hain zuzen ere, ikusi dugu WO-eu itzulpenak gaztelaniazko bertsioari jarraitu diola behin baino gehiagotan, eta DDL-eu itzulpenean ere sumatu dugu gaztelaniazko bertsioa kontsulta gisa erabili izanaren zantzurik. Itzultzaile desberdinek egindako lanak dira, eta, beraz, gaztelaniazko bertsioa kontsulta gisa erabiltzearena ez da kontu isolatua.

10

Azken ondorioak

Ikerketa-lan honek alemanetik euskararako HGLaren itzulpena zuen gai nagusi. HGLaren itzulpenak euskara bezalako hizkuntza gutxitu batean hartzen dituen berezitasunak aztertu nahi izan ditugu, baita alemana eta euskararen arteko itzulpen-konbinazioan sakondu ere.

Alemanetik euskaratutako HGL-lanez osatu dugun katalogoak erakutsi digunez, HGL alemanak hasieratik izan zuen presentzia euskal literatur sisteman, gure katalogoko lehen lana 1929koa baita. Hala ere, gertaera historikoak gorabehera, 80ko hamarkadatik aurrera sistematizatuko da itzulpen- nahiz argitalpen-dinamika, euskal hezkuntzaren eta euskara hizkuntzaren beraren beharrei hertsiki lotuta. Bestalde, katalogoaren deskribapenetik atera ahal izan dugun beste ondorio bat da gurera iristen dena HGL alemanaren printza bat baino ez dela. Izan ere, hirugarren atalean argi gelditu zaigunez euskal HGL-sistema eta HGL-sistema alemana deskribatu ditugunean, sistema biek ez dute inolako zerikusirik, eta guregana iristen dena, beraz, HGL alemanaren ekoizpen zabala bahe estu batez iragazi ostean gelditutako lanak

dira. Ikusi dugunez, gaztelaniazko merkatura iritsitako lanetako batzuk izan ohi dira Euskal Herriko merkatura iristen direnak, eta horrek esan nahi du hasiera-hasieratik daudela bi merkatuak eta bi literatur sistemak elkarren artean tratuan: gaztelaniazkoa eta euskarazkoa. Elkarren arteko tratua eta harremana, gainera, euskal gizartean bertan gertatzen da, euskal gizartean bertan bizi baitira bi hizkuntzak eta bi literatur sistemak, euskararen egoera diglosikoa izanik. Horrek guztiak eragiten du itzultzeko moduan, eta horren inguruko ondorioak ere atera ahal izan ditugu katalogoaren bidez.

Itzultzaile gutxi dira modu jarraian ibili direnak HGL alemana euskaratzen, eta hori estuki lotuta dago zeharka itzultzeko praktikarekin, nagusiki zeharka itzuli baita, hau da, gaztelaniazko bertsioetik abiatuta. HGL generoak duen estatus baxua gogora ekarrita, HGLan zeharkakotasunak onarpen handiagoa izan lezakeela ondorioztatzen dugu. Nolanahi den, zuzeneko/zeharkako itzulpen-binomioak katalogoa aztertzeo balio ahal izan digu, eta ikusteko, HGLaren itzulpenari dagokionez, argitaletxeen jokabideak zein bilakaera eman duen. Izan ere, makroazterketak eta mikroazterketak erakutsi digutenez, biko sailkapen hori zalantzarria da askotan.

Zalantzak sortzen dira, hain zuzen ere, paratestuei berei erreparatuta: berariaz ez da inoiz aitortzen zeharka itzuli denik, itzulpeneko kredituetan zeharkako itzulpena dela edota jatorrizko alemanezkoa beharrezan gaztelaniazko izenburua jarritz, esate baterako. Zeharkakotasuna aitortzeko modu bat egile-eskubideen jatorriak sala lezake, baina hori Espainiako argitaletxeen euskal adar gisa lan egiten dutenek baino ez dute aitortzen, egile-eskubideak Espainiako argitaletxeei dagozkiela alegia. Euskal

argialetxe gehienek kasuan, berriz, ezkutatu egin da informazio hori. Ez da euskararena kasu isolatua, gogoratu behar baitugu Fischerrek katalanerako itzulpenetan antzeko praktikez ohartarazten duela (Fischer, 2002: 43). *Ezkutuko zeharkako itzulpenen* fenomenoaren litzateke (Domínguez, 2008: 179).

Bestalde, corpusari egindako makroazterketak berak agerian utzi du, hasiera-hasieratik, zeharka egindako itzulpenetan gaztelaniazko bertsioekiko paralelismoak badirela; espero izatekoa zena, bestalde. Ondorio ugariagoak eta, aldi berean, zehatzagoak, mikroazterketaren ostean atera ahal izan ditugu, iseken eta madarikazioen eta *ja* eta *eben/halt* alemanezko moduzko partikulen azterketa egin eta gero.

Estandarizazioaren fenomenoaren orokorra dela ikusi dugu, nola iseken eta madarikazioen itzulpenean nola moduzko partikulen itzulpenean. Touryk proposatutako legea, beraz, maila altuan bete da gure azterketan: iseken eta madarikazioen kasuan, tonuaren estandarizazioa nabarmen gelditu da –sintaxian eta semantikan gertatutako aldaketak baino nabarmenago–, eta moduzko partikulen itzulpenean are nabarmenagoa da estandarizazioa. Estandarizazio maila altu horrek adieraziko luke, Touryren estandarizazioaren legearen arabera (Toury, 1995: 271), xede-sistema bazterrekoa dela.

Hala ere, iseken eta madarikazioen itzulpenen azterketan, estandarizazioaren legeri dagokionez, ñabardura batzuk aurkitu ere aurkitu ditugu ustez zuzenean eta zeharka itzulitako testuen artean: zeharka itzulitako testuetan, areago gertatu da estandarizazioa; eufemizazio kasu gehiago izan ditugu. Halaxe

erakutsi du, esate baterako, *dumm* eta *blöd* isekentzat zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenek eman dituzten baliokideen erkaketak: zuzeneko itzulpenek baliokide gehiago ematen zituzten; zeharkako itzulpenek emandako baliokideak, berriz, gutxiago ziren. Euskarazko baliokide ugari eta anitzak erabiltzea sorburu-testuak duen tonuari gerturatzeko ahalegin gisa ikusten dugu, eta, alde horretatik, egokitasun pragmatikoa jasotzeko saiakera egiten dela esan genezake. Hala, neurri batean Touryk aipatzen duena gurean ere gertatzen dela esan genezake: zuzeneko itzulpena egiten denean, gehiago jotzen da egokitasunera; zeharkako itzulpena egiten denean, berriz, gehiago jotzen da onargarritasunera (Toury, 1995: 60). Hala eta guztiz ere, ez genuke ahaztu nahi estandarizazioa oso maila orokorrean ikusi dugula gure ikerketa honetan, besteak beste, ustez zuzenean egindako itzulpenek zeharkakotasun maila jakin bat erakutsi dutelako, baita interferentzia mota desberdinak ere. Horrek guztiak adierazten du onargarritasunaren aldeko joera orokor bat dagoela, eta, era berean, berretsi egiten du itzulpen-jarduna sistemaren erdigunean kokatzen dela (Even Zohar, 2010).

Bestalde, estandarizazioaren fenomenoak zuzenki dago HGLko elkarrizketa fikzionatuarekin lotuta. Izan ere, elkarrizketa fikzionatuaren helburua errealitateko ahozkotatasuna HGL-lanetan modu ahalik eta sinesgarrian islatuta uztea bada ere, gure lanean sumatu dugun estandarizazioak zuzenean egiten dio kontra helburu horri. Euskara hizkuntza diglosikoa izanik eta beraren normalizazio prozesua artean oso gaztea izanik, badirudi euskal itzultzailea ez dela guztiz aske euskaraz elkarrizketa fikzionatu hori ahozko errealitatera gehiago gerturatzeko, besteak beste,

ahozko errealitatean gaztelania ere badagoelako nahastuta (Esnaola, 1999: 31), eta horrek hizkuntzaren normalizazioari egingo lioke kontra. Izan ere, euskaraz ez da hain maiz gertatzen gazteek hizkera estandarra deseraikitzea, eta, horren partez, ondoko hizkuntzetara jotzen dute gazte-hizkerako elementuen bila; baliteke horregatik ez onartzea euskara estandarrak euskal gazteen hizkera: euskaratik sortua baino, inguruko hizkuntzekin nahastua delako. Hala, euskal itzultzailea hizkuntzaren normalizazio-prozesuaren esanetara dago oraindik orain, eta askatasun txikia gelditzen zaio *literatur berridazle* izan nahi badu. Hori horrela izanik, euskal itzulpengintzan gabiltzanok gogoan izan beharko genuke sortzen dugun hizkuntza-eredua arrotza gerta dakiokela nahitaez fidela ez den euskal irakurle askori. Bi jarreraren arteko oreka bilatzea izan liteke kontua: hizkuntza kanonikoa erabili eta testu garbiak sortu, jakin arren irakurlea, beharbada, uzkur geldituko dela; ala eguneroko kaleko errealitatera gerturatu, jakinda argialetxeen eta hizkuntzaren munduko jende askoren desadostasuna sor dezakeela horrek. Bi arauen arteko talka ere islatzen du afera horrek: onargarritasunaren alde egiten den ala egokitasunaren alde. Elkarrizketa fikzionatua ez dago normalizatuta, eta berori osatzea eta garatzea are konplexuagoa da, gainera, hizkuntza gutxituen kasuan.

Interferentziaren legeari dagokionez, O'Sullivanek itzultzaile implizituaren ahots gisa definitzen duen hori, gurean modu bikoitzean gertatzen dela ondorioztatu ahal izan dugu: euskal gizarteak bizi duen egoera elebidun diglosikoaren eraginak dira. Izan ere, zeharkako itzulpenetan gaztelaniaren interferentzia sumatu dugu, baina baita zuzeneko itzulpenetan ere. Gurean

bezala bi hizkuntza eta bi literatur sistema batera bizi diren egoera batean, etengabea da interferentzia, eta, sorburu-testu gisa erabiltzen den testutik ez ezik, itzultzeko erabiltzen diren hiztegi eta bestelako kontsulta-baliabideetatik edota, are, itzultzailearen burutik bertatik dator interferentzia. Euskal itzultzailearen kasuan, itzultzaile inplizitua bikoitza baita, elebiduna, eta ahots bikoitz hori sumatu egin da, maila desberdinetan, testuetan.

Hala, egiaztatu izan dugunez, itzultzaileek ustez zuzenean itzultzen dutenean ere, zubi-bertsioa erabili erabiltzen dute, gehienetan, kontsulta gisa, eta hori mikroazterketan egiaztatu ahal izan dugu, interferentzia zantzuei jarraika gaztelaniazko bertsioak begiratu ditugunean. Hala, zuzeneko eta zeharkako itzulpenen arteko muga hain argia ere ez da izaten beti.

Ondorioz, eta ikerketa-lan honetan ikusitakoak ikusita, hauxe da itzulpen ikasketa deskribatzaileei egin nahiko geniekeen ekarpena:

Touryk itzulpenari egokitzen dion ustezko izaera (*assumed translation*) hedatu egin dugu gure lanak eskatzen zuenari erantzunez. Izan ere, gure ikerketak berretsi duenez, ustezko zuzeneko itzulpena eta ustezko zeharkako itzulpena kategoriak beharrezkoak dira (*assumed direct / indirect translation*). *Assumed translation* terminoak gure errealitateari bere osotasunean erantzuten ez ziolako zabaldu dugu terminoa.

Era berean, interferentziak berak ere mailak dituela ikusi dugu, eta, beraz, uste dugu ezaugarri hori azpimarratu beharra dagoela: interferentzia ez da fenomeno zurrun bat; mailaketa eta ñabardura desberdinak hartzen ditu, itzulpena sortu den moduaren arabera.

Touryk sorburu-testuaren interferentziaz dihardu, baina itzulpen-prozesuan zubi-testu bat dagoenean tarteko, interferentzia hori *bikoitza* izan ohi da: bi pausotan egiten delako itzulpena, eta, beraz, zubi-bertsioak sorburu-testutik jasotako interferentziak eta, gainera, zubi-bertsiotik jasotzen dituen interferentziak jasotzen ditu xede-testuak. Hala, itzulpen-prozesua hiru pausotan egiten bada (bi zubi-bertsio tarteko), interferentzia hirukoitza izango da etab. Baina, euskararen kasuan gertatzen den moduan, egoera indartsuan dagoen hizkuntzak betetzen badu zubi-bertsio izateko funtzioa (alegia, zubi-bertsioak gaztelaniazko bertsioak izatea), orduan diglosikoa da interferentzia, eta zeharkako itzulpenetan ez ezik, zuzenekoetan ere ager liteke, eta, akaso, baita sortze-lanetan ere. Beraz, ondoan duen hizkuntzak eragindakoa litzateke *interferentzia diglosikoa*. Esan bezala, interferentzia mota desberdinak daudela uste dugu, eta mota bakoitzean, maila desberdinak.

Hala, uste dugu sailkapen-eredu zurrinak ez direla aski errealitatea bere osotasunean deskribatu eta aztertzeko, eta kritiko jokatu behar dela kategoriekin. Ikusi dugunez, zuzeneko eta zeharkako itzulpenen arteko muga ez da erabatekoa, eta ustez zuzenean egin direnak beharbada erdi-zeharka egiten direla ere ikusi dugu. Beraz, biko kategorizazioen artean, bestelako itzulpen-jarduera motak ere sortzen dira, Dollerupek aipatutako *support translation*, adibidez, kontsulta gisa beste bertsio bat erabiltzen den kasuetarako. Hala, gure ustez, itzulpenak ez dira kategorizazio zurrun horien artean modu estatikoan kokatzen, hau da, lerro batean (egokitasuna mutur batean, onargarritasuna bestean; zuzeneko itzulpena mutur batean, zeharkakoa bestean). Gure

ustez, itzulpenak ardatz gisa kokatzen dira, eta espazio dinamiko bat irekitzen dute kategorien artean, maila eta mota desberdinak sortuz. Ondorioz, Hermansek Even-Zoharri eta Touryri egiten dien iruzkinarekin bat egiten dugu: “it [the theory] remains blind to all those ambivalent, hybrid, unstable, mobile, overlapping and collapsed elements that escape binary classification” (Hermans, 1999: 119). Esan bezala, biko kategorizazioak ez dira aski.

Bestalde, itzulpen ikasketa deskribatzaileei baino, honako hau litzateke euskal itzulpen ikasketei eta euskal itzulpengintzari egin nahi izan diegun ekarpena:

Kultura batek bizi duen errealitatea hobeto ulertzen laguntzen dute itzulpen-ikerketek, eta hor kokatzen da gure ekarpena. Hainbat ikertzailek aldarrikatu du hizkuntza gutxituen eremuan egiten den itzulpena ikertu behar dela, besteak beste, ondoko hizkuntzen eraginaz jabetzeko; hori da, esate baterako, Croninek esandakoa (Cronin, 2003: 141). Itzulpen mailan interferentziaren gaia berariaz neurtzeko saiorik, ordea, ez dugu ezagutzen, eta maila horretan egin nahi izan dugu gure ekarpena. Uste dugu euskal literatur sistemaz dugun irudia osatzen lagundu dugula, itzulpen ikasketetatik abiatuta osatu ere. Euskal literatur sisteman HGLak duen pisua azpimarratu nahi izan dugu, eta, HGLaren barruan, itzulpenak duen garrantzia. Ondorioztatu ahal izan dugunez, itzulpen jarduera horretan, eta, oro har, euskal literatur sisteman, gaztelaniazko literatur sistemarekiko harreman estua dago, eta uste dugu euskal itzulpengintzaz eta euskal literatur sistemaz aritzean kontuan hartu behar dela hori guztia.

Uste dugu, baita ere, egiaztatuta gelditu dela zein onura ekartzen dituen adierazgarria den corpus batez baliatuta lan egiteak: ez gara testu jakin bat aztertzer mugatu, eta ondorioz, kasuistika zabal bat jaso dugu emaitza gisa. Egiaztatu ahal izan dugunez, itzulpen moduak askotarikoak dira eta errealitatea konplexua da, baina ondorio horretara corpus zabal bat aztertuz baino ezin gintezkeen iritsi.

Uste dugu lan honen emaitzek argi erakutsi dutela haur- eta gazte-literatura itzultzea ez dela haur-jolasa. Hala, gisa honetako lanek HGLaren itzulpengintzako jarduera kritikoagoa izatea bultzatu beharko lukete, argitaratzaile nahiz itzultzaileek kontzienteago lan egin dezaten.

Ondorio horiez guztiez gain, ordea, ikerketa-lan honek ikerketa-bide berriak ere zabaltu dizkigu.

Hala, osatu ditugun katalogoa eta corpora osatzen jarraienezake, aurrerantzean ere ikertzen jarraitzeko. Katalogoa osatzen jarraitzeak itzulpen-jardueraren berri emango liguke eta, alde horretatik, ezinbesteko tresna da errealitatearen ikuspegi bat izateko. Bestalde, parez pare lerrokatutako itzulpenak tresna oso baliagarriak dira, esate baterako, hizkuntzalaritza kontrastiboari dagozkion azterketak egiteko, alemana-euskara, alemana-gaztelania, gaztelania-euskara edo alemana-gaztelania-euskara konbinazioetan. Lexikografiarako ere ezinbesteko tresna bihur daiteke, alemana-euskara hiztegi gintzarako, kasu.

Era berean, azterketa zehatzagoak egin litezke, eta, esaterako, HGL mota zehatz bakoitzeko ezaugarriak aztertu: album

ilustratuetakoak, haur txikientzako liburuetakoak edo gazte-literaturakoak.

Sortutako materiala aprobetxatu eta garatzen jarraitzeaz gain, egin dugun azterketa beste hizkuntza-konbinaketak erabiliz egin litekeela iruditzen zaigu, ingelesetik euskarara itzulitako HGLa aztertuz, adibidez. Guk lan honetan atera ditugun ondorioak ingelesez itzultzean ere ateratzen ote diren egiaztatzeko.

Bestalde, HGLaren hizkuntza eta, are, interferentzia bera aztertzen jarraitzekoak iruditzen zaizkigu, eta ez soilik itzulpenetara mugatuta, baita sortze-lanak diren HGL-testuetan ere, sortzen dugun hizkuntza-ereduaz hausnartzeak hizkuntzari garatzen laguntzen diolako.

Bibliografia

CORPUSEKO LIBURUAK

Zuzeneko itzulpenak:

- 28LG = Wölfel, U. (1969). *Achtundzwanzig Lachgeschichten*. Düsseldorf: Hoch-Verlag.
- 28LG-eu = Wölfel, U. (2004). *28 ipuin barre egiteko* (itz. Erkizia, L. eta Mujika, I.). Irun: Alberdania.
- AUB = Könnecke, O. (2007). *Anton und die Blätter*. München: Hanser Verlag.
- AUB-eu = Könnecke, O. (2008). *Antton eta hostoak* (itz. Erkizia, L. eta Mujika, I.). Irun: Alberdania.
- DAK = Nöstlinger, C. (1982). *Das Austauschkind*. Weinheim: Beltz & Gelberg.
- DAK-eu = Nöstlinger, C. (1991). *Ingeles bat etxean* (itz. Mendiguren, X.). Lizarra: ELKAR.
- DDL = Kästner, E. (1949). *Das doppelte Löttchen*. Zürich: Atrium Verlag.
- DDL-eu = Kästner, E. (1992). *Lotte eta Luisa, hau bizki pare!* (itz. Narbaiza, A.). Donostia: ELKAR.
- DGM = Ende, M. (1982). *Das Gauklermärchen*. Stuttgart: Thienemann.
- DGM-eu = Ende, M. (1995). *Jojo, pailazo baten historia, zazpi agerraldiko antzerkia, hitzaurrea eta hitzatzearekin* (itz. Mendiguren, X.). Bilbao: Desclée de Brower.

- DGS = Süskind, P. (1991). *Die Geschichte von Herrn Sommer*. Zürich: Diogenes Verlag.
- DGS-eu = Süskind, P. (2007). *Sommer jaunaren istorioa* (itz. Oñederra, L.). Donostia: EREIN.
- DPS = Funke, C. (1999). *Das Piratenschwein*. Hamburg: Dressler Verlag.
- DPS-eu = Funke, C. (2007). *Txerrikume Pirata* (itz. Garikano, A.). Donostia: ELKAR.
- DSG = Lobe, M. (1987). *Das Schlossgespenst*. Würzburg: Arena Verlag.
- DSG-eu = Lobe, M. (1987). *Jauregiko iratxo* (itz. Zabaleta, P.). Bilbo: Ediciones SM.
- EL = Arold, M. (1996). *Einfach nur Liebe*. Bindlach: Loewe Verlag.
- EL-eu = Arold, M. (2004). *Maitasuna besterik ez* (itz. Zabaleta, P.). Donostia: ELKAR.
- FR = Härtling, P. (1989). *Fränze*. Weinheim: Beltz & Gelberg.
- FR-eu = Härtling, P. (1992). *Franze* (itz. Mendiguren, X.). Donostia: ELKAR.
- GNZ = Hassemüller, H. (1989). *Gute Nacht, Zuckerpüppchen*. Hamburg: Ellermann.
- GNZ-eu = Hassemüller, H. (2002). *Gabon, panpinatxo* (itz. Zabaleta, P.). Donostia: ELKAR.
- KHM = Grimm, Brüder. (1812-1815). *Kinder und Hausmärchen*. <http://gutenberg.spiegel.de/buch/6248/1>
- KHM-eu = Grimm, Brüder. (1999). *Grimm anaien ipuinak* (itz. Gomez, G.). Iruña: Pamiela.
- LD = Härtling, P. (1993). *Lena auf dem Dach*. Weinheim: Beltz & Gelberg.
- LD-eu = Härtling, P. (1994). *Lena teilatuan* (itz. Zabaleta, P.). Donostia: ELKAR.
- LOS = Nöstlinger, C. (1985). *Liebe Oma, deine Susi*. Wien: Dachs-Verlag.
- LOS-eu = Nöstlinger, C. (1990). *Amona maite zure Susik* (itz. Zabaleta, P.). Arrigorriaga: SM.
- SK = Sommer-Bodenburg, A. (1991). *Schokolowski, der Geburtstags-Trüffelhund*. Stuttgart: Thienemann.

- SK-eu = Sommer-Bodenburg, A. (1995). *Txokoloski, urtebetetzeko txakur trufazalea* (itz. Azkue, E.) Bilbao: Desclée de Brower.
- STP = Hoffmann, H. (1845). *Der Struwwelpeter*. Frankfurt a. M.: Rütten & Loening.
- STP-eu = Hoffmann, H. (2008). *Peru Tximaluze* (itz. Lange, J. eta Ziemkiewicz, J.). Zeberio: Zertu Kultur Elkartea.
- WFKD = Masannek, J. (2003). *Die wilden Fussballkerle: Deniz die Lokomotive*. Frankfurt: Baumhaus.
- WFKD-eu = Masannek, J. (2010). *Futbolari Basatiak: Deniz Lokomotora* (itz. Rekalde, A.). Bilbo: Gero.
- WDL = Petz, M. (2006). *Was ist das für ein Lärm?* Zürich: Nord-Sud Verlag.
- WDL-eu = Petz, M. (2006). *Zer da zalaparta hau?* (itz. Erkizia, L. eta Mujika, I.). Irun: Alberdania.
- WO = Pausewang, G. (1987). *Die Wolke*. Dillingen: Ravensburger Buchverlag.
- WO-eu = Pausewang, G. (1991). *Hodeia* (itz. Mendiguren, X.). Donostia: ELKAR.
- Zeharkako itzulpenak:**
- 35M = Kästner, E. (1932). *35. Mai oder Konrad reitet in die Südsee*. Zürich: Atrium Verlag.
- 35M-es = Kästner, E. (1979). *El 35 de Mayo* (itz. Fernández-Galiano, P.). Madril: Alfaguara.
- 35M-eu = Kästner, E. (1983). *Maiatzak 35* (itz. Hidalgo, B.). Donostia: ELKAR.
- DASH = Press, H.J. (1965). *Die Abenteuer der schwarzen Hand*. Dillingen: Otto Maier Verlag Ravensburg.
- DASH-es = Press, H.J. (1981). *Aventuras de "la mano negra"* (itz. Sánchez, J.). Madril: Espasa-Calpe.
- DASH-eu = Press, H.J. (1984). *Eskubeltz taldearen abenturak* (itz. Iparragirre, P.). Donostia: ELKAR.
- DKG = Preußler, O. (1966). *Das kleine Gespenst*. Stuttgart: Thienemanns Verlag.
- DKG-es = Preußler, O. (1969). *El pequeño fantasma* (itz. Maluenda, C.). Bartzelona: Bruguera.

- DKG-eu = Preußler, O. (1984). *Fantasmatoxa* (itz. Gartzia, X.). Donostia: ELKAR.
- DKH = Preußler, O. (1957). *Die kleine Hexe*. Stuttgart: Thienemanns Verlag.
- DKH-es = Preußler, O. (1983). *La pequeña bruja* (itz. Maluenda, C.). Bartzelona: Noguer.
- DKH-eu = Preußler, O. (1983). *Sorgin txikia* (itz. Iparragirre, P.). Donostia: ELKAR.
- DKT = Kästner, E. (1949). *Die Konferenz der Tiere*. Zürich: Atrium Verlag.
- DKT-es = Kästner, E. (1982). *La conferencia de los animales* (itz. Seco, C.). Madril: Alfaguara.
- DKT-eu = Kästner, E. (1993). *Animalien Biltzarra* (itz. Ossa, J.). Bilbo: Alfaguara.
- DOA = Lobe, M. (1965). *Die Omama im Apfelbaum*. Wien: Jungbrunnen.
- DOA-es = Lobe, M. (1969). *La abuelita en el manzano* (itz. Pascual, M^a C.). Bartzelona: Editorial Juventud.
- DOA-eu = Lobe, M. (1995). *Amona sagar gainean* (itz. Ormazabal, J.). Donostia: ELKAR.
- ED = Kästner, E. (1929). *Emil und die Detektiven*. Zürich: Atrium Verlag.
- ED-es = Kästner, E. (1967). *Emilio y los detectives* (itz. Fernández, J.). Bartzelona: Juventud.
- ED-eu = Kästner, E. (1991). *Emilio eta detektibeak* (itz. Sarasola, T.). Donostia: ELKAR.
- FSWS = Wölfel, U. (1961). *Feuerschuh und Windsandale*. Düsseldorf: Hoch-Verlag.
- FSWS-es = Wölfel, U. (1963). *Zapatos de Fuego y Sandalias de Viento* (itz. Conill, M.). Bartzelona: Noguer.
- FSWS-eu = Wölfel, U. (1987). *Suzko Zapatak eta Haizezko Sandaliak* (itz. Umerez, N. eta Azpitarte, A.). Donostia: ELKAR.
- HLJ = Knister. (2003). *Hexe Lilli auf der Jagd nach dem verlorenen Schatz*. Würzburg: Arena Verlag.
- HLJ-es = Knister. (2003). *Kika Superbruja en busca del Tesoro perdido* (itz.

- Blanco, R.P.). Madril: Bruño.
- HLJ-eu = Knister. (2004). *Kika Supersorgina altxorraren bila* (itz. Aristondo, I.). Bilbao: Gero.
- JJJ = Nöstlinger, C. (1983). *Jokel, Jula und Jericho*. Weinheim: Geltz & Gelberg.
- JJJ-es = Nöstlinger, C. (1993). *Juan, Julia y Jericó* (itz. Blanco, R.P.). Madril: Alfaguara.
- JJJ-eu = Nöstlinger, C. (1994). *Markel, Maddi eta Maluta* (itz. Navascues, J.). Madril: Alfaguara.
- KND = Nöstlinger, C. (1975). *Konrad oder das Kind aus der Konservenbüchse*. Ulm: Ebner & Spiegel.
- KND-es = Nöstlinger, C. (1979). *Konrad o el niño que salió de una lata de conservas* (itz. Ampudia, M^a J.). Madril: Alfaguara.
- KND-eu = Nöstlinger, C. (1992). *Konrad edo kontserba lata batetik atera zen haurra* (itz. Iturralde, J.). Bilbo: Desclée de Brower.
- PA = Kästner, E. (1931). *Pünktchen und Anton*. Berlin: Dressler.
- PA-es = Kästner, E. (1987). *Puntito y Anton* (itz. Alfonso, E.). Madril: Alfaguara.
- PA-eu = Kästner, E. (1989). *Puntutxo eta Anton* (itz. Legarreta, J.). Bilbo: Alfaguara.
- VKM = Holzwarth, W. (1989). *Vom kleinen Maulwurf, der wissen wollte, wer ihm auf den Kopf gemacht hat*. Wuppertal: Peter-Hammer Verlag.
- VKM-eu = Holzwarth, W. (1999). *Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo*a (itz. Izagirre, K.). Pontevedra: Kalandraka.
- VKM-ga = Holzwarth, W. (1999). *A toupiña que queria saber quién llo fixera na cabeza* (itz. Meyer, F.). Pontevedra: Kalandraka.
- WSM = Grejniec, M. (1993). *Wie schmeckt der Mond?* Zürich: Bohem-Press.
- WSM-eu = Grejniec, M. (1999). *Nola dastatu ilargia?* (itz. Izagirre, K.). Pontevedra: Kalandraka.
- WSM-ga = Grejniec, M. (1999). *¿A qué sabe a lúa?* (itz. Barreiro, C.). Pontevedra: Kalandraka.
- Corpusari lotutako beste bibliografia:**
- DDL-es = Kästner, E. (1957). *Las dos Carlotas* (itz. Guerra, P.).

- Bartzelona: Juventud.
- EL-es = Arold, M. (1997). *Samdra ama a Meike* (itz. Santos, N.). Salamanca: Lóguez.
- FR-es = Härtling, P. (1991). *Fraenze* (itz. Vega, M.A.). Madril: Siruela.
- LOS-es = Nöstlinger, C. (1986). *Querida abuela... Tu Susi* (itz. Terzi, M.). Madril: SM.
- WO-es = Pausewang, G. (1988). *La nube* (itz. Rodríguez, L.). Salamanca: Loguez.

BIBLIOGRAFIA OROKORRA

- Alonso, I. (2010). *Erdigune literarioak irakaskuntzan*. Leioa: EHUko argitalpen zerbitzua.
- Amonarriz, K. (2005). "Gazte hizkeraren egungo egoera eta garrantzia" in *Gazt_hizkera: jardunaldien hitzaldiak eta ondorioak*. Donostia: Urtxintxa eskola. 11-21.
- Androutsopoulos, J. K. (1998). *Deutsche Jugendsprache: Untersuchungen zu ihren Strukturen und Funktionen*. Frankfurt a. M.: Peter Lang.
- Añorga, P. (2011). "Haur-literatura eta ahozkotatua" in *Behinola* 24. 21-29.
- Areta, N., Gurrutxaga, A. eta Leturia, I. (2008). "Begiratu bat corpus baliabideei" in *Bat. Soziolinguistika aldizkaria* 66. 71-92.
- Azegami, T. (1996). *Die Jugendschriften-Warte*. Frankfurt a. M.: Peter Lang.
- Azurmendi, J. (2008). *Volksgesit; Herri gogoa. Ilustraziotik nazismora*. Donostia: Elkar.
- Bajtín, M. (1990). *Literatur und Karneval – zur Romantheorie und Lachkultur*. Frankfurt a. M.: Fischer Taschenbuch.
- Baker, M. (2000). "Towards a Methodology for Investigating the Style of a Literary Translator" in *Target* 12-2. 241-266.
- Barambones, J. (2010). *La traducción audiovisual en ETB-1: Estudio descriptivo de la programación infantil y juvenil*. Bilbo: EHUko argitalpen zerbitzua.
- Barambones, J. (2012a). *Lenguas minoritarias y traducción. La traducción audiovisual en euskera*. Castelló de la Plana: Universitat Jaume I.

- Barambones, J. (2012b). *Mapping the dubbing scene. Audiovisual translation in Basque television*. Berna: Peter Lang.
- Beckett, S. (1999). *Transcending Boundaries*. New York: Garland Publishing.
- Beldarrain, J. (2010). *Alegia klasikoak euskaraz: Isopeteko, La Fontaineren eta Samaniegoren alegien berridazketen azterketa*. Bilbo: EHUko argitalpen zerbitzua.
- Ben-Ari, N. (1992). "Didactic and Pedagogic Tendencies in the Norms Dictating the Translation of Children's Literature: The Case of Postwar German-Hebrew Translations" in *Poetics Today* 13-1. 221-231.
- Bendel, C. (2006). *Baskische Grammatik*. Hamburg: Helmut Buske Verlag.
- Biguri, K. eta Zabaleta, J. (1990). "Pello Zabaletarekin solasean" in *SENEZ* 3. 13-34.
- Börsenverein des Deutschen Buchhandels. (2012). *Buch und Buchhandel in Zahlen 2012*. Frankfurt a.M.: Börsenverein des Deutschen Buchhandels.
- Branchadell, A. (2004). "Introduction: Less translated languages as a field of inquiry" in Branchadell, A. eta West, L. M. (ed.). *Less translated languages*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company. 1-27.
- Calvo, B. eta Yela, F. (1989). "El mito robinsoniano en la literatura infantil inglesa y francesa" in *Encuentro. Revista de investigación e innovación en la clase de idiomas*. 1. 53-62.
- Carpenter, H. eta Pritchard, M. (1984). *The Oxford Companion to Children's Literature*. London: Oxford University Press.
- Castell, A. (2003). *Gramática de la lengua alemana*. Madril: Hueber Verlag.
- Coll-Vinent, S. (1998). "The French Connection: Mediated Translation into Catalan" in Venuti (ed.). *Translation and Minority*. Wiltshire: St. Jerome. 207-229.
- Corpas, G. (2008). *Investigar con corpus en traducción: los retos de un nuevo paradigma*. Frankfurt a.M.: Peter Lang.
- Cronin, M. (1998). "The Cracked Looking Glass of Servants:

- Translation and Minority in a Global Age" in Venuti (ed.). *Translation and Minority*. Wiltshire: St. Jerome. 145-163.
- Cronin, M. (2003). *Translation and Globalization*. Oxon: Routledge.
- Dilidüzgün, S. eta Kurultay, T. (1992). "Emanzipatorische deutsche Kinderliteratur und ihre Übersetzung ins Türkische im Hinblick auf die Kinderemanzipation" in *DIYALOG - Interkulturelle Zeitschrift für Germanistik* 1. 89-105.
- Dollerup, C. (2000). "Relay and Support Translations" in Chesterman, A., Gallardo, N. eta Gambier, Y (ed.). *Translation in Context: selected contributions from the EST Congress, Granada 1998*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamin Publ.
- Dollerup, C. (2003). "Translation for reading aloud" in *META* 48. 81-103.
- Dolle-Weinkauff, B. (2000). "Kinder- und Jugendliteratur der DDR" in Larass, P. (ed.). *Kindsein kein Kinderspiel des Kindes (1900-1999)*. Halle: Verlag der Franckeschen Stiftungen zu Halle. 163-167.
- Domínguez, M. (2008). *Las traducciones de literatura infantil y juvenil en el interior de la comunidad interliteraria específica española (1940-1980)*. Santiago de Compostela: Universidad Santiago de Compostela.
- Engelen, B. (2005). *Aufsätze zur Kinderliteratur*. Frankfurt a.M.: Peter Lang.
- Esnaola, I. (1999). *Gazte euskaldunen arte hizkera hemen eta orain. Zenbait ezaugarriren deskripzio kuantitatibo eta kualitatiboa*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Etxaniz, X. (2011). "Egungo euskal haur eta gazte literatura" in Etxaniz, X. eta Lopez, M. (ed.). *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua.
- Etxaniz, X. (1997). *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Iruña: Pamiela.
- Even-Zohar, B. (1992). "Translation Policy in Hebrew Children's Literature: The Case of Astrid Lindgren" in *Poetics Today* 13-1. 231-247.

- Even-Zohar, I. (2010). *Papers in Culture Research*. Tel Aviv: Tel Aviv University.
- Ewers, H.-H. (2000). *Literatur für Kinder und Jugendliche. Eine Einführung*. München: Wilhelm Fink Verlag.
- Ewers, H.-H. (2002). "Kinder- und Jugendliteratur, Neue Medien und Pop-Kultur" in Ewers, H.-H. (ed.). *Lesen zwischen Neuen Medien und Pop-Kultur*. München: Juventa Verlag.
- Ewers, H.-H. (2003). "Children's Literature Research in Germany. A Report" in Seelinger, R. (ed.) *Children's Literature Association Quarterly (2002-2003)*. Baltimore: The Johns Hopkins University Press. 158-165.
- Ewers, H.-H. (2005). <http://user.uni-frankfurt.de/~ewers/>. Azken kontsulta-data: 2013ko martxoak 20.
- Ewers, H.-H. (2006). "Die Heldensagen der Gegenwart. Die Medienverbundangebote sind die großen Narrationen unserer Zeit" in Garbe, C. eta Philipp, M. (ed.). *Harry Potter, ein Literatur- und Medienereignis in Blickpunkt interdisziplinärer Forschung*. Hamburg: LitVerlag.
- Ewers, H.-H. (2009). *Fundamental Concepts of Children's Literature Research*. New York/London: Routledge.
- Fischer, M. (2000). "Diferencias culturales reflejadas en la traducción de la Literatura Infantil y Juvenil" in Ruzicka, V., Vázquez, C. eta Lorenzo, L. (ed.). *Literatura infantil y juvenil: tendencias actuales en investigación*. Vigo: Servicio de Publicación de Universidade de Vigo. 149-160.
- Fischer, M. (2011). "Hexe Lilli - Kika Superbruja" in *Anuario de investigación en literatura infantil y juvenil* 9. 71-87.
- Fischer, M. (2002). "Übersetzte deutschsprachige Kinder- und Jugendliteratur in Katalonien und im Baskenland" in Ruzicka, V. (ed.). *Kulturelle Regionalisierung in Spanien und literarische Übersetzung Studien zur Rezeption deutschsprachiger Kinder- und Jugendliteratur in den zweisprachigen autonomen Regionen Baskenland, Galicien und Katalonien*. Frankfurt a.M.: Peter Lang.
- Franco, J. (2000). *La traducción condicionada de los nombres propios (inglés-español)*. Salamanca: Ediciones Almar.

- García de Toro, C. (2000). "La traducción de los recursos de oralidad en la narrativa juvenil: una aproximación descriptiva" in Ruzicka, V., Vázquez, C. eta Lorenzo, L. (ed.). *Literatura infantil y juvenil: tendencias actuales en investigación*. Vigo: Servicio de Publicacións da Universidade de Vigo.
- García de Toro, C. (2004). "Translation between Spanish and Catalan today" in Branchadell, A. eta West, L. (ed.). *Less translated languages*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company. 269-289.
- García, M. (2004). "Translation of minority languages in bilingual and multilingual communities" in Branchadell, A. eta West, L. (ed.). *Less translated languages*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company. 105-125.
- Geier-Leisch, S. (1998). *Das neue Schimpfwörterbuch*. Weyarn: Seehamer Verlag.
- Genette, G. (1987). *Seuils*. Paris: Éditions du Seuil.
- Gomez, G. (2004). *Grimm anaien kinder-und hausmärchen euskaraz: itzulpenen eta egokitzen azterketa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- González-Cascallana, B. (2006). "Translating cultural intertextuality in children's literature" in Van Coillie, J. eta Verschueren, W. P. (ed.). *Children's Literature in Translation*. Manchester: St. Jerome.
- Graeber, W. (1991). "German Translators of English Fiction and their French Mediators" in Kittel, H. eta Frank, P.A. (ed.). *Interculturality and the Historical Study of Literary Translations*. Berlin: Erich Schmidt Verlag.
- Gutiérrez, C. (2005). "La labor del equipo TRACE: metodología descriptiva de la censura en traducción" in Merino, R., Santamaría, J.M. eta Pajares, E. (ed.). *Trasvases Culturales: Literatura, cine, traducción*. Bilbo: EHUKo Argitalpen Zerbitzua. 55-65.
- Hatim, B. eta Mason, I. (1992). *Discourse and the translator*. New York/Londres: Longman.
- Helbig, G. (1988). *Lexikon deutscher Partikeln*. Leipzig: VEB, Verlag

- Enzyklopädie Leipzig.
- Hermans, T. (1999). *Translation in systems. Descriptive and System-oriented Approaches Explained*. Manchester: St. Jerome Publishing.
- Hermans, T. (2002). *Crosscultural Transgressions: research models in Translation Studies II: historical and ideological issues*. Manchester: St. Jerome Publishing.
- Hunt, P. (2004). *International Companion. Encyclopedia of Children's Literature*. London: Routledge.
- Hürlimann, B. (1982). *Tres siglos de literatura infantil europea*. Barcelona: Editorial Juventud.
- Igerabide, J. K. (1993). *Bularretik mintzora: haurra, ahozkotasuna eta literatura*. Donostia: Erein.
- IXA taldea (2007). "Testu-corporak: ezaugarriak, eraketa eta tresnak" in *Administrazioa Esukaraz*. 15-29.
- Jaka, A. (2012). *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*. Villatuerta: Euskaltzaindia – IKER 28.
- Jianzhong, X. (2003). "Retranslation: Necessary or Unnecessary" in *Babel* 49. 193-202.
- Keller, D. E. (1994). *Die Abtönungspartikeln im System der deutschen Sprache und ihre französischen Entsprechungen. Unter besonderer Berücksichtigung der Partikel ja*. https://www.diane-keller.de/uploads/Abtoenungspartikeln_Inhaltsverzeichnis_und_Einleitung.pdf Azken kontsulta-data: 2013ko otsailak 10.
- Klingberg, G. (1986). *Children's fiction in the hands of the translators*. Lund: CWK Gleerup.
- Klingberg, G., Orvig, M. eta Amor, S. (1978). *Children's Books in Translation: the situation and the problems. Proceedings of the 3rd Symposium of the IRSCL, 1976*. Stockholm: Almquist & Wiksell International.
- Köster, R. (2003). *Eigennamen im deutschen Wortschatz*. Berlin: Gruyter.
- Kreller, S. (2007). *Englischsprachige Kinderlyrik - Deutsche Übersetzung im 20. Jahrhundert*. Frankfurt a.M.: Peter Lang.
- Kristóf, E. (2005). *Abtönungspartikeln in Wörterbüchern. Präsentiert anhand der Lemmazeichen aber, ja und schon*.

- http://ganymedes.lib.unideb.hu:8080/dea/bitstream/2437/78049/3/de_2411.pdf Azken kontsulta-data: 2013ko otsailak 10.
- Kromp, I. (2008). *Eigennamen in der deutschen und polnischen Kinderliteratur unter textlinguistischen und translatorischem Aspekt*. Frankfurt a.M.: Peter Lang.
- Lambert, J. eta van Gorp, H. (1985). "On describing translations" in Theo, H. (ed.). *The manipulation of literature: studies in Literary Translation*. London/Sydney: Croom Helm.
- Larringan, L. M. eta Idiazabal, I. (2008). "Ahozko hizkuntzari antza hartzeko hiru gogoeta" in *Euskalgintza XXI. mendeari buruz XV. Biltzarra. Hizkuntza Gaiak 19*. Bilbo: Euskaltzaindia. 29-38.
- Lathey, G. (2006). *The translation of children's literature: a reader*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Lathey, G. (2010). *The role of translators in children's literature*. New York/London: Routledge.
- Lopez, J. M. (2000). *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Lopez, J. M. (2004). "Mesa redonda sobre traducción." in *Behinola 1999-2004*. 15-43.
- Lopez, J. M. (2005). *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Lopez, J. M. (2006). *Literaturak umeei begiratu zienean*. Iruña: Pamiela.
- Lopez, J. M. eta Etxaniz, X. (2005). *90eko hamarkadako Haur eta Gazte Literatura*. Iruña: Pamiela.
- López, R. (1990). *Introducción a la Literatura Infantil*. Murcia: Universidad de Murcia.
- Lorenzo, L. eta Pereira, A. M. (2000). "Tratamiento del lenguaje del niño y de sus juegos en la traducción: The Giver y sus versiones en español y gallego." in *TRANS 4*. 135-139.
- Luft, Y. (2007). *Die Bedeutung von Namen in Kinderbüchern: Eine Studie zur literarischen Onomastik im Spannungsfeld zwischen Autor und Leser*. Duisburg: Universitätsverlag Rhein-Ruhr OHG.
- Luna, A. eta Montero, S. (2006). *Traducción e Política editorial de Literatura infantil e xuvenil*. Vigo: Universidad de Vigo.

- Manterola, E. (2012). *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa*. http://www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/tesis/Humanidades/ELIZABETE_MANTEROLA.pdf Azken kontsulta-data: 2013ko otsailak 22.
- Marcelo, G. (2007). *Traducción de las referencias culturales en la literatura infantil y juvenil*. Frankfurt a. M.: Peter Lang.
- Marcelo, G. (2002). "Verschiedene Arten von Domestizierung bei den Übersetzungen von Büchern von Christine Nöstlinger ins Spanische" in Ruzicka, V. (ed.). *Kulturelle Regionalisierung in Spanien und literarische Übersetzung Studien zur Rezeption deutschsprachiger Kinder- und Jugendliteratur in den zweisprachigen autonomen Regionen Baskenland, Galicien und Katalonien*. Frankfurt a. M.: Peter Lang.
- Marin, M. (2008). "La traducción indirecta de la narrativa china contemporánea al castellano: ¿síndrome o enfermedad?" in *Revista de historia de la traducción* 2. <http://www.traduccionliteraria.org/1611/art/marin.htm> Azken kontsulta-data: 2013ko apirilak 3.
- Marrero, V. eta García, M. J. (2008). "Oralidad y escrituradad en la traducción del coloquio literario" in Pascua, I. (ed.). *La formación de traductores e Intérpretes: aproximación interdisciplinar*. Las Palmas de Gran Canaria: Universidad de Las Palmas de Gran Canaria.
- Martí, J. L. (2005). "Estudio descriptivo y comparativo de las normas de traducción en las versiones doblada y subtitulada al español del filme Monsters' Ball." in *Puentes* 6. 45-52.
- Martí, J. L. (2006). *Estudios empírico y descriptivo del método de traducción para doblaje y subtitulación*. Universitat Jaume I.
- Martinez, E. (2006). *Euskara-Alemana Hiztegia, Deutsch-Baskisch Wörterbuch*. Donostia: Elkar.
- Mayoral, R. (1997). *La traducción de la variación lingüística*. Universidad de Granada.
- Montero, S. (2002). "Galicische Übersetzung von Max und Moritz" in Ruzicka, V. (ed.) *Kulturelle Regionalisierung in Spanien und*

literarische Übersetzung Studien zur Rezeption deutschsprachiger Kinder- und Jugendliteratur in den zweisprachigen autonomen Regionen Baskenland, Galicien und Katalonien. Frankfurt a. M.: Peter Lang.

- Moya, V. (2000). *La traducción de los nombres propios.* Madrid: Cátedra.
- Moya, V. (2004). *La selva de la traducción.* Madrid: Cátedra.
- Neuland, E. (2007). "Subkulturelle Sprachstile Jugendlicher heute. Tendenzen der Substandardisierung in der deutschen Gegenwartssprache" in Neuland, E. (ed.). *Jugendsprache, Jugendliteratur, Jugendkultur.* Frankfurt a.M.: Peter Lang. 131-149.
- Nikolajeva, M. (1996). *Children's Literature Comes of Age.* New York: Garland.
- O'Connell, E. M. T. (2003). *Minority Language Dubbing for Children: Screen Translation from German to Irish.* Berna: Peter Lang.
- Oittinen, R. (1993). *I am me - I am other: on the dialogics of translating for children.* Tampere: University of Tampere.
- Oittinen, R. (2004). *Traducir para niños* (itz. Pascua, I eta Marcelo, G.). Gran Canaria: Universidad de las Palmas de Gran Canaria.
- Oittinen, R. (2006). "No innocent act: on the ethics of translating for children" in Van Coillie, J. eta Verschueren, W.P. (ed.). *Children's Literature in Translation.* Manchester: St. Jerome.
- O'Sullivan, E. (2000). *Kinderliterarische Komparatistik.* Mörlenbach: Universitätsverlag C.Winter Heidelberg.
- O'Sullivan, E. (2003). "Narratology meets Translation Studies, or, The Voice of the Translator in Children's Literature." in *Meta* 48. 197-207.
- Pascua, I. (2006). "Translating cultural references: the language of young people in literary texts" in Van Coillie, J. eta Verschueren, W.P. (ed.). *Children's Literature in Translation.* Manchester: St. Jerome.
- Pérez, M. (2005). "Una aproximación intertextual al viaje de Harry Potter por la cultura vasca" in Romana, M.L. (ed.). *II AIETI. Actas del II Congreso Internacional de la Asociación Ibérica de Estudios de Traducción e Interpretación.* Madrid, 9-11 de febrero de

2005. Madril: AIETI. 989-1004.
- Presas, M. (2003). "Estudio crítico de la traducción al catalán de *Liebe Susi!, Lieber Paul!*" in Ruzicka, V. eta Lorenzo, L. (koord.). *Estudios críticos de traducción de literatura infantil y juvenil. Análisis de las traducciones de obras inglesas y alemanas a las cuatro lenguas oficiales en España. Tomo I.* Oviedo: Septem Ediciones. 181-197.
- Prüfer, I. (1995). *La traducción de las partículas modales del alemán al español y al inglés.* Frankfurt a. M.: Peter Lang.
- Rieken-Gerwing, I. (1995). *Gibt es eine Spezifik kinderliterarischen Übersetzens?* Frankfurt a. M.: Peter Lang.
- Ringmar, M. (2006). "Roundabout Routes: Some remarks on indirect translations" <http://www2.arts.kuleuven.be/info/bestanden-div/RINGMAR.pdf> Azken kontsulta-data: 2013ko martxoak 15.
- Ringmar, M. (2008). "Von indirekten zu direkten Beziehungen im finnisch-isländischen Literaturtausch" in *trans-kom* 1. 164-179.
- Roche, G. (1991). "The Persistence of French Mediation in Nonfiction Prose" in Kittel, H. eta Frank, A.P. (ed.). *Interculturality and the Historical Study of Literary Translations.* Berlin: Erich Schmidt Verlag.
- Ruzicka, V. (ed.) (2002). *Kulturelle Regionalisierung in Spanien un literarische Übersetzung.* Frankfurt a.M.: Peter Lang.
- Ruzicka, V. (ed.) (2003). *Análisis de las traducciones de obras inglesas y alemanas a las cuatro lenguas oficiales en España.* Oviedo: Septem.
- Sarasola, I. (2006). *Euskal Hiztegia.* Donostia: Elkar.
- Scheffler, G. (2000). *Schimpfwörter im Themenvorrat einer Gesellschaft.* Marburg: Tectum Verlag.
- Shavit, Z. (1986). *Poetic's of children's literature.* Athens/Georgia: University of Georgia Press.
- Shavit, Z. (1992). "Editor's Introduction." in *Poetics Today* 13-1. 1-5.
- Spokiene, D. (1997). *Zu den Abtönungspartikeln in Franz Kafkas Erzählung Die Verwandlung.* Ottawa: National Library of Canada.

- Sturge, K. (2002). "Censorship of Translated Fiction in Nazi Germany" in *TTR* 15-2. 153-169.
- Surmatz, A. (2005). *Pippi Langstrump als Paradigma -die deutsche Rezeption Astrid Lindgrens und ihr internationaler Kontext-*. Tübingen: Narr Francke Attempto.
- Tabbert, R. (1991). "Bilderbücher zwischen zwei Kulturen" in Tabbert, R. (ed.). *Kinderbuchanalysen II, Wirkung-Kultureller Kontext-Unterricht*. Frankfurt a. M.: Dipa.
- Tabbert, R. (1996). "Forschungen zur Übersetzung von Kinderliteratur (1975-1995)" in Ewers, H.-H. (ed.). *Kinder- und Jugendliteraturforschung 1995/96*. Stuttgart: Metzler.
- Tabbert, R. (1998). "Swimmy, The BFG und Janne min vån: Bücher aus fremden Sprachen, ausgezeichnet mit dem Deutschen Jugendliteraturpreis" in Hurrelmann, B. eta Richter, K. (ed.). *Das Fremde in der Kinder- und Jugendliteratur*. Weinheim/München: Juventa Verlag.
- Torrealdai, J. M. (2005). "Euskal Liburugintza, 2003" in *Jakin* 146-147 (urt-api).
- Torrealdai, J. M. (2008). *30 urte liburugintzan*. Andoain: Jakin-Beha.
- Toury, G. (1980). *In search of a theory of translation*. Tel Aviv: University of Tel Aviv.
- Toury, G. (1994). "Zielgerichtetheit einer Übersetzung, oder: Warum wurde ein deutscher Schlaraffenland-Text so in die hebräische Kinderliteratur übertragen?" in Ewers, H-H, Lehnert, G. eta O'Sullivan, E. (ed.). *Kinderliteratur im interkulturellem Prozess*. Stuttgart: Metzler.
- Toury, G. (1995). *Descriptive Translation Studies and Beyond*. Amsterdam: John Benjamins Publishing Co.
- Toury, G. (in press). "Culture Planning and Translation" in Alvarez, A. eta Fernández, A. (ed.). *Proceedings of the Vigo Conference "anovadores de nós - anosadores de vós"*. <http://www.tau.ac.il/~toury/works/gt-plan.htm> Azken kontsulta-data: 2013ko otsailak 20.
- Tymoczko, M. (2002). "Connecting the two infinitive orders research methods in Translation Studies" in Hermans, T. (ed.).

- Crosscultural transgressions, Research Models in Translation Studies II, Historical and Ideological issues.* Manchester/Northampton: St. Jerome Publishing, 9-25.
- Uribarri, I. (2006). "Idazki alemanak euskaraz. Katalogoa sortzeko aurrelanak." in Uribarri, I. (ed.). *Kulturartekotasuna literaturan eta itzulpengintzan. Zenbait azterlan.* Bilbo: EHUko argitalpen zerbitzua. 115-133
- Uribarri, I. (2011). "Dialectics of Opposition and Construction: Translation in the Basque Country." in *Translation and Opposition.* Bristol: Multilingual Matters. 247-264.
- Uribarri, I. (2011). "Fukuzawa y el pensamiento japonés: tradición, traducción y renovación." in Cid, F. (ed.). *¿Qué es Japón? Introducción a la cultura japonesa.* Cáceres: Universidad de Extremadura. 91-110.
- Uribarri, I. (2013). "Censura(s) en la traducción al/del vasco" in *Quaderns: revista de traducció* (argitaratzeke).
- van Langendonck, W. (2007). *Theory and Typology of Proper Names.* Berlin: Mouton.
- Venuti, L. (1998). "Introduction" in Venuti (ed.). *Translation and Minority.* Wiltshire: St. Jerome. 135-144.
- Venuti, L. (2004). *The Translation Studies Reader.* New York/Londres: Routledge.
- von Stackelberg, J. (1984). *Übersetzungen aus zweiter Hand.* Berlin/New York: Walter de Gruyter.
- Vural, S. (2001). *Der Partikelgebrauch im heutigen Deutsch und im heutigen Türkisch. Eine kontrastive Untersuchung.* Mannheim: MATEO.
- Waltereit, R. (2006). *Zur Pragmatik und historischen Semantik von Modalpartikeln und ihren funktionalen Äquivalenten in romanischen Sprachen.* Kempten: Max Niemeyer Verlag.
- Wild, R. (ed.) (2008). *Geschichte der deutschen Kinder- und Jugendliteratur.* Stuttgart: Metzler.
- Wunderlich, R. (1992). "The Tribulations of Pinocchio: How Social Change Can Wreck a Good Story" in *Poetics Today* 13-1. 197-221.

- Zabaleta, J. M. (1991). "Hedadura txiki eta ertaineko hizkuntzetako itzulpena aztertzeko zenbait aldagai bakantzeko saioa" in *Senez* 2-3. 17-37
- Zuazo, K. (2006). *Euskara Batua: ezina ekinez egina*. Donostia: Elkar.
- Zubeldia, I. (2011). "Euskarazko haur eta gazte literaturaren bilakaera" in *EGAN* 2011-1/2. 183-210.
- Zubillaga, N. (2012). "A corpus based descriptive study of German children's literature translated into Basque: Preliminary results" in Fischer, M. eta Wirf, M (ed.) *Translating Fictional Dialogue for Children and Young People*. Berlin: Frank&Timme. 81-99

